

Jakintza-arloa: Kazetaritza

# Euskal prentsa herri- proiektua da

Egilea: JESUS MARI ZALAKAIN GARAIKOETXEA

Urtea: 1992

Zuzendaria: NIKOLAS XAMARDO GONZALEZ

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8428-261-4

## Hitzaurrea

Nik nire tesia osatu nuenean (“Euskal prentsa herri proiektua da”, 1992) beste bat bakarrik zegoen defendatuta (Javier Diaz Noci, “Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena”, 1992). Geroztik beste bost osatu dira UPV-n, nik dakidala: Sarasua, Jon (1996) “Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari: gaiari egindako gainbegiratu eta euskarazko kazetaritzaren tradizioko lau kazetatan hitz eta esamoldeen hustuketa kualitatiboa”; Aranguren, Asier (2000) “Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian”; Zuberogoitia, Aitor (2003) “Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean”; Camacho, Idoia (2006) “Herri aldizkarien funtzioak euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999”; Aiestaran, Alazne (2007) “Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema: tokian tokiko aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean”.

Tesi horien artean Aranguren, Aiestaran eta Camachok herri-aldizkariak edo prentsa lokala dute aztergai; Sarasuak, Camachok eta Zuberogoitiak neurri batean, euskararen kalitatea, normalkuntza eta presentzia bera. Baina inork ez du aztertu euskal prentsa zer den, zeri deitzen zaion horrela, nire iritziz alde zurreko galdera dena, hain justu. Egia esateko, Zuberogoitiaren tesian badago kezka hori, eta proposamen bat egitera ausartzen da, izan ere bere lanaren bigarren parte da “...euskara hutsezko komunikazio-esparru autozentratua trinkotzeko proposamena”. Bego.

Nirera etorritz, eta soilik funtsa nabarmentzeko, tesiaren gaia ez da kazeta bat edo batzuk aztertzea, hizkuntzari erreparatuz, edo kazetaritzaren ikuspegi hutsetik begiratuta. Areago eta sakonago (agian bakarrik lehenago) euskal prentsa aipatuz zer ulertu behar den, zer izendatzeko balio duen aztertu nuen. Eta galdera horren emaitza da euskal prentsa proiektu bat dela (kazetaritza-produktu bat baino lehen), proiektu hori herri-proiektua dela (herriaren oinarri-oinarritik sortutakoa), proiektua nazionala dela, eta beraz politikoa nahiz eta ez alderdikoa (herriari nazio bihurtzen lagunduko diona); gainera, kazetaritza-proiektu bat dela (hots, bere eremu propioa, kazetaritza, gainditu gabe mamitu behar den proiektua), eta euskara hutsezko proiektua Euskal nazioari dagokion neurrian.

Tesia bera argitaratu gabe dagoen arren, “Joxemiren uzta” izeneko liburuan (Txalaparta 1993) ageri dira haren mamia zein azalpenak oro, aldi berean eta bide batez (aparatu akademiko gehiena hustuta) omen egiten zaio Joxemi Zumalabe Goenagari, bera izan zelako euskal prentsa herri-proiektu gisa bideratzen lagundu zuen eragile nagusia, “bihotza era motorra”.

Izen hori aipatuta, tesiaren bigarren emaitza adierazi nahi dut, alegia, Euskaldunon Egunkaria atera arte ez dela egon euskal prentsarik, kazetaritza-proiektu nazional gisara ulertuta kontzeptu hori, edo Euskal Herria nazio euskaldun bezala, prentsa idatziaren alorretik (eta soilik hortik) gauzatzen lagunduko duen herri-proiekturik. Oso aspaldikoa da euskara prentsan sartzeko ahalegina (1766koa); oso aspaldikoa ere euskara hutsezko produktuen soka (haria esan beharko genuke, horren mehea dela konturaturik; ikusi Maria Gonzalez Gorosarriren “Euskal Herriko prentsa: XVIII. mendetik

1945era”, UEU, 2008). Oso zaharra, era berean, prentsan euskara beste hizkuntza nagusiago baten ondoan emateko joera (zaharra bezain antzua euskara hutsezko prentsa eraikitzeke).

Baieztapen hauei oinarri teorikoa emateko, Alain Badiou filosofo frantziarraren liburuetara jo dut (batik bat: *L'Être et l'Événement*, Du Seuil, 1988; *Théorie du sujet*, Du Seuil, 1982). Haren metodoa aplikatuz, jakin ahal izan dut euskal prentsak gertakizun batean duela sorrera (epealdi historiko berri baten lehen urratsa), eta hori 1976an finka daitekeela, Euskal Kazetaritzaren urtean, non Zeruko Argiak eta Anaitasunak “gu gara euskal prentsa” aldarrikatu zuten. Gertakizun horren haritik beste bi data azpimarratu behar dira: a) Argiaren sorrera, 1980; eta b) Euskaldunon Egunkariaren jaiotza, 1990, non euskal prentsaren proiektua mamitzen den, ia 15 urteko haurgintza-minetan.

Gertakizunak egoera finkatu batekin eteten du (gure kasuan prentsa diglosikoaren nagusitasuna), gerora gauzatuko den apustu bat egiten du (gu gara euskal prentsa, Euskal Herriko prentsa bakarra, herri euskaldunaren prentsa), eta hasierako une harekiko fideltasunean du arrakasta posible bakarra.

Proiektu horrek, jaio aurretik eta ondoren izandako zailtasun eta oztopoak aztertzen ditut tesian banan-banan, batik bat Jaurlaritzatik nozitutako erasoak, Juan Maria Atutxa eta Joseba Arregiren eraginez bereziki, zeinek, besteak beste, proiektua ETArekin identifikatuz fede txarrez, haren itxierako bidea ireki zioten Espainiako agintariei.

“Tesi hau manifestu bat da” esan zuen, gero *cum laude* eman zion tribunaleko kide batek, Mar Fontcuberta katedradun katalanak, eta halako zerbait dela esan daiteke, izan ere euskal prentsaren fundazio-unea zein den eta horren ondorioak ateratzen saiatzen baita.

Jexuxmari Zalakain  
Euskal preso politikoa  
2009

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**EUSKAL PRENTSA  
HERRI-PROIEKTUA DA**

**DOKTOREGO TESIA. Jesus Maria Zalakain Garaikoetxea. 1992**

**Zuzendaria. Nikolas Xamardo González Doktore Jauna.**



Euskal Prentsa egiten saiatzen diren  
guztiei,  
bereziki,  
bizitza emateraino iritsi  
direnei;  
beraiei esker bait dakigu  
(prentsan ere)  
euskararen aldeko apustua egitea  
posible dela.

# AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b>	<b>I</b>
<b>AITZINSOLASA</b>	<b>1</b>
<b>I. ATALA: SINTOMATIK EGIARA</b>	<b>18</b>
1.1. ARGIAk elkarrizketa Zarraoari	18
1.1.1. CIESen datuak eta Zarraoaren esanak	22
1.2. Elkarrizketa sintomatikoa	26
1.2.1. Kontzeptu baliokideen garbiketa	27
1.2.2. Sintomaren zehaztapena	29
1.2.3. Zarraoa galbahean: gezurra	31
1.3. Jakitea ez da Egia harrapatzea	42
1.3.1. Egia eta "antzeko" eremuak	52
1.4. Zenbait ondorio	57
<b>II. ATALA: EGIAREN EFEKTUAK (1)</b>	
<b>Ordezkapena eta luzamendua</b>	<b>61</b>
2.1. Elkarrizketaren kokagune-faseak	62
2.1.1. Polemika berpiztua	63
2.1.2. CIESi enkargu (1988-VI-1)	68
2.2. Euskal prentsa- Jaurlaritza, gatazka nagusi	73
2.2.1. Ordezkapen-politika	77

2.2.2. Luzamendu-politika .....	91
2.2.2.1. Ajentziaren lehentasuna .....	92
2.2.2.2. Astegunkarien urratsa .....	98
2.2.2.3. CIES: alferrikako inkesta .....	107
2.2.2.3.1. CIESen ondorio nagusiak .....	110
2.2.2.3.2. Aldizkariak .....	110
2.2.2.3.3. Balizko euskal egunkaria .....	113

### **III. ATALA: EGIAREN EFEKTUAK (2)**

#### **Plangintzarik gabeko laguntza ..... 124**

3.1. Subentzio-politika .....	124
3.1.1. Kriterioak eta zifrak .....	125
3.2. Proposamen berriak .....	137
3.2.1. ARGIAtik EHko Aginte Publikoei (1983) .....	137
3.2.2. ARGIAtik Jaurlaritzara (1987) .....	140
3.2.2.1. Zenbait datu adierazgarri .....	143
3.2.2.2. Azpiegitura .....	146
3.2.2.3. Lanaren etekin frogatua .....	147
3.2.2.4. Defizitariotasuna .....	148
3.2.2.5. Diru-laguntzak eta erizpideak .....	149
3.2.2.6. Plangintzaren premia eta eskea .....	150

### **IV. ATALA: EGUNKARIA IRTENBIDE**

#### **Porrota eta erabakiaren artean ..... 163**

4.1. Porrotaren bidea .....	165
-----------------------------	-----

4.1.1. Euskal Kazetaritzaren Urtea (1976).....	165
4.1.1.1. Euskal Kazetaritza, euskaraz .....	170
4.1.1.2. Astekariaren ordua .....	171
4.1.2. Elebitasuna, salbatzaile .....	176
4.1.3. Etsipena eta erreakzioa .....	184
4.2. Erabakiaren bidea.....	192
4.2.1. Porrotaren teorizazioa .....	194
4.3. Egunkariaren premia.....	200
4.3.1. Porrotaren bidetik.....	202
4.3.2. Erabakiaren bidetik .....	207
4.4. Eztabaidaren txanda .....	210
4.4.1. Egin-Deia proiektuak .....	216

## **V. ATALA:HASIERAN EUSKAL PRENTSA IZAN ZEN..... 219**

5.1. Guda-landa edo gatazkaren eskenatokia .....	223
5.1.1. Egoeraren mugaketa.....	224
5.1.1.1. Egoera diglosikoa.....	227
5.1.1.2. Prentsa idatziaren egitura .....	235
5.1.3. Kontraesanaren bitasuna .....	250
5.1.4. Indarren arteko dialektika .....	253
5.1.4.1. Indar subjektiboa eta objektiboa .....	255
5.1.4.2. Indarren dialektikaren aplikazioa.....	257
5.1.5. EP anitzgunearen aldebitasuna .....	261
5.1.5.1. Egitura eta mugimendu-aldeak .....	261
5.1.5.2. Euskaltasuna eta prentsatasuna .....	265
5.2. EPk gertakizunean du abiapuntua .....	267

5.2.1. Gertakizuna zertan den .....	268
5.2.1.1. Gertakizunaren atalak .....	270
5.2.1.2. Euskal Prentsaren atalak .....	272
5.2.2. Gertakizunaren osagarriak .....	275
5.2.2.1. Enuntziazio-nominazioa .....	276
5.2.2.2. Etena .....	280
5.2.2.3. Metatze-prozesua .....	281
5.2.2.4. Leialtasuna .....	284
5.2.3. Subjektuaren zertzeladak .....	287
5.2.4. Gertakizun-gune eta lekua .....	291
<b>VI. ATAL: KATEA EZ DA ETEN .....</b>	<b>299</b>
6.1. Sabino Arana, politika lehenago .....	300
6.2. Azkue, kultura hutsa .....	307
6.3. Sabinoren hilondokoak, bietan (berdin) jarrai .....	310
6.3.1. Aberri saila .....	311
6.3.2. Euskalduna-tik Euzkadira .....	313
6.3.2.1. Euskalduna .....	314
6.3.2.2. Euzkadi aldizkaritik egunkarira .....	316
6.3.3. Euskarazko salbuespenak .....	319
6.3.3.1 Euzko Deya (1916-23) .....	320
6.3.3.2. Euzko (1932-34) ; Ekin (1932-36) .....	324
6.4. Elebitasun diglosikoz .....	327
6.4.1. X. hamarkadatik, 1923ko Diktaduraraino .....	329
6.4.1.1. Eusko Ikaskuntza .....	334
6.4.1.2. Hermes .....	338

6.4.1.3. Bi euskarazko: Z. Argia eta Argia .....	342
6.5. Diktaduratik Gurutzadaraino .....	349
6.5.1. P. Riveraren hatzaparretan: Euskaltzaleak.....	349
6.5.2. Diktaduratik II. Errepublikaren barrena.....	354
6.5.3. Lizardiren saio hura .....	360
6.5.3.1. Prentsa bai baina eskola lehenago.....	362
6.5.3.2. Eskola galazota, prentsa nahiago .....	364
6.5.3.3. El Día, apustu-ezaren ondorio.....	375
6.6. Eguna, euskarazko egunkaria gerran .....	384
6.7. Euskal Egunkariaren premia eta eskea .....	394
6.8. Gerraondoko basamortuan: Euzko Gogoia .....	400
6.9. Berrogeita hamargarren hamarkadan .....	403

**VII. ATALA. EUSKALDUNON EGUNKARIA,  
EZEZAGUNAREN MINTZOA .....407**

7.1. Egunkaria Sortzen, inizatibaren zama .....	410
7.1.1. ES, herri-indarrak biltzen.....	413
7.1.2. Lehen erreakzioak .....	420
7.1.3. Jaurlaritza oztopoka .....	425
7.1.3.1. Bitasunaren aitzakitan.....	428
7.1.3.1.1. Belokiren taldea .....	430
7.1.3.1.2. Arregiren aukera .....	436
7.1.3.1.3. Partiduen jarrera .....	440
7.2. ES-Jaurlaritza: betiko gatazka.....	448
7.2.1. ES-en hamaika aginduak.....	449
7.2.1.1. Eta beste zenbait osagarri.....	459
7.2.2. Beloki-kideen egunkari osagarria .....	463

7.2.2.1. Euskararen multimedia .....	469
7.2.2.2. Txoko guztietara heldu beharra .....	472
7.2.2.3. Matizazioen ordua.....	474
7.3. Bi proiektuen arteko harreman ezinezkoak.....	478
7.3.1. ES-en ahalegina .....	479
7.3.2. EAEko Administrazioaren joera .....	481
7.3.2.1. ENAMekiko (ezinbesteko) identifikazio (okerra) .....	486
7.3.3. Bi kontzeptu nahasi: publikoa eta zabala.....	500
7.3.3.1. Publikoa eta pribatua.....	500
7.3.3.2. Zabaltasun-irekitasuna .....	510
<b>KONKLUSIO ETA ONDORIOAK .....</b>	<b>521</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>530</b>

## **AITZINSOLASA**

Lan hau bizikizun batean du abiapuntu eta adierazpide. Eta hori bi zentzutan: batetik, nire bizitzari dagokiolako; bestetik, nire bizitzan entzundako, adierazitako eta uste osoz urtetan onarturikoa azaltzen duelako. Beraz, lan hau, aztergai izan aurretik, pertsonalki bizi izandako zerbait (izan) da. Bertan, nire ondo-ondoan gertatutakoa garatzen da. Neronek maite izandako zerbait agertzen da. Beste era batera esateko, esplikazio lojiko eta sistematikoa izan aurretik, bizi izandako zerbaiten berri ematen da lan honetan. Esplikazioa, noski, zuzenagoa ala okerragoa, atseginago ala traketsago burutua izan daiteke, baina bizikizuna hortxe dago: zati bat agerian, beste bat ilunxeago, baina benebenetakoa bere izate transferiezinean.

Euskal Prentsaren bizikizuna da hemen aztertzen dena. Eta ez dut esan nahi beronen testigurik hoberena edo aparta naizenik. Izan ere nik ez dut inoiz lanik egin euskara hutsezko aldizkari edota egunkaritan. Alderantziz, egunkari elebidun-diglosiko batean aritu naiz laupabost urtetan. Bihotza, ordea, -eta hori neuk bakarrik aitor dezaket-, erdibituta izan dut: lanbidetzat egunkari elebikoa izanagatik, gogoia eta ilusioa euskara hutsezko egunkarian izan dut. Betidanik.

Jaio baino lehen maite dut euskarazko egunkaria. Guraso zein izango zen jakin aurretik, haur horrentzat zein izan zitekeen egokiena aukeratua nuen. Ama izan dena neureganatzeko ez naiz gauza izan, baina ezkutuka maite izan dudala esan dezaket orain, publikoki eta idatziz, duda izpirik gabe. Lotsa alde batera, urrerantzean neuregan bihotz prestua aurki dezakeela ere bai.

Larogeigarren hamarkadaren lehen zatian (1982-86) izan naiz kazetari *Egin*-en. Euskal Prentsaren unerik txarrenak ezagutu ditut parte zuzena izan gabe: *Anaitasunaren galera*, *Argia* et Eusko Jaurlaritzaren arteko gatazka, bi aldizkari horien arteko indarren bategitea, *Hemen-Egunaren* plazaratze engainagarria. Urte horietan, hain zuzen, euskarazko egunkariari buruzko debateetan parte hartzen zuten "lau predikari zoro" haietako bat izan naiz.

Baina gertakizuna ni ohartu aurretik emana zen. 1976.eko gertakizunetik sortu uholdeak harrapatutako bat izan naiz ni. Atzerritik etorri berria nintzen eta -zergatik jakin barik- "*Euskal Prentsaren begi politek*" zorabiatuta ninduten. Agian eta ordurako egina nuelako euskaraz bizitzeko erabaki pertsonala. Halako batean, "*euskara salbo ikusi arte ez dut moztuko bizarra*" entzun nion Aralarreko San Migelen gerizpean kantuan ari zen tximaluze ezezagun bati, eta ordutik daramadana, urdindurik dut dagoeneko. Arrabots hunkigarri hartan hasi nituen betidanik nahi izandako kazetaritza ikasketak.

Zuzenean ezagutu ez nuen gertakizunak ukituta bizi izan naiz geroztik. Artean, izan zenik ere ez nenkien. Halere, beste edozeren gaintik adimena horretara jarria ibili naiz. Zilegi bekit esatea Euskal Prentsako langileek eman didatela nire bizitza profesional laburrean, dedikazio eta bokazio-exenplurik sinisgarriena. Konfidantza-iturriaren lekukotza

erabatekoa jaso dut haiengandik, ustez irteerarik gabeko bidean abiaturik, eskerron handirik gabeko lanbide nekosoan ari ziren langile haiengandik.

Ez ditut erraz ahantziko euskarazko aldizkarietan ari(tu) diren langileak. Ez dut izenik aipatuko, eurek esanahi indibiduala baino gehiago maite bait dute esangura kolektiboa. Halere, istripuz jota errepidean betirako geratu zitzaigun *Bartolo* ez dut aipatu gabe utzi nahi. Iñigo zuen izena. Makazaga, abizena. Baina *Bartolo* zen guztiontzat. Kazetaritza Fakultateko klaseetan, Leioan, izan nuen ikasle, baina neuk ikasi nuen gehiago berarengandik berak nigandik baino. Euskal Prentsaren kazetari modernoaren paradigma zen: bere lanera osoki emana, nekazina, zintzoa, leiala. Galde egin bere inguruan ibili zirenei! Lehenago eta geroztik izan da besterik, jakina. Asko izan dira Euskal Prentsaren helburu bila buru-belarri sartu eta beren kazetari-grina eskainiz, etsipenean erortzeko astirik gabe, langile beteranoen esperientzia jaso eta bateginik, guztion artean bultzada berria ekarriz, *Euskaldunon Egunkaria* errealitate bihurtu dutenak.

Euskal Prentsa horrek, beste inongo kazetarik euskara mailan sortaraz zezakeen aldeko jarrerarik eskuzabalenak sortarazi ditu. Lan eta ogibide nuen egunkariak abertzalegoaren mailan piztu duen adorea parekoa izan da Euskal Prentsak 1967.etik euskararen aldera ekarri duena. Biak, baina, ez dira ondoegi konpondu aipatu urte haietan. Eta honetxek ere, zartatu egin du nire bihotza.

Lan profesionala gaitz madarikatu batek hautsia, eta ondorioz UPVn kokaturik, zuzen-zuzenean bizi dut *Euskaldunon Egunkariaren* sortze-prozesua, bertan lan egitea gaitz berberak eragotziarren. Bizikizun hau egiten nuela, beste gertakizun gozo-garratzean (denek dute biotik) hartu dut parte: UPVko lan-kontratuaren gertakizuenan hain zuzen ere.

Eta bizikizun honek -hau bai zuzenean halajainkoa!- aurreko hura -orain aztergai dudan Euskal Prentsa- ulertzeko kontzeptuak eman dizkit.

Hau, noski, ez da besterik gabe suertatu. Bizikizun unibertsitario hau intimoa izan ez dela, publiko-politikoa baizik, esperientzi berdinean parte hartu duten beste zenbait kide izan ditut bidelagun. Bizikizun konpartitu eta elkarrekin hausnarturiko horren emaitz da, hein handi batean, tesi-lan hau. Apustu egiteak, erabakitasunez aritzeak eta prozesuan konfidantza edukitzeak duen garrantzia aitor dezaket orain. Egituraren zamak proiektu berriak aurrera ateratzeko dakarren astuntasuna ikusi dut nabarmen asko. Ustez bidelagun direnak, une batez oztopoarren bihurturik, barnekaldean kanpoaldean baino mingarriago agertzen dela etsaia ere bai, ikusi dut; etenik bait gaude guztiok. Nolabaiteko egituratzea ezinbestekoa izanik (nola, bestela, abstrakzioetik jaitsi?), desegituratzea ere halabeharrezkoa egiten da egoera positiboki aldatzeko. Eta barne-prozesu dialektiko horren labean egosten da opil berria.

Bi gertakizun eta beroriekin lotutako leialtasun/desleialtasunen historiak ez dira inoiz berdinak izaten, kondizio objektiboetatik haratago bait doaz subjektuen jokabideak. Baina gertakizunen etorkizuna (edo hobeto esanda, zirkulazioan jartzen duen egiaren etorkizuna), edozeren gainetik, subjektu politikoen esku dagoela ikusi dut. Historiaren berritasun-ahalmena (eta, ondorioz, aurrekoaren bariante hutsean ez jausteko baldintza) elementu guttien egituratuen eskutan dago, horiek bait dira garrantzia egitura betirakoa izan ez dadin. UPVn emandako gertakizunetik ulertu dut, bada, nik euskarazko prentsan gertatutakoa. Geroztik, 1976.ean kokatu ahal izan dut Euskal Prentsaren sorrera.

Segitu aurretik, eskerronen atala zabaldu nahi dut. Berezik *"Erabakia"*, *"Haizea"* eta *"J. Agirre"* kolektibo unibertsitariotako kideei eta *"Ertza"* kandidaturakoei. Beraien

tinkotasun pertsonalik gabe eta erakarpenik gabe ulertezina da nire tesi-lan hau. Dozenaka ordu sartu ditugu hausnarketa, gogoeta eta eztabaidan. Nire galbahetik pasatakoa da orriotan azaltzen dena. Irinaren artean ba dago galtzu-arrastorik, jakina, eta barkamenik baino ez zait otutzen. Lagun multzo hau aurkitzea bizitzaren barna, ustekabez, gertatzen diren koinzidentzi erabakior horietakoa da. Gertatu, gerta daitezkeen lekuan egoten denari gertatzen zaizkio. Eta, izatekotan, hor egotea izan daiteke nire meritu bakarra.

Ordurako, guztiz ezinezkoa egiten ari zitzaidan lanaren norabidea aurkitzea. Izan ere 1988an matrikulatua nuen nik nere tesirako proiektua: Euskarazko prentsa, egitasmo eta errealitate. Urte horretan bertan abiatu zen UPVko gertakizuna. Lehenengoz, euskarazko prentsan, historian zehar egin dena jaso eta sistematikoki biltzea nuen helburu. Xedeak, zabal xamarra izan arren, merezi zuelakoan nengoen. Saileko ikertzaile batekin kontsultatu ondoren, artean antzeko zerbait egin gabe zegoela ikusirik, beldurrik gabe ekin nion lanari. Orduan ezkutatu zidana (jinkoak jakinen du zergatik!), gerora lortutako zehaztapenerako ongari bilakatu da: hau da, orain eta hemen aurkezten dudana Euskal Prentsa herri-proiektua da esan ahal izateko.

Ehun urtetako historiune gatazkatsua alde guztietatik arakatzea ezinezkoa zen, noski. *Medio* bakoitzaren asmo eta proiektuak erreparatzea erabaki nuen, ibilbidean zehar jazotakoa eta aldika eman diren birformulazioak zorrozkiago eta pausatuago behatuz. Horretan ari nintzela (eta betiere aipatutako beste gertakizunean murgildurik) konprenitu nuen *inventarium* bat egitetik sintomak jasoz sakonera jausi egitera dagoen aldea.

Ez dut orain arte esan baina barkaezina litzateke ez aitortzea: orduantxe konturatu nintzen zuzendaria aukeratzean ez nuela hutsik egin. Izan ere, maixu, gidari eta exenplu izan dut aldi berean, azkenean adiskide ere bihurtu zaidan Nikolas Xamardo González

Doktore Jauna eta Kazetaritza Saileko Zuzendaria. Badakit honekin bere apaltasun erabatekoa urratzen dudala; baina hala bedi, behingoz, bere gogotik at, lerrotxook idatziz. Berarekin ikusi dut konpromezukideenganako konfidantza osoz aritzeak duen garrantzia eta horrek fenomeno gatazkatsuak ulertzeko ematen duen ahalmena; itxurak alde batera utzirik eta begirada barnekalderuntz pausatuz, azterketa sintomatikoaren bide labainean barna, zintzotasun osoz, abiatzeak. Saio horren fruitu da, izan ere, testu hau. Bakoitzak (bere aldetik edota amankomunean) bizi izandako gertakizunen berri zehatz jaso eta alderatzeak berebiziko laguntza eman dit Euskal Prentsa ulertzeko. eta ondorioak neurtzeko.

Esan beharra daukat, antzeko bizikizun pertsonalik egin gabe, aparteko zailtasunez josirik ager daitekeela nire lan hau. Gauzarik erabakiorrenak transferiezinak direla esan nahi dut. "*Instint basic*" hori gabe, ez dakit nola konpreni daitekeen hemen idatzi dudana. Ez dut dudatzeko arrazoirik, ordea, irakurtzeko pazientzia izan duenak sentsiberatasun hori ez daukanik pentsatzeko. Sentsiberatasun-ondar hori konektatzea eskatzen dut testua irakurtzeko, gogoratze soilari gehiegikeria eritziko ez zaiolakoan.

Antzeko fenomenoak ulertzeko elementurik erabakiorrenak aipatu ditut orain arte. Baina, idatzitakoa sustatzeko eredurik ere aurkitu dut. **Alain Badiou** filosofo frantziarraren obrak irakurtzea benetako aurkikuntza izan da enetzat. Hori ere goian aipatu kolektiboei zor diet, batez ere testu horietan barna abiatzeko gida. Bibliografian aipatzen ditudan idazlanen irakurketa, gurutzebide izan zait askotan; zirineo egokien laguntzaz, eramangarri ere bai. Makina bat aldiz egin eta desegin behar izan dut testua, diskusio luze eta aberatsen ondoren idatzitakoaz ez bait nuen Badiouren muina behar bezala isladatzen. Definitibotzat emandakoaz beteko al dut xede hori!

Lan honen euskarri teorikoa jasotzeko Alain Badiouren obrak daude, baina bereziki "L'Être et l'événement" (1988) eta "Théorie du Sujet" (1982). Bi-biak nire bizikizun urteetan idatziak. Eta azkenik, "Manifiesto por la filosofía" (1990), filosofiari buruzko balantze paregabea eskaini didana. Lau urtetako filosofi-ikasketak ditut eginak gaztetan, baina ez dut inoiz aurkitu liburuxka honen tamainako trinkotasunik ez eta aurreko bion hainako aberastasun emankorrik.

## Metodologia eta lanaren erritmoa

Hemen aurkezten dudana tesi honek badu bere erritmo propioa, euskarazko prentsan gertatzen ari denaren zentzu sakona usmatzeko premiak eragindako metodologian sustraitua hain zuzen. Izan ere, tesia gauzaten nuen bitartean, 1989.eko Azaroan, indarrez plazaratu zen proiektu historikoari eusteko erabaki herritarra: euskara hutsez izango zen egunkari bat egitea, bi urteren buruan *Euskaldunon Egunkaria* izango zena. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Kontseilariko eledunek hain nabarmenki oztopatu eta deskalifikatu zuten egunkari honen erditze-prozesua, ezen ebidentzia bilakatu zen: zerbait gertatu da nonbait eta noizbait, zeinaren iraupen aktiboak halako bideragabekeriak eragiten dituen. Beraz, tesiaren helburua zerbait hori lokalizatu eta definitzea izango zela erabaki nuen, ondoren aldi osoa periodizatu eta sistematizatzeko.

Ez dut, beraz, eredu teoriko bat aldeztu aurretik hartu eta aplikatu, lortutako datuak parametro horietan egokitzeko. Alderantziz, eskura nituen datuek inposatu zidaten beroriek errektroaktiboki esplikatzen eta etorkizuneruntz proiektatuak izateko gai zitekeen eredu teorikoa bilatzea. Horregatik zehaztu dut hemen tesi honek, zazpi ataletan zehar, duen barne-erritmoa.

**Lehen atalean** ("sintomatik egiara") gertakari xume eta arrunt batetik abiatuz (*Argiako* bi erredaktorek Iñaki Zarrakoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordeari, 1988-X-lean egindako elkarrizketa batetik) egiaren bila jotzen da: ez objektibitate mailako egia,

indarrean dagoen egoeraren urradura egiten duenaren mailakoa baizik; berritasun mailakoa, alegia, Badiouk horrela definitua. Elkarrizketa hura, zirkunstantzia oso konkretutan egin (CIES etxeak, Eusko Legebiltzarraren enkarguz, euskarazko egunkari posible bati buruz azterketa egin eta jaso ondoren Jaurlaritzak gorderik dituen emaitzen jakinminez direnean euskaltzaleak), hamarkada osoan euskarazko aldizkariak eta Eusko Jaurlaritzaren artean ematen ari dena esplikatzeko abiapuntu bihurtzen da. Elkarrizketa hartan esaten dena (adierazia) baino adierazgarriagoa bilakatzen da esatea bera (adierazlea). Kontseilariordea gezurretan ari dela nabarmentzen da, hau da, Euskal Prentsa nominatu denetik datorren egia gorpuztu ez dadin oztopoak jartzen. Gezurra, egitura (politikoa) defendatzeko mekanismotzat hartu behar da. Gezurra ez dagokio izaera psikologikoari, abiapuntuan dagoen egoera politikoari baizik. Kontseilariordea ez da gezurtia zentzu arruntean, egitura politiko autonomikoaren zaintzailea baizik. Eginbehar horrek datu objektiboak (CIESek emandakoak) itxuraldatzeraino darama. Dioena, zentzu objektiboarekiko desegokitasuna adierazteaz gain, azpitik gertatzen ari den beste zerbaiten sintoma da.

Sintomatologia aipatzean, alor linguistikoan signoak, seinaleak, indizeak duten esangura gaindituz, maila psikologikoan -Freudengandik hasita baina bereziki Lacanengan- sintomak erakusten duenaz ari naiz: beste maila bateko egiaren arrastoa aipatzen, alegia. Antolamendu jakin batetan (kasu honetan, prentsa idatziaren antolamenduan) urradurak eta etenak sortarazten duen beritasunaren eraginaz mintzo naiz.

Azterketa sintomatikoa azterbidetzat hartzeak, analisi kuantitatiboa eta kualitatibo klasikoa bera bigarren mailara eroatea esan nahi du: egiturazkoak diren lanabesak ez bait dira gai egitura bera gainditzeko sortu fenomenoak esplikatzeko. Honetarako intuizioa, konfidantza, apustua, erabakitasuna eta leialtasuna dira egoki. Hemen ere ez kualitate

psikologiko-pertsonal gisan, gertakizun batekiko harreman gisan baizik. Beraz, sintomatologiak gertakizunera garamatza zuzen-zuzenean. Eta honek egiara; hots, egitura ezaguna (prentsa idatzia) aldatzen duen fenomeno-kate berriaren hastapenetara: zehaztuz, gertakizun barik ezinezkoa den horretara hain zuzen ere.

**Bigarren eta hirugarren ataletan** ("egiaren efektuak" I eta II) egiaren izateak berak probokatu eta eragiten dituen jokabideak azaltzen dira. Hau da, Jaurlaritzak Euskal Prentsa gauzatu ez dadin asmatu mekanismoak: ordezkatze eta luzamendu-politika (2.ean) eta plangintzarik gabeko dirulaguntza (3.ean). Eusko Jaurlaritzak, 80. hamarkada osoan prentsa idatzi tradizionala (euskara hutsezko aldizkariak) alde batera utziz, oztopoak jartzen jardun du, Euskal Prentsa mamitu ez dadin: zeudenen ordez aldizkari berriak sortuz (*ordezkatzea*) edota prentsa horren etorkizunaren soluzioa behin eta berriro luzatuz (*luzamendua*). Euskarazko prentsaren gabezia estrukturalak erabili dira (egitura xumea, kazetari falta, diru eskasia eta irauteko laguntzaren premia, euskararen batasun eza, etab.) egoera aldatu ordez luzatzeko bideak aurkituz (ajentzia baten premia, egunkarira ailegatzeko pausuka joan beharra eta maiztasuna azkartuz asterokotasunetik egunkaritasunera pasatzea). "*Aztertu egin behar da*" izan da politika mota honen kontzeptu-giltza.

**Laugarren atalean** ("egunkaria irtenbide") euskarazko egunkariari buruzko eskaria noiz, nola eta nondik sortu den ikertzen da. Bi bideetatik sortu da: euskarazko prentsara ailegatzeko prentsa elebiduna aukeratu zutenen bidetik (*porrotaren bidea*) eta Euskal Herriko prentsa bakarra euskarazkoa dena aitortu eta hori garatzeko hitza pertsonalki eman zutenen bidetik (*erabakiaren bidea*). Haien predikua agorra bilakatzeaz aparte egunkariaren

oztopoarri bilakatu da (diskurtsotik lanera pasatzen denean); bestean jokamoldea, berriz, *Euskaldunon Egunkariaren* oinarri eta sustabide egin da.

**Bostgarren atalean** ("hasieran euskal prentsa izan zen") tesi-lan honen muina xehatzen da. Aipatu prozedura horiek non demontres hasten diren bilatzen da eta hauxe aurkitzen, A. Badiouren ereduak aplikatuz: hasieran Euskal Prentsa deitu gertakizuna dagoela ordurarte euskal prentsa tradizionalen aritutakoek (Anaitasuna eta Zeruko Argia bereziki) 1976a Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatzen dutenean datatua. Atal honetan gertakizuna zer den, osagarriak zeintzu, berorien funtzio eta dialektika nolakoa, subjektu eragileen zeregina eta ideia-sorkariaren gauzatze prozesuaren jitea. Azkenean, Euskal Prentsari buruzko formulazioa egiten da, zeinaren arabera euskarazko prentsa Euskal Herriari dagokion prentsa bakarra den.

Euskal Prentsaren egitura eta mugimendu aldeak bereizten dira eta, mugimenduaren alde herritarrak zer esan nahi duen zehazki adierazi ondoren (hau da proiektu nazionala), honek egoera politiko orokorrean eta bereziki kazetal egitura elebidundiglosikoan suposatzen duen etena azpimarratzen da. 1976-78an, euskarazko prentsa mailan ordurarte inoiz gertatu ez den zerbait gertatzen da: Euskal Herriko prentsaren eksklusibotasuna aldarrikatzen da.

**Seigarren atalean** ("katea e da eten") historiari errepasso-begirada ematen zaio komentaturik aipatu gertakizuna eta hurrengo urratsak, aurreko beste zenbait gertakizunetan parte hartu eta leialkide izaten segitzen dutenengan oinarriturik soilik eman daitezkeela.

Luze xamarra izanarren, eta zirriborro itxura gora behera, pare bat urtetako lanaren fruitu dela esan beharra daukat. Horretarako, historian izan diren euskarazko eta elebiko aldezkariak eta egunkaria aztertu ditut. Lan historikoa beste bat egiten ari zela kasualitatez jakin izanak behartu ninduen halako forma eskematikoa ematera. Euskal prentsarekiko hartu izan diren jarrerak jasotzeko balio izan dit, halere. Uztailaren azken egunetan Javier Díaz Nociren tesi bikaina irakurrita, komentzitu baino ez naiz egin neuk pertsonalki arakatutakoaren egokitasunaz.

**Zazpigarren atalean** (*euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa*) orain daukagun euskarazko egunkariaren sortze-prozesua aztertzen da. Jaiotze zalapartatsu hartan parte hartu dutenen izen-abizenak ematen dira. Guraso zoriontsuak eta familia orohar agertzen da; baina hain euskal leinu ospetsuaren izen eta sona handirako haur kaxkar xamarra izateko sortua izan zena abortatzeko eginahalak eta bost egin dituztenak ere bai. Ez dut ezer pertsonalik azkenon kontra (bidegabekeria halakorik!), Objektiboki gertatutakoa esan beharra dago, ostera, eta horixe da dena. Atal honetan, jakina, Eusko Jaurlaritzak kaleratutako "*Egunero*" sasi-proiektua ere alderatzen da.

1989.eko azaroaren 1-etik 1990.eko abenduaren 6-ra bitartean, euskal prentsa eta Euskal Autonomi Elkarteko aginte autonomikoen artean, hamarkada osoan zehar, suertatutako gatazka oso-osorik erreproduzitzen de. *Euskaldunon Egunkaria* sortuz geroztik ere eraso ez da baretu. Horrek nere susmoan konfirmatzen nau: Jaurlaritzak Euskal Prentsaren bidea tratatzea zuen/du helburu eta hori (konklusio bat aurreratuz), ez kazetal-proiektu bat frenatzearen, (ez litzateke zentzuzkoa), euskal-naziori dagokion proiektu bat frenatzeko baizik.

Atal honetan, Euskal Prentsa eta alor horri dagokion produktu gauzatu baten erlazioa ikusten da. *Euskaldunon Egunkariaren* osagarriak (hamaika aginduak) eta 1976-78ko gertakizun-unean aldarrikaturikoak alderatzen dira (batez ere bere nazio-proiektuarekiko harremana). Azkenik, guztionek, ENAMekiko duen zerikusia.

Nire helburua bete dudala uste dut. Edonola ere asebetarik nago. neure kuriosidade intelektuala bapo geratu da. Orain badakit, jakin aurretik ere, hau da kezka hutsa zenetiek, zeren bila nenbilen. Euskal Prentsaren funtzio eta signifikantza nabarmenki dakust orain. beste norbaitek egin beharko du noizbait lan honetan aipatzen diren (eta ez diren) aldizkarien historia, bate ere *Zeruko Argia/Argia* eta *Anaitasunarena, Eskualduna/Herria* aiantzi barik. Hemen aurkezturiko marko eta parametroen artean kabituko al dira norbaitzu horiek egingo dituzten gogoeta eta ikerketak!

## **Oharkizunak**

Hau guztiau esan ondoren zenbait oharkizun testuan agertzen diren puntu batzuren argitzeko.

### **1.-erabilitako dokumentazioaz**

Prentsa idatzia izan dut iturririk emankorrena, horregatik aipatzen da hainbatetan. Testu honetan agertzen diren aldizkari guztiak arakatu ditut, horretarako ondoko biblioteka, hemeroteka eta artxibategietan lan eginez.

- Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka, non Jose Antonio Arana Martija, Josune Olabarria eta Nerea Altuna beti prest eta atsegin aurkitu ditudan.

- Labayru Ikastegiko Derioko Euskal Biblioteka, non Jon Olabarri banan bana eskeini dizkidan behi eta berriro eskatutako ale eta bildumak.

- Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioetako Hemerotekak, non izenez ezagutzen ez ditudan langilek merezi ez ditudan atenzioz hartu nauten.

- UPVko Hemeroteka eta Biblioteka Zerbitzuak, non lankideren konplizitatez zerbitzatu nauten.

- Lazkaoko Beneditarren Komentuetxeko Biblioteka, non Aita Agirrereren laguntza preziatua izan dudan.

- Tolosako Udal Biblioteka, non erkidea izateagatik edo, halako begirune berezia eskeini didaten.

- Arantzazuko Frantziskotarren Anaidiaren Biblioteka, non Aita Zubizarretari esker behar izan dudana eskuratzerik izan dudan.

- Universidad de Navarrako Biblioteka iruñearra, non, bertoko fondoak ikusteko ailegaturik, inongo eragozpenik gabe lana osatzerik izan dudan.

- Iruñeako Fraide Kaputxinoek Extramuros Komentuetxeko Biblioteka, non libre eta eskura utzi dizkidaten bertoko aldizkari guztiak.

Dokumentazio honen pista, prentsa idatzitik eta neure harremanetatik jaso nuenaz aparte, Adolfo Ruiz de Gaunaren gidaliburuan ("Catálogo de Publicaciones periódicas de los siglos XIX-XX" Euskal Ikaskuntza/Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saila, Donostia 1990) aurkitzen da.

Prentsa idatziaz aparte, badago lanean bestelako dokumentaziorik, hala nola agiriak, txostenak, etab. Ez ditut tesiarekin batera erakusten, batez ere sekretupekoak ez izanik, bere garaiaren eskuz esku publikoaren aurrean banatuak izan direlako. Neuk urtetako arduraz bilatutakoak dira batzu; beste batzu prentsan bertan argitaratuak izan dira eta banaka batzu *Argiako* lagunei eta EKBko Dokumentazio-Zerbitzuari zor dizkiot.

Esan beharra daukat, nik uste baino gutxiago jaso ahal izan ditudala: *Argian*, galdurik dituztelako urteotan egindako trasladoen kasuz; Eusko Jaurlaritzan, artxibora pasa ondoren eskuraezinak bihurtzen direla aitortu didatelako bertako arduradunek. Iturri pertsonaletara jotzeko haina ahalmen ez dut izan. Aztertzen den fenomenoan inplikaturik egoteak holako morrontzak dakartza. Halere, aitor dezaket, eskura gabe ere erabilitako erreferentziak (testuan eta oharretan agerten direnak), ziur-osoak direla niretzat.

## **2.- Erabilitako hizkuntzez**

Hiru hizkuntza darabiltzat batera, ez halere nahasiak. Arrazoi pare bat dena euskarara ez ekartzea justifikatzeko. Lehenik, gizalegeak, jatorrizko hizkuntza norberak

aukeratutakora, ahalik, ez aldatzera eskatzen duelako. Are guttiago lan unibertsitarioan. Bestetik, hiru dira gure Herrian batera agertzen diren hizkuntzak eta horiexek erabiltzen ditut nik: euskara, espainiera eta frantsesa. Alde horretatik ere hirurak bere hartan uztea erabaki dut, euskarari emandako leku nagusia azpimarratu nahirik. Izan ere, euskara hizkuntz bakartzat erreibindikatzek ez bait du esan nahi gainontzekoak mespretxatzea, dagokionerako erabiltzea baizik.

Azkenekoz: Lan hau tajutzeko izan ditudan arazo informatiko guztiak, Itxaso Fernández Astobizak soluzionatu ditu. Milesker hartutako lanagatik eta barkamenak soberan emandakoagatik.



## **I. ATALA: SINTOMATIK EGIARA**

1989-X-1ean, ARGIAk elkarrizketa paradigmaticoa egin zion Iñaki Zarraoari, artean Jaurlaritzako Kultura Sailburuordea eta egun EITBko zuzendariari. Elkarrizketatzaileak, Iñaki Uria eta Imanol Murua, artean ARGIAko erredaktoreak biak eta egun, "*Euskaldunon Egunkariaren*" Zuzendari eta Erredaktoreburu.

Elkarrizketa, saileko beste bat izan zitekeen, Jaurlaritzako goi-kargu batekin egiteak ematen dion ospeaz aparte. Baina euskal egunkariaren kasua aztertzeke, eta oro har, euskal prentsaren auzia bere alor propioan lekutzeko *perla* preziatua bilakatzen da, frogatzea espero dudanez.

### **1.1. ARGIAk elkarrizketa Zarraoari**

Izan ere, elkarrizketa hura ARGIAren 1261. zenbakian argitaratua, gezurrezkoa bilakatzen da. Hurrengo bi asteetan, hilak 8an eta hilak 15ean ARGIAk Zarraoak ezkutututakoaren berri ematen bait du, berauen edukia inoiz ukatua izan ez dena

## I. Atala: sintomatik egiara

Elkarrizketa hartan ("*elkarrizketa baino eztabaida*" diote kazetariak) antzerkilaritzaz eta subentzioez mintzatu ondoren, Jaurlaritzak 1988-VI-1ean CIES<sup>1</sup> etxeari eskaturiko azterketaren berri eskatzen zaio Sailburuordeari: "*Hor daukazue, urtarriletik gordeta,*<sup>2</sup> *euskarazko aldizkari eta egunkari hipotetikoak irakurle goi buruz CIES enpresari enkargatutako azterketaren emaitzak*". Zarrakoak, "*lehenengo azterketaren emaitzaren kopiaren bat emango al diguzu?*" entzuten duenean honela erantzuten du: "*Ez, hori kajoi batetan sartuta dago. Urte bukaeran uste dut Legebiltzarrean aurkeztuko dugula, ikusiko dugu talde politikoaren eritzia zein den eta nondik nora jo behar dugun*".<sup>3</sup>

Misterio gehiegi! Kazetariak, halere, aurrera: "*Zer esaten du CIESen azterketak?*". Hauxe izan zen, Zarrakoaren erantzuna hemen, atal honetan, aztergai bihurtzen dena hain zuzen:

*"Batetik esaten du (CIESek), merkatuaren arabera egunkari batentzako lekua dagoela. Bestetik, badirudi egunkari zabala nahi duela jendeak, ez politizatua, ez itxia, ideologia desberdinak sartzen diren zera guztiak (...). Hor badagoela eskubi moderatu bat eta ezker moderatu bat, eta holako egunkari bat hartuz gero (moderatua alegia) ziurtatu zitekeela epe motzera, defizit handiarekin baina (tiradaren arabera hor aipatzen zen 3.000 ale edo ateratzeko, hiru mila, sei mila eta denborarekin agian bederatzi milara iristeko) holako egunkaria beharko luke. Gero, egunkari horietan agertzen ziren gairik*

---

<sup>1</sup> Azterketak honoko titulu hau darama: Euskarazko Aldizkako Argitalpenak edo aldizkariak. Euskarazko Egunkaria, CIES, Iruñea 1990.

<sup>2</sup> Zehatzago esanda 1989-II-1etik, gero Eugenio Arraiza azterketa horren kideak Deia 1990-VIII-14an horrela baietsia

<sup>3</sup> Argia, 1989-X-1

## I. Atala: sintomatik egiara

*estimatuena kirolak eta herrietako berriak...izango lirateke. Gero, garbi gelditzen da oso jende gutxi hartuko lukeela hori egunkari bakartzat. Beti izango litzateke erdarazko beste egunkari batekin batera hartzeko".<sup>4</sup>*

Bistan da, benetako azterketak ez duela hau esaten, CIEseko lana ikusiz frogatu daitekeenez. Zergatik aritu, ordea, gezurretan? Filtrazioa beti posible denez holakoetan, ez zuen Sailburuordeak bere prestigioa galtzen ibili behar. Posibilitate hori ezagutu behar zuen Zarraoak. Zer ezkututzen du beraz, Iñaki Zarraoak? Edota esan beharra dago ezjakinean ari zela, une horretan hain garrantzitsua eta lehentasunezkoa bilakatu zen gai hartan? Bestalde, ARGIAko erredaktoreek berarengana jo eta euskal egunkariari buruzko galderarik ez zutela egingo pentsatze hutsa ezinezkoa da, testuingurua ezagututa, kontutan hartzekoa bait da azken bost urteetako gai-izarra bihurtua zela egunkariarena. Beraz, zilegi iruditzen zait "huts" honen zergatiaz galdezka jartzea eta hipotesi bat gauzatzea.

Aldrebestu, ez dira datu hauek Zarraoak elkarrizketa hortan aldrebestu zituen bakarrak. Hor daude ARGIAri buruz esandakoak esate baterako. Izan ere Zarraoak ARGIAri, egunkari bat egiteko aukera ez emate izanaren arrazoia "kioskoetan ez zenutela zabaldu nahi" esaten duenean honelaxe erantzuten dio Zumalabek, "*Gaizki eta gaizto*" editorialean: "*ARGIAK, uda hartako abuztuan, nire sinadurarekin Kultura eta Turismo Sailak Uztailaren 24ean argitaratutako aginduari erantzunez aurkeztu nuen proiektu*

---

<sup>4</sup> *Ibíd.*

## I. Atala: sintomatik egiara

*idatzian azaltzen ditu bere egitasmoaren ezaugarri nagusiak. Proiektuaren bigarren puntuan, Produktoaren zehaztasun teknikoak izenburupean, honela ageri da: "...igandero goizez argitaratuko da, goizean goizetik gisa horretako gainerako egunkarien ordu berean salgai ipiniko delarik. Proiektorekin batera doa ere banaketa estaliko dituen salmentapuntu guztien zerrenda".*<sup>5</sup>

Ezkutatu, ez dira horiek -CIESi dagozkionak ez dira inoiz ofizialki publikoaren aurrean azaldu- Jaurlaritzak prentsa alorrean ezkutatu dituen bakarrak: IDOMek<sup>6</sup> egindako azterketa ekonomikoa ezagutzea arituen pribilegioa da; azterketa juridikoa misterio bat da oraindik...

Beraz, zer dela eta halako bitxitasunak "*irrifarrik galdu gabe*" esatea? Ez dut uste, adibidez, Zarraoaren hitzei "*fribolitate eta inozokeria*" hutsa darienik Zumalabek aipatu editorialean egozten zion bezala. Dariena, hurbilago dago "*konposturarik galdu gabe, eta jakinaren gainean dagoela, gezurretan hain eroso mugitzetik*"<sup>7</sup>. Baina ez da hori ere, juxtu.

---

<sup>5</sup> Argia, 1989-X-1. Azkena saila. Zumalabek aipatzen duen proiektu idatzi hura ez dago inon. Egileak galdua du ARGIAK egin dituen trasladoen ondorioz; Jaurlaritzak ez du artxibategian aurkitzen. Areago, Mikel Etxebarriak egin didan karta batetan, (1992-IX-7 datatua) honela esaten du: "*Nik dakidanez, ARGIAK, euskarazko egunkari baterako aurreproiekturen bat bazuen ere, ez zion ofizialki inoiz Administrazioari jakin arazi ezta aurkeztu ere*". Karta honen 3956-EU irteera-zenbakia du. Zumalaben hitzak ez dira, ordea, inoiz gezurtatuak izan eta niretzat sinisgarritasun osokoak dira. Ikus, II. Atala, 73 oharra.

<sup>6</sup> IDOMen azterketa hori behin baino gehiagotan izan da aipatua. Adibidez, Eguna 1990-IV-5 Beloki aurkeztuz Jaurlaritzak bere prentsaurekoa eman zuenean: "*bigarrenik, egunkari hori egiteko zebait diru beharko litzatekeen iker arazi zion IDOM etxeari*"; Andoainen Rikardo Arregi Sariak banatzerakoan, Eguna: 1990-VI-9; Zarraoak, "abuztuko karta" famatu haietan, Deia, 1990-VIII-14. Baina azterketa publiko bakarra, 1991.eko Apirilean, "Consultores Irigoyen & Pérez Calleja"k eginikoa da, beherago, VII. Atalean, erakusten denez.

<sup>7</sup> Ibid.

## I. Atala: sintomatik egiara

### **1.1.1. CIESen datuak eta Zarraoaren esanak**

CIESek zerbait bestelakorik adierazten du bere azterketan. Hara, hain zuzen:

a. CIESek ez dio, inon, "merkatuaren arabera egunkari batentzako lekua dagoela". CIESek hiru eskenatoki posible deskribatzen ditu, egunkari bat, bi ala hiru agertzeko hipotesiaren arabera. Bakoitza, gainera, ideologia desberdinari lotua: ezker aldekoa, zentro-ezkerrekoa, zentro-eskuinekoa.

"Lehen eskenatokia, egunkari bakar bat duena da: "Egunkari hori izan daiteke ezker aldekoa, aintzat har daitezkeen 10.000-12.000 eroslerekin eta 3.000-4.000 erosle potentzialekin; zentro-ezkerrekoa, 12.000-13.000 erosle aintzat har daitezkeenekin eta 3.000-4.000 erosle potentzialekin; eta zentro-eskuinekoa aintzat har daitezkeen 7.000-9.000 eroslerekin eta 4.000-6.000 erosle potentzialekin".

"Bigarren eskenatokia bi egunkariz osatua dagoena da: Ezker aldekoa, aintzat har daitezkeen 10.000-12.000 eroslerekin eta 3.000-4.000 erosle potentzialekin; zentro-eskuin aldekoa aintzat har daitezkeen 7.000-9.000 eroslerekin eta 4.000-6.000 erosle potentzialekin".

## I. Atala: sintomatik egiara

Hirugarren eskenatokia hiru egunkariz osatua dagoena da: *Ezker aldekoa aintzat har daitezkeen 4.000-6.000 eroslerekin eta 1.000-2.000 erosle potentzialekin; zentro-ezker aldekoa aintzat har daitezkeen 7.000-9.000 eroslerekin eta 2.000-3.000 erosle potentzialekin; zentro-eskuin aldekoa aintzat har daitezken 4.000-6.000 eroslerekin eta 2.000-3.000 erosle potentzialekin"*

Hau da CIESek deskribatzen duen panorama posiblea eta azterketa ekonomikoa egin aurretik botatako kopuruen arabera:

*"Hirugarren eskenatokiak (hiru egunkari batera) ekonomikoki oso bideragarritasun gutxi du";*

*"Bigarren eskenatokian (bi egunkari batera) zentro-ezker aldeko egunkari bideragarria izan daiteke eta epe ertainera zentro-eskuinekoa baldin eta irakurle potentzialak bereganatzen baditu";*

*"Lehen eskenatokian (egunkari bakar bat) ekonomikoki bideragarria da ezker aldeko egunkari bat, baita ere zentro-eskuin aldeko egunkari ba baldin eta irakurlegoa bereganatzen badu eta oso bideragarria zentro-ezker aldekoa da".*

Hau guztiau betiere kontutan hartuz *"egunkari bakar bat ere, edozein joerakoa delarik, ez dela izango epe motz-ertainean 17.000-18.000 erosle pasako dituenik, hau da,*

## I. Atala: sintomatik egiara

50.000 irakurle" . Beraz, CIESen azterketak ez dio bakar batentzat soilik lekua dagoenik.

8

**b."Badirudi egunkari zabala nahi duela jendeak, ez politizatua, ez itxia, ideologia desberdinak sartzen diren zera guztiak"** esateak gauzak baliokidetzat ematea eta ez bereiztea suposatzen du. Izan ere zabala eta ez-politizatua ez dira gauza bera CIESen ustez ezin parekagarriak bait dira. Nekez adierazi daiteke euskal egunkariaren irakurle potentzialaren ez-politizatzea, gehiengoa HBren botuemailea izanik, ezker abertzalekoa zehatzago. (230) Alderantziz, espreski: "*politikazale azaltzen da irakurle potentzialetik % 53'6a; % 31'5a oso politikazalea delarik*". (98)

Ez itxia izateak, ostera, adierazten badu egunkariak zabala izateko duen premia, ideologia bakar baten adierazpide ez izatea esan nahi bada, egia da, hori dio CIESek, baina aldi berean ez da onartzen ideologia guztiak neurri berean isladatzea, irakurle potentzial horrek bai bait ditu bere lehentasunak: botuemaileen % 61a abertzalea da, beraz nazio-arazoz ukituta dago; irakurle honen %50'8k gainera, espreski eskatzen du egunkaria ezkertiarra izatea. (9) Beraz esaera bakar batean laburtu nahi du Zarraoak laburtzerik ez duena, benetako esangura estaliz.

---

<sup>8</sup> Ikus CIES 233-236 or. Hemendik aurrera, atal honetan, parentesiarteko zenbakiek CIESi dagozkio

## I. Atala: sintomatik egiara

c.- Ezker edo eskubi moderatua egoteak ez du esan nahi horrek ziurta dezakeenik - eta horrek soilik- egunkariaren finkapena, zeren eskenatokien arabera, bideragarria den bakarra ez da zentro-ezkerrari dagokiona, ezkerrari eta zentro eskuinekoari dagozkionak ere bai, ikusi denez.

d. "Gairik estimatuenak kirolak eta herrietako berriak...izango lirateke", dio Zarrako inkestak esaten duenaren kontra. Iruñeko soziologiariek besterik diote. Ondoko hau: "*Informazio aldetik gehien interesatzen den esparrua nazionala da, hau da, Euskal Herriko berriak % 40'9rentzat eta bigarrenik informazio lokala % 31'7rentzat*". (120).

Atalekiko interesa aztertzen bada, berdin: "*Egunkariak dituen atalekiko interesa modu honetan banatzen da. Politika, kultura, gertaerak, gizartea, eritzia, hemeroteka eta gazteena dira aztertzen ari garen populazioaren artean interes haundiena sortzen duten sailak. Kirolak, ekonomia, iragarkiak, eskelak, umeen atala eta jokuekiko interes gutxiago ageri da*". (122).

Ez dabil, halere, guztiz oker I. Zarrakoa jauna, zeren aztertutako umeen sailean kirolak agertzen bait dira gai nagusitzat; eta oro har, "*zentro eta eskuindarren multzoa*" kontsideratuz, % 39'4rentzat lokala da esparru informatiborik maiteena -eskuindarren artean %46' 9rentzat- nahiz eta gero, esparru horren barnean kultura gaiak % 50a hartu. Hor ere, bainan, kirola gutxien interesatzen den gai-multzoan dator". (207) Beraz umeentzat eta zentro-eskuindarrentzat lokala da gairik preziatuena; ez ordea kirola. Are gutxiago, nabarmen geratzen denez irakurleko potentzialaren populazio orokorarentzat.

## I. Atala: sintomatik egiara

Hau zuzena den ala ez erabakitzea besterik da (inkesta soziologikoen balioan sartu beharko litzateke), baina CIESek eta Zarraoak esandakoaren artean aldea dago.

**d.- "Garbi gelditzen da oso jende gutxik hartuko lukeela hori egunkari bakartzat(...) Beti izango litzateke erderazko beste egunkari batekin batera hartzeko"**

Labaina da benetan zehaztea "gutxi" horren esanahi-eremua. Gutxi, proportzionalki suposatzen da. CIESen arabera eta inkestatuek esandakoan oinarriturik % 36'6k orain erosten duen egunkaria utzi egingo du baldin eta euskarazkoak asetzen badu. Horrek ez du esan nahi "beti". Zuzena da % 7'1a bakarrik agertzen dela edonola ere euskarazkoa bakarrik erosteko prest, baina horrek ez du, derrigorrez, adierazten euskarazko egunkari posible horren pobretasuna, irakurlearen aberastasuna baizik.

### **1.2. Elkarrizketa sintomatikoa**

Zarraoaren adierazpenak, bere osotasunean hartuta, testuingurua barne jaso, sintomaren tankera du. Sintoma da.

Hizkera arruntean sintoma konzeptuak baditu zenbait baliokide. Signoa da lehena. Seinalea, bigarrena, sinboloa eta indizearekin batera. Susmoa izan daiteke hurrengoa. Ez

## I. Atala: sintomatik egiara

bata, eta ez besteak dira niretzat egokienak. Sintoma da, aldiz, nik aukeratzen dudana. Eta ez justifikaziorik gabe ikusiko denez.

Euskarara jotzen badut, nahasketa areagotu baino ez da egiten denetarako 'adierazlea" eta 'erakuslea" erabiltzen bait da.

### **1.2.1.Konzeptu antzekoen garbiketa**

Lehenengoz desegokitzat ditudanak baztertuko ditut. Hasteko, linguistikatik datozelako eta lan honetan harrotu nahi dudan arazoa ez delako linguistikoa soilik. Lan honen arazoak askoz ere egokiago du bere ispilua Freud eta Lacanen eremuan, psikoanalisian alegia, linguistikan baino.

Ez dut, jakina, hitz esanguratsu hauen ikerketa osoa egiteko asmorik. Horrek, besteak beste, lan honi ez dagokion espazio zabala hartuko liokeelako. Nahiago dut, beraz, pare bat Hiztegi Orokorretara jo, hala nola Larousse eta Labor argitaletxeek linguistikari emandakoetara. Honelaxe definitzen ditu konzeptuok adibidez Laroussek: "*Le signe, au sens plus général, désigne, toute comme le symbole, l'indice ou le signal, un élément A de nature diverse substitut d'un élément B*".<sup>9</sup> Indize, seinale edota sinbolo izan daiteke, beraz, signoa. Indizea izateko batik bat fenomeno natural bat izan behar du (sukarra-gaixotasuna); seinalea, intenzionalki sortua (ez fortuitoki) eta hartzaile batek uler dezan aurretiaz

---

<sup>9</sup> Dubois, Dictionaire de Linguistique, Larousse, Paris, 1973, 483 or. etab

## I. Atala: sintomatik egiara

pentsatua (trafiko seinaleak, alfabetoak, jesto-keinuak); sinboloak, forma bisuala, figuratiboa du (balantza-justizia).

Zentzu linguistikora mugatuz, Ferdinand de Saussure-ren bidea da orokorra.

*"Le signe -ou unité- linguistique est une entité double, fait du rapprochement de deux termes, tous deux psychiques et unis par le lien de l'association. Il unit en effet, non une chose et un nom, mais un concept et une image acoustique; F.de Saussure précise que l' image acoustique n' est pas le son matériel, mais l' empreinte psychique de ce son. Elle est la représentation naturelle du mot en tant que fait de langue virtuel en dehors de toute réalisation par la parole. Le signe linguistique est donc ce que Ferdinand de Saussure appelle une entité psychique à deux faces, la combinaison indissociable à l' intérieur du cerveau humain, du signifié et du signifiant. Ce sont des réalités qui ont leur siège (leur 'trace') dans le cerveau: elles son tangibles et l'écriture peut les fixer dans des images conventionnelles" .<sup>10</sup>*

Jakina da Saussurenak ez direna linguistikan ematen diren adierazpen bakarrak, baina orohar, onarturikoak direna bai . Halere amerikarrek gustokoago edo dituzte Ch.S.Peirceren xehetasunak, ikonoa, indizea eta sinboloa bereizten bait ditu. Europan, ordea, nahiago izaten da hiru elementu horiek, lotzea, balantza/justizia kasuan adibidez, bistan bait da figurazioaren aukera ez dela guztiz arbitrarioa:badago egon halako

---

<sup>10</sup> Ibíd. Ikus Saussure, F., Curso de lingüística general, Losada, Buenos Aires, 1971

## I. Atala: sintomatik egiara

"ikonotasun' hondar bat baita indize-aztarnarik ere. Amerikarrentzat, bi elementuren artean, signoak duen harreman kulturala, gordetzekoa da.

Bide beretsutik jotzen du Labor Hiztegiak: *"En el sentido más general (signo) es todo objeto, forma o fenómeno que representa a algo distinto de sí mismo" (...) La definición de Saussure -combinación de un concepto denominado significado y de una imagen acústica denominada significante- es la que se acepta de modo más general. Ambos componentes son estrechamente solidarios, puesto que cada uno de ellos no puede existir sin el otro".* <sup>11</sup>

### **1.2.2. Sintomaren zehaztapena**

Sintoma, besterik da. Laroussera jota <sup>12</sup>, aipatzen da sintoma hiztunari lotzen zaiola, gizakume hiztunari alegia hizlari horren baitako zerbait adierazten duelarik, bere barne-egoera espresatuz. Linguistikoki ahotsaren bariazioak, ahoskeraren irregulartasunak etab. izango lirateke. Psikoanalisian, zerbait gehiago esan nahi du sintomak.

---

<sup>11</sup> Diccionario de Lingüística, Labor SA, Barcelona, 1979, 165 or. etab.

<sup>12</sup> Dictionnaire de Linguistique, Larousse, Paris, 1973, 473 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*"C'est à partir du mécanisme de la névrose obsessionnelle que Freud dégage l'idée que les symptômes portent en eux-mêmes la trace du conflit défensif dont ils résultent (...) Freud souligne que les symptômes névrotiques sont le résultat d'un conflit (...) Les deux forces qui se sont séparées se rencontrent à nouveau dans le symptôme et se réconcilient pour ainsi dire, par le compromis que représente la formation de symptômes. C'est ce qui explique la capacité de résistance du symptôme: il est maintenu de deux côtés".* <sup>13</sup>

Sintoma, elaborazio psikiko baten emaitza da. Elaborazio berezia, baina. Bi eratakoa izan daiteke: defentsa-mekanismoa eta ordezkapena. Ordezkatze-prozesua baldin bada gaitzetsitako zerbaiten itzulera agertzen du, (le retour du refoulé).

*"Désigne les symptômes ou des formations équivalents comme les actes manqués, les traits d'esprit etc., en tant qu'ils remplacent les contenus inconscients. Cette substitution doit être prise dans un double acception: économique, le symptôme apportant une satisfaction de remplacement au désir inconscient; symbolique, le contenu inconscient étant remplacé par un autre selon certaines lignes associatives".* <sup>14</sup>

Freudek sintoma neurotikoak eta ordezkatzea baliokidetzat ematen ditu. <sup>15</sup> Defentsa-mekanismoa baldin bada, berriz, hau da sintomak zerbaiten kontrako erreakzioa erakusten duenean: *"Tout symptôme, en tant qu'il est le produit du conflit défensif, est formation de compromis. Dans la mesure où c'est principalement le désir qui cherche à s'y*

---

<sup>13</sup> Ibid., 438 or. etab.

<sup>14</sup> Ibid. 171 or.

<sup>15</sup> Ikus Inhibition, symptôme et angoise, Les psychonévroses de défense in ibid. 171 or. etab.

## I. Atala: sintomatik egiara

*satisfaire, le symptôme apparaît surtout comme formation substitutoire; à l'inverse, dans les formations réactionnelles, c'est le processus défensif qui est prévalent".*<sup>16</sup>

### **1.2.3. Zarraoa galbahean: gezurra**

Zarraoaren erantzunetan, sintomatologia osoa agertzen da. Batetik zerbait ezkutuan utzi nahi duelako (CIESen azterketa irakurrita gaitzetsi daitekeena, halere); bestetik, eta bereziki, zerbait estali nahi duelako (Jaurlaritzaren asmoak). CIESek esaten ez duena esatea nahi luke; bere nagusien asmoak defenditu nahi ditu. Biak batera.

Kontutan hartu behar da, Zarraoa izan dela beti -ordurarte bederen- euskarazko egunkaria egiteko herri proiektuarekiko hurbilena. Berak eman zituen esperantzarik itxaropentsuenak. Elkarrizketan ere ez du halako distantzia handiegirik ematen.

Konfliktoa, beraz, nabariago agertzen da berarengan, seguruenik bereganatze axialagoa zuelako. Adibidez, egunkaria publikoa izan beharraren ezinbestekotasunetik urrun agertzen da: *"Nik uste dut halako tresna batek erakunde publiko baten eskuetan ez duela funtzionatuko herri honetan, geroz eta jende gutxiagok erosiko lukeela. Bizia, emateko eta aurrera egiteko, pribatua. Hor okerrera zera da, bat bakarrik ateratzen*

---

<sup>16</sup> Ibid.172 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*badugu, zabala behar etab. nola elkartzen dituzun ideologia desberdineko partaideak, baina nire ustez, izanez gero, pribatua".<sup>17</sup>*

Bestalde egunkari bat eta zabala izatekotan ze nolako formula juridikoa beharko litzatekeen pentsatzen jarria, Zarrakoak Jaurlaritzako beste inork eskainitako posibilitateak eskaini ohi izan ditu: "*Hori da aztertzen ari garena. Hori izan daiteke elkarte berezi bat sortzea edo orain inguru honetan zabilzatenon artean elkartu zerbait egiteko, eta ea ados etortzen zareten horrelako bat ematen(...)* Ez dut uste bati emango diogunik, baizik eta saiatu beharko dugu elkarte hori nola edo hala, eta hori badakigu oso zaila da, eta horregatik ere behar bada beste irtenbide batzuk hartu beharko ditugu. Momentu honetan bertan zaila da; egunkari bat, denak elkartu eta aurrera eramateko".<sup>18</sup>

Izan ere, une horretan, ARGIAren jarrera egunkariari buruz, Zarrakoak posibletzat ematen zuen formula horren aldekoa zen: "*ARGIAk beti pentsatu du euskal egunkariaren edozein proiektuk jarrera zabala eta baterakoia eskatzen duela, euskaltzalegoa osatzen dugun giza-sail honek izan behar duelako euskararen aldeko edozein proiekturen oinarri (...)* ARGIAk euskal egunkaria proiektu erreal bezala defendatu eta bultzatu nahi duen euskaltzale ororekin batu beharko litzuke bere indarrak

---

<sup>17</sup> Argia, 1989-X-1

<sup>18</sup> Ibíd.

## I. Atala: sintomatik egiara

*denon laguntzaz, hainbeste itxaropen mugitzen dituen proiektu hau aurrera atera dadin".*

19

Iñaki Zarrakoak errealitatearekin bat ez datorren arrazoiketa eskaintzen du, gorago ikusi denez. Zuzena ez den zerbait. Froga daitekeena hain zuzen. Zer dago, beraz, Zarrakoaren hitzen atzean? Akatsa? Hankasartzea? Ezjakintasuna? Gezurra?

Nire ustez bi aukera daude soilik: ez du intentziorik gauzak oker adierazteko (baina bete-betean okertzen da), ala bestela, gezurretan dabil.

Lehen kasuan, Freudek *"intenziorik gabeko egintza"* deitu sailean sartu beharko litzateke Zarrakoaren adierazpen okerra.

*"En esta y otras cosas análogas, dio Freud, me he dicho siempre que los actos inintencionados tienen que ser, de continuo, un manantial de malas inteligencias en el trato (..) entre los hombres. El que las ejecuta ignora en absoluto la intención a ellas ligada y no teniéndola, por tanto, en cuenta, no se considera responsable de las mismas. En cambio, el que las observa las utiliza igual que las demás de su interlocutor, para deducir sus intenciones y propósitos, y de este modo llegar a averiguar de sus procesos psíquicos más de lo que aquél está dispuesto a comunicarle o cree haberle comunicado. El*

---

<sup>19</sup> Zumalabe, Joxemi, in *ibíd.*

## I. Atala: sintomatik egiara

*adivinado se indigna cuando se le muestran tales conclusiones, deducidas de sus actos sintomáticos, y las declara infundadas, puesto que al ejecutar dichos actos le ha faltado la conciencia de la intención, quejándose de mala comprensión, por parte de los demás. Observada con detenimiento tal incomprensión, se ve que reposa en el hecho de comprender demasiado bien y demasiado sutilmente".* <sup>20</sup>

Bigarren kasuan, gezurretan dabil Kultura Sailburuordea. "*Definí la mentira antes, dio Paul Ekmanek, como una decisión deliberada de despistar a un destinatario sin darle notificación previa de dicho propósito. Hay dos formas principales de mentir: el ocultamiento, o sea, el hecho de no transmitir toda la información, y el falseamiento o presentación de información falsa como si fuera verdadera. Otros modos de mentir son despistar al otro reconociendo la emoción propia pero atribuyéndola a una causa falsa, decir falsamente la verdad, o admitir la verdad pero de una manera tan exagerada e irónica que el destinatario se vea desorientado o no reciba información alguna; el ocultamiento a medias, o admisión de una parte únicamente de la verdad, a fin de desviar el interés del destinatario respecto de lo que todavía permanece oculto; y la evasiva por inferencia incorrecta o decir la verdad pero de un modo que implique lo contrario de lo que se dice".* <sup>21</sup>

---

<sup>20</sup> Freud, S. *Psicología de la vida cotidiana*, Alianza, Madrid 1967, 229 or. Berdin, *Obras Completas*, Ensayo XLVI *Psicoanálisis*, Orbis, Barcelona 1988, 1546, 47 eta 1551). Bide beretik Lacanek "fallas de acción" deitzen duen horretan. Lacan, J. *Escritos II*, Mexico, S.XXI, 1987, 67 or.

<sup>21</sup> Ekman, Paul, Cómo detectar mentiras, Paidós, Barcelona, 1991, 27 or. Gaia komunikabideen alorrera ekarri, ikus Fraguas De Pablo, María, Teoría de la desinformación, Alhambra, Madrid 1985, 55-62 or., non gezurra "desinformatzeko mekanismorik oinarritzekoentzat" jotzen den.

## I. Atala: sintomatik egiara

Zarraoaren kasuan ezkutatzeari aparte (ez du informazio osoa ematen), desitxuratu egiten da informazioa. Ekmanen eritziz, informazioa desitxuratzea, ezkutatzea baino grabeagoa da, eta gainera gauzak diren bezala agertzen direnean, askoz ere defentsa gutxiago du desitxuratzen ibili den gezurtiak. *"Cuando un mentiroso está en condiciones de escoger el modo de mentir, por lo general preferirá ocultar y no falsear(...) Por otra parte los mentirosos por ocultamiento son mucho más fáciles de disimular una vez descubiertos. El mentiroso no se expone tanto y tiene muchas excusas a su alcance: su ignorancia del asunto, o su intención de revelarlo más adelante, o la memoria que le está fallando..."*.<sup>22</sup>

Gezurra, ordea, ez da ezinbestez maila intenzionalean kokatu behar. Gezurra esateak (ez gezurrak berak) Gezurra/Egiaren arteko dialektika zabaltzen du. Aginte-egiturak ezartzen duen oztopoa da gezurra, egia egon badagoela deskubritzen duena hain zuzen.

Lacanekek berebiziko garrantzia ematen dio sintomak interpretatzeari. Lacanentzat sintoma *"el campo privilegiado del descubrimiento"* da, inhibizioa eta angustiarekin batera.<sup>23</sup>

Signoarekiko distantziak hartzen ditu Lacanekek, eta egiaren konzeptua sartzen, lan honetan zehar oso baliotsua den konzeptua hain zuzen, abiapuntutzat hartzen dudana hipotesia zuzena bada. *"A diferencia del signo, del humo que no va sin fuego, fuego que*

---

<sup>22</sup> *Ibíd.* 28-29 or.

<sup>23</sup> Lacan, J., *Escritos I*, Mexico, S.XXI, 1972, -99 or.ikus, bestalde, sintomaren adierazpen desberdinak: '*symptôme*', *Escritos*, I-II eta '*sinthome*', "Les paroles imposées", in Listing, Johann "Introduction à la topologie", Novarin, Paris 1989, 85 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*indica con una llamada mentalmente a apagarlo -el síntoma no se interpreta sino en el orden del significante. Es en esta articulación donde reside la verdad del síntoma. El síntoma conservaba una borrosidad por representar alguna irrupción de la verdad. De hecho es verdad (azpimarra Lacanena da), porque está hecho de la misma pasta de que está hecha ella si asentamos materialísticamente que la verdad es lo que se instaura en la cadena significativa".* <sup>24</sup>

*"El síntoma, dio Lacanek, es el significante de un significado reprimido de la conciencia del sujeto".* <sup>25</sup> eta *"el síntoma es el retorno de lo reprimido".* <sup>26</sup>

Erlazio zuzena dago Lacanengan sintoma, errepresioa, zentsura eta egiaren artean. *"El síntoma es el retorno de lo reprimido en el compromiso, y que la represión aquí como en cualquier otro sitio es censura de la verdad".* <sup>27</sup>

Interes osokoa da Lacanen ondoko erreferentzia hau Zarraoaren jokabidea ulertzeko: *"Es difícil no ver introducida, desde antes del psicoanálisis, una dimensión que podría denominarse del síntoma, que se articula por el hecho de que representa el retorno de la verdad como tal en la falla de un saber. No se trata del problema clásico del error, sino de una manifestación concreta que ha de apreciarse "clínicamente", donde se revela no un defecto de representación, sino una verdad de otra referencia que, aquello, representación o no, cuyo bello orden viene a turbar".* <sup>28</sup>

---

<sup>24</sup> Lacan, J., Escritos I, 56 or.

<sup>25</sup> Lacan, J., Escritos I, 100 or.

<sup>26</sup> Lacan, Escritos II, 125 or.

<sup>27</sup> Lacan, J., Escritos, II, 125 or.

<sup>28</sup> Lacan, J., Escritos I., 56 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

Ez naiz esaten ari Zarraoa gaixo dagoenik (nahiz eta medikuntzan sintoma "*fenómeno revelador de una enfermedad*" izan <sup>29</sup>; ez eta psikiatraren beharra daukanik momentu horretan. Ez. Hipotesi bat formulatzen ari naiz, alegia Zarraoaren esanetan konflikto (politiko) baten aztarnak somatzen direla, eta ondorioz, desegokitasun nabarmenak antzeman dakizkiola.

Bere gogoia xuxen zein zen jakitea ez da garrantzizkoena. Interesatzen dena da bere diskurtsoa segitzea eta esandakoa interpretatzea. "*Independientemente de su frecuencia, un desliz verbal, microexpresión o perorata enardecida revela información, quiebra el ocultamiento*". <sup>30</sup>

Lacane (eta Freudek) profesionari-analistari ematen dio sintomak interpretatzeko pribilejio eta ahalmena <sup>31</sup>. Nik lan honetan gertakizunaren lekuko fidelari (ikus V. atala) ematen diot. Zehatzago, ARGIAko kazetariei, haien elkarrizketa probokazio zuzena bait da, euskal prentsaren apustu bizitik egina.

Kezka nagusia, beraz, ez dagokio informazioari, datuen zuzentasun frogagarriari, zehaztasuna edo egokitasunari alegia. Ez dagokio objektibotasunari esan nahi da. \* <sup>32</sup>

---

<sup>29</sup> Ikus *síntoma* hitza. Real Academia Española, Diccionario de la Lengua Española, Espasa calpe, 1984. XX ediz.

<sup>30</sup> Lacan, J., Escritos II, 174 or.

<sup>31</sup> Ikus Lacan, J., Escritos I, 161 or.

<sup>32</sup> Objektibotasuna eta egia erabat lotuta agertzen dira sarri. Prentsan, batez ere. Objektibotasuna objektuari dagokio. Objektutik kanpo ez da. (Desantes, JM.. La función de informar, EUNSA Iruñea 1976, 91 or.). Objektibotasuna lortzea ezinezkotzat jotzen da (Ramírez, P. J. Prensa y libertad, Unión Editorial, Madrid, 1980, 115 or.). Halako eszeptizismo ia erabatekoa dager objektibotasunaren aurrean (Benito, Angel Lecciones de teoría general de la información, Garcia

## I. Atala: sintomatik egiara

Kezka, beste mailakoa da. Antzematea da helburua: *egia* "harrapatzea"; ez, *jakitea*, kalterik ere egingo ez badu era jakiteak. Areago, jakitea preziso da. Beharrezkoa da jakitea, eta horregatik zehaztu da CIESek esandakoa eta Zarraoak adierazia gauza bera ote diren.

Baina jakiteaz aparte egiaren konzeptua dago jokoan, jakintza-katean (berari ez dagokion arren) ematen den elementu *berri* hori alegia. Kazetaritzak proposatzen duen *egia* ez da aski. Ez eta kazetariarentzat ere: egiaren zerbitzari izateaz areago justiziaren bilatzaile izatea dago: *"Por ejemplo si el principal objeto del periodismo es la verdad, como dicen la mayoría de los códigos, ¿qué hace el periodista cuando cree que la presentación de la verdad no es la conducta más ética? Si la verdad implica la revelación completa de hechos verificados, ¿qué podemos decir del periodista que decide no poner el*

---

Blanco, Madrid, 1972, 144-145 or.; Martínez Albertos, J.L. Curso general de redacción, Paraninfo, Madrid 1989). Izatekoetan balio-muga ematen zaio objektibotasunari (Martínez Albertos, J.L. La información en una sociedad industrial, Tecnos, Madrid, 1981, 39 or.). Eta badirudi objektibotasunaren lekuan, ezinezkoa denez, ondradutasuna eta egiazkotasuna esijitzen dela, ez besterik, alegia objektibotasuna kazetariaren kualitate bihurturik (Benito, A., ob.aip.145-53 or.; Desantes Guarner, *'La única objetividad exigible es la sinceridad, que es la conformidad consigo mismo'*, ob.aip. 176). Beraz egungo komunikabideak ikertzen dituztenak ados daude objektibotasunari buruz mintzatzea kazetari-subjektuari dagokion zera dela, arazo morala alegia. Gai honetan gehiago sakondu nahi duenak jo beza probetxuzko eskuliburu honetara: Aguilera, Octavio, Las ideologías en el periodismo, Paraninfo, Madrid 1990, bereziki 152-1170 or.) Objektibotasuna ezinezkoa izaki egia ere ezinezkoa dateke. *"El concepto de noticia no lleva inscrito el concepto de verdad"*. (Rodrigo Alsina, M., La construcción de la noticia, Paidós Barzelona, 1989, 182 or.) Kazetari ondradu batek idatziriko lana, berriz, subjektiboki egiantzekoa izan daiteke (ikus Dovifat, E. Periodismo II. lib. UTHEA, 1964). *"La verdad, dio Aguilera, consiste en la adecuación del entendimiento con la realidad, labor que pertenece exclusivamente al informador"* (Aguilera, o. aip. 160 or. Ikus gainera adibidez Desantes Guarner, La cláusula de conciencia, EUNSA, Iruñea, 1978, 190 or.) Egia, ondorioz, objektibotasuna bera bezain harrapagaitza da. Orainsu, azken orduan, gizarte komunikabideei buruz azaldu berri den azterketa orokor batean hauxe planteiatzen da: *"el periodismo es una actividad subjetiva a pesar de que muchos periodistas sienten en la obligación de ser objetivos. Los periodistas, por tanto, no pueden lograr la verdad total y completa"*. (Merril John C., Lee John, Friedlander, E.J., Medios de comunicación social. Teoría y práctica en Estados Unidos y en el mundo, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid 1992, 85 or.). Ikertzaile estatubatuar hauentzat (eta orohar komunikologoentzat) egia alde aurretik emana den zerbait harrapaezina da; kazetariak hurbiltzea du, ez besterik. Kazetaritzak proposatzen duen egia, beraz, osatuz-osatuz (kazetaritzaren kontaketa ondraduaren bidez) hurbiltzerik uzten duena baina atrapaezina den zerbait da. Zehaztasuna da osagarririk nabarmenena. Jakintza bere irudirik ezagunena.

## I. Atala: sintomatik egiara

*nombre de la víctima de una violación, o que (por cualquier razón) decide ocultar la información que ha sido recogida y verificada? Ciertamente aunque el periodista no haya sido un periodista veraz, puede muy bien ser un periodista justo".* <sup>33\*</sup>

Kazetaritzan egiaz hitzegiten ari direla ematen du, baina benetan zehaztasunaz, objektibotasunaz ari dira. <sup>34</sup> Objektua bera bilakatzen da zentrua, subjektua desagertaraziz. *"Los informadores declaran que, dio Tuchmanek, hallar hechos impone demostrar la imparcialidad al borrarse uno mismo del relato".* <sup>35</sup>

Egiaz baino egiantzekotasunaz (izan gabe, egiaren antza duenaz) ari direla esan behar da. <sup>36</sup>

Christian Metzen eritziz, *"Le vraisemblable (le mot le dit assez), est quelque chose qui n'est pas le vrai mais qui n'en dissemble point trop: il est (il est uniquement) ce qui ressemble au vrai sans l'être".* <sup>37</sup>

Egiantzekotasunaz zinea, poesia, literatura (artea oro har) aztertu dutenak mintzo dira hobekien. Egiantzekotasuna ez da aski. Egia da arazoa. Beraz *"il y a deux façons, et*

---

<sup>33</sup> Merrill, ob.aip. 491 or. Ikus gai honetan sakontzeko, Ellul, J. Propaganda, New York, Knopf, 1965

<sup>34</sup> Ikus adibidez eta besteak beste Rodrigo Alsina, M., ob. aip.; Tuchman, Gaye, La producción de la noticia, Gustavo Gili, Barcelona, 1983, 96 or.; Veron, Eliseo, Construire l'événement. Les médias et l'accident de three mile Islands, Minuit, Paris 1981; Fishman, M. La fabricación de la noticia, Tres Tiempos, Buenos Aires, 1983; Sánchez-Bravo Cenfor, A. Objetividad en el discurso informativo, Pirámide, Madrid 1978.

<sup>35</sup> Tuchman, Gaye, La producción de la noticia, Gustavo Gili, Barcelona, 1983, 96 or.

<sup>36</sup> Ikus Azkargorta-Xamardo, Egia eta egiantzekotasuna: prentsa Euskadin, UztarUEU, 1990, 0 zb. 37-46 or.; Gritti, J. La presse et la communication vraisemblable in Systemes partiels de communication. Paris-La Haye, Mouton, 1972, 91-103 or.

<sup>37</sup> Metz, Christian, "Le dire et le dit au cinéma" in Le Vraisemblable, 11 zb. Seuil, Paris 1968, 31 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*deux seulement, d'échapper au Vraisemblable, qui est le moment pénible de l'art...l'instant où on y échappe est toujours un instant de vérité".*<sup>38</sup>

Ohartun dira artistak ezen arte alorreko diziplina bakoitzaren lege eta sintasia gainditzen denean, errepikapen hutsetik (nahi den beste konbinazio barne) aldentzen denean, egiantzekotasuna alde batera utzi eta beste esparru batetara pasatzen bait da (nolatan den posible esplikatu gabe). *"Tout texte, dit Genotek, est vraisemblable par cela même qu'il est un texte(...) Le vraisemblable est un facteur d'aliénation (...) Tandis que le vraisemblable rassure, le fantastique inquiète (...) Tandis que le vraisemblable triomphe dans les solutions, le fantastique s'y perd pour se résoudre, soit en réel, soit en irréel"*.<sup>39</sup>

Egiantzekotasuna utzi eta egiaren bila abiatzeko beste bidea -batez ere olerkariet ibilia- metafora da, Sánchez Cenjorek *"instrumento natural de un nuevo decir"* definitzen duena.<sup>40</sup>

Beraz, komunikabideetan ez dago egia eskuratzetik ezen edota egia komunikatzaileen akordiotik sortzen da (*consensumaren* teoria) edota bestela egiak gainditu egiten gaitu (teoria *errealista*).<sup>41</sup>

Artera jo beharra dago, berezkoa duen antzekotasuna gainditu eta halako diztirak erakusten dituen antzemangarri egiten zaigunean.

---

<sup>38</sup> Metz, Ch., in ibid. 53 or.

<sup>39</sup> Genot, G., L'écriture libératrice in ibid., 45-53 or.

<sup>40</sup> Sánchez-Bravo Cenjor, ob. aip. 99 or. Ikus aldiberean, Lefebvre, Henri., La presencia y la ausencia. Contribución a la teoría de las representaciones, Fondo de Cultura Económica, México, 1983, 264 eta hur; Ricoeur, Paul, La métaphore vive, Seuil, Paris 1975, 76 or.

<sup>41</sup> Lehen teorian sakontzeko ikus Innenarity, D., Praxis e intersubjetividad. La teoría crítica de Jürgen Habermans, EUNSA, Iruñea, 1977. Bigarreneerako, aldiz, Yarce Jorge (editatzailea) Filosofía de la comunicación, EUNSA, Iruñea, 1986.

## I. Atala: sintomatik egiara

Hegelekin esateko: "*ne nous fions pas à la vraisemblable touchant les choses importants*".<sup>42</sup> Gauza inportantea, egia kasu honetan.

---

<sup>42</sup> Hegel, G.W.F., *La relation du scepticisme avec la philosophie*, Urin, Paris, 1986, 35 or.

### 1.3. Jakitea ez da Egia harrapatzea

Hasteko, jakitea eta egia ezagutzea ez da gauza bera. Nahi baldin bada, bi bide daude zerbaiten ezagutza izateko: bat segitzen bada, jakin egiten da, jakitun bilakatzen da; bestea segituz, ostera, egia ezagutzen da (produzituz).<sup>43</sup>

*"Une vérité est toujours ce qui fait trou dans un savoir"* dio Badiouk.<sup>44</sup> Jakintza egitura bat da, sare bat, datu-multzo egituratu bat, egiak hondatzen duena, zulatu eta zalantzan jartzen duena. *"Le savoir est la capacité à discerner dans la situation les multiples qui ont telle ou telle propriété qu'une phrase explicite de la langue, ou un ensemble de phrases, peut indiquer. La règle du savoir est toujours un critère de nomination exacte. (...) Le savoir se réalise comme une encyclopédie. Un encyclopédie doit être ici entendue comme une sommation de jugements sous un déterminant* (designazioa)

---

<sup>43</sup> Esan beharra dago aurrera segitu baino lehen nik ontzat ematen dudan arrazoiketa honen iturria Alain Badiou filosofari frantziarra dela, eta bereziki ondoko liburuotan aurkitu behar dira oinarriak: *Théorie du sujet*, Seuil, Paris 1982, *L'être et l'événement*, Seuil, 1988 eta *Manifeste pour la philosophie*, Seuil 1989, nahiz eta nik gaztelerazko bertsioa erabili dudan *Manifiesto por la filosofía*, Cátedra, Madrid 1990, *Peut-on penser la politique?*, Seuil 1985, *Est-il exact que toute pensée émet un coup de dés?*, in *Les Conférences du Perroquet*, 5. zb. 1986.eko Urtarrila, *Le noyau rationnel de la dialectique hégélienne*, Maspero, Paris 1976) alegia. Arazo hau, bestalde, jakintza/egiari dagokiona hain zuzen, Azkargortak eta Xamardok Egia eta egiantzekotasuna: *Prentsa Euskadin* artikuluan harrotu dute lehen aldikotz gure artean, (ikus *Uztaro* 1990, 0 zb.37-46 or.) *Udako Euskal Unibertsitateko* ikastaro batetan (1989) landu ondoren. Eta bereziki egia eta gertakizuna zabaltasun eta sakontasun handiagoz aztertzeke, hor dago Anton Azkargorta Aretxabalaren tesi bikaina: Editorialea gertakizunaren aurrean. *El País* eta *Euskadi* (UPV 1988) harriduraren harriduraz argitaratu ezinik). Hor bestek beste biografi ugari eta aberatsa aurkitzen da, non argi ikusten den komunikologoak gertakizunaz mintzo direnean, egiatan, albisteaz ari direla. Ni hemen bide horri jarraituko natzaio, arazo linguistiko batzu zehaztuz guztion ulermenerako, batez ere euskal prentsan gertatutakoa xuxen ulertzeko, hipotesi aberasgarria zabaltzen bait da. Edozein kasutan atal hau V. arekin lotua dago eta han argituko dira hemen aidean gera daitezkeenak.

<sup>44</sup> Badiou, A., *L'être et l'événement*, 361 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*commun. On peut designer chacune de ces parties (egoerarenak alegia) par la propriété en question, et ainsi la déterminer dans la langue.(...)"*<sup>45</sup>

Zerbait ezagutzeko, zerbaiten mamira ailegatzeko, bi bide leudeke: (ohizkoa) bilaketa, bereizpidea eta klasifikazioa eta horrek alor batean (alor guztietan) dagoena ezagutzera darama;<sup>46</sup> eta bestea (ezohizkoagoa), Badiouk *"l'autre mode du discernement"*<sup>47</sup> deitzen duena, gertakizunaren fideltasunarekin<sup>48</sup> zerikusirik duena, azkenean egia sortarazten duena. *"La clé du problème est, ohartarazten du Badiouk, le mode sur lequel une procédure de fidélité traverse le savoir existant, à partir de ce point surnuméraire qu'est le nom de l'événement. (...) Nous voici confrontés à la subtile dialectique des savoirs et de la fidélité postévénementielle qui est le noyau d'être de la dialectique savoir/vérité".*

<sup>49</sup>

Beraz, egia harrapatzea ez da jakintsu baten zeregina, militante baten egitekoa baizik: *"Ce n' est pas un travail savant: c'est un travail militant...celui qui, hors savoir mais dans l'effet d'une nomination intervenant, explore les connexions au nom surnuméraire de l'événement"*.<sup>50</sup>

Beste era batera esateko, hemen ardura ematen duena -nire lan honetan- ez da soilik, Zarraoaren datuekiko objetibotasuna (jakintza), baizik benetako gertakizunaren

---

<sup>45</sup> Ibid., 362-363 or.

<sup>46</sup> Ikus Jacquard, Albert etab. , Penser Classer in Le genre humain 2. zb. Seuil, Paris 1988

<sup>47</sup> Ibid. 363 or.

<sup>48</sup> Hau, ondoko ataletan eta berezki V.enean ikusiko denez Alain Badiouren terminologia da.

<sup>49</sup> Ibid.361, 365 or.

<sup>50</sup> Ibid.363 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

lekukoek edo militanteek (subjektuek) beren interbentzioz zehatz dezaketena, Zarraoaren diskurtsoari dariona, elkarrizketatzailearen presio edo eraginaren aurrean.

Orain ulertuko da, agian hobeto, goiko Lacanen aipu hura: "*el síntoma...representa el retorno de la verdad como tal en la falla de un saber*".

Egia ez dagokio jakintzari, beste mailakoa bait da: "*...de otra referencia*", hots, egia eta jakintza ez dira baliokideak. Jakintza da, benetan, egiaren kontrarioa.

Egia ezagutzeko bide hau aukeratzea, bestalde, ez da zehaztasunaren ordeztasun ustea aukeratzea, ez. Lacanekin esateko: "*...no parece ya aceptable la oposición que podía trazarse de las ciencias exactas con aquellas para las cuales no cabe declinar la aplicación de conjeturas, por falta de fundamento para esta oposición, pues la exactitud se distingue de la verdad y la conjetura no excluye el rigor*".<sup>51</sup>

Zarraoaren hitzen esanguraz jabetzeko, beraz, ez da aski adierazpen horiek CIESen emaitzekin alderaztea, baizik eta egiak berarengan utzi dituen aztarnak (efektuak) antzematea, sintomen bidez: "*El efecto de verdad que se entrega en el inconsciente y en el síntoma exige del saber una disciplina inflexible en la prosecución de su contorno(...) Este efecto de verdad culmina en una relación irreductible donde señala la primacía del significante*".<sup>52</sup>

Alegia, Zarraoaren hitzetan desagokitasunak nabaritzen baditugu ere (eta nabariak dira) besterik ere nabaritzen da; ez bait da *normala* Kultura Sailburuordeak halako akatsak

---

<sup>51</sup> Lacan, J., Escritos, I., 105 or.

<sup>52</sup> Ibid., 142 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

izatea. Gertatzen dena da gezurtiak ezin duela beti bere estrategia prestatu. *"No siempre, gogorarazten du Ekmanek, los mentirosos preven en qué momento necesitarán mentir; no siempre tienen tiempo de preparar el plan que han de seguir, ensayarlo y memorizarlo".* <sup>53</sup>

Azpimarratu behar dena da, Lacanekin batera adierazleak (signifikanteak) adieraziak (signifikatuak) baino garrantzia gehiago duela. Dexente gehiago.

Ekmanek esaten du gezurretan aritzea bera gezur horien edukia baino adierazgarriagoa dela; berez dela esanguratsua alegia. <sup>54</sup>

Agian Guitarten testu honek eman dezake argi izpirik gezurraren esanguraz. *"De la capacité positive fondamentale de l'homme de pouvoir se mentir à lui même, la trace en tout texte est l'innommé".* <sup>55</sup>

Izendatzerik ez dagoen horren bila abiatzea da ikerlanaren zentzua. Analisi hori sintomatologia atzemanaz burutzen da. Eta ez da analisi kualitatibo klasikoa ezen analisi kualitatibo deiturikoa kuantifikazioari bait dagokio hein handi batean, presentzia-ausentziarekin jokatzeko bait du bere *inferentziak* egiteko, *variableekin* alegia, falta dena osatzeko. <sup>56</sup>

Benetako analisi kualitatiboa, hemen sintomatikoa deitzen dena hain zuzen ere, gainezkadura erakusten duena da, egoerari edo kuantifikazioari sobran zaiona. *"Le rapport à l'être de la qualité et de la quantité n'est donc pas tout une question de proximité que de*

---

<sup>53</sup> Ekman, ob. aip., 44 or.

<sup>54</sup> Ibid. 175 or.

<sup>55</sup> Guitart, René, La courbure de la raison, Les conférences du perroquet, 31 zb., Le perroquet Paris, 1991, 3 or.

<sup>56</sup> Ikus Bardin, Laurence, Análisis de contenido, Akal, Madrid, 1986, 87 or. etab.

## I. Atala: sintomatik egiara

*type de variabilité. La quantité désigne la variation placée (conservatrice et extensive); la qualité la variation forcée (destructive) . L'une désigne le procès intégral du terme considéré (sa considération en tant qu' inclus dans un Tout); l'autre son procès différentiel (sa considération en tant qu'hétéronome au Tout".* <sup>57</sup>

Ba al dago, baina, egiarik? "*Évidemment, erantzuten du A.Badiouk, tout est suspendu à la possibilité qu'existe une procédure fidèle générique".* <sup>58</sup> Hori egonik - etengabea- egiak eman egiten dira egoeran, egiturazkoak ez diren egiak baina egituran aurkezten direnak.

Egiaz jabetzea posible delako apustua egiten da lan honetan. Positibista, erlatibista eta gisako pentsalariengandik urrun dago hemen ontzat ematen den hipotesia. Pentsamendu transzendentetik ere urrun. <sup>59</sup>

---

<sup>57</sup> Badiou, A., Bellassen, J., Mossot, L., Le noyau rationnel de la dialectique hégélienne. Commentaires autour d'un text de Zhang Shiyang, Maspero, Paris 1978, 50-53 or.

<sup>58</sup> Badiou, A., L'être et l'événement, ibid. 374 or.

<sup>59</sup> Egia da seguruaski (izatea eta subjektuarekin batera) filosofiaren gairik garrantzitsuena. Askorentzat filosofiaren helburua ere ba da. Badiourentzat "*es la verdad lo que es hoy una idea nueva en Europa*" (Manifiesto por la filosofía, 79 or). Harrokeria hutsa litzateke hemen egiari buruzko laburpen bat egitea, hurbilpenezkoa bera ere. Baina Badiouren bidetik egiten den hautua bederen kokatzeari ezinbestekoa deritzot. Aipatzen den nobedade hori zertan den guttienez adierazteko. Zilegi bekit, bada, balantzetxo bat. Bepizkundetik honuntz (greziarrentzat egia eta errealitatea gauza bera zirela, judutarrentzat egia konfidantzan zetzala, Aristotelentzat egia esakune edo enuntziatu baten osagarri bat zela eta eskolastikoentzat egia osagarri traszendente bat zela ahanzi barik), filosofiaren historia begiratzen bada, hauxe agertzen da, hots, Descartesengandik hasi eta Leibnitzenganaino proposizio matematikoen nagusitasuna agertzen da, zientzia horretan oinarriturik eraiki nahi da sistema filosofikoa, logika eta metafisika bereziki. Beraz korrante positibista eta zientifista guztietan zientziari ematen zaio egiara ailegatzeko zeregin sistematikoa; Rousseau eta Hegelen haritik marxismoaren barrena, berriz, egiara ailegatzeko kondizioa mundua eraldatzean dago jarria. Politika iraultzailea bera zientzia bilakatzen da, berorren bidez aldatzen bait da errealitatea. Bide bietatik abiaturik, egia zerbait izatekotan zera objektiboa litzateke, bide logikotik, zientifikotik edo politikotik harrapagarria. Marxek, jakina, bizitza desakralizatu egin zuen, egia prozesu zientifiko-historiko batetan sakonduz -praktika gidari- lortu daitekeena bilakatuz. Nietzsche eta Heideggerekin, (eta areago beraien jarraitzaileen proposamenetan, Wittgenstein, Darrida etab. lekuko) egiaren bilaketa *nihilismoan* jausten da, ezinezkotzat jotzen bait da egiaren objektibazioa. Subjektuaren premia dago, (positibismo eta

## I. Atala: sintomatik egiara

Badiourentzat, *"tanto para Marx como para nosotros, la desacralización no es en absoluto nihilista, en tanto que nihilismo debe designar aquello que pronuncia que el acceso al ser y a la verdad es imposible. Al contrario, la desacralización es la condición necesaria para que dicho acceso se abra al pensamiento"*.<sup>60</sup> Eta proposatzen duena da "meditazio kartesiarrean" sakontzea, hots, zer pasatzen da, erabat bazterten badugu Presentzia, Bagaren nagusitasuna eta izateraren aniztasun hutsa hartzen badugu abiapuntutzat? *"La filosofía denuncia o incensa el nihilismo moderno sólo en la medida de su propia dificultad para captar por dónde transita la positividad actual, airtortzen du Badiouk, y ello por no concebir que hemos entrado ciegamente en una nueva etapa de la*

---

marxismoak oro baztertzuz) beraren baitan ipiniz egia harrapatzeko gaitasuna. Baina horrela, egia baino egiari buruzko galdera nagusitzen da, teknikak utzi duen erabateko hutsunea betetzeko. Heideggerentzat metafisikaren azken muturreraino ailegatu gara, teknikak dena menderatzen bait du. Mundua Objektua bihurtu da; pertsona Subjektu. Ez dago pentsatzerik. Galderak egiterik badago. Galderak, bai; erantzunik ez ordea, hara korrante honen helmuga. Psikoanalisiak lagundu du hemen asko, gauza bera ez izanarren, Freud eta Lacanek bereziki Subjektuaren kategoriari emandako lehenitasuna lekuko. *Jainkoaren* beharra sortzen da berriro une historiko honetan, hots, egia "norbait" izatearen premia azaltzen da subjektua teknikaren hoztasun errukirik gabekotik salbatua izan dadin. Poesiaren garrantzia deskubritzen dute filosofari hauek, beraiek egiten omen dute eta hobekien egiari buruzko galdera premiatsu hori, batez ere Hölderlin ("Jainkoen itzulera"), Mallarmé, Rimbaud, Pessoa, Mandelstam, Rilke, Trakl...Paul Celanganaino. Filosofoek, Kantengan oinarrituirik, ezagupenerako subjektu-objektuaren arteko korrespondentzia esijitzen badute, poetek egiara ailegatzeko ezagupena ez den beste bide bat hartzen dute, poema. Esperintzia hori ez da subjektiboa ere. Ez gaude subjektibismo esperimentalean, Husserlen kasuan alegia. Eta jakintza-egiaren (ezagupen-pentsamenduaren) arteko desberdintasuna airtortzen. Balantze moduko hau Ferrater Mora, J. Diccionario de Filosofía, Alianza Editorial, Madrid, 1979 IV. lib. 3397-3412 or.; Rosental, M.M., Iudin, P.F., Diccionario de Filosofía, Akal, Madrid, 1974, 479-481 o; Tchang En-tsé, Verdad y conocimiento, Akal, Madrid 1976; Kant, Im. Crítica de la razón pura, II. lib., Losada, Buenos Aires 1973; Boole, George, El análisis matemático de la lógica, Cátedra, Madrid 1984; Fenichel Pitkin, H. Wittgenstein: El lenguaje, la política y la justicia, Centro de Estudios Constitucionales, Madrid 1984; Perelman, Ch. L'empire rhétorique, J. Urin, Paris 1988; Heidegger, M. Chemins qui ne mènent nulle part, Gallimard, Paris 1980; Hegel, G.W.F. Ciencia de la lógica, II lib. Solar-Hachette, Argentina, 1968; Gómez Pin, V. Hegel, Barcelona, 1983; Hegel, G.W.F., La relation du scepticisme avec la philosophie, J. Urin, Paris, 1986, 35. or.; Amigo, Ma. L., Guía para leer a Platón, Universidad de Deusto, Bilbo, 1989...Aristóteles, Poétique, Ed. Les Belles Lettres, Paris, 1969, eta... Badiouren aipatutako obretatik bihia jasoz egina da.

<sup>60</sup> Badiou, A., Manifiesto por la filosofía, 38 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

doctrina de la verdad, que es la del múltiple-sin-Uno, o de las totalidades fragmentarias, infinitas e indiscernibles".<sup>61</sup>

Poetei buruz Badiouk uste du onargarria dela desobjektibatzeko/desubjektibatzeko erabiltzen duten metodoa, hots, jakintzaren ordeaz egiak produzitzeko metodoa. Metodo hau eza/gainezkadura (manque/excès) deitutakoa da.

Baina berak areago jo nahi du eta horretan oinarritzen da lan honen muina. Batetik Bigarren kontzeptua errekuperatu nahi du, baina ez Biga esentziala, marxismoan bezala burgesia versus proletalgora, edota platonisten eta erlijiozaleen gisara hor-nonbait betidanik (deskubritua izateko) dagoen Nor hura, historikoa baizik: *"...la novación política en curso intenta oponer una visión del Dos en historicidad, lo que quiere decir que el Dos real es una producción del acontecimiento, una producción política, y no un presupuesto objetivo o científico. Debemos hoy proceder a una inversión de la cuestión del Dos: de ser modelo del concepto en objetividad (la lucha de clases, o la dualidad de sexos, o el Bien y el Mal...) va a devenir aquello a lo que se prenda la producción azarosa que se vincula al acontecimiento. El Dos, y no el Uno como sucedía anteriormente, es lo que adviene, el Dos es post-acontecimiento. El Uno (la unidad de clase, la fusión amorosa, la Salvación) era impartido al hombre como su dificultad y tarea. Al contrario, pensaremos que nada es más difícil que el Dos, nada más sumiso simultáneamente al azar y a la labor fiel"*.<sup>62</sup>

---

<sup>61</sup> Ibid., 40 or.

<sup>62</sup> Ibid., 68-69 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

Bigarrenik, Badiouk, egia bera desobjektibizatu nahi du, "*egia objekturik bakoa bait da*",<sup>63</sup> eta hirugarrenik subjektuaren arazoa dago. Objektua deuseztaturik, non gelditzen da subjektua? Poetentzat desagerturik dago. Badiourentzat, subjektua ez da sortzen objektibitate marxistentzat bezala, ez eta burgesiaren operatzaile huts bilakatzen da Heidegger zaleentzat bezala. Badiouk objekturik bako subjektua produzitu nahi du. "*La tarea de un pensamientos semejante sería producir un concepto de sujeto tal que no se apoye en ninguna mención del objeto, un sujeto, podríamos decir sin frente a frente... Produzcamos un sujeto que no se apoye en ninguna mención del objeto*".<sup>64</sup>

Eta proposatzen duena zera da, bere lan osoaren aurkikuntza izango dena hain zuzen ere: "*...un sólo concepto, el de procedimiento genérico, reúne la desobjetivación de la verdad y la del sujeto, haciendo aparecer el sujeto como simple fragmento acabado de una verdad post-acontecimiento sin objeto*".<sup>65</sup>

Azkenik, bereiztezinaren kontzeptua, bereiztezintzat bereiztuz hain zuzen ere, hots hizkuntzaren baliabidez esaterik, bereizterik, izendatzerik ez dagoena (aldi berean linguisten nagusitasuna ukatuz). Bereiztezina kontzeptu esplizittoa baldin bada (Leibniz) deus ez dago hizkuntzetik kanpo. Baina bereiztezina kontzeptu generikoa baldin bada orduan bai, generikotasunak onartu egien du kontzeptu hori, linguaiaren kontzeptutan onetsia izango ez bada ere: "*Si la verdad no tiene nada que ver con la categoría de objeto, es precisamente porque siempre es, como resultado de un procedimiento infinito, un múltiple indiscernible*".<sup>66</sup> Eta kontzeptu honen egokitasuna matematikak erakutsia du

---

63 *Ibíd.*

64 *Ibíd.*, 71 or.

65 *Ibíd.*, 71 or.

66 *Ibíd.*, 73 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

jadanik. Kontzeptu hori, noski, subjektuak produzitzen du, gertakizunean abiaturik, beherago agertuko denez.

Egia edukitzeko, esplikatzeko du Badiouk, fenomeno-katea behar da, honoko hau: gertakizuna, interbentzioa, leialkidea ("*opérateur de fidélité*") eta honek leialtzat jotzen dituenak zeinak egoeraren parte izanik <sup>67</sup> baina aldi berean parte huts ez direnak, partaidetasunean berri direnak baizik -"*une nouveauté*" <sup>68</sup>; egoeran eta egituran izan arren ezberberiztuak direnak inork ez bait ditu beretzat hartzen.

Parte dira baina inklusio bereiztezinean (ez bereizturik) daude; pertenezia (*apartenance*) adierazten dute soil-soilik. *Elementu* dira parte baino gehiago. "*S'il existe un complexe événement-intervention-opérateur de fidélité, tel qu'un état positif infini de la fidélité soit générique, donc s'il existe une vérité, le référent-multiple de cette fidélité (soit l'une-vérité) est une partie de la situation: celle qui regroupe tous les terme positivement connectés au nom de l'événement(...)* Le fait que la procédure soit générique entraîne que cette partie ne coïncide avec rien de ce que classe un déterminant encyclopédique, par conséquent, cette partie est innommable par les seuls ressources du langage de la situation, Elle est soustraite à tout savoir, elle n'a été, par aucun des domaines du savoir,

---

<sup>67</sup> Badiou, A., L'être..373 or.

<sup>68</sup> Ibid., 370 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*déjà comptée, ni le sera, si le langage est en l'état -ou reste à l'État. Cette partie, où une vérité inscrit sa procédure comme résultat infini, est un indiscernable de la situation".* <sup>69</sup>

Egia beraz, egoeran agertzen da baina nola edo hala ba du zerbait egoerari ez dagokiona, erabat egoeratik kanpo ere ez dagoena. <sup>70</sup> Egoera batean egia den bakarra harrapaezina eta bereiztezina (integraezina) den huraxe bait da. <sup>71</sup> Beraren parte izatea generikoa da guztiz, *"puisque si l'on veut la qualifier, on dira seulement que ses éléments sont".* <sup>72</sup>

Egia ez bait dago emana (idealismo ororen kontra) ez dago jakiterik. Apustuaren (ez fedearen) emaitza da egia.

Apustuaren emaitza izateak (eta hori soilik) egiaren komunikagarritasuna kolokan jartzen du. Prentsa mailan objektibotasuna (egiaren izena ez ahantzi) komunikagarria da.<sup>73</sup> Areago kazetariak objektibotasunerantzko urratsak ematen baditu komunikatu ahal izateko da. Baina egia (komunikabideek ezinezkotzat hartzen duten huraxe) ez da komunikagarria. Bizikizun transferiezina da. *"Hay que encontrar el verdadero fundamento de una ciencia real, dio Alexander Koyrek ondoren Galileo Galilei aipatzeko , una ciencia del mundo real, no de una ciencia que sólo llega a la verdad puramente formal(..) A propósito de esta ciencia, verdadero conocimiento filosófico que es conocimiento de la esencia misma del ser, Galileo proclama: 'y yo os digo que si alguien no conoce la verdad por sí mismo, es*

---

<sup>69</sup> Ibid., 373 or.

<sup>70</sup> Ibid., 372-73 or.

<sup>71</sup> Ibid., 361 or.

<sup>72</sup> Ibid., 373 or.

<sup>73</sup> Ikus adibidez Rodrigo Alsina, M., ob. aip.,100 or: *"un acontecimiento no comunicable no sería en ningún caso un acontecimiento periodístico"*.

## I. Atala: sintomatik egiara

*imposible que cualquiera le dé este conocimiento. Efectivamente, es posible enseñar las cosas que no son ni verdaderas ni falsas, pero lo verdadero, con lo que yo entiendo las cosas necesarias, es decir, las que no pueden ser de otro modo, toda mediana inteligencia las conoce por sí misma o no puede comprenderlas nunca' ".* <sup>74</sup>

Egia egoeran, situazioan, ematen da subjektu (fidela)aren eraginez. "Llamaremos 'situación', para abreviar, a un estado de cosas, una multiplicidad cualquiera. Para que se despliegue un procedimiento de verdad relativo a la situación, hace falta que un acontecimiento puro suplemente esta situación. Este suplemento no es ni nombrable, ni representable por los recursos de la situación -su estructura, la lengua establecida que nombra los términos, etc-. Está inscrito por una nominación singular, la puesta en juego de un significante de más, y son los efectos en la situación de esta puesta en juego de un nombre de más los que van a tramar un procedimiento genérico y disponer de la suspensión de una verdad de la situación. Pues de entrada si ningún acontecimiento la suplementa, no hay ninguna verdad en la situación. Sólo hay lo que llamo caracter verídico. En diagonal agujereando todos los enunciados verídicos, es posible que advenga una verdad, desde el momento en que un acontecimiento ha encontrado su nombre supernumerario". <sup>75</sup>

### **1.3.1. Egia eta "antzeko" eremuak**

---

<sup>74</sup> Koyré, Alexander, Estudios de historia del pensamiento científico, Siglo XXI, Madrid 1983. Albistea ez baina gertakizunaren komunikagarritasun ezintasunaz ikus Azkargorta, A. Xamardo, N., Herri mugimenduak eta komunikazio-prozesua, Uztaro, 3. zb., 1991, 77-85 or.

<sup>75</sup> Badiou, A., Manifiesto ... 19 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

Atal hau hasi baino lehen hiztegi bat proposatu nahi dut, guztiok elkar ulertu dezagun. Badiouk erabiliriko terminoen ondoan euskarazkoak soil soilik ematen ditut. *Véridique* bi zatitan ematen da: datuekiko, *egiaztagarria*; pertsonaren osagarriekiko, *egiatia*.

Vérité	Egia
Vrai	Egiazkoa
Vraisemblable	Egiantzeko(tasun)a
P.Générique	Egiazkotasuna
<i>Véridique</i>	Egiaztagarria
<i>Veraz</i>	Egiatia
Véridicité	Egiaztagarritasuna
Opérateur	-
de fidélité	Leialkide

Enziklopedian sartzen dena, hau da klasifikatu eta sailkatu daitekeena, egiaztagarria da (*véridique*); egiazkoa, berriz, (*vrai*), inerbentzio eta apustuaren bidez

## I. Atala: sintomatik egiara

gertakizunari dagokiona <sup>76</sup> berorrekin -nolarebait- lotuta dagoena. *"Le discernable est véridique. mais l'indiscernable seul est vrai. Ou, il n'y a de vérité que générique, parce que seule une procédure fidèle générique vise l'un de l'être situationel. Un procédure fidèle a pour horizon infini l'être-en-vérité".* <sup>77</sup>

Baina zerbait ez daiteke egiazkoa izan, egiazkotasunik ez balego, alegia *procédure fidèle générique* hori ez balego.

Egia absolutorik, aurretiazko eta deskubrigairik ez dagoelarik (gogoratu *"toda verdad es una producción infinita"* ; *"no hay saber de la verdad sino producción de verdades"*), egia produzitu egiten bait da, prozesu barruan (*procédure générique*) ematen da egia. *"Pensada matemáticamente en su ser -como multiplicidad pura-, adierazten du Badiouk, una verdad es genérica, está sustraída a toda designacion exacta, es excedente con respecto a lo que ésta permite discernir".* <sup>78</sup> Eta hau, generikotasuna, jada posible da matematiketan egin diren azterketen ondorioz: *"...sabemos desde el acontecimiento en el matema que constituyen los operadores de Paul Cohen, que es posible producir exactamente un concepto de lo indiscernible y establecer bajo ciertas condiciones, la existencia de multiplicidades que corresponden a este concepto, las multiplicidades genéricas"*. <sup>79</sup>

---

<sup>76</sup> Badiou, L'être...366 or.

<sup>77</sup> Ibid., 374 or.

<sup>78</sup> Ibid., 58 or.

<sup>79</sup> Manifiesto por la filosofía, 73. or. Cohenen teoriak ikusteko irakur Apery, R. eta beste Pensear la matemática, Tusquets, Barzelona, 1984 bereziki 309-12. Teoria honen arabera, Gödel eta Cantoren teoriak gaituz) ordurarteko sistema matematiko ohizkoaren barnetik *Zermelo Fraenkel*etik alegia, *continuum*aren hipotesia demostraezina dela eta, beraz, bihurtura edo *'forcing'* (Badiouk *forçage*) bidez bereizteza dena (egoerarekiko gainezkaduraz dagoena) produzitu daitekeela erakusten da, sistema barruan beti bait dago bertan kabitzen ez den zerbait.

## I. Atala: sintomatik egiara

Teoria honen arabera, Cohenen teoriak geroztik alegia, existitzen ez dena ez da existitzen denaren osagarri mugatua, izan ez baina izaitera ailegatzen denean egituraren (algebraren) leku hutsa (*manque*) betetzera etorriko dena. Ez. Gainezkadura (*l'excès*) eta leku hutsa ez dira gauza bera. "*La logique de l'excès est reelle, de ce qu'il est impossible de la limiter*".<sup>80</sup>

Cohen geroztik, 1963.az geroztik esan nahi da, erregulazio algebraikoak huts egiten du gainezkadura integratzerakoan. Subjektuak eragiten du bihurtura edo *forçage* hori eta ez dago egituraren kondiziotan baldintzaturik.<sup>81</sup> "*El precio de esta certeza (egia generikoa dela alegia) es que la cantidad de un múltiple soporta una indeterminación, una especie de falla disyuntiva, que constituye todo lo real del ser mismo: resulta en verdad imposible pensar la relación cuantitativa entre el número de elementos de un múltiple infinito y el número de partes. Esta relación tiene solamente la forma de un exceso errante: se sabe que las partes son más numerosas que los elementos (teorema de Cantor), pero ninguna medida de este más se deja establecer*".<sup>82</sup>

Nondik abiatzen da, baina, egiazkotasuna, (*procedure générique* hura)? "*Son origine est l'événement, que le savoir ignore, et sa texture l'opérateur de connexion fidèle, qui est lui aussi une production temporelle*".<sup>83</sup>

'Halako argitasun bereziz adierazten du Badiouk Manifiesto por la filosofian' iturri hau eta prozesu osoa: "*Los procedimientos de verdad, o procedimientos genéricos, se*

---

<sup>80</sup> Badiou, A., Théorie du Sujet, 290 or. Azpimarra Badiourena da.

<sup>81</sup> Ikus areagoatzeko, Badiou, A., Théorie du sujet, 287-290 or.

<sup>82</sup> Badiou, A., Manifiesto..., 85 or. Azpimarrak Badiourenak dira.

<sup>83</sup> Badiou, A., L'être..371 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*distinguen de la acumulación de saberes por su origen de acontecimiento (événement). Mientras no sucede nada sino lo que es conforme a las reglas de un estado de cosas puede haber conocimiento, enunciados correctos, saber acumulado; pero no puede haber verdad...; lo que está claro es que el origen de una verdad pertenece al orden del acontecimiento" .<sup>84</sup>.*

Klasifikaezinak, bereiztezinak diren parte/ez-parte horiek, elementuek alegia, egiazkoa ematen dute (*vrai*, beraz, egiari dagokio); bereizgarria denak, berriz, egiaztagarria denak, klasifikatu eta sailkatu daitezkeenak, egiaztagarritasuna suposatzen dute (*véridicité*).

Luze xamara izan arren, merezi du honek aipu hau osoro hona ekartzea: "*Une inclusion indiscernable -et telle est, pour faire court, une vérité-, n'a d'autre 'propriété' que d'envoyer à l'appartenance. Cette partie est anonymement ce qui n'a pas d'autre marque que de relever de la presentation, d'être composé de termes n'ayant entre eux rien de commun qu'on puisse noter sinon appartenir à cette situation, ce qui, proprement, est son être, en tant qu'être. Mais cette 'propriété' -être, tout simplement-, il est clair qu'elle est partagée par tous les termes de la situation, et qu'elle est coexistente à toute partie qui regroupe ces termes. Aussi la partie indiscernable n'a-t-elle en définitive que les 'propriétés' de n'importe quelle partie. C'est à bon droit qu'on la déclare générique, puisque, si l'on*

---

<sup>84</sup> Badiou, Manifiesto..., 19 or.

## I. Atala: sintomatik egiara

*veut la qualifier, on dira simplement que ses éléments sont: la partie relève du genre supreme le genre de l'être de la situation comme tel, car dans une situation, 'être et être-compté-pour-un-dans-la-situation' sont une seule et même chose(...) Toute partie nommable, discernée et classée par le savoir, renvoie non à l'être-en-situation comme tel, mais à ce que la langue y découpe de particularités réperables. La procédure fidèle, précisément parce qu'elle s'origine d'un événement où le vide est convoqué, et non du rapport établi de la langue à l'état, dispose, dans ses états infinis de l'être de la situation . Elle est une-vérité de la situation quand un déterminant du savoir ne spécifie que des véridicités. Le discernable est véridique. Mais l'indiscernable seul est vrai. Ou, il n'y a de vérité que générique, parce que seule une procédure fidèle générique vise l'un de l'être situationel. Une procédure fidèle a pour horizon infini l'être-en-vérité" .<sup>85</sup>*

### **1.4. Zenbait ondorio**

Beraz, Iñaki Zarrakoak, EAEko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordeak, elkarrizketa xeble hartan, ondoko ondoriook ematen ditu aditzera, Freud, Lacan eta bereziki Badiouk proposatutakoa zuzena bada.

---

<sup>85</sup> Badiou, A., L'être...373-74.

## I. Atala: sintomatik egiara

- datu okerrak ematen ditu Zarraoak zuzenak ez direla froga bait daitezke iturria (CIES) txekeatuz.

-bereiztu, klasifikatu eta sailkatu ditzakegunez, egiaztagarriak dira esandakoak, izenda ditzakegu, froga zehatzaren pean daude, okerra/zuzenaren parean alegia. Jakintza objektiboari dagozkio, desegokitasuna azpimarratuz. Baina ez dagozkio egiari (ez eta ukatzeko ere). Ez dira "egiazkoak".

-Zarraoak ez du hutsik egiten. Ez da errorea bere ahotik dariona, ez bait da ekibokatzen (nahita ala ez).

-Sailburuordearen hitzetan gezurra dago. Ez, jakina, zentzu etikoan, hots ez norbaiti iruzur egiteko zentzuan (hori berak jakinen du). Ez dago, ez du zertan halabeharrez egon beharrik, tamainako intentzio gaiztorik. Egon litekeenik, ordea, ez da ukatzen.

-Gezurra, zentzu subjektibo-pertsonalean baino zentzu estrukturalean ematen da. Jakintzan kabitzen ez dena ezin bait da aipatu ere egin. Gezurra, estrukturari -aginteari, estatuari- dagokio. Hau Platonek esana utzi zuen Adimantorekin elkarrizketan: "*Pero ademàs la verdad debe ser muy estimada.(...) y la mentira es en realidad inútil para los*

## I. Atala: sintomatik egiara

*dioses, aunque útil para los hombres bajo la forma de un remedio, es evidente que semejante remedio debe ser reservado a los médicos...Si es adecuado que algunos hombres mientan, éstos serán, los que gobiernan el Estado, y que frente a sus enemigos o frente a los ciudadanos mientan para beneficio del Estado; a todos los demás les estará vedado".*<sup>86</sup>

-Baina, aldi berean, zerbait eraginkorraren sintomak dira Iñaki Zarraoaren adierazpenak. Zerbait hori, Euskal Herriko prentsaren egituran gertatu denaren sintomak dira. Gertakizuna -stricto sensu- eman egin da, eta egia hedatu egin da egituraren gorpuzdura osoan zehar, egitura osoa hankaz gora jarriz. Gertakizun horren dardarak halako kontsekuentzia nabariak ditu: prentsa honek, egoera periodistikoa huts-hutsean begiratu, ez du berezitasun apartekorik: prentsa-prentsa da; beste bat baino ez da; baina, pentsatua izan den bezala (Euskal Herriari dagokion prentsa bakarra) onartzen ez dutenak, Jaurlaritzaren aldamenekoak -kasu honetan Kultura Sailburuordea-, datu zehatzak itxuraldatzera bultzatzen ditu (gezurretan aritzeraino) eta era guztietako oztupoak jartzen haren garapenari. Jaurlaritzak neurririk kanpoko agresibitatea erakutsi duela ikusten da lan honetan, egia haren efektuak iragarritz.

-Gertakizuna, euskal prentsaren aldarrikapena bera da, geroago zehaztuko denez. Bego oraingoz, horren aitoren-apustua. Hipotesia da. Esan dezadan, halere, gertakizun hori prentsaren egituran eman arren eta ez beste inon, ez dagokiola indarrean dagoen edo onetsia den egiturari, euskara hutseko egitura politikorik ez bait da esistitzen. Zarraoak,

---

<sup>86</sup> Platon, República III, in Diálogos, Gredos, Madrid, 1988, 153 or

## I. Atala: sintomatik egiara

Jaurlaritzaren gizona izanik, ezin du berea egin gertakizun horretatik ixurtzen den egia, egitura politikoa bera gezurretsiko bait luke. Gertakizun horren diztira eta froga, testigu izanik bakarrik antzeman daiteke, hots nola edo hala gertakizun horri lotuta egonda, berorren aktibitate militanteak bakarrik ematen bait du ezagutzera. Bestela transmitiezina da. Ulertezina.

- Hemen isladatzen den konfliktoa, gatazka, beraz, ez da psikologikoa soil-soilik. Zarraoa ez da neurotiko bat. Barne-gatazka politikoa da, gertakizuna (hemen) ez bait da alor pertsonalekoa; maila politikoa du. Badiouren eritziz, lau moetatakoa (eta soilik lauotakoa) da egia: zientzia, artea, maitasuna eta politika alorrekoa alegia.<sup>87</sup> Euskal Prentsaren kasuan, politika alorrekoa da egia, gertakizun batetatik zintzilikatua.

---

<sup>87</sup> Ikus Manifesto... 56-66 or.

## II. ATALA: EGIAREN EFEKTUAK (1)

### Ordezkapena eta luzamendua

Aurreko atalean aipatu elkarrizketan agertzen diren sintomak zerau igertzen dute, alegia, benetazkoa zela euskararekin lotutako *herri mugimenduak*, hamarkada osoan esandakoa, hots, Eusko Jaurlaritzak bazuela, ukan, beste proiekturik, naiz eta formulatu ez.

Proiektu hau, lanean zehar ikusten denez, ez da, funtsean, kazetal-proiektua ; politika eremuan sustraituta, areago doana baizik. Horrek eraman du Jaurlaritza (fase bakoitzean) Euskal Prentsaren proiektu periodistikoa ukatzera.

Hipotesi hau bermatzeko ondoko puntuok (konstante baten parametroak) agertzen dira nabarmen asko, alegia Jaurlaritzak ez duela inoiz bat egin nahi izan "euskal prentsa" deitzen den alorreko langileekin; urtetan saiatu dela ARGIA ("euskal prentsa" horren untzi-ikurra) trabatzen (adibiderik esanguratsuen *'astegunkariak'* lehiatik baztertzea izanik); lehenengoz azterketa serio bat egiteko orduan ere, (CIES' 1989) ez duela berea egin ordurarteko aldizkari euskaldunetatik eskatzen zitzaiona; egunkaria ateratzeko orduak jota, ohizkoa denaren kontra, ez duela irakurleko potentzialaren nahia lehentasunezko kriteriotzat jo. Hots, betiere *oztopoak jarritz* ibili da, azken hamarkada t'erdian zehar, funtsik bazuten arrazoiak erabili eta aitzaki bihurri bihurtuz. *Egunkaria Sortzen* taldeak ("*promotorak*") egunkaria egiteko proiektu zehatza kaleratu ahala, (1989-XII-6 Durangon), proiektu propio-desberdinaren berri eman du Jaurlaritzaren Kultura Sailak. Gai honetan ere geroak erakutsi du, borondaterik gabe, irteera

trabatzea zuela-duela helburu Jaurlaritzak, eta, bereziki, Kultura Sailak. Egunkariarena, beraz, unerik deigarriena izanda ere, ez da bakarra ez isolatua izan.

ARGIAk Iñaki Zarraoari egindako elkarrizketa, testuinguru zehatz honetan ulertu behar da. Ez da elkarrizketa isolatua. Prozesu osoaren gailurra dela aitortzen dut. Eta bere hitzak ere ez dira bapatean, tupustean, harrapatutako baten hitz erabetiak. Aurretiaz handik eta hemendik - beti ere EAeko aginte autonomikoaren alorretik- hedatutako arrazoiketaren ispilu baino ez dira.

### 2.1. Elkarrizketaren kokagune-faseak

Gogora dezagun: elkarrizketa 1989-X-1ean argitaratzen da ARGIAN eta bi astetako segida izan zuen. Handik gutxira *Egunkaria Sortzen* izango zen taldearen lehen bilera egin zen 1989-XI-1ean hain zuzen, Donostiako *'Joxemiel Barandiaran' Lizeoan*. Halere bi data hauen artean ez dago kausa-efektu haririk. CIESek esandakoak (ez Zarraoaren aitortpenak) lehendik uste zena berretsi baino ez bait zuen egin. Handik urtebetera, 1990-XII-6an, *Egunkaria Sortzen* promotoraren eskutik *Euskaldunon Egunkaria* deitu euskal egunkaria kalean jarri zenean ez zen Jaurlaritzak egin behar zuena egiten ari, aginte-egituraren hutsak betetzen alegia, proiektu propioa garatzen baizik, urtetan garatutako proiektua erran nahi bait da. *Herri mugimenduak* ez bait du inizatibarik galdu. <sup>88</sup>

---

<sup>88</sup> Herri mugimendua zer den beherago aztertuko da: V. atalean bereziki.

Ordurako 1988an zehar bizi-bizi ondua zetorren euskarazko egunkariari buruzko gaia. Urte horretan ezezik, 80. hamarkada guztian; 83.etik aurrera, lehen mailan gainera.

Euskarazko egunkariaren eztabaida, azken aldion, idatzizko hedabide elebidunek 76tik 78ra ezagutu zuten porrotetik sortzen bada ere, dudarik ez da 80. hamarkadan garatzen dela. Garai horretan, duda ezina da ARGIAren nagusigo nabarmena euskarazko prentsan. Gai honetaz antolaturiko mahainguruen bolada 84.etik aurrera ematen da, eta 88.ean berpiztu.

Hauek izan dira, azkenaldion, finka dezagun hiru izan direla, euskal prentsari buruzko polemika honek ezagutu dituen faseak:

a.- **Egin-Deia fasea** (1983-1986) Pedro Migel Etxenike, eta Luis Mari Bandres Jaurlaritzaren Kultura Kontseilari zirela, 'ajentzia'-ren espero antzuan amaitua (1986-IX-18).

b.- **Hemen-Eguna fasea**, "Deia euskaraz" (1986-III-23.)-ekin hasia, 1986-VII-24.eko dekretuarekin segi eta 'astegunkari' bion gainbehera iragarri arte.

c.- **geldiune fasea** euskal prentsaren 100. urteurrenetik (1987) CIESen azterketaren emaitzak ikusi arte (1989-X-8/15).

d.-**Egunkaria-Egunero fasea** 1989-XI.etik hasi eta *Euskaldunon Egunkaria* kaleratu arte (ikus VII atala). Fase honetan itzali ziren hiltzeko jaiok izan ziren *Hemen* (1986-IX-26/1990-IX-28) eta *Eguna* (1986-X-05/1990-IX-27)

### 2.1.1. Polemika berpiztua

Baina elkarrizketa haren (Zarraoari egindakoaren) testuinguru hurbila 1988-IV-28an kokatu behar da, Luis Alberto Aranbarri 'Amatiño'-k, *Eguna 'astegunkarian'*, "Euskarazko egunkari publikoa" artikulua idazten duenean, euskarazko egunkariak, izatekotan, nola izan beharko lukeen aitortuz. Hor agertutako ideia horiek, *Jakin* aldizkariak 1982.ean argitara emandako monografikoan ditu erroak. Aitzitik garrantzia, geroztik Eusko Jaurlaritzak eta ingurukoek proposamen ofiziala egingo dutenean hartzen du.

*"Euskararen presentzia komunikabideetan salbatuko bada, zioen Amatiñok 1982.ean, irtenbide bakarra erakunde publikoetan dago. Gobernuak edota Gobernuek sortaraz ditzaketen erakundeek baizik beste inork ez du gakoaren giltza"*. Euskarazko prentsa idatziaren irtenbide bakarra, beraz, prentsa publikoan dago.<sup>2</sup> Bertan, Joan Mari Torreal dai eta Joxe Azurmendiren gidaritzapean egindako mahainguru bat agertzen da tanskribaturik, zeinean Jose Félix Azurmendi, Jose M. Otermin, Luis Alberto Aranbarri eta Jexuxmari Zalakain-ek hartu zuten parte.

Desoreka nabaria dago Amatiñoren hitzotan, zeren diru-laguntzaren premia bistakoa izan arren -eta hori eritzi amankomuna izan da euskal prentsa egiten dutenen artean ondoko orrialdetan ikusten denez-, nola egin jauzi besterik gabe prentsa publikora? Gauza bera ote laguntza publikoa eta prentsa publikoa? Publikotasuna zer den galdetzeak merezi du eta beherago ikusiko da (VII atala) konzeptu hori arakatzek duen garrantzia. Artean zehaztu barik gelditu arren, hori izan da (Amatiñorena) 1990-91ean ofizialki finkaturik gelditu den erizpidea.

---

<sup>2</sup> *Jakin* 22 zb., 1982, Komunikabideak Euskal Herrian, 80 or.

*Eguna*-ko artikuluan, egunkariari buruzko eztabaida gori-gorian zegoela, hauxe da Amatiño-k ematen duen eritzia: "*Nire ustetan irtenbide bakarra enpresa publikoaren aldetik etorriko litzateke, hau da, irrati-telebistaren formula beretik (..) Euskal egunkari publikoa ez da, gaur egun inondik ere ametsa. Borondaterik ez omen da falta eta dirua ez da, gehienetan, problema izaten*". <sup>3</sup>

Eta, ondoren zehazkizun hauxe egiten du egunkari pribatua egiten ari omen direnentzat: "*Nik neuk ez dut uste, honen politizatua, grinatsua eta sakabanatua den euskal gizarte honetan administrazioak 250 milioitako subentzioa eman dezaiokeenik edozein ekintza pribaturi, euskal gizarte osoarentzako egunkaria bere kaxa egin dezan*" <sup>4</sup>

Bestelako eritzia zabaldu zuen hamarkadaren hasieran, kazetagintzaren *erpina* <sup>5</sup> kontsideratua izan den "*El País*" egunkari espagnolaren zuzendariak, Juan Luis Cebriánek, Gasteizen "Komunikabideak eta Komunitate Autonomoak" gaiaz emandako hitzaldi batetan: "*el periódico estatal no tiene sentido en un país liberal*". <sup>6</sup>

Gai honek polemika areagotu baino ez zuen egin, geroxeago ikusiko denez. Orain nahikoa deritzot hau gogoratzeari testuingurua harilkatzeko. Egin ziren mahainguru eta eritzi-artikulu eta agerpenen artean, berebiziko interesa du 1988.eko *ARGIA Egunak*, orduantxe esan bait zen gardenen aldizkari horrek presto zituela baldintza teknikoak egunkari bat burutu ahal izateko.

---

<sup>3</sup> Eguna, 1988-IV-28

<sup>4</sup> Ibid.

<sup>5</sup> Imbert, Gérard etab. El País, la referencia dominante, Edit. Mitre, Madrid, 1986

<sup>6</sup> Egin, 1980-III-16

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

Lehenik eta behin *Egineko* "A ze astelehena" atalean azaltzen da ideia hau: "Argiak, egunkaria egingo du", *ARGIA Eguna* ospatu eta hurrengo egunean, Azaroaren 7an alegia. Firmarik gabe azaltzen bada ere jakina da garai hartan euskarazko orrialde berezi haiek aldizkari horren langileek betetzen zutela, Bizkaiko bulegoan hain zuzen: beraz, ARGIAren ahotsa direla ziurta daiteke.

Baina aldizkariaren orrialdeetan bertan esaten dena are gardenagoa da, zehatzago eta azalduago ematen bait da. Firmatua ere bai. "Guk uste dugu egin daitekeela eta egin behar dela euskarazko egunkaria. Instituzioei adierazi nahi diegu egiten bada gurekin kontatu behar dela eta ez badute egiten guk egingo dugula. Instituzioen aurrean jarriko dugu egunkari egina eta eskatuko diegu horri erantzuteko. Alde horretatik ikusten dugu Euskal Herrian ez dagoela beste talderik euskal prentsan kapazidade nahikoarekin hori egin ahal izateko geu izan ezik".<sup>7</sup>

Gauza beretsua "*El Correo Español-El Pueblo Vasco*" periodikoan astebete geroago: "*Seigarren aldiz ospatu den ARGIA Eguna honetan mezu berria dakarkigute Argiagileek, euskal egunkariarena hain zuzen... Oraingoan, aldiz berritasuna dakarte: ez da soilik egon daitekeenik, egin behar dela baizik, guztion artean edo bakarrik*".<sup>8</sup>

Iñaki Uriartek bere aldetik -hau ere Laurarekin batera Bizkaiko erredakzioan ari zen kazetaria- zehaztu egin zuen besteak agindutakoa. "*Gure helburua egunkaria egitea da baina hori ulertu egin behar da. Ez da "Argia" aldizkaria egunkaria bihurtzea, baizik eta aldizkaria egin eta egunkaria ere bai*" (...) *Hurrengo pausua hori izan behar du, ikusita gainera Gobernuaren aldetik egin diren pauso guztiak despistatzekoak edo atzeratzekoak direla*".<sup>9</sup>

---

<sup>7</sup> Mintegi, Laura, Eguna 88-XI-10

<sup>8</sup> Mintegi, Laura, El Correo Español-El Pueblo Vasco, 1988-XI-17

<sup>9</sup> Uriarte, Iñaki, Egin, 1988-XI-11

Nahikoa bitxia egin daiteke aldarrikapen hau (beti izan bait da azpiegitura falta oztoporik nagusienetarikoa; ARGIAk berak nahikoa lan izan du beti zutik irauteko: ("azpiegitura porru eginda daukagu..."1982-I-24) baina sei urte geroago gauzak aldatuak ziren erabat. *Orain SA-k argitaratzen zuen Hemen astegunkarian agertzen da azalpen egokia hortarako eledun baten ahotik: "Orain dela hiru urte proiektua planteatu genuen, baina erabat baldintzatuta geunden laguntza instituzionalak egongo ziren ala ez. Gaur egun azpiegitura hau daukagula, egin dezakegu egunkaria, plazu nahiko hurbil batean".*<sup>10</sup>

Aipatu azpiegitura "Antza"k fotokonposaketarako eta "Gráficas Tamayo" zenaren moldiztegiak inprimaketarako osatzen dute. "Apika" informatika-etxearen laguntzarekin batera, noski. Honelaxe ematen zuen aditzera ARGIAK berak moldiztegiaren erosketa ondoko egoera: "Apaltasunetik baina gure euskalzaletasun militante konprometitutik behin baino gehiago adierazi dizuegu euskal prentsaren azpiegitura sendotzea zela, eskuartearen dugun ARGIA produktu bezala hobetzearekin batera, gure helburu nagusietako bat. Hona gure urrats berria, euskal nazio aske, batu eta euskaldunaren bidean egiten duguna (...) Subentzioen urritasunak bultzatu gaitu azpiegituraren sendotzean hainbeste murgiltzera (...) Hona, euskal prentsak bere historian eduki duen ekiporik zabal eta sendoena (...) azken urteotako aurrerapenak ez ziren posible izango "Apika" informatika-etxeko lagunen esfortzu eskergaitza gabe".<sup>11</sup>

Badirudi, botere autonomiko publikoak eta ARGIA aldizkariaren arteko norgehiagoka dela. Dagoena, baina, askoz ere gehiago da.

---

<sup>10</sup> Hemen, 1988,XI-11

<sup>11</sup> Argia, 1988-IX-1

### 2.1.2. CIES-i enkargu (1988-VI-1)

Erronka eta apustu hotsetan eman zen, beraz, Iñaki Zarraoari egin zitzaion elkarrizketa. Jaurlaritzak, bere aldetik, onartu egin zuen Euskadiko Ezkerrak Gasteizko Legebiltzarrean egindako proposamena (1988-VI-1) eta enkargu egin zion CIES etxe nafarrari, "Kultur Departamenduak editatuko lukeen balizko euskarazko egunkaria egiteko azterketa" eta horretarako 6 milioi kokatu ziren aurrekontuetan.

Akordioa EEko (gaur EuEko) Xabier Gurrutxagak egindako emendakin baten ondorioz etorri zen. Honela zioen parlamentari goiherritar horrek, hurrengo eguneko *Deian*: *"...euskara dela eta akordiorik handiena lortu behar da. Baina gaurko gauzarik garrantzizkoena da Gobernuak ganbara honetara bidali beharko duela sortze-proiektua ahalik eta adostasunik handiena lort dezan"*.<sup>12</sup> Proiektua ez da inoiz Jaurlaritzan aurkeztu.

EAJ-PNV eta EE ados jarri ziren: *"sei hilabetetan egingo da azterketa eta hurrengo aurrekontuetan estudioa positiboa bada, dirutza bat ezarriko da"*. Geroak eman duena ikusita, hor agertzen den baldintzan dagoke koska: "positiboa bada...".

Garai hartan egin ziren komentarioen artean hara hemen Jon Basterrak *Eginen* egindakoa: "Euskal egunkariaren arazo honetan, euskararen beste arlo guztietan bezala, iniziatiba puntualak eta sektorialak garrantzitsuak dira oso, baldin eta plangintza orokor

---

<sup>12</sup> Deia 1988-VI-2

*batetan kokatzen badira. Proiektu nazional baten barruan egin behar den plangintza hain zuzen. (...) Herri honek jasaten dituen hiru egoera instituzional ezberdinak kontutan harturik, borondate politiko abertzale sendo batez eginiko plangintza, alegia. Euskal prentsa eta euskal komunikabideak proiektu nazional baten inguruan kokatu behar diren asmoak dira. Ez badugu ideia hori abiapuntutzat hartzen, jai dugu".<sup>13</sup>*

Ederra ideia gero!, proiektu herritarretik (*Egunkaria Sortzenetik*) plangintza nazionala eskatzen zuen hartatik alegia, proiektu ofiziala atxekitzeraino helduko zen batek esana izateko! Baina zorrotza edozein kasutan.

Kontua da Legebiltzarreko erabaki hark berriro harrotu zituela bazterrak. Batetik inoiz hilik ez egondako egunkariari buruzko eztabaida eragin zuen; bestetik, Jaurlaritza (Kultura Sailaren bidez) berriro ere betiko euskal prentsa historikoak (aldizkariak) eskatzen ziona alde batera utzi eta beste eratako azterketa bat enkargatu zuen (agian osatuagoa, baina desberdina). Izan ere aldizkariak, batekin, hauxe zioten:

*"Azpian sinatzen dugun aldizkariok, honoko hau adierazi nahi dugu:*

*1.- Eusko Jaurlaritzak orain arte komunikabideei buruz erakutsi dituen erizpideetan ikus-entzunezko komunikabideei eman zaie lehentasuna, idatzizkoak oso bigarren maila batetan utziz.*

*2.- Idatzizko komunikabideei buruz, instituzio politikoan aldetik ez da politikaririk ikusi orain artekoan; ekinbide bakarra subentzioetara mugatu da, batez ere aldizkariak dagokienez.*

---

<sup>13</sup> Egin 1988-XI-11

3.- Horrezaz gain, banatutako subentzioak eskasak izan dira, azken aldiko larriagotze batez: azken urte t'erdi honetan subentzio horiek nabarmenki txikiagotu dira, kasu askotan erdira.

4.- gure eskaera hauxe da: legozkiokeen instituzio politikoek (Eusko Jaurlaritzak, kasu) idatzizko komunikabideak aintzakotzat har ditzaten, beren lehentasun maila atxikiz. Honek irakurketa zehatza izango luke banatu beharreko diru-laguntzen kopuruan. Iaz diru-laguntza gisa banatu zen milioi-kopuruak ez du kasik ematen aldizkariak haien lana behar bezala egiteko lain. Gainera, aurrera ez joateaz gain, atzera jo dugu alderdi horretan, eta hemendik aurrera diru-kopuru horiek erabakitzeko orduan, iazko jaitsiera gertatu baino lehenago Jaurlaritza eta Diputazioen artean banatzen zen diru-kopurua hartu behar litzateke gutxienezko abiapuntutzat.

5.- Behean sinatzen dugun aldizkariok, idatzizko komunikabideek euskara eta euskal kulturaren normalkuntzan betetzen duten hil ala biziko papera aldarrikatu nahi dugu. Orain arte gutxietsia izan den paper hori instantzia guztietan aitortu arte oinarrizko hutsegite batetan arituko gara ezinbestean.

Gure ustez, bukatzeko, ezinbestekoa da subentzioen helburuak gure eritziz zein izan behar lukeen argi uztea. Diru-laguntzen helburua, aldizkariak normalizazioa erakartzea litzateke, hots, erderazko aldizkariak parean modu normal batetan konpetitu ahal izateko baldintzak ezartzea".<sup>14</sup>

---

<sup>14</sup> Argia, 1987-XII-13

Gauzak beste erara esanda, arazoa ez da dagoen diru kopuru urri hori aldizkarien artean nola banatu, baizik eta ikustea zenbateko dirulaguntza behar duen aldizkari bakoitzak gaur egungo egoera normalizatzeko eta merkatuan aurrerapausuak eman ahal izateko.

Aldizkariak (ikus III atala) diru-laguntzak arautzeko egin saioa porrotean, 1988ko urtarrilean, ondoko eskari hau egin zioten Josu Legarretari besteak beste, hots, "*aldizkarien egoeraren azterketa egin zedila behar ekonomikoen objetibatzeko*". Horren ordeztuz, eta SIADECOK egin proiektu-zirriborroa baztertuz, beste era bateko lana enkargatu zion CIES enpresari.<sup>14</sup>

Nolabait esan eta laburbiltzeko, Kultura Sailaren arabera, euskal prentsaren geroa ez da dauden aldizkarietan oinarrituz etorriko zeren bizi ahal izateko ezinbestean behar duten dirua urritzeaz gain, aginte publikoak, berauen beharrian propioak aztertu eta etorkizuna planifikatu ordeztuz, nahiago izan bait du euskarazko egunkariaren (artean ez dagoenaren) bideragarritasun-plana bultzatzea, euskal prentsa ezaguna bazterrean eta mixerian utziz. Harrigarriena, egunkari hori ez dela etorriko Jaurlaritzak berak asmatzen duen bidetik, ondoko ataletan agertzen denez, baizik eta bazterrean utzitako bidetik.

Erronka-giroan ezezik betiko euskal prentsaren nahi-asmoetatik apartatzearen inpresioz jositako itxoinaldi tentso baten epean ematen da, beraz, aipatu elkarrizketa hura, Zarraoari

---

<sup>14</sup>bis Josu Legarretak berak eskatu zion azterketa SIADECORi, eta honek, 1988.eko Otsailean aurkeztu zion lehen zirriborroa: "*Euskarazko egunkari eta aldizkari buruzko ikerketa baten aurreproiektua*". Zirriborro hau gerora, Legarretaren eskariz berriro ere, garatua izan zen zenbait datu zehaztuz eta beste zenbait gehituz. Urte horretako abuztuan azterketa hori egin ahal izateko Jaurlaritzak egin konkurtsorako deialdiaren aurrean, SIADECOK aurkeztutakoa kontsideratzeko eskatu zion. Halere, CIESi eman zitzaion enkargua. Datuon SIADECOn bertan konfirmatu ditut, nahiz eta, zoritxarrez, proiektu definitibo eskuratzerik ez dudana izan, hor ere trasladotan galdurik edo. Dena dela hamar euskal aldizkarik protesta bizia egin zioten Jaurlaritzari, egin behar zen azterketa hura, CIESena alegia, aldizkarien premia ekonomikoetan baino merkatuaren eskakizunetan oinarrituko zelako. Ikus Argia, 1989-XI-26. Ale berezia: "Euskal Prentsa lagundu".

egindakoa. Badira, bestalde, hamasei hilabete joanak azterketa egiteko erabakia hartu zenetik (urtebete eskas, ostera, lanean hasi zirenetik, okerra ez bada *Deiak* 1988-XII-10ean argitaratutako hura: "*la próxima semana comenzará un estudio solicitado por el Gobierno Vasco para el lanzamiento de un diario en euskara*". Eta, ziur, zazpi hilabete CIESek lana entregatu zuenetik. Beraz, suposatu behar da esandakoa jakinaren gainean egonik esaten zuela Zarraoak eta interes bizia zegoela datu zehatzak jasotzeko, bai eta urak norberaren errotara ekartzeko ere.

Apustuaren sokatira ez da nolana hikoia. Eta elkarrizketa ez da kazetari arrunta eta pertsonaia publiko baten artean (hori ere izanik) egiten den horietakoa. Elkarrizketa, bi proiekturen baitako kideen artean egiten da: ARGIAko kazetaria(k) eta Jaurlaritzako Kultura Sailburuordearen artean.

Proiektuaren bitasuna, geroago biziagotuko da espreski, Egunkaria Sortzen-ek (ES) bere egunkari-eredua kaleratzen duenean. Jakina, "*Egunero*" izango omen den paperezko proiektua kaleratu arte, kazetal proiektu bakarra dago: 1990-XII-6an "*Euskaldunon Egunkaria*" bihurtuko dena.

Baina, 1988-89 urte bitartean ez da hori arazoa. Askoz ere guttiago lehenagoko urteetan. Hots, aurreko faseetan, Jaurlaritzak ez du kazetal-proiekturik baina ez dago *proiektu* barik. Euskararekin lotutako *herri mugimenduak* kazetal-proiektu amankomuna egiteko gonbita egin arren, alferrikako bilakatzen bait da behin eta berriro. Zer dela eta? Hemen ez dago eritzi desberdinen joku hutsa, ez eta konpetentzi arazorik. Erakusle guztion kateatzeak -konstanteak- zerbait mardulago adierazten du, oraindik izendatuko ez dudana.

Laburtzeko: egitura politikoak -Jaurlaritzak kasu honetan, egitura horren buru bait da- oztopoak baino ez dituela jartzen. Oztopo horiek dira, hain zuzen, egiaren efektu nabarmenak. Egia dagoen ala ez, hots berritasunik dagoen ala ez, egituran sortzen diren kontraesanetan antzeman daiteke. Berez, ez dager. Beste era batera esateko egia dagoen, berritasunik dagoen, ala ez oztopoen agerpenean aitortu daiteke. Adibide batez adierazteko, itsasoaren indarra untzi bat jota ondora bidaltzen duenean edota arrokak astintzen dituenean atzeman daitekeen gisan halaxe atzeman daiteke egiaren presentzia ala ez. (ikus V. atala)

Goian esan bezala sintoma baten garrantzia adierazleak (signifikanteak) baldin badu, *interpretazioa* ezinbestekoa da: zerbait gertatu da egiturarentzat irentsgarria ez dena. Nola izan daiteke, baina, kazetal-proiektu bat horren eraginkorra? Azterketa sintomatikoak erakutsiko du bidea, gertatutakoa beste mailakoa bait da, ez bait dago *demonstratzerik*. Egiturari ez dagokiona ezin daiteke egiturari dagozkion kontzeptuz (parafrasia, komentarioa edota exegesia) aztertu. Beste maila batekoa da egia, lehen atalean agertu denez. Ez da egiturari falta zaiona aztertzea, baizik eta gainezkatzen duena aztertzea, lekuz-kanpoko edo *horlieu* (lekuz kanpo) dena, alegia.

## **2.2. Euskal prentsa / Jaurlaritza: gatazka nagusi**

Euskal Prentsak (izendatze honen egokitasuna zehaztea gerorako utziz) eta aginte autonomikoen arteko gatazkak hari luzea du. Ez da gaurkoa. Egitura politiko autonomikoak sortu zituztenetik dirau. Hots, EAEk beste urte ditu. 1980koa da EAEko lehen Gobernu.

Euskarazko prentsa, egitura politiko horiek baino askoz zaharragoa da. Dexente lehenagotik bait dator. Baina konfluentzia historikoa eman denetik, gatazka nagusitzen da bategin ezinik. Konponezina, erabatekoa da edo kasik. Enfrentamentua, baina, ez da sekula izan komunikabide mailako eztabaida hutsa: euskararekin lotua etorri da. Zehatzago, herri honetan berezko hizkuntzak -euskarak- duen funtzioaz eta berreskuratze-prozesuaz zentratu da eta, jakina, prozesu horren protagonismoa izan da auzibide. Egon den eztabaida, gutxitan izan da kazetaritzari buruzkoa. Azken batean hizkuntz politikarekin zerikusi zuzena izan du: politikarekin "*tout court*". Horixe besterik ez da HABE-AEK ren artean gertatutako eztabaida luzea, honek ere hamarkada osoa aise eraman duena.

Ez da izan buruzagien arteko ezintasuna edo egoskortasuna, berdin izan bait da Jaurlaritzaurrean (Euskadiko Kontseilu Nagusia edo EKN) eta Jaurlaritza garaian. Berdin, Hezkuntza/Kultura Kontseilu eta Sailetan Karlos Santamaria, Pedro Miguel Etxenike, Ramon Labaien, Luis Alberto Aranbarri, Martin Ugalde, Joxemari Vélez de Mendizabal, Luis Mari Bandres edo Joseba Arregi-Iñaki Zarraoa-Josu Legarreta, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, edo besteren bat egotea. Gatazka berpiztu egin da beti erakunde horietan eta berauek izan aurretik biziraunez zetozen aldizkarien bozeramaleen artean. Arazoa ez bait da gaizki-ulertze mailakoa, psikologiko-pertsonala alegia. Arazoa, *politikoa* (izan) da sakonean. Har-eman gaitz horien labean hainbat erakunde zaildu ohi dira: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK), Euskal Herrian Euskaraz (EHE), Udako Euskal Unibertsitatea (EUU) eta Euskal Kulturaren Biltzarra (EKB) bereziki.

Horren guztiorren baitan eta harian eman da euskarazko prentsaren auzia eta tirabira. Bistan denez, ez da konpondu, konpongaitza (agian konponezina) delako.<sup>15</sup>

Gatazka sortu den bakoitzean, bitariko aukera egin du Eusko Jaurlaritzak euskarazko prentsari dagokionez: batetik ordezekoak sortu, bestetik luzamendutara jo. Ordezkapena eta luzamendua izan dira gatazkaren irudi eta formula. Laguntza ere bai -subentzioen bidez- baina betiere arrastaka eta planifikaziorik gabe, geroxeago ikusten denez.

Eusko Jaurlaritzak ahal izan duen bakoitzean medio propioak sortu ditu. Irrati eta telebista mailan hor dago EITB, bistan da. Baina prentsa idatzian ere bai. HABE sailekoak batetik (HABE, HABEKO MIK, ZUTABE, Unescoko Albistaria); *Dema* bestetik, eta azken mehatxua *"Egunero"*. Eta jokabidea legala izan da. Bazuen horretarako legediarik. EAEko Autonomi Estatutuaren 19. artikuluan zerau esaten da: *"Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza-komunikabide guztiak"*

Joan Mari Torrealdai ederki eta zehazki agertu du ETBren sorrera eta, horrekin lotuta, Jaurlaritzak betidanik ikusentzuteko bideari eman dion lehentasuna, prentsa idatziaren kaltetan.

<sup>16</sup> Prentsa idatziari buruz Jaurlaritzaren jokabidea mugatzeko hauxe dio Torrealdai:

---

<sup>15</sup> Oraintsu, 1992.eko Maiatzaz geroztik, hasi dira konponketa-hotsak aditzera ematen eta zenbait bilera ere egiten Jaurlaritzako eta elkarte horietako kideeren artean. Beherago ikusiko da hau ere.

<sup>16</sup> Ikus Torrealdai, Joan Mari, Euskal Telebista eta Euskara, Elkar, Donostia, 1985, 37,187 or. besteak beste). Bestalde, Euskararen Aholku Batzordeak argi esana zuen: *"hauen artean -komunikabideen artean- irrati eta telebista dira eragingarrienak"*. Euskararen Politikarako Oinarriak, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzua, Gasteiz, 1983, 24. or. EAJ/PNVk argitara emandako "El nacionalismo en el año 2000" hartako 259. paragrafoan, berriz, hauxe esaten da ikusentzutekoek lehentasuna dutela aitortu ondoren: *"Mientras tanto, a la vista de los considerables recursos económicos y humanos que el proyecto de un diario en euskera requeriría y consierando qiempla demanda en el mercado está lejos de ser imperiosa, Euzko Alderdi jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco entiende que la prensa diaria en euskera, con ser un proyecto ansiado, no ocupa un lugar preponderante en las prioridades que plantea la colectividad vasca"*.

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

*"komunikabide idatziekin beste modu batez jokatu da. Hemen ez da kreaziotik jotzen. Jadanik indarrean dagoen azpiegiturez baliaturik, euskararen normalizazioak eskatzen dituen minimoez hornitzea litzateke Gobernuaren lanaren xedea".<sup>17</sup>*

Esan daitekeena, inolako zalantzarik gabe, areago da, alegia, Eusko Jaurlaritza ez da inongo kasutan prest egon zegoen azpiegituren oinarrituz prentsa idatzi mailan politika programatu bat egiteko.

Arazoa ez da printzipio-mailan planteiatzen baina printzipioei dagokie. Hau da, aurrera egiteko, urtetan zehar jaso den azpiegiturez baliatzea, ala berria sortzen hastea ez da gauza bera. Filosofia osoaren adierazleak dira, izan ere.

Egiturak (edozein egiturak, baina hemen egoera politiko-instituzionalak) egiaren irrupzioa oztopatuz ez duela berorren indarra ezabatzerik, atzeratzerik baino, kontutan harturik Jaurlaritzak erabiliriko bi mekanismo agertzen dira hemen: ordezkapen-politika eta luzamendu-politika. Egia, goiz ala berant, inposatu egiten da, *leialkideak* dauden bitartean, hots egia

---

EAJk bakarrik gobernatu duenean, lehentasuna ez da inondik ere ageri. 1980-84rako Egitamuan (110-114 or.) irratia eta telebista daude soilik begibistan; 1984-1988rakoan, berriz, (74 or.): *"En cuanto a los medios de comunicación escritos, la actividad del Gobierno irá dirigida a la dotación de los mínimos exigidos para la normalización del euskara, tanto en prensa diaria como en publicaciones de periodicidad semanal o más espaciada"*. Beste partiduren batekin gobernatu behar izan duenean ere, ez du lehentasunik izan prentsa idatziak: EAJ/PNV, PSOEren arteko gobernuak, bere 1987ko programan (Política lingüística atalean): *"Promover un acuerdo con los medios orales y escritos, al objeto de conseguir la opresencia continuada y progresiva del euskara en la prensa"*, esaten du; EAJ/PNV, EE, EAren arteko gobernuaren programan, 1989an, aurreko asmo hori errepikatu ondoren, zerbaita gehiago dator (Comunicación social atalean): *"en el ámbito de la prensa escrita, un diario en euskera, de carácter público, abierto a la iniciativa social, a la participación de otros sectores implicados y que responda a la pluralidad y deiversidad de la sociedad vasca"*, agintzen da; EAJ/PNV PSOEren artekoan, 1991an, adierazpen hori desagertu egiten dira eta, ordez, holako erreferentzi orokorra egieen:" En definitiva, una sociedad vasca cohesionada, integrada y en paz; plural pero no dividida, tolerante pero no desintegrada, universal pero con personalidad propia y deiferenciada, respetuosa con distintas tradiciones culturales. (...) Como complemento a esta actuación, la política cultural y de medios de comunicación irá dirigida a la potenciación de los valores y elementos aquí señalados".

<sup>17</sup> Torrealdai, ob. aip. 37 or..

produzitu duen gertakizunaren leialkiderik dagoen bitartean. Beraz aipatu bi mekanismo horiek egiari hesiak jartzea baino ez dira.

### 2.2.1. Ordezkapen-politika

Mekanismo hauek martxan jartzen direnean, hots ordezkapen-politika martxan jartzen denean, *Argia* astekaria hilxamarrrik dago, 1981-IX/1982-I arte atera ezinik izan bait zen; *Anaitasuna*, hamabostekaria, hileroko erritmoan hilzorian ibili dabil eta urte horretan bertan (1982an) ixilduko da betirako; *Goiz Argi* makal 1976an elebidun-bidea hartu beharrean aurkitu delarik, *Agur*, aurrekoaren kide-kidea, 1975an desagertu zen; *Karmel* erlijio-kulturazkoa eta *Zehatz* gizarte zientzietarakoa, nola edo hala dabilta; ZER bizkaiera laguntzeko sortua, itxura handirik gabe. *Jakin*, sendoenik zilarrezko ezteiak ospatu berria. Euskara errazeko *AIZU!* kaleratu dute Deustuako Unibertsitateko zenbait ikaslek, 1981eko Abenduan. *Garaia*, *Berriak* eta *Ere*, elebiko *newsmagazinak* hil egin dira. Informazio orokorreko aldizkari elebidun klasikoetatik *Punto y Hora* bakarrik geratzen da. *Euzkadi* eta *Muga* 1979an sortu ditu EAJ-PNVk. *Deia* eta *Egin* egunkariak indarrean sartu dira 1977an.

Ezinbestekoa da, baina, adieraztea *Zeruko Argiarekin* eta geroxeago *Anaitasunarekin* gertatutakoa, aipatu ahuleziak eta Jaurlaritzaren jokaerak bere neurrian jasotzeko.

Nafarroako, Kantauri eta Aragoiko fraide kaputxinoek erabakia zuten *Zeruko Argiaren* jabetza uztea. Hiru aldagai jokatu zituzten fraideek erabat utzi baino lehen: aldizkaria bertan behera uztea, aldizkari erlijiosoa bihurtzea -kaputxinoek beraiek egina edota Gotzaitegiko ekiporen batek-, "*talde integrista*" bati ematea. Azkenean laugarren bidea aukeratu zen, hots,

bertan lan egiten zuten langileen eskuetan uztea: *"bizirik nahi dugu Zeruko Argia, Euskal Herriaren zerbitzurako"*.<sup>18</sup>

*Zeruko Argia* aldizkariaren azken ekipoak hordagoari bai esaten dio: *"Guri planteiatu zigutenean, nahiz eta garbi ikusi ez ginela karga makalaren jabe egiten, beste biderik aurkitzen ez genuelarik Hego Euskal Herrian dagoen euskara hutsezko astekari bakarrari momentuz behintzat eusteko, onartu egin genuen gure eskuetan hartzeko proposamena"*.<sup>19</sup>

Hiru kondizio jarri zituzten fraideek: *Zeruko Argia* izenaren ordezkari bat hartzea; Okendo 22 kaleko egoitza uztea (errentaren truke alokatzea onartu ez zutela erabat askaturik sentitzeko) eta 600.000 pezetako zorra ordaintzea.

Lokal berria lortzea bilakatu zen punturik beltzena: *"ez dugu ezer erosteko modurik eta guretzat egokia izango litzatekeen tokia alokatzeko ezerik ez dugu, hain baita larria ekonomi egoera"*.<sup>20</sup> diote langileek. Egoera horretan (*"frogatua dugu eta nahi duenari erakutsi diezaiokegu, euskara hutsezko aldizkari bat ezin dela garairik hobereanean ere, berez eutsi"*),<sup>21</sup> logika ekonomiko guztien kontra segitzea erabakitzen du taldeak.

Bidezkoa irudi zitekeen diru publikoa ez dator gobernu nazionalista egon arren; inizatiba pribatuak ez du erantzunik ematen; baina aldizkaria hiltzen uzterik ez dago. *"Euskaraz argitaratzen den edozein aldizkarik euskara eutsi eta zabaltzeko zerbitzu publikoa eskaintzen duenez, instituzio publikoen laguntza ekonomikoa behar luke. Hori gertatzen ez den bitartean eta inizatiba pribatuak ere euskarazko aldizkari ondo muntaturik sortzera ez duela jotzen*

---

<sup>18</sup> Anaitasuna, 1980-VII-1/30

<sup>19</sup> Zeruko Argia, 1980-VII-6

<sup>20</sup> *Ibíd.*

<sup>21</sup> *Ibíd.*

*ikusirik, hutsunerik gerta ez dadin, numeroen logikari begiratu gero baztertu egin beharko genukeen lan honetan jarraitzea erabaki dugu, ahal dugun arte".* <sup>22</sup> Horretarako, baina, bizi ahal izateko plurilana bizkarreratu behar da. *"Jarraitu, aldizkariari eutsi ahal izateko kanporako lanak eginez, grafismoaren arloan dela, (kartel, pegatina etabarren diseinuak, argazkiak) itzulpen eta kazetagitza dela"* . <sup>23</sup>

Dena dela, produktuaren eskasiagatik, halako erru-aitorpena eginik, aldaketak irailerako agintzen dira <sup>24</sup> eta aurrerantzera izango diren helburuak ondo markatzen: *"euskararen borroka, inoiz baino latzagoa gure ustez, behinere baino gertuagotik jarraitu eta bultzatuko dugulakoan"* batetik, eta, besteak beste *"mundu horretan dabilen guztiaren bilduleku eta plaza izango delakoan ARGIA berriro"*. <sup>25</sup>

Agindu bezala, 1980-IX-2an kalean da *Zeruko Argia*, *Argia* bihurturik, eta juridikoki Kooperatiba eginik. Azken bi fetxa hauen artean nabarmenak dira ausentziak. Desagertu dira erredakzioan ziren hirurak: José Luis Alustiza, Lurdes Auzmendi eta Gorka Reizabal prentsa elebidunak irentsirik, edota beste batzu "idazle" zakuan gorderik era sinbolikoan gehien bat, erabat desagertu arte. Izenik esanguratsuenak ematearren, adibidez, Elixabete Garmendia ("zuzendaria") Pilar Iparragirre ("zuzendariordea"), Mikel Atxaga etab. Une honetatik, hamarkadan zehar zutik iraungo duen eskaria egiten da: euskara hutsezko komunikabideak izan dezatela diru publikoaren laguntzarik, diru-eskeak, bonoak, bazkariak, eta gisako kanpainetatik soilik -ezinbestekoak izanarren euskal prentsa eusteko- ez bait dago irtenbiderik: *"hemendik ez*

---

<sup>22</sup> Ibíd.

<sup>23</sup> Ibíd.

<sup>24</sup> Argia, 1980-VII-6

<sup>25</sup> Ibíd.

*dago konponbiderik; hori bide zuhurragotik eta batez ere ondare publikotik etorri behar duela uste dugu*".<sup>26</sup>

Egoera kaxkar honek eraginik *Prentsa Euskaraz* kanpaina antolatu zen 1980.eko Azaroaren 14-16rako *"euskal prentsa berriro ostrazismoa gainditu nahirik"*. *Anaitasuna, Argia, Herria, Jakin* eta *Saski Naski* aldizkariak bultzatutako kanpaina haren publizitateak *"harpidedun berririk gabe euskal prentsak ez du etorkizunik"* zioen, eta sloganak *"Euskal Prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk"*. Argi bait zegoen euskal prentsak herri euskaldunaren nortasun-gauzatzeko zuen garrantzia.

Torrealdak, artean eta egun oraino *Jakin* aldizkarian, honoko analisi hau egiten zuen: *"begien bistakoa da euskarazko prentsa gaizki dagoela. Gaizki eta hilzorian. Batzuen ustez, bazterketa delako dago horren gaizki; beste batzuen eritzirako, alderantziz: txarra delako dago bazterturik (...) Hautatu beharko balitz, ez nuke zalantzarik: marginazioan dago honen erroa, marginatua izatean alegia.*<sup>27</sup>

Geroari begira, baina, badago esperantzarik: *"Luzarora euskaldungoa alfabetatu eta erdaldungoa euskaldundu ala etorkizun oparoa dute euskara hutsezko astekari nahiz aldizkariak. Bien bitartean, laguntza behar da eta diru publikoa den lekutara ere jo dugu"*.<sup>28</sup>

Julen Kaltzada, artean eta luzaroan AEKko lehendakariak, diktaduraren garaiak eta ondokoak alderatzen ditu: *"1980an, ostera, dagoen euskal prentsa urriaren ardura dutenek, herri xehearengana jo beharra dute laguntza eske, franksimo puroaren garaietan egiten zen*

---

<sup>26</sup> Ibid.

<sup>27</sup> Egin, 1980-XI-13.

<sup>28</sup> Ibid.

*bezalaxe. Frankismo zaharraren denboran euskal prentsa gaizki baina bizi zen eta gaurregun baino erosle gehiago zituen".<sup>29</sup>*

Egoeraren zurrumbiloan gero eta argiago ikusten da euskara hutsezko prentsaren premia. Honelaxe dio Torrealdaik garaiko aldizkari elebidun ponpoxoan: "*El bilingüismo no ha funcionado. Creo que cuando se plantearon los diarios bilingües todos pensamos que el planteamiento podría dar resultado, pero no es así. Yo estaba entonces en Anaitasuna; recuerdo que pensé que el sistema nos haría mucha competencia, aunque de forma distinta a lo que ha sucedido. Queda, desde luego, la posibilidad de intentar un bilingüismo de proporción inversa, por ejemplo, un 80 a 20 a favor del euskera. Pero en general yo creo que aunque se plantease en condiciones de cincuenta y cincuenta por ciento, no funcionaría, el euskera estaría siempre subordinado. Yo tengo cada vez más clara la necesidad de una prensa en euskera y solo en euskera*"<sup>30</sup>

Kanpainak ez zituen lortu aldizkari bakoitzarentzat helburu ziren 4.000 (sic) harpidedun haiek. Neurtzekoa da kanpainaren izaerak berak izan ote zuen eraginik. *Bai Euskarari* kanpaina antolatu zuten berberaiek bultzatu zuten. Ramon Labaien eta Pedro Miguel Etxenikeren oneritzia izan zuen. Kanpainaren nondik norakoa ikusteko Torrealdaik berak eman zuen klabea: "*nada de manifestaciones ni reivindicaciones*".<sup>31</sup>

Kanpaina frakaso bat izan zen. *ARGIA*k 1981-IXetik 1982-I-era bitartean atera ezinik egon zen. Kaleratu zenean hamarkada osoan iraun duten bost kazetari/editore agertzen dira

---

<sup>29</sup> Argia, 1980-XI-23. Datu hau egiaztatzeko ikus Joxe Mari Ostolaza, Egin 1980-XI-14 lehengo harpidunetatik % 60ek ARGIA utzi eta berriak etortzen hasiak bait ziren. Kanpaina horretan adibidez 500 harpidedun berri egin zituen aldizkariak.

<sup>30</sup> ERE, 1980-XI-12

<sup>31</sup> Ibid.

erredakzioan: Josu Landa, Pello Zubiria, Joxemi Zumalabe, Iñaki Uria eta Xalbardin (Joxe Mari Ostolaza)<sup>32</sup> *Anaitasunak*, berriz, beherakada geldiezinan sartu zen.

Giro horretan elkarrizketa bat kaleratu zen garai hartan *Anaitasunak* berak eginia Ramon Labaieni, orduko Kultura Kontseilariari alegia eta Jose Mari Pastorek sinatua.

Azkeneko galdera hauxe izan zen:

A.-Euskal prentsa hil zorian dago. Iazko subentzioa irrigarria da. Euskal Gobernuak ba ote dauka laguntza egokirik emateko gogorik? Zein kriterioz baliatuko zinatekete hori banatzean?

L.-Guk aleak eta papera kontatzen ditugu subentzioa ematerakoan. Guttienez iaz beste pagatuko dugu, inongo diskriminaziorik gabe, euskararen alde lan egiten duzue eta. Orain *DEMA* aterako dugu. Kirol aldizkaria da, gazteentzat.

*DEMA* Euskal Herriko aldizkaririk haundiena izango da. Gratis emango da eskoletan 10-16 urtetako gazteentzat. Gainera bi tirada izango ditu. Bata bilinguea 200.000 alekoa, bestea euskara hutsean eta 40.000 alerekin. Aurten errebista bat sortu nahi dugu: euskaraz, frantsesez, ingelesez eta erdaraz munduko euskaldun guztiontzat. Argentinan bakarrik 3.000.000 euskaldun edo euskaldun semeak dira. Beraiekiko hartuemanak intentsifikatu behar ditugu. Guk hemen ez dakigu hau. En fin euskaldun hizkuntza eta problematika normalizatu behar da.<sup>33</sup>

---

<sup>32</sup> Argia, 1982-I-31.

<sup>33</sup> Anaitasuna, 1981-XI-30.

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

Goian aipatutako *Jakin* aldizkariaren eztabaida hartan honoko dialogo hau agertzen da Amatiño (A), Jose Felix Azurmendi (JFA) eta J. M Zalakainen (Z) artean :

A."Argiaren egoeraren aipamena egitean *Habe* eta *Dema* aldizkarien babesa salatu du Zalakainek. Ez bata ez besteak du babesik, batere ez. Administrazio dira, ez da berdin. Konzeptuak argitu egin behar dira Administrazioan"

Z. Okerrago orduan.

A.Nola izango da, ba, okerrago? Madrileko Kultur Ministeritzak "*Cuadernos para la Cultura*" aldizkaria ateratzen badu, ez du inork problema egiten. Problema da nolabaiteko aldizkaria egiten bada; baina kontrola baldin badu eta sistemak onartzen dituen eritzien arabera dirua planteatzen bada, sistema onartzen bada, aldizkaria ere onartzen da, bestela ez. Baina orduan ez da aldizkaria eztabaidatzen, sistema guztia baizik.

JFA.Baina izango dugu aukerarik edo eskubiderik zein kriteriorekin erabaki den hori jakiteko, eskatzeko, ez?: horrelako aldizkaria, ez dakit zenbat koloretan, ez dakit zein paperetan...Edo inork eskatu gabe, erabili dituen kriterioen berri eman beharko zuen Administrazioak berak.

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

A.Noski, noski. Duela zortzi hilabetetako proiektu bat da hori, kuantifikatua, programa baten arabera egina, Parlamentuak onartua eta aurrera doana.<sup>34</sup>

*Dema* 1981-XI-24an sortu zen, Joseba Intxaurrea koordinatzaile eta Gorka Reizabal zuzendari zituela. Jaurlaritzak osoki finantziatuta, dohainik banatzen zen. Aurkezpen-prentsaurrekoan esandakoaren arabera honoko kideok zituen oinarrian Kontseilukide: Alberto Etxabe Jaurlaritzako Kirol-Zuzendaria, Iñaki Urkijo aholkulari teknikoa, Jose Antonio Mingolarra (UPVko irakaslea), Nestor Basterretxea (eskultorea) eta Amatiño (Jaurlaritzako Kultura Sailkidea), Peli Martin, Imanol Murua eta Javier Hernández Diputazioen izenean eta Peio Aierbe Hezkuntza Kontseilaritzakoa. Gorka Reizabal zuzendariari laguntzeko Josetxo Lizartza eta Iñaki Elortza kazetariak aipatu ziren.<sup>35</sup> 260.000 ale botatzen hasi zen, horietatik 20.000 euskaraz. Iraun, behintzat, gutti iraun zuen. Pare bat ale kaleratu ondoren, betirako ixildu bait zen.

Askoz ere larriagoa bilakatzen da HABE erakundearen babesean gertatutakoa. Izan ere ordezkatze prozesuaren alerik erabakiorrena horixe bait da. Euskal prentsan ari zirenek, kazetari ezagun baten eskua ikus(i)ten zuten, Luis Alberto Aranbarri 'Amatiñoarena' alegia. Historikoa izan zen "Artasok" idatzitako artikulua: "Amatiño pasatzen ari zarete", honek "*aldizkari gehiegi da Euskal Herrian*" esan zuela eta.

---

<sup>34</sup> Jakin 1982, 22 zb.117-18 or.

<sup>35</sup> Deia, 1981-XI-25

Giroaren garrantzasuna ezagutzeko aldatuko dut hona bi idazleon zenbait paragrafo. Amatiñok, Jauraritzan zela, honoko adierazpenok egin zizkion *Egin*-eko kazetariari Gipuzkoako Diputazioan *ARGI*ari laguntza ematea ala ez eztabaidatzen zuten egun berberean argitaratuak izan zirenak: "aldizkari gehiegi da Euskal Herrian, eta soziologikoki garbi da egunkarietan gehitu beharra, egunkari bakar batek astekariak edo aldizkari guztiek hilabetean baino euskara gehiago zabaltzen baitute egun batetan. Administrazioak diru publikoa gastatu behar badu, egiteko honetan gastatu behar du. Sekulako atomizazioa dago aldizkarien munduan. Aldizkari bakoitzak bere autokritika egin beharko du. Bakoitzak galdetu behar luke zer arraio nahi duen irakurleak defizitario izatearen kausak erradikatzeko. Dakidanez Jakin bakarra da irakurleekiko oreka hori gordetzen duena, saldu egiten baitu eta irakurri egiten baita. Orain Anaitasuna eta *ARGIA* elkartu egin behar direla esaten dute. Nik hori 76an edo planteiatu nuen, formatoa aldatu zenean eta arrazoi politikoak edo medio ez zen posible izan. Guzti hori aztertu behar da eta beste mila gauza erabakiak hartzeko orduan".<sup>36</sup>

Honek biziki mindu zuen euskal aldizkarien mundua, Amatiñok ondotxo ezagutzen bait zuen berorren ahulezia, barneko kide izana bait zen urtetan. "*Artaso*" ez zen ixilik geratu oso hurbiletik ezagutzen bait zuen laguna. "*Atomizatuegia dago, bai, euskal kulturgintza, eta kazetaritza. Horregatik atera dituzue zuek beste bi berri, gehi dagoenez geroz batzuk itzali egin beharra direlako. Atomizazioa bukatzeko zer da egokien: ekintza baterakoiak eta arrazionalak eta lanera jartzea, ala beste zerbait egin eta horrek besteak jan ala hil ditzala?(...)* Egunkarietako aproba zerorrek ere egin duzu, Argiatik joandako beste zenbaitekin batera. "*Deia*"n zuen etorkizun pertsonala konpondu bazenuten ere, ze irtenbide eman zenioten euskarari? Aitzakiak jarri itzazu, eta guk sinistuko dizuegu, nahi badugu: esaiguzu ordea egiaz

---

<sup>36</sup> Egin, 1981-XI-18.

*ze inzidentzia izan duzuen. Bien bitartean, zuen erremedio mirakulosoen zai egon gabe lan egiten saiatu direnek ez dirudi orain despreziorik olinpikoena besterik merezi dutenik. Utzi bertan behera kuadrilla horiek.(...) Beste hau ere esaten duzu, hiltorian dauden aldizkariok egoera horretara nola iritsi diren eta hortik nolatan irten ahal izango diren aztertu beharko dutela. Primeran. Zuk ere hortaz zerbait jakin beharko duzu bada! Ala zergatik aldegin zenuten Argiatik etorkizuna oso garbi ikusten zenutelako? Ez zineten gainera garairik txarreanean irten, eta oraingo 'cuadrilla de ineptos' hau baino kazetolari hobeak omen zineten, eta orain baino harpidedun gehiago..Eta zuek alde egin.(...) Leporaino zorrez josita eta beren patriketatik dirua jarriz atera dena ateratzen bada (Argia) eta HABE eta DEMari eskeini diezuen posibilitateen erdiarekin ere gauza oso itxuroso bat aterako lukete (Argiakoeak). Prest al zaude mahai baten inguruan eseri eta baldintzak, epeak, erresultatuak eta abar eztabaidatzeko?(...) Har beza irakurleak HABE eta Argiaren ale batekin konpara: haiek hainbeste merezi eta bestek hain gutxi. Zinismo hutsa.* <sup>37</sup>

Bitartean *Jakin* aldizkariak bere 25. urtea zorionez betetzen du eta beste hainbeste irauteko prest dago. Iraupenaren sekretua talde koherente eta disziplinatuan, omen."Moduak gordeaz' eta neutrotasunera joaz, iraun omen."<sup>38</sup>

---

<sup>37</sup> Egin, 1981-XII-4. Damutuaren eredia agertzen da hemen. Alegia izandakoari utzi eta bestelakotzen dena, izateari uko egin ez diotenen etsairik eragileena bilakatzen dela esan nahi da. Nolabait esateko, Euskal Prentsaren balioak konpartitu ondoren, eta bitartean, *gehi* edo *plus* hori metatu eta gero areriotzat hartua izan den egituran bertan txertatzen denak, parte izateko, metaturiko gehi hori inplosionatu egiten du, egitura horren balioak propio eginik bere hartan segitzen dutenak konbatitzeko. Adibide historikoak asko eta asko dira. Gurean ere ez dira falta. Bat baino ez ematearren, nortzu izan dira euskal militante armatuen etsairik arituenak, militante ohiak baino? Alde hau, dena dela, V. atalean azalduko da gehiago, subjektibazioa aztertzeke orduan.

<sup>38</sup> Azurmendi, Joxe-J. M. Torrealdei, Joan Mari, Egin, 1982-I-19.

Baina *ARGI*aren suspertze-unea *Anaitasunaren* desegitearekin bat izan zen. *ARGIA*k eutsi egin zion erronkari "*kreditoen eta lan militantearen birika artifizialez mantenduak*"<sup>39</sup> ; gehi, dena esan behar da, herriarengandik 10.000na pezeta bilduz jasotako diruari esker.

*Anaitasunak*, berriz ezin izan zion egoerari eutsi. Eta azkenean, dirauten langileek, diruz eta giza-baliabidez *ARGIA*rekin bat egitea erabaki zuten. Geroztik, esan daiteke, *ARGIA* "*Anaitasuna Taldea*" zenarekin berrindartu zela etapa honetan, ordezkaritza sendo bat lortuz Bilbon.<sup>40</sup>

1983-III-27.eko *ARGIA*n batze honen berri ematen da: "*Urrats bat atzera, beste bat aurrera*" editorialean.

Zergatik baina *Anaitasunaren* jausi hau? Aldizkariak berak pare bat artikulutan<sup>41</sup> adierazi zuen: "*Hainbeste ate jo ondoren ez dakigu nora jo, eztabaidaren plazara izan ezik. Galdera bat dugu airean: beharrezkoa ote da euskal prentsa? Zergatik? Norentzat?" Arazoa, sakonean, ekonomikoa suertatzen da. Egoera horretan, "*militantismoa eta, oinarrian, euskararen aldeko militantzia*" ez zen nahikoa suertatu aldizkaria duintasunez mantentzeko. Gauzak horrela "*dinamika suizida*" moztea erabaki zuten (defizita egiten denean hurrengo urteko harpidetza-sariak aurreratuz, diru extraren batez baliatuz, harpidetzatik % 46a kobratuz...). "*Euskal prentsa eta kazetari euskaldunok desafio gogorra dugu aurrean. Gure eginkizuna bete ezinik aurkitzen gara eta ez gogo faltaz gaudelako edo lanik egiten ez dugulako.**

---

<sup>39</sup> Argia, 1982-I-24.

<sup>40</sup> *Anaitasuna Taldea* honoko hauek osatzen zuten: Antton Azkargorta, Iñaki Sáez, Joxerra Egiluz, Laura Mintegi, Iñaki Antigüedad, Joxe Mari Pastor, Joxerra Bilbao, Josi Basteretxea, Karmelo Landa, Idoia Jauregi, Kanko Ispizua eta Joxerra Etxebarria. Esan beharra dago momentu honetan Joxe Mari Pastor bakarrik ari dela euskal prentsa idatzian, *Euskaldunon Egunkarian* hain zuzen ere.

<sup>41</sup> ikus "*Anaitasunaren lotaldia*", Egin 1982-VII-18 eta 21.

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

*Batez ere ekonomikoki itotzen ari gara, itotzen gaituzte, eta flotagailua eman diezaiguketenek, eman ordez, gu urperatzen saiatzen ari dira. Ulertzaile onari hitz gutxi".* <sup>42</sup>

"Anaitasuna Taldeak" ARGIArekin bat egitea erabaki zuen hiru aldagai gehiago jokatuz: zorrak kitatu eta agur esan; *Anaitasunarekin segitu ito arte*; tartean Gipuzkoako Diputazioaren laguntzarekin *Egin-ek* atera duen lau orrialdetako "*Egunon*" (1982-IX-1) euskarazko eranskina potentziatu. Azkenean, ARGIAN integratzea erabaki zuten: "*proiektu ezaguna izanik, euskal prentsaren proiektua indartzea suposatzen zuelako*". <sup>43</sup>

*Anaitasuna Taldeak* nahiago izan zuen hau "*ekonomia pertsonala hondatzen hastea*" baino <sup>44</sup> ARGIA Kooperatiba bultzatu zutenek, ordea, aitortu beharra dago, horixe egin zuten: ekonomia pertsonala jokuan jarri.

ARGIAk, baina, bizkaitarrekin batzearen berri ematen duenean holakoak esan zituen: "*ezin gaitzkeela gure indarrez beste ezertaz eta inortaz fio. Ekiteak bakarrik eman dezakeela emaitza eta hain mespretxaturik egon den militantziak jaso dezakeela soilik erresistentziaren indarra(...) denon artean ARGIA beharrezko dugun prentsa nazional bilakatzeko asmotan;(...) batzuk hitz ponpoxoz euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubideaz ari direnean, besteok hori egia bihurtzen saiatuko dira".* <sup>45</sup>

Jaurlaritzak ez zuen modu honez erantzun euskal prentsaren egoera lazarri honetan. Alderantziz, baina, *Demarekin* egin saioaz aparte, HABE Erakundearen babesean (AEKren lana tratatzeaz gain) hiru aldizkari jarri bait zituen kalean: HABE deritzana, 1981-XI-26an 0

---

<sup>42</sup> Ibid.

<sup>43</sup> Laura Mintegiren adierazpenak. Neuk jasoak.

<sup>44</sup> Ikus Egin 1982-II-21, "Etxepare" kazetariak egin elkarrizketa.

<sup>45</sup> Argia, 1983-III-27.

zenbakia, lehenik; HABEKO MIK eta ZUTABE, gero. Maila desberdinekoak hirurak baina Administrazioak berak kudeatutako aldizkariak izanik, aurretiaz osaturik zegoen espazio bat okupatzera datoz. Kondizio guztiz desorekatuan, baina. Amatiñok esana, legez ez bait dute diru-laguntza beharrik; Administrazioa bera izanik bizitza segurtaturik dute.

Diru laguntza da arazo nagusia, edota beste erabatera esanda Jaurlaritzak bere mezubide propioak sorturik, bere kasa eta egoera itogarrian uzten dituela ezinean dabilzan ohizko aldizkariak. Adibide bat ematearren, 1982.eko Maiatzaren 20.ean hain zuzen, Gipuzkoako Foru Diputazioko Euskararako Batzordeak kultur aste bat antolatu zuen. Labaien, Kultura Sailburua, han izan zen eta oso sonatuak izan ziren *"Euskara komunikabideetan"* gaiaz egindako adierazpenak. Ordurako ETB zen gairik diztiratsuen, baina euskal prentsa idatziaren egoera baztertu ez zedin han ziren zenbait langile (kazetari) ere. Honela azaldu zuen Labaienek Administrazioaren jokabidea: *"Jaurlaritzak ez du kriterio estetikoa kontutan hartzen subentzionatzeko garaian baizik eta hainbateko tirada eta pisua, horrelako subentzioa(...) Guk dakigu aplikatu duguna aldizkari mailan. Zuek esan dezakezue gutxi dela, eta guk onartzen dugu, baina besterik ez(...) Jaurlaritzak informazio konkreto bat baldin badu eta benetan aldizkaria salba badaiteke, ahal duena egingo da"* <sup>46</sup> .

HABE Erakundearen aurre-proiektuaren arabera <sup>47</sup> posible omen zitekeen edozein aldizkari kaleratzea, eta ondorioz, diru-laguntzarik gabe uztea lehendik zetozen medioak: *"La creación para su posterior comercialización y puesta a disposición del público de*

---

<sup>46</sup> Mahainguru hartara nerone ere hurbildu nintzenez, neuk jasotako notetatik hartua duzu adierazpen hori.

<sup>47</sup> Argia, 1983-V-1ean ezagutzera emana.

*publicaciones, de caracter científico, artístico o literario así como las colecciones de obras artísticas y literarias"*

Josu Landak ARGIAko editoriale batetan "Piratak etxean" deitzen ditu, gogor salatuz ezusteko intromisio hau: "*Itsasuntziko kubiarta garbitzen eta fregatzen ari ginen bitartean, lainoaz babesturik eta gure tripulazioko inor konturatu gabe, pirata-andana batek eraso egin digu eta -ezertarako denborarik eman gabe- defentsarik gabe harrapatu gaitu".* <sup>48</sup>.

HABE Legea, 29/1983 Legea hain zuzen, 1983-XI-25ean onartu zen Gasteizko Legebiltzarrean. Ez da inondik ere holako adierazpen zehatzik ematen baina, nahi izanez gero, horretarako bide osoa eskeintzen du I.Tituluko 2. art.c atalak HABEren eginkizunen artean "*material pedagogiko-didaktikoak sortu eta argitaratzea*" beretzat hartzen bait du. Nork uka dezake aldizkari orokorra eta komiki bat gisako materiale ez direnik?

Urtea amaiturik, berriz, ARGIAk bere sendotasunaren berri ematen du: "Aurrera goaz Argiarekin" dio <sup>49</sup> bere tresneria berria erakutsiz: mikroordenadore, pantalla, inpresora eta fotokonposagailu- ekipoa, betiere ahalik eta lan gehien bertatik kontrolatzeko asmoz, ekoizpena merkeago bihurtuz.

Jaurlaritzak, ez du ordezkapen prozesuaren apustua irabazterik izan: DEMA desagertu zen, HABE -euskara ikasten ari direnen irakurgai nagusia izateko lehian AEKk argitaratzen duen AIZU! gainditzetik lortu gabe- maiztasunez jaitsi da, eta gainontzekoak (HABEKO MIK, ZUTABE, Unescoko Albistaria) subentzio barik gelditu dira 1992.etik. Egun eskura dauden datuen arabera eta beherago erakusten direnak, saldu ere gutxiago saltzen dira lehengoak baino.

---

<sup>48</sup> Ibíd.

<sup>49</sup> Argia, 1983-IX-18.

Inoiz gardenki frogatu ez duena Jaurlaritzak zerau da: tirada, salmentarekin egokiturik dagoen ala ez eta beraz tiradaren arabera emandako diru-kopurua zuzena den ala ez eta proportzio berdinez banatzen ote den dirua maila bereko aldizkarien artean. Alferrik da saiatzea. Arrazoa beste hauxe da: administrazio dira eta kitto.

Ordezkapen politika hor gelditu da ( ez, ordea, erabat baztertua, zeren, azken aldian, *Egunero* egunkaria gauzatu nahirik berpiztu bait da). Jaurlaritzak uste izan du aldizkari bat zein beste berdina dela, euskaldungoak nahi duena aldizkari bat delakoan (edozelangoa izanda ere). Baina hemen ere linguistikan ezaguna den konmutazio prozesua ematen da. *"La commutation est une épreuve (test) qui doit servir à montrer si la substitution d'un élément à un autre dans le plan de l'expression, en un range déterminé (phonème, morphème) entraîne une différence dans le plan du contenu ou, inversement, si le remplacement d'un élément par un autre dans le plan du contenu se manifeste par une différence dans le plan de l'expression"*.<sup>50</sup> Alegia, foneman zein morfeman elementu bat aldatu ondoren (asto/arto) mamia aldatzera ailegatu daiteke, baina ez mami berdina ematea. Ordezkatzea ez da posible. Horretan egin du huts Jaurlaritzak.

Zertan da, baina, "luzamendu politika" deitzen dudana, ondoko azpiatalean ikusiko da.

### 2.2.2. Luzamendu-politika

---

<sup>50</sup> Dubois, etab. in Dictionnaire de Linguistique, Edit. Larousse, Paris, 1973, 100 or. "commutation" adierapean.

Aitzaki-politika ere dei daiteke epealdi eta prozedura hau. 1980.eko hamarkadan hauexek izan dira Jaurlaritzak (Euskal Prentsa kontrola ezinik) luzamendutan eman dituen urratsak: ajentzia eta astegunkariak. Ez da zuzena esatea Administrazioa geldi egon dela; alderantziz baina, Jaurlaritzak bazuen, ukan, bere proiektua. Zein nolakoa, besterik da, orriotan agertuko dudanez.

### 2.2.2.1. Ajentziaren lehentasuna

Luzamendu-politikaren lehen atala ulertzeko, euskarazko egunkariaren beharrezana sortu zeneko uneak arakatu behar dira.

1976.ean hasten den elebitasun-politikak , bi urte eskas geroago huts egin zuen, komunikabideetan euskarari bide egokiago bat emateko lehian. Zenbait bazterretatik -etsirik zirenengandik hasita- euskarazko egunkari baten premia aldarrikatzen hasten da.

1982-1984 urte bitartean gai hau bilakatzen da prentsari dagokion mailan erabiliena eta esperantzagarriena. Adibide bat ematearren eta Jaurlaritzaren arerio batengandik ez datorren baten aipamena egiteagatik, hara, Iñaki Etxebarriak -artean *Iparragirre, S.A.*ren gerenteak- Leioako Kazetaritza Fakultatean esana: "...*euskara eta egunkariaren auzian benetako balioa duen formula bakarra euskarazko egunkariarena da*".<sup>51</sup>

---

<sup>51</sup> Leioako Kazetaritza Fakultatea, 1984-III-26/Egin, 1984-III-27

Halere Jaurlaritzak irrati-telebistaren aldeko apustu garbi eta zalantzarik gabea egin zuen. Garai hartan egindako mahainguru ugarietan Jaurlaritzako norbaitek beti hartzen zuen parte: Martin Ugaldek hain zuzen, artean Euskara Zerbitzuaren Arduraduna Jaurlaritzan eta gaur egun *Euskaldunon Egunkaria, S.A.*ren Administrazio Kontseiluaren lehendakaria.

1983.eko Maiatzean ezagutzen da *Orain, S.A.k* eta *Iparragirre, S.A.k* proposamen bana egin zutela Jaurlaritzan euskarazko egunkari bana egin ahal izateko diru-laguntza eskatuz. Baina, ez bata ez besteak ikusi zuen argi berderik. *Eginen*, hilaren 12an, adibidez, honelaxe esplikatzen da Josu Barandika, Jose Luis Elkoro eta Jabier Irigoien (*Orain, S.A.*) Pedro Migel Etxenike Kultura Sailburuarekin egindako bileraren eta eskakizunaren zentzua: "*se trata de trasladar al campo de la prensa escrita el desafío que ya el Gobierno Vasco ha asumido respecto de la radio con Euskadi Irratia.*" *Iparragirre, S.A.*koen bilerarik ez dager egunkarietan baina urte horren Ekainaren 7an ematen da jakitera Euskadi Irratian, egin mahainguru batean.<sup>52</sup>

Zuzentzat eman daiteke Jaurlaritzak egunkari bat ateratzeko asmorik ez izatea baina badirudi zalantza batzuren buruan ordurako bazekiela, egitekotan, nork egin beharko lukeen. Martin Ugalderen eritzietan agertzen diren xehetasunak lekuko. Alderatu, bestela, ondoko bi adierazpenok:

Leioako aipatu mahainguru hartan hauxe zioen M. Ugaldek: "*Gobernuak ez du egunkaririk ateratzeko asmorik*" baina izatekotan "*egunkaria bat eta ona*" izan behar zuela eta, bi premia ikusten ditu aurretiaz betetzeko: "*kazetari eskola eta berri-ajentzia behar dugu*". Bere eritzi propio-pertsonala ematera ere ausartu zen Durangon: "*Ni behintzat ez naute horretarako eraman eta Jaurlaritza gai honetaz kezkatua dagoela egia bada ere* *Gobernua ez da*

---

<sup>52</sup> Egin, 1983-VI-8.

*egunkariaren kontu hori erabaki behar duena. Batetik ausartegia litzateke gobernuarentzat berak gobernu bezala egunkari bat ateratzea, arrunta baino oso gauza bitxia litzateke, zaila bait da gobernu batek egunkari zabal bat egitea".<sup>53</sup>*

Gasteizko La Floridako Kultura Etxean, berriz, hauxe: *"bai, Parlamentoaren bidez bai beste kontrol baten bidez, egunkari bat egiteko posibilitatea badago. Beharbada hori litzateke gauzarik zuzenena. Hori, geroak esango du".<sup>54</sup>*

Horregatik, agian, lotzen ditu ajentzia eta egunkaria: *"hasi behar dugu pentsatzen egunkariarekin batera edo aurretik, euskal ajentzi bat behar dugula.(...) Ajentzi honetarako aski litzateke 10-12 itzultzaile on, eta hauek izango ziren, azken finean, euskaraz idatzitakoa mantenduko luketenak".<sup>55</sup>*

Martin Ugaldek bere eritziak eritzi pertsonalak zirela beti espreski esana utziarren, Jaurilaritza, ofizialki, ixilik mantendu zen garai hartan. Eta ixiltasun hau, borondate-ezaz jotzen da. Zereginik jakin eza, zalantza, politika mailakotzat hartzen. Batzu bederen, aipatzeko: *"dauden oztopoak politikoak dira, ez azpiegiturarenak"<sup>56</sup> "egunkari horren arazo nagusia ez da dirua ez irakurlegoa, arazo politikoa baizik";<sup>57</sup>"arazoa, erabakirik eza, funtsean beldur politikoan dago".<sup>58</sup>*

---

<sup>53</sup> Egin, 1983-X-12.

<sup>54</sup> Egin 1984-IV-10.

<sup>55</sup> Ibid.

<sup>56</sup> Zumalabe, Joxemi, ETB, 1984-I-10

<sup>57</sup> Amuriza, Xabier, Egin, 1984-I-15

<sup>58</sup> Zalakain Jeuxmari, Etxepare Kultur Taldearen Aste Kulturala, Barakaldo, 1984-XI-20.

Arazoa da 1985.eraiko egunkariaren aldeko hotsak ixildu egin zirela, azkartasun-premiaren su-txinpartak itzalirik, antza. *"Euskarazko egunkariaren lau predikari zoroak isildu garenean bertan behera geratu dira proiektu guztiak"* errekonozitu zuen Mikel Atxagak.<sup>59</sup>

*"Euskadiko eguneroko prentsa erdaraz dago idatzia eta euskara hutsezko egunkaria iritsi ezin den proiektu ekonomiko bat baino areago ez da joan, antza denez gainera, gehiengoari ez dio arazo honek gehiegi axola"* idazten du, etsiango, Jose Felix Azurmendik, artean Egineko zuzendaria eta egun *Deiako* zuzendariordea.<sup>60</sup>

Martin Ugaldek Jaurlaritza utzi ondoren ez zuen, halere, ahantzia ajentziaren premia. Lehenasuna du, gainera, bere ustez. *"Gure herrian euskal agentzia bat sortzen ez den bitartean oso mugaturik geratzen dira euskarazko komunikabideak. Euskal egunkaria? Noski. Baina euskal agentzia behar dugu lehendabizi"*.<sup>61</sup>

Ez da Ugalde Jaurlaritza utzi zuen bakarra. Besteak beste, Kultura Sailburua ere aldatzen da eta Etxenikeren ordezt Luis Mari Bandres jartzen. Eta bere eskutan geratzen da euskarazko prentsari dagokion gaia. ARGIAk 1985.ean propio egindako elkarrizketa batean honoko adierazpenok egiten ditu Bandresek: *"Mementu honetan, konpromiso bat hartu dugu albiste-agentzia bat egiteko, eta hori ere uste genuen baino zailagoa da; mementu honetan bost edo sei proiektu daukagu eskuartean; mota desberdinetako ideiak jaso izan ditugu eta hortik sortuko da plan bat"*.<sup>62</sup>

Lehenengo lepotik burua gai honetan.

---

<sup>59</sup> ARGIA /Urtekaria 1985, 130 or.

<sup>60</sup> Ibid.

<sup>61</sup> Ibid. 129 or.

<sup>62</sup> Ibid. 28 or.

Eta egunkariak? Era guztietako luzamenduak berma ditzakeen hitza botatzen zuen Bandresek elkarrizketa hartan: "aztertu". Edozein luzamendutarako balio duena diot, ezen, aztertu beti dago aztertzeke. Amaigabeko putzu sakona da *aztertu* hori.

*Egunkari batean pentsatzeko, dio, lehenengo azpiegitura jarri behar da. Gaur egunkaririk ez ateratzeko arrazoiak tekniko-ekonomikoak dira: horren kostoa, salmenta aztertu behar da; gero, gainera, egunkaria egunero atera behar den gauza da, eta ez dago astirik materiale guztia hutsetik abiatu egiten hasteko: fondo bat eduki behar, dokumentazioa, berriak euskaraz, edo bestela itzuli. Uste dut hutsetik egunkaria egitea ezinezkoa izango litzatekeela, gainontzeko beste urratsak eman gabe. Nik une honetan ditudan datuen arabera, berehala ateratako egunkari bat guztiz defizitarioa izango litzateke, eta seguruenek guztiz pobrea".* <sup>63</sup>

Euskarazko prentsaren ibilbidea, komunikabideetatik bederen, segitu duenak, badaki, jakin, Luis Mari Bandresek aipaturiko azterketa horiek ez direla oraino guztiz burutu, azpiegitura hori ez dagoela prest, dokumentaziorik ez dela inon biltzen ari (euskal prentsatik at, esan nahi da). Areago, aipatzen ziren zailtasun-oztopo guzti horiek (kazetari falta, hizkuntz-arazoak, irakurlegoa, azpiegitura makala) hutsalak bilakatu direla, euskarazko egunkari batek - "Euskaldunon Egunkaria" deritzanak-, merkatura ailegatuz, gaindi daitezkeela frogatu bait du. Neurri batean benetazko arazoak izanda ere ez dira ezinbestekoak izan. Mugatzaileak, bai, noski. Hori, jakina, orain esaterik badago, frogatua izanik. 1985.ean, ordea, erabakia ez hartzeko primerako aitzakia bihurt(u)tzen zen. Non ez zegoen, halere, azpiegitura hori? Nork ez zeuzkan baliabide horiek, azterketa horiek prest? Nor ez zen berriak behar bezala euskaraz eta

---

<sup>63</sup> Ibid.

egunero lantzeko gauza? Traza guztien antzera, aitorten honetan ikusten da nabari-nabari Jaurlaritza luzamendu-politikaren bidean sartua zela bete-betean.

Ajentzia, gainera, eta hauxe da sintomarik onena, ez da sortu, bistan denez. Luis Mari Bandres, Gasteizko Legebiltzarrean euskarazko ajentziaren ezina azaltzen aritu zen: <sup>64</sup> bezeriaren eskasia, kostu altua, konpetibitate eza, erizpideren desberdintasuna, etab. azalduz. Horren ordez, arazoa "*planteaketa orokorrago batez*" egitea erabakirik.

Zein ote, planteaketa orokorrago hori? Astean behingo egunkariak (neuretzat eta lan honetarako *astegunkariak*) egitea, alegia, eta aldi berean EFE Agenziarekin kontratua sinatzea albisteak euskaraz igor ditzan. Bandresen esanetan, astekariena proiektu "*esperimental*" zen "*hiruhilabetetarakoa*", edota erdaraz jasorik, "*con el objetivo final de que, a principios de año se pueda tomar la decisión de potenciar la creación de un periódico en euskara que saldrá diariamene a la calle*". <sup>65</sup>

Orduko Euskadiko Ezkerrari esker, Legebiltzarrak ajentzia bat sortzeko 1985.eko aurrekontuetatik 20 milioi baztertu zituen. Gobernuak, baina, ez zuen erabaki hori bete, bere kasa *Vasco Press* ajentzi erdaldunarekin (eta ez *EFE*ekin) lotu akordioz, (1987.eko Abenduan) itzulpen-zerbitzu batean utzi bait zuen dena: zehatz izateko lau itzultzailez osaturiko taldea sortuz. Geroztik, urterik urte berriztatu da zerbitzu-akordio hau eta 1992.ean abandonatuz, azkenean itzultzaileak hiru baino ez zirenean: Iñaxio Arrizabalaga, Eukeni Abasolo eta Ana Lantzagorta.

---

<sup>64</sup> 1986-IX-18.

<sup>65</sup> Egin, 1986-IX-19.

Ezin esan, baina, euskarazko prentsaren premiak ase dituenik: "*Vasco Presse* erdara hutsez funtzionatzen du, eta gero bada sail bat berriak euskaratzen dituena. Ez dut uste honek dagoen premia betetzen duenik" zioen Eukeni Abasolok kontratua eten baino aste batzu lehenago. <sup>66</sup> Datu adierazgarria, baina, ez da hori soilik, baizik eta zerbitzu horren ondoren Jaurlaritzak ez duela besterik sortu. Bete du nonbait bere funtzioa, hots luzamendu-politikaren elementu izatearena.

#### 2.2.2.2. Astegunkariaren urratsa

Bistan denez, Luis Mari Bandresen azken adierazpen haietan planteaketa berri eta orokorragoaren premia aipatzen zen egunkariaren zezenari adarretatik heltzeko. Ajentzia, zaila eta ezinezkoa bilakatu da. Ez da baina ongi ulertzen, hori izan zitekeela euskarazko egunkaria sortu aurretik ezinbestean eman beharra zegoen urratsa, eta bapatean, beste zerbait behar izana. Horrek gehiago finkatzen du, hemen emandako mekanismoaren funtzioa.

"*Astegunkariak*" deituko ditugun egunkaria itxurako errebistak 'planteaketa orokorrean' sartzen dira. Nolabait esateko egunkarira pausoka ailegatu beharreko hipotesian, gradualtasunaren harian alegia.

Egunkariari buruzko eztabaida, indarrean dago 1983.etik, hipotesi hau aukeran jartzen denerako. Hipotesi honen gailurra ELA-STV sindikatoak proposatzen duen "Prensa en euskera:"

---

<sup>66</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1991-XII-6. Leku berean ikus daiteke irrati eta telebistako kazetariak zerbitzu honi buruz duten eritzi ezkorra.

algo más que palabras" idazlana da. Hara zer dioen, programaketa zehatzez: "*Por lo que se refiere a una inminente aparición de un diario en euskera, en las actuales condiciones, es una solemne tontería. Previamente hay que crear "costumbre", formar periodistas en euskera y una infraestructura que permita competir al diario "euskaradun" en condicines de mínima dignidad. Y eso no se consigue ni en uno ni en diez años*". Eta honoko urratsak ematea proposatzen du hurrenez hurren.

*"1. Creación de una agencia de noticias en euskera, que pueda ofrecer servicios, no sólo a los periódicos escritos, sino a las diferentes emisoras de radio y TV.*

*2. Aumento de las subvenciones a Hemen y Eguna de tal manera que, entre 1989 y 1991 puedan contratar tres nuevos redactores cada uno y aparecer dos días a la semana. Estas subvenciones irían en aumento en trienios sucesivos. Entre 1992 y 1994 se contratarían tres redactores más -en cada periódico- para una periodicidad de tres días a la semana. Ente 1995 y el año 2.000, doce nuevos redactores y cinco días a la semana.*

*Esta propuesta, además de ser mucho menos costosa, y más duradera, garantiza, además, la pluralidad informativa e, incluso, lingüística y cultural, garantiza llegar al año 2.000 no con uno sino con dos diarios en euskera, que además corren menos peligro de estar sometidos a contingencias políticas y empresariales. Por otra parte se iría avanzando a la vez que crece el número de lectores potenciales".* <sup>67</sup>

Astegunkari baten jabe izateko karrera 1986.eko Uztailaren 24an hasi zen Jaurlaritzak horrela erabakita, eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* finkatuta. Albistea, *Deiak*

---

<sup>67</sup> San Sebastian, Koldo, Deia, 1988-III-22.

ematen du lehen aldiz, 17an, esanaz Jaurlaritzak prest dauzkala diru-laguntzak *"astean behin euskarazko egunkari bat"* ateratzeko gauza denari luzatzeko.

Albistea guztiz harrigarria da, ondoko koinzidentziok ematen direlako: gauzak prestatzeko ematen den epe estua, hau da, abuztuaren 15ean amaitzen da proiektuak aurkezteko epea, beraz uda gorriko 19 egun; onartua izanez gero, irailaren lehen kalendarian behar du astegunkariak, beraz hamabost egunetan. Susmo txarrak aizaratzeko aukera ezin hobea ematen da. ARGIAtik, honela dio Dabi Zuazaldek: *"Agindu honek konpenetratio handiegia erakusten du Amatiño-Deia artean"*.<sup>68</sup> Gauza da Luis Alberto Aranbarri, Amatiño, ETB utzi eta Londresen zegoela egunkariaren posibilitateak aztertzen. Eta bestetik hilabete batzuek lehenago Deia halako froga bat eginik zela: *"Deia euskaraz"* deitua, hots, 1986-III-23ean egunkari oso bat euskaraz argitaratuz, erdarazkoa aparte.

Koinzidentziaren eremuan merezi du datu hauek jasotzea. □ Bizkaiko Diputazioak "euskaraz hautsi zure marka" kanpaina hedatu zuen. Erronka horri eutsi nahirik, *Deiak*, Jaurlaritzaren laguntzaz, eta egunkariaren gaia hain harrotua izanik, egun batez euskarazko egunkaria egitea erabaki zuen. "Alma mater" edo kasurako zuzendaria Joxe Ramon Beloki, artean *Deiaren* zuzendariordea, gero Jaurlaritzaren *proiektuaren* buru agertuko dena. *"Euskarazko egunkariak asko eta asko hitzegin eta eztabaidatu da, zioen Belokik. Guziori jaso egin behar da honelako proiektu bat egiteko orduan, baina bestetik praktikan zerbait egiteko garaia ere bazela ikusi dugu eta hortik etorri zaigu oraingo hau egiteko ideia"*.<sup>69</sup> Ondorioak ateratzeko ekitaldi bat zen, promotoreen ustetan, beraz bazuen zerikusirik balizko egunkari batekin. *"Dudarik ez dago datu oso baliagarriak izango zaizkigula (...) Hortik konklusio*

---

<sup>68</sup> Argia, 1986-VII-27)

<sup>69</sup> Argia, 1986-III-16.

*moduko batzuren aurreuposaketak jokatzen has gaitezen eta egun bakarreko horrek horretarako balioko digulakoan gaude taldeko guztiok" .<sup>70</sup>*

Konklusioak, baina, ez ziren, antza, oso baikorrak izan. Dabid Zuazaldek, honela erizten zion saioari: *"esperientzia ezin penagarriagoa izan zen emaitzen aldetik(...) Salmentei dagokienez, hiruzpalau mila saltzera ez bait ziren iritsi (...) Egun bakarreko egunkari hartan argitaratu zen inkestari apenas dozena pare bat pertsonak erantzun zion".* <sup>71</sup> Belokik berak, egun batez zuzendari izanak, honela baloratzen zuen Apirilaren 21ean Leioako Informazio Fakultatean izandako mahainguruan hau da "Euskararen eguna" zela eta "Euskara eta Komunikabideak" antolatu mahainguruan, zeinean Joxe Mari Otermin, Laura Mintegi eta Joxe Ramon Belokik hartu bait zuten parte Karmelo Landa gidari zela: *"ez gaudela deskonformeegi esango nuke. Hala ere, indiferentzia neurri bat somatu dugu gizartean; ez zaigu kritika ugaririk heldu".* <sup>72</sup>

Zer demostratu zen egunkari harekin? Egun batez, egunkari bat egiteko gauza izan zela *Deia*. Printzipioz, besterik ez. Mamia ikusirik argi bait dago edukiaren ehuneko handi bat astetan egina dela. Ezin, bada, konklusiorik atera, segidarik ez zuela izan ez bada.

---

<sup>70</sup> Ibid.

<sup>71</sup> Argia, 1986-VI-27

<sup>72</sup> 48 orrialdetako egunkari normal hartan 32 kazetarik hartu zuen parte, nola edo hala bertan aritu eta ari zirenak. Hauexek: Nikolas Aldai, Estepan Aldamiz-Etxebaria, Jose Mari Aranalde, Luis Alberto Aranbarri, Antton Aranburu, Xipri Arbelbide, Jose Luis Arriaga, Mikel Atxaga, Nerea Azurmendi, Miren Jone Azurza, Jose Ramon Beloki, Luis Mari Bengoa, Aingeru Epalza, M. Etxeberria, Jesus Mari Etxezarraga, Pedro Mari Goikoetxea, K. Intxaurbe, Fermin Iraolagoitia, Jose Mari Iriondo, Arantxa Iturbe, Felipe Lizaso, Xabier Mendiguren, J. M. Mendizabal, K. Narbaiza, Ramon Oñederra, Aintzane Ortiz de Landaluze, Mikel Ugalde, Martin Ugalde, Iñigo Urrutia, Karmelo Vivanco eta Jose Antonio Zubikarai. *"Hemen gaude, zioten. Atera gara plazara. Marka hausteko deia egin zitzaigun eta saiatu gara erantzuten".*

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

Goian aipatu kondizio horietan nor gailen zitekeen aurretiaz presto zegoena ezik?

Jaurlaritzaren Aginduak hauxe eskatzen zuen zehatz-mehatz:

1.-Egunkaria asteburuero agertuko litzateke, astean behin, goizetik derrigorrez, gutxienez 32 orrialdetako, eta egunkari normalak banatzen diren ordu berberetan banatzekoa Euskal Herriko lurralde guztietara.

2.-Enpresak azpiegitura nahikoarik daukala frogatu beharko luke

3.-Egitasmo horretarako gutxienez 6 erredaktore kontratatu behar lituzke, Kazetaritzan lizentziatuak edo egunkarigintzan bost urtetako esperientziadunak

3.-%75 aktualitateko informazioz bete beharko da

4.-Projektuak Abuztuaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko da, eta martxan Irailaren lehenetik hasi beharko dute

5.-Gutxienez 10.000 ale argitaratu beharko dira, eta abenduaren 31era bitartekoagatik argitaratzaileak, 6.5 milioi jasoko ditu"

Kondiziootan lehiatzea ez zen, gutxienez, euskara hutsezko aldizkariarentzat bide erraza. Bidea, bazirudien, egunkariarentzat soilik zabaltzen zen, euskalzaleak izan ala ez. Izan ere *Iparragirre, S.A.k* eta *Orain, S.A.k* proiektu bana aurkeztu zuten -"Hemen" eta "Eguna " izenekoak- eta ontzat emanak izan ziren. ARGIAk ere berea aurkeztu zuen, baina ez zuen langa

pasa: "*projetuek egunkari baten estrukturan integratuta egon behar dutelako*"<sup>73</sup> nahiz eta hori Aginduan agertzen ez zen. Bazegoen, halere, 3. atal bitxi bat, non egunkarigintza aipatzen zen. Alegia erredaktore izateko kondizio bat zen lizentziatua izatea edota "*egunkarigintzan*" bost urtetako esperientziduna izatea. Erdarazko bertsioan, berriz, "*cinco años de experiencia en el mundo periodístico*" esaten zen. ARGIAk baztertuta ikusi zituen bere aukerak, lehiatik baztertua izan zelako edozein egunkariren mesedetan. Hori deduzitu daiteke behintzat Josu Legarretaren aitoren notatik: "*Dirulaguntza eskaintza ez zitzaien Deia eta Egini bakarrik egin, egunkari guztiei baino*".<sup>74</sup>

Bide berdina markatzen du ARGIAko editorialekilea ezetz honen arrazoi ofizialak ezagutzera ematen dituenen: "...*honetarako dugun dirutza ez da projektu guztiak kaleratzeko bestekoa. Beraz, aukera bat egin beharrean, dirulaguntza deialdia gaurko egunkariei zuzendu genien eta ez aldizkari*".<sup>75</sup> Proiektuaren subjektuaren izan zitekeenaren nortasuna ez zen, inolaz ere, aurkezpen-deialdian zehaztua.

Edozein delarik ere interpretazioa haxe gelditzen da, alegia, Jaurlaritzak ez zuela apusturik egiten euskarazko prentsaren alde. Bazterrean gelditu zen bakarra, euskara hutsezko aldizkari bat izan zen. Nahiago zuen, gehiago fidatzen zen Jaurlaritza egitura elebiduna zuten enpreekin (ala erdara hutsezkodunekin, ez bait zegoen printzipio ukatzailerik ordurarte erdara hutsean editatzen ari ziren egunkarientzat).

---

<sup>73</sup> ARGIA/ Urtekaria, 1986, 115 or. Hemen aipatzen den proiektua I. Atalean aipatzen den huraxe da.

<sup>74</sup> Legarreta, Josu, Deia, 1986-IX-11

<sup>75</sup> Argia, 1986-IX-7

Luzamendu-politika da, ez ahaztu, hemen aztertzen dena. Hau da, Jaurlaritzak, astegunkariaren formula bitxiarekin beharrezko erantzuna luzatu baino ez zuela egin adiera ematen diguna, euskarazko prensatik zetorren indar bizia tratatzen saiatuz *de facto*. Alferrik, baina, historiak erakusten duenez.

Jaurlaritzako eledunak, Legarretak batez ere, urrats-parabolan justifikatzen zuen neurria: "*hartutako jokabide hau, bihar-etzi egunkari-egunkariak lortzeko lehen pauso bat baino ez da*"<sup>76</sup>. Gauza berbera Luis Mari Bandres Kontseilariak, erabaki honi "*esperimental*" deituz<sup>77</sup>

Astegunkari bateko zein besteko protagonistek oso modu desberdinez bizi izan zuten lan-aldi hau. Honela mintzo zen Joxean Agirre *Hemeneko* koordinatzailea: "*guk badakigu ezarri diguten bidetik ez goazela eguneroko egunkarira, baina komenzituz gaude helburu horretara egingo den konfluentzia horretan errekatxo bat gehiago izango garela*".<sup>78</sup> Luis Alberto Aranbarri, *Egunako* koordinatzailea, aldiz: "*transiziozko formula hau merezigarria ezezik derrigorrezkoa izan da*"<sup>79</sup>

Mikel Atxaga bat zetorren Aranbarrarekin: "*Eguna eta Hemen ez ziren astekari izateko sortu, egunkari eguneroko bilakatzeko frogaldi bat egitearren baizik, Hori zen nere ustez behintzat hasierako asmoa. Frogaldi hori beharrezkoa zen kazetarion trebakuntzarako eta azpiegituraren eta baliabideen erabilera egokia lortzen ikasteko, baina frogaldiak eman duen emaitza, ona gainera...egunkari bat egiteko gai garela erakutsi dugu behintzat*"<sup>80</sup>

---

<sup>76</sup> Legarreta, Josu, Deia, 1986-IX-11

<sup>77</sup> Egin, 1986, IX-19

<sup>78</sup> Argia/Urtekaria, 1987, 91 or.

<sup>79</sup> Eguna, 1988-IX-20

<sup>80</sup> ARGIA/Urtekaria, 1987, 90 or.

ARGIAtik egiten diren balorazioak bestelakoak dira: "*Ez egunkari ez asteroko, astean behingo egunkari izate horrek mugatzen dizkie sustraietatik beren posibilitateak -beren borondatearen aurka seguruenik- eta eduki zezaketen emaitza ezinezkoa zaielarik esfortzu hori egin ondoren".* <sup>81</sup>

Esandakoak esanda, ba ote zegoen asmorik astegunkarietatik egunkari bat sortzeko? Eskuartean ditugun datuek ezezkoa emateko bide gehiago ematen dute. Adibidez, Joxean Agirrerren hitzok: "*Guk astean bitan egunkari hau ateazeko proposamena egin genien Lakuakoei. Erantzunez, kolorea sartzeko diru-laguntza eskeini digute. Hor dago diferentzia eta hor dago burruka*". <sup>82</sup>

Etena gertatzen denean, ez da inolako katebegirik eransten 1986an sortutako ideiarri, egunkaria egiteko promesa baino ez.

*Hemen*, Orain S.A. enpresak argitaratu astegunkaria 1986-IX-26an sortu zen Joxean Agirre, Joseba Alvarez Forcada, Jabotxa Fernandez, Eguzki Arrizabalaga, Sergio Basurko, Andres Gostin, Felipe Rius eta Xabier G. Argüello langile zituela. Ostiralero kaleratu zen. *Eguna*, Iparragirre S.A. enpresak argitaratu astegunkaria 1986-X-5ean agertu zen, Luis Alberto Aranbarri, Mikel Atxaga, Nerea Azurmendi, Txemi Galarraga, Imanol Unzurrunzaga eta Antton Zubikarai langile zituela. Esan beharra dago seinako ekipo horiek dexente aldaketa ezagutu zutela, oso urriturik zirela azkenerako, praktikan hiruren artean burutzen baitziren, besteak enpresa-amaren zereginetan erabilirik.

---

<sup>81</sup> Zumalabe, Joxemi, ARGIA/Urtekaria, 1987.

<sup>82</sup> Argia, 1987-X-25

Egunkariaren gaiari heldu ordez, Jaurlaritzak astean behin produkto bat kalean jartzeari heldu zion, aldizkari berri biri hain zuzen, lehenik zetozen aldizkari(ar)en garapena trabatuz. *"Ezin dugu ametitu, zioen ARGIAren editorialeak, dirulaguntza bide berri eta aberatsagotik kanpo arbitrarioki uzten gaituzten bitartean, ARGIAri aurten subentzioa diferentzia nabarmen batean jaistea"*.<sup>83</sup>

Bestalde, astegunkarietan lan egin zutenetik hiru bakarrik hasi ziren erabat euskal prentsan: Andres Gostin eta Pello Urzelai (*Hemen*) eta Gorane Agirre (*Eguna*), hirurak *Euskaldunon Egunkaria*-n. Beraz ezin esan astegunkarietan lortutako esperientziak segida izan zuenik. *Hemen* eta *Eguna*, azkenean, sortu bezain sorpresiboki hil ziren. Erne zituenak berak itzali bait zituen. Hauxe frogatzen du *Egunaren* azken eguneko portadako argazki-oinak: *"EGUNAREN azken alea da gaurko hau. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak sortarazi zuen eta bere laguntzarik ezak bukarazten du"*.<sup>84</sup> Ondoren, hutsa baino ez, Jaurlaritzak ez bait zuen horren ordezkorik jarri. Tartean, hiru urte ziren joanak:1990.eko udazkenean eman zuten beren azken hatsa:1990-IX-27an *Egunak*, 1990-IX-28an *Hemenek*.

Beraz, astegunkarien esperentziatik, maila pertsonalean lort zitekeenaz alde batera, ondoko konklusiook atera ditzakegu: hasitako bidea etenik geratu zela, batetik urratsen segida inon ez zegoelako diseinatuta, hau da plangintza zehatzetik kanpo hartu erabakia izan zelako; bestetik, nolana ere, astean behingo esperentziatik -aberatsa izanarren- ezin daitekeelako jauzirik egin egunerokotasunean zer gerta daitekeen asmatzeko. Erabat diferenteak dira astekarien funtzioa eta egunkariarena. Dena dela egunkariaren kaleratzea atzeratzea lortua zegoen. Hori bai! Luzapen-politikak emana zuen berea.

---

<sup>83</sup> Argia, 1986-XI-16

<sup>84</sup> Eguna, 1990-IX-27

### 2.2.2.3. CIES: alferrikako inkesta

Luzamendu-politikaren eremuan eta, bereziki, euskal prentsa ohizkoaren bidetik ihes egin nahi horren testuinguruan, egunkari baten premia eta ametsaren inguruan erakutsitako jokabidea da esanguratsuena; garratzena ere bai. Azkenean, premia hori, beronen gauzatzearen kontrako txantaila bilakatuko bait da. Prozesu honetan mamituko da, aldiberean, gorago aipatu dudana "bitasuna".

Edozein plangintza egiteko lehen pauso seriotzat har daiteke Jaurlaritzak CIES etxeari eskatutako (Parlamentuaren erabakiaren datuz 1988-V-1) azterketa.<sup>85</sup> Jaurlaritzak ez zuen onartu aldizkariak nahi zutena, hots, bakoitzaren biziraupenerako behar diren baliabideak aztertzea ondoren diru-laguntzak erabakitzeko, eta, besterik gabe, etorkizunari begira egunkari bat egitekotan zein nolakoa beharko litzatekeen aztertzeari ekin zion.

---

<sup>85</sup> Ordurarte egin direnak oso partzialak izan dira batez ere "inventarium" asmoarekin eginak bait daude. Nolanahi ere guztiz baliozkoak dira diagnosi bat egiteko. Publikatu diren azterketak hauek izan dira: 74-76 bitartean *Zeruko Argian* (669 zb. bereziki) eta *Anaitasunan* (300-301 zb. bereziki) argitaratutako balantze periodistikoak zeinak lan honetan zehar aipatzen diren. Horietaz aparte, ikus Torrealdai, J.M. Euskal Idazleak, Gaur, Jakin, Oñati-Arantzazu 1977, 550-556 or.; Joseba Intxausti, Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea historian in A.A. "Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo", 2. liburukia Jakin-Lankide Aurrezki Kutxa, Donostia, 1985, 361-386 or.) eta Iztueta, Paulo Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1937-1984), ibid, 392-402. or.; Atxaga, Mikel Komunikabideen beharra, Torrealdai, Joan Mari Euskal kazetaritza, gaur eta bihar, eta Xabier Aranburu Euskara, erdal egunkarrietan, hirurak in Euskera, 1977- XXII zb., 53-68 or. eta azkenik A.A Komunikabideak Euskal Herrian in Jakin 1982, 22 zb. SIADECOK ere egin ditu zenbait lan, ezagunena 1977an argitara emandako Estudio sociolingüístico del euskara, batez ere bere II. atala El euskera en los editoriales y revistas. Gainera ARGIA Urtekariak emandako urteko balantzeak 1986-1991 eta bereziki Euskal Prentsak 100 urte bete ditu dossierra, 1987.ekoan. Aldi berean aldizkari berberak bere milagarren alean eta 50. urtemugan egindako analisiak:1.000. eta 1.175. zenbakiak.

Erabaki hau ez da bapatean hartzen, gaia ere ez bait zen berria, izan ere egunkari baten premia, euskal prentsak izan duen ametsik zaharrenetarikoa izan daiteke, VI atalean erakusten den lez. Zinez, beharrezkoa zen CIESen azterketa hau. Izan ere 1982.etik aurrera girabuelbaka bait zetorren egunkariarena, besteak beste norberaren arrazoiak, ikerketa fidagarri batetan ere oinarriak izan zitzaizkion. Hau ez da izango, halere, determinantea, egunkaria egiteko orduan, tesi-lan honetan frogatzen denez. Determinantea Euskal Prentsa deituko den gertakizunaren leialkideen apustua izan da.

Noiz hartzen da, baina, erabaki hau? Euskal prentsan ari direnak, egunkari bat egiteak merezi ote duenentz neurtzen ari direnean. Horrek, euskal irakurlekoa zabalduko duenentz argi ez dagoenean. Bai. Baina ohizko euskal prentsak iraute hutserako behar duen laguntza jasotzen ez duenean. Plangintza egin bitartean, aldizkariak hil ez daitezen zerbait egitea premiazkoa izan eta egiten ez denean.

Azterketa egitea 1988.eko Maiatzean erabakitzen da. Ordurako iragarria da astegunkariaren gainbehera, 1990.eko udazkenean gertatuko dena hain zuzen. Hau da astegunkariaren bide hura ez dela egunkarirako urratsa, hots, egunkaria ez dela horien ondorio naturala izan.

CIESen azterketa, ondorioetan garrantzizkoa bada, are garrantzizkoagoa bilakatzen da Jaurlaritzak ematen dion erabilpenean. Izan ere aparkatu egingo bait da (Amatiñok, "*nik beste datuak ditut*"<sup>86</sup>) beste bide guztiz diferentea aukeratzeko. Gertatzen dena da azterketa horrek ontzat ematen dituen ideiak eta perspektibak, euskal prentsaren inguruan ontzat eman ohi diren

---

<sup>86</sup> ikus ARGIA, 1990-I-21

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

berberetsuak direla, besteak beste, arazoa egunkaria egitea dela, eta ez beste edozer, beste "horren" (adibidez euskaldunak irakurtzen jartzearen) garrantzia eztabaidan jarri gabe.

#### 2.2.2.3.1. CIESen ondorio nagusiak

Zeintzu dira CIESen ondorio nagusiak? Hemen, lehen atalean agertu diren zenbait datu errepikatuko dira, baina funtzioa, bistan denez, desberdina da. Ikerketa horrek bi zati nagusi ditu edo bi alorri dagokio hobeto esanda: bata, egungo aldizkariei dagokiena (astegunkariak barne) eta balizko euskal egunkariari buruzkoa, bestea.

#### 2.2.2.3.2. Aldizkariak

Aldizkako argitalpenei buruzko eritzirik hedatuena, (kontsultatutako *personalitateen* artean: Joseba Agirreazkuenaga, Iñaki Azkona, Baleren Bakaikoa, Jose Luis Lizundia, Gotzon Garate, Iñaki Zabaleta Urkiola, Pierre Xarriton eta Martin Ugalde) hauxe da: "*egoera oso kaxkarra da, tamalgarria, testimoniala, txarra, puskatua eta marginala*".<sup>87</sup> Areago, Martin Ugaldek bakarrik eman du eritzi baikorrik.<sup>88</sup>

Alabaina, gauzak eginez ikasten direla uste dute gehienek profesionaltasunari buruz itaundutakoan hauxe bait diote, CIESek labur-bilduta: "*Gai honetaz zera azaltzen zaigu, bidea ibiliz egiten dela, hau da, ETB ez balitz sortu, orain ezinezkoa ikusiko genuke asmoa eta -*

---

<sup>87</sup> CIES, ob.aip.18 or. Hemendik aurrera, esaldi baten aurrean zenbaki huts bat agertzen bada, lehen atalean egin bezala, CIESen azterketaren orrialdeari dagokio.

<sup>88</sup> *Ibíd.*

*ongi edo gaizki- egina dago. Honekin esan nahi da, profesionalak izan badirela, ez lana egiten duten profesionalak, baizik eta bi-hiru urteren buruan kazetari profesionalak bilaka daitezkenak". (25)*

Argitalpenen zuzendarien artean, berriz, ondoko ideia hauek dira nagusi: *"sekulan ez bada hainbeste idatzi euskaraz, minimoetan gaude (...) Muestrak badauzkagu, baina hil ala biziko zera hortan gabiltza". (27, 29). Pausu handiak eman direla aitortuarren, (29) eritzi ezkorra dute, orohar, zuzendariak, "ahula, pobrea, oso txarra, desastrosoa, garrantzizko hutsuneak, atomizatua (bait)-dira euskal prentsaren egoera kalifikatzeko erabiltzen diren hitzak" (29). Argitalpen hauek, aitortzen da, *kasu bakarren bat kenduta, bertako langileen boluntarismoan egon dira oinarrituta gehienetan; militantismo hori gabe inolaz ere ez zen posible izango, ezta gaur egun ere, aldizkariak kalean agertzea" (31). Plangintza eta planifikazioaren garrantzia azpimarratuta (36-37), "oro har harturik, laburbiltzen du CIESek, ez da egokia ikusten Gobernuaren jokaera euskal aldizkarietara. Orain arteko laguntza ekonomikoek bakarrik orain arte bezala jarraitzeko balio izan dute, aurrerapauso eta hobekuntzarik eman gabe, eta merkatuaren mugak (hizkuntz eta demografi mailan) gainditzeko aukerarik gabe, ezta erdarazko kompetentziari aurre egiteko ere, merkatu berean aritzen bait dira"* (38).*

Hirugarren saila *talde bilerak* izan dira, eta oro har, zuzendari zein pertsonalitateek baino askoz ere eritzi baikorragoa azaltzen dute irakurleek -"kultur maila dexenteko jendea, ohi den baino egunkari, aldizkari e.a. gehiago irakurtzen duena"- (41). *"Euskarazko prentsaren irakurleen eritzia erabat aldekoa da aldizkako argitalpenei buruz, hau da, Elhuyar, Jakin, Argia...Batez ere, informazio orokorrarena den Argiaz, salbuespenak salbuespen (...) Erdarazko egunkariak astean behin kaleratzen duten euskarazko gehigarriek...eritzi ona sortzen dute (...)*

II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

*Astean behin agertzen diren egunkari itxurakoak, Hemenek eta Egunak, ordea, ez dute erdietsi arrakasta hori. Ez dira jendearekin konektatzera iritsi" (41-42).*

Oso garrantzizkoa da zenbait datu aipatzea, aldizkarion irakurlearen soslaia ezagutzeko. Nik neronek moldatuak ditut datuak, interesatzen zaizkidanak aukeratu eta sailkatuz.

<b>ALDIZK.</b>	<b>kul. maila</b>	<b>botoa egin.</b>	<b>eusk.soil.</b>	<b>indep</b>	
<b>Argia</b>	%64 o.alt.	% 54 HB	% 72'9	% 91,9	% 79,2
<b>Aizu!</b>	%70,2 o.alt.	% 79,4HB	%73	% 95,9	% 91,9
<b>Habe</b>	-	% 40,2HB	% 35	% 81,9	% 76,8
<b>Jakin</b>	% 75,5 alt	% 47,5HB	% 39,2	% 76,9	-
<b>Larrun</b>	% 91,4 o.alt	%79,9HB	% 74,5	-	-
<b>Elhuyar</b>	-	-	-	% 87,2	% 71,3
<b>H-Herri</b>	-	%49,7 ab.	% 30	% 79,3	% 51,1
<b>Herria</b>	-	-	% 67/SO	% 68	% 54,6
<b>Lit.Gaz.</b>	-	% 30,6HB	-	%76,6	-

**Iturria:** CIES, aldizkako argitalpenak 50-375, neronek moldatua. Badira taula honetan zenbait datu argitzeko, hala nola irakurtzen den egunkariarena. Bistan da EGIN irakurtzeak, besterik gabe ezker abertzalearen inguruan ibiltzearen seinale dela gutxienez Euskal Herriko Hegoaldean. *Herriz Herri* eta *Herriari* dagokienean esan behar da egunkaririk irakurgarriena *Sud Ouest* dutela % 63 eta 67'7-tan. HBri botua ematea eta ezker abertzaletasuna ez da erabat gauza bera, adibidez ARGIAN bi heren (% 60-70)ezker abertzalekotzat aitortzen da nahiz eta gero botuematerakoan gutxiago izan, baina ez ahaztu boturik ematen ez dutenen kopuru altua.; ez eta ezkertiar sentitzea, *Elhuyare*koak, adibidez, % 63'6tan ezkertiar sentitzen dira, etab. EAJ-PNVren presentzia oso kaxkarra da, eta agertzen denean ez da inoiz nabarmena, honek nahikoa garbi adierazten du euskal aldizkarien

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

irakurlegoaren artean inork gutxi ematen diola bere botua partidu honi). Bestalde espazio faltaz kultura mailari dagokion kasillan **alt.**, **o.alt.** agertzen bada oso altua eta altua adierazi nahi da. Amaitzeko, kasilla hutsak CIESek erak ez dituela datu horiek labor-bildu.

Aldizkarion irakurlea bereziki kultur maila altukoa, ezker abertzalekoa (irakurtzen duenagatik eta politikoki bozkatzten duenagatik bederen) dela esan daiteke.

Irakurleen gehiengoak, "*aldizkarien zabalkundea mugatua izanagatik, duintasunezkoak, ongi eginak eta profesionalak direla*" euskarazko aldizkariak, uste du. (393)

### **2.2.2.3.3. Balizko euskarazko egunkaria**

Nolako euskarazko egunkaria nahi den jakiteko CIESen azterketaren bigarren zatira jo behar da, hots "Euskarazko Egunkaria" deitzen den horretara. Hemen datuok biltzen baditugu - eta hemen ere esan beharrekoa da neuk aukeratu, sailkatu eta moldatuak direla-, arrazoi honegatik da, alegia, Jaurilaritza bere bidea hartzerakoan, aldizkari euskaldunen irakurlegoaren bidea (gogoratu:*planifikazioa eta proiektu zehatza*) ezezik balizko euskarazko egunkariaren irakurlegoaren nahia ere alde batera utziz, abiatzen delako. Eta hori, jakina, besterik gabe da susmagarria, zeren egunkari bat kaleratu behar bada irakurlegoaren nahia baztertuz zein beste nahiri jarraitu behar zaio?

II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

**IRAKURLEGAIEN EZAUGARRIAK (73-101 or.)**

<b>Adinez <u>gaztea</u>:</b>	%67' 1 (18-35 urtebitartekoa)
<b>Lanbidez <u>ikaslea</u>:</b>	%21' 1 (13' 8 funtzionari+irakas.); (11' 9 erdi mailako karguak)
<b>kultur maila <u>altua</u>:</b>	%51' 3
<b>gizarte mail. <u>erdikoa</u>:</b>	%41' 8 (25' 2 erdi goikoa)
<b>euskaraz <u>zaharra</u>:</b>	%71' 7 (27' 9 berria)
<b>erabilpen <u>altukoa</u>:</b>	%52' 5 (28' 7 goi; %71-100; 23' 8 erd.g- %51-70)
<b>irakurketa <u>erraz</u>:</b>	% 48' 4 (lagunduta % 28' 9)
<b>politika <u>zalea</u>:</b>	%53' 6 (oso zalea: %31' 5)
<b>nortasunez <u>euskalduna</u>:</b>	% 91' 8 (soilik:87' 8)
<b>independ. <u>aldekoa</u>:</b>	% 80' 8
<b>ideologiaz <u>ezkertiarra</u>:</b>	% 53' 1 (erradikala: % 28' 8)

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

<b>botua abertz.:</b>	% 61 (HB, % 34'1; EA, % 8' 1; EAJ(5' 4) EE (%3'9); (%20'4-k <u>ez du boturik ematen</u> )
-----------------------	---

### NAHI DUEN (EUSKARAZKO) EGUNKARIA(102-115 or.)

*"Egunkari berrian garrantzitsuena kritikoa, profesionala eta serioa (% 42'3: oso garrantzizkoa; %20'9: garrantzizkoa) izatea da irakurle potentzialarentzat. Bigarrenik euskal munduari dagokion guztia hartzen duen egunkaria (%35' 1: oso g.;%32, 5: g.) nahi da. Hirugarren lekuan atsegina, arina eta irekia (% 28' 6: oso g.; % 29' 6:g.) (103 .)*

<b>politikoki ezkerrekoa</b>	% 50' 8 (32' 4 oso ezkerreko; 48 erdik.)
------------------------------	--

<b>gober.kin kritikoa</b>	% 78' 3 (% 64' 9 oso kritiko)
---------------------------	-------------------------------

<b>adier.asket erabatekoa</b>	% 85' 4
-------------------------------	---------

<b>ETA erasotu ez a.ez k.</b>	%58' 5 (alde:19' 7; kont. 21' 8)
-------------------------------	----------------------------------

<b>Gaiak sozialak kirolak baino gehiago</b>	(% 61' 2)
---	-----------

<b>lehent.infor. mug. sozi..</b>	%56' 1 (mugim-erakun, berdin 38' 8)
----------------------------------	-------------------------------------

### INTERESGUNE EDO ESPARRUAK (120 or.)

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

*"Informazio aldetik gehien interesatzen den esparrua nazionala da, hau da, Euskal Herriko berriak % 40'9arentzat eta bigarrenik informazio lokala, % 31'7arentzat" (120). Gainontzeko interesguneak ere agertzen dira baina askoz ere ahulago: nazioartea % 12'8; herrialde edo lurraldea % 12'6; komunitatea % 12'6; estadua % 4; Europa % 2'3.*

<b>BERRIAK</b>	<b>%</b>
Nazionala	%40,9
Lokala	%31,7
Nazioartea	%12,8
Herrialde/lurraldea	%12,6
Komunitatea	%12,6
Estatua	%04
Europa	%02,3

### **ATAL INFORMATIBOEN GARRANTZIA (122 or.)**

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

"Egunkariak dituen atalekiko interesa modu honetan (sailkatua) banatzen da. Politika, kultura, gertaerak, gizartea, eritzia, hemeroteka eta gazteena dira aztertzen ari garen populazioaren artean interes haundiena sortzen duten sailak.

*Kirolak, ekonomia, iragarkiak, eskelak, umeen atala eta jokuekiko interes gutxiago ageri da. Telebistarekiko agertzen dutena, berriz, erdizkakoa da"* (122 ).

### **EGUNKARI IDEALA (135 or.)**

Aztertu den populazioaren arabera, *Egin* da egunkari ideala % 35'7rentzat, *Diario Vasco* % 18'6rentzat eta *El País* % 12rentzat. Ez du honek esan nahi euskarazko egunkaria eredu horretan oinarritu behar denik baina, kontutan hartzekoa da dagoena nola aztertzen den jakiteko edota aipatzen ez direnak behintzat oinarritzat ez hartzeko.

EGUNKARI IDEALA	EGIN %35,7	D.V %18,6	EL PAIS %12
-----------------	---------------	--------------	----------------

Orain arteko datu hauek aldizkari euskaldunekin alderatuz (nolako euskarazko egunkaria nahi duten aldizkari bakoitzeko irakurleek) oso datu paretsuak agertzen dira. Ondoko datuok, beraz, adostasunik handienak dituzten aldagaietan bakarrik erakus daitezke; adibidez *Aizu* eta *Lit.Gazeta* baztertu behar izan dut adostasun gutxiago agertzen dutelako.

<b>ARGIA:</b>	% 65 ezkertiarra, ETArekin parra, erakundearekin kritiko
<b>HABE:</b>	% 44,4 zentro-ekerra
<b>JAKIN:</b>	% 49a zentrokoa izanik ere, egunkaria inpartziala nahi du
<b>LARRUN:</b>	% 68' 5 ezkertiarra
<b>ELHUYAR:</b>	gehiengoz ezkertiarra izanarren, egunkaria inpartziala
<b>H-HERRI:</b>	% 50 zentro-ezkerrekoa
<b>HERRIA:</b>	zentrokoa

Azterketa honek, orohar, egin diren azterketek eta euskarazko aldizkariak betidanik esan ohi dutena berretsi du, hauek banaka eta *aparato* gehiegirik gabe aitortutakoa zuzentzat emanaz (aurreko eta ondoko kapituluetan agertzen dena irakurtzea besterik ez dago). Honela dio, beraz, CIESen azterketak aldizkarien sailean, "Ondorioak eta Gomendioak" deitutako azken kapituluan: "*Euskal prentsak nekez gaindi ditzakeen muga demografiko eta soziolinguistikoak dauzka. Batetik merkatuaren urritasunak ezartzen dizkionak eta bestetik hizkuntzak berak eta bere erabilpenak ezartzen dizkionak: euskaraz irakurtzeko ohitura eza eta/edo duela gutxi arte euskaraz alfabetizazio falta besteak beste. Guzti honi erdal aldizkarien kompetentzia gaineratu behar zaio.*

*Guzti honegatik Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzari esker bizitzera beharturik daude argitalpen gehienak.*

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

*Argitalpenen arduradunengan diru laguntzaren politikarekiko ondoeza nabaria da, prentsa idatziari dagokionean bereziki, ikus-entzuteko komunikabideekin konparatzen bada.*

*Behar adinako dirulaguntzen ezak, dohainiko kolaborazioetan, militantzian, -azpiegitura, makinaria, zabalkunderako bide, e.a.- maileguan oinarrituriko eraketa enpresarial bat dakar ondorio bezala.*

*Guzti honek zenbait argitalpenei behin behinekotasun sentimendua ez ezik, kolokan egotearena eta ziurtasun ezarena ere sortzen die.*

*Ekonomikoki indartsuago dauden beste batzuei berriz, izaera bera duten erdal aldizkariekin, baldintza berdinetan konpetitzeko ahalmenik ez izatearen sentsazioa sortzen die.*

*Hala ere eritzi hedatuena, aldizkarien zabalkundera mugatua izanagatik, duintasunezkoak, ongi eginak eta profesionalak direla da.*

(...)

*Nabaria da, bestalde, hizkuntz eredu orokorra sozialki onartua izateko joera badago ere, berezko hizkuntz periodistiko normalizatu baten falta, gaur egungo argitalpenak prozesu luze baten lehen urratsak direlarik.*

(...)

*Egungo irakurleen gizataldearen bataz besteko adina 35 urtetakoa da, beraz gaztea da, eta ezkertiar joera du, lautatik bat ezker erradikalean kokatzen delarik.*

(...)

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

*Irakurketa eta salmenta datuak ikusirik, euskal prentsa idatziak aurrera egiteko erakunde publikoen diru laguntza beharrezkoa denik ezin da zalantzan jarri. Batzuk erdarazko merkatu indartsuarekin konpetitu ahal izateko, beste batzuek gutxieneko kalitatea gordetzeko irakurlego espezializatu eta murriztuarengana zuzentzen diren argitalpenetan.*

*Argitalpenek beren irakurleen artean sortzen duten eritzi onak bide zuzenetik doazela erakusten du. Hau dela eta eremu honetan beharrak eta lehentasunak planifikatuko dituen hizkuntz politika baten barnean, argitalpenei eta irakurketa prozesu osoan diru laguntzak gehitzea gomendatzen diogu Administrazioari, gehikuntzaren tamaina ez izanik ikerketa honen helburua.*

*Argitalpen gehienek irakurlegoa, datuek azaltzen dutenez, eremu ideologiko ezberdin edo aurkakoan aurkitzeak ezin du izan inolaz ere oztopo euskarazko prentsa idatziaren merkatuari laguntzeko politika zehazterakoan. Euskararen normalizazioak alderdikeria ororen gainetik egon behar du". ( 391-401).*

Egunkariari buruzko sailean, berriz, Jaurlaritzak ez dio, antza denez, azterketak esandakoari fidagarritasun handirik eman azterketari hartutako bideari so egiten badiogu bederen (ikus VII atala). Ikusi da, lehen atalean, Zarrako inkesta honi emandako garrantzia: azterketak bigarren mailakotzat dituen datuak soilik azpimarratzen bait ditu (zentrotasuna, lokaltasuna, zabaltasuna, kirolgaiak...).

Jaurlaritzak, estudioa egin ondoren, ez dio egunkaria egiteari eki(te)n. Aldiz, *Egunkaria Sortzen* taldeak bere proiektua kaleratu zuenean, ez zuen onartu egin nahiz eta CIESen azterketak eskatzen duenarekin hurbil-hurbil egon beherago agertzen denez, beraz prebisio

guztien arabera egin zitekeen onena, edo, hobeto esanda irakurlegoak espero duen egunkaria aurkeztuarren.

Gerora ikusiko denez bai ta ere, Jaurlaritzak hartutako bideak (berriro: eskatutakoa ez, bestea baizik) eta "*Egunero*" izenarekin argitaratuko omen denaren oinarritzko txostena kaleratzen denean, proiektu erabat diferentea nabarmentzen da, ordurarteko azterketekin zerikusirik ez duena hain zuzen ere.

Ez du, ordea, egunkariaren hipotesia baztertzen, hori betidanik gauzatu den amets bati uko egitea bait litzateke. Horren ordez, azterketak egiten segitzen duela (!) agintzen du eta orduak ez duela jo (!) aitortzen, nolabaiteko txantaia eginik irakurlegoari.

Zer adieraz dezake, baina, propio eskatutako azterketa alde batera utzirik beste eredu baten bila abiatzeak, eskakizun guztien kontra eginik? Nire ustez, Jaurlaritzak duen proiektu (politiko)rako eredu periodistikorik (ez irakurlegorik) aurkitzen ez duenez, asmatu, fabrikatu egin behar duela. Hori izango da "Beloki taldearen" proiektuaren emaitza aurrerago (VII atalean) ikusiko denez, baina horrek beste hau ere adierazten du, hots, ohizko eskakizuna mantenduarren (egunkariarena) txantaiak funtziona ahal dezan, mamitu beharko duen eredia erabat diferentea izanen dela, ohizko irakurlegoaren tradizioarekin bortizki hautsiz.

Balitzko egunkari horren abia-muga ez dago irakurlegoaren asmo eta merkatu azterketan, beste irakurlego diferente baten soslaia burutu eta horri dagokiokeen proiektua mamitzean baizik. Aurrikusitako abia-muga da, errealitate frogatu batek (CIESen azterketak berresten duen euskaltzalego irakurlearen errealitateak) horretara bultzatuta.

Jaurlaritzak behar duen irakurlegoa hauxe da nahi eta nahi ez: abertzalea (hobe *nazionalista*) bai baina ez ezkertiarra, irakurtzeko erreztasunik eta ohiturarik gabekoa, ez gaztea

## II. Atala: egiaren efektuak (1) . Ordezkapena eta luzamendua

---

(umea edota zaharra agian), politikan ez bereziki interesatua, albiste lokaletan eta batez ere kiroletan interesatua, informazioa euskaraz hartzeaz baino irakurketa hobetzeko premiaz kezkatu. Eta balizko egunkari hori gauzatzeko, egungo instituzio autonomikoekin erabat ados egonen den kazetari-taldea behar du; egungo egoera hobetu bai baina gaingaitzerik xedetzat hartuko ez duena bada ez bada ere...!



### **III. ATALA: EGIAREN EFEKTUAK (2)**

#### **Plangintzarik gabeko laguntza**

Aurreko atalean deskribatu mekanismoak martxan jartzearekin batera, Jaurlaritzak ez dio inoiz euskarazko aldizkariak diruz laguntzeari utzi. Ez ditu, baina, beharrezko plangintza baten bidez, aurrera egiteko azpiegitura sortuz eta sustatuz, berezko duten zerbitzu soziala duintasunez betetzeko moduan jarri. Hori (izan) da kritika orokorrena, diru-kopuruak neurtzetik areago doana hain zuzen ere.

Atal honetan bi ikuspuntu desberdin horiek aztertuko ditut, batez ere, ager dadin berriro, Jaurlaritzak ez duela inoiz bat egin ohizko prentsarekin ez eta beronen ametsekin. Zuzen esateko, subentzio-politika euskal prentsaren bidea oztopatzeko hirugarren mekanismo bihurtzen da.

#### **3.1. Subentzio-politika**

Labaienen garaian, eta bere adierazpenez esateko, "*hainbeste paper, hainbeste diru*" erabili zen oinarrizko kriteriotzat. Geroztik halako ñabardurak erabili dira bati

hainbeste eta beste honi horrenbeste banatzeko. Edozein modutan, edozeren gainera, arbitrariotasun itxura hartu izan du banaketak. Nahi bada, beste edozeren gainera, aita ahalguztidunaren borondate sakratuaren emaitza izan da.

### 3.1.1. Kriterioak eta zifrak

Jaurlaritzak erabili dituen kriterioak edo, *"Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian"* etorri dira Kultura eta Turismo Sailaren Agindu sailean.

Subentzioak banatzerako orduan (diru-laguntzak esaten da aginduetako euskal bertsoan), formula baten bidez egiten da, zeina 1984.enean hasia,1985. 1986.ez geroztik, dexente osatua, standar bihurtzen den. Baina kriterioak, 1985.eko agindua kenduta, ez dira ohiz idatziz ematen.<sup>89</sup>

Hauexek dira 1985.ean ematen diren erizpideak: *"Laguntza politika honen helburu nagusiak era honetan labur daitezke: Euskaraz argitaratzen diren aldizkarien kostu materialak berdindu edota arintzeko dirulaguntzak eskaintzea; merkatuan euskaldungoari eskaintzen zaizkion aldizkarien espektroa zabaltzea, edukin eta gai aldetik nabarmentzen diren hutsuneak betetzeko ahaleginei lehentasuna emanez; kaleratzen diren*

---

<sup>89</sup> Egia esan 1984.eko deialdian "aldizkarien zabalkundea handitzea", agertzen zen. Ikus, EHko A.ren A, 137 zb.,1984-VIII-11, 3624 or. 1986.ekoan, aldiz, bi kriteriotara biltzen dira 1985ekoak eta testuan zenbait bariazio dago: *"euskaraz argitaratzen diren aldizkarien kostuak arintzeko...; merkatuan euskaldungoari eskaintzen zaizkion aldizkarien espektroa zabaltzea, edukin eta gai aldetik nabarmentzen diren hutsuneak betetzeko ahaleginei laguntasuna emanez"*, EHko A.ren A., 1986-VII-18, 143 zb., 3963 or.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*euskal aldizkariak merkatuko salneurri standarretan erosleari helaraztea; Euskal aldizkarien zabalkunderik handi eta egokiena bultzatzea norberak daukan irakurleko potentziala beregana dezan".<sup>90</sup>*

Diru laguntzak kalkulatzeko erabiltzen den formula hau da. "*Diru laguntza zehatza (DL), azkenik, Kultura eta Turismo Sailak langintza honetarako duen laguntza partida (Lp) kopuru-zati (Kzi) guztien artean proportzionalki banatuz determinatuko da".<sup>3</sup>*

$$DL_i = Lp_i \times Kz_i / \sum Kz_i$$

Geroztik, ia hitzez hitz errepikatzen da formula hau 1989.etik 1991.erako aginduetan, 1987.ekoan ezik. Azken urte honetan, Oinarrizko Laguntza (OL) banatzeko, urtean zehar argitaratutako ale kopurua (AK) bider BEZdun salneurria (BS) zati 6 osaturiko formularen bidez egiten hasi zen.

$$OL = AK \times BS : 6$$

---

<sup>90</sup> EHko Aren A. 1985-VII-18, 148 zb. 3556-3560 or.

<sup>3</sup> Ibid. Ikus, baita ere, EHko Aren A. 1987-IX-8, 167 zb. 4056-4064 or.; 1988-IX-7, 166 zb., 5357-5361 or.; 1989-III-29, 59 zb, 1924-1945 or.; 1990-IV-9, 71 zb., 3319-3322 or.; 1991-VI-19, 124 zb., 5191-5195 or.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

Gero OL hori aldizkari bakoitzari dagokion balioa erakusten duen biderkatzailearekin (I) biderkatuz bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzen da (EL). Adibidez informazio orokorreko aldizkarien indizea 0'1 da, aurretik zientzia eta teknika-aldizkariak, giza-zientzietakoak eta literatur-aldizkariak dituela (1985.ekoan, berriz, informazio orokorreko aldizkariak dute indizerik altuena.

$$EL = OL \times I$$

Azkenik, aldizkari bakoitzak jasotzen duen diru-laguntzaren kopuru zehatza hauxe duzu:

$$DL=OL + EL$$

Beti ere oinarrizko filosofia hauxe da: hainbeste diru ematea erabakitzen dugu (kriterio ezezagunez aukeratua) eta guztien artean aukeratutako formula horren arabera banatzen da, 1990ari dagokion partidan "udal informaziozko aldizkariak" ere sartzen dira, adibidez. Gero, ez.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

Azpiko kuadroetan, 1980tik 1983ra, 1984tik 1987ra eta 1988-tik 1991era bitartean Jaurlaritzak aldizkariei subentziotan emandako diru-kopurua azaltzen da. Lehenengoa, ordurarte kriterio finkorik erabiltzen ez zelako; bigarrena, *Argiaren* kontrako erasotzat interpretatu zelako; hirugarrena, ondorengo zifrak ikusteko.

III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

<b>ALDIZKARIA</b>	<b>1980</b>	<b>1981</b>	<b>1982</b>	<b>1983</b>
<b>Aizu</b>			643.011	753.16
<b>Anaitasuna</b>	94.989	206.611	119.45	
<b>Argia</b>	723.242	1.041.322	1.088.998	3.482.5
<b>Elhuyar</b>	70.594	76.433	55.700	
<b>Euskera</b>	135.759	143.312	104.406	
<b>Goiz-Argi</b>	94.083	185.950	134.640	
<b>Ikastola</b>	56.910	85.645	191.161	
<b>Ipurbeltz</b>	585.365	827.079	783.362	3.729.969
<b>Jakin</b>	59.467	584.713	400.838	1.000.00
<b>Jaun. Deia</b>	23.893		19.000	20.385
<b>Karmel</b>	81.455	76.433	52.200	77.552
<b>Kili-Kili</b>	357.723	587.276	525.477	3.212.230
<b>Oh Euzkadi</b>	285.094	200.636		
<b>Olerti</b>		21.974	16.075	
<b>Saski-Nask</b>	403.204	372.611	208.770	

III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

<b>Susa</b>		23.835		110.385
<b>Zer</b>	23.219	66.117	76.912	113.725
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.994.997</b>	<b>4.499.947</b>	<b>4.420.000</b>	<b>12.500.000</b>

<b>ALDIZKARIA</b>	<b>1984</b>	<b>1985</b>	<b>1986</b>	<b>1987</b>
<b>Ager</b>	1.050.000			
<b>Aizu</b>	1.765.000	1.515.222	1.600.374	2.801.920
<b>Amaiur</b>			855.025	
<b>Argia</b>	5.641.750	6.024.791	8.804.937	7.792.450
<b>Auskalo</b>		152.092		
<b>Elhuyar</b>			975.128	3.061.500
<b>Gaztetxoe.</b>			300.726	
<b>Goiz Argi</b>	487.500	315.153		
<b>Hots</b>	248.000	408.870		
<b>Idatz § M.</b>	90.000	138.168	173.495	168.750
<b>Ihintza</b>	27.000	132.212		
<b>Ipurbeltz</b>	4.941.960	5.779.458	5.400.675	3.061.500

III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

<b>Jakin</b>	1.152.000	1.602.174	1.575.694	3.253.900
<b>Jaun.Deia</b>	36.000			
<b>Karmel</b>	135.600	644.414	742.651	202.400
<b>Kili-Kili</b>	3.085.962		470.675	2.399.860
<b>Korrok</b>		331.170		
<b>Larrun</b>			127.300	
<b>Lit.Gaz.</b>		338.330	375.841	104.159
<b>Nondik</b>		34.884		
<b>Porrot</b>		79.800		
<b>Saski-Nsk.</b>	50.880	398.544		132.890
<b>Senez</b>		882.089	777.208	442.500
<b>Susa</b>	148.200	296.460	300.564	320.00
<b>Ttipi-Tta.</b>		643.414		
<b>Ttu-Ttua</b>	54.360	83.173		
<b>Txis.ta Ta.</b>	78.000			
<b>Urtziadar.</b>		14.214	19.734	

III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

<b>Zer</b>	285.000	185.480		
------------	---------	---------	--	--

<b>GUZTIRA</b>	<b>19.277.212</b>	<b>20.000.112</b>	<b>22.500.000</b>	<b>25.000.000</b>
----------------	-------------------	-------------------	-------------------	-------------------

<b>Hemen</b>	-	-	6.500.000	23.110.000
<b>Eguna</b>	-	-	6.500.000	26.110.000

<b>Guztira</b>	-	-	<b>13.000.000</b>	<b>49.000.000</b>
----------------	---	---	-------------------	-------------------

<b>ALDIZKARIA</b>	<b>1988</b>	<b>1989</b>	<b>1990</b>	<b>1991</b>
-------------------	-------------	-------------	-------------	-------------

<b>Aizu!</b>	2.207.986	2.355.803	2.489.150	3.000.000
<b>Argia</b>	9.234.708	9.816.114	10.489.150	13.000.000
<b>Arrasate P.</b>			3.116.500	
<b>Bat</b>		304.750		
<b>Bertsolari</b>				1.000.000
<b>Elhuyar</b>	1.682.363	2.500.000	8.000.000	8.500.000

III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

<b>Ene Bada</b>			425.500	
<b>Goiherritar.</b>			454.250	
<b>Idatz§Mintz</b>	169.291	203.784	405.156	
<b>Ipurbeltz</b>	4.476.289	4.480.289	5.663.085	6.000.000
<b>Jakin</b>	3.564.225	6.500.000	7.000.000	9.000.000
<b>Jazten</b>			172.500	
<b>Karmel</b>	1.057.306	1.078.083	1.130.907	1.000.000
<b>Kili-Kili</b>	2.023.711	1.769.711	2.236.915	3.500.000
<b>Larrun</b>	733.412		750.000	
<b>Literatur G.</b>	326.384			
<b>Pimpa</b>			100.000	
<b>Saski Naski</b>				
<b>Senez</b>	750.000	500.000	500.000	
<b>Susa</b>	669.325	567.466	694.844	
<b>Ttipi-Ttapa</b>			1.270.750	
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.895.000</b>	<b>30.771.250</b>	<b>45.203.457</b>	<b>45.000.000</b>

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

<b>Hemen</b>	19.610.000	20.500.000	11.200.000	
<b>Eguna</b>	19.610.000	20.500.000	11.200.000	
<b>Guztira</b>	<b>39.220.000</b>	<b>41.000.000</b>	<b>22.400.000</b>	

(Iturria: Aurreko kuadrook Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila dute iturri. Propio eskuratuak izan dira hor ixurtzen diren datuak. EHko A-ren A.n agertzen diren datuekin desoreka tikiak agertzen dira. Tarte hutsak urte horretan aldizkariak ez zuela subentziorik jaso esan nahi du.)

Aurreko koadroei xehetasun pare bat dagokie. *Elhuyar* eta *Jakin* aldizkarien kasuan murrizketa baino igokera agertzen bait da. Zifra hauek badute esplikaziorik. ARGIAk jasaten duen diru-murrizketak duen bezalaxe.

Begirada soil batean esan daiteke *Jakin* (kulturazkoak) eta *Elhuyar* (Zientzia eta Teknikazkoak)-ek halamoduzko tratu berezi bat jasotzen dutela. Esplikazioa seguruaski sinpleagoa da. *Elhuyar*-en kasuan 1987-1989ra bitarteko dirutza suplemento bereziak egiteko da, (72 orrialde eta horietatik 16 kolorez). Dirutza hori arautua dago.<sup>4</sup> Geroztikako

---

<sup>4</sup> Ikus EHko A-ren A, 1987-XII-9, 5612 or.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

diru-laguntza, 1990 ezkerotik dirauena, hitzezko akordio bati dagokio, zeinaren arabera aldizkaria hilabetekari bihurtzen den.

*Jakin*-ek, gauza berberetsua ezagutzen du, hots, urtean sei ale (ohizko lauren orde) kaleratzeagatik jasotzen du jasotzen duena. Etapa hau 1989an hasten da, aurreko bi urteetan ere 1986.ari dagokion partidarekin konparatuz igokera izanik.

Aldizkari honen kasuan ere hitzezko akordioa da, baina *Jakinek* ez du lortu hilabetekari bihurtzea, ezagutzen ez diren arrazoiak medio. Eta hori aldizkariaren zuzendaritzat hilabetekari bihurtzeko txosten mardul bat Josu Legarretaren eskuetan utzi arren.<sup>5</sup> Bihilabetekari izaten segitzen du 1991.ean aldaketa nabaria eginarren.

1987.eko partidari ARGIAri ezartzen zaion murrizketa, astegunkariak baino gehiago salduarren egiten da: "*azken hauek (Hemen-Eguna) guk baino askoz salmenta eta irakurlego urriagoa izanik eta haien kostoak ere gureak baino askoz ere txikiagoak izanik*".

<sup>6</sup>. Urtekarian honela zioen, "*gaur egun, eta zifrarik bota gabe, bien artean ARGIAk adina ez dutela saltzen esan dezakegu inolako harrokeriarik gabe*".<sup>7</sup>

Subentzio-kopuruak erakusten duen bariazio honek ez du esplikazio lojikorik. Arbitrarietatea da nagusi. Partidak ez arautzeak, berriz, (*Elhuyar* eta *Jakinen* kasuan adibidez) arbitrarietate horrekin amaitzeko borondate-eza (eta seguruaski, aldizkarien

---

<sup>5</sup> Txosten hau, eskatuarren, ez dut lortzerik izan. Aitortza honen frogara, baina, guztiz benetakoa ene iduriz, Joan Mari Torrealdairiaren testigantza oinarritzen da, 1992-VI-26an neuk zuzenean jasotako hitzetan hain zuzen. Aldizkariak txosten horrekin gerora egin dezakeen errespetoz, eta zuzendaria duen Torrealdairi zor diodan adiskidantzagatik, ez diot eskatu ere egin hartzaileari.

<sup>6</sup> Argia, 1987-XI-29.

<sup>7</sup> ARGIA/Urtekaria, 1987. Datu hau sustatzeko badago beste iturri bat: CIES etxeak 1987an egindako Komunikabideetako Entzulegoaren III. Ikerketa, non EAEn bakarrik 28. 000 irakurle ezagutzen bait zaizkio *Argia* aldizkariari

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

arteko solidaritza hausteko gogoia) erakusten du. Hortik, eta zentzu honetan, aita ahalguztidunaren irudia.

Jaurlaritzaren subentzio-politika hau zela eta, *ARGIA*k, ederki berotu zituen bazterrak, 1987. ean zehar, batez ere bi data aproposak aprobetxatuz, alegia euskarazko prentsaren ehunurteurrena eta *Zeruko Argia (ARGIA)*-ren 50. urteurrena.

Bi editoriale nagusitan agertu zuen *ARGIA*k bere eritzia gai honi buruz: "Diskriminazio gainetik *ARGIA* aurrera" (1987-XI-29) eta "Eusko Jaurlaritzak *ARGIA* itzali nahi ote du?" (1987-XII-6). Dena "50 urte *ARGIA* ematen" eta "Jaurlaritzak *ARGIA* lagun beza" kanpainan kokatuta. Berrogei elkartek eman zuen, adibidez, bere sinadura astekariaren alde. Aipatu mende-erdia zela eta honela zioen *Argiak*, goiko kuadroetan 1987. urteari dagokion zifra, bidebategi, zehazturik: "*Eusko Jaurlaritzak ARGIA*rekiko daraman jokabide diskriminatzailean urrats berri bat eman du: iaz baino bi milioi gutxiago eman digu, dirulaguntza banatzean. 6.7000.000 pezeta zehazki. Beste milioi bateko aukera ematen digu azalak lau koloretan ateratzekotan, nahiz eta aurretik garbi egon berrikuntza hori urtean lau milioitik gora kostako zaigula".<sup>8</sup>

---

<sup>8</sup> "Jaurlaritzaren eskandaloa. *ARGIA*ri bi urtetan diru-laguntza erdira". *ARGIA*, 1987-XII-13. Hau ulertzeko, kontutan hartu *Argiak* 1985. ean Gipuzkoako Diputazioetik ere hartzen zuenetik abiatzen dela, hots, orohar 13. milioi jasotzen zuenetik. Beraz, "*diru-laguntza erdira*" esatean horixe esan nahi du, hau da "*Jaurlaritzak arlo honetako konpetentzia eskusiboa hartu zuenetik*", Lurralde Historikoen Legea zela eta. Diru-murrizketa hori zela eta *Argiak* beak egin inkestan hauexek hartu zuten parte, oro har eta matizazioekin, aldizkariaren aldeko eritzia emanez: Mariano Izeta, Jokin Apalategi, Emile Larre, Julen Kalzada, Joxe Mari Satrustegi, Emilio López Adan, Joxe Austin Arrieta, Jon Lopategi, Felipe Juaristi, Alejandro Tapia, "Maskarada", Iñaki Murua, Maite Idirin, Natxo de Felipe, Joxe Azurmendi, Baleren Bakaikoa, Ramon Saizarbitoria, Joxerra Gartzia, Jon Sarasua, Joxerra Etxebarria, Koldo Amestoi, Pello Salaburu, Joseba Tapia, Jokin Aldazabal, Koldo Izagirre, Guillaume Irigoien, J.M. Velez de Mendizabal, Patxi Zabaleta, "Akelarre", Aingeru Epaltza, Roberto Moso, Joan Mari Torrealda, Imanol, Luis Núñez, Pello Zabaleta, Joseba Intxausti, Bitoriano Gandiaga, Txilardegi, Peñagarikano, Alberto Gorriteberea, Joxean Agirre, Jon Azpillaga, Josu Zabala, Antton Valverde, Josu Naberan, Jean Luis Davant, "Eltzegor", Jon Enbeita, Antton Ezeiza, "Goaz", Felix Ibagutxi"

### **3.2. Proposamen berriak**

Bi dokumentutan eman zuen ARGIAk bere eritzi osoa diru-laguntzari buruz: bata 1983.ean "Euskal Herriko Aginte Publikoei" izenez. Bestea, 1987an "Jaurlaritzari 1987ko Txostena" izeneko izkribuan (1987-VIII-12an datatua, Joxemi Zumalabek sinatua, Josu Legarretari, orduko Euskara Arazoetarako Zuzendariari alegia, zuzendua eta emana hain zuzen ere). Luzexamarrak izanarren, uste dut, interes osokoak direla, gai hau ondo zehazteko. 1987.ekoa bereziki, *Zeruko Argia*, *ARGIA* bihurtu zenetik pentsatu eta idatzitako guztiaren bilduma ederra izateaz gain gainontzeko euskal aldizkarien kezka bat egiten bait du. Ondoko azpiataletan agertuko ditut.

#### **3.2.1. ARGIAtik EHko Aginte Publikoei (1983)**

ARGIAk, 1980-1982ko ateka gaiztoa gainditurik eta momentuz, *"maiztasun handiko euskarazko komunikabideen artean inzidentzia kualitatiborik gehien duena"* izatera ailegaturik, Jaurlaritzak daraman diru-laguntza politika aztertu nahi eta dokumentu aipagarri bat kaleratu zuen: "ARGIA astekariak Euskal Herriko aginte publikoei" deitua.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

Agiri horretan <sup>8</sup> *"testuinguruan kokaturik"* eta *"behingoz ekintza guztiak baldintza eta zifra errealetan planteiatu"* asmoz , *"plangintza"* orokorra eskatzen da, ondoren, *"laguntzarik merezi dugun, nola eta zenbat"* erabakitzen laguntzeko. Merkatuaren karakteristikak aipatu ondoren (*"merkatuak kondentzen gaitu aldeztatik hiltzera"*) euskarazko komunikabideen *"eskastasun berezkoa"*ri errebaso eginik eta publizitatearen moteltasuna euskararekiko erakutsiz (*"publizitatearen gai honek ez du bueltarik, Euskal Herrian gehiengo hutsik erdal hiztuna den bitartean. Saltzeko egiten bait da publizitatea"*) halere, (*"normala litzatekeena baino gehiago saltzen da ARGIA"* aitortzen du. (Udaberri hartako Jakineko alean,<sup>9</sup> 10.000 ale ematen zaizkio PyHri, 12.000 Euzkadi-ri inork gezurtatu ez dituela. ARGIAk berriz aipatu dokumentuan *"gure asteroko salmenta 5.000koa dela gutxi gora behera"* ziurtatzen du, espainolez idatzirik bi milioi t'erdiko merkatua dagoen bitartea euskarazkoentzat 700.000koa dela kontutan hartuz).

Dagoeneko *"ARGIA ez da promesa bat, errealitate bat baino"*, hots, *"baldintza oso onen zain egon gabe lanean diharduten zenbait ekintza horietako bat"*.

Bost arrazoitan oinarritzen du ARGIAk errealitate hau:

*1.-euskarazko argitalpenen merkatua hain urria izanik, bakarrenetakoak garelako*

*2.-euskarak bizi duen larritasun dramatikoak, hizkuntza aurrera ateratzeko mugimendu bizi eta langilea sortu duelako*

---

<sup>8</sup> Agiri honek (nik dudan aleak) ez du paginaziorik. Baina orotara hamabost orrialdetakoa izanik, ez da batere zaila izango konprobatzea kontsultatu nahi izan ezker.

<sup>9</sup> Jakin, Urtarrila-Martxoa, 1982.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*3.-euskarazko irakurlegoaren berezitasunagatik: militantzi kontzientzia, euskarazko lanekin garai txarretan ere bere burua identifikatzea*

*4.-baldintza txar hauetan ere ARGIA egiten duten langileek gutxienez onargarri baden kultur proiektu bat (esan dezagun lotsarik gabe) erdiesten dutelako*

*5.-kostuak beren azken mugetaraino ttipituz, aldizkariaren arduradun eta egileek asteroko plazaratzea lortzen dutelako".*

Geroari begira, baina, ARGIAk badaki *"merkatuaren legeen arauera laguntzarik gabe utzirik Argiak bezala beste edozein kazetak errentagarritasun posiblerik ez dute"la* . Beraz, irakurlegoa zabaltzeko ahaleginak egin eta, publizitatea eskuratzeko saiatu arren, *"badaki ARGIAk eta bere inguruan dabilen jendeak bere asterokoa, bera murgildu dagoen gizartean baldintzak aldatzen ez diren bitartean, hots, erdi epe batean gutxienik, ez dela errentagarri izanen merkatuaren legeen pean"* .

Bertan ematen diren datu ekonomikoen arabera, merkatu legee *"kutsurik handiena ateratzen zaielarik"* 1.817.719ko galerak ditu urte horretan, aurretiaz eginik dituen zorrak kontutan hartu barik (3.286.496). Klean egon ahal izateko ARGIAk sakrifizio bat baino gehiago egin behar du, eta halere ezin biabilitatea ziurtatu: langileen alokairuak (*"urte osoan ez da xentimorik ere erabili jornaletan. Larriagoa dena, aurreko urte osoan ere kobratu gabe egin zuten lana langileek. Zer esan nahi du horrek: ARGIAko langile guztiek, kazetaren egitean sartzen dituzten orduetz at, beste lanen bati ere ekin behar diotela, beren buruak mantendu ahal izateko"*), asegurantza soziala (*"dirurik ez dagoenez, kotizazioak ez dira ordaintzen. Horrek edozein langilerentzat esan nahi duenarekin"*), zorrak pagatzea (*"aurretik datozen edo sortuz*

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*doazen zenbait zor beren horretan utziz, ez dago aztertu beharrik horrek kazetariari zein zalantza suposatzen dion etorkizunari buruz").*

Egoera lasgarri honetatik irten ahal izateko (goian aipatutako sakrifizio horiek eginda ere ez bait dago ziurtaturik aldizkariaren biabilitatea) "*eskabide larria*" egiten die Euskal Herriko aginte publikoei: "*Beste irtenbiderik ez dago. Gaurko ARGIA astekari erreal, posible eta zabal honek, aurrera jarrai ahal izan dezan diru-kopuru urjente bat du beharrezko:11.817.719 pzta., aurretik arrastaka dakargun 3.000.000 pzta.ko zorra kitatu gabe ere, eta minimo larri horietan, lanean jarraitu ahal izateko. Ondoren posible izanen da proiektu berritan sartzea*".

ARGIAK "*kazeta aurrera ateratzeko eskatzen duena, baldintza negargarrietan egiten duena beste kondizio hobeko batzutan egiteko da, dio. Baina egiten duena hobetzeko. Proiektu berriak, proiektu garestiagoak, proiektu oso onak, eztabaidatu behar badira, zerbaitetarako balioko duen segurantzian, jakina, horretarako prest gaude eta gure buruak horretarako gai ikusten ditugu*".

#### **3.2.2. ARGIAtik Jaurlaritzara (1987)**

Maiatzaren 7an hamar euskal aldizkari, (*Aizu!, Argia, Elhuyar, Idatz & Mintz, Ipurbeltz, Jakin, Karmel, Larrun, Literatur Gazeta eta Susa*) Josu Legarretaren deia onetsiz Eusko Jaurlaritzan bertan bildu ziren, Lakuan alegia. 1986.ean banatutako diru-laguntzarekin ados ez, eta duintasun minimoa erdiesteko laguntza maila sustraitik aldatu

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

beharra zegoela uste zuten aldizkariak. Legarretaren printzipioa zen dirutza mugatu bat zegoenez banatzeko, lehentasunak markatu egin behar zirela eta hori aldizkariak beraiek egiteko. Aldizkariak baina ukatu egin zuten zeregin hori, Jaurlaritzarena zela eritziz.

Akordiorik gabe, hamar aldizkariok agiri bat izenpetu zuten honoko puntuok nabarmenduz, bigarren atalean adierazten denez: idatzizko hedabideak bigarren mailan gelditu zirela, lehentasuna ikus-entzunezkoei eman ondoren; idatzizkoak bideratzeko plangintza egiteko borondaterik ez zela erakutsi Jaurlaritzan; diru-murrizpenak egin aurreko jokabidera itzultzeko guttienik. Josu Legarretak maiatzaren 11 eta 12an egin kartetan aurkeztu galderei erantzunez gauzatzen da aipatu txostena. Baina txosten horrek, ez du inoiz erantzunik ukan Jaurlaritzatik.

Txosten horretan hiru galderei erantzuten zaie: diru-laguntzak banatzeko orduan zein erizpide erabili eta zein nolako lehentasunak markatu behar diren eta zein nolako kontrolbideak onartuko lirartekeen diru-laguntza horren truke. Lehen biak honela erantzuen dira ARGIAtik: "...ez dugu uste euskararen normalizazio-prozesuan aldizkarigintzak betetzen duen ukaezinezko funtzio garrantzitsua gobernu horrek orain artekoan behar den neurrian aintzakotzat hartu duenik, eta orain arte banatu dituen diru-kopuruak dira horrexen argibiderik agerikoena. Beraz, erabiltzen diren diru-kopuruak erabilia, planteiamendu faltso batetara eraman gintzake botatako galderak, hots, aldizkarion arteko lehentasun-mailak ezarri nahi izateak. Esan nahi da diru-kopuru horiek aldizkariok normalizazio-maila minimo bat betetzeko lain iritsiko balira, agian sartu ahal izango genukeela arazo horretan geure iradokizunak ematen. Bitartean ez. Bestetik...Administrazioari dagokio balizko lehentasun-erizpide horiek markatzea eta ideiatzea, eta ez guri. Hala eta guztiz ere, berriz eta behin, arazoari sustraitik ez heltzearen

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*problema dagoela uste dugu, diru-kopuruei dagokienez, oraino beharrak agintzen duen neurritik oso urruti ibiltzea bait da arazoaren muina"*

Artean erabilitako kriterioari "arbitrario" eta "gaizki neurtua" eritziz, Gotzon Egiak inoiz planteiatutako erizpidea hartzen da egokien: *"Halere arautegi hori gobernu horren eskutan dago ordutik, eta beroren aplikatzea sarritan eskatu badugu ere, eman ez zaizkigun arrazoiengatik albo batetara utzia izan da"*.<sup>10</sup>

Kontrolari buruz, berriz, baietz onartzen dituztela baldin eta efikazak badira: *"Guk beti esan dugu -eta orain ere halaxe diogu- edozein kontrolbiderako prest gaudela, eta geure indarrak Administrazioarenarekin bat egiteko prest gaudela, baldin eta kontrolbide horiek efikazak eta errealitatearen ezagutzerako badira. Hau da, euskal aldizkarigintzak sufritzen dituen baldintzetara egokituak. Diru-laguntzek gainditzeko modurik eman ez diguten txirotasun-egoera honetan egonda -langileen lan-egoera behin-behinekoa, nahi bezalako administrazioa eraman ahal izateko bitarteko ekonomikorik eza...-bertan, esanahi zalantzarrikoak suertatzen bait dira egoera hau ahaztuz, entrepresa normalizatuei ezarri dakizkiekeen neurriak"*.

Hala nola baztertu egiten da (ARGIAN) OJDren kontrola "apenas fidagarria" bait da, ematen dituen datuak, publiko denez, "nabarmenki puztuak" izaten bait dira publikitateari begira etab. *"...geure egoeran, eta benetako tiraden kontrola interesatzen bada, beraz, desegokitzat erizten diogu kontrol-modu horri. Hori bai, orain arte bezala*

---

<sup>10</sup> Erizpide "zuzenok" zein nolakoak ote ziren galdezka Gotzon Egiarengana jo dut (orduan eta orain Gipuzkoako Diputazioko langile bait da) eta bere ustez 1985.ean Jauriaritzak egin deialdikoak direla esan dit izatekotan.: *"Nik behinola definitzen lagundu nituen irizpideak 1985eko deialdi horren eranskinean daude. Ziur aski Argia aldizkarikoek inoiz beren adostasuna azaldutako kriterioak eranskin horietakoak dira"*. (1992-V-12an zuzenean eta idatziz egindako karta pertsonalean).

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*gaur egun ere, prest gauzkazue edozein kontrolbide efikaz eta egiazkoa babestu eta bultzatzeko orduan".*

#### 3.2.2.1. Zenbait datu adierazgarri

Historia laburra egin ondoren ARGIAk zenbait datu eskeini eta erizpideak zehazten ditu, azken ondorioak, eskariak eta lehentasunak aitortzeko.

URTEA	TIRADA	SALMENT.	HARPIDEAK	EZ KOBR.
1976	12.000		8.000	-
1977				
1978	6.400		--	
1979				
1980	5.500		garbiketa	% 3
1981	5.500		4.131	% 1
1982	-		4.436	% 15
1983	5.800		4.786	% 12

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

<b>1984</b>	6.000		-	% 8,2
<b>1985</b>	-		5.100	% 6,7
<b>1986</b>	6.300		-	% 5,8
<b>1987</b>				
<b>1988</b>	10.000	6.520	5.100	-
<b>1989</b>	10.000	6.650	5.285	-
<b>1990</b>	10.000	6.750	5.250	-
<b>1991</b>	10.000	7.000	5.500	

(**Iturria:** 1987ra bitarteko datuak, darabilgun "Jaurlaritzari Txostena 1987"tik hartuak dira; gainontzekoak, (batez ere garapena ikus dadin), ARGIA aldizkariko artxibategitik. Falta diren tarteak osatzea, ez da posible oraingoan, etxe horretan azken trasladoaren ondoren ordenu pittin bat jarri arte.)

*"Azpimarratu behar da gainera, dio Txostenak, zifra absolutuek bestela ez bait dute esanahi haundirik, urte bete geroago (hau da uda honetako -1987- datuetan), aipatutako astekariak (Hemen eta Eguna alegia) salmentei dagokienez, ez direla inondik ere ARGIAren zifretara iristen(...) Alboan ditugun erdal (hemengoak) eta euskal astekariak (egunkari formatokoak atal honetan sartuta) saltzen dutena baino gehiago saltzen du ARGIAk'*

Adierazpen "harroxko" hauek beheko datuekin alderatzen badira, zehatzak eta oinarrituak direla frogatu daiteke. Izan ere CIESek 1989an egindako lan honetan -eta

III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

fidagarriena da, behintzat publikatu direnen artean- datuak ez direla okerrak ikusten da. Konparatu ARGIA eta *Hemen-Eguna* hain zuzen ere.

<b>Aldizkaria</b>	<b>Tirada</b>	<b>Salmenta</b>	<b>Harpid.</b>	<b>Irakurle</b>
<b>ARGIA</b>	6.000	5.800	5.000	24.000
<b>Aizu!</b>	-	3/4.000	% 60	9.000
<b>Elhuyar</b>	-	2/3.000 -	-	6.000
<b>Habe</b>	-	2/3.000 -	-	6.000
<b>Herria</b>	3.500	3.000 -	-	8.000
<b>Herriz Herri</b>	-	1.500/2. -	-	11.000
<b>Idatz&amp;Mintz</b>	-	800/1.000	-	2.000
<b>Ipurbeltz</b>	6.200	-	3.500	-
<b>Jakin</b>	-	3/4.000	2.700	6.000
<b>Karmel</b>	-	800/1.000 -	1.000	-
<b>Larrun</b>	-	800/1.000 -	4.000	
<b>Lit.Gazeta</b>	-	1/2.000 -	-	3.000
<b>Senez</b>	-	500/700 -	-	1.000
<b>Susa</b>	-	1/2.000 -	2.000	-

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

<b>HEMEN</b>	-	<b>3/3.500</b>	<b>-22.000</b>	
<b>EGUNA</b>	-	<b>2/2.500</b>	<b>-13.000</b>	

(Iturria: CIES, Euskarazko aldizkako argitalpenak, 1989, 50-326 or.)

"Gutxi" ala "asko" diren erabakitzeko kontutan hartu behar da 700.000 lagunek osatzen dutela euskararen irakurlego potentziala; gaztelerazkoa, aldiz, 3 milioik. Kopuruak "altuak" dira baina badu esplikaziorik: euskal prentsa idatzizko produktu bakarretakoa izatea, langile berezi eta sakrifikatuak izatea, irakurlegoaren militantzia nabarmena izatea eta urterik urte kostoak gutxitzea lortu izana.

#### 3.2.2.2- Azpiegitura

Azken puntuan azpiegitura eta hobakuntzaren arazoa adierazten da. Dudaezinezko datua da ARGIAk bere azpiegitura tekniko propioa sortu egin duela, inguruko aldizkariak edota beste enpresa baten zati izanik (Hemen-ORAIN, SA-Egin-; Eguna-IPARRAGIRRE, SA-Deia) sortu beharrik izan ez dutelako, edota kontratuean arituz (euskal prentsako beste guztiak) gehiegi iruditu zaielako. Agiri edo txosten hau idatzi zenerako, ARGIAK bere esku zuen, aldizkariaren ekoizpen eta fabrikazio-prozesu guztia: erredakzio informatizatua, fotomekanika, fotokonposizioa eta inprimategia.

*"Inguruko ezein astekarik, ez euskarazkok eta ez erderazkok ez dauka holako azpiegitararik eta azpiegitura hori da hain zuzen ere aurrerapauso berriak planteiatzeko aukera ematen diona(...) Ekipo berriaren azken urteotako esfortzu guztia produktoa bera hobea goetzeko egiten zen ahaleginarekin batera, ahalik eta diru gehien azpiegiturean inbertitze aldera joana da, hori izan delarik gure prioritateetako bat"*

### **3.2.2.3. Lanaren etekin frogatua**

ARGIAk demostratu egiten du berea ez dela izan iraupen hutsa, jaso duen diruz, egindako esfortzuz eta jarritako irudimenez, proiektu baten arabera, etekinik izan duela baizik. *"Bultzada nabarmena eman zaio ARGIAren eskaintzaren bidetik oraindik ere proiektu den Euskarazko Prentsari. Bi hitzetan esanda, ARGIAko ekipoaren militante lana, ARGIAko harpidedun eta irakurleen laguntza, eta, azken urteotan jasotako diru-laguntzak izan dira aurrerakada honen oinarria".*

Nola esplikatu hori, kazeta huts izanda? *"Egun asko eta gau asko sartu ditu ARGIAko jendeak proiektu hau, euskararen normalizazioaren aldeko proiektuarekin bat, zulo beltzetik ateratzeaz gain, behar beharrezko erreferentzia puntu eta informazio emale bezain sorle bilakatzeko. Ekonomia arloa alde batera, erredakzio ekipoa sortzea eta iraunkorki lanean jartzea izan zen ARGIAren epoka berriaren hasierako lehen lana. Epe laburrean lortu zen gune militante, bihotz-zabal eta burutsu batez hori finkatzea. Hein berean, kolaboratzaile eta herrialde ezberdinetarako delegatuen bilaketa ere aurreratuz joan zen, dohan lan egingo zuen kopuru eder bat lortu zelarik azkenerako (...)ARGIA*

*sortuz geroztik oinarrizko printzipioa izan da aldizkariak berak zeukala lehenasuna, euskarari nahiz euskal kulturari hala nola euskaldunen informazioari eskaintzen dion zerbitzua dela medio. Horretara makurtu ditugu beti ARGIAko langileen aspirazio ekonomiko nahiz profesionalak"*

*Errentagarritasuna, beraz, segurtaturik dago ARGIA: "Ezinbesteko iruditzen zaigu, segitzen du txostenak, halaz ere euskararen aferetarako dirua banatzen duen agintaritzak kontutan har dezan, guri luzatutako diru-laguntzak etekin handia eta nabaria duela eta langile talde honen baldintzak hobegotuz biderkatu egingo lituzkeela ekipo honek euskal prentsaren alde egin dezakeen ahalegina".*

#### **3.2.2.4. Defizitariotasuna**

Errentagarritasuna aipatu berri da. Errentagarritasun ekonomikoa, beraz, ezinezkoa da edozein aldizkari euskarazkorentzat. ARGIAk bestelako errentagarritasuna dauka. Eskura daukan errentagarritasun bakarra, ekonomikoaz alferrik bait da oraingoz hitzegiterik. *"...ez da errentagarria (ekonomikoki) euskara hutsezko komunikabide baten plazaratzea (...) Errentagarritasun hori epe luzera begira egiten den giza nahiz ekonomi esfortzu baten ondoren besterik ez da lortuko: euskarak aurrera egin dezan euskara hutsezko komunikabideek euskal gizarteari eskaintzen dioten zerbitzuaren emaitzaren ondorio bezala(...) Bueltaka bueltaka gure bitarteko soilez baliatuz, halako gurpil zoro*

*batekin egiten dugu topo: salmentak nabarmenki handitzen ez diren bitartean ez dago promozio berezirik egiteko sosik, promozio berezirik egiten ez bada ezinezko da publizitate kopuru nabarmenki handiagorik kontratatzea eta irakurlego potentzial berrietara iristea. Gehienez ere lor daitekeena, urte hauetan jarraitu dugun ildo beretik, azpiegitura eta produktoaren kalitatean inbertitzea da ahalik eta merkeen hobekuntzatan aurrera egiteko, apurka apurka eta hainbeste kostata lortutako irakurlegoa gal ez dezagun. Gurpil zoro horrekin eten ahal izateko euskal prentsaren eta euskara beraren normalizaziorako politika indartsu baten beharra legoke".*

Puntu hau berretsi baino ez du egingo, urte batzu geroago CIESen azterketak dioenean: "*irakurketa eta salmenta datuak ikusirik, euskal prentsa idatziak aurrera egiteko erakunde publikoen diru laguntza beharrezkoa denik ezin da zalantzan jarri*". (CIES, 400).

### **3.2.2.5. Diru-laguntzak eta erizpideak**

*"Diru laguntzak gaur egun ematen den irizpideetara mugatuz -defizitaren arauerakoa- ezin bait da projetu baten bultzatzaile kontsidera dagoenaren mantentzaile soila baino. Eta ezin ahaztu daiteke gaur egun arte diru-laguntzak erizpide batean oinarritu direnean (ta zifra garrantzitsuenak banatu direnean) defizitaren erizpidea erabili izan dela"*

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

Beraz pausu bat eman behar da baldin eta projekturen bat bultzatu nahi bada:  
*"Gure ustez prentsan urrats garrantzitsurik eman nahi bada behintzat gaur arteko diru-laguntzari buruzko politika gaindituz -gaur egunekoari iraunkortasun estable bat emateaz aparte- aurrera begira egin daitezkeen proiektuak -gaur egunekoa indartzera eta hobetzera joko luketen urratsak- lagundu beharko lirateke. Biabilitate mugatu baina zehatz batzutan oinarritutako hobeagotze proiektuak bultzatuz"*

Amaitzeko, "*le petit détail*", diru-laguntzak beharrezkoak izanarren proiektuak -diruz ezezik- ezinbesteko beste *elementuz* osatzen direla gogorarazten du ARGIAk: militantziaz adibidez.

*"Gure azken urteotako historiak aski frogatzen du militantzian oinarritutako profesionaltasun batek bakarrik atera ditzakela aurrera gaur egun euskaltzaleok ditugun proiektuak. Bihoa hau aurretik diru-laguntzetaz hitzegitean errezegi ematen zaielako azken urte hauotako urrats garrantzitsuen meritoak diru-laguntzei, ahaztuz, edo alboratuz behintzat, diru-laguntza horiei errentagarritasuna atera diotenak, beren lan baldintzak bere horretan utziz, diru-laguntza horiek aldizkarian jarri dituztenak direla".*

#### 3.2.2.6. Plangintzaren premia eta eskea

Txosten honetan, eta aldizkarien izkribuan, diru-eskea egiteaz aparte, laguntza arrazionaltzea eskatzen da, bistan denez. Dirua ematea bai, baina erizpide zehatz eta kontrolagarrian, *plangintza* baten arabera alegia, *politika* berezi baten inguruan gauzatua,

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*proiektu baten ildotik abiatuz. Gogoratu gorago esaten diren esaera hauek: "euskal prentsaren eta euskara beraren normalizaziorako politika indartsu baten beharra legoke" (...) "proiektu hau, euskararen normalizazioaren aldeko proiektuekin bat".*

Mezua nabarmena da, euskal prentsa antolatzeko, laguntzak banatzeko eta bere balioa neurtzeko, proiektu zabalago baten atal gisa ulertu behar da: euskararen normalizazioaren plangintza barruan. Ezin daiteke, beraz, euskarazko prentsarekin gertatzen ari dena ondo ulertu euskara normalizatzeko alorrean gertat(u)zen denaz xuxen jabetu gabe. Hemen ordea ez dago gai honetan luzatzerik ez bait da hori gaia. Funtsean elebitasunari buruzko dekretutik ixurtzen den giro ustela dago azpian; Jaurlaritzak helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko hartzen duen joera bitxia ezinegon bilakatzen zaie hamarkada batzu lehenagotik gau eskola eta antzeko elkartetan ari zirenei; elebakartasun euskaldunaren bidea hartu beharrean elebitasunari egiten zaion menean, gaitza.

Elebitasun agindua egin ondoren, ezaguna izan zen Luis Mari Muxikak eta Karlos Santamariak batak besteari zuzendu idazkia *Eginen* orrietan. Euskara hezkuntzan beharrezko gaia ez izatearen akats larria erakusten zion Muxikak Kontseilariari.<sup>11</sup> Santamariak, *"ahal zutena"* egin zutela eta Gandhiren antzera berak nahiago zuela *"idealista praktiko"* izatea aitortzen zion euskaltzale giputzari, klaukikatzea baino *"bi zatientzat soluziorik onena dena, jokuaren eralitatearen barruan"* hartua izan zela dekretoa.<sup>12</sup>

---

<sup>11</sup> Muxika, Luis M., "Un decreto de bilingüismo claudicante", Egin, 1979-V-3.

<sup>12</sup> Santamaria, Karlos, "Luis Mari Mujika adiskideari", Egin, 1979-V-23.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

80. hamarkada baino lehendik konprenitu zuten konprenitu ere euskarazko prentsan ari ziren langileek plangintza baten premia ezezik projecktu zabalago baten *kide* zirela. Horretarako baina, elebitasunaren porrota eta etsipena ezagutu beharra izan zen, askok arazoa betiko beste nonbait kokaturik zegoela atzemateko.

Bi aipu baino ez, bata orduko *Anaitasuna*-ren zuzendariarengandik -Tomás Trifolengandik- hartua; bestea, *Zeruko Argia*-tik garai hartan editorialeak egiten zituen Mikel Atxagarengandik.

*"...kazetal ikuspuntu hutsez lanegitea, dio Trifolek, helburu gisa Euskal Herriaren berreuskalduntzea, birbatzea eta burujabegoa lortzea delarik, eta hau argitalpen periodikoen muga barnean noski".<sup>13</sup>*

*"Batetik, dio M. Atxagak, berezko indarrez hasi zitekeen guztia hasirik dago euskal kulturari. Ikastolak, gau-eskolak, irratia, astekariak, artea, antzerkia, zinea eta abarrek berenez izan zezaketeen hazkuntza izan dute. Politika orokor eta kultural egoki baten zai daude orain eman behar duten urrats haundia egiteko. Abertzale eta euskalzale sutsu batzuei esker jaio eta hasi ziren ekintzok irauteko bakarrik ere politika egokiaren bultzada indartsua behar dute. Baina bere horretan iraunaz bakarrik ez dugu ezer egiten, Euskal Herri osoa eta euskaldun guztietara zabaldu behar dute. Horrek noski, dirua, plangintza bat, burubide bat, benetako erantzun bat behar du".<sup>14</sup>*

Ez da gauza bera, jakina, plangintza eta proiecktu orokorra -nazionala dei genezakeena, zein, besterik gabe, euskararen normalizazioarekin lotua-. Inork gutxik

---

<sup>13</sup> Egin, 1979-V-15

<sup>14</sup> Argia, 1979-VII-29.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

ukatuko du, halere, konzeptu biok nahikoa bateginik joan direnik hamarkada t'erdian. Onerako zein txarrerako, duda ororen gainetiko errealitatea da hori.

Plangintza diru-laguntzak lortzeko eta orohar subentzio-politika zuzentzearen aldetik ikusi behar da. Sailean antolaketa minimo bat ezartzeko eraketa da funtsa. Projektua, berriz, zabalago den eremu gisa, non edozein plangintza -kasu honetan euskarazko kazetagitzaari egokitua- kokatu behar den, zentzurik ukan dezan, bai eta kontrolatzerik izan dadin.

Frogatua dago, adibidez, euskal prentsaren aldeko erreibindikazioa euskararen aldeko erreibindikazioarekin bateginik hasten dela, eskakizun orokorraren zati garrantzitsutzat hartzen bait dira. 1980. apiriletik ekainera bitartean, adibidez, bost manifestazio nazional egin ziren Hego Euskal Herrian euskara erreibindikatzeko. Horietatik bat, apirilaren 19koa hain zuzen, "Euskal Komunikabideen alde"-koa izan zen Donostian. Denetan, baina, egiten zen garrasi euskal komunikabideak sustatzeko eskean. *"Hau diskriminazioaren paradigma zehatza da. Benetan euskal komunikabideetan euskarari muzin egiten zaio...parodia bat da euskal diskriminazioaz mintzatzea erderaren diktaduratik"* zioten antolatzaileek <sup>15</sup>, Karlos Garaikoetxeak Gernikan bere lehen agintaldiaren hasieran hitzaldi programatikoa zela eta esandako hitzak gaitzetsiz, alegia *"no admitiremos discriminaciones"* famatu hura euskararen mehatxuari buruz. Urte horretan

---

<sup>15</sup> Egin, 1980-IV-17.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

bertan, <sup>16</sup> egiten den "Prentsa Euskaraz" kanpainan "*euskal prentsarik gabe ez da Euskal Herririk*" esateraino ailegatzen da.

Plangintzaren harira itzuliz, *Jakin, Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak "Euskal prentsa euskararen plangintzaren alde" agiria agertu zuten 1983.ko urtarrilean. Agertu, hil horren 30ean Iruñean euskararen aldeko manifestazioaren atarian agertu zen. "*Euskara normalizatuko bada, diote, nahitaezkoa du plangintza*", berau "*orokorki eta sailez-sail egitekoa*" dela azpimarratuz, euskal prentsari egiten saiatuz.

Euskararen aldeko mugimenduak eta Euskal Prentsak berak, helburua argi eduki arren nahastu egin ditu maiz plangintza eta proiektua. Bi kontzeptuok batera eman izan ohi ditu bederen. Honoko testu honetan adibidez. Hauexek lirateke plangintza horren printzipioak, euskal prentsa mailan: "*...onar dezatela prentsa zerbitzu publiko eta nazional bezala; aitor dezatela euskal prentsa idatziaren premia eta egiteko utzi ezinak euskararen eta euskal kulturaren normalizaziorako; eman diezaiotela euskal prentsari status soziokultural jatorra*". <sup>17</sup>

Printzipio horietara iristeko honoko jokabideoi erizten diete ezinbesteko, nahiz eta urte batzu geroagoko txostenean (Argiatik Jaurlaritzara txostena, 1987 alegia) gutxiegitzat hartuko diren: "*..egitura profesionala minimo iraunkor bat eratzeko eta mantentzeko laguntza; euskararen egoeraren ondorioz, euskal prentsa estrukturalki defizitario denez, ganorazko laguntzak, hots, defizita estaltzeko ainakoak*".

---

<sup>16</sup> 1980-XI-14/16.

<sup>17</sup> "Prentsa Euskaraz", aipatu kanpainaren hitzak dituzu honokook.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

Hilabete batzu geroago, 1983-III-12an, Bergaran EKB sortzen da eta eskakizun hau globalizatu eta koordinatu egingo du. Urtebeteko antolaketa-lanak egin ondoren kaleratu zen. Abiapuntua, 1982ko martxoan du elkarte honek: "*Euskal Herrian Euskaraz taldeko eta bere inguruko zenbait lagunen artean, euskal kultur mugimenduko sektore, talde eta erakunde ezberdinen koordinatze eta indarberritze beharra ikusten da, kezkaturik azken urteetan euskal kulturak emaniko atzerakada nabarmenez, erakunde publikoen erantzukizun eskasaz, eta kultur taldeen dinamika baterakoi baten gabeziak*".<sup>18</sup>

Besteak beste, hauxe eman zuen aditzera lehen unetik: "*naiz eta alderdi politikorik ez egon gure artean , EKBk ez du kulturalismo hutsetik abiatu nahi, jabetua bait dago euskararen eta euskal kulturaren arazoa funtsean politikoa dela*".<sup>19</sup>

EKB, Euskal Kulturaren Batzarrea da, hots, "*euskal kulturaren alorrean eta bereziki euskararen mailan lanean diharduten organizazio nahiz lagun banakoei irekita dagoen Koordinazio edo Batasuna, euskararen normalkuntza bultzatu nahi dutenei, alegia*", sortzeko agirian adierazten denez.<sup>20</sup> Batasun honek badu "Komunikabideak" deitu saila eta hortik berehala hasten dira euskal prentsaren aldeko defentsa-ekimenak. EKBren helburua "*euskara benetan Euskal Herri osoaren hizkuntza nazional bihurtzea*" denez, ezinbesteko gaia da komunikabideei dagokiena.

"*Euskal Prentsaren heriotza lojiko da*" artikulua famatuan<sup>21</sup> honela adierazten du bere kezka EKB-k: "*euskal prentsak egin duen aukera hauxe da: euskara bere*

---

<sup>18</sup> Argia, 1983-III-13.

<sup>19</sup> Argia, 1983-III-13.

<sup>20</sup> "Euskararen Normalkuntzaren aldeko Agiria" da sortze-agiri hori, Bergarako UNEDen gauzatua.

<sup>21</sup> Egin, 1983-V-5.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*hondamendira eramango duen diglosia ez onartu eta egunen batean euskarazko prentsa 'normala' izango denaren oinarriak jartzen aritzea. Euskara hutsez, beraz. (...) Ondorioa: euskara marjinala den bezala euskarazko medioak ere zokoratuta gelditu dira eta pixkanaka hilez joan guztion aurrean".*

Baztertze hori ekiditeko, EKBk "*beste subentzio arras desberdina*" eskatzen du, hau da, euskal prentsaren errentabilitate ekonomiko eza kontutan harturik eta euskara salbatu nahi delakoan, defizit erreala pagatzen laguntzea, hau da kostu errealen eta diru sarreren arteko tartea, erdarazko medioekin egiten duen lehia desorekatua orekatzeko, inferioritate-egoera xamurtzeko.<sup>22</sup>

Planifikazioaren premiak betidanik kezkatu du ARGIA eta orohar EKBren inguruan koordinatu izan den euskal aldizkarien mugimendua. Bistan da ARGIAren ahotik mintzatu direla gehienbat, batetik euskal prentsaren untzi-ikurra izanarren kaltetuena izan delako eta bestetik kezka amankomuna adierazten duelako.

1983.eko udazkenean ARGIAk idatzi zituen lau editorialetan, (bigarren atalean aipatuak) balizko egunkariaren premiatik goiti dagoela euskal prentsa defendatu zuen eta orokortasunean zaindu beharra zegoela "*geuk, berriz, euskal prentsaren errealitatea, iragana eta esperantza, egunkari bakar batetara mugatzea, desbideraketarik arriskutsuenetako bat dela deritzogu*".

---

<sup>22</sup> Plangintzari buruz, euskararen normalkuntzari buruz eta orohar euskara eta euskal kulturaren berri izan nahi duenak ezinbesteko ditu EKBren lanak, besteak beste "Euskararen plangintzarako oinarriak", *Jakin* 1985, 34 zb. eta 1990-Ilaz geroztik kaleratzen duen BAT-Soziolinguistika aldizkaria. Era berean EKBren aipatu sortze-agiri horretaz aparte bere bi Biltzar Nazionaletako paperak, 1988.eko Uztailakoa lehena (EKBren Hizkuntz Politika erakusten duena), eta 1992.eko Martxokoa, bigarrena, ("Ahaleginak bilduz, etorkizuna lantzen" proposatzen duena).

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

Euskarazko egunkari posible bati buruzko eztabaidetara azaldu ohi zen ARGIAko langilearen, Josu Landaren, eritziz, *"liluraz lilura baina azpian benetako planifikazio baten falta nabaria"* salatzekoa zen.

Joxemi Zumalabek berak, euskarazko egunkariaren auzia ez atzera ez aurrera zebilenean benetako problema *"planifikaziorik eta normatibarik ezean"* zegoela aitortzen zuen: *"behingoz jakin behar litzateke herri honetako erdal komunikabide idatzi guztiak euskalduntzeko bidetan ipintzeko zein diru-kopuru behar diren, zein lehentasunez jokatu behar den eta diruaz aparte zein presiobide bilakatu behar diren diru-laguntza guzi horiek emankorrak izan daitezen"*, inportanteena, *"erizpideak finkatzea"* dela aitortuz.<sup>23</sup>

Urte batzu geroago arazoa astegunkariak zirenean, arazo berdina aipatzen du Zumalabek: *"egun urrats handiena euskal egunkaria (k) izango litzateke. Horretatik ezin da ondorioztatu orain artekoak guttietsi behar direnik. Euskararen normalizaziorako bidean plangintza orokorra behar da, lehentasunei bai, baina tajuz zaindu behar dira alor eta atal guztiak. Ganora gabe hartzen da euskal aldizkarigintza".<sup>24</sup> Zehatzago oraindik 1987ko Urtekarian: *"euskal prentsak ametsak oraindik pendienteak ditu(...) amets politenak pendiente daude. Betetzeko dagoen ametsa garbi dago prentsa aldetik helburua egunkaria dela, hori izango da hurrengo urratsa"*. Ez, ostera, isolaturik: eremu jakin batean baizik: *"Nire ustez prentsa eta beste euskal komunikabideek projetu nazional baten inguruan kokatu ditzakegun asmoak dira", plangintza baten arabera: "...politika zehatz bat diseinatu, prentsarekin helburuak ondo markatu, parte bakoitzak bere lekua gordez eta**

---

<sup>23</sup> ARGIA/Urtekaria, 1984, 112 or.

<sup>24</sup> Egin, 1987-XII-21.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*nolabait erdararen parean konpetitibo izateko jarri behar diren bitartekoak sortu. Bienbitartean, daudenak indartu, konpetentzia hori egin dezaten".<sup>25</sup>*

Planifikazioa ez dute inoiz egin agintariek. Nire hipotesian planifikazio hori antolatzea Euskal Herri elebakarraren alde (eta EAEn politika-egituraren kontra) egitea delako. Oraintsu, aurreko atalean esan bezala, konponketa agintzen hasiak dira. "*Euskara eta euskal kulturaren inguruan paktu bat behar da*", esan du Joseba Arregik.<sup>26</sup> Eta egun batzu geroago Mari Karmen Garmendiak berretsi<sup>27</sup>. EKBrekin ere hasiak ditu Jaurlaritzak lehen kontaktuak. Geroak esanen du.<sup>28</sup> Arazoa da orain arte hemen kontaktzen den bezala izan dela eta plangintzarik gabeko dirulaguntzak ez dio Euskal Prentsari urrats berriak emateko biderik eman, egindakoa txukuntzeko agian. arazoa gainera ez da ARGIArena. Arazoa bere osotasunean dagokio Euskal Prentsari. Horren edukia da produktu desberdinetan mamitu behar dena.

Oraindik 1989.ean, (CIEsen azterketa kalean jada) hamar aldizkariok, *Literatur Gazetaren* ordez *Senex* agertzen da hamarrekoan, beste izkribu bat egin zioten oraindik Jaurlaritzari beren etorkizuna bermatzeko eskatuz. Alferrik, noski.

Honela zioen izkribu hark, nik dakidala egin den azkena: beren etorkizuna bermatzeko eskatuz. Alferrik, noski: "*Agiri hau izenpetzen dugun euskal aldizkariok,*

---

<sup>25</sup> ARGIA/Urtekaria, 1987, 251-52 or.

<sup>26</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1992-V-10.

<sup>27</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1992-V-13.

<sup>28</sup> Ikus Euskararen Berripapera, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1992-VI- 1, zb. non hauxe esaten den: "*Bi izan dira EKBk eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako bilerak. Gaiak: nola bildu euskaltzaleen ahaleginak, erakundeen eta herri-mugimenduen arteko normalizazioa, etab. Ekainean berriz bilduko dira*". Hemen frogatzen da II. atalean aidean geratu den aipua.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*oraindik ere euskal kazetalgintza jasaten ari den egoera larriaz kezkatutik, egoera honen berri azaldu nahi diogu eritzi publikoari eta aldi berean aldizkariokiko jarrera positiboagoa eskatu nahi diegu Euskal Herriko Instituzioei.*

*Gauza jakina da euskal aldizkariok, euskaldungoaren mugak ezarritako tiraden urritasuna eta gaztelerazko prentsaren lehia direla kausa, ezinezko dugula gure lanak sortzen dituen kostuak merkatu-legeen arabera berdindu. Horrexegatik, instituzio Publikoen laguntza ezinbestekoa da aldizkariok kalera gaitzen.*

*Eusko Komunitate Autonomoan Eusko Jaurlaritzari dagokio aldizkariak laguntzea baina, banatutako diru-laguntzen urritasuna, laguntzen banaketarako erizpideen desegokitasuna eta epe luzeko plangintza bati erantzuten ez zietela eta behin baino gehiagotan salatu ohi ditugu. Azken bizpahiru urtetan, bilera batzu egin dugu Jaurlaritzako ordezkariekin baina, funtsean, duela hiru urteko egoera berean jarraitzen dugu. Ezin esan bestalde bilera hauek emaitzik izan ez dutenik: ETBrekin publizitate trukezko akordio bat bideratu zen eta gutariko bi aldizkarik (Elhuyar-ek eta Jakin-ek) epe laburreko bederen, beren etorkizunerako segurtatzea. Gainontzeko aldizkariak duela hiru urteko egoera larrian dira eta proiektu bakoitzean gabiltzan euskaltzaleon dedikazio eta eskeintza militanteari esker mantentzen dira.*

*Argia astekariaren kasuan erdira jeitsi zen diru-laguntza orain bi urte eta maila horretan mantendu dute orduz geroztik.*

*Horrela erdarazko aldizkariekin konpetitu ahal izateko gure lanabesa ahula da oso. Eta geure ustez, inertzia desbentajosoenetatik atereaz, laguntza bidez, euskal*

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

*aldizkariak gizarteari egiten dioten eskainza erdararen parekoa izan dadin bitartekoak jartzeak Jaurlaritzaren ardura beharko luke izan.*

*Bestetik, publizitatearen alorra da aldizkariok aipatu nahi dugun puntua. Euskal Instituzio Publikoen publizitate ofiziala ia hutsaren berdina da euskal aldizkarietan, hondar gutxi batzuk jaso ditugularik. Egoera hau guztiz salatu nahi dugu, izan ere euskal aldizkariak publizitate publikoa banatzeko orduan marginaturik bait gaude, orohar.*

*Ezaguna da publizitatea prentsak bizitzeko duen diru-iturrietako inportanteenetako bat dela. Euskal Instituzioek, gure aburuz, euskal aldizkarietan eginiko publizitateari buruzko jarrera positiboa eta eragilea erakutsi beharko luke: alde batetik eta gutxienez, beraiek sortzen duen publizitatearen zati bat euskal prentsaren bidez bideratuz eta bestetik, euskal komunikabideetan eginiko publizitatea bereziki sustatuz. Publizitate kopurua igo ahala laguntza publiko zuzenen beharra urrituko dela begibistakoa da bestalde.*

*Behean sinatzen dugunok arestian aipatu puntuak kontutan har ditzaten eskatzen diegu Euskal Instituzio Publikoei".<sup>29</sup>*

*Euskaldunon Egunkariak, 1922-VII-3an, HB-EuE-EA bateginik, 50 milioi lortzen dituenean Zumarragan bildutako Batzar Nagusietatik, EAJren eleduna, Maria Jesus Aranburuk, diru-laguntza horien kontra joateko erabili argudioa, diru hori propio plangintzarik gabe emandako dirua dela esatea izan da. Honela zioen Donostian inprimatzen den egunkari bakarrean: "No sé si el dinero que se dice que se debe dar a este*

---

<sup>29</sup> Argia, 1989-XI-26, "Euskal Prentsa Lagundu" kanpainarako ateratako egunkari tamainako ale berezia.

*periódico es en función de su tirada, controlada por OJD, como en el caso de otras lenguas minoritarias, o en función de no sé cuál otro criterio. Porque el problema reside ahí: en la ausencia de criterios y, derivadamente, en la arbitrariedad cometida. (...) En caso de aportar dinero a un periódico, por ejemplo a Euskaldunon Egunkaria, -hecho que se contemplaba en la norma foral presentada por la Diputación-, había que establecer previamente criterios, criterios generales y justos además, de forma que ni gastáramos con esa arbitrariedad el dinero de los guipuzcoanos ni siquiera, en la medida de lo posible, molestáramos a nadie".* <sup>30</sup>

---

<sup>30</sup> Aranburu Orbegozo, Maria Jesus, Cincuenta millones para Egunkaria, Diario Vasco, 1992-VII-4.

### III. Atala: egiaren efektuak (2) . Plangintzarik gabeko laguntza

---

## IV. ATALA: EGUNKARIA IRTENBIDE

### Porrotaren eta erabakiaren artean

Euskarazko egunkariaren debatea 80. hamarkadaren eztabaida dela esan daiteke. Prentsa idatziaren mailakoa bederen bai, segur. Komunikabide mailan, jakina da, ikus-entzutekoei dagokiena eta bereziki telebistari buruzkoa nagusitu zen.<sup>1</sup> Debate hau aspaldidanik dator, mendearen hasieratik eta lehenagotik. Izan ditu pare bat une-gotor, adibidez mende honen 30. hamarkadan Xabier Lizardi eta lagunek euskarazko egunkari bat asmatu eta ezinean bukatu zutenean; adibidez, 1936.ean *Eguna* mamitu zutenean zenbait hilabetetan zehar. Baina gutxi-asko beti egon da erne euskarazko egunkari bat izateko guraria. Nortasun berezkoa eta politikagintza propiorako gaitasuna duen herri bat izatekoa egon den bezalaxe.

Larogeigarren hamarkadarako badirudi euskal prentsaren irtenbide bakarra euskarazko egunkaria dela, hori bait da gehien azpimarratu izan den aldea. Egunkari bat soilik, ordea, ez da prentsa, prentsa-mota bat baizik. Seguraski ez da posible ere egunkari bat, inguruan bestelako prentsa-mota ez dagoenean, astekariak, hamabostekariak, prentsa zientifikoa, kirolekoa, herri mailakoa etab. Eta pluralean. Muestra banaka izateak, asko

---

<sup>1</sup> Ikus Torrealdai, Joan Mari, *Euskal Telebista eta Euskara*, Elkar, Donostia 1985.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

izanda ere, ez da normaltasunaren eredu heldua. Egunkariak prozesu periodistikoan azkartze maila bat esijitzen du, hizkuntz-malgutasun eta trebezia frogatua batez ere. Egunkari bat ez da besterik gabe sortzen. Altzo aritu baten emaitza da. Euskarazko egunkaria, beraz, euskarazko prentsa barruan mamitzen da, eta halaxe gertatu da. Izan ere, gaur indarrean dagoen "*Euskaldunon Egunkaria*" euskal prentsan ari zirenen eskutik etorri da bereziki, eta aldizkari sendoenetatik hartu du indarririk handiena, ARGIAtik hain zuzen. Pello Zubiria, Iñaki Uria, Imanol Murua, Xabier Lazkano, Lorea Agirre, Jose Luis Aizpurua, Joxemi Zumalabe, Gorka Arrese, Josu Landa, Luis Fernández Ostolaza, ARGIA utzi eta *Euskaldunon Egunkariara* pasa diren kazetariak izan dira.

Azken hamarkadan, 80.ekoan alegia, gertatu dena ulertzeko urte batzu atzerago jo behar da, 1976.era hain zuzen urte hori *Euskal Kazetaritzaren Urtea* izendatu bait zuten euskal prentsan ari zirenek. Honen egokitasuna, prentsa elebakarra eta elebitakoaren gatazka barruan kokatu behar da. Hor bait dago, egon ere, katramila hau askatzeko giltza. Gatazka, ez da urte horietakoa, askoz ere zaharragoa, baina une politiko berezi batean - Erreforma eta Transizio Politikoan- gatazka hori ere bereziki berotu zen. Euskal prentsa idatziak era bortitzean jasan behar izan bait zuen gatazka orokor horren goritzea.

Larogeigarren hamarkadan gertatutakoan zentratuz, bi zati nagusitan banatuko dut hurrengo orrialdeotan azterketaren parte hau. Izan ere bi lerro nagusi ikusten dira aipatu eztabaidan. Batetik elebitako prentsaren porrotetik abiatuta datorrena; bestea, erabaki zahar eta tinko batetan oinarrituta bidea galdu gabe euskarazko egunkariaren bilaketari eusten diona. Bi bide hauek, itxuraz, bat egingo dute baina gurutzebidean berriro urrunduko dira. *Porrotetik* datorrenak balizko egunkariari, eta horri soilik, eusten segituko dion bitartean, *erabakitik* datorrenak ametsetako egunkaria errealitate bihurtzea asmatuko du.

Honen ondorengo atalean argiago ikusiko da euskara hutsezko prentsaren aldeko apustua eta erabakia zertan datzan eta horixe izango da tesi-lan honen muina, esanguraz beteko duena hain zuzen.

#### **4.1. Porrotaren bidea**

Euskal egunkariaren debatea, 1936.eko gurutzadaz geroztik, 1982.ean (ber)hasten da. Eta Mikel Atxagak plazaraten du, elebitako prentsaren bizikizun penagarria pertsonalki egin ondoren. Elebitakoaren esperientziak etsipenera eraman du euskaltzalegoa, eta eredu horretako bidea aukeratu zutenek berberak ekin zioten egunkari-irtenbideari.

Erreakzioa 1978an kokatu behar da, aldizkari elebikoak sortu eta urte pare batera eta "*erdarazko egunkari abertzaleak*" (*Deia* eta *Egin*, alegia) urte bete eskas kalean zirela. Porrotaren bidea 1975-76 inguruan hartzen da garaiko haize boladaren kulunkan jarritz, sinistea elebitasunaren salbazio-ahalmenean jarritz alegia, eta orduko euskarazko kazetarien betiko lanari muzin eginez, bereziki 1976.ean esandakoari.

##### **4.1.1. Euskal Kazetaritzaren Urtea (1976)**

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Euskarazko kazetek, *Zeruko Argiaren* <sup>2</sup> ideari jarraikiz <sup>91</sup>Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zuten 1976.a.

Aipatu astekariak bere 669. zenbakiaren editorialea gaiari eskeini zion: "*eskolarako ez ezik, komunikabide eta administrazio lekuetarako ere balio duela euskarak irakatsi behar dugu*". <sup>3</sup> Horretarako, eta aurretik egindako urrats guztiak kontutan hartuz (sortuak dira, adibidez, ikastolak, alfabetatze saioak etab.), hauxe proposatzen du: "*beste urrats bat egin behar dugu orain. Komunikabideetan sartu behar dugu euskara*", eta ondorioz, helburu preziso bat: "*euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu*".

Arazoa ez da soilik euskara komunikabideetan sartzea, euskal kazetaritza sortzea ere bai. Bi atal, komunikatzeko era zehatz bat antolatzeko. Aipatzekoa da hasieratik bertatik, garai hartan kazetaritzaz mintzo denean, kazetaritza idatzian pentsatzen dela, nahiz eta gero, erabaki politikoek direla medio kazetal-molde hau azken lerrora baztertuko den, irrati eta telebistaren mesedetan.

Ordurako, euskal prentsan ibili direnek, eta bereziki *Zeruko Argiakoek*, badakite, jakin, esamolde horrekin zer esan nahi den, euskal kazetaritzarekin alegia: "*euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu. Euskal lehiatilatik munduari so egingo dion kazetaritza. Munduko berriez gure herria hezetuko duen kazetaritza*".

---

<sup>2</sup> Ikus Torrealdai, Joan Mari, Euskal Kazetaritza gaur eta bihar, Euskera, 1977, XII, 59 or.

<sup>3</sup> Zeruko Argia, 1976-I-4

Ez da paragrafo honetan euskararen auzirik aitatzen, baina editorialaren testuinguruan (euskararentzat lurraldeak irabaztearena), argi dago esan gabe ere, euskal kazetaritza euskaraz eginikoa dela. Aurreraxeago, *Deia* eta *Egin* ezezik, *Ere*, *Berriak*, *Garaia* eta *Punto y Hora* sortzen direnean, bultzatzen duten elebitasuna justifikatzerakoan, beti erabiltzen da, "*euskal ikuspegia* zorioneko hura, euskararekin deslotua; ez, ezinbestez, uztartua bederen .

*Zeruko Argiak* ondotxo daki horretarako bide politikoak urratu behar direla eta, bereziki, kazetaritzak berak ez dituela gauzak aldatuko sakonean: "*Jakina, guk ez dugu arazo honetan eta beste askotan erantzun beterik. Euskal Herriak behar luke izan bere hitza, eritzia, eta erabakia baliarazteko biderik. Baina ez du, noski, Euskal Herriak ez bait du berari dagokion erakunderik*". Bitartean, "*1976garrengo urtea euskal komunikabideei, kazetaritzari bereziki, indarra emango dion urtea izan dezagula*". (ibid).

Euskal Kazetaritzari emana izan zen urte haren atarian, halako berrikuntza nabarmena antzeman zitekeen euskal prentsa deitzen dugun horretan. <sup>4</sup> Hego Euskal Herrian diren informazio orokorreko aldizkariak, bai *Goiz Argik*, bai *Zeruko Argiak* bai *Anaitasunak* , *newsmagazine*-ren antza hartzen dute. Espainian, gauza bera ari da gertatzen lehenagotik. Besteak beste, *Cambio16*, *Gentleman*, *Doblon*, *Posible* etab.en urteak ziren.

Urte horietan (1974-76), ordurarte izandako euskal prentsari buruzko zenbait gogoeta -hitzez eta idatziz- egiten dira. Sailean, jakina, erdal prentsaren alorrean euskal prentsarik ez bait da esistitu ere egiten. *Anaitasuna* izan zen lehena. <sup>5</sup> Mikel Atxaga, Luis

---

<sup>4</sup> Ikus Torrealdai, *Euskal Literatura gaur*, 552 or. etab.

<sup>5</sup> *Anaitasuna*, 1974-XII-31.

Alberto Aranbarri 'Amatiño' eta Joan Mari Torrealdai dira azterketarik zorrotzenak egin zituztenak eta, horrexegatik, hona dakartzagunak.

1976.ean -lehen konstatazioa- euskal kazetaritzak ez du oraindik bere lehen *liberaturik* ezagutzen, hortara dedikatua eta hortatik bizitzerik ahal duena. Mixeraren seinale, kazetaritza konbentzionaletik begiratuta. Hortik, seguruaski, seinalatzen den lehen premia: kazetarien profesionalizazioa. "*Profesionalizazioa nahitanahiezkoa da kazetaritzan baldin egiazko kazetaritza egingo bada. Aje honetatik atera ezinik gabiltza*".<sup>6</sup> Honek ez du harreman zuzenik kalitatearekin, baina egoera ez-normalduarekin, bai. Kazetaritza ez zen, artean, ogibide eta horixe da eskatzen dena: hortik bizitzerik ahal izatea: "*profesionalizazioa planteatzen hastea da posible bakarrik*" dio Joan Mari Torrealdai<sup>7</sup>, eta jarraian, "*euskal kazetaritzaren eskola baten beharra*" proposatzen du, nahiz eta gerora ere egia hutsa izaten jarraituko duen hau azpimarratuz, alegia "*borondate oneko kazetaritarik gabe funtziona dezakeenik*" sineskaitza dela.<sup>8</sup>

Profesionalizatzeko bidea zein ote, ordea? L. A. Aranbarririk aitortuta, bat da euskal prentsa ezagunenean ari direnek proposatzen dutena: "*Bada bide bat agian zuhurragoa, egiazko euskal kazetaritza batera iritsi nahi lukeena baina orain ditugun aldizkarietz baliatuz. Kazetariak -eta tituludunak badira hainbat hobe- behar beharrezkoak dira, eta horiei apurka apurka toki egin behar zaie dagoeneko martxan dauden erredakzioetan, eta horien soldatak ordaintzeko autofinantziazio-bideak epeka lortzen*

---

<sup>6</sup> Aranbarri, L.A. (Amatiño) Euskal kazetaritzaren inguruan, Zeruko Argia 1976-II-1.

<sup>7</sup> "1976-Kirikiñoa", Zeruko Argia, 1976-XII-5.

<sup>8</sup> Ikus, berdin, Torrealdai, Joan Mari, Euskera, XXII, ob. aip. 1976-II-27an irakurria.

*ihardun, Hau da, Anaitasuna eta Zeruko Argian aldizkarietan lanean ari den jendearen bata besteko iritzi nagusia".<sup>9</sup> Izan ere, Espainia aldean eta Euskal Herri barruan biderkatzen hasi ziren aldizkariaren bidea segitzea proposatu zuen halako batean Joan Altzibarrek, egiatan Joan Mari Torrealdai,<sup>10</sup> eta P. Kortabarriak (egiatan Paulo Agirrebaltzategik) honela arrapostu zion: "ez dut uste Espainiako aldizkari berriok eredutzat hartuz egin behar ditugunik geure ametsak (...) geure aldizkarietan bilatu behar konponbideak (...) geure aldizkari zaharretan finkatuz euskal aldizkarigintzaren bideak urratuz joan behar dugu...Baina gure aldizkari zaharren giroa, itsusia, hestua, garratza, pobrea eta txikia da".<sup>11</sup>*

Amatiño Torrealdai baino mesfidatiago agertzen da, orduan eta gerora, "borondate oneko kazetaritzaz". Ikastolekin konparatuz honelaxe idazten zuen: "Gurasoei ez die, jakina inork meriturik kenduko, baina irakasleen bokazio handiak eta esijentzia txikiak egin dute posible neurri handi batetan, ikastolen hazkundea. Era berean, euskal kazetari amateurrei hutsaren truke lan egitea tokatu zaie eta orain agertzen ari zaizkigun tituludunei, berriz, zuhur eta eskabide gutiz jokatzeko histori-unea. Heroeak izan behar ote diren (hainbat irakasle izan da) ez dut nik esango; baina halako goi pedestal batez euskal kazetaritza (euskarazkoa bederen) salbatzera datorrenak laster hartuko du matraileko bat edo beste".<sup>12</sup>

Dena dela ez zuen uste Amatiñok garai hartan, kazeta horiek, mekanikoki, itxuraz eta mamiz hobetzea zeukatenik, irakurleagoak alfabetatu ahala izan zezakeen

---

<sup>9</sup> Amatiño, Zeruko Argia, 1976-II-1

<sup>10</sup> Anaitasuna. 1974-XII-15/278 zb.

<sup>11</sup> Anaitasuna, 1974-XII-31.

<sup>12</sup> Amatiño, Zeruko Argia, 1976-II-1

gorakadaz, profesionalizazioaz baizik. Hori da garaiko hitz majikoa: profesionalizazioa. Garaiko inpresioa da, pausuak ematen hasteko *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak* elkarren arteko osagarri beharko luketela izan, halako "programazio bateratu" baten bidez edota, agian, Gipuzkoakoa (ZA) albiste mailakoa zen bitartean Bizkaialdekoa (A) saio mailan sakontzeko utziz. Ez bata ez bestea gauzatu zen.

#### 4.1.1.1. Euskal kazetaritza, euskaraz

Une horretan, baina, badago adostasun minimo bat idazle-kazetarion artean: euskal kazetaritza, izatekotan, euskaraz izango da. Amatiñoren hitzetan esateko, *"euskal kazetaritzaren hauzia erdaraz konponduko denik ez dut uste"*.<sup>13</sup> Areago, erdarazko kazeta abertzaleak badatozela eta, hauxe aitortzen du *Zeruko Argiak* editoriale batetan: *"Euskal kazetaritza ahultzeko eta zapuzteko bide bilakatzen den erdal aldizkaririk 'euskaldunena' ere ez bait daiteke onar"*.<sup>14</sup> *Zeruko Argiak* ez zien bizitzeko eskubiderik ukatzen *"euskal ikuspegizko erdarazko komunikabideei"*, kondizioz baina: *"behar beharrezkoak bakarrik sor ditzagula. Taldekeriak eta alderdikeriak ez ditzala euskararen galeran gehiegi ugal"*.<sup>15</sup>

Igerle bilakatu zen Amatiño, aldizkari horiek eginda ere gerta litekeen giroaz: *"...orain arteko euskara hutsezko aldizkariak nahiko deuseztaturik eta ahuldurik geratuko*

---

<sup>13</sup> Ibid.

<sup>14</sup> *Zeruko Argia*, 1976-II-8.

<sup>15</sup> *Zeruko Argia*, 1976-VIII-22.

*lirateke (...) bertako euskarazko prentsak ez luke, agian, konpetentzia hori aguantatuko" .*

16

Une hartan euskal kazetaritzak ezagutzen zuen beste ajea euskararekin berarekin dago: *"hizkuntza periodistikoa eta estilo periodistikoa falta zaigu"* dio Torrealdaik euskararen tradizioa olerkitik eta saiakeratik zetorrela/datorrela ikusirik. <sup>17</sup>

Azpimarratu ordea: aldizkari hauek, irakurlegorik ezaz, irakurlego alfabetatu gabeaz, azpiegitura eskasez, inolako profesionaltasunik gabe izanik ere, sekulako balio erantsia dute. *"Legez eta bidezkoa da esatea, dio X. Aranburuk , Euskal Herriko dardarak eta zalantzak ezagutu nahi duenak, euskal astekarietan bilatu behar dituela"* .<sup>18</sup>

#### 4.1.1.2. Astekarien ordua

Aipatzen den urtemuga hartan hitzegin hitzegiten zen euskal egunkariari buruz, bainan inork gutxik sinisten zuen ordua joa zenik. Astekarien ordua zelakoan zegoen gehiengoa:goizegi da, zioten.

Aurreko urtetik zabaldua zen norbait egunkari bat egitekotan zebilela edo. "Egunkari bat euskaraz?" titulupean artikulua bat agertzen da *Anaitasunan*. Han, Jon Altzibarrek egunerokoarekin *"jauzi ikaragarria"* egiten dela eta, hiru galdera egin zituen:

---

<sup>16</sup> Ibid.

<sup>17</sup> Torrealdai, Euskera, ob. aip.

<sup>18</sup> Aranburu, Xabier, "Euskara erdal egunkarietan", Euskara, XXII, 1977, 68 or.

diru jartzaileak nortzu, proiektu antolatzaileak nortzu eta kazetariak nortzu diren eman dadila aditzera eskatuz. Eta amaitzen du funtsezko gogoeta batekin: *"egiazko egunerokoa izango den egunkari bat nahi dugu. Ez egunkari itxurazko egutegi bat"*.<sup>19</sup>

Amatiñok ez du sinisten: *"Oraingoz benetako taxuzko egunkari bat ez da posible Euskal Herrian. Ez dagoke ez kapital, ez kazetari, ez irakurlego, ez estatu ezta batasunik ere. Oraindik orain AGUR astekaria isildu delarik egunkari batek nola iraun dezakeen sinistea zaila da, gero. Lujo handiegia litzateke eta arriskugarria gainera, berehala poto egiteko arriskua, Euskal Herri guztiak egundainoko erridikulua eginez"*.<sup>20</sup>

Torreldaik ere ez: *"Goiz da egunkari batentzako. Zoritxarrez goiz. Astekarien ordua da gurea. Orain arte ezinean, boluntarismoan, eta amateurismoan ibili garen mundu horretantxe, urrats bat gehiago egin behar dugu"*.<sup>21</sup>

Ez eta Mikel Atxagak ere: *"Itxurazko euskal aldizkariak egiteko hainbat irakurle eta kazetari sorturik da dagoeneko. Astekarien orduak jo digu. Erdarazkoen inbiririk gabeko astekariak egiteko garaia iritxi zaigu. Eta bidebatez, euskal egunkari bat egiteko urratsa eman behar dugu poliki-poliki"*.<sup>22</sup>

Esan daiteke, garai hartan gradualismoan sinisten zela. Giroa ez zegoela jauzi handirik ematen hasteko. Torreldaik, bere aldetik, aipu hau egin zuen, hura ere profetikoa, Bernardo Arrizabalaga euskalherriratu berriaren hitzak jasoz: *"Euskal egunkari batek euskal*

---

<sup>19</sup> Altzibar, Jon, Egunkari bat euskaraz?, Anaitasuna, 1975-X-15.

<sup>20</sup> Zeruko Argia, 1976-I-1.

<sup>21</sup> Torreldaik, Euskera, ob. aip. 61 or.

<sup>22</sup> Atxaga, Mikel, Komunikabideen beharra, Euskera, XXII, 1977, 57 or.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

*telebistaren eta irratiairen atzetik etorri behar luke, mass media handi hauen bidez euskara hedatu eta gero".* <sup>23</sup>

*Zeruko Argian ere ez da horretan sinisten. Hauxe dio 'Herrialdek': "...egunkari bat ateratzeko goizegi dela uste dugu. Euskal Kazetagitza heldu gabea dagoela uste dugu urrats hori emateko. Oraingoz astekari onak egitea nahikoa dugula iruditzen zaigu".* <sup>24</sup>

Gauzak berdintsu planteiatzen ziren Deustuako Unibertsitatean euskal komunikabideei buruz egindako mahainguru batean: "*mementu honetan ez luke mereziko euskara hutsezko kazetarik sortzerik*" <sup>25</sup> zioten Joxerramun Belokik eta Luis Mari Mendizabalek, euskal prentsaren profesionaltasunik eza eta azpiegitura falta azpimarratu eta gero. Gexan Lantzirik, berriz, bat/gehiago arazoa ekarri zuen: "*ideia bera sailean egonez, ez zait iruditzen ere Euskal Herri guzira on liteken astekari bat egin eta egunkari bat bihar egiten ahal denik.*" <sup>26</sup> Amatiñok euskal aldizkarien arteko koordinazio-beharra azaldu zuen.

Zertan zen, egiatan, zurrumurru bilakatua zen euskal egunkari haren xede hura? Deus guttitan. "*Aritz*" deitu Elkarte bat sortu zen, Manu Oñatibia buru eta Joxe Murua buruorde zirela "*Erria*" izeneko egunkari bat argitaratzeko. Zuzendari izateko Santiago Aizarna zuten aukeratua.

Zurrumuruak zurrumurru Elkarteko "Idazkariak" "*aldizkarietan argitaratzeko erreguz*" ohar bat kaleratu zuen "Erria egunorokoa gure izkuntzan" non hauxe zioen: "*guk*

---

<sup>23</sup> Torrealdaik aipatua, in Euskera ob.aip. 61 or.

<sup>24</sup> Zeruko Argia, 16-VIII-22.

<sup>25</sup> Zeruko Argia, 1976-II-15.

<sup>26</sup> Lantziri, Gexan, Iparraldeko aldizkariet bi gogoeta, Zeruko Argia, 1976-VI-13/692 zb.

*ere, egunoro, orduoro ari bearra dugu gertatuak eta gertatzekoak euskeraz jaso ta zabaltzen. Bear orren lagungarri datorkigu ORAIN aspalditik galerazia genduan aukera, eta Euskeraz egindako EGUNOROKO bat argitara eman dezakegu laister.(...) Baiña gero oberik izango den amets antzuan, ORAIN eta EMEN eskeintzen zaigun aukerari muzin egitea, GAUR egin daitekean Euskerazko egunoroko bakarrari muzin egitea da. GAUR, beraz, guztion artean egin dezagun gaurkoz egin dezakegun euskal egunkaria: "Erria", amasei orrialdeak Euskeraz lituzkeena".<sup>27</sup>*

Lau zenbaki geroago, "Herraldek", Santiago Aizarnari elkarrizketa egin zion berberak gogor arbuiatzen du ideia, 'goizegi delako, Euskal astekari zaharrena HERRIA dugu eta izen berdineko egunkari bat ez dezakegulako onar, Euskal Herri osoari begira egiten den egunkari batean euskara batuak izan behar duelako nagusi". Beraz, ondorioz, "Euskal egunkari bati laguntzeko prest gaude baina ez Erria egunkariari".<sup>28</sup>

Edozelan ere asmo hura ez zen mamitu. Manu Oñatibiarekin mintzatzeko parada izan dut eta honoko hau aitortu dit: "Guk beti euskara izan degu elburu. Euskera, euskera eta euskera. Eta ikusten gendun emengo mezubide guztietan, bai izparringietan, bai irratietan bai alde guztietan, erdara besterik etzala. Eta jendeari euskera irakasteko eta euskerak duan sena barruan sartuarazteko biderik egokiena izparringi bat zala. Eta bildu egiten ginen halaxe, askotan, badakizu Euskerazaleak eta beste, artian Euskerazaintza sortu gabe zegoen eta. Bildu ginen behin Donostian, Joxe Luis Iriarte, Joxe Murua, nere anaia Jon, gero zuzendari izateko aukeratua izan zen Santi Aizarna eta ni(...). Guk hemen genittun gure lagunak eta gure adiskideak zehaztu eta ikusi gendun gu ez ginela naiko.

---

<sup>27</sup> Zeruko Argia, 1976-V-30.

<sup>28</sup> Goiz Argi, 1976-VI-12; Zeruko Argia, 1976-VI-27.

*Ondoren Bizkaiko Euskerazaleetara jo gendun. Hara joan ta oso lagun onak genittun batez ere Iñaki Zubiri ta Agustin Zubikarai ta... Bildu ta esan ziguten, hara hau gure ustez diru aldetikan arazo oso larria da ta guk hemen Blboko dirudun jendea bilduko dugu; zuek ona etorri zaitezte, ta halaxe, Euskarazalenean bildu ginen. Batzuk ezagutzen nittun, Xabin Zubiri esate baterako; besteak ez dittut gogoan. Joxe Luix Iriarte eta biok joan ginen, gure asmoa zer zen adierazteko. Joxe Luixek azaldu zuan arazoa. Nik begiratzen nittun ta "bai, bai, oso ondo, oso ondo" esaten zuten baina argi eta garbi ikusten zuten garai artan euskera hutsez egindako egunkari bat eziña zala. Argi ta garbi ikusi nuan nik handik dirulaguntzarik ez genula izango. Beak egunkari baten bearra, ta euskera kutsuko ta euskal sena duan egunkari baten bearra ikusten zuten. Eta haiek berak andik oso denbora gutxira 'Deia' atea zuten. Ori ikusita, guk soziedadea sortuta gendun, Aritz izenekoa, Consejo de Administración ta dena sortu zan, eskriturak eta denak eginak, pentsatu gendun,' guk orain zer egin bear degu' ta olaxe jendeak atzera egin zun".<sup>29</sup>*

Ez zebiltzan hain oker *Anaitasunakoak*, 1976ko udazkenean, honoko hau esatean: *"euskal egunkariak , entzun dugunez, pot egin du, jaio orduko egin ere. Han eta hemen esan zigutenaz baliaturik bagenekien oso aurrera zihoala asmo eta proiektu hori. Baina nonbait haseran uste zen baino diru gehiago behar edo".* Ez hain aurrera, ikusten denez.

---

<sup>29</sup> 1992.eko Otsailaren 24an Zarautzko bere etxean neuk grabaturiko elkarrizketa. Santiago Aizarna DVko kazetariaren ustez M. Oñatibia da egunkari-proiektu hari buruz gehien dakiena. Eskerrak bioi.

Amatiñok, bere "Bulebar irekian" sailean halako hordagoa mahairatu zuen, ondoko hau esatean: *"euskal egunkaria ere berehalakoan izango omen dugu. Izango badugu, itxura denez dirurik badagoelako izango da, jakina. Eta dirurik badago zergatik ez erdarazko egunkari abertzale bat egin?"*<sup>30</sup> 'Proposamen' ala 'kuriostate huts', galdera horrek erantzun zuzena izan zuela erakusten du historiak, sortu erdarazko bi egunkari abertzale sortu bait ziren: *Deia* eta *Egin*.

Kazetari berak esana zuen aste pare bat lehenago: *"...euskal kazetaritzaren hauzia arrazoi sozio-politikoetan oinarriturik dago"*.<sup>31</sup> Eta egoera politikoa elebitasunean finkatuta zegoen; edo behintzat, ez euskal elebakartasunean. Hau da, erdararen nagusitasunean zeuzkan begiak.

#### 4.1.2. Elebitasuna, salbatzaile

Garai politiko berriak, hizkuntz-politika berria zekarren derrigorrez. Gatazkaren alde garrantzizko bat hizkuntzarekin lotuta bait zegoen Euskal Herrian. Hizkuntz-politika berria *elebitasuna* deitzen da. Hizkuntz-pluralismoa agertzen zen egokien euskara salbabidean jartzeko. Elebitasunaren bidea da, garai eta mailako, eskakizun gorena, politikarien artean eta euskal prentsan ere bai.

---

<sup>30</sup> Zeruko Argia, 1976-III-28.

<sup>31</sup> Zeruko Argia, 1976-II-1.

Hiru agiri ekarriko ditut orrialdeotara garaiko giroa erakusteko: Bizkaialdekoa lehena, zeinean *Anaitasunak* ere jarri zuen bere sinadura, KAS erakundearena bigarrena eta amaitzeko "Kimu Berri" izenez ezagutua izan zena.

Bizkaialdean 'Euskarari buruzko ageria' plazaratu zuten herrialde hartako Profesional Elkarte eta Hauzo Elkarte askoren sinaduraz. "Gure Aukera" deitu atalean honela esaten da: *"Euskal Herriak bere hizkuntza adierazpen-komunikabiderako tresna bezala erabiltzeko berreskura dezan, elebitasuna lehen pausotzat jotzen dugu"*.<sup>32</sup>

Administrazio, komunikabide eta hezkuntzarako eskatzen da ofizialtasuna euskararentzat. Komunikabideei dagokien mailan, *"tratu-berdintasuna ematea"* esijitzen da.

KAS erakundea,<sup>33</sup> *"Euskal Herriko hizkuntz egoera"* deitu agirian elebitasunaz aritu zen: *"euskarari lehentasunezko sarbide progresiboa emanen dion politika baten ezinbesteko beharra"* aldarrikatzen da eta *"gaurtik hasita"*, esaten da, zenbait neurri proposatzen, hala nola komunikabideei buruz: *"maila guztietan, euskarak erdarak adina denbora eta leku eduki dezala"*, horretarako urrats hauek proposatuz: *"komunikabide maila guztietan euskararen ofizialkidetasuna ezarri. Euskal Herrian sortuko diren euskarazko zenbait aldizkari, errebista eta abarrei laguntza ofiziala ematea"*. Bakoitzak bere erakunde

---

<sup>32</sup> Anaitasuna, 1976-VI-15.

<sup>33</sup> Anaitasuna, 1976-XII-15

barruan 'elebitasunari' ekin diezaion eskatzen du orduko KASek. Ez gehiago. Ez eta guttiago ere!

*"Kimu Berri"* taldeak Euskal Autonomi Estatutu berrirako idatzi proiektuan <sup>34</sup> ez da maila hau gainditzen. Euskararentzat *lehentasunezko tratua* eskatzen da eta *jokabide planifikatua* Euskal Herriko biztanleria euskalduntzeko. *"Euskal komunikabideei, ditugunei eta sortuko direnei, euskara erabiltzen duten heinean diru laguntza ematea esijitzen dugu"*, dio agiriak.

Donostian 1977-I-22an egin euskararen aldeko manifestazioan, indar politikoen planteamenduetatik aparte, kultur ekintzaren autonomian egina berau, bi helburu azaltzen dira, bata *"euskara koofizialtasun bidean jartzea"*, bestea *"estatuari esatea 1977an, euskal kulturaren zertan inbertitu dezakeen"*. Koofizialtasuna esatea elebitasuna esatea da, noski: *"maila guztietakoa da, edo alderantziz ez da deusik"*. <sup>34</sup> Komunikabideetan euskarari sarrera ematea esijitzen da. *"Gaurdanik"* baina sarrera. *"Euskal Herrian, dio Zeruko Argiak "Euskadin euskaraz" editorialean, egiten ari diren komunikabide eta elkarteek jaso behar dute estatuaren diru laguntza"*. <sup>35</sup>

Ez da batere harritzekoa, giro honetan, komunikabide mailan ere halako ospe berezia izatea elebitasunak. Hasieratik, ikusi zen, hala ere bide horren arriskua. Arazoa da

---

<sup>34</sup> Anaitasuna, 1977-III-1

<sup>34</sup> Anaitasuna, 1977-I-15

<sup>35</sup> Zeruko Argia, 1977-VII-10

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

euskarazko *newsmagazine* moetako (modan zeudenak alegia) aldizkari bat bera ere ez dela gauzatzen.

Sortzen direnak denak dira elebikoak. 1976an sortzen dira *Punto y Hora* eta *Garaia*, 1977an *Berriak*, 1979an *Ere* eta *Euzkadi* eta beste hainbeste bidean geratu ziren.

Bapo justifikatu zuen bakoitzak irteeraren beharra. Honela idazten du, adibidez, Xabier Letek *Garaia*ri buruz: "*Euskal Herrian bertan euskaraz ez dakien jende asko dago eta bestetik beharrezko zen euskal arazoa kanpora begira enfokatzea ere. Bi premia horiei erantzunaz aukeratua du Garaiak gaztelania espresio tresna bezala; ez du euskararik inundik ere ukatzen, jakina; baina euskal aldizkariak hor daudela kontutan hartuz, ez du bere lana euskaraz nahi izan, alor hori jorratuta bait dago. Hala ere, zenbaitetan elebitasuna erabiliko da, eta batez ere, euskara hizkuntzaren iraute eta indartzearen nondik norakoak aztertuko".<sup>36</sup>*

Mirentxu Purroyk, berriz, hauxe, berak zuzentzen duen *Punto y Horari* buruz "euskal planteamenduz" sortu zen lehen erdarazko aldizkari profesionalari buruz alegia: "*guk badakigu euskarazko aldizkari bat egiten badugu, irakurleko murriztu batengana baino ez garela iritsiko; gauza hedatuagorik egin nahi izan dugu.(...) Irakurlegoari dagokionez, gure asmoa idazlan guttitik hastea izan da, gero irakurleak eskatzen duen neurrian gehituz".<sup>37</sup>*

---

<sup>36</sup> Zeruko Argia, 1976-VII-25.

<sup>37</sup> Ibid.

Euskarazko prentsatik gauzak beste erabatera ikusten dira. Etsai objetibotzat jotzen dira aldizkari hauek (eta egunkariak ere bai). Eta hori hasieratik, duda-muda batzuk salbu.

*"Euskal prentsa -dio Joan Altzibarrek "Euskal prentsa euskaraz" artikuluan- ez ote da izango Euskal Herrian aterako den prentsaren 'parent pauvre', etxekorik pobreena? Zeren eta, hemen hartu dugun perspektibatik nork ez du ikusten erdal prentsa abertzalea bera ere euskal prentsaren kaltetan izan daitekeela?".<sup>38</sup>*

Kalte hori, lehenengoz irakurlegoa lapurtzean datza, ohitura ezan alfabetatze maila urrian oinarriturik: *"Ez da batere segurua erdal errebistek ez ote dioten euskarazkoei irakurleak lapurtuko. Bai baitakigu euskaldunaren alfabetatze-maila nolakoa den. Beldur izateko modukoa da gerta daitekeena. Euskaldunari asko kostatzen zaio euskaraz irakurtzea. Bata bestearen ondoan euskarazko eta erdarazko testua jarririk, erdarazkoa irakurri ohi dela behin baino gehiagotan entzun dugu. Ohiturarik ezari eta zailtasunari motibazioa eta arrazoia kentzen badiogu, erdarak eramango du lehoiaren parte, lehendik ez balu bezala. Euskal prentsari publikoa kentzea ez da txantxetakoa".<sup>39</sup>*

Irakurlegoaz aparte kazetariak kentzen zaizkio euskal prentsari. Ez zen, bada esaten, euskaldunak kazetari kaxkarrak zirela?: *"eta euskal kazetariak, euskal idazleak? Ezagunagoak izateko, gehiago irabazteko, eta beste mila erraztasunengatik ez ote dute erdarara joko, euskarazkoa astia dutenerako utziz? Harritzen naiz Garaiako plantillan hainbeste euskal idazle, eta hain zuzen euskal aldizkarietan lan egiten dutenak, ikusiz.*

---

<sup>38</sup> Anaitasuna, 1976-IX. (zenbaki honek ez darama egun-datarik)

<sup>39</sup> Ibíd.

*Jende berria bilatzeko ahalegin gehixeago egitekoa eskertzekoa litzateke. Euskal kazetaritza kazetarien premia gorrian aurkitzen denean, adarra jotzea dirudi euskal idazleak erdaraz idaztera bultzatzea. Erdaraz idazteko besterik ez balego bezala".* <sup>40</sup>

Hirugarren kaltea publizitatea: *"Euskal prentsari, merkatuko ez diren arrazoiengatik (abertzaletasuna eta izen ona) gehienbat benetan atxekia ez den publizitate-emaileak, abertzale izan arren erdal prentsa dena lagunduko du".* Beraz eta benetan, dio Altzibarrek: *"Euskal prentsa euskaraz dela, aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkatzen du".* <sup>41</sup>

Objetiboki. Azterketa hau urteren buruan bete egin da, erdararen premia ukatu gabe: *"Erdararen beharrik ez dugu ukatzen, segitzen zuen Altzibarrek, Euskal prentsak, orain oraingoz, eta gauzak aldatzen ez diren bitartean, eta gauza horik aldatzeko ere, erdararen premiaz onharu behar du. Erdara behar da hemengo erdaldunak euskalduntzeko, kontzientziazteko. Beharrezko da erdara kanpora begira lana egiteko ere. Baina gure artean erdaraz agertzen diren aldizkariok argi eta garbi esan beharko dute euskal prentsa zer jokabide hartzen duten, nola lagunduko dioten, zeren eta euskal prentsak laguntza behar du. Zeintzuri kenduko dizkiote irakurleak aldizkari hauek, Cambio 16 eta holakoei bakarrik eta euskarazkoei ere bai?".* <sup>42</sup>

Urte batzu geroago Joxe Azurmendik honela esplikatu du kompetentziaren fenomenoaren ARGIAren milagarren zenbakian: *"Gogora dezagun 1963an itxura berrikoa egin zitzaigunez gero, 1975era arte, ARGIAk bere espazio politiko-kultural jakina zeukan*

---

40 Ibid.

41 Ibid.

42 Ibid.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

*Euskal Herrian informazio kritiko eta abertzale gisa. Konpetenziarik ez zeukan. Justu espazio horixe okupatzera sartu bait zen Franco hil ondoan, prentsa vaska berria burrunban. Euskarak (ez diot ARGIAk) ez zeukan erdal prentsarekin maila horretan konpetitzerik".* <sup>43</sup>

Luis Mari Mujikak, bere aldetik, "Garaia-ren geroko Geroaren erredentismoa" argitaratu zuen. Erdararen beharra ukatu gabe hau ere "*gaurko errealitate erdaldunak - erdarafonoak- eskatzen du gure informaketa erdaraz ere nahi eta nahi ez eman behar dela, jende horri gure nazional arazoetara bihurtzeko*", guztiz baztertzen du aldizkari elebikoen jokabidea "*euskararen erreibindikazio eta praxia gaur gaurtik hasi behar da, gerora uzteak sorpresak ekar ditzake eta. Burruka gaurtik, ez bihartik*". <sup>44</sup>

Xede hau bete-betean asmatu du ARGIAk Euskaldunon Egunkaria kalera orduko, 1991az geroztik beretzat hartu duen slogana asmatzerakoan: "*Euskal prentsa gaurtik*", alegia

Zehatzago hau eskatzen zuen Mujikak, elebitasunaren hildoa onartuz: "*Ez, ez dut eskatzen Garaia eta PyH euskara hutsean ateratzea; ezta erdia ere, askoz ere posibilistagoa naiz. Nik eskatzen dudana da gutienez % 30 bat euskaraz idatzia egon beharko lukeela, 'euskal politik astekaria' deitzeko*". <sup>45</sup>

---

<sup>43</sup> Argia, 1984-I-14.

<sup>44</sup> Anaitasuna, 1976-IX. (egun-datarik gabe)

<sup>45</sup> Ibid.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Xabier Kintana, artean *Anaitasunako* kide ezagunenetakoa, (sarri, J. Armendaritz izenpean) "Erdarazko euskal aldizkarien inguruan" idazlanean <sup>46</sup> elebitasunean oinarrituz halako portzentai-neurria ematen saiatzen zen, Mujikak ematen zuen berbera: "*gaurko egoera soziolinguistikoa kontutan harturik, euskarari holako aldizkarietan % 30 bat eman beharko litzaioke, irakurleak gure hizkuntza ikastera pixkanka bultzatuz*". Eta publizitatea lapurtzea gaitzesten: "*konkurrentzia oportunistak eta diglosikotzat hartu behar dugu euskaldunok agerkari berriok geure orain arteko euskal aldizkariak egiten diotena*". Beraz, etsai objektibotzat ditu.

1977an *Deia* (ekainean) eta *Egin* (irailean) sortu ziren, aldizkariak baino inpakto gehiago eginik, konpetentzia latzagoa ezarriz maila guztietan: irakurlegoa, publizitatea, kazetariak. 1978rako, berriz, nabarmena da euskaldunen artean, formula honen porrota, eta darraion etsipena. Amatiñok berak honela aitortu zion "*Euzkadiri*": "*1979an Deia*ko zuzendariari luzatu nion txostenean zera esaten nuen, euskarak ez zuela luzera ganorazko eta duintasunezko etorkizunik erdarazko egunkarietan". <sup>47</sup>

Aldizkariekin bezala, egunkariekin ere pittin bat liluraturik ibili ziren euskal prentsaren inguruan zebiltzanak. Urtetako elebitasunaren ospearen marka dudarik gabe. Donato Unanue, ZAtik sartu zen *Egin* editatzen duen enpresara (ORAIN,SA)-ra. Lotura berezirik gabe bi medioen artean, baina, honelaxe zioen 'Herrialderi' emandako elkarrizketan: "*Zeruko Argia eta ORAIN ez dira arbola baten bi adar, bakoitza bere*

---

<sup>46</sup> Anaitasuna, 1976-IX-15.

<sup>47</sup> Ikus Argia, 1986-X-12, bertan bait dator aipu hori.

*buruaren jabe da(...) Zeruko Argian lanean ihardun ez banu ez nintzen egunkari bat egiteko asmotan ibiliko. (...) Egunkari baten premiaz askotan mintzatu gara ZAko langileok".*<sup>48</sup>

Ibili bai, baina, antza, konfidantza guttitxo euskal prentsaren posibilitateetan: *"Oraingoz gehienik gaztelaniaz (izango da Egin). Erabat euskaraz izango den egunkari batean egiten dugu amets. Hori bilaka dadin saiatuko gara. Oraingoz ahal den gehiena sartuko dugu euskara. Edozein orritan, sartuko dugu edozer gaitan. Euskarak gai guztiak landu behar ditu".*<sup>49</sup>

#### 4.1.3. Etsipena eta erreakzioa

Kalera bezain pronto gezurrezkotzat hartzen da aldarrikaturiko egunkari abertzaleen asmo hura ere, zeren bete behintzat ez bait zen bete egiten. "Egin atera da" izeneko 'laburrean' hauxe zioen Zeruko Argiak: *"baina harritu gaituena hauxe izan da: euskara benetan gutxi azaldu da lehen zenbaki hauetan... ez ote dago ekilibrio hoberik iristerik?"*.<sup>50</sup>

---

<sup>48</sup> Zeruko Argia, 1977-I-16. Garai hartako kazetari batek, Estepan Aldamiz-Etxebarriak (egun ETBn) oraintsu konfirmatu ditu orduko solas haiek: *"Inoiz behin... garai hartako Zeruko Argian, maiz asko hitzegiten genuen orduan erabat ametsen munduan zegoen euskarazko egunkariaz"*, Eguna, 1990-III-23.

<sup>49</sup> Zeruko Argia, 1977-X-12

<sup>50</sup> Zeruko Argia 1977-X-9.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

"Endikak izeneko batek, "Prensa berri bateko garaia" delako idazlanean, <sup>51</sup> euskal prentsak, aldizkariak eta egunkari biak kaleratzearekin, jaso duten egurra eta iraina azpimarratzen du. Euskal prentsa galbidean jarria bait zegoen.

"*Garaia*" eta '*Berriak*' urte baten buruan desagertu ziren. Lehena, 1976ko maiatzean sortua, arazo ekonomiko eta Idazleen Kontseiluko urradurak zirela medio. <sup>52</sup> 1977.eko apirilean; bigarrena, 1976.eko irailean sortua, salmentak ihes eginik 1977.eko ekainean.

Beraz, *Deia* eta *Egin* sortzen direnerako, profesionalismoaren izenean sortutako hiru aldizkarietatik *PyH* bakarrik zegoen zutik.

Praktikan euskarari eman zioten lekuari buruz hauxe zioen Siadecok: "*han concedido muy poco espacio al euskera. Para ser bilingües su comportamiento no llega al mínimo(..)En la mayoría de sus números no han llegado al 10 %*". <sup>53</sup> .

Urtea amaitu baino lehen oso artikulua garrantza idatzi zuen Paulo Agirrebaltzategik *Anaitasunan* "Anaitasunan idatzi euskal kazetariari buruz" izenburupean. Aipatu idazleak (EKBko lehendakari geroztik) hiru krisialditan aztertzen du euskal prentsa eta hiruretan *garaile* atera dela dio: ofizialismoaren garaian eutsiz, erresistentziaz; profesionalismoaren garaian, anaia pobrearen burruka eginez; errealismoaren garaian testigantzaren indarra erakutsiz, beti euskaraz arituz alegia. "*Euskararen egoera politikoa, ekonomikoa eta sozio-kulturala anormalak izan ziren ofizialismoaren garaian, anormala*

---

<sup>51</sup> Zeruko Argia, 1977-XI-13.

<sup>52</sup> Ikus Siadeco, "Estudio Sociolingüístico del euskara, Ila parte. El euskara en las editoriales y revistas", 1977, 130 or.

<sup>53</sup> Ibid.

*izan dira profesionalismoaren garaian eta anormalak dira errealismoaren garaian. Horregatik, anormaltasun hori etengabe salhatuz gainditzen saiatzen dira euskarazko astekariak eta euskarazko beste astekariak.* <sup>54</sup>

Euskarazko prentsak iraun bai iraun zuen baina *"inoiz baino bakartiago eta txikiago gelditu"* ere bai, dio Agirebaltzategik. Susma zitezkeen arrisku guztiek bete-betean kolpatu bait zuten beronen egitura ahulean.

Honek ez du esan nahi euskarazko aldizkari berriak sortzen ez zirenik. Izan ere 1977koak dira "Ustela" serieko *Mermelada, Panpina* eta *Zorion* bai eta *Ipurbeltz*. Garai horretakoa *Zehatz* eta *Elhuyar*. 1976koa *Jakinen* birkaleratzea. *"Aldizkari ez ofizialen loratze-urtea"* dela dio Zeruko Argiak <sup>55</sup> euskararen aberastasunaren seinale seguruenik. Berrito esateko, baina, ez dira aldizkari-aldizkari informatibo berriak gauzatzen euskaraz.

*Deia* eta *Egin*, une egokiaren haizealdea hartuz gaur arte etorri dira, elebitasunaren bideari utzi gabe, nahiz eta kontraesanez beteta. Baina une hartan, etsipena nagusitu zenean (euskaltzaleak bakarrik hunkitu zituen, jakina) bide zahar-berrian segitzearen erabakia hartzen du euskal prentsak bere orokortasunean eta bere txikitasunean beherago esplikatuko dudanez.

Elebitasunaren esperientzia ez da erabat amaitu. Gutxi asko zenbait aldizkarik euskarazko presentzia erakusten du. Presentzia hori era askotara antolatu izan da: albistek

---

<sup>54</sup> Anaitasuna, 1977-XII-1.

<sup>55</sup> Ikus Zeruko Argia, 1978-I-1/8.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

zenbait txokotan barreiatuz, sail edo sekzio jakin batetara mugatuz adibidez kulturara, edota albiste-moeta batzutarako, hots herri kiroletarako edo erlijio gaietarako, euskararekin zerikusia dutenentzat etab. albiste laburren zutabeak osatuz, zenbait albisteren hasieran euskal laburpena eginik, *leada*, edota sumarioren bat euskaratuz, zenbait orrialdetako enkarteak eginik, hau da "egunkaria egunkariaren barruan" formula erabiliz hala nola *La Voz de Euskadiren* "Orria", *Eginek* "EGUNON", eta "A ze astelehena", *Navarra Hoyk* "Nafarroa Gaur", *El Correo español-El Pueblo Vascok* "El Correo escolar-Asterokoa", *Diario Vascok* "Zabalik.". Egun, azken honek bakarrik dirau.

Prensa elebidunak edo bilingualak erabiltzen duen bidean kriterioak falta dira, erizpide zehatzak halajaina, zeren biztanlegoaren % 25a edo 30a euskalduna izateak ez du inolako pautarik ematen proportzio hori aplikatzeko prentsan nahiz eta besterik eritzi Mujikak <sup>56</sup> eta Madrileko Ministeritzak -berdin baina alderantziz- Zeruko Argiari 1960ean erdaraz egin zezan esijitu zionean % 30a aplikatzea eskatu zion. <sup>57</sup> Xabier Kintanak egunkariak bilingualak izateko euskaraz % 40-50a esijitzen zuen. Eta ondorioz karakter hori ez zion ezagutzen *Deia* eta *Egini*: "ez dira sekula izan" baieztapen borobilez. <sup>58</sup>

Konklusio berdina ateratzen zuen Txelis Alvarez Santacristinak "*Euskal komunikabideen lotsa: erdaldunak ditugu nagusiki*" zioenean. <sup>59</sup> EKBk berak "*ez dago prentsa elebidun osorik gure artean*" idazten zuen. <sup>60</sup> Izan ere dena delako euskaldunen ehuneko horrek informazio osoa euskaraz hartzeko eskubidea bait du.

---

<sup>56</sup> Anaitasuna, 1976-IX.(egun-datarik gabe)

<sup>57</sup> Zeruko Argia, 1978-IX-24. A. Ezeizak, Elixabete Garmendiak egin elkarriketan.

<sup>58</sup> Anaitasuna, 1978-III-1/15

<sup>59</sup> Egin, 1981-II-6.

<sup>60</sup> Jakin, 1985, 3 zb. 119 or.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

Aspaldion ez, baina hamarkadaren hasieran maiz neurtzen zen egunkariak eta astekariak egiten zuten euskara-proportzioa. Adibide batzuk hemen behean. Denetarik, konklusio berbera: erabaki arbitrarioa da proportzioarena. Noizean behin zerbait, edo asteen behin egun jakin batean egiteari jo diote zenbaitek.

<b>EGUNKARIA</b>	<b>PORTZENTAIA</b>
<b>EGIN</b>	% 17, 7, 8
<b>DEIA</b>	% 6
<b>DV</b>	igandean
<b>EUZKADI</b>	% 1,6

**Iturria**, Euskal Herrian Euskaraz, Egin 1979-XI-4 hilabete bat hartuz.

<b>EGUNKARIA</b>	<b>PORTZENTAIK (%)</b>
EGIN	% 14, 9, 7(ostegunetan17)
DEIA	% 8, 7,6,5
DIARIO VASCO	% 4,2 igandetan
DIARIO DE NAVARRA	orrialde 1 hamabostero

IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

LA GACETA DEL NORTE	% 0
NORTE EXPRES	% 0
EI PENSAMIENTO NAVARRO	% 0
SUD OUEST	larunbatetan Dirassarek
HERRIA	% 88
GOIZ ARGI	% 70
ENBATA	% 14
PUNTO Y HORA	% 7
E.SIOUX	% 15

**Iturria:** Pilar Iparragirre, Euskara noren hizkuntza ZA, 1979-V-6, hilabete bat hartuz.

<b>EGUNKARIA</b>	<b>1977 %</b>	<b>1981 %</b>	<b>1982</b>
EGIN	11,5		10,5
DEIA	6,10		4,45

IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

DIARIO V.	5		1,2
CORREO ESP.	0		1,2
NORT.EXPR.	0		0
HOJA de SS.	1		2
HOJA de B.0	0		
D.de NAVARRA	0,05		0,05

(Jarraitzen du)

ALDIZKARIA	1977 %	1981 %	1982
MUGA		0,3	
PyH		10,45	
ERE		0,6	
AGER		0,7	
ENBATA		1,4	

**Iturria:** J.M. Elexpuru-Txema Larrea, Euskal Herriko prentsa eta euskara in Egin 1984-IV-18.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Ondoko lerrootan, beste bizikizun labur baten berri eman nahi dut, *Ere* aldizkariarena alegia, Egin-etik joan-joanarazi izan ziren zenbait lagunek eratu izandakoarena alegia. Luis Lacasta eta Genoveva Gastaminzak, *Egin*-en bizi izandako eskarmentua bizkarrean zutela *Ere* deitu aldizkaria sortu ondoren honela aitortzen zuten euren hautua: "*Euskarari dagokionez Eginen ikasi genuen egin behar ez den guztia. Guk lehen momentutik garbi eduki genuen euskarak tratamendu berezi bat behar zuela; honela atal guztietan sartzea erabaki genuen, atal bakoitzeko proportzioak baturik % 15a erabiltzea onartu zen. Erabiliko den euskera bizia izango da, ez itzulpenetako; gainera taldeak hau posible egiten du*".<sup>61</sup> Gauza beretsuak aipatzen zituen Andu Lertxundik Joxe Mari Gabiriak egindako elkarrizketan.<sup>62</sup>

Sortu, 1979-IX-12an sortu zen *Ere*. "*Talde homogeen bat gara*" esanaz kaleratu ziren honoko lagun hauek: Luis Lacasta zuzendaria, Genoveva Gastaminza erredaktore buru eta kontseilukideok Anjel Amigo, Ignazio Aranaz, Gabriel Asenjo, Josu Arrizabalaga, Alvaro Erreta, Inmaculada Ezkiaga, Mariano Ferrer, Andu Lertxundi, Alberto Martínez, Gorka Reizabal, Luis Rodriguez, Arantxa Urretabizkaia, Rosa Zufia, Edorta Kortadi, Javier Urkijo, Miguel Sanchez Ostiz, Manuel Hidalgo eta Lourdes Oñederra, zeinetatik dozenerdi euskaldun peto-petoak ziren. Aldizkaria, Autonomi Estatutuaren atarian sortu zen eta Kontzertu Ekonomikoa sinatu ondoren ixildu 1981-VI-10ean, "*Adios*" esan eta inoiz helduko ez zen bigarren fase bat, "*casi con toda seguridad*" aginduz. Baina interesatzen zaidana azpimarratzeko, 1980-X-10ean honela zioen aldizkariak barne orrialdetan egindako inkesta zabalaren berri emanez: "*es importante señalar la casi*

---

<sup>61</sup> Zeruko Argia, 1979-VII-29.

<sup>62</sup> Goiz Argi, 1979-IX.

*unánime protesta por el escaso eco que tiene el euskara en nuestras páginas "*. Kontutan hartu aldizkarian bertan azpimarratzen dela: *"el euskera es la lengua habitual del 45 % de los encuestados"* . Kontraesan nabaria, baina garai hartan, oroitu, Jaurilaritzan zeuden euskaldunek ere, orduko Hezkuntza Kontseilari euskaldunberria bera -Pedro Miguel Etxenike- lekuko, *"este es un país bilingüe"* zioten. <sup>63</sup> Beraz, EREk ez zuen pausurik eman euskal prentsaren alde, Juana Bixenta Olaberen grazia ez bada. Dena dela hori beste kontu bat da. Jada porrot egina zen bideari atxiki ziola berriro bederatzi hilabetetako bizitza motxean *Erek* adierazi nahi da hemen.

#### 4.2. Erabakiaren bidea

1978. urte hasieratik bertatik *"irakurle bila"* kaleratu zen Zeruko Argia: *"Ba zirudien demokraziaren haize berri hauek euskarari hedatzen lagunduko ziotela. Bai zera! Franco bizi zeneko denboran bezain irakurle gutxi ditugu"*. <sup>64</sup>

Zeruko Argiak ez du galdu 1976an zeukan perspektiba, alegia, euskal prentsa euskaraz egiten dela, eta uste du euskal prentsa zabaltzea *"ezinbestekoa dela Euskadi euskaldundu dadin"*. <sup>65</sup>

*"Euskal prentsaren adar bat besterik ez gara* (Zeruko Argiari buruz ari da ez erdaraz edo elebitan idazten diren aldizkarietaz). *Baina gauza jakin bat esan beharrean gaude: euskal prentsa euskaraz eginikoa da. Egun Euskal Herrian Anaitasuna eta ZA dira*

---

<sup>63</sup> Ikus ERE, 1980-X-8.

<sup>64</sup> Zeruko Argia, 1978-I-15.

<sup>65</sup> Ibid.

*bakarrik euskal prentsa hori. Gustatu ala ez, baina hala da. Beste guztiak bai egunkariak eta baita aldizkariak ere, Euskadin eginikoak -euskal ikuspegitik nahi baduzue- dira baina ez euskal prentsa".* <sup>66</sup>

Sortua da dagoeneko Euskal Kontseilu Nagusia (EKN, 1978-II-17, Rubial sozialista presidente zuela). Diskutitzen ari da elebitasunari buruzko proiektua. Euskal prentsak, euskarak berak bezalaxe, ahuleria besterik ez du erakusten. Urte horren ekainaren 16an "*Bai euskarari*" kanpaina sonatua burutzen da Euskaltzaindiaren laguntzaz eta haren kariaz asko harrotzen da gai hau. Komunikabideek ere badute zer eska. Aipatu kanpaina horren bezperan argi eta garbi uzten dute Zeruko Argiaren bozeramaleek aurrerantzean egin beharrekoa, aldizkariaren politika propioa hain zuzen: "*Zeruko Argiaren politika hauxe da: euskal prentsa desarrollatzea eta hortik euskal gizarteari erantzun bat ematea(...)* Gure asmoa -orain arte eutsi eta egun ere eusten gaituena- euskal prentsa desarrollatzea da(...) egun batean euskal komunikabiderik egon dadin, oraintxetik jarri behar ditugu oinarriak".

67

Aldizkarian bertan ere ideia berbera azaltzen da egoera aztertzerakoan 800. zban: "*politikazko irtenbideak bilatu eta aurkitu behar diren une honetan euskara eta euskal kultura bigarren mailara pasa dira. Euskararik ez dakitenak erdaraz gureganatu nahirik euskaraz dakitenak erdalduntzen ditugu askotan*". <sup>68</sup> Izan ere aldizkariak jota gelditzen ari bait dira: "*euskal aldizkariei laguntza ematen zien askok beste kazeta eta*

---

66 Ibid.

67 Egin, 1978-VI-13.

68 Zeruko Argia, 1978-IX-24.

*alderdi batzuei laguntzen die", eta ondorioz, proposamena egiten du: "hordago jo digu giro honek: euskaltzale guztiok erantzun behar diogu".<sup>69</sup>*

Beraz 1976an lehenengoz eta 1978an berriz elebitasunaren porrota ikusi ondoren, *Zeruko Argiak* argi zeukan euskal prentsa-ren eksklusibitatea aldarrikatuz politika propioa zuela *Anaitasunarekin* batera eta bide horri eutsi behar zaiola geroko euskal prentsa eretzeko. Gauza bera uste zuen *Anaitasunak*: "*Gu biok (Zeruko Argia eta Anaitasuna), Jakin eta Herriarekin batera euskal prentsaren ordezkari bakarrak gara*".<sup>70</sup> Harrokeriaren itxurapean, (geu bakarrak!) erabaki zindoa baino ez dago.

#### 4.2.1. Porrotaren teorizazioa

Esperientzia hau, gainera, teorizatu egiten da. Txillardegi izan zen teorizazio horren bihotza, gero Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeek maila antolatuan hedatuko zuten teorizazio horren auspoa bihurtuz. Teorizazio horren funtsa elebitasuna eta diglosiaren arteko oinarrizko bereizketa izan da eta *Zeruko Argian* eman zen ezagutzera publiko zabalean 1978ko udazkenean. *Anaitasunan* ere landua zen gai hau, batez ere Ganix (Jon) Juaristik eta Xabier Kintanak, baina ez zuten lortu Txillardegirenak beste oihartzun, seguruenik honenak une guztiz egokian ailegatu zirelako.

---

<sup>69</sup> Ibid.

<sup>70</sup> *Anaitasuna*, 1978-III-1/15.

"Diglosia: horra hor arriskua" zuten izenburutzat Txillardegik idatzitako lehen bi artikulua haiek: Lehen artikuluan *"euskaldunek eta euskalzaleek berek erakutsi ohi dituzten ezjakintza eta xinplekeriak"* bultzatuta abiatzen dela oroitaratzen du eta arazoaren bi hegala markatzen ditu: *"elebitasuna, pertsonala da; diglosia, aldiz, soziala"*. Eta ondorioak ateratzen ditu: *"abertzaleon artean ere diglosi osoan bizi gara; eta diglosi-egoera hori errotik erauzi ez duguno, euskarak ez du heriotzaz beste etorkizunik. Honengatik edo hargatik diglosiaren alde jokatzeko dutenak (berdin zaigu zergatik), euskararen hiltzaileak eta ehortzaileak dira, eta euskararen hiltzaile eta ehortzaile direla guztiok zinez eta garbiki ulertu eta sinetsi arte, ez dago euskararen arazoa konponbidean ere jartzetik"*.<sup>71</sup>

Bigarren artikuluan, konponbidea erakusten du: *"diglosiaren aurka, normalkuntza"*, hori bait da soziolinguistikan, diglosiaren kontrako jokabideari deritzona. *"Praktikan bederen, dio, burrukarik gabeko gizarte elebidunik ez dago; eta diglosirik gabeko gizarterik ere ez, elebitasun paketsua, ipuin hutsa bait da. Besterik esatea, agian ez-ikusia egitea litzateke, eta, bidenabar, herri zapalduen kaltetan mintzatzea"*.<sup>72</sup>

Euskaltzalegoak berehala asimilatu zuen egoera xuxen esplikatzeko zuen ideia hura eta zenbait kanpaina burutu ziren: Zarautzko *"Euskalzaleak"* taldeak, adibidez, euskal prentsaren aldeko kanpaina bati ekin zion azaroaren azken bi asteetan esanaz: *"Euskal*

---

<sup>71</sup> Argia, 1978-X-29.

<sup>72</sup> Argia, 1978-XI-26.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

*prentsa, euskaraz bakarrik egiten den prentsa da eta euskal prentsa Anaitasuna eta Zeruko Argia zarete*". <sup>73</sup> Helburua, biontzat harpideak bilatzea da. Izan ere elebiko politikak harpidedunez hustu zituen betiko euskal aldizkariak.

Adierazgarria da oso, *Anaitasuna*-ren "Mirakuloski bizi behar" editoriale famatu hura: "*Errudunak euskal demokrazia baten mitoetan sinistarazi egiten dutenak dira(...) EKN garaian, 'bai euskarari' kanpainaren garrasiaren mina gure belarrietan oraindik oihartzuna delarik, euskal prentsaren zati garrantzitsu bat (Anaitasuna) ondora doala konturatu beharko lirateke*". <sup>74</sup>

*Anaitasunak* inork baino garrantzago nozitu zuen harpidedunen beherakada. Bizkaiko PNVkoek baja hartu zuten erruz, sabinismo linguistikoa aitzakitza hartuz. Tomas Trifol, garaiko zuzendariak, artikulu luze eta interesgarri eman zituen argitara *Egin*-en "Euskal aldizkarien bizitza gogorra" izenburupean. <sup>75</sup> Bertan besteak beste konstatazio bat egiten da, alegia, euskal prentsak (aldizkarigintzak) iraun badu, hori, militantismoz izan dela. "*Konkurrentea*" ez izanik, diru arazoak konpondu gabe, elebitasunaren erasoak gainditu ezinik, laguntza berezirik gabe, gaizki ibiliko dela. Irtenbidea subentziotan ikusten da: "*euskarak subentzioak behar ditu, subentzioa soluziobide bat da, logikoena gainera, paga biezaigute euskaraz argitaratzen dugun guztioi*", dio Zeruko Argazkiak. <sup>75</sup>

Sozialistak ez dira irtenbide horren aldeko, horri erantzun zion, bederen, Jose Antonio Maturanak Tomas Trifoli subentzioen arazoa onbidetzat aurkeztu zioenean: "*Ez*

---

<sup>73</sup> Zeruko Argia, 78-XII-3/1-15.

<sup>74</sup> Anaitasuna, 1978-XI. (ez du egun-datarik)

<sup>75</sup> Egin, 1979-V-14,15 eta 18

<sup>75</sup> Zeruko Argia, 1978-XI-31.

*dut uste une honetan soluziobiderik dugunik...; ez dut uste euskal prentsaren arazoan subentzioak sar daitezkenik, eskubide berdinez gainerako aldizkariak eskatzen hasiko lirateke".* <sup>76</sup> Kurioski arrazoiketa hau 1989-90an (ikus beherago) Amatiñok eta Ramon Etxezarretak errepikatuko duten berbera da .

Dena dela areago doaz *Anaitasunaren* ordezkariak. Esan daiteke euskal prentsaren autonomotasuna planteiatzen ari direla: *"Gaur egun klaro klaro daukaguna zera da: euskal aldizkariak ez dute antzinan bezala hizkuntz eskola soilik izan behar, ez dute bakarrik irakurlegoa euskal irakurketaz ohitu behar. Zerbait gehiago izan behar dira (..). Kazetal ikuspuntu hutsez lanegitea, helburu gisa Euskal Herriaren berreuskalduntzea, birbatzea eta burujabegoa lortzea delarik, eta hau argitalpen periodikoen muga barnean, noski".* <sup>77</sup> Hizkuntz-eskolak izatetik, proiektu nazionalaren zati izatea proposatzen du Trifol-ek.

*Zeruko Argiak*, euskal kazetaritzaren oinarriak ipinita daudela uste du: *"Zeruko Argiaren bidez ikasi du jende askok euskaraz irakurtzen. Eta astekari honetan egin da zenbait idazle eta kazetari, Euskal prentsaren oinarriak ezarri ditu, bere neurrian".* <sup>78</sup> Eta goian aipatu denez, plangintza bat eskatzen da. Lastima, plangintza hori politikoen eskutan uzten dela: *"beroiak asmatu behar baitiote irtenbidea kulturgintzari "*. <sup>79</sup>

Beraz, 1978-79an ahulezia da nagusi euskal prentsaren egituretan, nahiz eta hortxe agertzen diren *"Euskadi Sioux"*, *"Araba Saudita "*, *"Pott"* seriea eta *"Oh Euzkadi"*.

---

<sup>76</sup> Anaitasuna, 1978-IX. (egun-datarik gabe)

<sup>77</sup> Ibid.

<sup>78</sup> Zeruko Argia, 1979-I-14.

<sup>79</sup> Atxaga, Mikel, Zeruko Argia, 1979-VIII-29.

(Halako giro elbarrian humorezko aldizkarien sorrera norbaitek aztertu beharko luke) Halere bide propioa eta zuzena erabaki duenaren konfidantza erakusten zuen, etorkizunari begira, euskal prentsak: Zeruko Argiak batez ere; *Anaitasuna*, 1975-X-15/30ean "*Iraun*" editorialean euskara bide bakartzat jo zuen aldizkaria, hitsago bait zebilen 'bajak' zirela eta. "*Zeruko Argia beti garaile irten da*, zioen 60. urte-betetzeko editorialean, *Euskadi euskalduna garaile aterako delako, euskarazko komunikabideek ere garaile gertatuko dira*"

. 80

Erreakzioa, baina, ez da *konfidantza* hutsean geratzen. Erasora pasatzen da euskalzalego (antolatu) osoa. Euskal Herrian Euskaraz taldeak dira erreakzioaren akuilu eta arnasa. Sortzean argitaratutako "Agirian" (Durango-1979-XI-4) honelaxe laburbiltzen zuen orduarteko balantzea: "*Honela Euskara heriotzera doakigu. Euskaldunok orain bi urte demokrazian eta indar abertzaleengan ipinitako itxaropena, diglosiaren egia gordinean amaitu da*".

Konstatazioa orokorra da: "*gure udaletxeetan abertzaleak nagusi direlarik*,<sup>81</sup> *ez da nabari, gehien batean, benetako bilinguismo edo elebitasun baterako urratsik*".<sup>82</sup> Horregatik euskararen aldeko "*talde eragileak*" sortu beharra sentituz sortu zen EHE: "*euskara heriotzetik, diglosiatik salbatzeko*". EHEk, aitortuz, barnean '*euskara izango da Elkarte hauen hizkuntza egiazkoa eta faktikoa*', beraz, konpromiso pertsonala asumituz, euskararen aldeko erreibindikatzaile edo borrokatzaile izateko prestijioa irabazten du.

---

80 Zeruko Argia, 1979-I-14.

81 Lehen bi legegintzaldietan abertzaleek gehiengo absolutoa dute. Ikus "15 años de historia vasca"-Anuario Egin 1991.

82 Euskal Herrian Euskaraz, Agiria, 1979-XI-4

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Lehenengoz aldarrikatzen da monolinguismoa, xede bakartzat.:

*"Elkarte hauek elebitasuna edo bilinguismo-egoera, guztiz iragankor edo transitoria dela adierazten dute, bi hizkuntza elkarren ondoan bizi direnean benetako orekarik ez bait da ematen. Luzarora ezin daiteke bilinguismo iraunkor eta faktikorik eman, baina, gaurkoz, benetako elebitasuna eskatzen dugu."*

*Diglosia gainditzeko, proposatzen du, elebakar erdalduna elebin bihurtu behar da; eta hau lortzen ez den bitartean, gaurko zapalkuntza salatuko dugu.."*

Beraz, *"EHE Elkarte hauen azpian, Euskadi Euskal Herri (euskararen herri) benetan bihurtzeko asmo nagusia dago"*. Sinistun daude elkartekideak, euskararik gabe euskal naziorik ez dagoenaz eta *"beste abertzaletasun mota guztiak akzidentalak direla"*.

Taldearen jokabideak, *"metodoen egokitasuna"* planteatu zioten euskalzale bati baino gehiagori, Juan San Martin eta Joxe Azurmendiri adibidez.<sup>83</sup> Izan ere gatazka beti zakar eta garratz.

EHE taldeak abertzaleen ajolagabekeria salatzearekin batera, euskal prentsa ere kanpainan jarri zen. Halako batean, 1979ko ekainean, *Zeruko Argiak* eta *Anaitasuak* "Euskarazko prentsaren Deia" izeneko editoriale amankomuna idatzi zuten: *"Ezin onar dezakegu erdal komunikabideen eraginez eta prezioen goratzeaz gure euskal prentsa hilzorian aurkitzea (ezen) gure hizkuntzak eta kulturak pairatzen duten botere publikoaren*

---

<sup>83</sup> Ikus "El euskara, otra clave del laberinto vasco, ERE, 1981-III-14.

*aldetik zapalketa izanik, euskal kultura birrindu zutenek euskararen herri osoarekin obligazioa dute gure aurrean".* <sup>84</sup>

Egin, bi eskabide egiten ziren: bata, "*harpidetza publikoak egitea*", bestea, "*EKN-k subentzio zuzena eman diezaien euskaraz idatzitako aldizkariei*". Zeren, laguntzarik gabe, ez zekusan irtenbiderik: "*Euskal prentsari laguntzarik ez ematea gaur egun, orainarteko errepresioa instituzionalizatzea litzateke eta beronen ondorio bezala euskal prentsa eta berarekin batera doan euskal kulturaren deuseztatzea*". <sup>85</sup>

### 4.3. Egunkariaren premia

Aipatu bi bideotatik egunkariaren eskarira abiatzen da ikusiko denez. Jarrera eta jokamolde desberdinez, oso. Bigarrenak bakarrik lortu du ametsa eguneroko paper-sorta betea bihurtzea: "*Euskaldunon Egunkaria*"

Aurreko atal batean azaldu dut 1980-1982an kalean den giro erreibindikatzaila, hizkuntz diskriminazioa nolabait ekidin nahiz.

Arazoa da euskal prentsa ahulezia osoan egonik zenbait kazetari euskaldunek alde egin zutela erdal medioetara, edota elebikoetara, lehendik ere ahula zen egitura erabat

---

<sup>84</sup> Deia-Anaitasuna/ Euskarazko prentsaren Deia, 1979-VI-15

<sup>85</sup> Ibid.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

ahulduz. Horien artean, Amatiño, lehenetarikoa izan zen. *Deia*-tik Kultura Kontseilaritzara egin zuen jauzi eta iskanbila ederrak eduki ere bai euskalduntze-alfabetatze taldeekin.

*"Kazetagintzara erabat dedikatzeko tentaziorik ez al duen galdetzean, zera dio, -adierazten du Elixabete Garmendiak (geroxeago bide berdina segituko duen kazetaria berau) egindako elkarrizketan-, hori egitekotan euskal periodismoan aritzeko izango litzatekela, erdarazkorako soberan daudela eta".*<sup>86</sup>

Pausu hau ez du inoiz eman Amatiñok, kontrakoak baizik. *Eguna* zuzentzen zuen garaian ere *Deiako* Zuzendariorde izan zen. Bi aldiz izan da ETB-ren zuzendari, kasu bietan, beraz, medio elebidunetan saiatu da. (Arrakastaz ala gabe izan den neurtzea nire oraingo zeregina ez da).

Bitartean *Anaitasunak* benetako agonia bizi izan zuen, azkenean *ARGIAN* integratuz eta euskal prentsa betirako indartuz. Zeruko Argia-k krisi latza jasan behar izan zuen, kaputxinoek (betiko jabeek) aldizkaria utzi eta kooperatiba sortu arte (eta gerora). Hori guztihori, euskararen aldeko manifestaldien garai aberatsean, 1980.ean, gertatzen da.

Gasteizko agintari autonomikoez ez zioten laguntza berezirik ematen euskal aldizkariari, Amatiño ere ukatzaileen artean egonik.

---

<sup>86</sup> Ikus, Euskal periodismoaren hastapenetan, Zeruko Argia, 1980-I-13.

Une hartatik bertatik euskal prentsan ari direnek argi dute bidea: herriaren ateetara jotzea diru-bila eta euskaltzale-abertzaleen borrokarekin bateginik Euskal Prentsaren proiektua mamitzen segitzea. Bide latza eta malkartsua.

Hemen emandakotzat jotzen dut elebitasunaren bidea egunkaritan finkatzen dela. Elebakartasun euskaldunezko bidea, berriz, aldizkarigintzan segitzen du, makal eta ezinean baina norabidean zuzen. Orain egunkariaren eskaria nolatan gauzatzen den azaltzeari ekingo diot.

#### 4.3.1. Porrotaren bidetik

Bide-izen hori, esan dut gorago, elebitako bizikizunean txertatzen da. Hortik datorkio izendapena, bide agorra dela frogatua bait dago. Baina bide horretan ihardunean ari zen/den batek proposatu zuen, lehendabizikoz, egunkariarena.

Mikel Atxaga konsideratzen da euskarazko egunkariaren (bir)planteaketaren aita. Berak autokonsiderazio hori du: "*tuve la inoportunidad y la osadía de plantear públicamente la necesidad de un diario euskaldun*" <sup>87</sup> eta zuzena dena ez dago ukatzerik.

---

<sup>87</sup> Deia, 1984-II-13.

Egia da Joxerramon Etxebarriak azaldua zuela xedea *Anaitasunaren* lotaldia eta gero *Egineko EGUNON*en: "*Azken helburua Euskal Herriko gizarte euskalduna delarik, tartean ez da helburu makala euskarazko egunkari osoa lortzea. Lorbidean gabiltzala sinetsi gura nuke. Sinesten dut ze demontre!*".<sup>88</sup>

Baina, Atxaga izan zen euskarazko egunkariaz artikulu espezifiko lehena idatzirik eman zuena. *Deian* izan zen. Hauxe: "Euskarazko egunkari bat kaleratzeko modua".<sup>89</sup>

Ez *ARGIA*n, ez *Anaitasun*an, ez *Jakineko* azterlarien artean, ez Torrealdaik, ez Amatiñok, ez beste inork ikusten zuen euskarazko egunkariaren aldeko apustua praktikan egiterik zegoenik.

"*Euskarazko egunkari bat kaleratzeko ordua da*", zioen M. Atxagak. "*Euskal telebistara eta irratora zuzendu ditu Eusko Jaurlaritzak ahalegin guztiak, jarraitzen zuen, hizkuntza batentzat eraginik handieneko komunikabideak direlako. Baina lan hori osatzeko euskarazko egunkari bat behar da. Askoz ere diru gehiago gastatu gabe egin daiteke, gainera.*"

Atxagak proposamenari ekin zion, prentsa elebidunaren porrota aitortuz; ez, baina, abandonatuz. Porrot bikoitza, gainera: egun eta etorkizuneko alegia: ezinezkoa bait da dauden egunkariak euskaratzea. "*Berri bat sortzea baino lehengoak euskalduntzea ez al da bide hobe?, galdatuko du norbaitek. Iritzi horretakoa nintzen ni ere, baina ezinezkoa dela erakutsi dit bizitzak. Gero eta leku gutxiagorekin geratzen da euskara. Eta leku pittin*

---

<sup>88</sup> "Egin dezagun euskal prentsa", Egin-EGUNON, 1982-IX-1.

<sup>89</sup> Atxaga, Mikel, Deia, 1982-XI-28.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

*hori ere gehiegizkoa gertatzen zaio egunero bete beharra duen kazetariari, gai, berri eta gertaerarik garrantzizkoenak erdarak harrapatzen bait dizkio. Egunkari barruan orrialde batzuk euskaraz emanaz ere ez da arazo hori konpontzen, soluzio horren aldekoa eta gurasokidea izan banaiz ere".*

Atxagak proposatzen duena, beraz, zera da, *Egin, Deia, Diario Vasco* eta *La Voz de Euskadiren* artean argitara nahi diren 28 orrialde euskarazkoak atera beharrean (Gipuzkoako Diputazioak 105.000.000 milioi emateko prest zegoen, nahiz eta *EGIN*ek bakarrik onartu zion urtean *EGUNON* egiteagatik 3.750.000 pezeta jasotzea), egunkari osatu bat egitea.<sup>90</sup>

Ez zen, baina, burutu asmo hura. Horretarako "*egunkariaren inprimaketa eta zabaltzea erdal egunkari baten zerbitzuez baliaturik*" egitea. Diputazioak ematen zuen diru-kopuru haren aldean merkeago aterako zena gainera. Atxagarentzat problema, "*koskarik handiena*", kazetariena da. "*Euskara erraz eta konprenigarrian politikaz, ekonomiaz, futbolaz eta abarretaz idatziko luketen kazetariak ba al ditugu?*". Eta aspaldiko<sup>91</sup> hitz berbera erabiliz (*hordagoa*) amaitzen du: "*dena den euskarak jotzen digun hordagoari erantzuten saiatu beharko genuke*".<sup>92</sup>

---

<sup>90</sup> Aitortu behar da dena dela, *Orain SA*-k bere momentuan proposatu ziola Gipuzkoako Diputazio horri *EGUNON*en lau (4) orrialdeak zortzitan (8) bihurtzea, 1985.ean egunkari bat egin ahal izateko, baina ez zitzaion onartu. (ikus *Egin* 84-I-12. Kontutan hartzekoa da astegunkariaren garaian enpresa berak editatzen zuen *Hemeneko* erantzuleek maiztasuna azkartzea proposatu ziotela Jaurlaritzari eta honek ere ezetzarekin erantzun ziotela

<sup>91</sup> Zeruko Argia, 1978-IX-24.

<sup>92</sup> Atxaga, Mikel, *Deia*, 1982-XI-28

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Artikulu honek ez zuen jaso erantzun berehalakorik. Urte pare bat geroago kexu zen Atxaga: "*Donde más eco tuvo fue quizá en la Comisión de Euskera de la Diputación guipuzcoana, ya que dentro de la campaña de sensibilización en favor del euskara incluyó una mesa redonda sobre medios de información vascos a la que fui invitado por Antton Elozegi, responsable del euskara en el Ayuntamiento donostiarra y en este caso concreto organizador de la mesa redonda que se celebró a comienzos de 1983 en la sala de sesiones plenarias ante no más de veinte personas. Yo, por mi parte, defendí de nuevo en solitario la idea de un periódico en euskara que fue acogida con mucho escepticismo y tildada de utópica e inviable*"<sup>93</sup>

Erantzuna, seguruaski, ezustezkoa izan zen. Izan ere *Eginek* maiatzean eman zuen jakitera, hilaren 12an euskarazko egunkaria egiteko proposamena aurkeztu ziola Etxenike Sailburuari. *Euskadi Irratian* (Mikel Atxaga, Xalbador Garmendia, Felix Ibargutxi, Luis Mari Muxika eta Mikel Aramendi, Antton Aranbururen inguruan) egin mahainguruan (1983-VI-7) jakin zen *Deiak* ere proiektu parekoa aurkeztu zuela Jaurilaritzan. Aldiberean *La Voz de Euskadik* asmatutako *Orria* jaiogabearen ezintasuna.<sup>94</sup>

---

<sup>93</sup> "El periódico en euskara", *Deia*, 1984-II-13.

<sup>94</sup> *Orria* hamasei planatako egunkaria izateko proiektua zen *La Voz*-en barruan mamitzeko pentsatua. Bere laburtasunean egunkari oso bat izan nahi zuen, eta maila horretan lehena izan zitekeen Euskal Herrian. Orriak egunkari profesionala izan nahi zuen, "*edozein eguneroko prentsak dituen sekzioz horniturik*", hau da 1977an jaiotako egunkari bilingualetan euskararekin gertatutakoa gerta ez zedin: "*lehengo edo geroago euskarazko berri horiek garrantzia eta interesa galtzen hasten dira eta irakurle euskaldun gehienek ere baztertu egiten dituzte egunkaria irakurtzerakoan*". Asmo ederra baino beste froga bat egunkari bilingualetan euskararen paraderoaz mintza ahal izateko: "*Haserako ideia nagusia hau izanik, denborak beste gauza bat erakutsi digu, nolabait bazterturik gelditu garela azken finean...Honela konklusio honetara iritsi ginen: han nahiko arrotz aurkitzen ginela. Arrazoi garbirik ez badago ere, aldi berean onartuak eta baztertuak ginen*". Beraz, eta gainera, *La Voz*-en proiektua aurrera egiteko gorriak ikusten ari zela eta, *Orria*-kideek "*etsita*", "*desilusioa eta desenkantoa nagusi*" bederatzi hilabete egin ondoren uztea erabaki zuten. "*Gure esperientzia ezin daiteke okerragoa izan: frustrazioak aurrera egin zuen gure gogoetan. Bazkideek entpresa eredian bat ez zetozela ikusirik, proiektu periodistikoan definizio garbirik ez zegoen*" eta alde, zioten *Egin*-i *Orrian* ibilitako seik, hots Antxon Juaristi, Koldo Etxabe, Felipe Juaristi, Esteban

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Artean *Eginek* egin berria zuen inkesta bat eta bertan euskarazko egunkari baten premia erakusten zuen irakurleagoak. *Eginek* honela zehazten du arazoa: "*irakurle askok egunkari bati eskatu behar zaiona EGUNONi eskatzen diozue (...) EGUNON ez da zoritxarrez egunkaria, egunkariaren osagarria baizik eta ideia hau buruan sartzeraz, nahitaez beharturik gaude (...) arrazoizko soluziobide bakarra, euskarazko (euska) egunkari berria kaleratzean datza eta besterik ez. Euskal egunkaria eskatzen duzunokin zeharo ados gaude*".<sup>95</sup>

Ondoren eta segidan Luis Mari Muxikak (artearen EHEko partaidea) bost artikuluzko seriea argitaratzen du "Euskal Egunkaria posible da eta behar dugu" esanaz.<sup>96</sup> Urtetako debate luzea mahai gainean dago nork helduko prest.

"*Irtenbide etikoa*" deitzen du Muxikak egunkaria "*alegia lehengo hamar urtetan edo euskal erakundeek (Gobernuak, Diputazioek, Udalaetxe zenbaitek) egunkaria 'a fondo perdido' eutsi behar luketen elementu bezala*" hartuz. Izan ere biztanlearen %70 diren abertzaleek, arrazoitzen du Muxikak, gobernuan egonik, ekonomikoki atera beharko luketela egunkaria adieraziz "*euskararen suspertze eta prestigio sozialerako eginiko proiektu gisa ulertu behar*" dela azpimarratuz.

---

Antxusegi, Xabier Exposito eta Imanol Aranburuk. Bertan gelditutako lagun batzuk zenbait hilabetetan lau orrialdetako eranskin bat egiten saiatu ziren. Ikus Egin-EGUNON 1983-V-19. Halere ez zuten alde egindakoek hutsean botatzen bederatzi hilabeteko lana. "*Euskarazko egunkari bat burutzea ez da ezinezkoa. Hori garbi ikusi dugu bederatzi hilabetez lan egin dugunok. Ezinezkoa gertatu bada beste arrazoi batzuegatik izan da, ez kazetarien eta euskararen ezinagatik*". Azkenik, "*euskarazko egunkari baten beharra gero eta nabarmenago sentitzen duelarik zenbait jendek...ilusio handi batekin egingo genuke lan honelako proiektu batean*", aitortu zuten. Ikus, Deia, 1981-V-23.

<sup>95</sup> Egin, 1983-V-12.

<sup>96</sup> Egin, 1983-V-25/29.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Nolabait esateko zor historiko bat kitatu beharra legoke. Irakurlegoa aseguratutik dago: *"6-7 mila irakurle militante ditugu -dio- egunero euskal egunkaria erosiko lukeena euskaraz dagoelako"*. Eta beharrezkoak liratekeen 120 milioiak emateari *'huseria'* deritzo, *"helburuekin konparatuz"*.

Helburu horiek hauexek dira Muxikaren ustetan: *"helburu nagusia hizkuntza nazionalari beste arnasbide eta prestigiozko bozeramale bat eskeintzea da, eta ez politikakeria egitea"*.

Baldintzak ere baditu: *"ideologia eta jarreraren aldetik, noski, honelako egunkariak guztiz zabala izan behar luke. Pentsaeraz guztiz irekia, inolako alderdikeriatan erori behar ez lukeena. Alde horretatik, bada, alderdi politikoen atxikimendutik desitsastuta behar luke. Euskaldunena, eta Euskal Herri zabal bati bideratua. Era berean bateragilea: "horretarako -batzeko- euskaldun kaskailu, ikonoklasta, borrokari etab. guztiok batu behar dugu euskararen mesedetan, gure exigentzia guziak bat-batean eta betiko eskatu gabe"*.

Zer da eskakizun zerrenda hau *Egunkaria Sortzen* promotorak 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* fundatzerakoan egindako zerrenda berbera baino? *Euskadi Irratiko* mahainguru hartan *"posible eta beharrezkoa"* jotzen da egunkaria, alfabetatzeko, kazetariak profesionaltzeko eta beste zenbait informabideren laguntzarako. Bat ala gehiago, hori dudatan dago. Mahainguru hartan partaide izan ziren den-denak baina medio elebidunetako kide ziren.

#### 4.3.2. Erabakiaren bidetik

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

*Argia*-n beste ikuspegi bat dago, beste kezka bat hobeto esanda: euskal prentsa bere osotasunean gorde behar da; egunkari soil batek ez du euskal prentsaren auzia konpontzen besterik gabe; instituzioak herri inizatiba babestu behar dute.

Bi ikuspegi hauek (euskal egunkaria elebitasunaren irtenbide gisa proposatzen duenak eta euskal prentsa osoki zaindu behar dela adierazten duenak) ondorengo urteotako mahainguruetako eta eritzi-artikuluetako gai-ardatza eman zuten.

Lau editorialetan hedatu zituen ARGIAk bere ideiak 1983.eko udazkenean. Hara banan bana xehatuak, eta elkartuak.

Euskal prentsa osoa babestu behar da, beraz lege bat behar da: *"Ez da aski, dio, egunkari baten proiektuarekin aurrera jotzea; gure abururako egunkari hori aurrera ateratzen ematen diren bitarteko berdinak eskeini behar zaizkie martxan dauden edo eginkizun leudeken beste medio edo prentsabide guztiei (...); normatiba bat, (behar da) beraz, daudenak eta egon daitezkeenak kubrituko dituenak".*<sup>97</sup>

Herri inizatibak eta instituzioek, beren lekua dute: *"euskal prentsaren edozein proiektu aurrera eramateko orduan, noraino den komenigarria gaur egun Euskal Herrian dauden instituzioetako batek inizatiba edota pisu nagusia eramatea, planteiatzen da.(...) Lehenik, printzipiotzat jo behar da, euskal kulturaren barruan (eta kontutan hartuz zeintzu*

---

<sup>97</sup> Argia, 1983-IX-25.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

*diren kultura hori mugatzen duten kondizioak) herriaren inizatibarako lekua geratzen den neurrian hura bultzatu eta eragitera mugatu behar duela instituzio publiko batek bere eginbeharra (horretarako territorialitatea, kontrol ideologikoak ekidin beharra, kontinuitatea bermatzea legislazioaren bidez aipatuz). ARGIAk instituzioekiko mesfidantza, aldiberean, lan paropioarekiko konfidantza adierazten du: "herri sektore militanteen inizatiba ahalmenean sinisten dugulako (edo egunero gure medioan frogaten dugulako, hobe esanda), eta instituzio bidezko protagonismoan ez dugulako epe luzerako garantia askirik ikusten".<sup>98</sup>*

Egunkariak ezin du euskal prentsaren normalizazioa lortu : *"geuk, berriz, euskal prentsaren errealitatea, iragana eta esperantza, egunkari bakar batetara mugatzea, desbideraketarik arriskutsuenetako bat dela, deritzogu(...) medio horrekiko frustrazioa eta dezepzioa gertatzea ez bait litzateke oso harritzekoa eta orduan bai etorkizunerako ate guztiak betiko hertsirik iraungo luketela (...) horrelako bluf puntualak jendea inpresionatzeko balio dezakete baina ez bidean modu egokian aurrera joateko".<sup>99</sup>*

Egunkari bakarra, mito hutsa da: *"euskarazko egunkari bakarra izan behar duela mito izugarria da" (...) Inork ez dezala pentsa egunkari batek besterik ezin duela egon; ez dago pentsatzerik sektore politiko guztiekin ados joango den bat bakarra egin daitekeenik. Alkimia ez bait da aski kasu hauetan(...) Egia aitortzeko, euskal egunkarirako merkatu oso txikia dagoela esatea ondo dago eta arrazoinezkoa da gainera, baina linea ideologiko bateratsu eta zabal batek merkatu zabalagorik ekarriko lukeela esatea gehiegitxo esatea da. Zabaltasunaren mitoa hautsi beharra dago. Zaila da demostratzea*

---

<sup>98</sup> Argia, 1983-X-2.

<sup>99</sup> Argia, 1983-X-9.

*egunkari bakar batekin indar handiagoa emango liokeela euskarari bat baino gehiago egoteko posibilitatea zabalduz baino". Iparra argi gera dadila eskatzen du ARGIAk: "guk uste dugu euskararen bilakaera eta normalizazioa behar duela izan gure iparraldea".<sup>100</sup>*

Zer dela eta mesfidantza hori ARGIAN? Lehen editorialetik ikus daiteke zehatz asko: *"hainbat urtez Anaitasunak bere hiltzoritik eta ARGIAk bere asteroko presentziaz euskal prentsaren izateko eskubidea erreibindikatzeko pasa ondoren oihartzun faltak etsiturik gintuenean hara non aurten, bazter guztiak astintzen eta buruz gora ipintzen hasi bait da egunkariaren asunto horrekin".<sup>101</sup>*

Eta hirugarrenean: *"bide bakar hori aldarrikatzen duten ia guztiak frustraziotik datoz, hau da, euskara prentsan sortzeko nolabaiteko saioa egin ondoren ustel irten diren horietako batetatik. Hala nola, egunkari eta aldizkari diglosikoetatik. Egia da guztiok sufritu dugula egunkari eta aldizkari diglosikoetan euskarari emandako tratamenduak sortutako frustrazio hori, baina guztiok dakigu frustrazioa ez dela abiapunturik onena edozein korapilori irtenbide jator bat topatzeko orduan". Amaitzeko, instituzioei buruzko mesfidantza honela kokatzen da: "dagoenari eustea ikasi ez dutenean egunkariarena planteiatu den bezala planteiatzea harrizkoa da".<sup>102</sup>*

#### 4.4. Eztabaidaren txanda

---

<sup>100</sup> Argia, 1983-X-16.

<sup>101</sup> Argia, 1983-X-2.

<sup>102</sup> Argia, 1983-X-9.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Behin bi jarrera nagusiok kalean, eztabaidaren txanda izan zen. Atxagak, sei artikulutan, berea zehazteari ekin zion *ARGIA*ren beste muturrean jarritz.

Lehen artikuluan, "Euskarazko egunkariaren arriskuak", *ARGIA*k instituzioekiko agertu mesfidantza uxatu nahi du. Atxagarentzat erosleak dira "*maratilarik handiena*", (lehen kazetari eza zen), ez astekariak agertzen dituen beldurrak: "*Gaitzesten diren instituzio horiek (baskongadoek) egingo dute (egunkaria). Benetan nahi duenak Eusko Legebiltzarraren kontrola onartu behar nahitaez*". <sup>103</sup>

Bigarrena, "Euskarazko egunkariaren jirabiran", Durangoko Azokan egin mahaingurua eta *Eginen* argitara emandako artikulua-laburpenaren ondotik eta erantzunez dator. Izan ere Durangoko Azokan (1983-XII-10) Karmelo Landa (artean Kazetaritza Fakultateko Irakaslea)-ren zuzendaritzapean, mahaingurura bildu ziren Martin Ugalde (Jaurlaritza), Luis Núñez (*Egin*), Josu Landa (*ARGIA*), Mikel Atxaga (*Deia*) eta Mikel Aramendi (*Zer Egin?*). Gaia, "euskal prentsa-egunkaria euskaraz".

*Eginek* egin laburpenak <sup>104</sup> ez zitzaizkion batere gustatu Atxagari. Optimistegia eritzi zion. Titulua izan ere "*Egin y Argia se muestran optimistas ante la posibilidad de editar un periódico en euskara*" zuen firmarik gabeko idazlan hark. Mahainguruan profesionalen beharra eta eskasia, azpiegitura eza, irakurleko urria, euskararen malgutasunik eza, hizkuntza periodistikoaren premia, dirua etab. azpimarratu ziren.

Baina Luis Núñezek *Eginen* izenean halako apustu bat mahairatu zuen: "*Gogo biziz hartuko genuke honelako proiektu bat eta gaur bertan, gauden momentu honetan,*

---

<sup>103</sup> Deia, 1983-X-10.

<sup>104</sup> Ikus *Egin*, 1983-XII-11 eta 12.

*posible izango litzateke guk egunkari hori egitea eta gainera oso merke. Guk proiektu bat aurkeztu genuen eta eskatzen genuen dirua benetan huskeria bat da gobernu batentzat".* <sup>105</sup>

Areago joan zen baina: *"Problema baldin bada bi proiektu daudela gu prest gaude Deia-rekin batu eta elkarrekin egunkari bat egiteko baina guk ikusten dugu gaur egun oso baldintza onean gaudela euskal egunkari bat egiteko eta ez dugu ikusten zergatik ez den berehala egiten "* <sup>106</sup> (kontutan hartu behar da *Egin*-ek bakarrik onartu zuela Gipuzkoako Diputazioaren diru-laguntza euskarazko eranskina egiteko egunkariaren baitan). *Egin*-eko zuzendaritzako soziologoak posibilitate hori aipatzen zuen bitartean, *ARGI*ako kazetariak (Josu Landak) *"liluraz lilura baina azpian benetako planifikazio baten falta nabaria"* ikusten zuen, eta gobernu *"itxura egiten"* ari zela salatzen. <sup>107</sup>

Atxagak, aipatu bigarren hartan, <sup>108</sup> egunkari bakarraren alde agertzen da: (*"hasteko eta bukatzeko, ez dugu bi egunkari burutzeko hainbat kazetari, nere ustez"*), zabala (*"iritzi guztiei ateak zabalduko lizkieken egunkari bat nola moldatu, ordea?"*, galdetuz) eta Administrazioak kontrolatuta (*"Administrazioak kontrolatu behar du diru publikoa zertan eta nola erabilzen den"*). Amaitzeko proposamen gradualista bat egiten zuen: *"egunkari bat kaleratu aurretik, urtebeteko saioa egin beharko luke behar bada egunero egunero egunkaria moldatzen, kalera ateratzeko modukoa den ala ez ikusi arte (...) eta gauza bagara orduan eskatu beharko diogu dirua administrazioari, diru horrekin baldintzak elkarrekin erabakiz"*.

---

<sup>105</sup> 60 milioi aipatzen zituen Nuñezek aipatu mahai inguruan.

<sup>106</sup> Ibid.

<sup>107</sup> Aipatu mahai inguruan emandako adierazpenak.

<sup>108</sup> Deia, 1983-XII-14.

Hirugarren artikulua "Euskarazko egunkariak nagusiaren baimenik gabe"<sup>109</sup> izenekoa da. Amatiñok ETBn mahainguru sonatu bat antolatu ondoren, idatzia. Mahainguru hartan Joseba Arregi (*Jaurlaritza*), Mikel Atxaga (*Deia*), Mikel Aramendi (*Zer Egin?*), eta Xalbador Garmendia (*Egin*) bildu ziren. *ARGIA*, kalean geratu zen.<sup>110</sup>

Egoera honetan pare bat ideia nabarmendu ziren: badirudi *Egin*-ek '*berehalakotzat*' hartzen zuela egunkaria; Atxagak, aldiz, ez: "*nire ustez euskarazko egunkaria ezin daiteke gauetik goizera egin*" eta susmoa zabaltzen ari zen Jaurlaritzak ez ote zuen egunkaria kaleratu nahi *Egin*-eko ideologiaz fido ez zelako, bestela esanda eremu hori kontrolatzen ez zuelako ("*¿por qué no se dice que es posible el diario...no será porque disgusta el color de quienes lo promueven?*").<sup>111</sup>

Atxagaren laugarren artikulua "Kontrarioz gabe"<sup>112</sup> deiturikoa da, eta gai bitxi baten inguruan idatzia dator. Alde bakoitzak (*Deia-Egin*) milioia jarritz apustua egin nahirik Donostiako Alde Zaharreko "Bodegón Alejandro" aurrean agertu zela eta kontrarioz azaldu ez zelako etxeratu behar izan zuela aitortuz. Apustua egunkaria ezetz-baietz urtebetean burutu, zen. "*Argi geratu da, beraz, zioen Atxagak Egingoak azaldu ez zirela, 'Egin' ez dela bihar bertan euskarazko egunkari bat kaleratzeko gauza*".<sup>113</sup> Datu

---

<sup>109</sup> Deia, 1984-I-13.

<sup>110</sup> Argiak kalean geratzeagatik protesta bizia egin zuen: "Argiak ere badu zer esanik", *Egin* 1984-I-1. *Egin*-en bertan artikulua garrantz bat idatzi zen (ikus *Egin*, Debate con truco en Euskal Telebista, 1984-I-12) nonbait *ARGIA* 'eliminatzeagatik' eta *Egin*-eko ordezkaria "inposatzeagatik"). ETBk bere defentsan honela zioen "*no se pretendía un debate entre empresas de la información sino entre profesionales comprometidos con el medio*". (*Egin*, 1984-I-13an)

<sup>111</sup> *Egin*, 1984-I-12.

<sup>112</sup> Deia 1984-I-17.

<sup>113</sup> *Ibid.*

interesgarri bat eskeini zuen, alegia euskal komunikabideetan jada ari zirenak kontatu gabe 40 kazetari euskaldun xirela. X. Aranburuk urte batzu lehenago 10 bakarrik aurkitzen zituen denak kontatuta. <sup>114</sup>

Bostgarrena, "Libertaltasunik gabe ezinezkoa da euskarazko egunkaria", <sup>115</sup> Amurizaren kontra idatzia dago, honek sakonean arazo politikoa zela, euskal irakurlerik gehien zuen egunkaria *Egin* zela eta "*horiek ez lukete(la) egunkari erreakzionaririk erosiko euskaraz izanda ere*" esan bait zuen. <sup>116</sup> Atxagaren artikulua horretan libertaltasunaren interpretazio bitxia ematen da. Diru publikoaren premia ezinbestekotzat jo ondoren eta Amurizak esandako "*euskal irakurlegorik gehien Egin-en inguruan dabil*" hura "*egia balitz ere*", honela amaitzen bait zuen: "*ideologia berdineko -Egineko- egunkaririk euskaraz moldatzeko dirurik ez du indar horiek -PNV, PSOE, EE, AP- emana izango*". Alegia gehiengoa izanarren, indar politikoez horrela erabakita posible dela euskarazko egunkari bat dirurik gabe geratzea, beraz egunkaririk gabe: "*diru publikoaren giltza, herriaren ordezkariak (bait)dute*". Baina, zinez, ez al da, horixe gertatu libertaltasunaren eta gehiengo instituzionalaren arabera *Euskaldunon Egunkariarekin?*. Dударik gabe, eta ez *Egin* bezalako egunkari bat egiteko, askoz ere zabalagoa baizik.

"*Nork esan du, gehitzen zuen Atxagak beste pasarte batetan, indar desberdinez osatutako kontseilu batek zainduko lukeen euskarazko egunkaria erreakzionarioa izango litzatekeela?*" (...) *elkarri amore eman ez euskarazko egunkari bat ez badugu onartu nahi, jai dugu: ezin daiteke euskarazko egunkaririk argitara*".

---

<sup>114</sup> ikus Aranburu, X., Euskera aldizkaria o. aip.)

<sup>115</sup> Deia 1984-I-18.

<sup>116</sup> ikus "Euskara hutsezko egunkaria", *Egin*, 1984-I-12.

#### IV. Atala: egunkaria irtenbide. Porrotaren eta erabakiaren artean

---

Irtenbidea, ordea, beste nonbait aurkitzerik bazegoen, alegia ez ote dago partidu politikoez aparteko beste parametririk?

Amaitzeko beste seigarren aportazioan gai marjinalago bati ekiten dio titulutik bertatik: "Arratsaldeko egunkariak ez du bizirik", <sup>117</sup> alegia: *"puntu hori, dio, argi baina argiago ikusi genuen(...) zeren erdarazkoak irakurlerik ez zutelako eta oso herri gutxitara iristen zirelako hil baziren nola arraio bizi behar du euskarazkoak?"*.

Bigarren atalean proiektu horiek eman zuten jokuaren berri eskaintzen da. □ Beraz, datak eta ez ditugu errepikatuko. Debateak dena dela zenbait gauza utzi zituen planteiaturik ondorengo urteetarako. Adibidez, Atxagak *"elkarri amore eman ez euskarazko egunkari bat ez badugu onartu nahi, jai dugu"* zioen bitartean; <sup>118</sup> Antxon Allendek (Jose Felix Azurmendi, artean *Eginen* zuzendari, orain *Deian* zuzendariorde) honoko hau planteiatzen zuen, gerora guztiz funtsezkoa izan dena: *"Habría que preguntarse si los nacionalistas vascos van a ser capaces de acercarse a un punto de encuentro en el que sea posible un diario en euskera, en el que todos parecen estar de acuerdo"*. <sup>119</sup>

*Deiak*, luzarorako ikusten duela irtenbidea; Allendek, *Egin* eta *Argiaren* presak batzea proposatzen du martxan jartzeko. Egia esan, hori ere ez zen lortu. Nik

---

<sup>117</sup> Deia 1984-II-4. Antza denez Kerman Rekondo, Juan Joxe Zubimendi, Joxe Manuel Odriozola, Euskarazko Batzordeko Gipuzkoako Diputatuek, Felix Ibarretxe eta Atxagak berak, egindako azterketak eta elkarrizketak horixe eman bait zuten

<sup>118</sup> Deia 84-I-18.

<sup>119</sup> Ikus, "¿El euskera un punto de encuentro?", *Egin*, 1983-XII-12.

dakidala garai hartan elkarren arteko konfidantzarik ez zegoelako. Ditudan testigantza pertsonal zenbaitzuren arabera, aldizkaria *sozialdemokrata* omen zelako egunkariaren nagusien *gorritasun* marxistaren aldean.

#### 4.4.1. Orain-Iparragirre proiektuak

Nolakoak ziren, baina, bai Orain SA-k bai eta Iparragirre SA-k (bakoitzak bere aldetik) aurkeztu zituzten proiektu haiek? 1983.eko maiatzean eman ziren ezagutzera, xehetasun askorik gabe eta bien berri zehatzen Leioako Unibertsitateko Kazetaritza Fakultateko Mahainguruan. Bestela, zenbait hitzalditan eta zehaztapan solteak ematen dira zifrak milioi gutxitan aldatuz gora edo behera; ez, ordea, funtsean. Nik, galdetuarren, ez dut proiektu idatzirik eskuratzerik izan. Beraz, garaiko prentsan aditzera eman (eta ezeztatu ez) ziren datuak eskeiniko ditut. Leioako Mahaingurutik (1984-III-26) honako datu hauek jaso zituen prentsak hurrengo egunean. *Iparragirreren* proiektua *Deiarekin* lotua egiteko zen; *Orainekoa Eginekin*, ostera.

ENPRESA	OR.	LANGIL.	TIRADA	SALM.	PREZ.	LAGUN.
---------	-----	---------	--------	-------	-------	--------

ORAIN	12	18*	10.000	6.000	25 pt.	70 m.
IPARRAGIRRE	24	40*	10.000	3.000	40 pt.	146 m.

**Oharra:** Orainek 18 langiletatik, 12 kazetari eskatzen zituen; Iparragirrek, 40tik 23.

Orain SA-ren kasuan zenbait xehetasun gehiago eman zituen Eginnek *"nuestro periódico, zioen, comprendería todas las secciones propias de cualquier periódico y con el fin de atraer y facilitar la lectura la componente gráfica tendrá en él un peso proporcionalmente superior al habitual en la prensa diaria (...) su destinatario estará formado preferentemente por los estudiantes de ikastolas, gau-eskolas, con la consiguiente adecuación del contenido del diario a estos sectores y en general a la juventud euskaldun, que es la que da un índice más elevado de alfabetizados debido a la labor realizada por las ikastolas (...) y será vespertino...para facilitar la simultaneidad entre nuestro diario euskaldun y el bilingüe que será matutino...De todas formas esto no es una definición rígida y está abierta a otras alternativas"*.<sup>120</sup>

Eskertzekoa da azken xehetasun hau baina, sakonean, zera ikusten da: batetik orduko Orain SAn ez zela pentsatzen egunkari normaldu batetan eta, funtsean, 1990an Belokiren taldeak sinaturiko proiektuarekin antz gehiago zeukala, gero, Orain SAren laguntzarekin besteak beste, egin denarekin baino, hots, egunkari oso eta homologarri batekin. Beraz, egunkari osagarria dagoela helburutan, erran nahi da.

*Iparragirrek ez zituen bere berriak zabaldu baina bertoko gizon eta emakumeek geroztik mamitu dutena ikusirik eta garaiko adierazpideak kontutan hartuz, arrazoizkoa ematen du esatea Orainen antzekoa izango zela. Orain, S.A.rena ez bezala, goizekoa izan nahi du Iparragirre, S.Arenak.*

---

<sup>120</sup> Egin, 1984-I-12.



## V. ATALA: HASIERAN EUSKAL PRENTSA IZAN ZEN

Aurreko lau kapituluetan azaldu da Jaurlaritzak ez duela inoiz begi onez onartu *herri dinamikatik* datorren kazetal-proiektua. Nola edo hala indargabetzen saiatu da: oztopoak jarritz, ez behar bezala lagunduz, proiektu bat egitea ukatuz, ordezekoak sortuz edota lehia eraginez, irtenbiderik gabego egoerak etengabe luzatuz etab.

Beraz, gatazka bat eman da.<sup>92</sup> Lehia-giro hauxe azpimarratzen da UPVko irakasle talde batek 1988.ean aurkeztu lan batean politika komunikatiboak erantzun beharreko erronken artean euskara babestea gomendatuz: *"una política de promoción idiomática tendente a superar la situación diglósica del euskera en los ámbitos educativo, comunicativo, público y de las relaciones sociales...es absolutamente imprescindible. Teniendo en cuenta la desigualdad de partida entre el euskera y castellano es necesaria*

---

<sup>92</sup>Gatazkaz dexente mintzo dira soziologilariak. Ralf Dahrendorf adibidez, -Sociedad y Libertad. Hacia un análisis sociológico de la actualidad, Tecnos, Madrid, 1971, 184 eta hur.,190 eta hur. eta 208 or bereziki-, arazoa *kontsentsuaren teoriara* eta *koakzioaren teoriara* mugatuz den. Lehenaren arabera gatazka negatiboa da eta akordiora ailegatu behar da; bigarrenaren arabera, berriz, gatazka kreatiboa izan daiteke. Daniel L. Seiler-en eritziz -La Politique Comparée, Armand Colin, Paris, 1982, - gatazka unean unekoa izan daiteke ala egiturazkoa. Gatazka komunikazio-prozesu gisa ere har daiteke. Ikus horretarako, Borrat, Héctor, El periódico, actor político, G.G., Barzelona, 1989.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*una prioridad para el desarrollo de la cultura en euskera, incluso a costa de otras parcelas y con medios bastante más importantes que los actualmente existentes de tal modo que puedan permitir una generalización gratuita de la oferta y una demanda voluntaria. En este sentido el enfoque competitivo entre instituciones y grupos sociales o la identificación de conocimiento del idioma con el mero acceso profesional (y que se está saldando con su mero enquistamiento institucional mientras que apenas avanza como vehículo comunicativo en las relaciones sociales) hace un enorme daño al desarrollo del idioma nacional y a su extensión social".* <sup>2</sup>

Deigarria, guttienez, hainbatetan eta hain gartsuki euskararen alde dagoela aldarrikatu duen erakunde batentzat. Aipu bakarra egitearren, hara hemen Ramon Labaienek Kultura Kontseilari zenean, Jaurlaritzaren hastapenean esandako hura: *"Es principio del Gobierno que no hay Euskadi sin euskara. Que el euskara tiene que llegar a ser la lengua de todos los días y que la forma más rápida de llegar es tener los medios de comunicación, televisión y radio, en euskara todos los días del año y aquí no estamos ante una cuestión de costos sino una cuestión de supervivencia".* <sup>3</sup>

Adierazpenak adierazpen, arazoa da Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroako Foru Komunitatean, bere momentuan eta hemen diskutituko ez ditudan mekanismoz, proiektu elebikoa aukeratu zela. Espainiako Konstituzioak ez du duda izpirik uzten hizkuntz-arazoan: *"El castellano es el idioma oficial del estado español. Todos los españoles tienen*

---

<sup>2</sup> Garitaonaindia, Karmelo eta beste, "Estructura y Política de Comunicación en Euskadi". Ale fotokopiatua, 75.or. Lan hau argitaraturik ikusi nahi duenak "Comunicació social i identitat cultural" tituluz ikusiko du, 16 Congreso Internacional de la IAMCR-AIERI, Barcelona 1988, 58-140 or.)

<sup>3</sup> Egin, 1980-VIII-20.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*el deber de conocerlo y el derecho de usarlo. Los demás lenguajes españoles también serán oficiales en sus respectivas comunidades autónomas, de acuerdo a los estatutos...*" <sup>4</sup>

Beronen oinordeko diren EAEko Autonomi Estatutuak zein Nafarroako Foruaren Hobeagotze legeek, berriz, nagusigo hori errespetatzen dute. *"Euskarak, dio Euskal Autonomi Elkarterako Autonomia Estatutoak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea"*. <sup>5</sup>

Euskararen erabilpena arauzkotzeko Legean, berriro errepikatzen da harekiko menpekotasuna: *"Euskal Herriko autonomia-Elkartearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira"*. <sup>6</sup> Zergatik baina bigarren atalean *"Euskal Herriak euskara du berenezko hizkuntza"* <sup>7</sup> esan baldin bada?

Nafarroan, berriz, *"gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala"* <sup>8</sup> eta euskaldunei zenbait zonaldetan <sup>9</sup> errekonozitzen zaie hizkuntz-eskubidea: *"Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarrorako eskualde euskaldunetan"*. <sup>10</sup>

Espainiako Konstituzio eta EAEko erreferendumen ondoren (1978-XII-6 eta 1979-X-25) eta geroztik, ezin da euskara hutsezko gizarte baten aldeko apustu ofizialik egin (euskal

---

<sup>4</sup> Constitución española, 1978, 3.atala.

<sup>5</sup> Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 1979, 6.art.1.

<sup>6</sup> EHko a.ren a, 1982-XII-16, 3. atala.

<sup>7</sup> Ibid, 2. atala.

<sup>8</sup> Nafarroako Foru Eraentzaren Birrezarri eta Hobeagotzeari buruzko Ituna, 1979-I-26, 9 art. 1.

<sup>9</sup> Ikus 18/1986 Foru Legea, Abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa.

<sup>10</sup> Ibíd. 9. art. 2.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

prentsak egin duen bezala, udalerrri euskaldun elebazarrek egin duten bezala etab.)<sup>11</sup> Oraintsu, baina, euskaraz bizitzeko erabaki hau *fundamentalistat*z jo du Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak.<sup>12</sup>

Egin dezakete instituzio ofizialek euskararen alde -eta dudarik gabe Jaurlaritz bera da euskararen alde eta zehazki euskarazko argitalpen aldizkakoentzat diru gehien bideratzen duen erakundea, EAEko Aurrekontuetan antzeman daitekeenez-, adibidez euskara erdararen aldean primatuz, *diskriminazio positiboa* eraginez nahi bada, baina betiere oinarri politikoak ukitzen ez dituen bitartean. Alegia, egon gizarte elebidunean gaudela eta euskaraz bizitzea norberaren aukera pertsonalari dagokion arazoa dela ukatu gabe. Nolanahi ere, aipatu elkarte horiek (euskal prentsak, udalerrriek etab.) hartutako erabakiak hauxe erakusten du: legediarentzat *ezinezkoa* dena, bideragarria dela estatuaren legea erabakiaren zentrua egiten ez dutenentzat.

---

<sup>11</sup> Azpimarratzekoa da Udalerrri Euskaldun Elebazarrek propio eta legea aldatu aurretik hartutako erabaki finkoa. 1991-IV-26an hogeita hamaika (31) udalerrrik babesturik honoko deklarazioak egin zituzten Mankomunitatea osatzeko asmoz: "*El monolingüismo es la única opción para que el euskara perviva, y en este momento son necesarias reservas para que nuestra lengua no desaparezca. (...) Cada país tiene su idioma oficial en el que sus ciudadanos desarrollan su vida, y nosotros vivimos en Euskadi y su idioma es el euskara. Es un derecho fundamental de toda persona el vivir en su propia lengua. No se plantea marginar al castellano en nuestra comunidad, sino garantizar una Euskal Herria euskaldun, sin prejuicio de que sus habitantes conozcan otras lenguas. La única pretensión es garantizar los derechos lingüísticos personales y colectivos de Euskal Herria, tomando para ello las medidas necesarias. Lo mismo que en España el único idioma oficial es el castellano y en Francia el francés, la intención es conseguir que en aquellos municipios mayoritariamente vascoparlantes la única lengua oficial sea el euskara*". Ideia 1988koa da eta EHE eta EKB dira promotoreak, urte horren urrian "Hizkuntz Normalizazioa eta Funtzio Publikoa" aztertzeko lurraldetasun konzeptua onetsiz. (Ikus Hemen, 1988-X-28). 1990-X-18an, aldiz, honoko deklaraziook egin zituen EAJ-PNVk: "*no defendemos el monolingüismo, aunque se deben potenciar los circuitos en los que el euskara sea el único idioma utilizado, de forma que se respete a las personas que quieren vivir en euskara*". Egun horietan bertan, Joseba Arregik hauxe zioen:" el monolingüismo es un principio reivindicado únicamente por los sectores próximos a ETA".

<sup>12</sup> Buesa, Fernando, Euskaldunon Egunkaria, 1992-II-29.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Komunikabide idatzietara itzuliz, gatazka, agerian, kazetal proiektu biren tira-bira gisa azaldu da. Horregatik hain zuzen, gorago aipatu denez, euskararekin loturiko *herri mugimenduak* honela karakterizatu zuen egoera bere momentuan: hemen bi proiektu daude. Baina, sakonean, arazoak politikan ditu sustraiak, politikoa da bete-betean, gatazka honen unerik gorienean agertu denez, alegia "*Egunkaria Sortzen*" promotorak bere proiektua kaleratu eta Jaurlaritzak "*Egunero*" proiektu instituzional bideraezinarekin erantzuten duenean, Gasteizko Legebiltzarrean esandakoak esan ondoren.

Beraz, honoko atal honen lehen zatian, gatazkaren guda-landa ezezik gatazkaren terminoak identifikatu eta berorien arteko dialektika azaldu nahi dut, gertatutakoak ez bait du esplikaziorik borondate (ala herra) pertsonal hutsetan, ahalmen eta muga egiturazkoetan baizik, nahiz eta jakina, egituraren parte direnek, gogoz ala kontra, muga horiek onartu eta iraupena segurtatu.

Aldi berean, atalaren bigarren zatian, eskenatoki edo guda-landa horretan eman den *gertakizuna* azaldu nahi dut, zeinak, (*generikoki* Euskal Prentsa izendatua), suposatzen duen *apustu erabakiorraren* bitartez, printzipioz politikoki ezinezkoa den zerbait *erreal* bihurtzen duen, hori izanik gainera, eskenatoki horren, *egoera* edo situazio horren, *egia* bakarra.

### **5.1. Guda-landa edo gatazkaren eskenatokia**

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*Guda-landa* edo *eskenatokia* terminoak aukeratzea ez da halamoduz egindako aukera bat. Hautu konzienteza izan da, dituzkeen bi esangurak batera jaso nahirik. Izan ere *guda-landak* espazio batean benetako gatazka bat eman daitekeela (*borroka* bat) iradokitzen du eta horixe da adierazi nahi dudana: euskal prentsaren auzian benetako *lutte* bat izan dela ez gorabehera hutsa. Guda-landa horretan benetako protagonistak (*subjektuak*) ari (izan) diren bitartean, besteontzat -ikerlariantzat bereziki- espazioa ikuskizun (eufemistikoki aztergai) bilakatu da: harrizkoa askotan, ulergaitza zenbaitetan, xelebrea ez guttitan, eskandalagarria halakotan; adierazgarria, beti. Hortik, *eskenatokiaren* irudia. Gertatutakoaz jabetzeko, eta ondorioz aztertzeko, ordea, nola edo hala, premiazkoa da hurbiltasuna, nire kasuan apalki aitortu dezakedana.

Bi kontzeptu horiek batera emateko, baina, badago egon beste bat, *egoera* deitua edo situazioa. Hemendik aurrera, beraz, aldi berean eskenatokiaz eta guda-landaz aritzeko *egoera* aipatuko dut, hori delako ondorengo gogoetarako bide zabalena eskeinko duena.

### **5.1.1.Egoeraren mugaketa**

Zer da egoera? Zer definitzen du hitz horrek? Alain Badiou filosofari frantziarraren hitzetan: "*Llamamos situación, para abreviar, a un estado de cosas, una multiplicidad*

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*cualquiera*".<sup>13</sup> Ez da, berez, leku fisiko bat, espazio geografikoa ezinbestez. Gure aurrean dagoena da, azaltzen den gisan.

*"J'appelle, dio Badiouk zehatzago, situation toute multiplicité présentée. La présentation étant effective, une situation est le lieu de l'avoir-lieu, quels que soient les termes de la multiplicité concernée. Toute situation admet un opérateur de compte-pour-un, qui lui est propre. C'est la définition la plus générale d'une structure que d'être ce qui prescrit, pour une multiplicité présentée, le régime du compte-pour-un. Quand, dans une situation, quoi que ce soit est compté pour un, cela signifie seulement son appartenance à la situation dans le mode propre des effets de sa structure".*<sup>14</sup>

Beraz, definizio zehatzago honetatik zenbait puntu azpimarratu behar dira. Batetik, egoera eta egituraren artean zerikusirik zuzena dagoela; eta bigarren, edozein egoeratan, egoera jakin bakoitzean, norbaitek-zerbaitek ziurtatzen duela egoera horren partaide norzer den. Norbait-zerbait kideztat hartua denean, egoera horren partaide da baina ez edozein modutara, egiturak agindu gisan baizik. Egitura bera bait da *kontabanatzailea*.

*"Il ne faut pas perdre de vue que toute situation est structurée"*<sup>15</sup> darrai Badiouk, hots, egituratik kanpo ez dago egoerarik, situaziorik, egoerak egituratuak direlako. Beste era batera esanda, dagoena, nola edo hala, egoera, situazioa da: *"il n'y a que des situations"*<sup>16</sup> Ez dago besterik. Gure kasurako, (ezen Euskal Herria deitu lurraldea egonarren, politikoki ez bait da esistitzen; esistitzen denak Euskadi, Navarra, Pays Basque Français du

---

<sup>13</sup> Badiou, Alain, Manifesto por la filosofía, Ed. Cátedra, Madrid, 1991, 19 or.

<sup>14</sup> Badiou, Alain, L'être et l'événement, Editions du Seuil, Paris, 1988, 32 or.

<sup>15</sup> Ibid. 32 or.

<sup>16</sup> Ibid. 33 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

izena), Euskal Herrian politikoki egituratuta dagoen egoera bakarra, guda-landa bakarra, (azken *frankismo* eta ondorengo) gizarte elebikoa da. Ez, noski, gure Herrian bina hizkuntza daudelako, jendeak bi hizkuntzatan mintzo delako (asko hiruzpalautan ere mintzo bait da eta gehiengo absolutoa (% 70 EAEan, Mari Karmen Garmendia Jaurlaritzako batzorde parlamentarioaren aurrean 1991- XI-14 esandakoaren arabera) bakar batetan: espanyola zein frantsesa), *politikoki* hori erabaki delako baizik. Hau da lurraldea da elebikoa; ez pertsonak. Eta ikusiko denez, ez egoera *transitorio* gisa; *definitibo* gisa baizik.

Hori bezain zuzena da beste hau, alegia, zerbait izateko, zerbaitek izaera izan dezan, norbaitek-zerbaitek kontatu egin behar du lehenik, hots identifikatu egin behar du. Ez dago *bagarik*, kontatua izan arte. Beraz, egituratua dagoen oro printzipioz *anitza* da, egituraketa efektu bat bait da. Egitura bera ez bait da ek-sistitzen kontabanaketa, operazioa, egin arte.

Anitza, ostera, etenik dago: "*Il est claire que le multiple se trouve scindé*".<sup>17</sup> Hau da, alde bikoa da. Anitza, batetik, *presentazioa*, aurkezpena litzateke, "*telle que rétroactivement appréhendée comme non-une dès lors que l'être-un est un résultat*".<sup>18</sup> Baina anitza da baita ere, kontaketa osagarria, "*soit le multiple comme 'plusieurs uns' comptés par l'action de la structure*".<sup>19</sup>

Lehenengo aldea, *inkonsistentea* -anitza ere bai- deituko dut, Badiourekin; *konsistentea*, -plurala ere bai- bigarrena. Honek guztionek, azpian, beste tesi bat darama: ez

---

17 Ibid.

18 Ibid.

19 Ibid.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

dago *Bagarik*, dauden gauza ororen iturri eta sorburu. "*L'Un n' étant pas, tout effet-d'un est le résultat d'une opération, le compte-pour-un. Toute situation est structuré par un tel compte*".<sup>20</sup> Izaera produzitu egiten da, hots, "*l'être advient dans toute présentation*".<sup>21</sup>

Honekin hauxe esan nahi da oraingoz: egoeran agertzen diren termino guztiak, ez direla berez ematen, zerbaiten eraginez, ondorio gisa sortzen baizik; termino bakoitzak bi alde dituela: inkonsistentea bata, aurkeztua den heinean; konsistentea, bestea, kontatua izan den heinean.

### **5.1.1.2. Egoera diglosikoa**

Euskal Herrian ematen den *egoera*, soziolinguisten begiz ikusita *diglosikoa* da eta, batzurentzat, *diglosi terminala*. EAEko Jaurlaritzak agindu eta José Ignacio Ruiz Olabuenagaren zuzendaritzapean burutu zen Euskararen Borroka, deitu lan kolektiboan<sup>22</sup> euskararen kasua "*diglosia marginala*" kontsideratzen da, hots "*hizkuntz egoera hau, honetan bereizten da (diglosia hutsetik); bi hizkuntzetako bat biztanleria osoak ezagutzen duen eta erabiltzen duen bitartean, bigarrena gutxiengo batek egiten duela eta, aldi berean, hizkuntzen estratifikazio soziala dakarren hizkuntz erabileraren banaketa bat*

---

<sup>20</sup> Ibid. 539 or.

<sup>21</sup> Ibid. 35 or.

<sup>22</sup> Ikus Jakin, 26/27 zb., 1983, 28,29.or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*ematen dela, batak bestea menperatuz. Jose Maria Sánchez Carrión, "Txepetx" berdintsu mintzo da: "El euskara además, está amenazado en su misma transmisión natural".* <sup>23</sup>

Xabier Isasi psikologoak, berriz, oraintsuko bere tesian honela dio: "*Gure ustez Euskal Herriko egoera hirugarren kasuan datza, desagerpenerantz jotzen duena".* <sup>24</sup> Ez da diglosia, halere, dokumentu ofizialetan agertzen den termino-definitzailea; Euskal Herria, hizkuntzari begira, ofizialki, espazio *elebiduna* da.

Nire lan honetan, behintzat, funtsezkoa da hizkuntzen arteko ukipenei dagozkien konzeptuak beren oinarri-oinarrian zehaztea. Euskara aztergai izan dutenen eritzia jasoko dut bereziki. Siadeco-Euskaltzaindiaren artean argitaratutako "El Libro Blanco del Euskera" idatzlanean, honela definitzen dira elebitasuna eta diglosia.

**Elebitasuna** da: "*situación propia del individuo y de la conducta individual en la que puede darse un mismo status de poder, de prestigio y de función de las dos lenguas en contacto".* <sup>25</sup>

**Diglosia**, aldiz: "*corresponde a una organización lingüística en la que las dos lenguas en contacto están en una relación de no igual status de poder, ni de prestigio, ni de función de modo que en dicha sociedad se da una escisión respecto a dichas lenguas, determinándose en consecuencia dos pautas de comportamiento distintos respecto al lenguaje en los individuos de dicha sociedad".* <sup>26</sup>

---

<sup>23</sup> Sánchez Carrión, José María, "Txepetx", Un Futuro para nuestro pasado, Elkar, Donostia, 1987, 189 or).

<sup>24</sup> Isasi Balantzategi, Xabier, "Hizkuntzen arteko ukipena gizarte elebidunetan", UPV-Donostia 1991. oraino argitarabakoa, 14. or.

<sup>25</sup> Siadeco-Euskaltzaindia, El Libro Blanco del Euskera, Bilbo, 1977, 627 or.

<sup>26</sup> Ibid.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Eta gure egoerara aplikatuz: *"En el País Vasco a pesar de la inexistencia de trabajos anteriores en los que basar mi afirmación, (1977an gaude) opino que vivimos en una situación de diglosia".* <sup>27</sup>

Liburu Zuriarekin jarraituz egoera diglosikoa, *"constituye uno de los rasgos estructurales de la sociedad"* eta gainera *"es de caracter conflictivo".* <sup>28</sup> idazten da Euskaltzaindiak bultzaturiko lan hartan.

Zer da, beraz, zorioneko elebitasun hori, agiri ofizialetan agertzen den hori? Liburu Zurian, honela zehazten da:

*"El bilingüismo (en todos sus grados y variantes) que se da en una situación diglósica no es más que un 'tertium quid' ideal, que las ideologías diglósicas muestran como una situación estable pero que, en realidad, es insostenible. No supone más que una etapa de transición hacia el monolingüismo, a través de la 'sustitución' de la lengua B por la lengua A, o a través de la 'normalización' de la lengua B (desplazando así por innecesaria a la lengua A)".* <sup>29</sup>

---

<sup>27</sup> Ibid. 628 or. Mailakatze zehatza eta bariatua ikusi nahi duenak araka beza besteak beste José María Sánchez Carrión "Txepetx" "Un futuro para nuestro pasado", ob. aip. II. atala; "El espacio bilingüe", Eusko Ikaskuntza, Burlata 1981.155 or. eta hur.; "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística" in Askoren Artean "Hizkuntza minorizatuen soziologia", Ttartaló SA, Bilbao, 1984, 24-47 or., non euskara *"diglosia total o territorial"* delakoan dagoela frogatzen den. Beraz diglosirik txarrenetan kokatzen da euskara traza guztien arabera.

<sup>28</sup> El libro blanco del Euskara, 629 or.

<sup>29</sup> Ibid. 632 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Errealitatean, bi hizkuntzen arteko oreka ez da inon eman eta horrelaxe zioen Euskaltzaindiak eta Siadecok 1977.ean: *"el bilingüismo equilibrado no se ha materializado todavía en ninguna sociedad histórica"* <sup>30</sup>. Van Overbeke-k <sup>31</sup> klaserik gabeko gizartea bezain utopikotzat jotzen du oreka hori.

Beraz, eta azkenean, *"este proceso tiende finalmente al monolingüismo. Tanto la 'normalización' como la 'sustitución' significan la vuelta a la normalidad lingüística, porque una sola lengua basta ya para todas las necesidades y funciones de dicha sociedad"*. <sup>32</sup>

Hau da pertsonak eleaniztunak izan daitezke; gizarteak, berez, elebakarrak.

Aipatu Liburu Zuriaren argitaltzeaz aparte, asko eta asko izan dira gure Euskal Herriaren egitura linguistikoa, *egoera egituratua*, berdintsu karakterizatu duten soziolinguistak. Areago, *elebitasuna* deitzen den egoera tranpa eta iruzurtzat hartu dutenak. Juan G. Cobarrubias irakasleak adibidez *"Hay una hipótesis glotopolítica que enuncia que si en una comunidad coexisten dos o más lenguas oficiales, las mismas no tendrán el mismo status a pesar incluso de que puedan ser co-oficiales...La hipótesis sugerida parece bien confirmada por numerosos ejemplos en los que se da co-oficialidad de lenguas (..), parece difícil que el nivel del continuo (hizkuntza baten funtzio guztiei buruz ari da) pueda alcanzarse en un estado o comunidad bilingüe"*. <sup>33</sup>

---

<sup>30</sup> Ibid. 635

<sup>31</sup> Van Overbeke, Introduction au problème du bilinguisme, Labor, Bruxelles 1972, 58 or.

<sup>32</sup> El Libro Blanco del Euskara, 633 or.

<sup>33</sup> G. Cobarrubias, Juan, "La glotopolítica y el euskara", in A.A., Hizkuntza minorizatuen...195 or..

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*"Nire eritzia da, idazten du Iñaki Müller-ek, elebitasun-politika Euskadin hizkuntz-politika kolonial aktibo, beste helpide batzurekin jarraitutako bat bezala ikusi behar dela. Diglosia, Euskal Herrian ikusi den bezala, hizkuntza sustituzioaren seinale bat da. Madrileko hizkuntz-politika, euskararen deuseztapena bilatzearen ondorio bat da eta bi hizkuntzen arteko desorekak aurrerantzean ere jarraituko duen seinale garbi garbia. Desoreka honek, berriz, aurki edo luzarora ahulenaren desagerpena erakutsiko du".*<sup>34</sup>

Ondokoak Iñaki Larrañaga, SIADECOKo soziologilari zuzendariaren hitzak dira, ostera: *"Ateratzen dudan beste ondorio bat, munduko beste esperientziak ikusirik, elebitasun sozialaren tranpa da. Garbi dago lurralde batean funtzio berak betetzeko, eginkizun berak betetzeko eta jende berak erabiltzeko bi hizkuntza izateak zentzurik ez duela eta horrek ez duela irauten. Elebitasun orekatu eta baketsuaren istorio hori kontu bat dela, hizkuntzen arteko harremanak sekula ez bait dira paketsuak eta gozoak, konfliktuz beteak baizik, batak bestea jan egiten bait dute. Izan ere, aipatu espazio linguistiko horiek betetzea da hizkuntza guztien helburua. Eta hizkuntza, gainera, abstrazio bat besterik ez da, jokuan ez da hizkuntzaren arazoa egoten, hizkuntz komunitateena baino. Hizkuntzen artean borrokek egon behar du espazio berdinak eskuratzeko disputan daudelako. Elebitasuna elebakartasun baten alde erabiltzen den mito bat da".*<sup>35</sup>

---

<sup>34</sup> Müller, Iñaki, Elebitasuna Euskal Herrian, Jakin, 32 zb. 1984, 35 or.

<sup>35</sup> LARRUN, (01 zb), 1985, 28 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Ninyolesek berak utzitako hitzen oihartzuna dute aipatu hitzok: *"El bilingüismo ha sido la cobertura, aparentemente neutra, de TODO proceso de asimilación (...) los soportes institucionales nunca han dejado de orientarse en la práctica hacia la sustitución, no hacia el 'bilingüismo'".*<sup>36</sup>

Kuriosoa da oso, egun Jaurlaritzaren eleduna den Joseba Arregi *jeltzaleak* gauza berbera egunkari batean esana utzi duela ikustea nahiz eta esandakoa ETB1-2aren arteko arazoaz eta kanale elebiduna baztertzeko arrazoituz esan: *"Desde el punto de vista de la política lingüística todos los expertos confirman que a una lengua en una condición muy clara de minorización no se le puede poner en competencia directa en el mismo medio, en el mismo programa, con otra lengua. Significa la muerte. El perdedor es siempre el minoritario".*<sup>37</sup>

Aipatu hitzok Txepetxenak eta Aracilenak dira bete-betean: *"La concurrencia, sobre un mismo territorio y durante el mismo período de tiempo de una comunidad que aspira a un bilingüismo generalizado y la otra que generaliza un monolingüismo de uso, acelera inevitablemente la extinción de la primera, ya que en palabras de Aracil: las aspiraciones máximas de los primeros son muy inferiores a los requerimientos mínimos".*<sup>38</sup>

Hautu ofiziala, ohar!, aditu guztien kontrakoa da (ez bait dago gure artean ganorazko soziolinguistarik egoera bestela aztertzen duenik): gizarte bakar batean bi hizkuntza

---

<sup>36</sup> Ninyoles, R. LL., " Cuatro idiomas para un estado", Ed.Cambio 16, Madrid, 1977, 85 or.

<sup>37</sup> Arregi, Joseba, El Correo Español-El Pueblo Vasco, Juan Carlos Viloriak egin elkarrizketa, 1992-I-26, 19 or.

<sup>38</sup> Sánchez Carrion Txepetx, Un futuro.... 246; Lluís V. Aracilen testua, "Lengua nacional: ¿una crisis sin crítica?", in Hizkuntza minorizatuen soziologia, 443-455an jasoa dago.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

elkarren aldamenean daudela ikusi eta hori ez transiziozko etapa gisa, betirako bihurtzea baizik.

Betirako, alegia. *"Gure borroka eta lana gizarte elebiduna eraikitze bideratuta dago, dio Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak. "Herri honetan, demokratikoki, elebitasuna aukeratu dugu. Arazoa ez da, beraz, zer nahi dugun nola egin behar dugun baizik (...) Azken finean helburua zera da, hizkuntza guztiek beren tokia izatea, baina, beti ere, hizkuntza horiek hiztun dituztenen gogo eta asmoei begiratuta. Ez dugu nahi ez ingelesa, ez frantsesa, ez gaztelera ezta euskara ere denetarako, ezta denontzat ere, ezta neurri berean ere".*<sup>39</sup>

Arazoaren giltza Aracilen esanetan dago aipatu testu hartan bertan aitortua: " *La extinción es inevitable porque lo indispensable es imposible -inconcebible- en primer lugar y el pensamiento, atrapado, se debate inútilmente y su impotencia confirma la imposibilidad de cambiar así las reglas del juego. No es pues muy difícil, sino simplemente imposible que las mismas presuposiciones generen otro discurso(...) sin duda es imposible abrir un futuro sin arrancar de una vez y aventurarse fuera(...) Dentro del orden establecido, las situaciones minoritarias son 'marginales' por definición -y se supone que son peculiaridades locales significantes. Las comunidades minorizadas parecen ser 'residuos' y 'supervivencias' porque se las supone inviables. Los datos, sin embargo, sugieren que la clausura del futuro fue una conclusión previa -y que la inviabilidad fue el*

---

<sup>39</sup> Garmendia, Mari Karmen, "Hizkuntza politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean", Gasteiz 1991-XI-14", □EJren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991, 29-36 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*resultado de unas expectativas(..) La sospecha de que lo 'marginal' puede ser central libera al menos la imaginación. Todo es aún muy vago".* <sup>40</sup>

Badiouk egoera horren kaiolatik ihes egiteko, kondizio objektibo horretatik alde egiteko, *"ce qui passe en force"* jotzen du ezinbestekotzat. Aurrera-pausua egingo duen subjektuaren eragina, erran nahi bait da. <sup>41</sup> Aurreratzearren, baina, azpimarratu hau: *"tout sujet est politique"*. <sup>42</sup>

Holakoxea da lan honetan kontutan hartzen den *egoera*: gatazka etengabea, elkarren lehian dauden bi hizkuntzez osatua (español-a-euskara; frantsesa-euskara). Ez berezko egoera, jakina, politikoki horrela aukeratua baizik (eta orain bost ajola, gehiengoak honela hautatua ala ez izatea). Arazoa, beraz, ez da linguistikoa, politikoa baizik bete-betean.

Beste era batera esanda *prozesu dialektikoan* dauden bi terminoz osatuta dago egoera. Kontraesankorrak (eta antagonikoak) direlako bi terminook: *"Tout procès dialectique réel*, dio Alain Badiouk, *intrique une contradiction structurale et une contradiction historique, affectant les mêmes termes. La seconde s'étaye sur la première. Cet étayage est le noeud de la question du Sujet"*. <sup>43</sup>

---

<sup>40</sup> Aracil, Ll., in Hizkuntza minorizatuen...446-48 or. Azpimarrak bereak dira.

<sup>41</sup> Badiou, Alain, *Théorie du Sujet*, Seuil, Paris, 1982, 41 or.

<sup>42</sup> Ibid. 46 or.

<sup>43</sup> Ibid. 43 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Egoera, zentzu orokorrean horrela izanik, berdin agertzen da kazetal mailan ere, non lekutzen den egoera hura, Bafiouk bere obra osoan *esplace* hitzez adierazten duen: alegia, Euskal Herrian arautua den "kazetal egitura" bakarra da (kode elebakarrean zein elebikoan), legedia bakarraren menpe dago, estatuak kudeatzen duena. Halere, zenbaitek ("halako batean") egitura hori hautsi eta jauzi egin du euskal elebakartasuna aukeratuz eta, areago, aldarrikatuz hori dela kazetaritza bakarra Euskal Herrian: euskarazkoa.

Hau guztiau nola den posible erakutsi nahi dut ondoko orrialdeotan, egituran (eta ez beste inon) aurkitzen diren osagaiak azaldu eta gero. Hemen erreibindikatzen da euskarazko prentsan gertatutakoa egoera politiko osoaren aspektu bat baino ez dela. Nahi bada, erabaki politikoak egiten duela prentsa euskalduna ala ez. Euskal Herri (euskaldunari) dagokion prentsa, euskal elebakarrekoa dela.

### **5.1.1.2.1. Prentsa idatziaren egitura**

Goian aipaturiko lanean (Garitaonaindia 1988) "estructura de la prensa en Euskadi" delakoa aztertzerakoan, "*prensa en lengua castellana*" eta "*prensa en euskara*" bereizten da egoera bakar baten bi azpisail baitliren. Zehatzago *Euskadi* deitu EAE izeneko lurralde geografikoan egiten den prentsa, besterik gabe, onartuz. Baina, jakina, hizkuntza bat baldin bada herri baten ezaugarririk garrantzizkoena, eta hemen horixe defenditzen da, ezin daiteke, diskutitu gabe hain zuzen, *prensa vasca* zer den erabaki. Ez diskutitze horretan

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

bertan dagoela koska uste dut nik. Baina, diskusio hori egina da, eta hortik abiatzen da Euskal Prentsa.

Egituran, politikoki bina hizkuntz daude lehian; kazetal-produktuen mailan, aldiz, erdaldun elebakarrak, elebikoak eta euskaldun elebakarrak agertzen dira. Halere, sakonean, pare horren islada dira eta gatazkaren seinale, zeren debekaturik dena ez da hizkuntza erabiltzea, hizkuntzaz gizartea egituratzea baizik. Ez dira kode linguistikoak zalantzan daudenak, hizkuntzaren funtzioak osatzea baizik.

1976.a Euskal Kazetaritzaren Urtea izan zen. Urte horretan eguneroko prentsa erdalduna zen erabat. Eguneroko prentsan salbuespenak bilatzen hasita Fraga Legearen ondoren (1966-III-18) "Diario de Navarra"k Nafar izkuntzan orria egiten du astero; "La Voz de España"k egunero jasotzen du Ignazio Eizmendi "Basarri"ren lan bat eta 1974tik aurrera Igandeko euskal orria; 1969tik aurrera "El Diario Vasco"k igandeko ebanjelioa elebitan astero; 1971etik aurrera Donostiako "Hoja de Lunes"ek idazlan bat astero eta "La Gaceta del Norte"k 1971-74 bitartean orrialde bat elebitan. Fraga Legea baino lehen 1962tik aurrera "El Diario Vasco"k Ordiziko azokaren berri ematen zuen euskaraz. Geroztik, 1977an hasita, euskarari leku egiten zaio prentsan, egunerokoan eta aldizkakoan. Euskarazko produkzioa ere gehiagotu egiten da. Gertatutakoaren panorama edukitzeko, desagerpenak eta agerpen berriak jasotzen ditut. Hemen interesatzen dena, baina, ez da indibidualki zer egin daitekeen antzematea; zer egiterik ez dagoen baizik. Egunkaritara begiratuz, 1976ean, 14 daude. Geroztik, beste 8 zabaltzen dira: bakarra euskalduna, euskara besteetan ere nola edo hala agertzen dela.

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

<b>EGUNKARIAK</b>	<b>DESAGERPENA</b>	<b>AGERPENA</b>
-------------------	--------------------	-----------------

Diario de Navarra		
El Correo Español		
El Diario Vasco		
Hierro	1983	
Hoja de Lunes (B)	1982	
Hoja de Lunes (D)	1983	
Hoja de Lunes (I)	1982	
La Gaceta del Norte	1987(*)	
La Voz de España	1980	
Norte Expres	1982	
Pensamiento Alavés	1967	
Pensamiento Navarro	1981	

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Sud Ouest		
Unidad	1980	

**Oharra:** egunkari guzti hauek 1976. urtea baino lehen sortuak dira. Desagerpenaren sailean hutsik egoteak, bizirik segitzen duela esan nahi du; bestean, aldiz, 1976.a baino lehen sortua dela. \* Egunkari hau 1984.ean berragertu zen, 1987an definitiboki hiltzeko.

<b>EGUNKARIA</b>	<b>DESAGERPENA</b>	<b>AGERPENA</b>
------------------	--------------------	-----------------

Deia		1977
Egin		1977
El Mundo		1991
Euskaldunon Egunkaria		1990
La Tarde de Euskadi	1984	1984
La Voz de Euskadi	1985	1983
Navarra Hoy		1982
Tribuna Vasca	1983	1982

**Oharra:** Zerrenda honetan agertzen direnak, aldiz, 1976.ez geroztik sortuak dira.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Aldizkariak begiratzeko badira, aldiz, egoera ez da hain nabarmenki monolitikoa. 1976an, ez dago aldizkari elebidun ugaririk baina geroztik elebitasunak espazioak irabazten ditu, dudarik gabe euskararen eraginari esker. Hemen, ondoko kuadroetan, azpimarratu egin ditut, besterik gabe, 1976.ean, Euskal Kazetaritzaren Urtean, bizirik zeuden aldizkariak (azpimarra dobles) eta bere ondoren geroztik sortu direnak, bistan denez 1980. hamarkadakoak bereziki euskaraz. Hemen herri eta eskualdekako prentsa (lokala) azaltzen da aztergai baina ez da hori hemengo egitekoa.

<b>ALDIZKARIA</b>	<b>DESAGERPENA</b>	<b>AGERPENA</b>	<b>HIZKUNTZA</b>
-------------------	--------------------	-----------------	------------------

### **Kultur Aldizkariak**

Elhuyar		1974	euskaraz
Enseiucarren		1985	euskaraz
Gure Herria		1950	diglo.
Jakin		1977 *	euskaraz
Karmel		1958	euskaraz
Muga		1979	diglo.

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Zabal	1976	1976	euskaraz
Zehatz	1980	1977	euskaraz

(\* ) Jakin, 1956ean sortu zen lehen aldikotz. Baina etenaldia izan zuen.

**Literatur Aldizkariak**

Idatz&Mintz		1981	euskaraz
Kandela	1984	1983	diglo.
Kezka	?	1986	euskaraz
Korrok	1989	1984	diglo.
Literatur Gazeta		1988	euskaraz
Maiatz		1982	euskaraz
Oh Euzkadi	1983	1980	euskaraz
Pamiela		1983	diglo.
Porrot	1988	1985	euskaraz
Pott	1980	1978	euskaraz
Stultifera navis	1983	1982	euskaraz

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Susa		1980	euskaraz
Ttu-Ttua	1985	1984	euskaraz
Txistu eta Tamboril	1986	1984	euska + erd.
Txortan	1985	1984	euskaraz
Ustela Saila	1976	1975	euskaraz
Xaguxarra	1981	1980	euskaraz
Zurgai		1979	diglo.

**Aldizkari Berriemaileak**

Anaitasuna	1982	1953	euskaraz
Argia		1980	euskaraz
Berriak	1977	1976	diglo.
Ere	1981	1979	diglo.
Euzkadi	1988	1979	diglo.
Garaia	1977	1976	diglo.

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Goiz-Argi	1978	1960	euskaraz
Herria		1944	euskaraz
Herriz Herri	1990	1980	diglo.
Príncipe de Viana	1983	1966	euskaraz
Punto y Hora	1990	1976	diglo.
Saski-Naski		1980	euskaraz
Zer		1977	euskaraz
Zeruko Argia	1980	1919	euskaraz

**Euskara mailakatuan**

Aizu!		1982	euskaraz
HABE		1981	euskaraz

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

**Haur Aldizkariak**

Ipurbeltz		1977	euskaraz
Kili-Kili		1964	euskaraz

**Herri Aldizkariak**

**Herria**

**Agerpena**

**Hizkuntza**

Akatz	Bermeo	1990	euskaraz
Aldaba	Gernika	1981	diglo.
Aretxagazeta	Aretxabal.	1988	euskaraz
Ariz-Ondo	Bergara	1990	diglo.
Arraia	Hazparne	1989	diglo.
Arranondo	Ondarroa	1989	-
Arrasate Press	Arrasate	1988	euskaraz
Aske	Lezo *	1985	euskaraz
Astigarraga	Astigarr.	1981	diglo.
Aixe-bolari	Ondarroa	1989	euskaraz

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Auskalo	Oñati *	1985	euskaraz
Ayto.de Portugalete	Portug.	1989	diglo.
Azpeitian Zer?	Azpeitia	1987	euskaraz
Batzuri Zopa	Beasain*	1986	diglo.
Berrigara	Bergara	1990	euskaraz
Bidasoako Ikask.Al.	Irun	1984	diglo.
Bidasoan	Irun	1983	diglo.
Bil	Hendaia	1979	diglo.
Bilbao	Bilbo	1987	diglo.
Bilduma	Errenteria	1985	diglo.
BIM	Iruñea	1985	diglo.
Biter Berri	Ezpeleta	1981	diglo.
Bost	Andoain	1989	gazt.
Celedon	Gasteiz	1918	gazt.
Cicerone Riojano	-	-	-

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Deba	Deba	1985	digl.
Deiadar	Gernika	1990	euskaraz
Diario Metropolitano	Bilbo	1991	gazt.
Donostia	Donostia	1992	diglo.
Drogeteniturrri	Ermua	1990	euskaraz
Durango Swing	Durango	1990	euskaraz
Dzanga	Lekeitio	1989	euskaraz
El Irunés	Irun	1988	diglo.
El Social	Basauri	1987	diglo.
Ene Bada	Legazpia	1989	euskaraz
Eperbide	Antsoain	1989	diglo.
Eta Kitto	Eibar	1988	euskaraz
Galtzaundi	Tolosa	1991	euskaraz
Gaztearen Hitza	Lekunberri	1985	euskaraz
Getxoberri	Getxo	1985	diglo.

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Goierritarra	Ordizia	1989	euskaraz
Gure Herria	Senpere	1989	eleb.
Gure Erria	Etxeb Mark.	1957	euskaraz
Hementxe	Andoain	1988	diglo.
Herritarrak	Urruña	1981	eleb.
Hondarribia	Hondarrib.	1985	euskaraz
Hots	Legazpia *	1982	euskaraz
Ihintza	Hondarri.	?	euskaraz
Irinmodo	Antzuola	1988	euskaraz
Iturriotz	Oiartzun	1985	euskaraz
Journal de St.Palais	Donapaleu	1886	diglo.
Kaixo	Urretxu	1979	diglo.
Kantillape	Itsasondo	1988	euskaraz
Karkara	Orio	1989	euskaraz
Kitzik	D. Lohitzu.	1989	diglo.

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Kontxo	Tolosa*	1985	euskaraz
Kontzejupetik	Oñati	1987	euskaraz
Kultur Gasteiz	Gasteiz	1989	euskaraz
Laisterkan	Arbizu	1989	euskaraz
La Voz de la Rivera	Tutera	1953	gazt.
Lazkao	Lazkao	1981	diglo.
Lekeitioko Udaletik	Lekeitio	1991	euskaraz
Lezo	Lezo	1988	diglo.
Lokotxa	Zubieta	1991	euskaraz
Mailope	Arribe	1990	euskaraz
Miroir de la Soule	Maule	1956	diglo.
Nondik	Ataun	1976	euskaraz
Nontzebarri	Mungia	1981	euskaraz
Nuestros Pueblos	Tafalla	1991	gazt.
Oarso	Errenteria	1927	diglo.

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Orria	Andoain	1988	euskaraz
Plazaola	Leitza	1981	euskaraz
Plazara	Irun	1985	euskaraz
Ribera Navarra	Tutera	1986	gazt.
Sustraiak	Lekeitio*	1978	euskaraz
Ttipi-Ttapa	Bera	1981	euskaraz
Txitxilibakio	Elgoibar	1984	euskaraz
Zarautz Aldizkaria	Zarautz	1989	diglo.
Zararbe	Respaldiza	1988	gaztel.
Zerain	Zerain	1989	euskaraz
Ze Barri	Eskoriatza	1992	gazt.
Zer Irakurri	Andoain	1990	euskaraz

**Oharrak:** Aldizkari hauek, ez daude denak merkatuan. Kuadro honetan, Desagerpenak itema kenduarren asteriskoz (\*) doaz zihur desagertu direnak. Xehetasun gehiagotarako ikus Prentsa Lokalari buruzko 1. Ihardunaldiak. Txostenen bilduma, Arrasate 1991-XI-22-23, bereziki Aranguren, Asier eta Elkoroberezibar, Miguel Angelen ponentziak. Gainera ikus Elkoroberezibar, M.A., Prentsa lokala Euskal Herrian, Jakin, 69 zb. 1992-III-IV, 11-37 or. Badira, seguruaski, Euskal Herrian, beste zenbait aldizkari baina,

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

zoritarrez, ez daude inon bilduak. Ez Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekan, ez Derioko Labayrukoan, ez Diputazioetan ez eta Lazkaoko Komentuetxean. Batzuren berri izan da, baina ez dut agerpen/desagerpeneko datu zehatzik. Adibidez: Zirimir Amurrikoa 1983an, Laudioko Saia 1984an, Aguraingo Sorginetxe 1985an, Pasai Antxoko Zirikadak 1985ean, Ondarru-Lekeitioko Globo 1985ean, Baionako Desastre 1986an, Larraungo Kixmi 1986an, Gasteizko Txitxiburduntzi 1986an, Gernikako Apoxar 1986an, Usurbilgo Ihintza 1986an, Andoaingo Peste 1987an, Aiene, Erroibarre-Aezkoakoa 1987an, Zumaiako Orrua eta Inpernupe 1989an.

Ohar egin, aurreko kuadrootan ez direla jasotzen partiduek eta sindikatuek eginiko aldizkariak, ez eta helburu berezirik dutenak: erlijiozkoak, itzulpengintzaz, pedagogiaz, soziolinguistikazkoak etabarrekoak, garrantzizkoak izanarren, adibidez Euskaltzaindiaren Euskera. Ez eta ere instituzioek ateratzen dituztenak HABE sailekoak ezik, lanean zehar aipatzen direlako. Hemen ere ez dut kontutan hartu Unescoko Albistaria, beste nonbait egin eta HABE zerbitzuak euskara-itzulpenez emandakoa bait da. Oro har, informazio orokorrekoak izan nahi dutenak agertzen dira hemen. Halere, literaturazkoekin eta haurrentzakoekin egin dugu salbuespenik, inoiz prentsa bezala joak izan direlako.

Beraz, aldizkariak zerrenda luzea osa dezaketen arren, eta zerrendaren posibilitateak agortzea nere helburutan ez izanik, guttienez euskarazko publikazioon ugaritsuna agertzen da. Aldizkari horien balioa, funtzioa, osagarriak eta nondik norakoa beste norbaitentzat geratzen da. Oraingoz, hauxe da nire hipotesia: Euskal Prentsa 1976-78an sortzen da eta 1980 (ARGIA)ren abiapuntuan, du antolaketa-unea. Gainera euskaraz idazte soilak ez du, nire hipotesian, besterik gabe euskal prentsa izaerarik ematen.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Euskal Prentsa zer den inork gutxik definitu du. Nik dakidala, akademikoki, Luis Mendizabal (egun ETBko kazetaria) bakarrik saiatu da, "Universidad de Navarra"ko (OPUSeneko) bere ikasketa-urteetan, euskal kazetaritzarik ez dagoela esateko ordea. <sup>44</sup> *"Al decir periodismo vasco quiero referirme, tal como queda tácitamente señalado, al periodismo hecho en euskera, en vascuence, en cualquier lugar del País Vasco"*. <sup>45</sup> Abiapuntu hori hartuz, kazetariak euskal kazetaritzarik ez dagoela erabakitzen du: *"Por mi parte, considero inseparables del periodismo las siguientes características: unión con la actualidad a través de la noticia, elemento fundamental del periodismo; regularidad de aparición del medio; difusión relativa; lenguaje y técnica propios; profesionalidad, etc. Sentadas estas bases debemos partir de la negación histórica de un periodismo vasco, si exceptuamos el caso Eguna"*. <sup>46</sup> Horrek ez dio eragozpenik jartzen, ordea, La Voz de Navarra *"un caso de periodismo vasco"* deitzeko baina hori beste kontu bat da eta ni, ondoko lerrootan definizio propioa zehazten saiatuko naiz.

### **5.1.3. Kontraesanaren bitasuna**

Zer da kontraesana? Kontraesanak hiru osagarri bereiztezinak ditu: *diferentzia*, (bi terminoen konstatazioa) *korrelazioa* (terminoen arteko erlazioa, ez bakarrik zentzu numeralean) eta *posizioa* (terminoen arteko egon-era). Osagarri bakoitza bi eremutan etenik

---

<sup>44</sup> Mendizabal, Luis, La Voz de Navarra, un caso de periodismo vasco, lizentzi-tesina, Facultad de Ciencias de la Información, Universidad de Navarra, Iruñea, 1974.

<sup>45</sup> Ibid. 5 or.

<sup>46</sup> Ibid.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

dago: eremu *egiturazkoa* eta *historikoa*. Alde egiturazkoan, kontraesanaren zentzu *ahulak* agertzen dira (hiru eremutan); historikoan, ostera, *gogorrak*, benetakoak.

*Diferentzia*, zentzu ahulean, leku-diferentzia da, terminoak okupatzen duen lekuak ematen duena, gauza berbera bi leku diferentetan agertzeak eskeinitakoa. Terminoak desberdinak dira, besterik gabe. Zentzu gogorrean, terminoak kualitatiboki diferenteak izatea suposatzen du; terminoak erabat heterogeneoak dira.

*Korrelazioa*, bere zentzu ahulean etenaren konstatazioa da; gogorrean, bi terminoen arteko borroka. Korrelazio-mailan jokuan dagoena ez da leku-aldaketa hutsa, bi termino kontrarioen arteko *eten-prozesua* baizik: harreman-gatazka seinalatzen da lehen zentzuan, egiturazkoan; bion arteko borroka, bigarrenean, historikoan. Adibidea ematearren, klaseen arteko kontraesana, batetik; klaseen arteko borroka, bestetik.

*Posizioa*, bi terminoen arteko *disimetrian* agertzen da. Bere zentzu ahulean, disimetria aldaezinean agertzen dira bi terminoak (adibidez, diglosian, hizkuntza batek bestea menderatzen du, joku-arauak ezartzen dizkio. Menderatua, inklusio-legearen pean bizi da). Zentzu gogorrean, disimetria aldagarria adierazten da, iraultza-legea nagusitzen da. "*C'est l'avènement, centré sur l'horlieu, d'un espace bouleversé*" dio Badiouk.<sup>47</sup> . Lekuz-kanpo dagoenean oinarriturik, ankaz gora jarririko espazio lekutu berriaren etorrera, alegia.

Bi kontraesan mota daude oraindik. Fundamentalak edo *oinarrizkoa* deituko dena; eta *nagusia* edo printzipala. Kontraesan oinarrizkoak, egoera bat ulertzeko oinarria eskeintzen

---

<sup>47</sup> Badiou, Alain, *Théorie du Sujet*, 40-43 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

digu. Marxismoan *azpiegitura* deitzen dena. Kontraesan nagusiak, aldiz, egoera hori berori aldatzeko eragina, akuilua adierazten du. Marxismoan *motorea*, ideologia ez den guztia alegia. Bi kontraesan mota horien artean, badago elementu *lotzailea*, bien arteko lokarri egiten duena. Marxismoan, gizarte kapitalista esplikatzeko, *langileria*, klase gisa hartuta. Bi erataraz aurkitzen bait da, lehen indar produktibo gisa eta (politikoki antolatua) burgesiari aurre egiten dion talde gisa. (Gure gizarte diglosikoan euskaltzale abertzalea)

Bi aspektuak, baina, batera agertzen dira: etenik dagoen unitate bat da. Bigarrena da, ordea, aspektu nagusia, eragina duena, kontraesanaren aurpegi aktiboa erakusten duena. Halere, azpimarratzekoa da, fenomeno honen bi aldeak batera hartu behar direla, ulertu nahi bada. Bata bestean uztartuta. "*Ce n'est rien moins que faire lever dans le mouvement réel de l'histoire la singularité rectifiable de la politique*".<sup>48</sup>

Badiouren eritziz, eta lan honetan onesten denaren arabera, "*la contradiction fondamentale ne nous livre que des dispositions des places, des quantités et des invariances (en soi, cette contradiction, tendancielle, ne renverse rien). Elle est le versant structural des choses. La principal, en revanche, a tous les attributs de l'historique: différence forte (...) lutte et non simple distribution binaire, dissymétrie réversible...*".<sup>49</sup>

Bi elementu horiek uztartzea (*oinarria* eta *eragina*) ezinbestekoa da norbait-zerbait iraultzaren *subjektu* bihurtzeko. "*C'est pourquoi il y a peu de sujets, et peu de politique*".<sup>50</sup> Kondizio objektiboak ez du, berez, ezertxo ere probokatzen.

---

48 Ibid. 45 or.

49 Ibid.

50 Ibid. 46 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Korrelazioan aurkitzen da kontraesanaren muina, kontrarioen arteko unitatea argitzean. Kontraesanaren alde bakoitzean agertzen bait da kontraesanaren bikoiztasuna: egiturazkoa eta historikoa. Hots, adibidearekin jarraitzeko, balizko gizarte komunistan ere bizirik legoke burgesia/proletalgoaren arteko kontraesana. *"C'est pour autant que les contraires son hétérogènes, inalignables; c'est dans l'exacte mesure où nulle place conviviale de l'espace ne sollicite le horlieu, qu'il y a l'unité dialectique, celle qui ne fait nul Tout de ce qu'elle lie"*.<sup>51</sup> Alegia, gatazka fase bat burutzen denean ez da betirako burutzen; prozesu dialektikoak betirako darrai. Ez, ordea, amaierarik gabeko ibilbidean, edota puntu berdineran etorriz zirkularitate itogarrian, beti hasieran baitgeunden. Kontraesanaren bitasuna, bakoitzean, gainditzen baizik. Ez bait dago kontraesan horretaz libratuko den ez gizakirik ez eta egoerarik.

### **5.1.4. Indarren arteko dialektika**

Bi termino heterogeneoen arteko korrelazioa adierazteko, eta bi termino horien artean ematen da burruka gogorra, -lutte ez kontraesan hutsa- *indarra* deitu konzeptuaren premia dago. *"La corrélation, c'est force contre force. C'est rapport de forces"*.<sup>52</sup>

---

<sup>51</sup> Ibid. 48 or.

<sup>52</sup> Ibid. 49 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Arazoa ez da, kasu!, indar bat pasiboa dela eta bestea aktiboa. Ez gaude akzioa-erreakzioa esplikatzen. Arazoa da indar bakoitzean *aktibotasuna* aurkitzea. "*Il faut en venir à ceci, que ce qui me dresse réactivement contre l'actif de l'Autre doit aussi bien être l'actif d'une force où l'Autre n'est plus représenté*".<sup>53</sup> Euskararekin lotura duen adibidea ematearren, arazoa ez da euskaraz ikastea, mintzatzea, edo idaztea; edota euskarazko prentsa egitea eskubidezkoa den zerbait galazota dagoelako, proiektu propioa dagoelako baizik.

Barne-arnasa da indarra, eragin propioa, berezko sena. "*Penser la corrélation, c'est penser la force en tant qu'agissante, donc entée sur l'autre force, mais selon son irréductible qualité, dont l'espace n'est plus que la médiation à détruire*".<sup>54</sup> Hots, bi indar elkarren artean aurrez aurre jartzen direnean, ez dago bateratasunik, barne-indarra mendraezina bait da, inklusioak oro ukatuz. Indarren teoriak ez du alternantzia eskatzen, hortik ihes egitea baizik. "*Dans la logique des forces, l'unité des contraires n'est pas une corrélation orientable, et c'est là son essence historique, bien qu'une orientation sous-jacente (structurale) soit précisément ce au regard de quoi l'inorientable peut être délimité*".<sup>55</sup>

Nolabait agertzeko, proletalgoa indar gisa historikoki burruka bakar batean lotuta dago burgesiarekin, burruka horretan herria (dagoen herri bakarra) egituratuz; aldi berean, baina, xede historikoaren norabidea agertzea ezinbestekoa zaio proletalgoari gizartean txertatuta dagoen neurrian. Berdin Euskal Herriko gizarte elebidun-diglosikoan: hiztun

---

<sup>53</sup> Ibid. 50 or.

<sup>54</sup> Ibid. 51 or.

<sup>55</sup> Ibid. 54 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

elebakar menperatu antolatua (*euskaltzale abertzalea*), hizkuntz menperatzailearen (españolara-frantsesaren) indarrekin burruka bizian agertzen da burruka bakar batean, *dagoen herri bakarrean* eragin nabarmena utziz, eta norabide propioa erakutsiz. *"La force est son expansion affirmative, toutefois placée dans l'arc-boutant structural de l'autre force; soit qu'elle régisse l'unité de l'espace (force en position d'Etat -ou de symbolique-), soit qu'elle avère le horlieu (force en position de révolution -ou de réel-).*"<sup>56</sup>

Indarra, beti lekutua agertzen den heinean, ez da garbia. Egituraren zamaz kutsatua agertzen da. Baina purifikatu daiteke, desegituraketa-prozesuan. *"La force est impure, parce qu'elle est toujours placée. Le nouveau historial s'infecte de la continuité des structures. Quelque chose de la qualité de la force s'homogénéise à l'espace, pour au moins y figurer sa propre abstraction, et supporter la loi(...); dans toute contradiction, la force manifeste son impureté par le processus aléatoire de sa purification"*<sup>57</sup>

Hori litzateke, indarrak daraman berritasuna konzentratzea, prozesu etengabe eta, ezinbestez, garratzean.

### **5.1.4.1. Indar subjektiboa eta indar objektiboa**

---

<sup>56</sup> Ibid. 55 or.

<sup>57</sup> Ibid. 56 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Indarra, berezko izaeraz, objektibo-subjektiboan etenik agertzen da, Badiouren eritzia jarraituz. Zehatzago: egoeraren terminoak, kontraesan alorrean indarra/lekuaren artean etenik daude. Orain arte adierazia da hori. Baina badago bigarren eten bat indarra objektibotasuna/subjektibotasunaren arabera hausten duena.

Beraz, indarren dialektikak bi alde ditu: alde objektiboa (errealitatea) eta alde subjektiboa (errealia). *"Tout force est ainsi, pour autant qu'elle se concentre et s'épure comme scission affirmative, une force subjective, et pour autant qu'elle est assignée à son lieu, structurée, esplacée, une force objective"*.<sup>58</sup> Lehen etenaldiak ez du, berez, bestea ekartzen: *"la position du rapport force/place ne permet pas de déduire la scission de la force selon l'objectif et le subjectif: il faut attendre le second temps"*.<sup>59</sup>

Beraz gizarte diglosikoa eta bereziki prentsa-alorra (non Euskal Prentsaren gertakizuna eman den), dialektika objektiboa eta dialektika subjektibaren arabera banatuko bagenu, honoko panorama hau izango genuke: alde objektiboan, prentsaren egoera urtetan zehar eman den bezala (hainbeste erdaraz, hainbeste elebiko, halako egunkari, honoko aldizkari, nagusi horren ala talde honen esku, elkarren arteko lehian, eginahal eta ahalmenekin. Erdarazkoak, oparo; euskarazkoak, halamoduz: ezinean eta txiro, baina bere espazio propioa erreibindikatzuz, eskubidezkoa izaki); alde subjektiboan, berriz, bata bestea nagusitzeko diseinatu, antolatu eta praktikara eramandako politika. Abertzale

---

<sup>58</sup> Ibid. 59 or.

<sup>59</sup> Ibid. 66 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

euskaltzaleek eta erdaldun estatuzaleek buruturiko politika, kazetal arloan isladatua. (Hementxe kokatu beharko litzateke, neurri handi batean, Jaurlaritza eta Euskal Prentsa antolatuaren arteko tira-bira eta esames guztiak, subentzio politika, laguntza sistema, euskarazko prentsari buruzko deklarazioak etab. aurreko II, III, IV ataletan agertu den gisaz).

Erdararen indarretik begiratuta, alde objektiboan, erdarak maila orotan duen indar arautu, objektiboa agertzen da, elebitasun diglosikotik datorkion balio erantsia barne; euskarak, duen indar ttikiaren aldean.

Alde subjektiboan, erdal alorreko indarrak euskarak eta euskararekin loturiko oro politikoki (militanteki) antolatu ez dadin blokeatzea du xede, horretarako behar haina konzesio egiteraino ailegatuz.

Alderantziz, euskal alorreko ikuspegitik, euskara eta euskal produktuak (kazetaritza idatzizkoak, bereziki) inbentariaturik alde objektiboan; Euskal Herri (euskalduna) deitu nazio burujabea xedetzat edukirik prentsa alorretik egindako saioa alde subjektiboan.

### **5.1.4.2 Indarren dialektikaren aplikazioa**

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Eskematikoki honelaxe idurika daiteke euskarazko prentsak egoera diglosikoan izan duen (eta duen) funtzioa. Prozesu dinamikoan ulertu behar da guztiau. Izan ere zenbait fase ez bait dira oraindik eman. Baina prospektiboki idurika daitezke

Eman dezagun **P** dela erdalduna den proiektu politikoa, historikoki ezagutzen den bezala, zeinean erdara (españolara zein frantsesa), Konstituzionalki finkatua, estatunazioaren hizkuntza ofizial bakarra den .

Eman dezagun, aldiberean, **A** dela proiektu antagonikoa Euskal Herri (euskalduna) dei daitekeena, zeinean hizkuntz bakarra euskara (izango) den. Jakina da proiektu hori ez dela inon esistitzen; *horlieu* da, lekuz kanpoko da, ez dagokio espazio bati, nahiz eta lekutua agertzen den. Hau da bere kontrarioaren (*esplace* delakoaren) egituraz kutsatzen da (**Ap**).

Bi termino horiek (P zein A), harreman dialektikoan korrelazionaturik aurkitzen dira, guk ezagutzen dugun Euskal Herriko gizarte bakarrean, politikoki antolatutako dagoen gizarte diglosikoan hain zuzen ere. Bai batuk, bai besteak, badu bere kazetal-proiektua, edozein gizartek bai bait du bere kazetal egitura, legeetan (ala lege proiektutan) agertzen direnak hain zuzen ere.

Beraz, P eta A, esparru espezifikoan (kazetal-eremuan hain zuzen) P' eta A' izango dira, baina ez nahastearren P eta A deituko ditut (jakinik, zentzu orokorrean hizkuntz-politika jakin banari erantzuten diotela, eta areago politika osoari).

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Gizarte bakarrean, bi eten bereizten dira goian esandakoaren arabera: indarra/lekua pareari dagokiona eta subjektibo/objektibo pareari dagokiona. Etena alde bietan ematen da gainera, bi terminoetan esan nahi bait da.

Medios de Comunicación delaktik hasiz (P-tik), hauxe litzateke indar objektiboa: iduriz, **P (Ap)**.

P-k, bere halako eragina erakusten du euskal prentsa zehatz eta historikoan (Ap)-n. Erdal eremutik ixurtzen diren ohitura, lege eta arauetatik muga zehatzak jartzen zaizkio euskal prentsari, hau da, prentsa izatea esijitzen zaio, prentsa homologatua. Euskaraz izatea badauka, baina komunikabideen esparrutik irten barik, balio komunikatiboak soilik jokatuz. Areago Medios de Comunicación alorretik irten barik. Euskarazko prentsa, euskarazko medio idatziak onartuak daude komunikabideen alorrean, Euskadiko kazetal-egituran kontatuak izan dira bai ta lan akademikoetan ere. Dituen mugak eta ezinak hizkuntzatik datozkio. Konpetentzia latza aurkitzen du erdal hizkuntzatan idazten denarekin alderatzeko, baina hori arazo estrukturala denez, hor dago: bakoitzak bere lekua du. Euskarazko prentsa erdal prentsa bezain prentsa da, baina ez barnean A duelako (euskal proiektu politikoaren indarra), komunikabideen egituran leku bat duelako baizik, P-ren menpe eta esanetara.

P-ren indar subjektiboa begirutzen bada, beste honoko hau agertzen da: iduriz **P (A)**

Erdararen ahalegin antolatuak ezin du A erabat ezabatu hortxe bait dirau temati. Estatuko hizkuntz-politikarekin lotua den guztia sartzen da alor honetan. Lehen indarraren eragin antolatua atzematen da hemen. A-ren presentzia eta eragina orekatzeko ezarri da elebitasun-legea adibidez. Euskarari erdarak jartzen dizkio mugak, lekua

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

errekonozituarren: elebakartasunik ez, alegia! P-k ezin du A guztiz ezabatu, hortxe bait dago diglosiak suposatzen duen oreka desorekatuan. Baina A-ren presentzia eta pisua P-ren politikaren arabera dago, haren menpeko huts da. A-k ezin du P garaitu. Gatazka dago, tirandura, elebitasun paketsurik ez bait dago baina legea P-k ezartzen du.

Beste aldera pasatuz, eta gauzak Euskal Prentsatik begiratzen badira, honoko hauxe ikusten da indar objektiboa aztertuz: iduriz **Ap (P)**. Esan nahi da euskal prentsak egin duela egin (egiten duenean) bere bidea. Gero eta indar kuantitatibo handiagoa du. Hedatzen ari da. Erosle euskalduna irabazten du. Ahalmen hedatzaile garbia erakusten du. P-ren alorrean halako gorabehera edo ezinegon urduria pizten du, prestijio ondo irabazia eskuratu bait du: harpide-erosle-irakurle kopurutan goraka doa eta lurra jaten ari zaio. Hartzailegoa ere hurbildu ahal izateko, zabaltzen-hedatzen joan da (euskaldun alfabetatuen kopurua alegia). Esan nahi da A-tik datorren indarra euskal prentsan ere agertu eta nabarmendu egiten dela. Ez da batere baztertzekoa. Halere fase honetan, Ap (P) honetan, objektibotasunaren alorrean egonik, euskal prentsak duen indar objektiboa, kazetarien profesionalizazioan datza. Euskaldunak euskaraz delako hartzen du euskal prentsa baina batez ere prentsa ona (profesionala) delako. Ez da, jada, nahikoa euskaraz idaztea; gauza txukunak idatzi behar dira. Hori da produktoa erosgarri-erosia; irakurgari/irakurria egiten duena. Idurikatu daiteke baita era honetara P (Ap -P-). Hau da maila egiturazkoan, P mailan alegia, Ap-k (P) markatzen du.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Azkenik, Euskal Prentsaren indar subjektiboa: iduriz **A (Ap)**. A-k, beraz euskal proiektuak, euskal prentsa orobat betetzen du (betetzen duenean). Euskal proiektuaren A-tasunak gainditzen du dena, euskal prentsa barne. Prentsa hutsa izateagatik baino (nahiz eta euskalduna), indar horrek prentsa-alorra ere nagusitzen duelako hartzen dira euskal prentsaren produktuak eta arrakastatsua ageri da alor hau. Fase honetan seguruaski prentsa-aleak ugaritu egingo lirateke. Baina prentsak ez du berez ahalmen hori. Mugimendu zabalago bat behar du atzean. Behar du gizartean, inbertsioa, iraultza ematea. Euskal Prentsa (Ap) A-ren ahalmenez, Euskal Herri Euskalduna eraikitzekeo tresna bat, beste bat, bihurtzen da. Prentsa, prentsa baino gehiago da (ez guttiago ere). Suposatzen da A (Ap) izateko, **A (P)** behar dela, hots, euskaltasun abertzaleak mugatzen duen egitura (diglosikoa) lehertu eta nagusitu egin dela.

### **5.1.5. EP anitz(gune)aren aldebitasuna**

Euskal Prentsa anitzgunea (multiplizitatea) izaki, bi aldeez osaturiko zerbait da. Aztertzerakoan, bere egitura-aldea azpimarratu behar da, batetik; bere mugimendu aldea, bestetik.

#### **5.1.5.1. Egitura-aldea eta mugimendu-aldea**

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*Egitura-aldea* azpimarratzea, bere aspektu finito, mugatu, arautua adieraztea da. Betiere, prentsa izaten jarraitu nahi badu, ezinbestez izango duena. Era honetara euskal prentsa biltoki bat litzateke, gordailu, *inventarium* bat, esparru, alor, eremu... nahi dena. Euskara hutsean ari diren kazeta guztiak hartzen dira bere barnean, nonahi izan bere sorburua, edozein izan *sponsorra* etab. Prentsa-egitura ofizialaren azpisail bat litzateke, euskaraz ari dena alegia. Azterketa akademikoetan agertzen den bezalaxe. Edozein kazetal-proiektu atal honetan sartuko litzateke; hori bait da errealitate bakarra: lege, arau, antolamendu, ohitura, laguntza-aukera, morrontza eta guztiz. Prentsa mota bakoitzaren funtzioa ez dago bereizterik. Prentsa da, eta bere legeak ditu.

*Mugimendu-aldea* azpimarratzea, berriz, egon litekeen proiektu propioaren aldea adieraztea da. Eta hemen, noski, ezin dira denak sartu. Hobe esanda, fase bakoitzean aztertu beharko da, bi aldeetatik zein nagusitzen den. Alabaina, proiektu propioa ezin daiteke izan euskaraz egitea, besterik gabe. Hori, izatekotan, egiturazko aldea bait da. Euskaraz bizi eta izatea erreibindikatzen duen *dinamikaren* zati izatean dago mugimendu-aldea. Kazetaritzaren egitura gainditzen du aspektu honek. Alde honek, printzipioz, ez du mugarik, harrapaezin eta neurtezina da. Ez dago arautua, kreaizio, sormen eta irudimenaren esku dago: egitasmu bat da, beti haratago, sortzear dagoen proiektua. Indar subjektiboaren sorburua da. Historian ditu aztarnak. Hizkuntz abertzaletasunean du erreferentzia. *Politika-aldea* ere dei daiteke.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Euskal Prentsa deitua izan den multzoa, adibidez, betidanik baina sortze-prozesuan bereziki, *herri-mugimenduan* aurkitu ditu nortasun-ezaugarriak. Hauek indarrean mantentzean du iraupen-itxaropena ere.

Herri mugimendua sarri askotan aipatzen da gure artean, eta ez beti zehatzegi. Mikel Atxaga kezu zen herri-ekimena deitu fenomenoaren aurrean. *"Zer da herri-ekimena?",* dio eta honela erantzuten. *Orain dena da herri-meza, herri-bazkaria, herri-txikiteoa, herri-ekimena. Bi bertsolari eta bi dantzari aski ditugu meza, herri-meza bihurtzeko. Kaleko zarata puska bat, paper batzuk eta diru-eske apur bat nahikoa da herri-iniziatibaren titulua eskuratzeko. Eta badirudi militantismoan oinarritzen den edozer, herri-iniziatiba dela. Argia zergatik den herri-iniziatiba eta Egin edo Deia zergatik ez diren ez dut ulertzen"* <sup>60</sup>. Eta ez da ulertzen esplikatzeko ez delako, dena zaku berean sartzen delako. Orainsu BAT soziolingustika aldizkariak, <sup>61</sup> ale baten parterik mardulena eskaini dio Euskararen Herri-Mugimenduari. Bertan ez da herri-mugimendua zer den zehatzen. Alea euskararen kasura mugatzen bada ere, badirudi, orohar, instituzionala ez den ekimen oro dela herri-mugimendua. Instituzionala ez denaz ongi da, baina ez ekimen oro, testu nagusian ikusi daitekeenez. Herri mugimendua, mugimendu soziala, herri-erakundea etab. sinonimotzat jotzen dira eta horrek nahastu egiten du.<sup>62</sup>

*"Euskalgintzaren hastapenak,* dio Ordriozolak definizio bila abiatuta, *bai oraingo txandan eta bai gerra aurrekoan, herri-mailako ekimenei zor zaizkie batez ere. Euskararen*

---

<sup>60</sup> Deia, 1988-XI-12

<sup>61</sup> BAT, 1992-II, 6. zb.

<sup>62</sup> Ikus Politikariak euskararen herri-mugimenduaz mintzo, BAT, 6. zb. 1992, 69-93 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*aldeko ekintza-asmoetan erakunde ofizialetako ordezkari edo bitartekorik dagoenean ere, euskalgintzaren jatorri-asmoa eta geroko bultzapena herri-erakundeetako euskaltzaleen bizkar egon izan da".* <sup>63</sup>

Talde batek, (adibidez, euskarazko prentsa gauzatzeko sortu taldeak) bere helburuak formulatzeko, lortzeko eta defendatzeko prozesuan erakusten duen ahalmen objektiboa eta subjektiboa dei daiteke mugimendua.

Mugimendua osatzen dutenek, edozein direla bere osagarri espezifikoak, beti erakusten dituzte ezaugarri berdinak, tokian tokiko egoerara moldatuak: berdintasuna, eskuhartzea, autonomia, iniziatiba, zerbitzuaren publikotasuna, justizi-sena etab.

Ez da, baina, ezaugarri horiek edukitzea, berorren bidez planteiatzen dena baizik. Hau da kontraesanaren alde ahula ala gogorra planteiatzen den ikustea.

Mugimenduak, alde ahula agertzen badu, *gizarte-mugimendua* deitzea proposatu daiteke, hau da gizarte-egituraren ahuleziak, gabeziak, osatzea duelako helburu, nahiz eta agerpena agerpen konfliktiboa izan, gatazkatsua.

Mugimenduak, alde gogorra planteiatzen badu, kontraesanaren antagonismoa erakutsiz berriz, *herri-mugimendua* deitzea proposa daiteke, indarrean dagoen egoera eztabaidan jartzea, aldaketa osoa alegia, *iraultza*, gizarte inbertsioa, nolabait adierazteko.

---

<sup>63</sup> Odriozola, Joxe Manuel, Euskararen aldeko herri-mugimenduak: praktika eta teorien arteko uztardura, BAT, 6. zb., 1992, 26 or.)

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Izate beraren bi aldeak dira, esan nahi da subjektu-kolektiboaren bi adierazle direla. Ez du esan nahi alegia mugimendua era kartesiarrean bitan bereiz dezakegunik. Ez. Mugimenduaren bi aspektu dira goian adierazita horiek, eta aldi batean bat erakus daiteke eta bestean bestea. Mugimendua berez dago etenik.

Esangura hau gordez, euskararekin lotutako herri mugimenduak, nahiz eta xede zehatz eta sektorialak erreibindikatz -hala nola euskarazko hezkuntza, euskarazko prentsa, euskara administrazioan, errepide-seinalizazio euskarazkoak, euskarazko publizitatea, etab.- egoera orokorraren berrikuste eta birplanteiaketa aurkeztu bide du: euskaraz estableki bizi izaterik izango duen herri-antolaketa, lurraldetasun-erizpidean oinarrituko den legedia, Euskal Herri euskaldun elebakar eta burujabea. Horrela uler daiteke, ez bestela, erakunde ofizialekin edo semi-ofizialekin -partiduak barne- urte mordoska honetan izandako gatazka-giroa. Gatazka hori zentzu gogorrean -burruka, *lutte*, - mantentzea da *herri mugimenduaren* bizitasun-seinale eta bermea. Gizarte-mugimenduaren eta herri-mugimenduaren artean dagoen aldea, *gizarte-agente* eta *subjektu politiko*-aren artean dagoen berbera da (ikus aurrerago).

### **5.1.5.2. Euskaltasuna eta prentsatasuna**

Euskal Prentsak bi osagarri ditu, bistan denez: euskaltasuna eta prentsatasuna. Prentsatasuna, kazetal-produktu osoa eta homologatua izateko osagarria da. Beste edozein gisako produkturen parean jarriko duen araudi eta prozedura-multzoak definitzen du.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Kazetaritza definitzen duten parametroen arabera neurtu behar da produktu bat periodistikoa den ala ez, argitalpen-enpresatik hasi, idazkuntza mailatik segi, lanmoetatatik jarrai, eta produktua merkatuan kokatzeko prozedura konplexuraino ailegatuz.

Euskaltasuna aldiz, hizkuntz alternantzia baino areago doa. Izan ere, euskaraz idaztea adieraziz, prentsaren kode-aldaketa hutsa adierazten da: kontraesanaren alde ahulena. Euskaltasunak, zentzu gogorrean euskaltzaletasuna deitua, abertzaletasuna du erreferentzi-gune, Aro Garaikidean Arturo Kanpionengandik datorren hizkuntz-abertzaletasunetik abiatu (*"Hizkuntz abertzaletasunaren agerpena inguruko jazoera sozio-kultural eta politikoei erantzun nahirik gertatu zen, eta beti ere Espainian eta European ikus zitezkeen abertzaletasun-ereduen iradokizunak jasoz. Azken karlistada-ondoko Foru-galerak euskal nortasunaren galdera piztu zuen gure herriaz kezkatu zebiltzanen artean eta nortasun hori hizkuntzaren bidez defini zitekeela ikusi zen: Erakundeak berak baino funtsezkoagoa zen hizkuntza eta boterearen aldarteak edo arauak bapatean beren isileraz esan zezaketeena (...) Abertzaletasun politiko-linguistiko honen aitatzat Arturo Kanpion eman dezakegu, beronek abertzaletasun-molde hau hain goiztar eta halako osotasun kulturalaz ondu zuelako (...) Kanpionek gramatika-lana batez ere herri baten hizkuntza salbatzeko eta herri beraren nortasuna indartzeko egin zuen. Hizkuntzaren zentzu nazional hau eta ikusmolde honen ondoko ondorio politikoak argiro ageri dira Kanpionen idazlanetan: Euskal Herriaren nortasun funtsa hizkuntzan ikusi zuen"),<sup>64</sup> eta Sabino Aranaren *"Euzkadi euzkotarren aberria da"* garrasi ozenetik pasa eta historian zehar Euskal*

---

<sup>64</sup> Ikus, Joseba Intxausti, "Euskara, euskaldunon hizkuntza", E.Jaurilaritza, Gasteiz, 1990, 120 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Herri euskalduna eta burujabea aldarrikatu/tzen duten alderdi, talde, erakunde zein gizabanakoenganaino. Eremu sinboliko horrekin kateatua den heinean adierazten da euskaltasuna prentsatasunean. Prentsa izateari utzi gabe, baina prentsa baino areago doana. Horregatik, eta ez besterengatik, Euskal Prentsaren kontzeptu barnean sartu daitezke, prentsa erlijiosoa, prentsa zientifikoa, pedagogikoa, berriemailea etab.

Hau horrela, ez dago Euskal Herriko prentsa izaterik, nolarebait euskal prentsa izan gabe. Euskadikoa, asko jota. Ez da zuzena, beraz, esatea euskal prentsa euskaraz eta erdaraz egiten duena denik, ezin bait da *hori* izan euskararik gabe. Alderantziz, posible da erdal prentsa izatea (espainola zein frantsesa) euskaraz idatzia egonarren. *A contrario*, ez da posible euskal prentsa izatea erdaraz izanik. Zentzu antagonikoan, gogorrean, herri-mugimenduaren perspektiban, jakina.

### **5.2. Euskal Prentsak gertakizunean du abiapuntua**

Euskal Prentsa, lan honetan ulertzen den eran, ez da besterik gabe euskaraz idatziriko prentsa. Esan daiteke hura *conditio sine qua non* dela baina ez *nahikoa*. Hori egoeraren aldagai edo bariabile hutsean geratzea litzateke. Ba da zenbait baldintzarik jazokuntza gertakizuna izan dadin.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Halere goian aipatutako definizio hori ez da hautu kapritxosoa. Prentsa alorrean jazoriko *gertakizunean* oinarritutako eritzia baizik.

Beraz, nire ustez, halako unez, gertakizuna piztu egiten da. Bere izena: EUSKAL PRENTSA. Geroztik eta horren erreferentzian -gertakizun horren menpe- uler dezakegu epealdi historiko osoa. Hortik dator V. atal honen izenburua: "hasieran EP izan zen".<sup>65</sup>

### **5.2.1. Gertakizuna zertan den**

Gertakizuna jazokuntza singularra da, ustegabekoa, egoera finkatuarekin hautsi egiten duena, zeinak errepresentazio-sistema eta indarrean dagoen antolamendua zalantzan jarritz, sekuentzi-segida ekartzen duen, etenak alegia, zeinen esanahia prozesuaren amaieran soilik ikus daitekeen, inolaz ez hasieran.

Gertakizuna jazokuntza erabakiorra da bere sailean. Gertakizuna, ez dago aldezturik emana. Beti, *apustuaren* ondorena da. Apustu eginez pizten da. Eragile batek (ala batzuek), agente batek, apustu eginez pizten du.<sup>66</sup>

---

<sup>65</sup> Kontzeptu honen, *gertakizunaren*, esangura-eremua eta bilakabide historikoa zehazteko, ikus Azkargorta, Antton, "Editorialea gertakizunaren aurrean: El País eta Euskadi", doktorego tesia, UPV-Leioa 1988, argitaragabea. bereziki V. atala: gertakizuna eta albistea, 106-159 or. Tesi horren arabera gertakizuna ez da gertakari hutsa, ez da albistea: gehiago da, epealdi historiko berri baten lehen urratsa da.

<sup>66</sup> Apustua, esan behar da, ez da adibidez, Sören Kierkegaarden ereduakoa, zeinak absurdoan duen oinarria eta larritasun-iturria den. Ikus Kierkegaard, S. Temor y temblor, Editora Nacional, Madrid, 1975, 67-68 eta 157-207 or. Apustua, jakina, ez da joku bat: "...*egingo nitek*...". Apustua konfidantza mailakoa da. Justiziaren egokitasunean ditu erroak. Pascalen "ezagutu bai/jakin ez" hartan izan dezake eredu filosofikorik, pentsalari frantziarrak fede-eremuan ari zela ahortuz barik. Ikus Pascal, Blaise, Pensées, 451-3, Oeuvres Complètes, Gallimard, Paris, 1954, 1212-1213 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Baina dakartzan ondorioak interpretatuz bakarrik esan daiteke gertakizuna "gertatu" egin dela. Beraz gertakizunak *interprete* bat behar du, gertakizun hori benetan eman dela ziurtatuko duena. Gerta-unean harrapaezina bait da. "*Un événement n'est pas lui-même un terme de la situation pour laquelle il est événement. Il est de son essence qu'il faille, par une procédure spéciale, que j'appelle l'intervention, décider que l'événement appartient à la situation. Considéré comme simple multiple, avec la paradoxe reconnaissable de son auto-appartenance, l'événement est indécidable. Il appartient au lieu, ou ne lui appartient pas, cette indécidabilité est de principe*".<sup>67</sup>

Interpretazioa, noski, ez dago ebidentzian oinarrituta. "*Puisque c'est par essence que l'événement est un multiple dont l'appartenance à la situation est indécidable, décider qu'il lui appartient est un pari dont on ne peut espérer qu'il soit jamais légitime, pour autant que tout légitimité renvoie à la structure de la situation(...)* Comme le dit Mallarmé, *parier que quelque chose a eu lieu ne peut abolir le hasard de cet avoir-eu-lieu*".<sup>68</sup>

Bi osagarri moeta ditu gertakizunak, alde batetik egoeraren egiturari dagozkion adierazleak eta bestetik *hutsunetik* datozenak, hau da egoeran egonarren berari ez dagozkionak, egoeraren baldintzak gainditu egiten dituztenak.<sup>69</sup>

Gertakizuna den heinean beti dago *ertzean*, ("*au bord du vide*"), hutsunearen ertzean: egoeran du hanka bat; hutsunean bestea. Hutsunea, baina, ez da osin beltza. Ez da

---

Hemen badiouk ematen dion zentzu politikoan erabiltzen da: hots, apustua, egiteko kondiziotan dagoen subjektuak egiten du, egoeratik haratago doanak.

<sup>67</sup> Badiou, Alain, Est-il exact que tout pensée émet un coup de dès?", Les conférences du Perroquet, 5.zb., 1986, 15 or.

<sup>68</sup> Badiou, Alain, Théorie du Sujet, 223 or.

<sup>69</sup> Badiou, Alain, L'Être et l'événement, 542 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

ezereza. Hutsunea posibilitate berriz gainezka dagoen *hori* da. Berritasunaren sortze-ahalmena da hutsunea. Hutsuneaz ez da egoera marjinala adierazten, horrela egoeraren parte bat adieraziko litzateke eta.

Gertakizunak balio-aldaketa suposatzen du. Sistema barnetik ulertezina eta errerepresentaezina da. Gertakizunean adierazten diren -eta egituran bakarrik- proposamenak egituraren emanarren (non, bestela?) oraindik ez den guneari dagozkio. Egituraren *elementu* dira, ez egituraren *parte*. Horregatik esan da gertakizuna singularra dela: "*un terme est singulier s'il est présenté dans la situation mais non représenté par l'état de la situation. Un terme singulier appartient à la situation, mais n'y est pas inclus. C'est un élément mais non une partie*". <sup>70</sup>

### **5.2.1.1. Gertakizunaren atalak**

Gertakizunak uneak ditu. Une hauek, baina, ez dira kronologikoak. Kronologia lineala egituraren erreproduzioari dagokio, errepikapenari. Kronologia linealean urrats bakoitza egiturak dituen ezak betetzera dator, egituraren osotasuna osatzera, hau bi eratara ulertuta: edota *Baga* infinitoaren perfekzioa hurbilduz edota munduaren inperfekzioak garbituz, gero eta egoera osatuagora ailegatuz.

---

<sup>70</sup> Ibid. 556 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Ez batak ez besteak balio du hemen. Gertakizunarekin lotuta agertzen diren une bereziak dira atalak. Interbentzioa egin ondoren ematen den denboratasuna markatzen duten uneak. Gertakizuna sekuentzian ematen dela esan daiteke. Atal hauek, gertakizunari bere autonomia emango dioten prozesu depuratzailak dira, barne-prozesuak alegia, emeki-emeki egiturarekin etenik logika propioa gauzatuko dutenak, ibilbide leialan. Atal hauek apustu baten ondorio dira, batetik; bestetik, gertakizuna egiaztatu ondoren antzeman daitezkeen efektu erretroaktiboak. Norbaitek, beraz, jazokuntza bat gertakizun dela erabaki behar du, lehenik. *"La théorie de l'intervention est le noeud de toute théorie du temps"*.<sup>71</sup>

Talde batek, bere une historikoan, euskal prentsa soilik euskara hutsean eginikoa dela aitortzen duenetik, interbentzio fundatzaile horretatik, aldarrikapen hori mamitzen emandako urratsak dira gertakizunaren atalak. Orduz geroztik gertakizun izendatu honek kazetal egituran barna zirkulatzen du. Ez dago euskal prentsa (ez eta beronen ugaritasuna) ulertzerik gertakizun-puntua alde batera utziz. Hori da egoeraren egia bakarra, izan duen berritasun bakarra.

*"Il est certain, dit Badiou, que seul l'événement, figure aléatoire du non-être, fonde la possibilité de l'intervention. Il l'est tout autant que si nulle intervention ne le fait circuler dans la situation à partir d'un prélèvement d'éléments du site, l'événement, dépourvu de tout être, radicalement soustrait au compte-pour-un, n'existe pas. Pour éviter le curieux renvoi en miroir de l'événement de l'intervention -du fait et de l'interprétation-, il*

---

<sup>71</sup> Badiou, Alain, *Théorie du Sujet*, 232 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*faut assigner la possibilité de l'intervention aux conséquences d'un autre événement. La récurrence événementielle est ce qui fonde l'intervention, ou: il n'y a de capacité intervenante, constitutive de l'appartenance d'un multiple événementiel à une situation, que dans le réseau des conséquences d'une appartenance antérieurement décidée. L'intervention est ce qui présente un événement pour l'advenue d'un autre. Elle est un entre-deux événementielle".* <sup>72</sup>

Euskal Prentsa gertakizuntzat hartzea ez zitekeen posible izanen aurreko beste gertakizunekin loturik ez balego eta halaxe demostratu nahi da VI. atalean. *"Nulle intervention n'opère légitimement sous l'idée du premier événement, ou du commencement radical(..) Ce pari imaginaire sur une nouveauté absolue -"casser en deux l'histoire du monde"-, méconnaît que le réel des conditions de possibilité de l'intervention est toujours la circulation d'un événement déjà décidé, et par consequence le présupposé, fut-il implicite, q'uil y a déjà eu une intervention(..) C'est ignorer que l'événement lui-meme n'existe qu'autant qu'il s'est soumis, par une intervention dont la possibilité exige la récurrence -et donc le non-commencement-, à la structure réglée de la situation, et qu'ainsi toute nouveauté est relative, n'étant lisible après coup que comme le hasard d'un ordre".* <sup>73</sup>

### **5.2.1.1. Euskal Prentsaren atalak**

---

<sup>72</sup> Ibid.

<sup>73</sup> Ibid. 233 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Euskal Prentsa izenez ezagutzen den gertakizuna 1976an hasten da *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak* euskarazko prentsaren alde apustu publiko egiten dutenean. Une hori, ez da beste bat. Une hori, *gertakizun* bat da. Geroztik euskarazko prentsa gertakizun horren inguruan mogitu bait da.

Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu ondoren, (ikus 2 atala) aldizkari biek, bakoitza bere aldetik baina mentalki bateginik, beren aitormenak egin zituzten Euskal Herriaren jendaurrean. *Euskal kazetaritzaren Urtea* deitu editorialean (1976-I-4) *Zeruko Argiak* xede generikoa kaleratzen du: "*euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu*". Une horretan bertan, aldizkariak argi du euskal kazetaritza euskarazkoa dela soilik; eta aldi berean, indartzeko, Euskal Herriak bere erakunde propioak behar dituela. Aipatu aldizkariak ezezik, momentuko kazetaririk ezagunenetarikoez, Amatiñok eta Torrealdaik alegia, esana zeukaten euskal kazetaritzaren arazoa kazetaritza bera gairatzen zuen alorrean zegoela, alor politikoan alegia.

Aitorpen orokor horren sendotasuna frogatu ahal izateko (ala ez) kalean ziren bata bestearen atzean, aldizkari eta egunkari "elebidunak". 1976tik 1980ra bitartean makina bat kazetari euskaldun bertara joan ziren. Zalantzan jartzekoa zen, zinez, aldizkari euskaldunen xedea. *Zeruko Argiak* erdal aldizkaririk euskaldunena ere ez dela onartu behar dio, "*euskal kazetaritza zapuzteko bide*" izanik.<sup>74</sup>

*Anaitasunatik ere garbi esan ziren gauzak: "Euskal prentsa, euskaraz (...) ¿nork ez du ikusten erdal prentsa abertzalea bera ere euskal prentsaren kaltetan izan daitekeela?"*

---

<sup>74</sup> Zeruko Argia, 1976-II-8.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

(...) Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkatzen du".<sup>75</sup> Bata bestearen etsai objektiboak dira euskal eta erdal prentsa.

*Egin eta Deiaren euskararekiko jokabide exkaxa, benetako traiziotzat hartua izan zen euskaltzaleen artean, etsipen eta lotsaz berauen abertzaletasun-nortasuna ukatzeraino eramanez.*

1978.an, prentsa elebidunaren erauntsia gainean zelarik, 1976an esandakoa konfirmatzeko (ala zapuzteko) aukera ona etorri zen. *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak* berean segitu zuten. Noski, jakina, bitartean, langile bat baino gehiago galdua zen, euskarazko aldizkariak hustuz. Urte hasieratik bertatik zioen *Zeruko Argiak*: "gauza jakin bat esan beharrean gaude: euskal prentsa euskaraz eginikoa da. Egun Euskal Herrian Anaitasuna eta Zeruko Argia dira bakarrik euskal prentsa hori. Gustatu ala ez baina hala da. Beste guztiak bai egunkariak eta baita aldizkariak ere, Euskadin eginikoak -euskal ikuspegitik nahi baduzue- dira baina ez euskal prentsa".<sup>76</sup>

Era berean *Anaitasunak*, ederki asko zehaztu zuen euskal prentsaren eksklusibotasuna: "Gu biok (Zeruko Argia eta Anaitasuna) Jakin eta Herriarekin batera euskal prentsaren ordezkari bakarrak gara".<sup>77</sup>

Pittin bat geroxeago *Zeruko Argia*-k: "ZAren politika hauxe da: euskal prentsa desarrollatazea(...) egun batean euskal komunikabiderik egon dadin, oraintxetik jarri

---

<sup>75</sup> Anaitasuna, 1976-IX. (ez du egun-datarik)

<sup>76</sup> Zeruko Argiak, 1978-I-15.

<sup>77</sup> Anaitasuna, 1978-III-1.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

behar ditugu oinarriak(...) hordago jo digu giro honek:euskaltzale guztiok erantzun behar diogu". <sup>78</sup>

*Zeruko Argiak*, elebitasunaren erasoaldiari poliki eutsiz, honela adierazi zuen bide zuzenean zeukan konfidantza: "*Zeruko Argia beti garaile irten da. Euskadi euskalduna garaile aterako delako, euskarazko komunikabideak ere garaile gertatuko dira*". <sup>79</sup> Bide batez prentsa alorrekoa ez zen beste elementurekin lotzen da: euskal herri euskaldunaren borrokarekin, borroka politikoarekin alegia.

Beraz Euskal Prentsaren gertakizun fundatzailea 1976-78. urtealdian ematen da zenbait sekuentzitan banatuta. Gertakizun fundatzaile honek, gertakizun menpekoak sortaraziko ditu, bizitza propioa dutenak baina aurrekoaren ezean esplikaezinak direnak. Hala nola *ARGIA*ren sorrera 1980an eta *Euskaldunon Egunkariarena* 1990an. Ibilbide leialean, fundatzailearen generikotasunaren zehatzapenak izango bait dira, aurrerago azalduko denez.

### **5.2.2. Gertakizunaren osagarriak**

---

<sup>78</sup> Zeruko Argia, 1978-VI-13.

<sup>79</sup> Zeruko Argia, 1979-I-14.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Zerbait gertakizuna izan ahal izateko lau osagai behar dira: enuntziatio-nominazioa, etena, indar-metaketa eta leialtasuna. Prozesu osoa amaitzen denean dakigu zerbait gertakizuna izan den ala ez.

### **5.2.2.1. Enuntziatio-nominazioa**

Gertakizuna nominazioz ematen da aditzera. Gertatu denari izen ematea da nominazioa. Izen-emate hau, jakina, oso maila orokorrean geratzen da. Maila generikoan. Ez du egoeraren ezer adierazten, ez du ezer konkretatzen, ez du programarik zehazten. Nahikunde zabala eta orokorra da, gero interbentzioz-interbentzio ingurune eta zirkunstantzia espezifikoetan frogatzen joanen dena. Generikotasuna gordetzeko, dena da zilegi, generikotasuna ukatzea ezik.

Erreferentzi generikoa eskeintzen du enuntziatio-nominazioak. Printzipiozko eremu zabala, inolako konkreziorik ez duena bere aurkezpena ezik, bere faktizitate hutsa, baina saileko berritasun guztien babesleku eta kokagune izango dena aurrerantzean. Prozedura generikoa deitzen du Badiouk, (ikus 1 atala) eta egiarekin lotuta dago. Egia beti gertakizun-ondokoa bait da (*post-événementielle*). "*L'événement (est) ce dont se trame une vérité*". <sup>80</sup>

---

<sup>80</sup> Badiou, Alain, Est-il exact que tout pensée émet un coup de dés?, Les conférences du Péroquet, 5. zb. 1986-Urtarrila, 8 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Izen hori, egoerari ez dagokion izen hori, kasurako Euskal Prentsa, hutsunetik hartzen da, ez bait dago egoeratik hartzerik. Egoeran -non dena egituratua den, kontatua den eta kontatu aurretik ez den- zerbait berri sortu ahal izateko beharrezkoa da kontatu aurretik ere halako izatasuna edukitzea. Izaki egituratua eta gertakizunaren arteko diferentzia gainezkadura da, *plusa*. Gainezkadura hau ezin daiteke ez ezerekin lotu, ez eta inon kokatu: asignaezina da. <sup>81</sup>

Identifikatu beharra dago kontatu aurretik eta ondoren dagoen tarte, izan aurretik duen ez-izana: *"Il s'agit d'une figure imprésentable et nécessaire, qui désigne l'écart entre le résultat-un de la présentation et ce "à partir de quoi" il y a présentation, le non-terme de toute totalité, et le non-un de tout compte-pour-un, le rien propre de la situation, point vide et insituable où s'avère que la situation est suturée a l'être, que le ce qui se presente rôde dans la présentation sous les espèces d'une sustraction au compte, dont il est d'jà fallacieux de la pointer comme point, car elle n'est ni locale ni globale, mais partout répandue, en nul lieu et en tout lieu, comme ce qu'aucune rencontre n'autorise à tenir pour présentable"*. <sup>82</sup>

*Hutsunea* deitzen dio honi Badiouk. Hots, *"le mode selon laquelle l'inconsistance s'impresente"* . <sup>83</sup> Areago eta maila ontologikoan, hutsunea izakiaren izen propioa litzatekeela dio Badiouk *"Le vide: nom propre de l'être"* deitu meditazioan . <sup>84</sup>

---

<sup>81</sup> Badiou, Alain, L'Etre ete l'événement, 543 or.

<sup>82</sup> Ibid. 68 or.

<sup>83</sup> Ibid. 71 or.

<sup>84</sup> Ibid. 65-72 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Enuntziatio edo nominazio hutsa. *"Bien entendu comme le vide est indiscernable en tant que terme (puisqu'il est pas-un), son advenue inaugurale est un pur acte de nomination. Ce nom ne peut être spécifique, il ne peut ranger le vide sous quoi que ce soit qui le subsume"*.<sup>85</sup>

Baina gertakizuna nominatzeko *interbentzioa* behar dugu, subjektuaren interbentzioa. Apustua egin duen norbaiten interbentzioa, gorago aipatu denez. Gertakizuna benetan eman dela ziurta dezakeen eta zabaltzen saiatzen den subjektuaren interbentzioa. Ez hori bakarrik, espazioan zehar gertakizunaren ondorioak hedatzea ere bai. *"L'essence de l'intervention consiste, dans le champ ouvert par une hypothèse interprétative...à nommer ce 'il y a' et à déployer les conséquences de cette nomination dans l'espace de la situation"*.

86

Euskal Prentsaren kasuan euskara hutsean (bakarrik) aritzeko asmo eta nahia da nominazioa: euskal prentsa euskaraz (bakarrik) egin dela adierazten duen erabaki izendatua. Laburtuz, EUSKAL PRENTSA. Errealitatean debekatua dena baina hutsunetik (zegoen ez-egontasunetik) ateratako euskal prentsa inauguratu nahia, nola izango den eta juxtu jakin barik: euskaraz bakarrik. Euskaraz egiten duena bakarrik da euskal prentsa. Baina, aldi berean, herri subirano baten proiektuarekin nola edo hala lotua dagoena da euskal prentsa. Ez bait dago Euskal Herririk euskara barik.

Erreferentzi horiek gorderik, libre da hurrengo urrats guztiak ematea. Horregatik 1979an *"gu bakarrik gara"* diotenean ez da, xuxen, *Zeruko Argia, Anaitasuna, Herria,*

---

<sup>85</sup> Ibid. 72 or.

<sup>86</sup> Ibid. 225 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*Jakin* ezik beste euskal prentsaren ordezkariarik ez dagoenik. Ez, historiune horretan horiek direla, baizik, baldintza horiek betetzen dituzten bakarrak.

Nominazioak ez du zerikusirik *nominalismo* filosofikoarekin. Nominalismoak izenda daitekeenaren izaera baino ez du onartzen. Duns Scotto, Occam, Berkeley eta Humeren teoretan konzeptu orokorrak objektu banakoen izen hutsak dira.<sup>87</sup> Hemen, aldiz, oraindik izenik ez duenaren abiapuntua da nominatzea. Izenik gabea izendatzea. Egoeran, oraino ez den zerbaiten adierazle berria aldarrikatzea. Hobeto esanda, zirkulatzen jartzea.

Horregatik gertakizunaren nominazioa eskandalosoa izaten da. Ezustezkoa bait da. Gure kasuan, eksklusibotasuna agertzen du (batzurenzat, herriaren zati bat, erdalduna, mespretxatzea). Zuzena da pentsatzea, adibidez, euskal prentsa erdara ez den hizkuntza batean (euskaraz) egindako prentsa dela, baina aldi berean, *gertatzen* ari da euskarazko prentsa bestelako gizarte ereduari dagokiola: Euskal Herri burujabeari. Prentsaren kokagunea (esplace) aldatu egiten da: espazio bilingualetik espazio euskaldun elebakarrera pasatzen da. Euskal prentsa aldarrikatzeak, beraz, zeregin burutugabea adierazten du. Euskal Prentsa aldarrikatu zen geroztik, gertakizun haren inguruan jira-bira-bueltaka dago euskal prentsa guztia. Hori da, bederen, lan honek erakutsi nahi duena.

Asmaturiko izena finkatu egin behar da izanaraziz, egituratuz azken finean. "*Una política es hoy, entre otras cosas, la capacidad para estabilizar fielmente y a largo plazo*

---

<sup>87</sup> Rosental, M.M. eta Iudin, P.F., *Diccionario de Filosofía*, Akal, Madrid, 1974, 341 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*esta nominación*".<sup>88</sup> Oraindik ez den (baina izaten hasia den) terminoa aurreratu egin bait da praktikan. *"Le nom de l'événement, qui s'indexe au vide, est ainsi surnuméraire à la situation où il va faire circuler l'événement"*.<sup>89</sup> Subjektu leialak esijitzen dira, orokortasun generiko hura antolatzen asmatuko dutenak, erreferentzi orokorra galdu barik.

### **5.2.2.2. Etena**

Gertakizunak indarrean dagoen egoeran bertan *berria* inauguratzen du. Gertakizunak etena probokatzen du. Antagonismo berria adierazten du etenak. Etenean ez dago egiturak aurrikusten duenik errepikatzen. Etenean, berritasuna dago. Ez berritasun lineala, espiralezkoa baizik. Subjektuak egin torsioa edo bihurduraz lortua. Ez da egoera ankaz gora jartzea, berbideratzea baizik. *"Toute vérité est nouvelle, quoique la spiral soit aussi répétition. Qu'est-ce qui met la rupture novatrice dans la flexion circulaire? Un certain coefficient de torsion"*.<sup>90</sup>

Pentsamolde honek merezi du, agian, xehetasunen bat. Dialektika materialistan kokatzen da, beraz idealismo (metafisiko kantiarra zein dialektiko hegeliarra adibidez) guztietatik kanpo dago.<sup>91</sup> Horiek hola, izaerak lehentasuna du pentsaeraren aldean eta legea ez da identitate-legea kontradikzio-legea baizik.

---

<sup>88</sup> Badiou, Alain, Manifiesto por la filosofía, Cátedra, Madrid, 1990, 63 or.

<sup>89</sup> Badiou, Alain, L'Etre et l'évenement, 549 or.

<sup>90</sup> Badiou, Alain, Théorie du Sujet, 139 or.

<sup>91</sup> Ikus Kant, Immanuel, Crítica de la razón pura, II, Losada, Madrid-Buenos Aires, 4. edizioa, 71 or; eta Hegel, G.W.F., Ciencia de la lógica, II, Solar-Hachette, Argentina, 1968, 725 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Pentsamolde honetan, beraz, ez dago Osotasunik. □Ez dago asmatzeko garantiarik. Apustuan bertan, eta ez beste inon, dago bermea. Berritasunak -erreal, egia bakarra-errealitatean gertatzen dira. Errealitatearen jitea berbideratuz, *torsionatuz*, bihurdua eraginik. Baina berritasuna eman ondoren, errealitatea ez da lehengoa, gertakizun batek *kutsatua* baizik. Etenean interupzioa dago ez sunsitze-deuseztapena. Ez dago beraz errepikapenik. Errepikatzen dena prozesua bera da.

Kasuan, elebiko egoerarekin hautsiz elebakar euskaldunak adierazten duen antagonismo erreal adieraztea da etena. Ez da egiturak onartzen duen aldagai edo bariabla. Egituraren orokortasun, osotasun eta betikotasuna apurtzea baizik. Egiturarentzat ezinezkoa den *halako* bat egituran bertan kokatzea da, aurreko guztia indargabetuz. Ez da zerbait *konpatible* eta osagarri, antagonikoa zentzu gogorrean azpimarratzea baizik. Aurreko egoeraren baliogabetzea izango den eremu-sinbolikoa egiaztatzea. Orduz geroztik, Prensa Vasca ez da euskaraz zein erdaraz idazten den prentsa, euskarazko prentsa baizik, Euskal Prentsa. Epealdi historiko berria inauguratzen da. Berez ematen ez dena halere. subjketu eragilea behar da.

### **5.2.2.3. Metatze-prozesua**

Gertakizunetik, eta berarekin lotua, ixurtzen den indar-biltzea; egituran zehar biderkatuz hedatuko dena da metatze-prozesua. Gertakizuna nominatzen den unetik eta izendatze horretan kide direnen inguruan, denboratasunaren gurpilean, indar-biltze biderkatzailea gertatzen da. Ez da, xuxen, indarren adizio edo batuketa soila, akumulazio kuantitatibo soila.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Stalinen eritziz, aldaketa kuantitatiboak, metaketa kuantitatiboak, aldaketa kualitatiboa dakar: *"Contrairement à la métaphysique, la dialectique considère le processus du développement non comme un simple processus de croissance où les changements quantitatifs n'aboutissent pas à des de changements qualitatifs, mais comme un développement qui passe des changements quantitatifs insignifiants et latents à des changements apparents et radicaux, à des changements qualitatifs; où les changements qualitatifs sont non pas graduels, mais rapides, soudains, et s'opèrent par bonds, d'un état à un autre; ces changements ne sont pas contingents, mais nécessaires; il sont le résultat de l'accumulation de changements quantitatifs insensibles et graduels"*.<sup>92</sup> Jauzi horiek nolatan ematen diren ez da esplikatzen, are guttiago berorien ezinbestekotasuna.

Metaketa, kuantifikazioa ere ba da, indar-metaketa kuantifikatu egin bait daiteke. Baina, sakonean, subjektibazio prozesuarekin lotuta dago. Hau da, gertakizunaren asimilazio edo bereganatze-prozesuarekin. Xuxen adierazi zuen puntu hau Sabino Arana Goirik: *"Pero no debemos olvidar que si la unión es la fuerza sólo lo es la que tiene por base la unidad de ideas e identidad de aspiraciones en lo esencial"*.<sup>93</sup> Metaketa, puntu batean indar homogeneoen konzentrazioa da, eta ez indar heterogeneoen konzentrazioa, honoko kasu honetan konzentrazioa baino dispersioa ematen bait da.

Subjektu eragileak biltzeko kapazitatea da metatze-prozesua. Metaketa-prozesua, biderkatzailea bilakatzen dena, aldaketa kualitatiboa da. Prozesu guztiz desberdina adierazten dute metaketa edo aldaketa kuantitatiboak eta metaketa kualitatiboak. Lehen esan bezala, prozesu baten bi alde dira. Baina prozesu batean asko izateak ala gutti izateak

---

<sup>92</sup> Staline, J., Les questions du leninisme, Editions de langues étrangères, Pekin, 1977, 852-53 or.

<sup>93</sup> Arana, Sabino, La unión es la fuerza, El Correo Vasco, 1889-VII-10.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

gauzak bere hartan uzten ditu, ez du berez kontradikziorik garbitzen, bariazio bat da. Bariazio kuantitatibo horren barnean, aldaketa kualitatiborik eman daiteke, hots, egoera konkretu baten banaketa-aukerekin apurto eta beste banaketa-sistemari ematen zaio hasiera, baieztapen diferentziala, heteronomoa eginik, ez bariazio hutsa, indarrean dagoen Osotasuna hautsiz.

Gertatzen dena da gertakizunaren lehen unean, uholde ikaragarri gisa bertan dituen denak harrapatzen dituela, eta eraman. Elkartasun-giroaren momentua da, benetan, adizio kuantitatiboaren unea. Gogoeta-prozesuak, gertakizunaren berritasuna mantendu-beharrak, arerioaren indarrari luzaroan aurre egin beharraren gogortasunak, ostera, bere neurrira ekartzen ditu gauzak.

Metaketa-prozesu kualitatibo hau, subjektibazio-prozesu hau azken finean, non interbentzioz-interbentzio, haserako intuizio eta aldarrikapen generiko hura egunetik egunera eta zernahi direlarik zirkunstantziak mantendu beharra agertzen den, gertakizunarekiko leialtasun-prozesua da, edo subjektu leialen zeregina.

Euskal Prentsaren gertakizun fundatzaileak bere metatze-une propioak izan zituen, batez ere *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Jakin* aldizkariko kideen artean.

Gertakizunaren uhinak gertakizun momentu zehatza gainditu eta gertakizun-gunea denaren zehar bere efektuak zirkularazten ditu. Esan nahi bait da gertakizun fundatzaileak menpeko beste gertakizunak probokatzen dituela, bizitza propioz ornitua.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

\* Hiru dira, bereziki, Euskal Prentsa gertakizunaren uhin horiek. Bata, 1980.ean *Zeruko Argia*, *Argia Kooperatiba* bihurtzen denean. Uhin honek 1982ra bitartean iraungo du, Euskal Herriko euskaltzalegoa benetan oldartuko duena, Hegoko plazan gelditzen den aldizkari bakarra *Argia*, finkatzeko.

\* Bestea, *Anaitasuna* aldizkaria osatzen duten partaideek, mantxeta historikoa bertan behera utzi eta *Argia* proiektuan integratzea erabakitzen dutenean (1983). Une horretan Euskal Prentsa antolatze-bidean definitiboki jartzen da. Gertakizunarekin leial jokatzeko duten banaka horien beharra du Euskal Prentsa hordago hutsetik proiektu egituratua bilakatzeko.

\*Azkenik, *Egunkaria Sortzen* promotorak kalera dakarren *Euskaldunon Egunkaria*, 1976-78ko gertakizunak 1980-1990 bitartean erakutsi duen indar metatzailearen ondorio nabarmena da.

### **5.2.2.4. Leialtasuna**

*"J'appelle fidélité -dio A. Badiouk, nik leialatasuna itzultzen dudana- l'ensemble des procédures par lesquelles on discerne, dans une situation, les multiples dont l'existence dépend de la mise en circulation -sous le nom surnumérarire que lui a conféré une*

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*intervention- d'un multiple événementiel. Une fidélité est en somme le dispositif qui sépare, dans l'ensemble des multiples présentés, ceux qui dépendent d'un événement. Etre fidèle, c'est rassembler et distinguer le devenu légal d'un hasard".* <sup>94</sup>

Fideltasuna edo leialtasuna beti da partikularra, alegia gertakizun bati lotua da. Ez dago fideltasun abstraktorik. Ez bait dago, orokorrean, jarrera leialik. Bestalde, fideltasuna ez da inoren bertutea, gaitasun pertsonala. *"La fidélité est un rapport fonctionnel à l'événement"* dio Badiouk. <sup>95</sup> Zehatz izateko, gainera, leialtasuna ez da. Subjektu markatuak baino ez daude, hots, gertakizunak ukitutako subjektuak. Leial ala desleial izateko gauza direnak. *"Ce qu'il faut conceptuellement retenir et fixer, c'est q'une fidélité est définie conjointement par une situation -celle où s'enchaînent selon la loi du compte les effets de l'intervention- par un multiple particulier -l'événement tel que nommé et mis en circulation- et par un règle de connexion qui permet d'évaluer la dépendance d'un multiple existant quelconque au regard de l'événement, tel que l'intervention a décidé son appartenance à la situation".* <sup>96</sup>

Gertakizunak bi aldiz hasten dira: *"la dialectique matérialiste défait le cercle de l'hégélienne par des ruptures où tout phénomène vient s'inscrire deux fois. Le double sceau est le prix de l'Histoire pour toute nouveauté".* <sup>97</sup>

Aldarrikatze-unea eta antolaketa-unea dirateke momentu horiek. Adibide hau dakar Badiouk: *"bien entendu le marxisme commence deux fois: avec Marx et avec Lenine.*

---

<sup>94</sup> Badiou, Alain, L'Etre et l'événement, 257 or.

<sup>95</sup> Ibid, 258 or.

<sup>96</sup> Ibid. 259 or.

<sup>97</sup> Badiou, Alain, Théorie du Sujet, 143 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*'Marxisme-léninisme' fait un nom du double sceau -du double nom. L'Un doctrinal du Deux historique...Le christianisme aussi commence deux fois: avec le Christ et avec saint Paul... Faut-il soutenir que l'organisation seule peut faire d'une événement une origine? Oui, dès lors qu'un appareillage est requis pour support historique d'un sujet politique, et qu'il n'est d'origine que pour une politique déterminé. Mais l'événement, dès qu'ainsi assigné, prend une valeur inépuisable d'anticipation critique sur cela même dont la rétroaction fixe comme origine, comme scansion, ou comme bord" .<sup>98</sup>*

Aldarrikatze-unean bapatekotasuna da nagusi, unearen aurrean berritasuna aldarrikatu beharra, efektuak neurtzen jarri gabe. Antolaketa-unea askoz ere lasaiagoa da (ez halere bigunagoa). Gogoeta eskatzen du. Gertakizunaren efektuak ezartzea da. Efektuak ez dira ematen subjektu leialik gabe, *leialkiderik* gabe. Ez dago gertakizunaren efekturik leialtasunik gabe. Arazoa ez dago leialkideen kuantifikazioan. Batek ziurta dezake efektu hori. Edozein direla zirkunstantziak, gertakizunaren generikotasuna finkatzea esijitzen du leialtasunak. Generikotasuna singularizatzea.

Subjektuak desberdin jokatzen du aldarrikatze-unean eta antolaketa-unean. Aldarrikatze-unean, subjektuak bizi egiten du; gertakizunaren berritasunaz blai, bizi. Antolaketa-unean, berriz, bizitzea ezezik pentsatu, baloratu, neurtu, ekin.

Kaputxinoek *Zeruko Argia* utzi eta batzu *Argia Kooperatiba* egitea erabaki zutenean leialkide bihurtzen dira batzu horiek; desleial, bestetzu.

*Anaitasunaren* kideek, *Argiarekin* bat egitea erabaki zutenean, subjektu leial dira.

---

<sup>98</sup> Ibid. 144 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*Argiak*, ebidentzia ororen kontra eustea erabakitzen duenean, eta urterik urte azpiegitura sendoago egiten diarduenean Euskal Prentsaren subjektu leiali esker ari da. Prentsa elebidunera jotzea bazegoen, Jaurlaritzaren produktuetara abiatzea bazeukaten, baina Euskal Prentsa abandonatzea litzateke sortze-eguneko baldintzak ukatuz. Subjektu *markatu* haiek leialki jotzea erabaki zuten.

Azkenik, *Egunkaria Sortzen* promotoraren inguruan apustu historikoa eginez, urtean metaturiko indarrak bateginik, jendea biltzen denean, 1976-1978an izandako *gertakizuna* zertifikatu egiten da, une historiko berrian, 1989-1990an, euskal prentsa euskaraz egina soilik zahar hura *Euskaldunon Egunkaria* proiektuan adorez gauzatur. Leialkideen interbentzioz, gertakizun hura gertakizun berrian kateatzen da.

### **5.2.3. Subjektuaren zertzeladaz**

*"Pour ce qui me concerne, dit Badiouk, j'appellerai sujet le processus même de la liaison entre l'événement (donc de l'intervention) et la procédure de fidélité (donc de son opérateur de connexion(...)) On peut en effet reconnaître dans ce que je nommais subjectivation le groupe des concepts rattachés à l'intervention, et, dans ce que je nommais procès subjectif, les concepts rattachés à la fidélité".* <sup>99</sup>

---

<sup>99</sup> Badiou, Alain, L'Être et l'événement, 264 or. Gure artean Joseba Tobar-Arbulu saiatu da azken aldion subjektuaren arazoa astintzen, bere hiru saiakeretan, Spinoza eta Toni Negriengan

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Subjektu kolektiboaz ari da Badiou: *"il y a du sujet individuel pour autant qu'il y a de l'amour, du sujet mixte pour autant qu'il y a de l'art ou de la science, du sujet collectif pour autant qu'il y a de la politique"*.<sup>100</sup>

Subjektua efektu bat da, horregatik *"l'effet-sujet"* deitzen du filosofo frantziarrak. Efektu hori, bitan banaturik agertzen da, etenik. Bi momentu dituela, esan daiteke: *"L'effet-sujet n'est que l'unité divisible de la subjectivation et du procès subjective"*.<sup>101</sup>

Bi momentu horiek gertakizunak egoeran eragin duenarekin lotu behar dira. Gertakizunak, eten bat eragin du egoeran, gehikuntza (excès) agertaraziz eta lekua hutsik utziz, gehikuntza horrek adierazten duen edukiz osatzeko. Baina etena, hots, sortu den gehi hori, egoeran kabitzen ez den hori, gorpuztu egin behar da, abstrakzioetik jaitsi eta mamitu ahal izateko. Egoeran egin den urradura, konpondu egin beharko da, etena probetxuzkoa bilaka dadin.

Hiru tesitan adierazten du Badiouk mekanismo hau. *"L'effet-sujet articulé en scission un battement structural autour d'un place vide et un excès forcé sur cette place. (...) On appelle subjectivation l'interruption du battement par l'excès. C'est une destruction."*

---

errota, "Subjektu berrien potentzialtasuna", Larrun, 11 zb., 1991-XII, 53-57 or.; "Langile sozialduen subjektibitatea", Larrun, 12 zb., 1992-III, 78-85 or., "Langile sozialduaren gaurkotasunaz demokrazia absoluturantz", Larrun, 13 zb., 1992-VI, 77-85 or. Joseba Tobarrek langile sozialdua jotzen du subjektu berrizat, guztiz autonomoa, inolako dialektikarik gabea, bere esparruan eragile bakarra. *"Beraz, kapital eta Estatuakiko antagoniko eta autonomo diren mugimendu sozial guztiei so egin behar zaie, bertan baitago subjektu berriaren hazia"*. Larrun, 12 zb., 81 or. Nire perspektibatik urruntxo dagoela esan behar dut. Mugimenduari buruzko balorazioaz puntu amankomun bat baino gehiago aurkitu arren, ezin dut onartu erabateko autonomotasun hori, are guttiago *"dialektika bakar bakarrik kapitalari dagokio ez beste inori"*, dioenean: Larrun, 12 zb. 84 or.

<sup>100</sup> Badiou, A., *L'Être et l'événement*, 430 or.

<sup>101</sup> Badiou, A., *Théorie du Sujet*, 293 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*(...) On appelle procès subjectif la remise en place de l'excès dans un espace centré sur l'excès lui-même, C'est une recomposition".* <sup>102</sup>

Subjektibazioa eta prozesu subjektiboa beraz, egoerarekiko hausdura-konponketa binomioaren arabera ulertu behar dira, kontzeptu bakoitzak momentu bana adierazten bait dute.

Subjektibazioa, gertakizun-unearekin loturik agertzen da. Bertan parte hartu dutenek lortutako kontzientzia maila erakusten du. Agente huts izatetik eragile izatera dagoen tartea markatzen du.

Prozesu subjektiboak, gertakizuna pasa ondoren eraginik irauten duena erakusten du. Aurreko momentuan desegin dena, mamitzera, gauzatzera, gorpuztera bideratua dago. Horregatik, gertakizunarekiko subjektu leialak eskatzen ditu momentu honek. Prozesu iraunkorragoa da, subjektibazioa baino.

Gertakizun-unean, antagonismoa izendatzen da. Antagonismo hori, (azken helburutzat harturik), izatekotan, nola edo hala egoeran kokatu beharko da. Indarrean dagoen egoerarentzat ezinezkoa dena, egiaztagarria bihurtu eta jakintza sailean sartu. Urratska, jakina, egoera bera aldatu arte; hau da, egoera berria antagonismoak adierazten duena izango delarik. Euskal Prentsaren kasuan, elebitasunaren ordeztu, prentsa elebatar euskalduna sortuz.

Subjektuak izen bikoitza hartzen du, bere esistentzia frogatuz: izen propioa eta izen arrunta. Izen propioak, subjektuak, subjektibazioaz, bereganatzen duena adierazten du,

---

<sup>102</sup> Ibid.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

azken helburua izango dena jada gauzatua: *"le nom propre désigne ici que le sujet, en tant que configuration située et locale, n'est ni l'intervention ni l'opérateur de fidélité, mais l'avènement de leur Deux, soit l'incorporation de l'événement à la situation dans le mode d'une procédure générique"*.<sup>103</sup> Izen propioak gertakizuna eman denetik zirkulatzen jarri den ideia berezia erakusten du; egoeraren arabera zentzurik ez duena hain zuzen ere. Izen arrunta, berriz, izen propioaren edukia antolatzen duena da; izen propioaren baitan dauden perzeptzio guztiak egoeran gauzatzen duena da izen arrunta.<sup>104</sup>

Nola egiten da baina, konponketa, hau da nola bihurtzen da jakintza, egia dena? Nola bihurtzen du subjektuak egiaztagarri edo frogagarri, gertakizunak zirkulatzen jarri duen egia? Nola eman izenik, generikoa denari?

Lau kategoria bereizten ditu Badiouk: larridura, kemena, SuperNia, justizia: *"Les quatre concepts, j'ai dit qu'ils n'étaient pas des vertus, ni des capacités. (...) Ni angoisse ni surmoi, ni courage ni justice ne sont des états de la conscience. Ce sont des catégories de l'effet-sujet"*.<sup>105</sup>

*SuperNia*, estatuaren legea da (edonon -kazetal-arauetan ere bai- agertzen dena), antolamenduaren irudia. *Larridurak*, etena egin ondoren sortzen den hutsunea adierazten du, baina etena egin ahal izateko dagoen gehikuntzan du oinarri. *Larridurak* beti du amets SuperNiak adierazten duen antolamendu eta segurantza. SuperNiaren ordenua du erreferentzi-gune. *Justiziak*, berriz, egia adierazten du, egoera berria agintzen duen egia,

---

<sup>103</sup> Badiou, A., *L' Etre et l' événement*, 431 or.

<sup>104</sup> Ibid.

<sup>105</sup> Badiou, *Théorie du Sujet*, 307 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

azken xedea, helburu urrun eta eskuragarria. *Kemena*, larriduraren parekoa da, baina gehikuntzan sustraiturik justizia du xede, SuperNiaren eraginetik beti urrun. <sup>106</sup>

Gertakizuna eman ondoren, etena eginik, egia zirkulatzen jarria, larridura eta kemenaren artean ematen da subjektibazioa; prozesu subjektiboa, berriz, justizia kokatzen, hots, nolarebait legeztatzen, SuperNiak onargarri izango duen legepean jarritz. Azken xedea, hurbiltzen. Ez dago, baina, egia hurbiltzerik (euskal prentsaren kasuan Euskal Herriko komunikabideak euskara hutsezkoak izatea) egoeran gauzatu barik, hots, SuperNiaren legepean *leku* egin gabe, egoera urratua konpondu barik. <sup>107</sup>

### **5.2.4. Gertakizun-gune eta lekua**

Gertakizuna egoera egituratuan kokatzen denez, eman ahala dakarren berritasun-punta -egituratzen den heinean eta neurrian- kamustu egiten delarik, *nonbait* ematen da. Bi erataria ulertu behar da *nonbait* hori: fisikoki espazio geografiko gisa (gertakizunaren *lekua*) eta -sinbolikoki- sentsibilitate herritar eta nazional bereziren gordailu gisa, (gertakizun-*gunea*) non holako gertakizunak posible diren. Biak, baina, batera jokatzen dira, eta fenomeno baten bi aldetzat har daitezke: alde egiturala, eta alde politikoa, bata bestean txertatua.

---

<sup>106</sup> Ikus Théorie du Sujet, 305-312 or.

<sup>107</sup> Ibid.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Egoera ez da berez edo naturalki gertakizun-sortzaile. Beste era batera esanda *kondizio objektiboak* ez dira, berez, gertakizun sortzaile. Aitzitik, egoeran gertakizun-guneak daude, non benetako aldaketak emango diren. Eta hor bakarrik. *"L'idée d'un bouleversement dont l'origine serait un état de la totalité est imaginaire. Tout action transformatrice radical s'origine en un point, qui est, à l'intérieur d'une situation, un site événementiel"*.<sup>108</sup> Baina hor ere ez berez.

Zer da, teorikoki, gertakizun-gunea?: *"...un multiple totalment a-normal -dio Badiouk- c'est-à-dire tel qu'aucun de ses éléments n'est présenté dans la situation. Le site, lui, est présenté, mais 'en dessous' de lui, rien de ce qui le compose ne l'est, si bien que le site n'est pas une partie de la situation"*.<sup>109</sup> Gertakizun-gunea, beraz, egitura mailan idoro daitekeen minimoa da, zeren daukan konsistentzia bakarra inkonsistentzian datza. Alegia dituen osagaiak, egiturak ez dizkio haintzakotzat hartzen, ez dizkio berekotzat hartzen: beraz, *ez dira*. Hobe, kenketa edo sustrakzio *dira*. *"C'est un point de soustraction à la réassurance du compte par l'état"*. Jakina, gertakizun-gune honetatik egoera edo situazio berri bat sor daiteke (apustuz, interbentzioz), bera ez bait da sortzen egoera zaharreko konbinatoriatik. *"C'est en ce sens qu'on peut dire qu'au regard de la structure il est un terme indécomposable. Il s'ensuit que les sites événementiels bloquent la régression à l'infini des combinaisons de multiples"*.<sup>110</sup> Egoerak ematen dituen posibilitateekin (aukerekin) hausten du.

---

<sup>108</sup> Badiou, Alain, *Théorie du Sujet*, 197 or.

<sup>109</sup> Ibid. 195 or.

<sup>110</sup> Ibid.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Gertakizun-guneak dituen egoera, egoera *historikoa* (ez naturala) kontsidera daiteke. Puntu horretan konzentratzen da egoeraren historizitate bakarra, berritasun-sortzaile izanik. *"A l'inverse de Heidegger, je soutiens (dio Badiouk) que la localisation historique est ce par quoi l'être ad-vient à la proximité présentative, parce que quelque chose est soustrait à la représentation ou à l'état"*.<sup>111</sup>

Gertakizunaren *lekua* Euskal Herria da lan honetan, eta gertakizun-gunea historian zehar euskara (hizkuntz nazionala) eta bereziki Euskal Prentsa (Euskal Herriaren Prentsa) izateko eman den lana eta borrokaren ondorioz gelditzen diren *personaia* bereziak, euskararen (eta Euskal Prentsaren) militanteak.

Biak batera harturik, esan daiteke Euskal Herria, eta bereziki, euskarazko prentsa, *gertakizun-gune* bilakatu dela, bertan biltzen direlako, gertakizun-katean leial jokatu duten euskal-militanteak. Edota Euskal Herrian, subjektu leialen aztarnak bizi-bizirik dirautelako.

Badiouk, Pascal aipatuz eta honek kristautasunaz egindako gogoetak eredutzat harturik hauxe dio: *"Dès lors qu'une avant-garde d'intervenants -les vrais chrétiens -a décidé que le Christ était la raison du monde, vous ne pouvez pas faire comme s'il n'y avait pas lieu de choisir. La véritable essence du pari est qu'il faut parier, non qu'une fois convaincu qu'il le faut on choisise l'infini plutôt que le rien, ce qui va de soi"*.<sup>112</sup>

Bere garaian *Zeruko Argia* eta *Anaitasunaren* inguruan bereziki, baina gainontzeko aldizkariak ahantzi gabe *-Herria* euskal prentsaren dekanoa adibidez- *gertakizuna* posible izan bazen, urte luzetako eginahal etengabearen aztarnak nabarmen zirelako izan zen.

---

<sup>111</sup> Ibid. 197 or.

<sup>112</sup> Ibid. 244 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

Zilegi da esatea, zentzu honetan bederen, "katea ez da eten" eta ez (inolaz ere ez gainera) historian ezagutu diren bi *"Eguna"* horiek elkarren segida zirela adierazteko.<sup>113</sup> Euskal Herrian, beraz, baziren euskarazko aldizkariak, nola edo hala prentsaren egitura-barnean jokatzeko zutenak, hots, estatuak emandako legediaren barnean. Baina egitura horretan bertan, baziren egitura hori baino dexente gehiago ziren elementuak: egitura erdaldun eta politiko harekin zerikusirik ez zutenak hain zuzen. Aldizkari horiek, egituraren parte dira egituran agertzen diren heinean, baina egitura baino gehiago den elementuren babesleku ere badira, lehendik emandako gertakizunetik zintzilik bizi diren neurrian. Historian zehar emandako gertakizunekin leialki osatua da gertakizun-gune hau.

1936.eko guda ostean, lehendik datozen aldizkariak eta sortu berriak direnak - euskal kultura osoa bezelatsu- 50. hamarkadaren amaieran, Euskal Herrian emandako beste gertakizun politiko baten inguruan mugitzen dira (Euskadi Ta Askatasunaren sorrerak plazarazten dituen balio politiko-kulturalen inguruan alegia). Noski, honek ez du esan nahi -ez eta urrik emanda ere- aldizkari horiek zerikusirik zutenik aipatu *erakundearekin* (bada ez bada ere!). Ezertxo ere ez ulertzea litzateke.

Bi adierazbide baino ez, nire baieztapena frogatzeko. Joan Mari Torrealdai "Euskal idazleak gaur" azterketa soziologikoan, 1960-1964 urte inguruan ematen den (eta gerorako abiapuntu izango den) kultur-aldaketa sakona definitzeko euskal idazleen artean egindako inkestan, fenomeno horren eragile nagusia ETA dela azpimarratzen du. *"ETA dator lehen postuan, ia leku osoa berak harturik"*.<sup>114</sup> Liburu horretan bertan egiten duen irakurlearen erretrato errobotak ere hauxe erakusten du: *"Abertzale da (...) Gehiengoa, ETAk sortu eta*

---

<sup>113</sup> Ikus *"Eguna"* astegunkaria 1 zb. 1986-X-5

<sup>114</sup> Torrealdai, Joan Mari, *Euskal Idazleak gaur*, Jakin, Arantzazu, 1977, 506 or.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

*errepresentatu izan duen pentsaera politikoan dagoke, hots, ezker sozial eta abertzalean".*

115

F. Krutwigek ezizenez sinatu zuen "Vasconia" hartan isladatzen da ETAREN *pentsaera politiko* hori eta, bere generikotasunean, Euskal Herriaren naziotasunaren oinarri-oinarrian euskara jartzen da, berori delarik euskaldunon hizkuntza nazionala. <sup>116</sup> Erakunde armatuak urterik urte idatziriko paperetan (Hordago Argitaletxeak jasoak) euskara lehentasuneko balioztat agertzen da, nazioaren hizkuntza *bakartzat*, gero (ETA-berriren sorreraz geroztik eta harian bereziki) elebitasunaren premiaz eta nahasiko bada ere.

117

Aldi berean, gertakizun hori aurreko mendearen hondarretan emandako beste gertakizun politikoarekin lotzen da (Sabino Aranaren "*Euzkadi euzkotarren aberria da*" harekin). Guda aurreko euskal kultura osoa (zer esanik ez politika) Sabino Aranaren

---

<sup>115</sup> Ibid., 457 or.

<sup>116</sup> Sarrailh de Ihartza, *Vasconia*, Norbait, Buenos Aires, 21, 33 etab. or.

<sup>117</sup> Ikus Cuadernos EKIN, Charlas, 1959, in Documentos, Hordago I, Edit.Lur, 1979, 104 or; Libro Blanco 1960 109, ibid, 102; Euzkadi Ta Azkatasuna (sic), 1962, ibid 527 or; Cuadernos ETA, in Doc Hordago II, 106 or.; Euskalzaletasuna gogoratu bear, in Zutik 15, 1963, ibid 368 or; "Carta a los intelectuales vascos" in Zutik 25, 1964; Informe Verde revisado, V. Asanbladaren oinarriak (ikus Doc. Hordago V) berriztatzen duen dokumentua, 1969, in Documentos Hordago VII, 63 or); Txabi Etxebarrieta, Anteproyecto, in Zutik 49-50, ibid, 9-12 or; Kemen VIII, 1969, in Hordago IX, 55 or; Sarrailh de Ihartza, Notas sobre la etnocracia, Gatazka 1 zb.1970, 18 or.in Hordago X, 33 or; Sarrailh de Ihartza eta Beltza Principios del nacionalismo revolucionario, ETA V.aren agiria, 1970-71, in Doc. Hordago XII, 18. Dokumentu horietan, batez ere 1974tik aurrera, euskarazko aldizkarietako interesa agertzen da. Halanola Kulturarekiko ekintza idazlanean: "*aldizkariak: idazlanak direla bide herriko intelektualen bizimoduan parte hartzea ZA, Anaitasuna, Zabal...Ahal delarik nazio-mailan kultur aldizkari bat sortzea. Ditugun aldizkariak euskaratzea: herriko jaietako aldizkaria, Pyrenaica...*": Kemen 1974-III-3, in Hordago XV, 305; berdin Monografiko Kulturala, Gatazka 1974, 8 or, in Doc.Hordago XV, 439 or. Eta azkenik, perspektiba orokorra: "*gure helburua euskal estatu sozialista bat lortzea da: euskalduna beraz*" in Kemen 6, 1975, in Hordago XVII, 391 or. Francoren hil-urtean gaude. Euskal Kazetaritzaren Urte atarian hain zuzen. Geroztikako paperak ez dira hemen kontsideratzen.

## V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

intuizio eta apustutik zintzilik bizi da. Gertakizun hartatik edaten du eta harekiko leial/ala ez jokutzen gauzatzen da.

Egun gogoangarri batez, dio Lino Akesolok, *"urte batzu lenago Kanpion naparraren gogoan jazo zenaren antzekoa"* izan omen zuen *"argialdi"* bat izan ondoren, erabaki sendo bat hartu zuen Sabinok: *"ez dau bakerik ez onik izango euskerearen egoera negargarri ori eta euskaldunak aren aldera duken gogo illa eta zabarkeria aldatu arte"*. Argialdi izan ondoren, aitortzen du Akesolok: *"Euskal Bizkondeak Aranari zor deitso geien geien. Autor au egin ez deitsanik gitxi dago, eta dagozenak, ez-jakiñez, edo jakin nai ez-ta"*.<sup>118</sup> Dudaezinezkoa da, adibidez, Sabino Aranak sorturiko abertzaletasunaren babesean gauzatu dela *gurutzada* bitarteko (euskal) prentsa guztia ale bakan batzu salbu hurrengo atalean ikusten denez. Hara nola aitortzen duen hau gurutzadaurreko *historiko* batek: *"Aranarekin artu zuen euskerak zegokion goi-maila-ioera. Detxepare'ren ohiua (sic), mortu soilenean galdu zan. Zerbait bear zukean bere baitan ohiu arrigarri ark: aberri-arnasa. Ori palta zuen Detxepare'ren deadarrak, eta orregatik ez zuen euskaldunak iratzartzeko almenik izan. Arana'k aldiz, Aberria'ren eustazpitan bere euskalzaletasuna eraiki zuen, eta eustazpi orren gainean euskera Euzkadi'ren izakera gertatu zan. Eta euskel-arloan ari geran idazle geienak, aberriaren maitasunak eraginda ari gera. Bestela ez luke izaterik ere euskera zaindu, apaindu ta goimailatara iasotzeko erretzen gaituen azku onek"*.<sup>119</sup> Hots, prentsa mailan ematen den gertakizuna ezin daiteke deslotu politika orokorragoan ematen denarekin. Bertotik hartzen baitu antagonismo-izaera.

---

<sup>118</sup> Akesolo, Lino, Arana Goiri euskalarai, in "Obras Completas de Sabino Arana Goiri", Sabindiar Batza, Baiona-Buenos Aires, 1965, IX-XIX or.

<sup>119</sup> Ibiñagabeitia, Andima, Arana-Goiri Euskal-Idazle, Alderdi, 1953,79-80 zb

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

V. Atala: hasieran euskal prentsa izan zen

## VI. ATALA: KATEA EZ DA ETEN

Euskarazko prentsa idazten aritu direnak (Sabino Arana bera, R. M. Azkue adibidez, edota prentsa diglosikoan euskarari leku egiten ihardun dutenak, Ebaista Bustinza "Kirikiño", Esteban Urkiaga "Lauaxeta", Fermin Irigarai "Larreko", Tomas Zubiri "Manezaundi", Bittor Garitaonaindia "Garbi", Jose Agerre, Xabier Agirre "Lizardi", Txomin Arruti "Mendilauta". Andres Arzelus "Luzear", Jokin Zaitegi, José Antonio Garate, Imanol Berriatua etab. (*historiko* zenbait bakarrik aipatzearen) egunen batean Euskal Prentsa izango zena igertuz aritu ziren, hura izan zedin *terrenoa* prestatzen. Hortarako urratsak egiten. Lan horretan sartzeko erakutsi duten arrazoia euskarak herria osatzeko duen garrantzia eta funtzioa izan da, gutti ala asko nazionalismoaren inguruan sorturiko giroan. Dudaezinezkoa da, euskarazko prentsak, *vasquismotik* hasi dena ere, neutrotasunik miresgarrienez jokatu nahi duenak ere, abertzaletasunean amaitu duela, iraunkorra izan dena bederen. Hor dago, guztien eredu, *Argia* donostiarraren kasua, 1921an hasi eta *gerra zibilak* irentsi zuena. Euskararen erreibindikazioa abertzaletasunaren erreibindikazio bait dira luzarora. Edozelan ere orohar, eta prentsari dagokionez, benetako salbuespenak dira nazionalistak ez direnek edota bihurtu ez direnek sortutako kazetak.

Dakidala, baina, inork ez du une historiko batetan Euskal Prentsaren maila espezifikokan aldarrikapen orokorrik egin, erdarazko prentsaren *euzkaditasuna* nolabait

arbuiauz eta ukatuz, 1976a arte. Euskararen garrantzia (erdararen kontra) eta lehentasuna bai, hori azpimarratu dute baina ez euskal prentsaren *esklusibitatea* goraipatuz, apustu propio baten bidez.

Apustu hori egin denean, beste apustu-giro luzeagoan oinarriturik egin ahal izan da, ordea: euskara hutsezko apustuetan, zehazki prentsa idatzian egin den aldi-aldi apustuetan. Eta hau, euskal nazioaren erreibindikazioaren altzoan, mugimendu abertzalearen baitan.

Euskal Kazetaritzak 1976an eman zuen urratsa erabateko apustuaren fruitu da. Historia ez du bitan zatitzen baina duda barik bultzada berria emanaz norabide berrirantz abiatu du abertzaletasun euskaldunaren zentzua errekueratuz. Gertakizun fundatzailea da gerora sortuko den ugaritasuna ulertzeko. Baina urtetan egindako beste apustuekiko leialtasunaren emaitza da

### **6.1. Sabino Arana: politika lehenago**

Sabino Arana Goiri abandotarra, politikari haina kazetari izan zen. *"Sabino Arana, dio De la Granjak, predicó con el ejemplo, pues en sus diez años de vida política (1893-1903), dedicó gran parte de sus esfuerzos, e incluso de su fortuna, a la creación y al*

*mantenimiento de varias publicaciones periódicas, en las que escribió centenares de artículos que constituyen la parte más extensa de su obra política"*.<sup>93</sup>

Gauza bera uste du Larrondek: *"Le journalisme fut certainement la forme prédominante de son activité patriotique"*,<sup>94</sup> eta Ruiz de Añibarrok: *"...seguimos viendo en su obra un periodista bien definido, enamorado en el fondo de esa actividad (...) que fue la forma predominante en su prédica política"*.<sup>95</sup> Ez, ordea, Corcuera, kazetaritzari garrantzia kendu gabe: *"...el principal sistema de propaganda de las ideas nacionalistas serán las charlas, más o menos informales"*.<sup>96</sup>

Arazoa de Sabino Aranaren garaiko prentsa nazionalista, ugaria izan zela, ez tiraje handikoa<sup>97</sup> baina besteen artean (La Unión Vascongada, El Correo de Guipuzcoa, La Voz de Guipuzcoa, La Libertad, Heraldo Alavés, El Noticiero Bilbaíno, El Nervión, El Porvenir Vascongado, La Lucha de Clases, El Porvenir Vasco, El Liberal...batzu bakarrik aipatzearren) nabarmentzen jakin zuena<sup>98</sup>

---

<sup>93</sup>De la Granja, J.L. La prensa nacionalista vasca, in A.A. La prensa en los siglos XIX y XX. Metodología. Aspectos económicos y tecnológicos, UPV-EHUko Argitarapen Zerbitzua, Tuñón de Lara, Manuel eta Garitaonaindia, Karmelo editatzaileak, 1986, 659-60 or.

<sup>94</sup> Sabino Arana-Goiri et les débuts de la presse nationaliste basque, in Gure Herria, 1974, 15 or.

<sup>95</sup> Alderdi, 1953-79-80 zb.

<sup>96</sup> Corcuera, J., "Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1936", Siglo XXI, Madrid, 1979, 433 or.

<sup>97</sup> Ikus Kizkitza, "Ereintza", Edit.Vasca, Zarautz, 1935, 88 or; Larronde, J.C ibíd.111; San Sebastian, Koldo, "Euzkadi" 1986-X-30, 266 zb. 27 or.

<sup>98</sup> Ikus Saez de Valdivielso, A. C., "Triunfo y tragedia del periodismo vasco 1900-1939", Editora Nacional, Madrid, 1977, 26 etab.

Euskal nazionalisten prentsa, sorburuan eta ibilbidean, *politikoa* izan da batez ere. Aldizkari kulturazkoetan ere ezin bait zitekeen "maixuaren" irakaspenetik ihes egiterik.<sup>99</sup> Sistema linguistikoa ere, eredu propioa *-sabindiarra edo aranista-* antolatzen saiatu ziren, "*Euzko Deya* (1916) eta "*Euzkerea*" (1923) aldizkariak erakusten dutena eredugarriena izanik, Akademiaren (Euskaltzaindiaren) kontra gehienetan nahiz eta, luzarora, inposatu ez den.

Berak sortutako lehen kazetan adierazten du Arana Goirik bere xedea, euskal abertzaletasuna zabaltzeko bakarrik dagoela ikusirik: "*...es patente que nuestra misión ha de ser de lucha porfiada y continúa*".<sup>100</sup> Arana Goiriren nekaldi osoa erabaki politiko garbian eskegita egon zen, Larrazabal baserriko diskurtsoan (1893-V-31) esandakoan: "Euskadi euzkotarren aberria da"; gero eta egun, "Euskadi ta askatasuna" formulaziopean, "euskaldunok ez gara españolak, ez frantsesak", hartan zehaztua.<sup>101</sup> Argi zeukan euskal abertzaletasunaren fundatzaileak, euskara naziotasunaren funtsa zela. Arazo kulturala baino zeregin politikoa zela. Ez, "*gordetzeko zerbait*", Corcurak egotzen dion bezala<sup>102</sup> "*El euskera es, pues, dio Sabinok, elemento esencial de la nación euskalduna; sin él, las instituciones de ésta son imposibles. La desaparición del euskera causaría irremisiblemente la ruina de aquella nación, que moriría como muere la hoja de otoño al*

---

<sup>99</sup> Ikus Corcuera, ibíd. 437 or. etab eta De la Granja bereziki: "*no creo equivocarme al afirmar que el nacionalismo vasco ha generado la mayor cantidad de prensa política vasca en el siglo XX, más que las diversas fuerzas de derechas e infinitamente más que las izquierdas*", ob.aip. 659 or.

<sup>100</sup> Arana-Goiri, Sabin, Nuestro plan, Bizkaitarra, 5 zb. Berdin El Correo Vasco, ¿Quien vencerá?, 12 zb. eta La Patria 1 zb.

<sup>101</sup> Arana-Goiri, Sabino, ¿Somos españoles?, Bizkaitarra, 1893-XII-17.

<sup>102</sup> Ikus Corcuera, J. ob. aip. 150 or.

*ser privada de la savia nutritiva (..) y si a tiempo no empleamos nuestras fuerzas para salvar nuestra patria de tan fatal desenlace".* <sup>103</sup>

Halere, berak euskara eta erdara erabili zituen bere lanerako. Erdara euskara baino dexente gehiago. Bere bi lehen kazetek (*Bizkaitarra* % 10'10 eta *Baserritarra* % 12'9) erakusten dute Aranaren erabilpenaren gailurra, zeren *El Correo Vasco*, *Patria*, *La Patria* edo *Euzkadin* dexente guttiago egiten bait du euskaraz. <sup>104</sup> Honoko esplikazio hauxe ematen du politikari abandotarrak prentsari dagokion alorrean: "*Bertoko eta Erdalerriko euskaltzale batzuben esan deuste nekakorra dala euskarari ain gitxi Bizkaitarra'k eutia. Jakin, bada, begije guztijok: Bizkaitarra urrten zala epeko bizkai-bizkaitarra ixateko; bera orregatik, euskera bearrezkua litzakiala, ezpalitxaz ixango bizkaitarr asko euren erriko itxeikeraz extakijenak, eta ainbeste badakijenak, baña erderaz irakurtzia obesten daruenak; gauza bijak begiratuteko, itunduba ixan zala Bizkaitarra bi itxeikeraz daitikiala, alegiña daitianian (...) oindiño berez eztaigula egin Bizkaitarra osoro bieraz, gauza galerazkorr batxungaiti; gerora begira baña, zenbateko onetatik aurrian, beti, eukiko ditubala euskerazko egipen batzuben, bere ixen-lekuak...". <sup>105</sup> Arazo hau, baina, ez zuen konpontzerik izan. Euskara hutsezko aldizkaririk ez zuen mamitu Arana-Goirik.*

---

<sup>103</sup> Arana-Goiri, Sabin, Euskal Erria, 1886-VII-20, 361-64 or. Berdin, "La conciencia de nosotros mismos", *El Correo Vasco*, 1989-VII-3/ 30zb.: "... porque la amo como elemento de nuestra nacionalidad y timbre de nuestra constante independencia de otros tiempos y sello de nuestra aislada raza" edota "Matte, ba, euzkotarrak, euzkerea, ez ederra ta aberatza dalako; ta bai zeuben elia dalako. Beraua da geure abenda zarraren ikurtzea". Beuzko, Euzkeltzaletasuna, *La Patria*, 1903-V-17/ 82 zb.

<sup>104</sup> Ikus Larronde, Jean Claude, ob.aip. eta Jemein, C. Biografía de Arana Goiritar e Historia Gráfica del nacionalismo, Edit. General, Bilbo, 1935.

<sup>105</sup> Arana-Goiri, Sabin, Uarpenak, Bizkaitarra, 5 zb.

Sabinok euskararen alde eta buruz egindakoa guztiz funtsezkoa izanarren <sup>106</sup> beste nonbait aurkitu behar da kontraesan honen giltza, nahi eta ezinaren leize pertsonal honen zentzua.

*Baserritarra* kazetan "Agerre" izengoitipean, geroztik oso erabiliak izan diren testuak eta esloganak eskeintzen dira, hau da *abertzaletasuna ala euskaltasuna zein lehenago* galdekizunari erantzuten diotenak.

Honela dio balizko "Euzkotar bateri":

*"Ezta naikua Bizkai-semia ixatia. Abertzalia ixan biar da"*

*"Erdalerrittiko alderdijak zabaldu dira geure Aberrijan, eta euren aurretik euzkerea igesten da"*

*"Erriren batek bere izkerea galtzen ba-dau, beste baten otseña egin dalako da"*

Eta "Euzkeltzale bati" beste hauxe:

*"Aberrija eztau gaizkatuko euzkerek; bai ta bakarrik abertzaletasunak"*

*"Zabaldu egixu aberzaletasuna, ta berarekin euzkerea be zabalduko da"*

*"Zabaltzen ba-dozu euzkerea aberri bako izkeretzat, Aberriaren arerijuak berarekin zabalduko dira"*

---

<sup>106</sup> Ikus Mitxelena, K "Sabino Arana segun Jean Claude Larronde, Muga, 1979, 1 zb. 1902-193 or.; Akesolo, Lino Sabino Arana, euskalari, Obras Completas de Sabino Arana, Sabindiar Batza, Baiona-Buenos Aires, 1965, IX-XIX or.

*- "Euzkerea iltzen ba-da, abertzalerik ez talako da"*

*- "Euzkotarrak bere abendearen izkeratztat euzkerea ez padau mattetan, ¿zegattik eta zetarako matteko dau?"*

*- "Euzkeltzale asko ixan dira euzkelerrijetan. Baña euzkalerrijok jausi ta galdu dira. Abertzalerik ez talako ixan"*

*- "Euzkerea ez takijan euzkotar abertzaliak, ikasten dau. Abertzalia ez tan euzkeldun euzkotarrak, euzkerea aizen dau"*

*- "Aberrijaren bijotzarentzat, euzkerea ez takijan euzkotar bakotxa da arantza bat; abertzalia ez tan euzkeldun euzkotar bakotxa da arantza bi; eta euzkerea dakijan español bakotxa da iru arantza".<sup>107</sup>*

Esaldi hauek (eta orohar Sabino Arana Goiriren euskararekiko kontraesana) era askotara erabiliak izan dira baina bereziki zentzu progresiboan, mailakatze tenporalaren osteko fruitu gisa. Hots, lehenengoz abertzalea izan behar da eta zeregin politiko zuzenean aritu (boterea eskuratzen, Herria independentziruntz eramaten) eta gero, euskara ikasi behar da. Erabilia izan da baita ere (abertzaleen artean) zentzu kualitatiboan: bietatik bat aukeratu beharrean garrantzikoena abertzaletasuna da. Aukera biotan, euskara jakitea menpeko zeregintzat hartua izan da bai eta abertzaleen artean ere: euzkotarra (bertakoa) eta euskalduna (euskaraz dakiena) bereiztuz.

---

<sup>107</sup> Agerre, Aberrija, Baserittarra, 1897-VI-6/ 6 zb.

Bostgarren ataleko metodoa aplikatuz, ostera, prozesu bakar baten bi alde baino ez dira. Ez dago bat besterik gabe. Ez dago bat bestearen ondoren. Abertzaletasuna nazio eremuari dagokio. Euskal abertzaletasunak Euskal Herria du aberri bakartzat Sabino Aranaz geroztik eta euskaltasuna nazio horren ezaugarri funtsezkoena da; gabe, hura ere desegin egiten da.

Euskaltasuna kode aldaketa hutsa izan daiteke, hots, hizkuntza baten ordeztan (español zein frantsesa) beste bat aukeratzen da (euskara) baina español zein frantses izaten segitzeko. Abertzaletasuna euskararik gabe nazio ez euskaldunaren eredu da. Sorterriak ez du ez abertzaletasunik (erabaki politikoa) ez hizkuntzik bermatzen. Hizkuntza baten *erabiltze hutsak* ez du abertzaletasun *gradurik* ematen. Abertzaletasuna, berriz, gezurrezkoa da, euskararik gabe. Biak batera onetsiz bizitzean dago koxka, nahiz eta tiratu, abertzaletasunak tiratzen du; sortu, ordea, euskaltasunean sortzen da. Hau dagoelako (errealitatea), jaio da hura (pentsamendua). Euskaltasunaren alorra areagotzeko, berriz, egituraren etenak egitea da beharrezko.<sup>108</sup>

---

<sup>108</sup> Filosofiaren arabera euskara (errealitatea) eta abertzaletasuna (pentsamendua) konbinatzen bada, bost joera hauek agertzen dira: 1.- abertzalea baino ez dago, abertzaletasunak ez bait dauka euskaltasunekin (euskal nazioaren hizkuntzarekin). Idealismo metafisiko subjektiboa litzateke, Berkeley Gotzainaren gisakoa. 2.- abertzalegoak badu oinarriren bat euskaltasunarekin, baina izan arren ezezaguna da. Praktikan abertzaletasuna baino ez dago, baina badu euskal-kutsu ezezagunik. Idealismo metafisiko objektiboa da, kantiarra. 3.- euskaltasuna abertzaletasunaren baitako zerbait da. Abertzaletasuna ez da inondik sortzen, berez da, naiz eta euskaltasunetik ere elikatzen den, abertzale-euskalduna sortaraziz. Hegelen idealismo dialektikoa da. 4.- euskara baino ez dago. Hizkuntzak duen indarrak berak generatzen du abertzale-pentsamendua. Materialismo filosofikoa litzateke. 5.- errealki, euskaldunak daudelako sortzen da euskal nazioari buruzko pensamendua, abertzaletasuna, alegia. Baina hori ez da dohainik gertatzen; egituraren, etenak, ebakiak eginik baizik, ondoren (bertan)euskaltasuna inposatuz. Dialektika materialista da pensamolde hau.

Prensa mailan, beraz, *euskal prentsa izateko*, euskara baino ez errekonozitzeak alor horretan español zein frantses izateari uko egitea adierazten du, independentzia politikoa prentsaren alor espezifikoan ezartzea.

Dena dela Sabino Aranaren oinordekoek, batez ere '*partidurekin*' zerikusirik ukan dutenek orohar, berak sortutako bideari jarraiki izan diote. Hots, populazioaren gehiengoak euskararik ez dakielarik, ezin euskaraz hitzegin. Abertzale ditzagun, euskaraz egin ahal izateko. Erabil dezagun erdara kontzientzia pizteko. Erregela hau, mailakatze eta progresioaren erregela, halere, inoiz urratu izan da, aurrerago ikusiko denez. Nolabait esateko, zenbait jarraitzailek, maixuaren kontraesana gainditu dute, praktikan. Nahiz eta ez errekonozitu. *Euzko*, eta *Euzko Deyaren* kasuetan agertzen denez, adibidez, abertzaletasun eta euskararen artean graduak bilatzen saiatzen bait dira.

## 6.2. R.M. de AZKUE: kultura hutsa

Bi aldizkari plazaratu zituen Lekeitioko abade jakintsu honek eta biak euskara hutsez: *Euskaltzale* (1897-99) eta *Ibaizabal* (1902-03).<sup>109</sup> Azkue eta Arana ez ziren lagunak izan, abade lekeitiarra politikari abandotarrak gehien gorroto zituenen (Sociedad

---

<sup>109</sup> Bi dira nik dakidala Azkueren izakera eta obra kokatzen laguntzen duten idatz lanak: Arana Martija, Jose Antonio, *Euskal Katedraren lehiaketa eta eragina*, *Euskera* XXXIII, 361-378 or.; Tovar, A., Mitxelena, K., Caro Baroja, J., Don Resurrección María de Azkue. *Lexicógrafo, folklorista y gramático*. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, 1966.

Euskalerrria) kidea egin bait zen, hilabetetan PNVkoa izan ondoren. <sup>110</sup>1895.ez geroztik Aranarengandik urrundua zen Azkue.

*Euskaltzale*, Hego Euskal Herrian euskara hutsez egindako aldizkari oso lehena da. Euskal Herrian badago lehenagorik, nahiz eta askoz ere urriagoa izan (bi ale izan zituen) J. A. Chahoren *Uscal-Herrico Gaseta* (1848) Iparraldean alegia. <sup>111</sup> Hurrengoa, <sup>112</sup> Louis Etcheverry xuriak, M. H. Berdoly gorriaren *Le Réveil Basqueren* (1886) erantzunez, argitaratutako *Eskualdunak* dugu, (1887) berriz, baina honek beti eskeintzen zuen zatiren bat frantsesez Azkueren *Euskaltzale* kalera egin zuen garaian eta gerora. <sup>113</sup> Frantziako legeak horrela behartuta izanarren, esan daiteke, Azkuerena zela, momentuz, Euskal Herrian zegoen euskara hutsezko aldizkari oso bakarra.

Kaleratzearekin batera argi uzten du Azkuek: "*euskerea zabaldutea*", <sup>114</sup>"*euskerea gaisoari gora ta gora bultz egitea*" <sup>115</sup> dela bere xederik bakarra. Bederatzigarren

---

<sup>110</sup> Ikus Corcuera, ob.aip. 289 eta adibidea ematearren, Sotaren lagunek -"fenizioek"- ateratzen zuten "*Euskalduna*" aldizkariak (1901-XII-8) pozez agurtzen du *Euskaltzale*-ren irteera.

<sup>111</sup> Ikus Knörr, Enrique, De cuando se hacían periódicos vascos en California, Diario Vasco, 1990-II-11. Hau, euskaltzale arabarrak baieztatu zidan 1991-III-1ean berak niri zuzendutako gutunean, neronek *Herriz Herri* aldizkarian (1990-III-8) hori buruzko artikulua ikusi eta urte beteren buruan galdezka joan nintzaionean. Berak agindutako liburuaren zain gelditzen naiz. Orduan baieztatu nuen, bidebatez, aspaldidanik segitzen nuen aztarna, hots Californian eman zirela argitara euskarazko bi aldizkari: bata, *Escualdun Gazeta* (Martin Biscailuzek 1885ean) eta bestea, *California-ko Eskual Herria*, Jean-Pierre Gotynok 1893ean). Tartean, ororen gainetiko *Eskualdunak* (1887).

<sup>112</sup> Hau guztiau idatzirik nuela, Javier Díaz Nociren doktorego tesian, *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena*, UPV, 1992, 221 or., ikusi ahal izan dut, Pariseko Biblioteka Nazionalean aurkitzen den *Gure Izarra* (1888) dagoela oraindik tartean. Eskerrak ematen dizkiot Diaz Noci kazetari eta ikertzaile prestuari inolako eragozpenik gabe, zenbait konprobazio egiteko, bere testua utzi didalako.

<sup>113</sup> Ikus Mokoroa, Justomari, Zarrak berri, *Euskaltzale*, facsimil edizioa, Sendoa, 1982 eta Akesolo, Lino, Albistearen sorrera, ZER 1979, 17 zb., 8-9 or.

<sup>114</sup> *Euskaltzale*, 1897,-I-3, *Euskaltzale* nor dan. Aipatu edizioan.

<sup>115</sup> Irakurkerea, *Euskaltzale*, 3 zb.

hilabetean Gobernadoreak dena itzulita argitaratzea agintzen dionean ez duela merezi erabaki eta bertan behera uzten du.

*Ibaizabal*, <sup>116</sup> kalean jartzean, gauza bera agintzen du: "*euskerearen alde lan egitea baino ez*". Halere politikotzat joak izan ziren bai bera eta bai E. Bustinza ("Bloa") bere lankiderik minena: "*Guipuzkoako erri bateko gure laguntzaille ta adiskide baten eskutitz edo karta bat daukagu beguien aurrean, eta berean, beste gauza askogaz ganera oarkera bat eguiten deusku, au da: erri atako IBAIZABAL-en irakurla batzuk, ill onetako (Maiatza) guei baten ikusitako barri edo albista bategaitik, uste izan dabeela gure albistarichu au partidu-en baten alde dagoala edo denporaz egongo dala, ta beraz, ichi eguin deutseela IBAIZABAL irakurteari.(...) Uste dogu arinchi ibilli direala irakurla orrek IBAIZABAL politikotzat botatzeko, ta eurak sendotuten dabe erichi au esanaz norbaiten alde egongo dala denporaz; ezin dabe erakutsi eraguin gaur dagoala. Ez guizonak, eztago ta ezta egongo IBAIZABAL partidu onen edo bestearen alde, ta gaur arte, alde batzuetatik eta besteetatik, berba onak eta zorion opakerak baiño eztoguz artu, kontuz ibilli garelako politikaz urrundik bizi izateko*". <sup>117</sup> Eta hori, jakina, "*euskerea gorde eta zabaldua*" izanarren euren aitortutako politika bakarra. Orduan, gaur gisa, euskara abertzaletasunarekin lotzen zen (*bizkaitarrismoarekin*, kasurako), abertzaletasunean ezinbesteko erreferentzia izanik euskera.

Resurrección María de Azkuek, euskararen aldeko borroka (sasi)autonomoari ematen dio hasera prentsan, euskararen borrokari, borroka linguistiko (kultural) hutsa eritiziz.

---

<sup>116</sup> Ikus Akesolo, Lino, Ibaizabal, ZER 1982, 57 zb. 12-13 or.

<sup>117</sup> Ibaizabal, 1902-VI-1.

Azkueren ustez nahikoa zen zerbait euskaraz egotea euskaldunon babeseta laguntza merezitzeko: "*Euskaldun zintzoak uste onari beguiratuko deutso ta gogoratuko dau Ibaizabal dala euskera utsez egiñiko periodiko bakarra, ta eztau besterik bear bera maite izateko ta berari laguntza apur bat emoteko*".<sup>118</sup>

Azkuek euskaltasunaren alde bat baino ez zuen kontutan hartzen: linguistikokulturala, tradizio zaharra zuenak bestalde (Kanpionengandik, nahiz eta honek gazteleraz) *Revista Euskara* (1887) hartatik (abiatu zena). Baina Azkueren esperientziak hauxe adierazten du: politikarekin zerikusirik ez izana aitortuarren, etsaiak ez du sinisten. Abertzaletasunaren harra ikusten da euskararen aldeko edozein bidetan. Aitzitik, geroztik, bide honek adar luzeak bota ditu. Hor kokatu ahal dira, euskararen funtzioa erabat linguistikoa, eta politikatik erabat aldendua, delako adierazpen andana.

### **6.3. Sabinoren hilondokoak: bietan (berdin) jarrai**

Sabino Arana hilez geroztik, nazionalismoaren antolamenduak istilu eta zatiketa ugari ezagutu zituen.<sup>119</sup>

---

<sup>118</sup> Ibaizabal, 1902-I-5.

<sup>119</sup> Ikus Arana-Goiri, Sabino, *Obras Completas*, Sabindiar Batza, Baiona, 1965; Corcuera, J., *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1936*, Siglo XXI, Madrid, 1979; Elorza, A. *Las ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937*, Haranburu, Donostia, 1978; Letamendia Ortzi, Francisco, *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*, Ruedo Ibérico, Paris, 1975; Larronde, J.C. *El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, Donostia, 1978; López Adan, "Beltza" Emilio, *El Nacionalismo Vasco 1876-1936*, Txertoa, Donostia 1976; López Adan, "Beltza" Emilio, *Nacionalismo vasco y lucha de clases*, Txertoa, Donostia, 1976; Solozabal, Juan José, *El primer nacionalismo vasco. Industrialismo y*

Alde bakoitzak, bere prentsa sortzen ahalegindu zen, berorren garrantzia azpimarratuz <sup>120</sup> "Maixua" hil ostean, 1903-1913 urtealdian Anjel Zabala Ozamiz "Kondaño"-ren garaian *aranismoa* finkatzen saiatu ondoren, bi bidetan zabaltzen da abandonotarrak sortutako nazionalismoa: "Aberri" bidea, alde batetik, orduan eta orain ortodoxoa, erradikala edo independentista dei daitekeena (ez gero eskuinekoa) eta bestetik, pragmatismoa, posibilismoa eta autonomismoa erakusten duen bidea, 1910etik aurrera "Comunión" deitua. 1921an *aberkideak*, espulsatuak izan ondoren, EAJ/PNV birfundatzen dute 1930an "Comunión" delakoa ere irentsiz. <sup>121</sup>

Nazionalismoaren alde bakoitzak, hau da interesatzen dena, bere agerkariak izan ditu beti: "*Aberri*" saila batetik (Luis Arana, Manu Eguileor, Eli Gallasategi, Angel de Zabala "Kondaño"...); "*Euzkadi*" saila bestetik (Sota, Engracio Aranzadi "Kizkitza", Luis Eleizalde...).

### 6.3.1. Aberri saila

---

conciencia nacional, Tucur, Madrid, 1975; Aranzadi "Kizkitza", Engracio, Ereintza, Edit. Vasca, Zarautz, 1935; Zabala Ozamiz "Kondaño", Angel, Primeros años del nacionalismo, Edit. Alderdi, Bilbo 1985; Jemein, C., Biografía de Arana Goiri'tar Sabin, Edit. General, Bilbo, 1935; Fusi, Juan Pablo, El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad, Alianza, Madrid, 1984.

<sup>120</sup> Ikus gainera De la Granja, Jose Luis, La prensa nacionalista vasca 1930-1937 in A.A. La prensa en los siglos XIX y XX. Metodología. Aspectos económicos y tecnológicos. EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, Editatzaileak: Tuñón de Lara, Manuel eta Garitaonaindia, Karmelo, Bilbo 1986; Saiz de Valdivielso, Alfonso Carlos, Triunfo y tragedia del periodismo vasco 1900-1930, Editora Nacional, 1977; Garitaonaindia, Karmelo, Euskal prentsa, 1936ko uztailaren 18aren aurretik, Jakin, 1990, 58 zb.

<sup>121</sup> Ikus Ortzi, ob. aip. 153 or. eta Elorza, A., ob. aip. 160 or. Ikus baita ere Camino, Iñigo eta Guezala de, Luis, Juventud y Nacionalismo Vasco, Fundación Sabino Arana, Bilbo, 1991, 44 or.; Ikus bereziki Lorenzo Espinosa, José María, Gudari, una pasión útil: Eli Gallastegi 1892-1974, Txalaparta, Tafalla, 1992.

"Aberri" izenarekin hiru agerkari guttienez argitaratu ziren. Bat, 1906-1908 bitarteko astekaria; bi, Eusko Gaztediaren organoa 1916an, eta hirugarrena 1923.eko egunkaria. Hiruretan, tartean ibili ziren Manu Egileor "Ikasle", Eli Gallastegi "Gudari" eta Luis Arana.<sup>122</sup>

Iraupen handiena izan zuena lehena izanik, eta hurbilagotik begiratu, lehen hamahiru (13) aleetan % 12'5a da euskararen portzentaia; gero, % 3'12a; hots, 1923eko egunkarian bezelaxe non % 3,04 baino ez dagoen "Izpar laburrak", "Errietako izparrak" eta "Errietako idazkijak" sailetan zehar, nahiz eta lehen zenbakian "*eguneroko jeltzalia ixanda, euzkaltzalia da*" esan.

Nahiz eta, ohizkoa denez, aitortza suhartsuak egin: "*Euzkerea da euzkotarren elia, geure asaba edo aurretikuak itxi euskuben berbeta ederra. Baña Euzkerea euzkotarren elia ixan-arren euzkotar gustijok eztira euzkaldunak, euretarik askok euzkerarik eztakije-ta. Eta hori lotsagarrija da, gauza lotsagarririk ixatekotan(...) Elitxake euzkotarrik egon biar Euzkerea jakin barik. Euzkotar gustijok euzkaldunak ixan biarko gintzakez*".<sup>123</sup>

---

<sup>122</sup> Hemendik aurrera atal honetan agertzen diren kuadroak, eta portzentaiak, neronek lortutakoak dira, eskura dauden tokietan ale guztietako euskara kontatuz eta testu-masa osoarekin alderatuz proportzioak lortuz.

<sup>123</sup> Arizkun, Geure elia, Aberri, 1906-VI-25.

*"Nacionalistas vascos que no sabéis Euzkera, ¡a aprenderlo!(...) No vale alardear de patriotismo. Yo os preguntaré, ¿cuánto euzkera has aprendido? ¿Poco? Poco patriota eres en la práctica. ¿Mucho? ¡Excelente patriota!"* <sup>124</sup>

Nahiz eta kalean gogoia egon: *"Sabemos que muchos suscritores y lectores asíduos de los diarios verían con gusto la publicación de hojas literarias, semanales o quincenales, redactadas en exclusivo euzkera, para cuya redacción no faltaría personal laborioso, entendido y desinteresado(...) Hora es ya de que nuestro amor al euzkera no quede en los labios"* <sup>125</sup> Nahiz eta guzti hori esan, asarre eta zakarki, ez ziren pasa oso maila kaxkarretik, goian esandakotik.

Sail honetako kide dira Jagi-Jagi (1932-35) eta Mendigoxale (1932) ere. Baina deus gutti: berririk ez. Ikus halere geroago.

### **6.3.2. Euskalduna-tik Euzkadira**

*Comunión* tendentzia 1910.ean nagusitu arte, bi agerkari azaltzen dira bide horren bozeramale edo bidegile:"*Euskalduna*" eta Sabinok berak fundatutako "*Euzkadi*" aldizkaria. Bi aldizkari horiek, sorburu guztiz desberdinekoak izanarren, bat egin zuten "*Euzkadi*" egunkarian, non euskarri dagokionez, Ebaista Bustinza "Kirikiño", Nikolas Ormaetxea "Orixe", eta Esteban Urkiaga "Lauaxeta" arduratu ziren.

---

<sup>124</sup> Euzkelzale, A aprender euzkera, Aberri, 1906-IX-29.

<sup>125</sup> Ibaibietza, Acerca de la lengua", Aberri, 1906-XII-22.

### 6.3.2.1. Euskalduna (1896-1909)

"*Euskalduna*" aldizkaria, Sociedad Euskalerrriaren bozeramalea izana, Sabinoren etsai gorrotatuak ziren "fenizio" haiek sortu zuten 1896ean. "Periódico fuerista" gisa agertzen da mantxetan. Eta hortxe ziren Engrazio Aranzadi "Kizkitza" eta Luis Eleizalde "Axe" idazle eta ideologo. Biak ondo menderatzen zuten euskara. 1901.etik aurrera nazionalista bion eskutik 'abertzaletu" egiten dela esan daiteke. 1905.etik aurrera dudarik eztago "Jaun-Goikua eta Lagi Zarra" azaltzen bait da mantxetan. Bide honek, benetako monopolioa ukan zuen gerora prentsa mailan, herrialdeka sortzen den prentsa nazionalistaren bitartez "*Euzkadi*" egunkariraino (1913) ailegatzten bait da <sup>126</sup> eta ibilbide luzean 1936ko gurutzadaren hondarretaraino (1937-VI-18).

Sorreratik 1901erarte, aletatik % 75an, euskara gutti baina era lojikoan eskeintzen du "*Euskalduna*"k: artikulo bat edo bi, poema bat edo bi. Geroztik, dexente urriago, oso noizbehinka, sutsuago izanarren "*Zumelaga*" idazleari esker. *Zumelaga*, Ebaristo Bustinza "Kirikiño" da Aita Onaindiak erakusten duenez. <sup>127</sup>

---

<sup>126</sup> Ikus Saiz de Valdivielso, A.C., ob. aip.113 or. ; Orzi, ob. aip.158 or.

<sup>127</sup> Ikus Onaindia, Santi, "Evaristo de Bustinza "Kirikiño" (1866-1929), in La Gran Enciclopedia Vasca, J. M. Martin Retana, II lib., 431 or.

*Zumelaga nabari-nabarian agertzen da abertzale gisa.* <sup>128</sup>*Zumelagarentzat gaztelera "idioma invasor" da* <sup>129</sup> eta *"euskerea maite eztaben abertzalea abertzale erua edo faltsua, oso falsua da".* <sup>130</sup>

Horregatik euskarari ematen dion funtzioa guztiz politikoa da: *"Eztago, ez, euskera baño izkilu hobegorik motzak birrintzeko, esan gura dot euren jaubetasuna gure Aberri onetan. Alanche egoki jaku abertzaleak garealako lenengo".* <sup>131</sup>

Baina Sabinori gertatzen zitzaion lez komentzimendu horrek ez darama Mañariko idazlea euskara hutsezko prentsaren alde apustu egitera. Ez *Euskaldunan*, ez gero *Euzkadin*, <sup>132</sup>Xabier Perearen lan mardulean agertzen diren mañariarraren idazlan osoaren bilduma - liburuki bana urte bakoitzarekiko- arakatu ondoren, argi agertzen da Kirikiñok egunkari horretan egin zuen ikaragarritzko lana. Baina, aldi berean, nabari geratzen da nazionalismo ofizialak *de facto* ez zuela euskara hutsezko prentsaren apusturik egiten, errealitate gordin batean oinarrituz: euskaldun alfabetatuen kopuru eskasa. Garrantzi handiagoa zuen, nonbait, abertzaletasunaren ideia hedatzea euskaraz aritzea baino. Zentzu orokorrean, arrazoirik ez zitzaien falta, ez; zeren abertzaletasuna zerbait izatekotan euskal nazioaren kontzientzia (pentsamendu bihurtua) bait da.

---

<sup>128</sup> Ikus, adibidez, Guk euskal abertzaliok, Euskalduna, 1905-IV-29.

<sup>129</sup> Euskalduna, 40 zb.

<sup>130</sup> Ibid.

<sup>131</sup> Ibid.

<sup>132</sup> Ikus Perea Txabarri, Xabier, "Kirikiñoren idazlanak 'Euzkadi' izparringian" (1913-1927), kopia idazmakinatua, Labayru Bibliotekan gordeak.

Nabarmen gera daiteke hau, adibidez, *"Euzko Deya'ri* laguntza ukatzea eskatzen duenean, (ikus beherago bere sailean) euskara hutsez izanarren, *"Gure Jelbatza"* zirikatzea barkatzen ez diolarik.<sup>133</sup>

### 6.3.2.2. Euzkadi: aldizkaritik egunkarira

Sabino Aranak berak sorturiko aldizkari kuttunenak -*"Euzkadi"*k- bititza luzea ukan zuen, 1901-1915era bitartean hain zuzen.

Bataz beste % 10'59a eskaintzen du euskaraz, (Maixuaren garaian % 3'13 baino ez).

Bertan Luis Eleizalde "Axe" eta E. Bustinza "Kirikiño"k (ikusten denez Euskalduna-n aritu ziren euskaldun idazleak) ezartzen duten filosofia hau da: *"ezin dogu egin geiago gaur, auxe egin dagigun beintzat(...)* Al degun lekutik, ekin".<sup>134</sup>

*"Euzkotarrak esnatzea da gaurko euzkotarren lanik nagusiarena...Arana asi zanean, erdaldun euzkotarrak lenago esnatu zituan euzkaldunak baño. Nik dakusatanez, erderaren*

---

<sup>133</sup> Euzkadi, 'Euzko Deyari' lagundu, Euzkadi, 1922-VIII-4.

<sup>134</sup> Bustinza, Al dana egin bear, Euzkadi, 1905-X-3.

*bidez geyago esnatu dira euzkeraz baño(...) Euzkotarrak luzaro jardun biarko dute erderaz: erdaldun asko daukagulako, erdaldun abek euzkaltzeko, erderaz egin biar zayelako, arerioari erderaz erantzun biar diyogulako(...) Erderarik nai ez genuke, euzkera utsez asiko giñake. (...) Euzkadi'n, euzkera ez dakien asko, askotxo, geyegi dago. Abentzat, biar-biarrekoa da erdera(...) Berriketa oyen bidez arerioak nai dutena gu euzkera utsez jardutea, nai dutena ta nai ala guzaz esanik, ezertxo erantzuten ez diyegula adieraziz, irribarrezka euren arian egoteko(...) Jel-egia aldezteko, erdera biar danean, ez lotsatu erdera erabiltzeaz".* <sup>135</sup>

*Euzkadi* aldizkaria hil ateetan *Euzkadi* egunkaria hasten denean (1913) izen hutsak baino askoz ere gehiago segitzen du bizirik: egiteko filosofia osoa dago barne.

Halere *Euzkadi* egunkaria kalera baino lehen herrialdekako aldizkariak ateratzen ditu *Comuni3n* delako adarrak 1907-1913 bitartean..

Bakoitzean, bana: <i>Gipuzkoarra</i> (euskaraz % 17'49) <i>Bizkaitarra</i> (% 8'98) <i>Napartarra</i> (%12'33), <i>Arabarra</i> (% 7'65).
---

Adibide bat ematearren hara hemen testu bat hartu daitezkeen artetik: "*ez da naikua euzkeraz itzegitia, aberzalia izan biar da. (...) Obia da ez dakiyen aberzalia izatia, euskeraz jakin ta aberzaletasunik ez izatia baiño? Aberzaliak euzkeraz ikasiko du, eta dakiyenak ez*

---

<sup>135</sup> JEL-ALDE, Euzkeraz, Euzkadi, 1912,13 zb.26-36 or.

*badiyo bere Aberriari maitasunik aztuko zayo. Mila bider obe da Euzkadirentzat Euzkotar Aberzalia naiz ez euzkeraz jakin, Zamorako edo Gudalajarako karabineroen baten seme Oyartzunen jayo ta euskera itzegien duben baiño".* <sup>136</sup>

Bidexka guzti horiek nazionalistek amestu duten egunkarian ixurtzen dira: "*la obra magna*", "*la publicación del gran diario nacionalista*" kontsideratua. <sup>137</sup>

Euskarari dagokion mailan baina ez zen fitxik ere aldatu. Onartu behar zaio *Kirikiñori Euzkadi* izan dela egunkaritan euskara gehien sartu duena (*El Día* etorri arte 1930ean), guttiegi sartzeagatik xaxaka etortzen zirenen kontra hainbat aldiz aitortu beharra ukan zuenez. <sup>138</sup> Baina halere ezin uka: "*hiru zerrenda*" <sup>139</sup> egunean, hots hiru zutabe-zati guttiegi denik. Halere zuzena da "*garai hartako prentsan aparteko gauza*" izan zela esatea <sup>140</sup>.

Baina honek beste hauxe esan nahi du besterik gabe: abertzaleek bakarrik idazten zutela zertxobait euskaraz. *Hermes* eta *Euskalduna* aldizkariak zehatz-mehatz aldizkari nazionalistak izan ez baziren ere, euskaraz idazten zutenak (prosan bederen) denak ziren abertzaleak. Orduko nazionalistek, prentsan erabiltzen zuten hizkuntz politika hauxe baino

---

<sup>136</sup> Krisallu, Euzkotasuna ta euskara, Gipuzkoarra, 1908-VI-6/448 zb. Bide beretik Untzalu'tar Jon, Euzkerea ta gogua, Bizkaitarra, 1909-I-16; Zeleta, Gu zer geran?, Napartarra, 1918-IX-28/378 zb., eta Arabar euzkeldun onei geure agurra, Arabarra 1912-I-12.

<sup>137</sup> Napartarra, 1911-I-8. Ikus gainera, El diario nacionalista; "*la obra más grande de los vascos de esta generación*", Arabarra, 1912-VII-20. Bestalde, "Euzkadi" egunkariaren kazetal balioa ahobatez onartu dute ikertzaileek. Ikus, adibidez, Saiz Valdivielso, ob. aip. 111 or. eta Garitaonaindia, Karmelo, "Euskal prentsa, 1936ko uztailarek 18aren aurretik", Jakin, 1990, 58zb, 45 or. etab.

<sup>138</sup> Abertzaliak, Euzkadi 1916-I-3; Euzkerea nun makaltzen?, Euzkadi, 1922-VII-23; Agur Yaunak, agur terdi, emen gira. Amar Urte", Euzkadi, 1923-II-1.

<sup>139</sup> Ibid.

<sup>140</sup> Ikus Garitaonaindia, K., ob. aip . 61 or.

ez zen izan: "*Escribimos para que nos lean*".<sup>141</sup> Eta hori indarrean mantendu dute ibilbidean zehar gaur egunerarte. Komunikabide-mailan ukaezinezko adierazpena izanarren, euskal nazioa osatzerakoan erabat eskasa bilakatzen da.

### 6.3.3. Euskarazko salbuespenak

Betiere nazionalismo organizatuaren baitan ari naizela, esan behar da Sabinok ez zuela asmatu prentsan euskaraz idaztea; baziren lehendik ere karlisten eta foruzaleen egunkaritan. Ikus adibidez: "El Fuerista" 1888 -2, 3, 4, 9,109,180, 283 zbk-; "Irurac Bat" 1859-I-27; "La Unión Vasco Navarra" 1880 -4, 36, 55 zbk-; "La Voz de Guipuzcoa" 1893,1906; "La Unión Vascongada" 1892, 95, 96,1903. "El Guipuzcoano" 1889-92 Soroaren poemak bereziki. Liberalak izan omen dira, berriz, prentsan euskara sartu duten lehenak. Donostiar liberalak hain zuzen, *El Correo del Norte* (1834) egunkarian.<sup>142</sup> Ondoren ere, ezpal honetako egunkarietan euskara agertzen zen, maila literarioan -poemak eta bertsoak- edo oso noizbehinka baina agertzen zen. Adibidez, La Constancia - 10.hamarkadan bereziki-; El País Vasco 10-20. hamarkadan bereziki, El Correo de Guipuzcoa 1908; Diario Vasco 1919 aldera.

---

<sup>141</sup> Gipuzkoarra, 1907-V-18.

<sup>142</sup> Ikus Fernández Sebastian, Javier, *Prensa y publicística vasconavarra en la crisis del Antiguo Régimen*, doktorego-tesia, UPV, 1989, 697-699 or.

Bi epealdi zeharo desberdinak izanarren, euskara hutsezko bi salbuespen agertzen dira abertzaletasun jelkidearen baitan: "*Euzko Deya*" 1916-23 eta "*Euzko*" 1932-34. Eta partiduaren inguruan, *Ekin* 1932-36.

### 6.3.3.1 Euzko Deya (1916-23)

Oso kasu adierazgarria da *Euzko Deya* nazionalistek euskarari egin jaramona ikusteko ez bakarrik bertan "Kirikiño" euskara molde sabindiar edo aranista ezartzen saiatu zelako, euskararen erabilpen politikoa begiratzeko baizik.

1916an sortu zuten Bilbon gazte nazionalistek, *Euzko Gaztedijakoek* alegia. Aldizkari hau, dio Lino Akesolok, "*gure laikoak sorturiko aldizkarietan euskera utsezko lenengoa da(...) Euzko Deya sortu zenean ez (bait) zegoan Euskalerra osoan, erri-gizonak aterata, beste aldizkaririk ez astekaririk*".<sup>143</sup>

Ezaguna da *Euzko Gaztedija* (1907tik Juventud Vasca de Bilbao,<sup>144</sup> eta *Euzkaltzale Bazkunaren* artean (1910an sortua)<sup>145</sup> dagoen lotura eta aipatu aldizkaria

---

<sup>143</sup> Akesolo, Lino, *Euzko Deya*, ZER, 1989, 27-29 or. Euskarazko prentsaren hastapenak orain arte inork baino sakonkiago arakatu duena Javier Díaz Noci da, ob. aip. 37-204. Edozein kasutan, *Euzko Deya* kaleratzen denerako, eta almanakak kenduta, arrazoi du Akesolo zenak, zeren I. Nuñez Arizmendiren *Baseritarrak* 1909rako gaztelera zekarren euskararen ondoan.

<sup>144</sup> Ikus Aberri, 1907-III-16 eta 23.

<sup>145</sup> Ikus Bizkaitarra, 1910-IX-14.

(*Euzko Deya*) altzo horretan sortua da. <sup>146</sup>"*Euzko Gastedija'n bertan sortu zan Euzkeltzale-Bazkuna. Euzkeltzale-Bazkuna'k sortuten dau orain zeuk, euzkeldun on orrek, zure eskubetan darabilten EUZKO-DEYA izparringija*". <sup>147</sup>

Nahiz eta sorrera-urtea nahikoa gatazkatsua izan jeltkideen artean (Luis Arana kanporatu egin dute adibidez), nahiz eta "*Aberri*" saila martxan dagoen, *Euzko Deya* benedikazio guztiekin sortu zen.

*Kirikiñok, ale bana kalean, Euzkadi-ren orrialdeetatik egiten zion gorazarre ikustea baino ez dago. Irten aurretik aldeko propaganda ona egina zen Kirikiño: "Ortxe gogortu biar dogu ba, euzkeldun ontzat geure burubak eretxi gura ba'doguz. Era oberik orain baño iñoiz bez: mutil guzti aldra ederra gertu, biar diran lan gustijak ziatz egiteko; eta ez edozelako mutillak, bana-banakuak dira gero...". <sup>148</sup> Eta irten ondoren: "Orra or Euzko-Deya, aspaldiko urtietan guraritan euki dogun izparringi euzkelduna..Berau lakotxu ba eztozu idoroko erderaz Euzkadi guztijan...nik ondo dazaudaz (Euzkaltzale-Bazkunako gastiak) ta bai-nekijen euren eskubetatik gauza ondo eginda urtengo zala...". <sup>149</sup> Edota beste lausengu hura "...emen onetako izparringijen artian berau dala dotoriena, elegantiena, señoritoena...". <sup>150</sup>*

---

<sup>146</sup> Ikus Camino, Iñigo eta Guezala de, Luis, Juventud y nacionalismo vasco Fundación Sabino Arana, Bilbao, 1991.

<sup>147</sup> *Euzko Deya*, 1916-II-15, 1 zb.

<sup>148</sup> *Euzkel-izparringija, Euzkadi*, 1915-XII-7. *Berdin* 1915-XII, 7, 18 eta 1916-I-4, 12.

<sup>149</sup> Kirikiño, *!Gora gu eta geutarrak!*, *Euzkadi*, 1916-II-17.

<sup>150</sup> *Euzkadi*, 1916-III-4.

Eta oraindik beste hau:"*Eztago ori lako izparringi apaiñik Euzkadi gustijan, eta dena euskeraz. Arrotu gura bagenu, zegatija bauku*".<sup>151</sup>

Lehen fasean (1916-20) aldizkariak bere helburuak agertzen ditu, argi eta garbi: "*...eztau iñok esango aurpegija estaldu dogula*".<sup>152</sup> Haratx helburu zehatza: "*Geure erruz, euzkotarren erruz, Euzkerea jausi zan eta bere ordez erdereka leku artu eban...Okerra ointxe ikusi dogu. Oindiño astirik dago...Baña eziña ezta. ¿Zer biar da? Ekin eta ekin; gura ta gura. Ori da, ba, geure asmua. EUZKO DEYAren asmua. Euzkeraz ekin ta ekitia*".<sup>153</sup>

Halere, aldizkaria kulturalak diren horietako sailekoa izan arren, helburua ez da linguistikoa ez periodistikoa. Politikoa da bete-betean. "*Euzkerea, baña, bidia baño ezta. Bide zuzena, bide arteza bai, baña bidia. ¿Zertarako gura-dogu Euzkerea, Euzkadi iltzen ba-da? EUZKO-DEYA'k Euzkerea'ri gogor ta gogoz ekingo dautso; baña Euzkerea bidetzat baño eztau artuko. Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra da geure buru ta nagosija. Bera da geure guena, geure helburuba, ta geure Aberrijaren guen eta elburuba....EUZKO-DEYA, ba, Jel-aldez egiteko dator. Eztau ezeke bide onetatik atarauko. Euzkera bidez, Jel-aldez...Eta onetarako ezpalitz, ezkeuke izparringi au aritalduko*".

Bigarren fasean (1921-23ra, 1920-VItik 1921-VIra ixilik egon ondoren) formato aldatu eta beste itxura kaxkarragoa agertuarren, helburuak berdinak dira. Nazionalisten arteko barne etenaren urradura-hotsak agertzen dituen honoko testu honetan, euskara ez da abertzaletu ondorenerako uzten, baina abertzaletasuna erakusteko bidetzat jo ondoren, berriro, lehentasun arazoa agertzen da: "*Euzkera baño gorago Jeltzaletasuna jartzen dogu*

---

<sup>151</sup> Euzkadi,1916-VI-3.

<sup>152</sup> JEL ALDEZ, Euzko Deya, 1916-II-15/1 zb.

<sup>153</sup> Ibid.

*guk. Euzkera-barik, gaitz eta nekez ba-da be, Euzkadi gaizkatu letteke; baña Jeltzaletasun-barik Euzkerea, ta ekandubak, eta lagijak, eta azkatasuna, ta Aberrija bera ondatuko dira(...) Augatik, Euzkerea abertzaletasunaren aldez ekitteko bidetzat bakarrik artzen dogu, euzkotarren goguak erbesterakandik aldentuteko ta euzkeldunen artian Jel-azia zabaltzeko(...) Jelzaletasuna garbittu ta Jel-ikurriña estalduten daun lañua urratu dogu. Azkatasunaren zugatz-adarrak arrak jota dagoz; ebai daiguzan, ba, enborra usteldu baño lenago. Eta adarrok goi-aldekuak ba-dira len-bai-len eratsi daiguzan, bestiak errazago kenduko dira-ta. Zutik, ba, jeltzale zainduok!! Zutik Sabin'ak irakatsi euskuna zainduteko, Jel-areyuak, bai etxeukuak bai kanpokuak, jo ta birrinduteko" .<sup>154</sup>*

*Kirikiñorentzat hain hazi garrantzitsua zen hura guztiz zapuzgarri bilakatzen da 1922tik aurrera, Euzko-Deya Aberri-kidetasun gehiegizkoa erakusten zuelako. "Gure Jelbatza'ri azpijak jaten yabilkozanari geuk laguntzia kirtenkeri andija geritxolako. Bai, irakurle, Euzko-Deyaren jabiek, alegiletan ibili dira ta dabalz gure Jelbatza ondatzeko, ure izaparringi Euzkadi au ilteko, ta ona dala...¿geu il gura gaituen sugia kolkoan berotuko dogu ba?.<sup>155</sup>*

*Euzko-Deya 1923ko Diktaduran itto zen. Hona zer dioen Lino Akesolo zenak: "1923a jagi zan Primo de Rivera eta onek egunkarien euskal-atalak eta euskal-politika usaiñezko aldizkariak galerazo egin zituen".<sup>156</sup>*

---

<sup>154</sup> Gurari Nagusiya, Euzko Deya, 1921-VI.

<sup>155</sup> ¿Euzko-Deya'ri lagundu?, Euzkadi, 1922-VIII-4.

<sup>156</sup> Akesolo, Lino, ob. aip.

Halere, badakigu, *Argia* donostiarrak, adibidez, bide egin ahal izan zuela diktadurapean ere. Baina, oro har, horrelaxe izan zen. Batez ere bete-betean abertzale zirentzat. *Euzko Deyarentzat*, adibidez.

### 6.3.3.2. Euzko (1932-34) eta Ekin (1932-36)

Bizkaian ikusi zuen argia *Euzko* aldizkariak 1932ko Uztailaren 31ean San Inazio egunean hain zuzen. *Euzko Deyak* bezalaxe, aldizkari honek ere eta *Euzkaltzale-Bazkuna* izan zuen seaska eta *Euzko Gaztedija* akuilu.<sup>157</sup> 10.000 bat ale botatzen zuen aldizkari honek. Sail eta tamainu desberdinak alde batera, mamiz beti berdin agertu zen. Halere, ez dakit gazteak zirelako sustatzaileak edota euskararen eskasiak erresuminduta, *partidua* bera baino erradikalagoa agertzen da. Baina, funtsean ez zen gaizki konpontzen, EAJren ohar ofizialak eta kaleratzen bait zituen.

Kazeta lez, (atal informatibo bikainik zuelarik) bazuen eredurik *Argia* donostiarrean, nahiz eta ia erabat Bizkairako izan. Horregatik agian, eredu linguistikoan sabindiarra zuen eredu, eta aldizkaritan, *Euzkerea*, noski, "*Euzkerea nun-nai ta noz-nai erabilli al-ixateko, gauza bat biarr dau. Antziñatxutik, euzkeldunak ezeben euzkerazko itz garbirik sortuten. Esan letteke, euzkerearen lantegija itxitta eguala, biarginbarik, eta gauza barriririk agerrtuten zanian nonbait, euzkeldunak erderara joten eben gauza ari*

---

<sup>157</sup> Juventud Vasca de Bilbao 1931an birsortua, ikus Camino eta Guezala ob.aip, 109.

*ixena emoteko (...) ¿Geuk oraingo euzkeldunok, zer dala-ta eztoguz gauza barriak ixen barriakaz dettuko?".* <sup>158</sup>

Astekari abertzalea (politikoa ere bai) izanik -betiko arazoa!- euskara eta abertzaletasuna lotzen saiatzen da. *"Euzkera dalako gure oñarririk sendoena. Euzkerak dabilkialako gure itxaropena. Euzkerak berak nabarmenten gaitulako... Euzkeran bidez datorrelako azkatasuna".* <sup>159</sup>

Euskara eta abertzaletasuna bata bestearen eskale baina abertzaletasuna aurretik, nazionalisten tradizioak agintzen duen gisan. *"Gure EUZKO'an euzkerazkoa baño abertzalea geigo da. Euzkera utsa abertzaletasuna gabe, gauz urria da, gatz gabea. Oraindaño euzkaldunak, gure gurasoak eta, euzkera besterik etzerabilten, baño maite etzutelako, erbeste-eleak jakiteko irrikiten zebiltzelako, euzkera galduz, utziaz, baztertuaz, azkenik iltzen geratu zaye, eta guk aberria maite degunok, euzkera zutik, bere oñean lerdan eta txairo jarri nai eta bear degu".* <sup>160</sup>

Politikoez aparte, erlijiosoek ere atera zuten euskarazko aldizkari berri bat: *Ekin*, Zornotzako *Jaungoiko Zale* taldeko abadeen eskutik eta izen bereko aldizkariaren (1912-1932) oinordeko. De la Granjak 1.500 harpide zituela dio. <sup>161</sup>

---

<sup>158</sup> Euzko, 1932-X-8.

<sup>159</sup> Basarri, Zorionak EUZKO, 1932-VIII-7/2.zb.

<sup>160</sup> Euzko, 1932-IX-25.

<sup>161</sup> De la Granja, J. L. ob. aip. 670 or.

*"Gure asteroko au Jaungoiko Zale aldizkingijaren ordeaz agertzen jaku(...) a baño biarrezkuagua dala-ta. Geuk be uste orixe dogu..."*.<sup>162</sup>

*"Bizi al izateko 2.500 ieki gutxienez saldu bear doguz, zioen. Jaungoiko Zale'ko bazkideok 1000'ren bat ba'gara"*.<sup>163</sup> Zergatik *biarrezkuagua?* Ba, dudarik gabe, planteoa, zabalagoa eta aberatsagoa zuelako. Aldizkari honek, *Euzko* bezala, partidua baina areago joan nahi zuen, erradikalago alegia.<sup>164</sup>

*Jaungoiko-Zaleren helburua zen euskaldunak irakur zezaten: "Agirijan dago gaur euskaldunak zerbait irakurten dabela, orain ogetamar urte baño askoz geyago (...) Biar-biarrekua da ba irakurteko zaletasuna biztutia, ta onetarako beste biderik ez dago auxe baño: irakurri"*.<sup>165</sup>

Irakurri bai baina ez edozein gauza, irakurketa *onak* baizik. Honelaxe zioen Gabriel Manterola abadeak, aldizkariaren buruzagitatik bat: *"Jakiña da Euzkadi'n izparringi onak osoan izateko eusko izakera, oitura ta izkuntzaren aldekoak izan dabe: au da, katoliko ta eusko-zaleak"*.<sup>166</sup>

*Ekinek, norabide berdinean, baina, esparru gehiago bete zituen: "baserritarrenzat berarizko sallak", "asteroko barririk nausienak", "erlijio gaiak", "zozolistoek asmoak nora garoazen be esango dogu"*. Erljioa, nekazaritza, politika abertzalea, sindikalismoa eta hezkuntza, dena bat prentsa idatzian, euskaraz.

---

<sup>162</sup> Euzkerea, 1932-II-1

<sup>163</sup> Emen dator, Ekin, 1932-II-6/1 zb.

<sup>164</sup> Ikus testu hau: "Euzkadi azkatu biarr dogu", Ekin, 1932-IX-18

<sup>165</sup> Jaungoiko-Zale, 1922-IV-1.

<sup>166</sup> Jaungoiko-Zale, 1931-VIII-15.

Bere apolitizazioa aitortuarren, politikarekin izan zituen gorabeherak, bereziki *Argia* donostiarrarekin batera Estatutuaren alde jarri zenean: "*Estatutoaz erlijio alde euskaldunok... Euskal erriari diogun maitasun begiz ikusita politikarik ez*".<sup>167</sup>

Ez bakarrik Estatutuaren alde, abertzaleen politikaren alde ere bai: Nabaria da, 1933eko hauteskundeetan abertzaleak nagusi atera zirelarik, *Ekin*eko poza lehen orrialdean agertua: "*Katoliko-euskotarrok zorioneko gagoz, igandeko auteskundeetan lortu dogun garaitza dala-ta*".<sup>168</sup> Maila honetan ere *Jaungoiko-Zale* baino areago doa, beste edozer baino lehen garapen naturalez, giroa ere, Errepublikan alegia, horrelakoxea bait zen.

#### 6.4. Elebitasun diglosikoz

Egia esan nazionalistek ez zuten funtsezko komunikabide idatzirik kaleratu euskara hutsez, gurutzada garaiko *Eguna* arte. Eta 1990-92an egon den aukeran - *Euskaldunon Egunkarian*, alegia- ez dute parte hartu nahi izan. Zergatik?

Askoz ere aiseago mugitu da euskal nazionalismoa elebitasunez elebakar euskaldunean baino. Nazionalismoarekin lotutako prentsa dozenaka titulutan biltzen da.<sup>169</sup>

---

<sup>167</sup> Ekin, 1932-IV-11.

<sup>168</sup> Ekin, 1933-IV-29.

<sup>169</sup> Ikus Ruiz de Gauna, Adolfo, "Catálogo de publicaciones periódicas de los siglos XIX-XX", Eusko Ikaskuntza-Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saila, Donostia, 1991. Euskarazko produkziarako, berriz, tesi hau burutu denerako, oraindik argitara gabea, baina hemendik aurrera ezinbesteko bilakatuko den, Diaz Noci, Javier, "Euskarazko Prentsa XX. mendean (1919-1937) Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena". Bereziki, III. parte: "Euskarazko aldizkari, almanaka eta egutegien errolda", UPV, 1992.

Baina, hasi Sabino Aranarengandik, ikusi berri denez, eta salbuespen eder horiek kenduz, euskara beti geroko geroa izan da partiduarekin lotutako hedabideetan. Adierazi beharra dago, halere, koinzidentzia hutsa baina gehiago delakoan, euskara hutsezko bi aldizkari horiek Euzko Gaztedijan mamitu izan zirela eta, aldi berean, bertan gauzatu zirela independentzizaletasun eraginkorrena. *"Los principales componentes del movimiento aberkide, dio Lorenzo Espinosak, cuya escisión en los años veinte constituirá uno de los episodios más tensos de la historia del nacionalismo vasco de preguerra, pertenecían a los grupos más jóvenes del movimiento. Una misma biografía militante unía a los Gallastegi, Jemein, Egileor, De la Sota, Errazti etc. Casi a todos han llegado al nacionalismo a través del estudio de la lengua o la participación de los grupos montañeros, escuela de danzas, etc.. Pero lo que dio fuerza y homogeneidad a este conjunto, en principio disperso, fue su agrupación en el organismo juvenil Euzko-Gaztedija y el particular activismo que la presencia de Gallastegi, primero como militante y luego como presidente, le prestaría hasta la ruptura de 1921. Sin embargo, durante un largo tiempo y mientras las publicaciones oficiales no dieron ocasión a la expresión de estas opciones disidentes, muy poco se sabe de ellas. Sólo algunos casos, como el del órgano del Euzkaltzale Bazkuna, el periódico Euzko-Deya fundado el 15 de febrero de 1916, permite seguir alguna pista de esta disconformidad".*<sup>170</sup>

Aipatzekoa da: euskarazko aldizkari bat luzaroan mantentzeko gauza izan ez direnek beti egin dute amets, ikus beherago, euskarazko egunkari bat erneko den egunarekin. Horra zuzenduriko pausuak dira, antza, eman diren urrats guztiak. Baina, azken pausua, ez da -ezin da- naturalki eman.

---

<sup>170</sup> Lorenzo Espinosa, José María, "Gudari, una pasión útil", Txalaparta, Tafalla, 1992, 58 or.

Aldi berean aitortu beharra dago, euskaraz egin den prentsa, nola edo hala, euskal nazionalismoak piztutako suan berotu da. Hau da euskal nazionalismoaren *gertakizun politikoaren* oihartzuna baino ez da euskararen inguruan egin den ia dena, Badiouren irakatsiak aipatuz, gertakizunak aniztasun oparoa eragiten bait du.

Indar politikoen eskuetan euskarak porrot egiten omen zuela-eta bide linguistikoa aukeratu da sarrien, hots, euskara euskaragatik edota *politikarik* gabeko euskara. Halere euskarak herri baten nortasunarekin zerikusia duenik behin eta berriro agertzen da, estatuarekiko bere alde politiko antagonikoa alegia.

#### **6.4.1. X. hamarkadatik 1923ko Diktaduraraino**

Urte oparoak dira, batez ere 1914ko gerraondokoak. Meatzen jabeak urrezkoak egiten dira, bankuak sortuz eta enpresa monopolistikoak garatuz. Untzigileak bapo ari dira gizentzen. Bizkaian Sota eta gisako nazionalisten urteak dira. Diputazioko aginteguneak lortzen dituzte. Politikoki nazionalismoak ez du autonomismoa baino defendatzen, interes orokorrakoak zalantzan ez jartzearren. Horregatik aise sentitzen dira espainiarzaleekin. Barne-urradurak hor dute zuztarretarik bat. Gipuzkoan, enpresari ertainek nazionalistagoak egiten ari dira karlismotik ibilbidea eginez. Interes "propioak" daude jokuan han eta hemen baina abertzaletasunaren harra ari eta ari dago.<sup>171</sup>

---

<sup>171</sup> Ikus Arana Goiri, *Obras Completas*, Sabindiar Batza, Baiona-Buenos Aires, 1965; Corcuera, Javier, *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, siglo XXI, Madrid, 1979; Elorza, Antonio, *Ideologías del nacionalismo vasco. (1876-1936)*, Haranburu, Donostia, 1978;

Oparotasun ekonomikoak izan zuen eraginik kulturaren, batez ere museo, akademia eta artisten elkarten sorreran (Unamuno, Mourlaine Mitxelena eta Tomás Meabe) eta euskal ikasketen ugaritzean.

Urteotan sortzen du Julio Urkixok RIEV erraldoia (1907). Urte horretan bertan argitaratzen du Gipuzkoan "*Euskal Esnalea*" aldizkaria izen berbera daraman Elkarteak. Eta 1911ean "*Euskalerrriaren Alde*" aurrekoa beste honen euskal saila bihurtuz 1931 arte. Bi horietan ari dira Txomin Agirre, Karmelo Etxegarai, Gregorio de Mujika besteak beste. 1914ean sortzen da lehen ikastola Muñoaren eskutik Gipuzkoan. 1916ean jasotzen Donostiako Ateneoa. 1918an antolatzen da Euskaltzaindia 1906an Diputazioek Akademia bultzatzea erabaki zutenetik hamabi urtetara. Resurrección María de Azkueren uzta-urteak dira (Diccionario Vasco-Español-Francés, 11 liburukitako Cancionero Popular Vasco, etab.). 1917an hasten dira lanean Barandiaran, Aranzadi eta Eguren. Eta, batez ere, 1918ean eratzen da Oñatiko Kongresua eta Sociedad de Estudios Vascos edo Eusko Ikaskuntza jaiotzen.

□ Ez da hau euskarak ezagutzen duen lehen uhina. Izan ere Euskal Pizkundea deitu aroa 1875-80an hasten da Abadie Urrustoiren Euskal Jaien inguruan (Bonaparte Printzearen laguntza paregabearekin) eta *Eskualduna* aldizkariaren (1887) orrialdeetan Iparralderako; *Revista Euskararen* (1877-1883, Campion, Oloriz, Iturralde) eta *Euskal*

---

Larronde, Jean Claude, El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri, Txertoa, Donostia, 1977; López Adán "Beltza", Emilio, El Nacionalismo Vasco 1876-1936, Txertoa, Donostia, 1977; Solozabal, Juan José, El primer nacionalismo vasco. Industrialismo y conciencia nacional, Tucur, Madrid, 1975; Francisco Letamendía "Ortzi", Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA, Ruedo Ibérico; Apalategi, Jokin, Los vascos, de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de nación vasca, Txertoa, Donostia, 1985.

*Erria*" aldizkariaren baitan (1880-1918: Manterola, Arzak, Carmelo Etxegarai, Marzelino Soroa, Francisco López Alen...) Hegoalderako. Foruen galera-urteak bait dira (1876).

Urtealdi hauetan (1900-1923) euskarak halako ospe berezi bat lortzen du, guttienez Euskal Herriaren nortasun agiria delako. Euskararekin zerikusirik duen edozeren garapen-urteak dira dudarik gabe. 1901ean, Martin Landerretxe abateak *Euskaltzaleen Biltzarra* Elkarteak sortzen du eta hor biltzen dira besteren artean Kanpion, Urkixo, Guilbeau, Arrese Beitia, Azue, Gregorio Mujika, Sabino Arana, Barbier, Broussain, Lacombe, Daranantz etab. Urte horretan bertan antolatzen da Hendaian Lehen Ortografi Kongresoa, besteak beste aurreko horien partehartzez.

Aldizkaritan ere halako joritasun nabarmena dago urtealdi honetan. *Euskera* 1920, *Aranzazu* 1921, *Gure Herria* 1921, *Eusko Folklore* 1921, *Gure Mixiolaria* 1921, *Kaiku* 1921, *Vida Vasca* 1924, *Bulletin du Musée Basque* (1924), goian aipatutakoaz beste.

Aldizkariotan euskarak funtzio berezia du: kreaizozko, itzulpen, ipuin, gramatikazko zereginetarako uzten da, "*eusko yakintzak/el saber vasco*"-k bere hedapenerako erdararen beharra izaki. Horregatik, bigarren mailako hizkuntza da euskara aldizkariotan. Bide hauxe jarraituko du urte batzu geroago "*Yakintza*" (1933-36) aldizkariak Aitzolen eskutik euskararentzat biografiak, poemak, antzerki-zatiak eta itzulpenak utziz eta orobat % 8-10a eskainiz. Berdin RSVAP (1945-80), "*Eusko Jakintza*" (1947-57). Euskal kulturaren kate elebiduna, Jokin Zaitetik hautsiko du "*Euzko Gogoa*"rekin (1950-59) gerraondoko lehen euskal aldizkariarekin. Geroztik, euskal kulturaren euskaltasuna *Jakin*-ek ekarri du, bereziki, gure arteraino.

Euskara hutsezkotan, berriz, *Jaungoiko Zale* 1912, *Zeruko Argia* 1919, *Argia*, 1921 baina hauek ez dute izan nahi euskal kulturaren gordailu gero ikusiko denez. Maila hori *Euskal Esnaleari* eman dakioke, *Euskaleriaren Alde* aldizkariaren sekzio euskalduna bihurtzen denean (1911tik 1931ra).

*Euskal Esnalea* 1908an sortu zen Tolosan, xedea lehen orrialdetik adieraziz: "*Argiro diyo gure izenak au guziya: Gerok eta beste esnaratu nayeana irteen gera*".<sup>172</sup> Bi hizkuntzetan baina: "*Zerbait erakutsi lezakeen edozeñ betor: naiz euskeraz naiz erderaz (beti euskal-gayez orde) mintza bedi eta pozez entzungo zayo*".<sup>173</sup>

Ez dago euskararen aldeko apustu ofizialik, baina lehen urtetik agertzen da berorren premia: "...*nik uste dedanez euskera utsian obekiago letorkeelako*".<sup>174</sup>

*Esnalegileak* aldizkariak "*egunetik egunera euskal-gayak zabaldubaz t'erdelgayak laburtubaz joateko asmoa*"<sup>175</sup> zeukala esan arren, beraz progresio-bidea eskainiarren, hori ez zen inoiz bete. Aldizkariak sekzio euskaldun osoa (hamasei orrialde) asmatu behar izan zuen 1911tik aurrera. Aldizkaria (erdarazkoa zein euskarazko sekzioa) "cultura vasca" zabaltzera mugatuko da, inolako arazo politikorik aztertu gabe.<sup>176</sup> Halere, eta hau ere

---

<sup>172</sup> "¿Zertara?", *Euskal Esnalea*, 1908-I-15.

<sup>173</sup> *Ibid.*

<sup>174</sup> *Jakintzale*, *Euskara hutsean...?*, *Euskal Esnalea*, 1908-IX-1.

<sup>175</sup> *Euskal Esnalea*, 1908-VIII-15ean, *Euskal Esnalea* euskaraz izan zedin *Jakintzale'k Baztan'go Batzarrerako* zentzu horretan egin proposamena babestuz.

<sup>176</sup> Ikus "Nuestros propósitos", *Euskal Erriaren Alde*, 1911-I.

konstante bat da guttienez Azkueren garaietatik, Elkartek berak, bere Zuzendaritzaren eskutik, euskara sustatzea helburu bakartzat zuela aitortuarren <sup>177</sup> propaganda nazionalista egiteko bidea zela leporatu zitzaion. <sup>178</sup>

Urtealdi honetan (1915-1919 zehatz izateko) Nafarroako "*Diario de Navarra*" egunkarian euskarazko sail bat agertzen da. Nazionalistak, beraz, agerkari propioan ezezik besterenetara luzatzen dira. Egunkaria nazionalistena ez izanarren ez eta kutsurik erakutsi, *Agerre'tar*-ek astean behin ia bakarrik <sup>179</sup> sinatutako "*Euskarazko Saila*", erabat da abertzale ezpalekoa. Bere ttikian (kolumna bat baino guttiago 6 x 6ko egunkari batean) balio handiko zeregina da nazionalista honena, zeren " *nafar prentsako tiradarik handieneko egunkari bihurtu zen eta eritzi publikoaren eraketa ideologikoan ere eraginik handiena izan zuena izan zen*". <sup>180</sup>

Egunerokoan aritzeak halako ospe ukazina ematen zion euskaldunon hizkuntzari. "*Euzkeldunok, agur, dio lehen aletik. Emen naukazute. Diario de Navarra honen Artezkaritzak (Direzioea) asmoz eder bikaña artu du emendik aintzin astero bederik euzkerazko sailtxo au agertzea. Onela gure ele maiteari diogun eskertasun-zorra ordaintzen diogu, orain arte baztertutik egon euzkera dagokion lekuan jartzen dugu(...)* Gogoan, eduki, euzkera maitatu bear dugula gure eriraren mamia delakotz ta lotsagarri izanen litzateke gure urteta orain eldu den ele goresgarriak orain gure eskuetan

---

<sup>177</sup> Euskal Esnalea, 1912-XII-30, 48 zb., 299 or.

<sup>178</sup> Euskal Esnalea, 1912-VIII-39, 40 zb., 198-99.

<sup>179</sup> Ikus Garitaonaindia, Karmelo, Jakin, ob.aip. 35-85 or.

<sup>180</sup> Ibid.

*zabarkeriagatik bakarrik il bearco lukela. Maita dezagun euzko abendaren (Erraza) ele eztsua ta al egin bizitzarako gai egiten "*.<sup>181</sup>

#### **6.4.1.1. Eusko Ikaskuntza**

Urtealdi honetan, baina, gertatutakoen artean erabakiorrena, Eusko Ikaskuntzaren (1918) eraketa eta antolamendua izan zen. *"...el mundo de la cultura, -y por qué no decirlo, el de la política-, es consciente de que, entre esta consecución y los intentos culturales pretéritos ha habido un salto cualitativo, se ha franqueado un umbral a todas luces apreciable"*.<sup>182</sup>

Non dago, ordea, jauzi kualitatibo hori? Estornés Zubizarretarentzat "Asociación Euskara"-ren aldean ahalegin kolektiboa izan zelako karlistak, *euskalerrriakoak*, liberalak eta nazionalistak, denak bateginik xede baten atzean jarririk.

Xedea autonomia politikoa izan zen, Estatu espainiarrean egoki txertatzeko formula. *"(La SEV) constituye el grueso de este contingente básico que a través de sus*

---

<sup>181</sup> Diario de Navarra, 1915-II-7.

<sup>182</sup> Estornés Zubizarreta, Idoia, La Sociedad de Estudios Vascos 1918-1936, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983, 15 or.

*Diputaciones irá perfilando un futuro congreso y un proyecto de sociedad cultural supraprovincial (...) Ya no se trata de un puñado de euskalerriacos aislados persiguiendo quiméricas reversiones del tiempo(...) La SEV se crea como un ensayo general de Universidad que con renovada insistencia, va reivindicándose, pero también como punto de arranque para la autonomía, para esa nueva fórmula de inserción en el Estado que se busca desde la desaparición de los fueros; cada una de sus secciones de estudio será preparatoria de algo superior y que se espera sea definitivo. Pero para poder acceder a esta nueva vía, todos los grupos en presencia tendrán que ajustar sus pretensiones, moderar sus ímpetus, o ceder ante lo que les parece irrelevante. Los carlistas tendrán que aceptar un posibilismo diferente al que, el año 1916 llevará a los bizkaitarras a conseguir fórmulas comunionistas. Republicanos y liberales tendrán que cerrar los ojos ante unos compañeros de viaje cuya presencia juzgan incompatible con la propia. Esa es la fórmula que lleva a Oñate. Algo parecido a una profesión de fe en la tolerancia congrega a una serie de vascos, probablemente irreplicable, en ruptura con un pasado de intransigencia y con un presente regido por el forcejeo ideológico. Los hombres de SEV creyeron que, pese a la dificultad de la tarea, ésta podrá acomodarse. Y ello a condición de unirse, no prescindiendo de su color político, sino desde él, en la búsqueda de un techo común. Este techo no podía ser otro que la autonomía y, hasta tanto ésta llegase, un proyecto cultural amplio y respetado: la SEV".* <sup>183</sup>

Iniziatiba euskal nazionalistena izan zen, Bizkaiko Diputazioko Kultura Batzordetik bideratua eta honoko helburuekin: "reunir a todos los amantes del País Vasco que, asumiendo la restauración de la personalidad del mismo se proponen promover por

---

<sup>183</sup> Ibid. 16-17 or.

*los medios adecuados, la intensificación de la cultura como condición indispensable para la consecución de aquel fin'.<sup>184</sup>*

Arazoa da SEV/EIk euskararen inguruan sekulako aktibitatea eratuaren, Euskaltzaindiaren ama izanarren, eta bere kideen artean gauzatu euskarazko egunkariaren proiektua, ez zuela euskara hutsezko hedabiderik sortu kondizioak paregabeak izanda (gero ikusiko denez). Eta hori oinarrizko kontzeptu politiko baten erantzuna da.

Baina harrigarria izateaz aparte, esplikagarria ere ba da. Izan ere euskal nazionalistek -koiunturak horrela aginduta nahi bada- aranismoaren erakarpenik nagusia den independentzi-gogoa eraldatua zuten,<sup>185</sup> eta agian definitiboki baztertua.

Lorenzo Espinosak Elias Gallastegiri buruz idatzitako liburuan argi berri bat proiektatzen du nazionalismoaren egoeraz, urtealdi hartako (1918-34) politiko "handitasun morala" guttienez ustezkotzat emanez: *"Son los años en que Cambó brama por la autonomía, como medio para evitar eficazmente la independencia. Un recurso que pocos años después va a apadrinar Indalecio Prieto. Y entre los vascos, el PNV aranista, hábilmente transformado en Comunión sotista, se afana en condenar el radicalismo del todo o nada. "Kizkitza" desempolva la conversión española de Sabino Arana; la burguesía nacionalista financia las elecciones, y desde las páginas de Euzkadi hay un bombardeo constante defendiendo la conveniencia del unionismo y los perjuicios de una*

---

<sup>184</sup> Ibid.

<sup>185</sup> Ikusi Estornes Zubizarreta, Idoia, La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931), Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección Historia Geografía, 14 zb. Donostia 1990, 135 or.etab; Aranzadi, "Kizkitza", Engracio, La Nación Vasca, Verdes, Bilbo, 1931, 28 or. etab.

*imprudente independencia"(...) La evolución histórica del capitalismo de origen vasco ha tenido siempre una forma de aceptación del Estado español como marco de su propio desarrollo mercantil. De ese carácter participan lo mismo el gran capital monopolista, o capitalismo originario, que la burguesía nacionalista o de la segunda acumulación, cuya figura más representativa antes de la guerra civil no es otra que Ramón de la Sota y Llano. Ninguna de estas dos formaciones sociales tiene intereses objetivos en el logro de la independencia vasca, por las posibles aunque no seguras restricciones que tal hecho pudiera acarrearles. El grupo nacionalista desde los años de la primera guerra mundial, y finalmente también el españolista, desde la crisis de los años setenta, valoran como mucho una cierta descentralización estatal y un mejor aprovechamiento autónomo de los recursos, en la seguridad de que tal aceptación no perjudica, sino todo lo contrario, a su hegemonía económica. De este modo, un mismo régimen estatutario o autonomista, satisface por igual al capital vasco-español, que al que se considera nacionalista. Y además, la misma fórmula, coincide con la estrategia administrativa del Estado que busca detener la creciente agitación independentista, recurriendo a la fórmula del mal menor"*

*(...) La doctrina autonomista suele ser un complicado sistema de combinaciones y argucias diplomáticas, que juega más con las apariencias que con las voluntades reales. Nunca se entra en ella con sinceridad o con el real compromiso de descubrir todas las bazas en la primera partida. Se considera torpe, ingenuo y suicida a los que traten de llevar honestidad, ilusión o ideales a la mesa negociadora(...) Nunca se explica bien ni en los años treinta ni ahora, el fondo de las intenciones contratantes. Tras las firmas de estatutos de autonomía no estamos nunca al comienzo de una fase, en un peldaño superior de la escalera, sino contra la pared a la que ha conducido esa subida(...) El Estatuto es una ley de punto final y el orden autonómico descansa sobre el compromiso de respetarlo,*

*por ambos lados. (..) Pero una vez firmado el Estatuto y agotada la reivindicación, junto a las comisiones que lo han negociado se disuelven también todas las posibilidades jurídicas de independencia".* <sup>186</sup> \_

#### **6.4.1.2. Hermes**

Halaber, giro horren epelean bakarrik uler daiteke, Eusko Ikaskuntzarena ez izanarren bistan da, Bilboaldean garatu zen *Hermes* (1917-22) aldizkariaren ospea. Areago, egun, sozialista espainolak erreibindikatzen dutela ikusirik.

Honelaxe definitzen du Hermes-ek bere burua: *"Hay quienes se empeñan, cerrando los ojos a la evidencia de los hechos, en atribuirle a HERMES una afiliación, o en suponer que, por lo menos, hay secretamente en nuestra obra una orientación no confesada. Empeño vano. HERMES no es más que lo que en todos sus números repite al pie de la lista de colaboradores: Tribuna de convivencia respetuosa y cordial para la afirmación y defensa de nuestros valores, tradiciones e intereses.(...) Para nosotros no hay más que vascos. No está fuera de nuestro concepto de vasco, sino quien reniegue de serlo. Y no vemos tampoco qué antagonismo puede haber -en el campo que corresponde a una Revista de Cultura-, entre los más ardorosos anhelos de reivindicación de la propia personalidad vasca y los más fuertes vínculos de unión con otras personalidades, venidas históricamente por distintos cauces, a constituirse en la actual España, varia y compleja,*

---

<sup>186</sup> Lorenzo Espinosa, J.M., ob. aip., 68,74, 216-17 or.

*creada por el aluvión de los siglos. HERMES es un ensayo para probar el estado actual de civilidad del País... (y) no hay mayor lección de civilidad, en efecto, que la convivencia de individuos o grupos opuestos para la afirmación de un contenido mínimo -el máximo posible que la asociación consista- en defensa y gloria común-, ni mejor manera de provocar la concreción de una conciencia solidaria que el acicate de que cada contendiente aspire a transmitir sus normas, pues si la sugestión ha de ser eficaz, deberá mostrarse el expositor razonable, agudo, hábil, fuerte. HERMES es escuela de civismo y de solidaridad entre vascos".* <sup>187</sup>

Aldizkari honen zuzendari eta arima, bere buruaz beste egin arte, Jesus de Sarria izan zen. Asko eta asko idatzi da nazionalista berezixamar honi buruz. <sup>188</sup>

Ikuspegi zehatzetan sartu gabe, oso egokiak iruditzen zaizkit Ortziren eritziak: "*Director de la revista Hermes, Sarria identifica nacionalismo vasco con los intereses de sus capitalistas y afirma la ausencia de antagonismo alguno entre Euskadi y España*". <sup>189</sup>

Aipagarria da baita ere Saiz de Valdivielsok *Hermesi* buruz duen eritzia: "*En 1918 y 1919, años cumbre del nacionalismo, Hermes se contagia de ese color y no disimula su filiación bizkaitarra. Hermes cuenta al fin y al cabo con el apoyo financiero de Sota, apoyo*

---

<sup>187</sup> Lo que es HERMES, *Hermes*, 1917, 11 zb., 651-53 or.

<sup>188</sup> Ikus San Sebastian, Koldo, Jesus de Sarria: Nacionalismo y heterodoxia, Alderdi, 1985, 45 eta hur.; Mainer, J. C. Regionalismo, burguesía y cultura. *Revista de Aragón* (1900-1905) y *Hermes* (1917-1922), Guara, Zaragoza, 1982; Saiz Valdivielso, A.C. ob. aip. 154 or. etab.

<sup>189</sup> Letamendia "Ortzi", Francisco, ob. aip. 165 or.

*que se traduce en la publicidad exclusiva de sus empresas. Sarria alcanzado por el sarampión nacionalista publica... (y) esta desviación le hará perder plumas de escritores que rechazan sus tesis. (...) En 1921..Sarria ha vuelto grupas hacia la limpia idea de los primeros tiempos, olvidándose de la política y llevando su revista al terreno cultural y literario químicamente puros".* <sup>190</sup> . Aldizkariak berak onesten du ideia hau: "*Sólo por el camino purísimo de la cultura se llega a lo hondo de la emancipación espiritual*". <sup>191</sup>

Baina besterik erizten dio J.P. Fusik aldizkariaren xedea marraztuz eta ospea nondikoa zen zehaztuz: "*Hermes madrildar pentsalariaren (Ortega y Gasset) proyektu intelektualei lotu baitzitzaien...HERMES Ortegaren argumentapenaren ardatzeko bi ideiareon bat zetorren: intelektualeria masen hezkuntza politikoaz arduratutako minoritatetzat eta bizitza lokala sentimendu erregionalen gainean eraikitako Espainia berri baten oinharritzat (...) HERMES, Ortegaren proposamenen arauera, Euskal Herriaren irudi berriztatzaile bat projektatzen ahalegindu zen: Euskal Herria erregio dinamiko, industrial, urbano eta moderno gisa, inplizituki ukatuz, beraz, Euskal Herri baserri tradizionalismoarekin.(...) Euskal kulturaren interpretapen berri bat ekarri zuen...;euskal nazionalistek finantzatu eta zuzendurik, nazionalismo kultural eklektiko, integratzaile eta ez eskusibista baten projekzioa izan nahi zuen -eta izan zen- euskal idazle eta artista guztien lan eta produkto literario eta artistikoa jatorri baskotzat erreibindikatzan zuen nazionalismo kultural baten projekzioa, artistaren eta beraren obraren mami eta sinifikantza ideologiko eta kulturala alde batetara utzirik".* <sup>192</sup>

---

<sup>190</sup> Sáiz de Valdivielso, Alfonso Carlos, ob. aip., 154 or.

<sup>191</sup> Quinto aniversario, Hermes, 1922, 79 zb, 333-339 or.

<sup>192</sup> Fusi, Juan Pablo. Hitzaurrea, HERMES, berredizioa, Fundación F. Orbeagozo-Ediciones Turner, Bilbo, 1977, zeina bestalde "El País Vasco, Pluralismo y nacionalidad": Alianza, Madrid 1984, 127-147. orrialdetako testuaren euskal itzulpena baino ez den.

Areago: "*Hizkuntzaren arazoa intelektualeria mugimendu nazionalistatik urrundu zuten arrazoiatariko bat izan zen..Espresio tresna gisa gaztelania aukeratzean, euskal intelektualak espainol bizitza intelektualera bete-betea integratzen ziren...Onerako edo txarrerako, beraz, euskal nazionalismoak ez zuen benetako aintzindaritza intelektualik...*".

193

Fusirentzat aipagarriena (eta harrigarriena) errebindikazio hori nazionalistengandik abiatua izatea da. Traza guztien arabera, urritua zutelako beren jatorrizko helburu politikoa. Horren estalkia, berriz, "*denok-bat-eginik*"-aren teoria.

Kondizio horietan, noski, *Hermes*-ek euskarari eskaini zion errespetu guztia poematan amaitzen da hori bait da publikatzen den guztia Kirikiñok eta Altuna Aldasorok idatzitako prosa-zati eskasak salbu. "*HERMESEk ez zuen ia batere artikulurik euskaraz inprimatu, ez zien ia garrantziarik eskaini euskara zuzpeltu nahi zutenen ahalegin literario eta akademikoei eta haren horrialdeetan ez ziren agertu nazionalismoarentzat atsegingarriak ziren gaiak (ez sinadurak ee)...euskal kultura pentsamendu modernoaren tankera sofistikatu eta abanguardistenei lotzea zen, hots, euskal arte eta intelektualiaren modernotasuna azpimarratzea. HERMES ateratzen zutenek, euskaraz mintzatuko zen Bilbo bati, Unamunok bezala, zentzugabekeria bat zeritzoten...HERMESen helburua bizikidetasun errespetutsuzko tribuna...euskaldunen arteko zibismo eta elkartasun eskola*".<sup>194</sup>

---

193 Ibid.

194 Ibid.

Eusko Ikaskuntzara itzuliz uste baino paralelismo gehiago aurkitzen dira *Hermes*-en izpirituan eta Eusko Ikaskuntzaren oinarriko hautuan: Euskal Herria eta Españaren artean ez dago antagonismorik, kontradikzio ahula baizik. *Hermes*-ek espainiartasuna azpimarratzen du, (alde politikoa ustezko kultur-ekintzaz ezkutatuz) eta SEV/EIk euskaltasuna (espreski proiektu politiko autonomistaren barnean, elebiz) baina antagonismoan sakondu gabe. Diktaduraren erasoaren aurrean EIk erakusten duen gaitasuna, itun autonomikoa apurtzeko prest dagoen itunkidearen salaketa baino ez da. EIk erakusten duen "gehi" hori, abertzaletasun euskaldunetik dator.

#### 6.4.1.3. Zeruko Argia eta Argia

Urtealdi oparo haietan, euskararentzat urte aproposak izan ziren haietan, zenbait aldizkari euskaldun kaleratu ziren. Aipatu da lehen *Euskararen Alde* aldizkariaren sekzio euskalduna (*Euskal Esnalea*). Eusko Ikaskuntzak bere boletina euskaraz eman zuen, *Eusko Ikaskuntzaren Deia* (1919-1936). Iparraldeko euskaltzaleek ere beren *Euskaltzaleen Biltzarra* (1911-1936) erabat euskaraz ematen zuten. Euskaltzaindiak berea, *Euskera* alegia, 1919-1936 bitartean, hiru eletan ateratzen zuen (euskara, gaztelera, frantsesera ) euskarak %40 inguru hartzen zuelarik.

Horietatik batek, *Zeruko Argiak*, erlijio gunean hasi eta sei aro desberdinetatik pasa ondoren, izen aldaketa barne, ARGIA bihurtuz, oraindik dirau informazio orokorreko aldizkari ezagunena bihurtuz. 1921. urtean kaleratu zen, berriz, izen bereko astekari donostiarra gurutzadak eraman eta ondoratu zuen beste hainbeste uzta ederren bergisan.

Atal honetan kontenplazten den epean, aldizkari naparra erabat erlijiosoa izan zen; donostiarra, berriz, berriemaile orokorra. Politikatik kanpo egonarren, abertzaletasunak bazuen presentziarik, *Argian* bereziki.

*Zeruko Argia* <sup>195</sup> ez da erlijiosoek kaleratu zuten lehen aldizkaria. Hortxe zegoen, adibidez, *Jaungoiko-Zale* (1912, Bizkaiko apezak Zornotzan), *Irugarrenko Prantziskotarra* (1913, Iruñako kaputxinoak), *Irugarrengoen Irakaslea* (1917, Zarautzko frantziskotarrak), *Jesus'en Biotza'ren Deya* (1917, Bilboko jesuitak), *Fedearen Hedamenerako Urtekaria* (1887tik Baionako apezak egina).

Gaitan eta jokamoldetan erabat erlijiosoa izanik, euskara irakasteak badu indarrrik, baina beti ere azken helburuaren menpe: kristautasuna, gazteen fedea sustatzea. "*Zer nahi luke Zeruko Argiak? Zertarako arituko da?, galdetzen du aldizkariak lehen zenbakian. Lendabizian ilunbeak aienatzeko, urrena Euskalerrria berritzeko ta azkenean euzkeldun guztiak dakartzan on aundiaz poztutzeko*". <sup>196</sup>

Konturatuak ziren kaputxinoak (gorago aipatutako Zornotzako abadeak bezalaxe) euskaldunek ez zutela euskal irakurgairik ta hori ematera etorri zen aldizkaria: "*euskaldunentzat illunbetan daude jakin-gai asko ta auek guztion begi-aurrean nai*

---

<sup>195</sup> Ikus, Garmendia Elixabete, *Zeruko Argiaren Historiaz*, *Zeruko Argia*, 1976-VIII-22; Camino, Iñaki eta Landa, Josu, *Aurki 100 urte beteko dituen Aita Damaso Intza gure aldizkariaren sortzailearekin*, *ARGIA*, 1986-V-18; *ARGIA*: 50 urte lanean eta beste 50etarako sasoian, *dossier*, *ARGIA*, 1987-XI-29; *Euskal Prentsak 100 urte bete ditu*, *ARGIA-Urtekaria* 1987; Iztueta, Paulo, *Euskararen adierazpen soziala gerraondoan, 1937-1984*, in *Askoren Artean, Euskal Herria, Jakin*, Donostia, 1985, 392-403 or.

<sup>196</sup> *Euskaldun guztioi agur*, *Zeruko Argia*, 1919-I-1

*dizkitzute ipiñi edo jarri gure aldizkingiak(...) ontarako ekarriko ditu ipuin edo edestixo polit emankorrek, gertaera gogoragarriak, Misioetako berrixkak, gure erriko elizen eta jazkeren berriak eta beoien iduriak".*<sup>197</sup>

*Zeruko Argiak* politika gaietatik urrun jokatu nahi izan zuen (*Jaungoiko-Zalekoek ez bezala gorago azaldu denez*): "*Gure Zeruko Argia osoro politika gabe iaio zan bezala, beti bizitzea nai degu*".<sup>198</sup> Eta zinez, momenturik nahasienetan ere, nahikoa urrundurik ibili zen gaietatik.

Kontutan hartzekoa da, dena dela, bai Buenabentura Oieregi "Arbelaitz" eta Damaso Intza, fraideak izateaz aparte, Euskal Ikaskuntzako eta Euskaltzaindiako kide ere izan zirela, Nafarroako *Euskeraren Adiskideak* elkartearen suspertzaile hain zuzen, zein kontestu linguistiko- ideologikoan sortu ta aritzen den aldizkaria jakiteko. Baina, gerra arte bederen, euskara erabiltzen zuen aldizkari erlijioso hutsa izan zen. Urteak aurrea, bertan lan egiten zuten kazetariak, Euskal Prentsaren Urtea antolatu zuten eta, nire tesi honen arabera, maila horretan eman zen gertakizunaren bidegile izan.

*Argia* (gerraurreko donostiarra) Gipuzkoan egiten zen aldizkari euskaldun bakarra izan zen sorreran, 1921an. Garaiko euskaldun gipuzkoarrentzat bozeramalerik azkarrena suertatu zen bere asterokotasunean.<sup>199</sup> Ez zen aldizkari erlijiosoa izan, nahiz eta izan zituen sortzaile eta zuzendarien artean apaizak izan ugariak: Bittor Gariaonaindia "Garbi" josulaguna, Joseba Arrue apeza, Jesus Karrera josulaguna, Ramon Intzagarai "Elurmendi"

---

<sup>197</sup> Ibid.

<sup>198</sup> Zeruko Argia, 1923-XI.

<sup>199</sup> Ikus Arzamendi, Arantxa, Gerraurreko Argia asterokoaren azterketa, Jakin, 1988, 49 zb., 123-133 or.

apeza, Antonio Etxeberria "Bostlore" josulaguna, Anizeto Zugasati apeza, eta kolaboratzaile dexente, abadeak izan. Hor ziren besteak beste Gregorio Mujika "Jeme", Ander Arzeluz "Luzear", Ambrosio Zatarain aita etab. luzea. Heldu, berriz, Gipuzkoako biztanletarik % 2'2ra heltzen zen. <sup>200</sup> Datu zehatzagorik ere badago, 1924.ean ARGIAK berak emanikoak: *"Astian 6.000 ARGIA zabaltzen dira: ARGIA bakoitza bost lagunak irakurtzen badute, 30.000 ARGIAZALE gera"*. <sup>201</sup> Eta beste biografo harek esandakoak: *"Zazpi urte baizik etzitun eta 7.000tik gora ateratzen ziran astero Donosti'tik. ¿Ez al da poliki -Garbi'k berak txoratua zion- ez al da poliki? Bai poliki ta atsegingarri; orain zazpi urte ez genuen orrelakorik usten"*. <sup>202</sup>

Arzamendiren eritziz hiru ziren aldizkari honen ezaugarriak: katolikotasuna, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna. Baina, Sabino Aranak zeukan galdera berbera -zein lehenago euskara ala abertzaletasuna- eta erantzun berbera zeukan aldizkariak: *"Abertzaletasuna edo euskaltzaletasuna: Zer lenago? Zer bearrago? Zer ohea? Abertzaletasuna da lenen. Abertzale dena euskaltzale da, bañan euskaltzale dena ez da abertzale. Abertzaleak bi gauza maite ditu osorik, Euskal Erria ta euskera. Euskaltzaleak, euskera maitatzen du, baña biotz apalez egoki datorkiolako...;nik al dakit! "* <sup>203</sup>

*Argiak* euskararen alde egin apustu garbiari gurutzadaren egunetaraino eutsi zion. Honela mintzo da lehen zenbakiko atarian Ramon Inzagarai "Elurmendi" apeza: *"Gure etxe eta atariyetara gatoz: Euskalerrira. Ta Euskalerriak ¿ez aldu euskarazko papertxo bat*

---

<sup>200</sup> Ikus Argia, 1928-V-6., 368 zb.

<sup>201</sup> Argia, 1924-V-4.

<sup>202</sup> Irure'tar, J.M., "Garitaonaindia'tar Bitor jauna. Bere bizitza", Euskal Esnalea, 1930-VI. (egun-datarik gabe)

<sup>203</sup> Argia, 1925-VII-19, 222 zb.

*meretsi? Euskaldun geyenak ziaroko gurtzean gaude gai ontaz. Utsune ori betetzera dator gure lana, ta entzun: gogo barrengo utsuna bete dezaketenak, edo artarako leyatzen diranak, ez dira noski arbuyatu bear, gutxigo berriz, inkuriyopean gaitzetsi. Esan oi da, euskerazko gogo-lanak alperrikakoak dirala, euskera ortarako gai ta zoar ez dalako. Orixe dasakenari, oraintxe alderdi egokia datorkiyoke, gure lantxoak ikusi-ta, bere iritxi makurra ayenatzeko'.<sup>204</sup>*

*Argiak euskaldunek euskara ikas dezaten idazten du: "Irakurtzen eta idazten ikasteko alegin guziak egin bear dira. Ta ez ikas bakarrik: ikasi ta gero, asko irakurri ta asko idatzi".<sup>205</sup>*

Nekazaritzaren aldeko jarrera emana ere aipatu behar da, Arzamendik adierazten dituenaz gain. *Argiaren bildumak ikusirik nekazarien presentzia etengabea dager. Nekazarien artean ikusten bait zuten garaiko eta Argiako abade haiek, euskararekin batera erlijioa txertatzeko alorrik gozoena. Batetik nekazal eskola sortzea proposatu zuten: "Lugintza-irakaspideak, nekazari-eskolak bear bearreko zaizkigu bada; eta ori, umearen lenengo garaian erakutsiaz(...) Bañan ikaskizun oyetarako lugintza-gaiak erakusteko, irakaspide bat bear degu, euskarako ikasbidea, Nekazaritza gaiaz egindako liburutxo bat...".<sup>206</sup> Eta bestetik, langile euskaldunen sindikatoa sortzeko bultzadan ibili zen Argia: "Ez da zer esanik sinismendun langilleak bere aidekuekin bat egin bear duala, bere langilletasun ta eskubideak aldentuzeko; bai ta ere euskaldun langilleak ere, alkarrekin*

---

<sup>204</sup> Elurmendi, Agur, 1921-IV-24, 1 zb.

<sup>205</sup> Argia, 1924-IV-20.

<sup>206</sup> Argia, 1926-VIII-8.

*bildu bearra dute*",<sup>207</sup> gero, Errepublika garaian, mamituko den ideia, Eusko Nekazarien Bazkuna, Eusko Langileen Alkartasunatik arras gertu, sortzen denean.

Azkenik, euskara eta erlijioa estu-estuki lotzea zuen helburu: *"Euskera galtzen dan erriyan, Erlijioak ere bide bera jarraitzen du. Onek esan nai du: euskera maitatzea erlijioa ere maitatzea dala"*.<sup>208</sup>

*Zeruko Argiak* berak kide donostiarra (*Argia*) politikatik at jartzen du, bere burua bezalaxe, eta irakurgaiak eskaintzera mugatzen du honen xedea: *"Euskalerriko semeak, batez ere baserritarrak, ez dute beste errietakoak bezala, bear-bearreko gauza asko ikasteko biderik: ta ez dute ematen etzayelako...:baña erderaz, ta Euskalerriko seme askok ez dute euskera baizik, beraz, bear-bearreko jakintzak ezagutzeko aukera gabe arkitzen dira. Badira euskerazkoak ere: gutxi ordea, ta onak izan arren euskaldunen gogoia betetzeko aiña ez direnak. Oarturik bada, usgune au betebearrian arkitzen gerala, guzia euskaraz idatziko dan asteroko izparringi edo periodiko bat zabaltzeko asmoa artu da. Asteroko au, Eliza'ren lege-bidez ta Gotzaia'ren agindu-arauz azalduko da. Politika'ko auzietan ez du izango eraspenik, eta beraz, ez da ezertxo ere sartuko bere arazoetan. Asteroko onen eginkizun ta arazoak izango dira, euskaldunen artian erakuspen Elizkoiak, ta gizarteko-gai ta jakintza onuragarriak zabaltzea: erabatez inguru guzietako berri-emanaz"*.<sup>209</sup>

Baina, ezin esan *Argia* politikatik at egon zenik. Ez bederen Diktadura ondoan. Areago, Bizkaiko abadeengandik sorturiko *Ekin* hark egin zuen bezalaxe, Donostiako

---

<sup>207</sup> *Argia*, 1921,VII-10.

<sup>208</sup> *Argia*, 1921-VI-5.

<sup>209</sup> *Zeruko Argia*,1921-I.

apezek ere Diktadura pasa eta Errepublika garaian, abertzale egiten da bete-betean, edo behintzat abertzaleen alde jotzen du, abertzale jelkideena esan nahi da, jakina.

Hasera batean bazirudien halako eskubide orokorreko jarrera zuela, *Argiak*, Euskal Herriaren aldeko jarera zehaztua: *"ARGIA'k ez du bere bizi guzian politika-izpirik aitatu. Ez du aitatu ere. Baña olakoetan, Euskal Herriaren eskubideei ikuttu txikiren bat norbaitek egin nai diolako, iskanbillarik sortzen bada, ARGIA sutan ta bizi jarriko da Euskal Herriaren alde"*.<sup>210</sup>

Neutrotasun ondo irabaziaren harrotasuna era ba du *Argiak*: *"Argi asko esan genuen inolako politikarik aitatu ere ez genuela egingo, eta asmo ortan gogor geunden eta gogor gaude"*.<sup>211</sup>

Baina Errepublika garaitua, Diktadura problema handirik gabe pasa ondoren, urte arrakastatsuak izanik gainera, *Argia* definitu egiten da Errepublika garaian. Errepublikaren kontra eta eusko abertzaleen alde, hain zuzen Estatutoaren alde nabarmen jarririk: *"LENENGO, Euskal erria BEREZITZEN dualako beste erri guztietatik. Beraz, Euskal Herri Euzkadi da, ta beste inor izaterik ez dauka. BIGARREN, eusko-batasunerako bidea dakarrelako beronek. IRUGARREN, Euskal Herria bere buruaren jabe egiten dualako"*.<sup>212</sup>

De la Granja, UPVko historia katedradunak, "prensa campesina" sailean klasifikatzen du.<sup>213</sup> Askoz ere gehiago (prentsa erlijiosoa baino dexente gehiago ere bai)

---

<sup>210</sup> Argia, 1921-XI-13.

<sup>211</sup> Argia, 1922-V-7.

<sup>212</sup> Argia, 1931-VI-21.

<sup>213</sup> Ikus Dela Granja, J.L., ob. aip. 673-675 or.

izan zena aitortu beharrik ez dago. Gipuzkoako baserritarrentzat bereziki zuzendua izateak, euskaldunentzat zuzendua izateak baino ez bait du esan nahi urte haiei begira.

### **6.5. Diktaduratik Gurutzadaraino**

Bi epealdi bereiztuko ditut hemen: Primo de Riveraren diktadura urteak batetik; II. Errepublikaren urteak bestetik.

#### **6.5.1. P. de Riveraren hatzaparretan: Euskaltzaleak**

Primo de Riveraren diktadurapean arras ahuldu zen euskalgintza. Epealdi politikoan sartu gabe, Ortziaren aipamen bat interesatzen zait bereziki: *"En su posición ante el nacionalismo vasco, Primo de Rivera distingue claramente entre la Comución y el Partido Nacionalista Vasco (línea Aberri). Las actividades de la Comución Nacionalista fueron toleradas. El Partido Nacionalista en cambio es objeto de represión. El diario Aberri es suspendido a la llegada de la dictadura... La actuación tolerada, y sólo en lengua castellana, de la Comución Nacionalista y de la sindical vasca lleva una vida mortecina(...) El vasquismo se refugia en el área cultural".* <sup>214</sup>

---

<sup>214</sup> Ortzi, ob.aip.171 or.

Euskararekiko jarrera debekatzaila ez zen erabatekoa izan, noski, *Zeruko Argia* eta *Argia*, adibidez, bere bidean jardun ziren. Debekua indar politikoezikoa izan zen batez ere. *Euzkadi*-ren kasuan, adibidez, 1923-IX-12tik 1926-VIII-21ra desagertu egiten dira euskal atalak. Kirikiñok, adibidez, debekua publikoki baieztatu du Ojanguren batek euskal atalak birregiteko eskatzen diolarik.<sup>215</sup>

Gauza bera suertatzen da *La Voz de Navarra* egunkarian non Fermin Irigarai "Larreko", "Basoko" eta Jose Agerre "Gurbindo" euskararen alde ari ziren astean behin "Euskal Gaiak" sailean euskaraz eta "Pro-euskera" sailean erdaraz. 1930tik aurrera astean hiruzpalau zati agertzen dira Manezaundi, Irular, Irurlagun, Larreko eta Agerrereren eskutik.

216

*Eusko Ikaskuntzak* Primo de Riveraren diktadurari aurre ta eraso egin ziola gauza finkatua da historiografian. Kultura mailan politikoki egin ziona interesatzen da lerrootan. *Eusko Ikaskuntzak*, bere lan guztiak, ikuspegi politiko batean kokatzen zituen: autonomismoan. Estornes Zubizarreta anderearen ikerkuntz-ondorioak begiratu hauxe dakus: "*La SEV surge en 1918 merced al apoyo mayoritario de todas las fuerzas autonomistas del país en movimiento desde 1917(...) Pretende -y llega a ser- una entidad unitaria de los vascos de Francia y España, suprapartidista, aunque, en absoluto, apolítica, restauracionista de la personalidad del País Vasco(...) Su vida no será el plácido discurrir propio de una Sociedad cultural separada de su entorno sino que, bien al contrario, tendrá sus miras atentamente situadas sobre el devenir político (...) En su equipo directivo predomina, durante la dictadura, una mayoría vasquista, sin adscripción*

---

<sup>215</sup> Ikus, *Euzkadi*, 1925-V-22 eta 1925-VI-17.

<sup>216</sup> Ikus Zabaleta, Patxi, Jose Agerrereren omenez, *Euskera*, XXXV zb., 1991-I, 105-113 or.

*patente, coexistente, en los años 30-36, con un número, cada vez mayor, de elementos nacionalistas, acorde al incremento del caudal social y al cambio de coloración del electorado, en especial guipuzcoano*".<sup>217</sup>

Ikerketan bertan, beste hauxe dio bere ezaugarri politikoa azpimarratuz: "*Pero, tal vez, la actuación que más popularidad y prestigio otorga a la sociedad, en toda su historia, fuera la preparación y redacción de un texto autonómico o anteproyecto, que pasará a los fastos de la historiografía vasca como Estatuto de Estella*".<sup>218</sup>

Eta zehatzago oraindik: "*Los problemas públicos acaban por absorber una sociedad que, habiendo nacido con un evidente destino público, quiso abarcar también dominios especulativos y eruditos pero, impulsada por la base, tiene que volcar su interés hacia las necesidades juzgadas más imperiosas por su pueblo*".<sup>219</sup>

Edonola ere garbi dago Eusko Ikaskuntza-ren garrantzia kulturgintzan ez zela nolana hikoia izan: "*durante 18 años (1918-1936) La Sociedad de Estudios Vascos canaliza la inquietud cultural de un pueblo*".<sup>220</sup>

*Eusko Ikaskuntzaren kulturazko fruiturik aberatsena Euskeltzaleak elkartea izan zen 1926an sortua euskararen aldeko ekimena bultzatzeko. "La SEV irá, durante estos años, a remolque de las organizaciones culturales populares que se crean casi espontáneamente, apolíticos en la forma, nucléolos de resistencia cultural a la dictadura, en el fondo. Son éstos los que llevan la iniciativa y la enrolan, ya sea mediante*

---

<sup>217</sup> Estornés Zubizarreta, Idoia, ob. aip., 245,46 or.

<sup>218</sup> Ibid. 28 or.

<sup>219</sup> Ibid. 103 or.

<sup>220</sup> Ibid.

*colaboración concreta o establecimiento de galardones, como el Premio Garteiz instituido en 1926 por la SEV para los concursos de estas entidades, de esa forma y en especial a través de los preparativos y celebraciones del 'Día del Euskera' las gentes maduras de la SEV entran en contacto estrecho con una nueva generación cuyas figuras más representativas -Ariztimuño, Lizardi etc.- se distinguen por un marcado carácter nacionalista".* <sup>221</sup>

*"A partir de 1927, segitzen du Estornes Zubizarretak, la irrupción de esta nueva corriente comienza a concretarse en una aspiración unitarista y disconforme con la marcha de la SEV en lo referente a promoción de la lengua vasca. Impaciencia y juventud coinciden con el desgaste de una dictadura más teatral que efectiva. Impaciencia que reprocha a la SEV su preferencia por lo académico y la semiparálisis de la acción euskerista, tanto en lo referente a la publicación de libros de texto como a las diversas iniciativas del campo docente".* <sup>222</sup>

Presio horren ondorioz <sup>223</sup> 1928-VII-1ean FAPE (Euskal Elkarte Bazpatza antolatzen da, bertan bilduz euskararen aldeko elkarteok: *Euzkaltzaleen Biltzarra, Euskal Esnalea, Jaungoiko Zale, Euskararen Adiskideak, Euskaltzaleak* eta *Baraibar*, EI-k finantziatua. Horren arabera, FAPA/EEB izango da aurrerantzean "*responsable y motor de la difusión y restauración del euskera en el País Vasco*". <sup>224</sup>

---

<sup>221</sup> Ibid. 180 or.

<sup>222</sup> Ibid. 181 or.

<sup>223</sup> Ikus Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos (BSEV) 1927, 35 zb., 34 or.; 36 zb., 13-19 or.; 1928, 39 zb., 12 or.; 1929, 42 zb., 12-2 or.

<sup>224</sup> Estornés Zubizarreta, I., *ibid.* 181 or.

Etena igertzen da baina ez da Diktaduragatik eta berarekiko soilik gertatzen, barne-taldeko etena ere gertatzen bait da. Euskal Ikaskuntzako *elementurik egituratu*enek porrotera kondenatzen dute, geroxeago ikusiko denez, euskaltzale gazteen proiekturik kuttunena: euskal egunkaria.

*"Pero no sólo va a tratar de recuperar el terreno perdido, azpimarratzen du Estornes Zubizarretak, sino que su acción -columnas euskéricas en los periódicos y revistas, fiestas locales, distribución de libros, Días del Euskera-, significan una ruptura con la aceptación resignada, ruptura que en 1930 va acompañada de un auténtico empujón a Eusko Ikaskuntza para obligarla a acelerar el paso".* <sup>225</sup>

Elkarte hau, baina bereziki *Euskaltzaleak*, garaiko eragile nagusia bihurtzen da, berebiziko aktibitatea sortuz. *"A veces a regañadientes, otras complacidos, ceden locales, asistencia técnica y económica, patrocinan la obra impetuosa de estos grupos jóvenes capitaneados por Euskaltzaleak que, en 1930 habían pedido, (Miguel de Urreta, Andrés Arzelus, Antonio Labayen, Ricardo de Leizaola, Antonio de Orueta, Jose Ariztimuño, R. de Berraondo, Dionisio de Azkue, Silberio de Zabala, Isaac López Menizabal, Doroteo Ziaurriz, Pepe Eizagirre, Fermin Garbaio, al margen de la FAPE, "ligarse íntimamente a ella (la SEV) sin que por esto perdiera, cada una, su vida y estructura propias"*. <sup>226</sup>

Bonifazio Etxegarai, artean Euskal Ikaskuntzako presidenteak, oso gogor kritikatu zituen *Euskaltzaleak*-eko gazte gartsu haiek: *"hay ciertas impaciencias comprometedoras y contraproducentes. Lo que más me molesta es que se quejen de pasividad, según ellos, de*

---

<sup>225</sup> Ibid. 186 or.

<sup>226</sup> Ibid.

*El, los mismos que, a todo trance y con apremio, solicitan su ayuda".* <sup>227</sup> Dena dela elkarte batu horrek Euskal Herrian zehar egindako lanari esker, Diktadura jausterakoan, euskara eta euskal kultura zabaltzeko, eta autonomia politikoa esijitzeko, sare trinkoa ehunda zeukan.

Zergatik ez zen mamitu Lizardi eta bere lagunek gauzatutako euskal egunkariaren proiektua? Nire ustez, eta beherago frogatzen denez, elebitasuna nagusi zelako *Eusko Ikaskuntzaren* buru-bihotzetan, orduko kulturzaleen artean eta garaiko politikagintzan. Horren eredu Bonifazio Etxegarai eta Jose Ariztimuño "*Aitzol*".

1928-1930 urteetan egunkaria ez egiteko botatako eritziak 1980. hamarkadan botatako berberak dira: diru eskasia, irakurle falta, euskaldunon ajolagabekeria, kazetari urritasuna. Zuzenak hein handi batean, baina erabakitasuna eta apustua ez zegoenez, ezina bilakatu zen proiektua 1990ean ez bezala. Irakurlegoa bazegoen (*Argia* astekari donostiarra lekuko); euskararen aldeko mugimendua eta griña ez zen falta (*Euskaltzaleak*); dirua ere bai (*El Día* testigu). Beherago saiatuko naiz puntu hau frogatzen.

## 6.52. Diktaduraondotik, II. Errepublikaren barrena

---

<sup>227</sup> ASEV, eskutitz sorta, Estornes Zubizarretak aipatua, Arrasateko Euskera Egunean, 1927-IX-3, diru eta babes eske joan bait zitzaizkien Arzelus, Lizardi eta Bengoa Eusko Ikaskuntzara. Ibid., 186 or.

Bilboko *Euzkaltzale Bazkunak*, Diktaduraren azken urteetan, (Primok 1930-I-29an dimititu zuen) elebiko "*Euzkerea*" (1929-36) hilabetekaria argitaratzen du *gurutzadaraino* ailegatuko dena. "*Euzko gaztediarena zen batez ere*" dio Xanti Onaindiak <sup>228</sup> PNV eta Comución artean halako hurbilpen bat dago eta egia esan bertan denetariko idazleak ageri dira: Ebaista Bustinza "Kirikiño", Zabala-Arana, K. Jemein "Amandarro", Estepan Urkiaga "Lauaxeta", Manu Egileor "Ikasle", Imanol Enbeita "Ibon Uribitarte", Gotzon Urrutia "Mibibus" etab.

Elebikoa izanik proportiotara jo behar da. Nire azterketaren arabera 1929-34ra bitartean % 44,39a da; eta 1934-36 bitartean, % 25a.

Giro oso jorian sortu zen *Euzkerea*: "*Nunca mayor número de inteligencias rindieron pleitesía a la belleza de este idioma singular, a la sabiduría de su estructura maravillosa*". <sup>229</sup> Baina ez da euskal aldizkaria: "*Euzkerea, hará labor euzkeralógica en euzkera y castellano; hará labor euzkerográfica literaria intensa, escogida con el esmero mayor*".<sup>230</sup> Aldizkari elebiduna da.

Jende honek argi dauka euskara, berez, hil egiten dela. "*El euzkera por el euzkera se muere. Quien no esté compenetrado con la necesidad de salvarlo, nada eficaz hará por*

---

<sup>228</sup> Ikus Onaindia, Santiago, Euskal Literatura, V. lib. Etor, Bilbo, 1976, 152 or.

<sup>229</sup> "Ikasle", Agur, *Euzkerea*, 1929-I-15

<sup>230</sup> Ibid.

*él.. Si queremos hacer del euzkera instrumento apto para las realidades modernas, tenemos que elevarlo al nivel cultural de las lenguas que le rodean.. El remedio debe administrarlo la ciudad reeuzkerizada".* <sup>231</sup> Arazo hau, baina, erabat politikoa da *Euzkerea* egiten dutenentzat: "*Euzkadi euzkalduntzeko bide bat dago: danok abertzaletutia*". <sup>232</sup>

*Euzkerea* oso interesaturik egon zen Eusko Ikaskuntzatik *Lizardik* eta *Euskerazaleak* elkarteko bere lagunek bultzatzen zuten euskal egunkariaren proiektuarekin. Zailtasunak zailtasun ("*Euzkel-egunerokua gauza ederra ta onuratsuba ixango litzatekelea, eztau iñok ukatuko. Beraz, asmo ori aurrera eruateko erabagija artu dabenei, geure laguntza eztautsegu ukatuko(...) baina...oindiño beintzat, euzkel-egunerokua zutik eukitteko gertu ezkagozala-ta gagoz...ia lau-bost urte-barru geure euzkel egunerokua ataraten dogun*") <sup>233</sup> nahiago izan zuen aldizkaria egitea: "*..en vista del éxito de colaboración que hemos obtenido estamos estudiando la publicación de un semanario exclusivamente euzkérico. Únicamente diremos hoy que es nuestro propósito hacer un semanario de noticias y correspondencia de los pueblos, en euzkera sencillo y asequible*". <sup>234</sup>

Pare bat urte geroago, *Lizardiren* proiektu euskalduna gaitzetsia, *El Día* elebidunaren truke, *Euzkerek* berean segitu zuen, elebikoan: "*Euzkerea*'k euzkeldun utza ta euzkotar jator-jatorra dan arren, erderaz be egitten dau, eta ederto ein be! euzkerarik

---

<sup>231</sup> Legia de J. J., El euzkera y la ciudad, *Euzkerea*, 1929-IX-15

<sup>232</sup> E'tar I., Euzkadi euzkalduntzeko bidea, *Euzkerea*, 1929-X-15. Ikus berdin, B. de G., Cultura y patriotismo, *Euzkerea*, 1930-X-15 eta Zuzatarra, Euzkotar oro euzkeldun, (ibid.)\_ "*Abertzaletasun-bako jakintza edo kulturaz eztogu euzkerarik gaizkatuko*".

<sup>233</sup> Jemein, K, "Amandarro", *Euzkel egunerokua*, 1929-V-15

<sup>234</sup> Nuestros proyectos, *Euzkerea*, 1929-IV-15

*eztakijen euzkotar errukarijari, bere euzko-gogo gorijareen berotaua eruatiarren".* <sup>235</sup>  
Gorago aipatu euskarazko aldizkaria, *Euzko* (1932) izan zen.

Garai honetan bertan, Comución-PNV arteko bateratze-prozesuaz beste, (Jose Antonio Agirre Lekube, Telesforo Monzon Olaso, Jesus María Leizaola eta Manuel Irujo dira garaiko buruzagirik ospetsuenak) urradura berri bat ematen da nazionalisten baitan, ANV 1930ko azaroan sortzen baita, Eli Gallastegiren kalbarioa ahantzi barik partidua independentziaz aldendu ez dadin. "*...puede hablarse, dio Francisco Letamendia Ortiz, de una nueva línea nacionalista...; sin renunciar en teoría a la independencia vasca, adopta en la práctica una actitud gradualista..."*. <sup>236</sup>

Euskarazko prentsaren geroa ere gradualismo edo mailakatzean jarria dago, betidanik eta orduz geroztik.

Urradura honen ondoren *ortodoxia aranistan segitzen dutenek* bere prentsa propioa ateratzen dute: *Jagi-Jagi* (Eli Gallastegi "Gudari", Manu de la Sota "Tsanka", Anjel Agirretxe, Kandido Arregi), "*Patria Libre*" (Trifón Etxebarria "Etarte"), *Mendigoxale* (Luis Arana, Gudari, Kondaño, Ogoñope, Pedro Basaldua), "*Tierra Vasca*" (Jose Olivares "Tellagorri", Telesforo Uribe-Etxebarria, Luis Urrangoetxea, Anakleto Ortueta, Basterra anaiak, Ramon Maruri, Inazio Arana, Julian Arrien etab).

Euskararen arloan, baina, ez zuten aportazio berezirik egin nazionalista-komunionistak aurretiaz erakutsitakoaren aldean. Kolumna bana lehen orrialdean eta zati

---

<sup>235</sup> Uribitarte'tar Ibon, Euzkerea irugarren urtian gaur sartzen da, Euzkerea, 1931-I-15.

<sup>236</sup> Orzi, ob. aip. 174-77 or.

solteren bat da dena. Gar patriotikoak ez du, izan, antza, prentsan euskararen alde garbi agertzeko adina surik.

1932ko *Jagi-Jagin*, adibidez, hauxe irakurtzen da lehen zenbakian: "*Euzkerea!, JAGI, euzkerea zabaldu biar dozu. Euzkeraz itz-egiten dakijanari, txarto nai ondo, euzkeraz beti eragin biar dautsazu. Eztakijanai, ostera, irakatsi. Euzkera eztakijan euzkotarra, ba, lumatu bako txori-kumiaren antzekua da. Jantzi bako gixona, edo iñoren janzkiz estalatzene den soña. Euzkerea, ikaseko gaxa dala esango dautzube. Zuk, baña, JAGI-JAGI, orai diñotzubanari, alpertzar batzuk dirala erantzun (...) ura dauenentzat eztago gauza gatzik*".<sup>237</sup>

Baina, beste hau ere bai, betiko "bat-bestearen-atzean": "*Para mí, la elección no es dudosa: patriotismo, aun expresándolo en erdera. El euzkera tiene que ser salvado por patriotismo; jamás el euskera podrá ganar el terreno perdido sólo por ser euzkera(...) Sed antes patriotas que euzkeldunes. Que si la conciencia nacional arraiga con fuerza en estas tierras asoladas por el exotismo, la resurrección, la rehabilitación del euzkera será también la consecuencia lógica*".<sup>238</sup>

*Tierra Vasca*-ren kasuan ez zen besteetan baino euskara gehiago erabili. "*Tierra Vasca representaba la opinión más oxigenada y liberal del nacionalismo. Hostigó a los comunionistas de Euzkadi y desató las iras del Yagi.*".<sup>239</sup>

---

<sup>237</sup> Astekua, Jagi-Jagi, 1932-IX-17.

<sup>238</sup> Patriotismo erdeldun, Jagi-Jagi, 1933-X-7.

<sup>239</sup> Ikus Valdivielso, ob. aip., 316-17 or.

Euskararen eta euskaldunon jatorriaren inguruan eritzi guztiz iraultzailea zuen garairako, halere: *"Maketo itza aldendu gendun betiko kampoco (sic) erdalduna nai emekua anaitzat arrtzen doguz eta nayago dogu Rodriguez euskalduna Etxebarria errdelduna baño, guretzako eztago beste euskaldunik euskera dakiena baño, onek dauke euskel gogua ta besteak erdel gogua(...)Gogo au euskal gogoa da gure zuztarra ez edestia ez enda edo erraza euskera da azkatasuneratik aberrtzaletasunen uneko larogetaemeretzi, eztoгу ezautzen prantzera bako prantzerik".*<sup>240</sup>

Euskararen kuantifikazioa, baina, *Euzkadi*-rena baino exkaxagoa da *Tierra Vascaren* orrialdeetan 1930ko lehen sei hilabeteetan 1'80 kolumna dakar bataz beste, eta urte amaierarako kolumna bana bakarrik. 1934-35ean, berriz, kolumna erdia. 1936ean, Abendutik bederen, 3 kolumna biltzen du (*Tierra Vascak* guztira 48 kolumna ditu) EGUN ON sekzioan eta 1937an, askoz ere irregularrago Ekainaren 15ean ixildu zuten arte.

*Tierra Vascaren* kasua ez da euskararen arazoa garbi ez duenik, prentsan apustu propioa egin ez duela baizik. *"Aberria azkatuta nai degu bai, baina bai euzkalduna ere"*, dio 1937-III-6an. Eta *"Atxosteko Jentilla"* horrela mintzo da *Tierra Vascan* agertzen den euskara urriagatik kexu: *"Alde onetan errudunak gara, arrgi agertu bearr dogu, ez daula erakusten gure alderdiak bere aberrtzaletasuna ba euskera aldenduten daunak ezin leike erakutsi aberrtzaletasunik. (...) Euskera da Euskalerria'ren gogoa; bera barik ez da izango*

---

<sup>240</sup> Gure Asmoak, Jagi Jagi, 1933-I-10

*iñoiz bere eusko-aberria naiz berenganduta ba dauko be azkatasuna naiz buruyaubetasuna. Beti izango da errdal erria erdaldun gogoz. (...) Beti gagoz entzuen aberrzaletasunak egingo dau au ta bestea euskera aldez baña dana guzurra ze eunetik bost egiten ba dau egin bearr leukez larogeta-amar da orregatik ez dago aberrtzalerik guzurra baño. Euskaldun aberrtzaleak ezin leike bere aberrtzaleasuna erakutsi euskeraz baño, da errderazko elerti edo literatura zaletasunak euskeraz erakutsi bearr dozuez" .<sup>241</sup>*

Euskararen aldeko apustua -abertzaletasun organizatutik- EGUNA izan zen. Baina horrek besterik erakusten du, hots, arazo erabakiorra ez zela/dela irakurleagoaren eskasia, alfabetatuen multzo urria, erabaki-eza baizik.

### **6.5.3. Lizardiren saio hura!**

Lizardi, zarauztar idazle euskaldunberriaren bizikizuna preziatua da, zinez, kondizio objektibo onak (gutziz aldekoak) nahikoak ez direla zerbait mamitzeko aditzera emateko. Izan ere, bere garaian, euskarazko egunkariaren aldeko indar guztiak bildu ondoren, ezetzean eta porrot borobilean jausten da proiektua. Beraren ordezt, "El Día" egunkari nazionalista sortzen du Aitzolek Donostian. Euskarari ere txoko eginez, elebikoa esatearren. Euskara bakarra edo elebidunaren arteko lehian, azken honek irabazi zuen. Aldeko apusturik egin ez zelako, jakina.

---

<sup>241</sup> Euskara bearra, Tierra Vasca, 1933-VI-14, 134 zb.

Bi ataletan ematen da Lizardiren ahalegina. 1927-29 bitartean Lizardiren ilusioa piztu eta hedatu egiten da; 1930ean polemika garratz baten ondoren porrotean amaitzen du ilusio hark.

Lizardiren garaian belaunaldi haren gidaria *Aitzol* da eta ez beste inor. Aitzolek plangintza oso bat zuen herria euskalduntzeko, kultur plangintza bat. Plangintza horretan eskola eta administrazioa euskalduntzea dira ardatzak, nahiz eta euskararen malgutasuna lortzeko literatur produkzioa eta euskarazko prentsa idatziak ere bere garrantzia ukan.<sup>242</sup>

1926. aldera izan zen Aitzolen plangintza martxan jartzeko aukera. Urte horretan sortzen da *Euskaltzaleak* elkartearen Arrasaten Eusko Ikaskuntzaren III Kongresuan eta gogotik heltzen dio lanari Lizardik, *Eusko Ikaskuntzarekin batera*. Plangintza horretako giltza *elebitasuna* izan zen. Euskara hutsezko edozeren aldeko apustua egiteko trabarik nagusia ere bai, finean.

Euskararen aldeko kanpaina egin beharrak eraman zuen Lizardi prentsan idaztera. *"Giza sentimenduetan heriotzak hunkitu bazuen gehienik, gizartearekiko sentimenduetan euskararen zoriak kezkatzen zuen erabat"*, dio Otaegik<sup>243</sup>

Arazo praktiko batek bultzatu zuen, beraz, Lizardi euskaraz prentsan arduratzera. *"Arrasateko izpirituaren oinordekotzat jo dezakegu, beraz Lizardi lehen ihardun honetan,*

---

<sup>242</sup> Otaegi, Lurdes, Hitzaurrea, Lizardi(ren) Kazetari-lanak, Erein, Donostia, 1987, 20 or.

<sup>243</sup> Ibid. 30 or.

dio Otaegik, *euskararen aldeko ekintzen suspertzaile, antolatzaile eta bozeramaile lanetan hanka eta buru sartua*".<sup>244</sup>

### 6.5.3.1. Prentsa bai baina eskola lehenago

Garaiko debatea hauxe da: euskara benetan indartzeko, nondik hasi. Zenbait hamarkada lehenago ere debate berdina zuten.<sup>245</sup> *Aldizkingiak* bultzatzea zela egokiena zioten batzu; eskola, hezketa, bestetzu. Lizardik badu bere lehenatasun-asmorik: *"Diodan asmora gurasoak makur ditezten berriz, ni ez nintzateke aldizkingietatik asiko"*,<sup>246</sup> Egitea ez delako aski. Irakurri egin behar dira. Halere, praktikoa Lizardi, bietan saiatzearen alde agertzen da, hots eskolan ta prentsan *"bion asmoetatik zein ohea dan erabakitzea baño, badago zer ederragorik: biak egitea"*.<sup>247</sup>

Hau Ander Arzeluz "Luzear"i<sup>248</sup> emandako erantzuna da, biok prentsaren aldekoak izaki. Arriolari berriz, hau ere prentsaren aldekoa<sup>249</sup> honela adierazten dio ideia berbera: *"La escuela es el huevo fecundado que lleva en potencia una futura gallina; y la prensa es, por sí sola y en nuestro caso, ¿osaré decirlo? una gallina no ponedora (...) Yo creo que es*

---

<sup>244</sup> Ibid. 41or.

<sup>245</sup> Ikus besteak beste, Kirikiño, Euzkadi, 1905-X- 382-85 or; Jel-Alde, Euzkadi, 1912-IV-VI, 274-281 or.; Ormetse'tar, P.A., Euskal Esnalea, 1917-IV-15.

<sup>246</sup> Euzkadi, 1927-X-18.

<sup>247</sup> Ibid.

<sup>248</sup> Ikus Euzkadi, 1927-X-8.

<sup>249</sup> Ikus Euzkadi, 1927-X-,14,15.

*una consideración demasiado especulativa y abstracta del caso lo que lleva a Arriola a hablarnos de la prioridad de la prensa (...) Tomadas en su origen, la prensa es, en empresas como el renacer vasco, si no por necesidad intrínseca, sí por exigencia circunstancial en el orden del tiempo, lo primero; para remover y despertar los espíritus, para crear un estado de opinión".* <sup>250</sup>

Hori esanda, baina, konstatazio historiko hau: *"que dando lo suyo a aquella prioridad inicial de la prensa, prensa es lo que hasta la fecha hemos hecho y no escuela (baina) a pesar de la relativamente larga existencia y acción de prensa nuestra, la mancha de color euskérico en el mapa vasco va contrayéndose con más prisa que lo hiciera nunca".* <sup>251</sup>

Ez du aurkitzen Lizardik prentsa lehentasunaren zerrendaburuan jartzeko arrazoi nagusirik. Beraz prentsa utzi barik, eskolaren nagusitasunaren alde jartzen da. Engrazio Aranzadi "Kizkitza" berarekin dago une honetan. <sup>252</sup>

Jarrera honek mindura eraman zuen zenbaitengana, batez ere Arrasate eta Zumarragako kongresuetan (Eusko Ikaskuntza, 1927eko Urrian) *"Euskal Elazkona"* edo *euskal prentsa onaren* alde jarri zirenengan.<sup>253</sup> Lizardi, baina, ez dago prentsaren kontra. Horren garrantziaz jabeturik ere, eskolari erizten dio garrantzizkoen. Aitzolek bezalaxe. <sup>254</sup>

---

<sup>250</sup> Euzkadi, 1927-X-21.

<sup>251</sup> Ibid.

<sup>252</sup> Ikus Euzkadi, 1927-X-16.

<sup>253</sup> Ikus, Euzkadi 1927-X-12, 14, 19, 20, 22, 25, non Ander Arzelus "Luzear", Nikolas Oramaetxea "Orixe"ren arteko ika-mikak, "Lizardi"ren eritziak tarteko, nabari agertzen diren.

<sup>254</sup> Euzkadi, 1927-XI-1.

### 6.5.3.2 Eskola galazota, prentsa nahiago

Lurdes Otaegiren eritziz, agintariek euskara galazota zutela eskoletan ikusirik, Lizardik bere ahalegin guztiak jartzen ditu euskarazko prentsa bultzatzen, are gehiago Euskal Egunkaria antolatzen. 1929. urte amaiera aldera da hau.<sup>255</sup>

Lehenagotik piztua zen, ordea, kezka. *Kirikiño* idazleak idazteari uzteko garaian, omenaldi gisa, bere merituen aldeko saria antolatzen hasi zenetik alegia esango nuke nik. Sari horrek euskarazko prentsa prestigioz bete dezakeela uste du: "...*la vida robusta de esa Prensa vasca con la que a ratos nos permitimos soñar*".<sup>256</sup>

Edota beste pasarte honetan: "*La cuestión adquiere un relieve para nosotros especialísimo si la relacionamos con la prensa euskérica, con la actual, desde luego; pero aún más con la futura*".<sup>257</sup>.

Azken artikulua honetan bertan adierazten du: "*a no ser que Dios no desee la pervivencia de ese pueblo singular) hemos de suponer que dentro de unos años, cuanto menos mejor, verá la luz el primer diario compuesto en la lengua que más siglos ha vivido quizá de todos los humanos*".<sup>258</sup>

---

255 Otaegi, Lurdes, ob. aip., 165 or.

256 Euzkadi, 1928-X-11.

257 Euzkadi, 1928-X-12.

258 Ibid.

1929. urte hasieran Ebaista Bustinza "Kirikiño" zendurik, honoko erreferentzi hau egiten dio Lizardik "Euzkerea" aldizkarian: "Kirikiñoren lankera gogoratua, ezpainetara auxe datorrigu: "Euzkel-egunerokoa ba'geneuka!.. Guztiok batu-ezker, ordea, ezin ote gintezke artaz ameska asi?".<sup>259</sup>

□Edozelan ere aldatze hau aurpegiatu zionik izan zen, berak gogoratzen duenez:"*Aurrean zauzkaten eusko jator oiek aritu-samarturik zakuskit neri begira, kolkorako diozutela: Arraio au ere, ba, gizaseme lasai-samarra diagu. Or aritu uan, orain bi urte, jo ta keak atereaz, iñoizko "Elazkona" gaixo ari kaikua bete ozpin irentsi-arazi nairik. Eta orain berriz egunkariaren alde, alajainkia!... Kristau orrek alkandora maiz-samar aldatzen ote-duan esango nitek... Bai, alaxe da. Egi-egia atorra aldatzearena. Ta eskar-natzaio gizarteari, aldatze ori egite omengarritzat etsia dualako. Baña, ez atzo, jaunak, izparringiaren aurka, ez gaur ikastolaren arloa azturik gaude, garai artako lagunak. Leen eta orain, atzo ta gaur, gure euskera zorigabeak laguntza aundia, ta alde askotariko laguntza, bear duala uste degu. Ta eztala errez, alegia, lan ortarako urri baigera, nondik asi-bearra asmatzen".<sup>260</sup>*

Kronologiari begiratzuz 1929ko martxoaren 13an idazten du lehenik Lizardik, euskal egunkariari buruz, arazoa zerbait gehixeago zehaztuz. Eta hor "Mendi-Lauta" (Txomin Arruti) idazle zarauztarraren "amets gozoak" aipatzen ditu bere gogoetaren sorburutzat ekarriz. Ekainaren 27an udako ikastaroan eginiko hitzaldi famatuan berriro aipatzen du Mendi-Lauta asmo horren aitatzat:"Bart amets eder bat egin diat...Euskel-egunerokoa".<sup>261</sup>

---

<sup>259</sup> Euzkerea, 1929-II-15.

<sup>260</sup> Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1929-VI-27.

<sup>261</sup> Ibid.

Beste behin bizkaieraz mintzo zen fraide bat aipatzen du: "*Urte bete t' erdi, gehiago apika, dalarik, landolako atean kaxk-kaxk jota pralle aundi bat irriparre emea ezpainetan zuala, aurrera sartu zitzaidan. Ekin zidan bereala euskeraz, bizkaiera sutsu ta zoli (...) Jainko-gizon maitagarri ura euskal-egunkariatza mintza zitzaidan, ta, gutxi gora behera, ni gañeko lerroetan bezalatsu...*". <sup>262</sup>

Mendi-Lautaren protagonismoa eta Euskaltzaleak-eko gidarien sintonia nabariak dira: "*EUSKALTZALEAK bazkuna'ko lendakari jauna'rekin itz egin det asmo onetzaz eta aurrera eramateko asmo biziak dituzte. Bazkun jaio berri onen igali bikañak ikusi bearrean gara*". <sup>263</sup>

Urte horretan (*El Día* hurrengokoa da), "*Euzkadi*" da nazionalisten egunkaria. Batzu, *Euskal Atala* zabaltzea dute amets. Beste batzu, Lizardi tartean, beste zerbait dute gogoan: "*Baña, euskal-baratza azi-bearraz gogoeta eginak, gereziak gereizia bezala, euskal-egunkari ametsa dakargu*". <sup>264</sup>

Izena eta guztiz du asmatua "*BAI du izena*". <sup>265</sup> Amets hori -bere xehetasunak eta guzti- laburtzeko honoko hau dio Zarautzko poetak: euskarazko egunkaria izango da "*labur esateko: erderazko zenbait egunkari bezin eder-oso...*". <sup>266</sup>

---

<sup>262</sup> Euzkadi, 1929-III-16.

<sup>263</sup> Argia, 1929-III-17.

<sup>264</sup> Euzkadi, 1929-III-13.

<sup>265</sup> Ibid.

<sup>266</sup> Ibid.

Ametsak amets ("*ametsa...BAIaren azia diteke*") hara Lizardiren galdera: "*Euskal-Erri osoan amar-amabi milla ale ez ote-ditezke saldu, zabalkundea bear bezin sakonki egin-ezkeru?*" .<sup>267</sup>

Martxotik atera gabe beste artikulo batean zehazten du gehiago: *Iñola ateratzekotan, bada, egunkaria, askoen alkar-artze ta laguntzaz bear bide-da, nik uste*".<sup>268</sup> Gainera "*egunkari ON bat -eta bearrezko dezu ona, erderakoak bezin ona; bestela, zeren indarrez edatu?*".<sup>269</sup>

Eta berehala, noski, xoxak ateratzen dira mahi gainera: "...*egunkari on bat, bada, ateratzeko, zillar-pilla larria bearuko litzake. Zenbat?*"<sup>270</sup> eta beste egunkarietatik datuak ateratzea gomendatzen du. "*Ori eginda, diru-biltzea letorke. Atera ditzagun, adibidez, euna laurlekoko akzioak...*" .<sup>271</sup> Bazuen nonbait Lizardik diru-bilketaren berri: "*Euskeltzale txiroak ongi erantzutea jo diteke, gaurgeroz(...) baña, besterik gabe, euskaltzale aberatsen laguntza (ta laguntza zabala) gabe, eztegu bearra osatzen*".<sup>272</sup>

Lizardik plazaratutako gai hau berehala hedatu zen euskaltzaleen artean eta nazionalisten artean. "*Todo el mundo, dio, nuestro pequeño mundo ha roto a hablar del asunto como de una cosa cuyo tiempo se acerca*" .<sup>273</sup>

---

267 Ibid.

268 Euzkadi, 1929-III-16.

269 Ibid.

270 Euzkadi, 1929-III-16.

271 Ibid.

272 Ibid.

273 Euzkadi, 1929-VI-13.

*Euzkadi eta Euzkerea* gai honen islada dira 1929ko hilabete horietan. Lizardik berak euskal idazleen eritzia eskatzen du *Orixerena* bereziki. Ez da ezaguna honek erantzun ote zion ala ez. Ordurako baina, Lizardik, "*berriro-berritotik*" ala "*iñoren babesean*" sortzearen artean bigarren aukera hartzen du, lehenari garestiegi eritziz.<sup>274</sup> eta Eusko Ikaskuntzaren uda-ikastaroetan gaia aztertzeraz gonbidatzen ditu euskaltzaleak oro.

Diru arazoz segitu baino lehen, zer esan nahi zuen Lizardik bera eta lagunena zen "*iñoren babesean*" harekin? Garaiko aldizkari zein egunkariaren batean oinarriturik atera behar zuela egunkariak. Eta zehatzago *Argia* donostiarrean oinarriturik. Areago ere esan daiteke: une hartan uste da, *Argiak*, astean behin aldizkari gisa ateratzeari utzi barik, egunkaria ere atera dezakeela. Beste modu batera esanda ARGIA betiko aldizkaria izan zen, igandeko egunkarian tolestaturik banatzeko. Enpresa argitaratzailea izan zen berdina. "*Gure ustez, aukerakoena 'Argia' asterokoa degu. Ori izan da egunkariaren aintzindari edo aurrelari. Orrek diardu bideak zakarrez garbitzen. Ori dago lanbide orretan zerbait zaildua, ta orren lantegietan baditugu artarakoxe irar-langille euskeldunak (...) Nere aburua zan astekari-egunkariak BAT egitea. Artara, egunkaria besterik elitzake izango, ta onek, astean bein, ale berezi bat ateratze'aal luke. Astearen egunetarik bostean, beraz, egunkaria eskuan dezutenaren aundiko litzake. Igandeetan, berriz, ale berezia, ale aundia: au da, egun ari dagokion egunerokoa ta, erdian sartuta, beste ainbesteko astekaria. Ale aundi ori egunkari naiz 'Argia'-irakurle guziei elduko litzaioke: bere lanik aundiena egunkaria zabaldu ta bazterretarañotzea litzake. Egunkariak, esateko, aste gorrian egunero iru milla ta bosteun ale salduko lituzke, ta igandean zazpi, zortzi, agian amar milla ale, berezi oietarik, orrela bere bideak gerorako urratuz. Badirudi, gañera,*

---

<sup>274</sup> Euzkadi, 1929-IV-26.

*biak bat ez egiñean, elitzakela ain erreza astekari-arpideduna egunkari-arpidedun egiten".*

275

Asmoari ondo eritzi arren, diru-arazoz kezkatu, -gogoratu- *Euzkerea* aldizkarian erantzun zion *Amandarrok*, 1980-1990 urtealdian eman diren arrazoi berberak jaurtikiz: *"Beraz, oindiño beintzat, euzkel-egunerokua zutik eukiteko gertu ezkagozala-ta gagoz(...) ia lau-bost urte-barru geure euzkel-egunerokua ataraten dogun".*<sup>276</sup>

Lizardik gauzak baikorrago ikusten ditu: *"Lengora gerala, irakurle, guk eztakusagu arloa "Euzkerea" k bezin illun",*<sup>277</sup> urte-mordoska aundi-samarrean urteko berrogei bat milla laurleko galduko zituela egunkariak bait zion.<sup>278</sup>

Azkenean Eusko Ikaskuntzak honela eskaturik, Lizardik balizko euskal egunkariari buruzko hitzaldia egin zuen Eusko Ikaskuntzaren aretoan, Donostian, 1929.eko Ekainaren 27an.

Egia esan, eta Lizardik berak ezagutzera ematen duenez,<sup>279</sup> *"Euskaltzaleak"* elkarteak otsaila aldera egunkariaren aldeko giroa berotzea erabaki zuen eta horretarako izendatu zen Batzordeak, harpidetza eta diru-bilketari ekin zion. Gaia, lehen mailakoa izatera iritxi zen, euskaltzaleen artean sekulako ilusioa eta zalaparta sortzeraino. Lizardiren

---

<sup>275</sup> Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1929-VI-27.

<sup>276</sup> *Euzkerea*, 1929-IV.

<sup>277</sup> *Euzkadi*, 1929-IV-26.

<sup>278</sup> *Euzkerea*, 1929-IV-15.

<sup>279</sup> *Euzkadi*, 1929-VI-13.

hitzaldi-eguna baino lehen bi bilera antolatu ziren, Ekainaren 9an bata non hitzaldi hori berori eztabaidatu zen; eta Uztailaren 2an bigarrena non, balizko egunkari horren ale inprimatu bat banatzerakoan, jende interesatuaz aparte zenbait kazetari ere bildu zen. Bilera horretan, eta egunkaria martxan jartzeko, batzorde bat eratu zen Lizardi bera, Miguel Espartza, Ander Arzelus "Luzear", Ricardo Leizaola, eta P. Arruti osakide zirela.<sup>280</sup>

Gaia, beraz, ongi harroturik zen. Garaiko prentsan *Euzkadin* eta *Argian* alegia, pil-pilean agertzen zen. Lizardiren abisoa, baina, ustel bilakatu zen ikusiko denez: "*Y para que las empresas 'imposibles' empiecen a no serlo nada hay como que los hombres de quienes depende su realización dejen de pensar en la imposibilidad pretendida*".<sup>281</sup>

Hara nolako egunkaria egin nahi (eta ezin) izan zuten Lizardi eta Euskaltzaleak-ekoek: "*Gure egunkariak KRISTAU, katoliko huts-hutsa bear luke, ta EUSKALDUNTASUNAREN aldeze neka-gabea; baña, alako edo olako politikari bere burua lotu-gaberik. Soil-soilik au: Jaungoikoa ta Euskalduntasuna, euskotasuna*".<sup>282</sup>

Handia ala ttikia?: "*eztegu alako papertza aundirik bear; baizik, oso aundia eztalarik ere, ongi egiña bedi, errez idatzia, ta itz gutxi, erderazkoak aña lastorik gabe, oiek aña esango duana*". Baina egunkari bat izan dadila: "*bedi izpartsu ta benetan egunekoa*".<sup>283</sup>

---

<sup>280</sup> Ikus Eusko Ikaskuntzaren Deia, Crónica de los Cursos de Verano de 1929, "sesiones de conversación".

<sup>281</sup> Euzkadi, 1929-VI-13.

<sup>282</sup> Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1929-VI-13.

<sup>283</sup> Ibid.

Zer behar da egunkaria egiteko?: *"Dirutza, arpideak, iragarkiak. Otseñak, idazkideak, errietako izparkariak. Bear da, bazkun (empresa) benetako, edo formala egitea, akzio-bidez. Bear ere bear da, gaurkoz, goikoen baimena; baña, au gerorako uzten degularik ere, ezin galazi dezaigukete dirua, arpideak, iragarkiak, otseñak, eta leen aitatu-gañerakoak itzartzen astea: itz batez, gure indarra neurtzea, ta zeatz-zeatz, egunkaria ateratzeko añakoarik badegun ala ez erriz-erri ta lagunez-lagun aztertzea".* <sup>284</sup>

Lizardik eta bere taldeak oinarri-dirutza (kapitala) eta aurrekontuak ere egin zituen. Egun batzu lehenago esana zuen: *"berriro diotsuet, IRU MILLA arpidedun sortzen ba-da, sortuko dala egunkaria ere"*. <sup>285</sup>

1930.ean oraindik idatzi zuen Lizardik gai honi buruz, *"euskelzale guzien gogoak gaur geien bezala sutzen ditun asmoaz Euskal-Egunkariaz alegia* <sup>286</sup>. Nolabait, berriro definitzen du egunkaria: *"katolikoz gañera, gure egunkaria euskozale sutsua izango litzake, au da, euskeraren alde ta euskaldunen eskubideen alde beti garbi jokatuko lukena, nahiz politika-alderdi-gabekoa izan"*. <sup>287</sup>

Ez dago dudarik, dena den, zabaltasun horrek bere zentrua bazuela: *Euskaltzaleak* bera. Eta berarekin batera garaiko euskaltzale guztiak biltzen zituen bazkuna: FAPE/EEB <sup>288</sup> Euskaltzaleak-en bazkidetza ta Egunkaria-ren harpidedungoa bide beretik egiten bait

---

<sup>284</sup> Ibid.

<sup>285</sup> Ibid.

<sup>286</sup> Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1930-III-9

<sup>287</sup> Ibid.

<sup>288</sup> Ikus Euzkadi, 1928-Uztailak 6, 11.

zen. Hori bait zen egunkariaren berezko esparrua. *"Lenbizi egin ditzagun gure bazkide, eta gero, berandura-gabe, etorriko gatzai berririo egunkariarekikoa eskatuz"*.<sup>289</sup>

Mendi-Lautak *Euzkadin* inkesta bat egin zuela eta (*"Bi milloiez zer egingo, euskeraren alde"*?) Lizardik' *Erri-Lan* elkartearen sortzea proposatzen du besteak beste *BAI* egunkaria sostengatzeko.<sup>290</sup>

Berandu xamar ordea, egunkari elebidunaren aldeko apustua hartua zen. Urte horren berorren Ekainaren 1ean sortu bait zuen Aitzolek berak. Ez da baztertu behar (zuzena bait da) Aitzolek, Jokin Zaitegiri Marneffen zegoelarik Donostiatik eskutitzez bidalitako kexu hura: *"Euskal-egunerokotzat galdetzen didazu? Ez gaude oraindik malla orretara iritxirik. Euskera eta kultura gaiak ez dio inorreni ajolik; ez da ezer irakurtzen, ez da liburu bat saltzen... Gure euskal elertu ikastaroan ikaragarritzako frakasoak izan degu. Etxitzaigun inor entzuterara joaten. Ez euskaltzaleak bazkunarentzako ez beste euskal egintzarako inor (sic) ez du xentimorik ere eskaintzen... Nola egunerokoa argitaratzea pentsatu? Nola milioi erdia bildu genezake?"*.<sup>291</sup> Baina, Lizardiren abisu hura (zerbait egitekotan utz ezinezkotan pentsatzeari, alegia), bete-betean kunplitu zen.

1929.eko uda-ikastaroen ostean, hasteko behar omen ziren hirurogei mila duro haiek nondik atera ikusi ez eta etsiturik *"Egunerokoa ez da aterako"* galdatzen zuen Egi-

---

<sup>289</sup> Ibid.

<sup>290</sup> Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1930-III-9

<sup>291</sup> Ikus Ariztimuño Jose, Aitzol, Euskaltzaleak membrete-dun karta "1935'ngo-III' garren-15'an" Donostiatik Marneffera (Belgika) bidalia "Zaitegi'tar Jokin jaunari". Martin Ugaldek bere artxibo pertsonaletik utzia. Originala, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordea.

Zale <sup>292</sup> gisakorik izan arren, ilusioa zen nagusi. "Bazter guztiak poztu ditu gure egunkari bakar orren jaiotz berriak", zioen "Luzear"ek. <sup>293</sup>

*"Toda la obra científica y literaria que por esos medios se hiciera en euskera y para el euskera, no tendrían juntas el incommensurable valor que para el idioma tiene la publicación de un periódico diario(...) Tener un diario es para una lengua presentar la prueba innegable de su vitalidad"*, esaten du R. de L. sinatzen duen. <sup>294</sup>

Gaia ez zutela utzi nahi nabari da, berririk ez eta galdezka ari bait da jendea: "*aspaldian ixilik da gure euskel-ataletan egunkariarekiko asmoa*" <sup>295</sup> Egi-Zale hari "*Egunkaria ez da aterako*" <sup>296</sup> ere zakarki erantzute dio *Ogizale* batek ez estutzeko eta lanari ekiteko eskatuz: "*Euskeltzaleen artean egunerokoa nai eztuanik aal ba-litzake, orreri eziñezko ezpanerizkio, "Egi-Zale"-k egunerokoa nai eztuala usteko nuke. Baña, nai degunok ez gaitean estutu. Lanak errezteko, leenbait-leen biali dezagun "Argia"ra izena aríderako ta norberak eman aal-lezaken diru agindua. Orrela ez egiñenean, "Egi-Zale" nagusi*". <sup>297</sup>

Aranzadi "Kizkitza" bera komeziturik dago, euskarazko egunkari baten garrantziaz. Bi artikulotan eman zuen bere pentsamoldea hogei urte lehenago "*Gipuzkoarra'n idatzitakoak gogoratuz: "Ha pasado el tiempo. De entonces acá han ocurrido muchas cosas. Despacio, pero se va adelante...Y ante esta situación un grupo de*

---

<sup>292</sup> Argia, 1929-II-21.

<sup>293</sup> Argia, 1929-VII-14.

<sup>294</sup> Euzkadi, 1929-VII-4.

<sup>295</sup> Euzkadi, 1929-VII-16; berdintsu, Euzkadi, 1929-VII-18.

<sup>296</sup> Euzkadi, VII-21.

<sup>297</sup> Euzkadi, 1929-VII-25.

*vascos ha iniciado el proyecto del diario(...) Será posible el diario euskérico?(...) ¿Dónde hallar el diario euskérico poder para combatir sin desfallecer? Con la fuerza del entusiasmo de cuantos saben y sienten que el euskera es consustancial a la raza. Ese entusiasmo ese fervor en el que radica siempre el secreto del éxito, y en cuyo decaer se encuentra la razón de todos los derrumbamientos; ese entusiasmo y ese fervor que ha sostenido y vivificado a Argia, dará a luz el diario y lo levantará a la cumbre de la victoria" jaiotzeko eta finkatzeko izango dituen arazo latzak zerrendatu ondoren.* <sup>298</sup>

Bigarren artikuluan egunkaria sortzea pizkundearen ondotik gertakaririk inportanteenetzat jotzen du egunkariaren jaiotza. Eta jaiotzeaz zegoen egunkari hura egunkari hutsa baino zerbait gehiago ere bazela garden ikusten du E. Aranzadik: *"vemos, por otra parte, la Prensa desligada en casi todos los pueblos de ese anhelo reivindicativo por el que viene a la existencia el diario euskérico. El hecho de comprar en estos países un periódico no tiene el carácter vital y cordial de un movimiento de Prensa renacentista que imprime a cuanto toca la vibración de la naturaleza agitada por la savia primaveral. Cada número del nuevo "Argia" será entre nosotros invitación al servicio amoroso y reparador de la lengua racial, al que respondan patrióticamente, cuantos adquieran el periódico para ejercitarse diariamente en su lectura y de este modo, para honrar al euskera públicamente, constantemente, en las ciudades y en las aldeas, en los Bancos y en los mercados, en tierra vasca y en las soledades de California y de las Pampas argentinas. Cosa vulgar, fría y mecánica aparece de ordinario la salida de la Prensa diaria. En ella la información lo es todo; el idioma nada. Fuera está el interés. En nuestro caso, dentro".* <sup>299</sup>

---

<sup>298</sup> Euzkadi, 1929-VI-23.

<sup>299</sup>Euzkadi, 1929-VII-3.

Urte bukaerarako, baina, euskarazko egunkaria baino Euzkadi elebidun jeltzalearen "Euzkel Atala" hobetzea onuragarriago zela euskerarentzat eta gisako kukua hasi zen jotzen (zaharra bestalde) azken batean hura hobeagotuz egunkaria eskura izanen zitekeela eta. Hona "Garbi-Nai" baten testua: *"EUZKADI egunerakoaren "Euskel-atala" geitu ta txukunduten ez ete dago lanik? "Euskel-Atala" ba, egunerokoa da, egunero urtetan dan atal bat da-ta, eta bizkaieraz ta gipuzkeraz idazten dan Euskel-atal begi-begikoa izan be(...)* Goazen aurrera: *Txiro ta akatz askogaz idatzita urtetan dan Euskel-Atal au baña, aberastu ta txukundu leiken Euskel-Atala da; ni beintzat orretan nago(...). Ingoski bira eldu biar litzake, eta ori lortuten "Eguneroko" barriya sortu ta argitaratutia baño errazago dala deritzat(...)* ¿"Euskel-Eguneroko" a biar dogula? *Aberastu ta txukundu daigun EUZKADI egunerokoaren "Euskel-Atala" eta "Euskel-Egunerokoa" izango dogu. ¡Euskeldun danon gura izatian dago ba "Euskel-Eguneroko"-aren izatia!"* <sup>300</sup>

Sei hilabete geroago, *Euzkadi* bere hartan utzirik -euskara kopurua handiagotu gabe- *"El Día"* elebidun berria kaleratu zuten euskarazkoa diruagatik ikusten ez zutenek (Rikardo Leizaola, "Argia"ren inprimatzailea, José Ariztimuño "Aitzol", Pío Montoia etab.ek). Egunkari berri honen sorrerarekin Argiaren tirajea behera etorri zen. <sup>301</sup>

### 6.5.3.3. El Día, apustu-ezaren ondorio

---

<sup>300</sup> Euzkadi, 1929-XII-21, 1930-II-28.

<sup>301</sup> Arzamendi, Arantxa, ob. aip.127 or.

Aitzitik ororen gaintetik *El Día*-ren kasua (1930-VI-1/1936) da eredugarriena, apustu eta erabakitasonaren ezaren susmoa finkatzeko alegia. Eta hori belaualdi oso baten ilusioa eta garra segitzen jakin ez zutelako: gradualismo elebikoa hobetsiz.

Nazionalismoaren kultur buruzagitza esplizitua eta errekonozitua Jose Ariztimuño "Aitzol" apaiz tolosarrak zeukan.<sup>302</sup>

*Euskaltzaleak* eta bereiziki Jose Mari Agirre "Lizardi" k harrotutakoa ikusi ondoren, *El Día*-ren sorrera, nazionalismoaren garaipena baino euskal abertzalegoaren iraina da. Ukaezina da *El Día* Gipuzkoan *Euzkadi* Bizkaian hainakoa zela. Oso joku ona eman zuen *La Voz de Guipuzcoa* errepublikazalea, *La Constancia* integrista katolikoa, Pikabearen *El Pueblo Vasco* autonomizalea, *La Noticia* eskuinekoa, *El Diario Vasco* 'Renovación española'-ren ingurukoa. De la Granja eta Garitaonaindiak<sup>303</sup> 10/11.000ko tirada ematen diote. Garaiko giroa ondo ezagutuz, *Aitzolek* eta Pío Montoyak partidukoa izango ez zen egunkari bat egitea inposatu zuten buruzagi nazionalisten kontra. Prentsa independentearen bidea aukeratu zuen *Aitzolek*.<sup>304</sup>

Halere, *Aitzolek* berebiziko garrantzia ematen dio iharduera politikoari. "El porvenir del euskera" artikuluan *Aitzolek* honoko hau dio "*Nosotros concedemos un valor grande siempre, pero muy relativo, al esfuerzo privado en cuanto al resurgimiento de los idiomas populares(...)* *Mas el progreso notable, el empuje arrollador, el que de una vez*

---

<sup>302</sup> Ikus Otaegi, Lurdes, El proyecto cultural de Aitzol, in A.A. Aitzol en su tiempo, Fundación Sabino Arana, Bilbo, 1990, 29-43 or. eta Otaegi, Lurdes, "Hitzaurrea" in Lizardi, Xabier, Kazetari Lanak, ob. aip. 18 or.

<sup>303</sup> De la Granja eta Garitaonaindia, ob. aipatua.

<sup>304</sup> Ugalde, Martin, Biografía de Aitzol, in Aitzol, Idazlan Guztiak, Erein, Bilbo, 1987, 42-44 or. Ikus baita ere Saiz de Valdivielso, ob.aip., 212 or. etab.

*aleje para siempre el temor y la amenaza de muerte a todo idioma popular, será el que le preste la reivindicación política de la nacionalidad oprimida".* <sup>305</sup> Okerra da beraz, Aitzolen lanari kultural hutsa eriztea. Eusko Ikaskuntzarenari bezalaxe. Errespeto osoz, baina, ez nago ados On Manuel Lekuonarekin Euskatzaleak-i buruz dioenean: *"una institución modelo a base de una neutralidad política total"* zela esaten duenean. <sup>306</sup> Baztertzen dena da jokamolde politikoa eta partiduen iharduera parekatzea. Ez bait da gauza bera, bistan denez.

*"No pudo hacer más el patriotismo vasco, dio Aitzol-ek adibidez, confinado como partido dentro del marco de la organización nacionalista. Los partidismos no son propicios para crear una cultura. Es forzoso esperar a que el ideal que, como en germen, encierran esos partidos, se diluya y difunda en el ambiente".* <sup>307</sup> Partiduak baino areago doa abertzaletasuna. Honetan zorrotz eta zuzen zebilen abade tolosarra: *"...el amor, el anhelo de los nacionalistas vascos por hacer resurgir la nación vasca, por inyectar en las viejas venas de Euzkalerria la savia renacentista de la cultura racial, los esfuerzos por hacer de Euzkadi una nación independiente, eso es nacionalismo en el sentido estricto y puro de la palabra"*. <sup>308</sup>

Zerbaiten eredugarri baldin bada Aitzol bera, *"prensa patriótica"* defenditzearren da. Eta horrek, abertzalea baino ez du esan gura. Baina partiduen gainetik (edo azpitik nahi

---

<sup>305</sup> Aitzol, Idazlan Guztiak, II lib., 167.

<sup>306</sup> Lekuona'tar, Manuel, Idazlan guztiak. Gipuzkoako Foru Aldundia eta (Jaurlaritzaren) Kultur Departamentua, Ed. Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1984, 8. lib., Euskeralojia, 354-370 or.

<sup>307</sup> Aitzol, Patriotismo y cultura, Euzkadi, 1932-II-19.

<sup>308</sup> Aitzol, Nacionalismo y Patriotismo, Euzkadi, 1932-II-18.

bada).<sup>309</sup> Prentsa independentea aukeratzeak, Aitzolengan, partiduetatik aske baino ez du esan nahi, abertzaletasuna leku guztietan eta inon ez prezeski dagoen zera hori bait da. Baina, euskara mailan, *El Díaren* hautua *Argia* donostiarrarekin alderatuz atzerapausua baino ez da. *El Díak* ez du euskararentzako formula berririk, eta are guttiago, eraginkorragorik asmatzen. Eta, aldiz, etsipenerako bidean jarri zituen euskaltzaleak.

Euskararen kopurua zenbatzen bada hauxe da aurkitzen dena. *Euskal Orria* deitu atala *Vida Religiosa* sailarekin orrialdea konpartituz, elkarri bultzaka. Orrialde-erdia, (aldiz, guttiago; aldiz, hiru laurden) osatzen ditu sailak. Inoiz hondarren bat ere bai beste txokoren batetan. 1934an *Euskal gaia/herrietako berriak* saila agertzen da 1935an *Eguneroko Xalxa*. Gehituz baino urrituz joan zen euskararen kopurua, erdarak lurra janda. Guttiegi euskarazko egunkari baten atzetik ibili zirenentzat.

Ander Arzelus "Luzear"-ek lehen zenbakitik egiten duen agurra etsipenaren kantua da bereziki: *"Ona ba gaur, europar gudateko buruak egin oi zutena egiteko garaia eldu. Gure gaurko 'partia' auxe izan bei: Euskaltzaleok gallur bat geigo menderatu degu. Gaurdaño gure kalterako izan dan txoko bat, gureganatu degu. Aurrerantz, euskaraz, Gipuzkoa'n zabalpide berri bat izango du.(.) Ez ditzagun beti begiak galbidetara itsatsita euki. On da itxu itxuan ez jokatzea, baña ez ordea itxaropena galtzeko arriskuan jartzea.*

---

<sup>309</sup> Ikus El Día de la prensa patriótica, Euzkadi, 1936-VI-7.

*Sinistu beraz gaurkoa aurrerakada aundia degula, ta gaurkoz ez aurrerantz besterik begiratu. Noizpait bear degu guk ere, alako pozaldiren bat ".<sup>310</sup>*

Ez da guztiz amaitu, baina, euskal egunkariaren premiaren oihartzuna, lotsaz irauten ba du ere: *"Lotsagarria da ziñez Eusko-Errian Euzkel egunkari bat ez argitaltzia. Aspaldian nabaitu degu utsune aundi bat dala alegiñean ari gera euskalzaleok lenbait len argitaratu dezagun euskal egunkaria. Zoritxarrez euskaldun asko dira uste dutenak amets bat baño ez dala euzkel egunkaria argitaldu genezakeela uste izatea(...) Itxaropenik ezin galdu genezake(...) Euskal Orria bizitu dezagun eta euskaldunak oitu ditzagun geure ele ilezkorra irakurtzen eta bereala izango degu nai degu euzkel egunkaria".<sup>311</sup>*

*El Día*-ko idazle batzuk bertoko elebitza euskaldun bihurtzeko ahalegina zela uste zuten. *Mendilauta* zen bat. *Luzear*, beste bat. *"...Eta aurrera, Euskal Orria, euskal egunerokoa egin arte".<sup>312</sup>* Baina poliki poliki ixildu egin ziren. Artiz'tar Xabierrek eskeintzen du, ixiltasun honen giltza: *"Lizardiren aldi artan egunkari asmo ori zerabiltenak izan ere geienak El Dían sarturik ditugu eta, nik uste, El Díari kalte egingo lioken bildurrez ixildu zitzaizkigula Euskal Egunkariaren aldezkariok. Bildur oiek alde batera bota eta zerbait onean egiteko sasoia degulakoan nazu ni".<sup>313</sup>*

*Lizardik*, adibidez, ez zuen amore eman nahi, sinistu egin zuen eta sekulako polemika ukan zuen Bonifazio Etxegarairekin, benetako intentzioak azaleraziz.

---

<sup>310</sup> Luzear, Txoko berritik, agur, El Día, 1930-VI-1.

<sup>311</sup> Mendilauta, Pitinka ba-da ere, aurrera goaz, El Día, 1930-VI-11.

<sup>312</sup> Euskal Orria, euskal orri, El Día, 1932-VII-17.

<sup>313</sup> Euskera astea, El Día, 1934-V-20.

1927-1929an euskal egunkaria eskuratzeko hainbat ahalegin egin ondoren euskara gehiago erabiltzeko eskatuz sortzen du polemika, azterketak egiteaz aparte egintzak eskatzen bait ditu Lizardik. Etxegaraik, praktikan, gehiago sinisten duela elebitasunean erakusten du. Eta gauza bera *Aitzolek* nahiz eta sakonean *Lizardirekin* egon. *El Día* irten ondoren ere *Lizardik* euskal egunkaria egitea proposatzen du "*Erri-Lan*" koordinakundea asmatuta gero.<sup>314</sup>

Bonifazio Etxegaraik lasai egoteko eta pazientzia eskatua zien euskara gehiago nahi zutenei, alegia euskara gutti erabiltzen duenak eskubiderik ez duela gehiago eskatzeko argudiatuz, "*Euskalerrriaren Alde*" aldizkaria aipatuz: "*Tengan paciencia los impacientes y procuren evitar que se haga del vascuence una muralla que impida su propia difusión y la de los valores culturales de Vasconia*".<sup>315</sup>

Lizardik bi idazlan atera zituen euskaraz. Lehenengoan "*Eusko-aundiki guziek euskeraz ariko balira, euskera salbatua, omen genduke(...)* Baña, orrelakorik beñere iritxiko ba-degu aundiki euskeltzaleoek leen-leenik ari bear degu euskeraz".<sup>316</sup>

Bigarrenean, "*Noiz da euskeraren ordua?*" itauntzen du. "*Ta entzule guztiak euskeldun uts arteraño ba-gaude ez saski-naski ta ez besterik ezta izango*", nonbait bileretan eta erdaraz ari zelako erruz.<sup>317</sup>

---

<sup>314</sup> Ikus Zumaiaiko hitzaldia, Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1930-III-9.

<sup>315</sup> Etxegarai, Bonifazio, El euskera en las empresas de cultura, El Día 1930-IX-21.

<sup>316</sup> Lizardi, Euskera, andiki soinekoz, El Día 1930-IX-25.

<sup>317</sup> Lizardi, Euskera, andiki soinekoz, El Día, 1930-IX-27.

Etxegaraik, beste bi bota zituen, erdaraz baina: "En pro de los derechos del euskera" (El Día, 1930-IX-30) eta "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos" (El Día, 1930-X-9) oso zakar, nonbait Lizardi ere behin baino gehiagotan erdara erabilia zela etab.

Lizardik, apala gizona, onartu egin zuen errua beste batean baina ez dago batere ados '*aurrera poliki*' jotzearekin "*euskara gehitzeko*".<sup>318</sup>

Hiru artikuluz -beti erdaraz- erantzun zion Etxegaraik: "Afianzamiento y Reconquista", (El Día, 1930-X-23); "La labor de la SEV en sus Cursos de Verano" (El Día, 1930-X-28) eta "Hagamos lo que sea posible" (El Día, 1930-XI-12).

Aukera-aukeran gogorregi jo zuen Etxegaraik Lizardi eta honek: "...*odol-berotxo, bazternastalle, eztabaidakari alperrikako, arroxko ta artoberouxai omen naiz. Oietaz gañera, buru-arlotea; andre Jakintza andre Kultura, askorik maite ez dutenetakoa, alegia.*" azpimarratzen du polemika bere aldetik amaiatutzat emanez "Aitaren erreal bikoak"<sup>319</sup> artikuluan Lizardik belaunaldi arazoz hartzen du hika-mika. Halere, ez dago erabat ados. "*Gertatzen oi-da maiz-samar, aita-semeen artean, semeak aitari erreal biko eskatu, bai, ta aitak ezezkoa ematea, ta gañera bereak eta bost esatea. Jakiña: orrek eztu esan nai semea izpidean etzegoanik(...) Soil-soilik: aitak eztizula errealok eman nai*".<sup>320</sup>

Funtsean, eta Lizardi oharturik da, garai hartan kultura goi-jasoa eta herritarraren arteko eztabaida gori-gorian zegoen.<sup>321</sup> Etxegaraik *eragileak* (Euskaltzaleak taldearen

---

318 "Elkar bidean", El Día, 1930-X-16.

319 El Día, 1930-XI-12.

320 Ibid.

321 Ikus Otaegi, L., eta Kortazar, J., in A.A. "Aitzol en su tiempo"., Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1990.

izateko arrazoia) *jakintsuen* (Eusko Ikaskuntzako erudito-elitea) terrenoan ez sartzea esijitzen zuen. "*Ni a los varones estudiosos viene bien el papel de agitador en el mejor y más noble sentido de la palabra, ni a las gentes de acción compete el empeño de dedicarse a resolver problemas que requieren una labor reposada y serena. Cada cual en su esfera debe obtener de su actividad todo el fruto posible, sin exageración de amor propio y sin jactancia alguna*".<sup>322</sup>

Eta Lizardik: "*Ikaskizun ori ere jaso degu, ta oñak labur ibiltze'aal-ditugu aurrerakoan. Auxe bakar-bakarrik esaten utzi zaiguzu, jauna. Jakintzazale ta euskaltzaletasun-eragille, biak batera, naiz kristau naiz bazkun, notin berbera izan zitekela uste gendun. Ta uste ori artua eztegu gere erru, Etxegarai jaunari begira ikasi degu. Bera ikaskuntza goitarren zale da, eta orrekin batera euskaltzaletasunaren eragillerik bizkorrenetakotzat bere burua agertu izan du beti. Guk, egia esan, jakintza-zale uts izan ba'litz, ez genion esana jasoko. Euskaltzaleen eragille ozena dan aldeik iritzi nion arrotz berak idatziari*".<sup>323</sup>

Eta *aitari* errespetuz, ixildu egin zen Lizardi. Orokorrean, euskaldunok beti euskaraz egin behar zutela eskatzen zuen. Beraz, Sociedad de Estudios Vascos-en kideen artekoen bileratan euskara gehiago sartzea eta euskarazko egunkaria lehenbaitlehen kaleratzea. Etxegaraik, aldiz, jakintza jakintza zela eta ekintzaileak ekintzaile. Bakoitzak bere arloan segitzeko inoren landan sartu gabe. *Ahal dena egin dezagun* esanaz, betiko aitzakia edo sasi-arrazoia jartzen zuen oinarritan. Errealitateak demostratzen duena praktikan onetsiz, alegia, elebitasunetik elebakartasunera ez dela *naturalki* pasatzen, hau da

---

<sup>322</sup> Etxegarai, Bonifazio, El Día, 1930-XI-12.

<sup>323</sup> El Día, 1930-XI-12

*gradualki* edozein direla kondizio objektiboak: borondate politiko irmoa behar da. Baina, elebitasunaren aldeko konpromezua zen nagusi.

Eta Aitzol? Ez da nire asmoa *Aitzol* arakatzea; are guttiago, deskubritzea. Inolaz ere ez zapuztea. Izan zituen hutsuneak erakustea dut helburu. Aitzol elebitasunarekin maitemindurik zegoen 1922an Gernikan Eusko Ikaskuntzako II Kongresuan argi utzi zuenez. Eta hortxe dago hutsunea edo behintzat ondorioen iturri ezinbestekoa.

Bere idazlan nagusietan ere horixe dager nabarmen asko.<sup>324</sup> Berarentzat, Finlandia eta Belgikako prozesuak eredutzat hartuz Euskal Herriaren hizkuntz-berreskurapena planifikatzea zen beharrezkoena eskola eta administraziotik hasita (prentsa eta herri literatura ahanzi barik). Urte horietan, ez ahanzi, Unamuno, Baroja, Maeztu eta espainol intelektualen erasoaldia puri-purian zegoen. Bistan da *Aitzolek* argudioz erantzun nahi izan zien (beraz espainola erabiliz), *Lizardik*, aldiz, erabilpenez eta kreazioz (beraz, euskara gai zela erakutsiz *de facto*).<sup>325</sup>

Berdintsu, baina zehatzago, erizten dio Iñaki Larrañaga soziolinguistak Aitzolen jokamolde honi: "*Aitzolek egindako produkzioaren ia guztia erdaraz egina dagoela (% 95 ≤) eta euskaraz egina oso gutxi izan zela(...)* Adibide bezala har dezakegu bere lagun min eta lankide izan zen *Lizardiren kasua*. *Eta ez bakarrik olerki edo poesia alorreko idatzietan baizik eta biak kazetaritzan egin zituzten lanetan. Izan ere Lizardik 1927tik 1933ra arte egunkarietan idatzi zituen 190 artikulutatik 64, hau da, erdia baino gehiago (% 58,7)*

---

<sup>324</sup> Ariztimuño de, José, "Aitzol", "La muerte del euskera o los profetas de mal agüero", 1931; "El porvenir del euskera", *Yakintza* 1933 eta *Idazlan Guztiak*, III lib. 163-167 ; "Lucha de idiomas en Euskadi y en Europa", *Yakintza* 1934, 353-365, 431-438 eta *Yakintza* 1935 33 etab. eta *Idazlan Guztiak* II lib. Erein 1986, 246-267.

<sup>325</sup> Ikus Otaegi, Lurdes, "Hitzaurrea" in *Lizardi*, Xabier, *Kazetari-lanak*, Erein, Donostia 1987.

*euskaraz idatzi zituen bitartean Aitzolek 1930etik 1936ra idatzi zituen 443 artikulutatik 16 besterik (hau da % 3,6) ez zuen euskaraz idatzi. Alde izugarria, beraz, bi idazleen artean. Eta dudarik ez dago jokabide ezberdin horiek ez zirela halabeharrez edo kasualitatez gertatu. Beste zerbait hori hautamen kontua da, batak euskara erdara baino gehiago erabiltzea erabaki zuen bitartean besteak ia erdara bakarrik erabiltzea erabaki zuela, alegia. Zergatik horrela jokatu zuten? Ez batak eta ez besteak ez digu argibiderik ematen. Halere, Aitzoli dagokionez erdaraz idazteko zuen erraztasunaz gainera, badirudi erdaraz idaztearen arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela: alde batetik, garaiko idazlerik irakurrienak erdaraz idazten zutela ikusirik idazle horien maila berdina erabiltzeko gai zela frogatu nahia. Prestijiodun hizkuntza erabili, prestijioa lortzeko asmoz ezkutuko konplexu baten ondorio bezala, eta bestetik, idazle erdaldunek egindako produkzioa irakurtzen zuen irakurlegoa bereganatzea ezinezkoa zela uste bazuen ere gutxienik irakurlego hori informatu nahia, hain zuzen, beste idazleek egindakoarekin bakarrik geldi ez zedin. Erdal irakurlegoa euskal arazoetaz informatu nahiak, beraz alde batetik, jasotzen dituzten informazio faltsuak eta distorsionatuak zuzendu nahiak bestetik, bultzatu zuela dirudi gehienbat erdaraz idaztera. Halere kontraesan hori hor dago" .<sup>326</sup>*

#### **6.6. Eguna, euskarazko egunkaria gerran**

---

<sup>326</sup> Larrañaga, Iñaki, "Aitzol eta euskal soziolinguistika" in Idazlan Guztiak, I lib. 286-87 or.

*Lizardik* lortzerik izan ez zuena EAJ/PNVko buruzagiek lortu zuten, agindu baten bidez. Sei hilabetetan iraun zuen errealitate bihurturiko amets hark: 1937-I-1etik 1937-VI-17ra. Baldintza hurbila "*Euzkadi*" egunkaria paperez urri eta, ondorioz, euskarazko saila bertan behera etortzea izan zen.

Honela aldarrikatzen da *Euzkadi* egunkaritik bertatik: "*Zorijonak euzkeltzale. Urtebarri egunetik euzkel-egunerokua iango dogu. Bapatian auxe erabakijau artu biarrian aurkitu gara. Zergatik? Bai-edo dakixu, egun orretatik aurrera izparringijak lau ingozki baño ezingo dabezala argitaldu ta au dala bide gure eguneroeko onek atal batzuk gutxitu biarko dauz. Euzkel-orri osua beintzat ezin iñundik iñora argitaldu, euzkeraz lenengo orrialdian edo zerbait idatziko dogun arren. Utsune au betetako alde batian exin dana bestia egiteko, izparringi barrija urtengo da, euzkel eguneroko dotoria ta emetijek, geure etxe onetan urten be"*.<sup>327</sup>

Baina hortik egunkari bat euskaraz ateratzera badago alderik. Izan ere kondiziorik txarrik izatekotan haiexek ziren txarrak: gerra-baldintzak. Oroit dezagun ordurarteko diskurtsoa: kondizioak txarrak ziren, ez bait zegoen dirurik horretarako, euskal irakurleak guttiegi ziren, euskaldunon interesa euskal egunkaria egiteko hutsaren urrena (Aitzol). Hala ta guztiz ere, egunkariak aurrera egin zuen, eta arrakasta (erlatibo) dexentez.

Orain arte egin diren azterlanetan sakonduz<sup>328</sup> zenbait ondorio zuzenetara ailegatu daiteke.<sup>329</sup> Baina, ondo argiturik segitzen duten zenbait pundutik, nik neuk beste pare bat erantsiko ditut, bestela ulertezina bilakatzen delako *Eguna*-rekin suertatutakoa.

---

<sup>327</sup> *Euzkadi*, 1936-XII-30.

<sup>328</sup> Reizabal, Gorka, *Eguna*, único diario en euskera, lizentzi-tesina Universidad de Navarra, Iruñea, 1973 (bertoko bibliotekariari esker aunitz bertoko karnetik gabe sartu arren irakurtzen eta

*Euzkadik urte amaieran ematen du ateratzear dagoen egunkari euskaldunaren berri: "EGUNA, Euzkel-eguneroko barrija, bijar urte-barriz agertuko da Euzkera utsez idatzija, EROSI, IRAKURRI TA ZABALDU".* <sup>330</sup>

*Egunak, irten eta bigarren egunera, bi egunkari agurtzen ditu: Euzkadi eta Tierra Vasca alegia: "...bereziki gure erriaren azkatasuna elburutzat dabela jokaturen dabenentzat".* <sup>331</sup>

*Eguna-ren lehen bi astetako artikuluak irakurrita ideia bat nabarmentzen da: egunkaria argitaratzeko aginduak ezustean harrapatu zituen denak. "Euzkeltzale eta euzkeldun gustion ames zoro eta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurteko agindu zindua artu dogu goxetik gabera".* <sup>332</sup>

*Honen luzapenerako eta "amets" honen eragileen oroigarritz bi testu: "Euzkel Egunerokua... Amaika euzkaltzalen amesa! Abertzalio ziletu egiña!(..) Ames ederra! Euzkel egunerokua? Ona emen..!".* <sup>333</sup>

*Jesus Intsausti "Uzturre" buruzagi jeltzalearena da bigarrena: "Eguneroko bat euzkeraz! (...) Aitzol...Lizardi...(..) Ona aren ametsak egi biurtu".* <sup>334</sup>

---

notak ateratzen uzteagatik) eta Agirreazkuenaga, Joseba, Prentsa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren Garaian, Jakin, 1959, 50 zb. eta Hitzaurrea, in Eguna, faksinil-edizioa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia, 1990.

<sup>329</sup> Atal hau idatzia, Javier Diaz Nociren tesi bikaina atseginez irakurtzerik izan dut egileari biziki eskertzen diodan eskuzabaltasun osoari esker. Esan behar dut ordurako nik eskura nituen iturri berberak erabiltzen dituen ez dut ezer aldatu beharrekorik ikusi. Datuekiko interpretazioa, diferentea da.

<sup>330</sup> Euzkadi, 1936-XII-31.

<sup>331</sup> "Emen gera", Eguna, 1937-I-2.

<sup>332</sup> Ibid.

<sup>333</sup> Ezin aztu, Eguna, 1937-I-2.

<sup>334</sup> "Uzturre", Amets zar bat, Eguna, 1937-I-4.

Ezustea behin eta berriro adierazpen bakartzat: "izperringijau geuk usterik be eztaukogula agertu jaku".<sup>335</sup> "Ustekabea... Eta ara, usterik gutxienean, EGUNA euzkerazko izparringi egunerokoa".<sup>336</sup>

"Gutxina uste gendunean aspaldian emetslari giñan euzkel-egunkari abertzalea argitaratu zaigu".<sup>337</sup>

Zertarako sortzen da Eguna egileen ustez?: euskara eta abertzaletasuna -baterahedatzeko. "...euzkeraren bixitz barri ixateko asmoz(...) Jel ikurritza oso-oso ta zindo-zindo aldeztu ta erakutsiko dogu" esaten da lehen zenbakiaren aurkezpenetik.<sup>338</sup>

Edota "Euzkerea zabaltzeko izkilurik gogorrena, izkuntzea yaboeko gordegailurik eokiena; orra zer izango dan gure eguneroko barri au".<sup>339</sup>

Euskalduna eta abertzalea denez, erosgarri eta irakurgarri bihurtzen da egunkaria: "...euzkotar euzkaldunak erosi ta irakurri bear daben izaparingija EGUNA da. Zergatik? Abertzalia ta euzkalduna dalako. EGUNA izan bear genduke izperringietatik maiteen. Euzkera utsezko egunoroko bakar txalogarria dogulako. Euzkaltzalien zorion iturrik onen eta gure izkuntz maitearen babes eta jagolerik zintzoena dalako. Orretarako, baño, euzkeldun guzti-guztiok egin bear alegiñ. Orok izan gaitezen lankide eta nekekide areen bizitza aldeztu".<sup>340</sup>

---

335 B'tar B, "Eguna ta euzkera", Eguna, 1937-I-10.

336 Ara EGUNA-Agur..., Eguna, 1937-I-7.

337 "Mendilauta", EGUNAREN aldeztu, Eguna, 1937-I-20

338 Emen gara, Eguna, 1937-I-2.

339 Arrugain, Eguna, 1937-I-2.

340 "Eguna", Eguna, 1937-I-12.

Halere, *Egunak* ba du helburu periodistikorik : "*Euzkerea erabilkatxa dala uste dabenei arpegi emoten dautsegu eta gure aberekideei atsegin yakezan izperrak euzkeraz bakarrik argi-argi era ziatz-ziatz emoteko ustietan agertuten gara...*", nahiz eta laugarren hilabetetatik aurrera, ezinbestez, gehiago izan teletipo-itzulpen eta gogoetazko kazetaritza, berriemaile baino.<sup>341</sup>

Usteak uste, ez dirudi ikaragarri saldu zuenik. Augustin Zubikarai ondarrutarra, *Egunaren* zuzendariorde izanak, Agirreazkuenagari esandakoaren arabera 10.000 botatzen zituen, nahiz eta *Egunak* bere orrialdeetan 20.000 botatzen zituela esan. Dena dela ez behar beste, abertzale euskaldunen axolagabekeria lehen egunetatik salatzen bait da *Eguna*-n.

*"Beti izparringi gustijak baño izpar geyago ta garranzitsuaguak ekarri arren be, erdel izperringijak erosten dabez(...) nayago dabe erderaz (nahiz eta) gaur EGUNA'k beste izparringi onenak lez edo obeto bere izparrak ipiñi lekez".* <sup>342</sup>

Erosle kopuruaren eskasiaz berehala hasi ziren euskaltzelak arduratzen. Batzurentzat arrazoiak zabalkunde txarrean bilatu behar dira "*Egunerokoa badegu, baño beraren zabalkundea ¿bear añean egiten alda? auxen da nere uste txiroaz beintzat egiten ez dena*". <sup>343</sup>

Beste zenbaitentzat arrazoiak euskaldunon axolagabekeria aurkitu behar da: "*Bilboko bazterretan ez dala aurkitzen euzkel-eguneroko ori? Non-nai, mutil, non-nai daukagu salgai. Ez dala saltzen orixe da gertatzen dana (..) Atarrene, zeuk nai dezun*

---

<sup>341</sup> Ikus Agirreazkuenaga, Joseba, ob. aip.102 or. A. Zubikarairen esanak aipatuz.

<sup>342</sup> B'tar B, *Eguna* eta euzkera, *Eguna*, 1937-I-10.

<sup>343</sup> Atarrene, *Eguna* zabaldu, *Eguna*, 1937-I-6. Gauza berbera adierazten du lxakak "Euzkeraz bai, eta..Eguna?" artikuluan hilaren 18an.

*egunetan Sabin-Etxia'ra joango gera; bazkal-ondo guztietan an aurkituko dituzu eun abertzale bai gutxienez. EUNETIK larogei gipuzkoarrak. Larogei gipuzkoar "euzkeltzale'tan EGUNA aldian duten amar aurkitzen badituzu, pozik ordainduko dizut akeita".* <sup>344</sup>

Mendilautak ederki zehatzen du benetako joera: *"Ni bildur naiz...euzkaldun egunkari abertzalea biziko ba da guzien laguntza bear du...Bilboko euzko batzokietan - batzuetan bederen- ez dakust egunkari euzkeldun abertzalea... Euzko batzoki batean euzkal egunkari abertzalea ez ba dakust nun ikusiko ote degu ba? (...) Euzkera goraldtu eta zabaldu izan da abertzaleen lenengo lana, eta orain euzkel egunkari abertzalea jaiio ta ez ote diogu lagunduko euzkel egunkari au, Euskadi'ko egunkari ospetsuena izaten?".* <sup>345</sup>

Beraz larritasunak ezagutu zituen *Egunak* irakurle goaren eta erosle goaren kausaz. Horrexegatik "Euzkeldun Irakurle Batza" sortzen da 1937k Martxoan *Eguna*-ren zabalkundea egiteko, edota euren hitzetan esateko: *"euzkel-egunkari abertzalia eusteko"*.

Nork sortu zuen *Eguna*? *Uzturrek* argi uzten du EAEko Jaurlaritzak egindako ediziorako eman adierazpenetan: *"Etzazutela uste ordea, euskaltzaleen eraginaren ondoren kaleratu zala leengo EGUNA. Dirua Eusko Jaurlaritzaren lehendakaritzak jarri zuen"*. <sup>346</sup>

Baina editatzeko erabakia?. Agirreazkuenagaren ustez *Eguna Euzkadiren* euskal atalaren luzapen eta osokuntzat har daiteke. Honela izan zela esan zuten bere sortze garaian *Larrin-Etxebarri* izeneko batek: *"Eguna sale como robusto niño formado al calor"*

---

<sup>344</sup> Mandazketa, Non dira abertzaleak, *Eguna*, 1937-I-20.

<sup>345</sup> Mendilatua, Egunaren alde, egintzarekin erakutsi dezagun, *Eguna*, 1937-I-20.

<sup>346</sup> *Eguna*, faksimil-edizioa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia, 1990.

*del diario EUZKADI. EUZKADI debe mirarlo y mimarlo como fruto de su fecundo seno y el patriota vasco que verdaderamente lo sea, debe acogerlo como la manifestación más vigorosa del progreso cultural vasco...*" ,<sup>347</sup> eta berdin Mario de Mendiorlegi deitu beste batek: *"aparece EGUNA, magnífica ampliación de la página euzkérica de EUZKADI con seis páginas repletas de artículos rebosantes de sentimientos patrióticos"*.<sup>348</sup> Hitz horiek dira Joseba Agirreazkuenagak *Egunaren* altzoa zein izan zen eta berarekiko zuen erlazioa azpimarratzeko.<sup>349</sup>

Gauza bera uste du Gorka Reizabalek: *"Así, pues, Eguna podría ser considerado en cierta manera como la independización de la sección de euskera de Euzkadi"*.<sup>350</sup>

Zubikaraik berak idatzitakoaren arabera Lauaxeta izan zen arima, artean, *Euzkadiren* euskal sailaren zuzendaria. Horixe uste du, bai eta ere Diaz Nocik. *"Nik esan neikena au da, dio A. Zubikaraik: EGUNAREN sortzaile eta aitatasuna erakunde baten egonarren, bere auspoa, aizelaria, Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta" izan zala. Ni gudaritzarako izena emonaz, toki eta guda saila eskatzen aurkeztu nintzanean, uste gabe beregaz topo egitean, gero zer pentsatu emondako bere erantzuna gogoan daukat: Zu, oraingoz, Eskolapioen gudaletxera joan zaite ta neuk dakit zure gudaritza nun bete bearko dozun"*.<sup>351</sup>

---

<sup>347</sup> Euzkadi, 1937-I-9.

<sup>348</sup> Euzkadi, 1937-III-4.

<sup>349</sup> Ikus Agirreazkuenaga, J., ob. aip. 99 or.

<sup>350</sup> Reizabal, Gorka, ob. aip. 30 or.

<sup>351</sup> Ikus *Eguna*, Eusko Jaurlaritzaren aipatu edizioa.

Augustin Zubikarairen aitoren abiatuz, 1936ean Manuel Ziarzolo "Abeletxe", *Eguna*-ren zuzendari bakarra izango zenak, euskarazko egunkaria egiteko *agindua jaso zuen*. Norengandik baina? Ajuriagerrarengandik izan zitekeen. Hauxe dakar gogotara idazle ondarrutarrak. Egunkaria sortu eta "*lau-pabost egunetara*" Zubikarai Ajuriagerrarekin mintzatu eta hauxe esan ziola buruzagi otxandiotarrak: "*Egunotan egin dana, gero be egin leike. Agur*".<sup>352</sup>

Kontestuan, nahikoa txunditurik gelditu zela Zubikarai igertzen da. Dena dela EAJ/PNV eta Jaurlaritzaren artean erabakitakoa izan zen.. "*Jabetasuna: EAJ-ena zen; Aita besutako: Eusko Jaurlaritza*" esanaz laburbiltzen du Zubikarai erabakiaren alde hau.<sup>353</sup>

Oso adierazkorrak iruditzen zaizkit, ostera, Gorka Reizabalen hitzok: "*En estas circunstancias nació Eguna más que por una organización y por un proceso de questación económica y de reunir personal, por un arrebato vital que casi parece un juego de magia. Así lo recuerdan los mismos autores de Eguna en el artículo de presentación titulado Emen gara*".<sup>354</sup>

Askoz ere hobeto ulertzen da horrela (*arrebato vital*, bai; *magia*, ez) eusko nazionalisten artean hartutako erabaki hura. Manuel Ziarsolo "Abeletxe" bera BBBkoa zen edo behintzat BBBkoekin biltzen zen, eta Reizabalek (Ziarsolori 1973-VIII-17an egin elkarriketan) aitortzen du honek, Ziarsolok, 1932an esana zuela: "*si me dáis dinero yo lo hago*". Hara Reizabalek Ziarsolori ateratako hitz osoak, eta aipatu tesinan ekarriak: "*(Ziarsolo) se levanta en una reunión del Bizkai Buru Batzar (Comité Regional de Vizcaya)*

---

352 Ibid.

353 Ibid.

354 Reizabal, Gorka, ob. aip. 32 or.

*para insistir en la idea de la necesidad de un diario 'Euskeldun' y para lanzar una frase que en aquel momento pareció fanfarronería: si me dáis dinero, yo lo hago. Eso debió ocurrir hacia el año 1932 -ni el propio autor lo recuerda- pero nadie le dió crédito, o bien las circunstancias hicieron imposible el nacimiento de EGUNA se año".* <sup>355</sup>

Ezin daitekela frogatu uste dut ideia norena izan zen, baina EAJ-PNVren baitakoa izan zela bai. Augustin Zubikaraik hiru izen posible aipatzen ditu: Juan Ajuriagerra, Jose Antonio Agirre eta Jesus Maria Leizaola. *"Besteekin berdin zen joan ala ez joan; alderdikoak izan arren ez zeukaten interesik".* <sup>356</sup>

Ze ondorio atera daitezke, beraz *Egunaren* bizikizun laburretik?

Batetik, *Eguna* EAJko nazionalistek sortu zutela, norbaitek *apustu* egin zuenean baldintza batzu aprobetxatuz. Paperaren arazo hura, alegia. Reizabali Ziarsolok aitortutako hordago hura hutsean geratu zen eta EUZKO euskal aldizkaria atera zuten handik guttira. Diru falta aipatuz seguruaski. Baina 1937an ez zen makalagoa diru faltarena. Eta irakurle go euskalduna ez zen handiagoa izanen...!

Euskarazko kazeta bat kaleratzeko, ez dira "kondizio objetibo"-rik onenak behar beronen premia sumatuz aldeko apustu arriskutsua baizik. Eusebio Erkiaga, *Egunako* kazetari izanak hauxe aitortzen du han hasitakoak ze nolako kazetari motak zirela

---

<sup>355</sup> Ibid., 31 or.

<sup>356</sup> Zubikarai, A. ARGIA, 1989-XI-26, 1269 zb. ale berezia Euskal Prentsa Lagundu kanpaina barruko egunkari formatokoa.

adierazteko: "*Goizetik gauera periodista biurtuak(...) Artean bere, jakintsu ez ginala, euskeraz artez eta azkar idazten ikasi baño leenago eredaktore...*".<sup>357</sup>

Gerra-garaitan ze nolako premiak egon daitezkeen asmatzeko ez da aztia izan behar, gobernu baten premiak eta lehentasunak nondik norakoak, zein nolakoak izan daitezkeen lan-baldintzak ere ez, etab. etab. *Eguna*-ko kazetariak *gudariak* ziren -Ziarsolo eta Lauaxeta gerra egiten ari ziren adibidez, eta besteak *Gudarostetik* kobratzen.

Gainera, ez dela nahikoa egunkari bat ateratzea; mantendu egin behar da esandako harian. Edozein apustu egin ondoren, berarekiko leial jokatu behar da hautsi gabe. Zubikarairen ustez "*gerra bestela bukatua balitz Eguna jarraituko zukeen*".<sup>358</sup> Halere geroak ez du hori frogatu, kondizioak dexente hobeak izanarren.

Amaitzeko, egunkari nagusiago baten menpe bizitzea guztiz onartzekoa dela, berariz eta kabuz ezin denean. *Argia* donostiarraren azpiegitura, porrotean jausitako *Bai* harentzat; *Euzkadiren* taillerak, *Eguna*-rentzat; *Zeruko Argia* izandakoaren *Argiaren* lokalak eta plantxaren fabrikazioa gehi *Orain SA*.ren errotatiba, *Euskaldunon Egunkariarentzat*.

---

<sup>357</sup> Erkiaga, Eusebio, in *Eguna*, Eusko Jaurlaritzaren faksimil-ediziorako adierazpenetan. Kurioski, eta hau bai zor diodala oso-osoan Diaz Nociren tesiari, nire orainarteko datuen onerako, gauza bertsua gertatu zitzaion Bustinza "Kirikiño'ri (garaian "Bloa") Azkuerekin lanean hasi zenean: ez zela kazetaria eta honela erantzun zion abade lekeitiarraren eskarirari: "*Pero no puedo aceptar por la sencilla razón de que no he sido nunca periodista, ni de cerca ni de lejos, ni sé con qué se guisa eso*", Díaz Noci, J., ob. aip. I partea, 183 or. Zein tamainatako kazetari puska izan zen Kirikiño ikustea besterik ez dago, ordea, kazetari-faltarena aitzaki faltsua izaten dela askotan frogatzeko.

<sup>358</sup> *Argia*, aipatu ale berezia.

### 6.7. Euskal Egunkariaren premia eta eskea

Euskal egunkariaren ideia ez da Lizardik asmatua. Hari luzeagoa du.<sup>359</sup> Egunkaria betiko ametsa dela esan daiteke. Gaia zeharka hartzen dituztenak alde batera, hara hemen garrantzizkoenak, hots, gaiari esplizitoki heldu diotenak, salbu gorago testuan adierazi direnak.

\* **1908an Diario de Navarra**-n agertzen da Agerre'taren lumatik bi aldiz, maiatzaren 5ean eta 12an. Bigarren honetan hauxe dio: *"ziur gaude euzkel-egunerokoa argitalduko ba'litz euzkerak aurrerakada aundia egingen lukela, beraz ez da erratekoa au ateratzeko bearra"*.

\* **1908-VI-6an hasi eta 1909-I-30ra** bitartean hamar artikuluzko saila idatzi zuen "Ola" izengoitiz Engrazio Aranzadi "Kizkitzak" **Gipuzkoarra** astekarian. Horietatik azkenak, "Diario euskérico" du izenburutzat. Prentsaren balioa goraiatu ondoren, eta nazionalisten tradizioa errepikatuz euskararen galeran "euzkook" dugun erantzunkizuna azpimarratu ondoren hauxe dio: *"El gran medio a mi juicio de amparar y extender el euzkera es un periódico diario de buena información coexistiendo como es natural con el nacionalismo que es sin género de duda la salvación de Euzkadi"*.

---

<sup>359</sup> Zalakain, Jexuxmari, Euskal Prentsak hari luzea du, Euskaldunon Egunkaria, 0 zb. 1990-VII-6. Hemen ahalik eta osatuen agertuko dut ideia hau.

Egunkari hori nazionalista izanarren ez luke lotura zehatzik inolako partidurekin: *"Más el diario euzkérico sería eminentemente nacionalista, sin afiliarse al nacionalismo porque jamás, ampararía ni auxiliaría en mucho ni en poco, política exótica de ninguna clase y difundiría el euzkera, que como ante se ha dicho es la salvaguarda de nuestra fe, raza y costumbres"*.

Izatekotan, *"exclusivamente noticiero...de información nutrida y concisa...redactado en lenguaje claro(...) Sería de dimensiones reducidas, pero de maciza información"* izango litzateke.

*Olak ez dio beldurrik euskaraz izateari; kalitate ezari dio beldur: "Hágase una hoja interesante y será leída, aunque se halle escrita en euzkera"*.

Honela izanik, hara *Olaren* galdera: *"¿quién no se sentiría movido a comprar un periódico de esa naturaleza?(...) No es posible que los que se asocian para todas las manifestaciones de la vida, que los que se unen y agrupan estrechamente para el desarrollo de la industria de los sebos, de los clavos y de la hoja de lata, se nieguen a realizar un pequeño esfuerzo a fin de evitar la muerte de lengua de sus apellidos y el aniquilamiento de la raza"*.<sup>360</sup>

\* **1917.ean**, berriz, **Euskal Esnalean** isladatu zen, gai hau bereziki. *"Euskerea gorago jazoteko egunari (diario) euskarazkoa bear genduke"* dio Ormetse'tar P. A.k<sup>361</sup>

---

<sup>360</sup> Gipuzkoarra, 1909-I-30.

<sup>361</sup> Ormetse'tar P.A., Euskera bakarra, Euskal Esnalea, 1917-II-28, 148 zb.,37-38 or.

Eta segitzen du: "*Aldapa ori igoteko ezagututen dot bular sendoa, orpoetako gatxik eza eta batez bere sakel laukoz ondo betea bear direna. Alan da guzti, gauza gatxagorik asi ta jarraitu bere egiten da. ¿Euskaldunen artean eztauzkogu ainbeste egunari erderazkoak? ¿Euskerazko bat, zer dalata ezta ipiñi bear?*".<sup>362</sup>

Pare bat hilabete geroago, Aita Arbelaitz Kaputxinoak ekiten dio gaiari: "*¿Euskera biotzen jabe egiteko zer bide artu? Euskerazko eguneroko euskalzalea eman(...) Beraz egunerokoak euskerari indara aundia emango lioke, ta batasunerak bideak gertu edo prestatuko ditu(...) Eguneroko au ateratzeen badegu, Euskalerria'ri egingo diogun onak ez du neuririk izango*".<sup>363</sup>

Maiatzean berriro ekiten dio gaiari Arbelaitzek: "*Euskera piztutzeko euskerazko albistari bat nai genduke; baño, nork egingo al digu? ¿Non daude iskillu ikaragarri ori, eguneroko albistari ori egingo lutekenak? Ea arkitzen ditugun*" eta garaiko euskaltzaleen artean zer eta nork idatzi badagoela uste du.<sup>364</sup>

Uztailean diruaren arazoari heltzen dio: "*Zenbat diru bear al izango litezke albistari bat argitaratzeko?*". galdetzen du eta zenbait kalkulo egiten ditu: tamainaren arabera 12.000 ala 24.000 pezeta urtero, horretarako 1.000 ala 2.000 harpidedunez osa zitekeena.

365

---

362 Ibid.

363 Arbelaitz, Iskillu ikaragarria, Euskal Esnalea, 1917-IV-15, 151 zb.73-74 or.

364 Arbelaitz., Berri biltzaleak, Euskal Esnalea 1917-V-30, 154 zb., 113-114 or. Artikulu hau Ormetse'tar, P. A.k Egunaria ta ikastegia idatzi ondoren dator: 1917-V-15, 153 zb., 97-100 or.

365 Ikus Arbelaitz, Dirua, Euskal Esnalea, 1917-VII-15/30, 157-58 zbk., 161-62 or.

Zer egin, galdatzen du hurrengoan: "*Bildurra bota ta egunaria nai degunak alkar aditu*", horretarako *Euskal Esnalea*-ra gutunak bidaltzea proposatuz. <sup>366</sup>

Berehala etorri ziren eritziak. Ez dakit asko ala gutti izan ziren. Nik hogeit hamarren bat (30) kontatzen ditut. Denak aldekoak; bat ezik, beldur baita.. <sup>367</sup>

Iruñeako kaputxinoek, *Zeruko Argiatik* eta *Irugarrengo Prantziskotarra*-tik irakurgai onak behar zirela eta garaiko beste euskal aldizkariei (*Jesus'en Biotza'ren Deya*, *San frantzesen Deia*, *Euzko Deya*, *Euskal Erria*, *Euskal Esnalea*, *Eskualduna*, *Jaungoiko-Zale*, *Fedearen Hedameneko Urtekaria*, *Euzkadi La Gaceta del Norte*) sari bat proposatu zutenean hauxe adierazten du Zornotzako Jaungoiko-Zale Bazkunak, Iruñeako *Zeruko Argian* jasotzen den lez: "*Azkeneko zazpi urte auetan euskerazko irakurgaiekin lan asko egin ba-da ere oraindik ere zelai aundia daukugu landutzeko. Euskerazko egunari bat laxter beharko da umientzat aldizkingi polit apain bat gaur-gero bear zen, uskurtz edo erlijio idaztiak ugaritu bear ditugu". <sup>368</sup>*

Urte batzu aurrerago, 1923.an berriro plazaratzen du gaia Ormetse'tar-ek (ez ote Lizardirengana sartu zen praile bizkaitar hura?, Ormetsetar hau Bizkaiko Ajangizkoa bait zen?), Arbelaitzek Samuel Cultreraren "*Gaurko izkilu edo arma*" euskaratu zuela (egunkariak liburua jan zuela eta azpimarratuz) eta honela amaitzen du: "*Orretarako galazomenak dagozana gauza agiria da(...) baña len aitetutako eztabaidea ezker,*

---

<sup>366</sup> Arbelaitz, ¿Eremuan oju egien al det?, *Euskal Esnalea*, 1918-II, (egun-datarik gabe), 170 zb., 25-26 or.

<sup>367</sup> Ikus, Iritziak, *Euskal Esnalea*, 1918-III, 171 zb., 61-64 or., eta Naste borrhaste, *Euskal Esnalea*, 1918-IV, 172 zb., 88-90 or. (egun-datarik gabe biak)

<sup>368</sup> *Zeruko Argia*, 1920-V-18.

(1917koa alegia) *euskeran zerbait geiago gariana bere egia da da, ta gaur gitxienez euskerazko eguneroko bat biar gendukiala bere bai"*.<sup>369</sup>

Ez zen egunkaririk sortu baina ahaleginik egin zen. Urte horietan, eta seguraski *Euskal Esnaleak* Euskal Herrian zehar euskararen alde egiten zuen lan eskergaitzaren harian, orduko mogimendu euskaltzalearen baitan egunkari bat nola molda zitekeen galdezka aritu ziren.

Piarres Xarritonek eman du, berrikitan, horren albiste: *"Gorago iganez bada, aintzineko belaunaldiraino ohartzen gara, Euskaltzaindia sortu zuten Azkue, Urquijo eta Broussain-ek 1919an amets bera egin zutela. Broussainek Azkueri idatzitako bi gutunetan bederen aipu bait du Donostiako "El Pueblo Vasco"ren zuzendaria zen Rafael Picabea-ri xede horrekin egin zioten aurkezpena. Ametsa, ordea, amets huts gelditu zen, zorigaitzez"*.

370

Honela mintzo zitzaion Broussain Azkueri lehenengo gutunean: *"Ecrivez-moi, je vous prie, un petit mot, pour me donner le résultat de votre entrevue de lundi dernier avec Picabea. Je suis très impatient de connaître ce qu'on donné vos démarches et celles de Urquijo. Ah! si l'on pouvait créer un journal entièrement écrit en basque dans la capitale du Guipuzcoa, quelle propagande efficace cela constituerait pour notre vieille langue! zure Dr.B."*<sup>371</sup>

---

<sup>369</sup>Ormetse'tar, P.A., *Biar genduke*, Euskal Esnalea, 1923-IX, (egun datarik gabe), 237 zb.,161-63 or.

<sup>370</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1990-XII-16, 2 or.

<sup>371</sup> Broussain, Pierrek R.M.Azkueri, 1919-X-19an Hazparnetik. In Charriton, Piarres, R. Azkue eta P. Broussainen arteko Elkarridazketa, Iker-4., Euskaltzaindia, 1986, Bilbo 326 or. Azkuek Broussaini gai honi buruz zer adierazi zion erakusten duen kartarik ez dager baina kontestean

Eta bigarreanean: "*Cher ami, je vais répondre à votre désir en écrivant aujourd'hui même à Rafael Picavea, directeur du "Pueblo Vasco". Quoique je ne le connaisse pas, je m'autoriserai de ma qualité d'immortel et de l'amitié qui me lie à vous et à Urquijo, par l'encourager à fonder à St-Sébastien un journal exclusivement basque. Si vous le voulez je suis tout disposé à vous accompagner chez lui, avec Urquijo, le mercredi 12 Novembre. J'arriverai ce jour-là à Donostia vers 5 h. de l'après-midi, et pour ne pas laisser tout seul le pauvre Landerreche, je descendrai cette fois-ci au même hôtel que lui, l'hôtel Olasagasti, 11 Idiaquez, à deux pas de la place de Guipuzcoa. Venez m'y chercher, de 5h. à 6 h., avec Urquijo et nous irons, tous les trois, à l'administration du "Pueblo Vasco".*"<sup>372</sup>

Gutun horien erantzunik, deus ez. Egunkaria baina ez zen egin, bistan da.

\* **La Voz de Navarran** ere aurkitzen da Lizardik egin nahi zuen egunkari haren berri. Artikulua izenik gabe dator. "*En la historia vasca no conocemos hecho que llegue en trascendencia racial al del estremecimiento renacentista sentido por el País en la última década. Fuera del nacimiento de este pueblo, acontecimiento escondido, nada hay como el hecho de la reacción que le salvó de la ruina. Entendemos nosotros, tras serena reflexión, que en el orden expresado de la vida racial, al suceso de la sacudida renacentista sigue en importancia éste de la aparición de un diario euskérico. ¿Hiperbole? No. Justa verdad. Realidad".*"<sup>373</sup>

Hurrengo egunean beste bat idazten du R. de I-k: "*Nada más palpitante que un periódico diario y que más nos ponga en contacto con el mundo. Tener un diario es para*

---

igertzen da zer izan zitekeen. Milesker zuri P. Xarriton, eskatu ahala bidali zenidalako zure lanaren erreferentzia.

<sup>372</sup> Broussain, P-ek Azkueri, Hazparnetik 1919-XI-6an, in ibid. 328 or.

<sup>373</sup> "La SEV y el diario euskérico". La Voz de Navarra, 1929-VII-4.

*una lengua presentar la prueba innegable de su vitalidad.(...) Fecha memorable aquella en que su primer número aparezca".* <sup>374</sup>

### 6.8. Gerraondoko basamortuan: Euzko Gogoa

Gerraondoko lehen aldizkari euskalduna da *Euzko Gogoa*, Guatemalako erbestean Jokin Zaitetik 1949.ean mamitua. *"Euzko Gogoaren lorpenik haundiena zera da, dio Joseba Intxaustik: Herri euskaldun xumearen gainetik zegoen, eta dagoen, kultur aldizkaria osorik euskaraz ematea...Dakidanez, Euzko Gogoa izan da kultur mundu unibertsala eta jaso osorik euskaraz ematen saiatutako lehen aldizkaria".* <sup>375</sup>

*"Zertarako euskeratzaz erderaz iardun? Garai ori ioana da, ta oraingo euskal-iakitun gazteek ezin dezakete egari(...) Asmoz ta jakitez, esaten die Euskal Ikaskuntzakoei batez ere erdaraz mintzo zirela ikustean, bai, baña euskeraz".* <sup>376</sup>

---

<sup>374</sup> La Voz de Navarra, 1929-VII-5.

<sup>375</sup> Intxausti, Joseba, "Euzko Gogoari buruz solasean" in Vélez de Mendizabal, Josemari, "Iokin Zaitegi", Arrasate, 1981, 127 or.

<sup>376</sup> Ibid.

Intxaustiren eritziz, Zaitegi euskaltzale, abertzale eta jeltkide zen: "*lehenago, hura; eta haren zerbitzutan, beste biak*".<sup>377</sup> "*Abertzaletasuna, jarraitzen du Intxaustik, seguru, euskararen defentsa zen, batez ere. Naziotasunaren gainerako balio guztien gainetik, eta erro-erroan, hizkuntza zegoen Zaitegirentzat. (...) Zaitegik ez zituen hiru balio haiek berez kontrajarriak ikusten, elkarren osagarri bezala baizik; baina abertzaletasunaren eta jeltkidetasunaren aurrean euskaltzale kritikoa zela uste dut. Hau da, euskaltzaletasunetik pizten zitzaion kritika ez zuen ixildu, zenbait abertzale eta jeltkideren aurrean. Beren euskaltzaletasun epela salatzen zien lokinek*".<sup>378</sup>

*Euzko Gogoaren* lehen alea kalera baino lehen "*Asmoa*" deitu orria bidalia zuen Zaitegik laguntza eske eta han agerian dago helburua: "*Arrezkero, euskeraz bakarrik nai dugu, eusko-gogoaren barnemuiñearaiño eldu gaitezen: azkatasunaren giltza galdu baidugu, euskera galdu ezker*".<sup>379</sup>)

1954. urte-sarreran *Aturrekoa* deitu editorialean aldizkarien helburu zehatzen berri ematen du 1949.ean banatutakoa berretsiz: "*euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu nai dugu(...)* gizon ikasiak euskerarenganatu nai ditugu".<sup>380</sup>

Politikarik gabe. Baina dagoeneko, gerraren esperientzi garratzaren fruitu edo Zaitegik ondo daki bereizten partidua eta politika. "*Alderdikeriak oro bazterreratu ta euskaldun guziak onartu bear dutena onartu dugu: Euskaldun fededun izaki, erdiko bide zabaletik barna yo nai izan dugu(...)* Dagoeneko alderdikeriak porrot egin dute gure

---

<sup>377</sup> Ibid. 126

<sup>378</sup> Ibid.

<sup>379</sup> Ikus Vélez de Mendizabal, ob. aip. 89 or.

<sup>380</sup> Euzko Gogoa, 1954-I (egun datarik gabea)

*errian, batik-bat gudu-osteko Euskalerrian, beraz, beste bidetik yo nai izan dugu gure burua euskalduntzat dugunok. Arana Goiri'k erein zun irakatsietara Euskadi dugu gure aberria ta euskara gure izkera bakarra".* <sup>381</sup>

Euskara edozeren gaintik dago: *"Etzitekean bestela izan ere, izkera baita erriaren arima ta izkera galduz gero erriarenak egin du(...)Euskerak ba'dirau, gure erriak ere iraungo du".* <sup>382</sup>

Komenzituta dago Zaitegi alderdien eskutik galbidera goazela: *"Izkera alderdi guztien gaintik dago, euskeraren auzia ez du politikak andeatu (alferrik galdu) bear".* <sup>383</sup>

Bere kontsigna da *"lenik eta bein euskerari iñolako esirik iarri ez"* <sup>384</sup>; *"zargazteok bat-eginda"* jokatzeari <sup>385</sup> eta *"bide batez oro ta oroz bat elkar gaitezen, euskaldun iraun dezagun"* <sup>386</sup>; *"euskera dugula guzion elkarbide errezena eta bearrena"* <sup>387</sup>

Bazituen proiektuak Zaitegik aldizkariaren inguruan. Zeuzkan sosak xaututa etorri zen Euskal Herrira: *"Guatemalatik itzultzean itxaropentsu agertzen zaigu Zaitegi. Hango euskaldunen artean diru apur bat ahal izan du, harpidedun berriak ere eiten zituelarik. Bat*

---

381 Ibid.

382 Euzko Gogoia, 1955-I/II. aleko Atarikoa.

383 Ibid.

384 Euzko Gogoia 1955, V/VI.eko Atarikoa

385 Euzko Gogoia, 1958, V/VI.eko Atarikoa

386 Ibid.

387 Euzko gogoia, 1956-III/IV.eko Atarikoa

*bateko euforia honetan, EUZKO GOGOIA egunen batetan egunkaria bihurtuko dela esan dio Andimari, lankide-buruzagitza eskaintzen dion bitartean".* <sup>388</sup>

Baina, batuaren inguruan sortutako gatazka, Mitxelenaren zuzendaritzapean Arantzazuko Biltzar ostean hartutako erizpide linguistikoak ez oso gustoko eta beraren kontura bazterretan esandakoaz mindurik eta garraturik, <sup>389</sup>agian berezko modernotasun ezagatik ere bai, *Euzko Gogoak* pott egin zuen Guatemalatik Euskalerriratuarren. Eta, haratx: hemen, kitto!. Gazteriak nahiago izan zuen Mitxelenaren *Egan* aldizkaria, 1954an elebitasunetik elebakar euskaldun bihurtua (hau kasu bakarra da historia guztian).

### 6.3.9. Berrogei ta hamargarren hamarkadan

Euskal kulturaren aztertzaileek 1954-56artean kokatzen dute gerraondoko euskaltasunaren abiapuntua, geroztik etengabe segituko duena. <sup>390</sup> Ordurarteko etsipen-giroa nola edo hala ezabatzeko ezinbestekoa egin zen estrategia politiko berri baten premia eta hor bi obra nagusi agertzen dira gogoetaren iturri: Xabier Landaburu jeltkidearen (*La Causa del Pueblo Vasco* 1956) eta Federiko Krutwigen (*Vasconia* 1962). Esan daiteke <sup>391</sup> euskal abertzaletasunak betidanik gorde duen hizkuntzarekiko garrantzia urteotan

---

<sup>388</sup> Ikus Vélez de Mendizabal, ob, aip. 123 or.

<sup>389</sup> "Erru ugari ezarten dizkigute, baitik bat, euskaldunen batasunaren urratzaile ta alderdikari omen gera", zioen aldizkariak 1957.eko V-VI.eko Atarikoan.

<sup>390</sup> Torrealдай, Joan Mari, Euskal Idazleak, Gaur, Oiñati, 1977, 352-355 eta "Jakín 25 Urte euskal kulturán", Jakín, 1981-21 zb.

<sup>391</sup> Ikus "Jakín-25 Urte Euskal Kulturán", Jakín, 1981, 21 zb. 23 or. eta hur.

lehtasunera ekartzen dela, agian maila politiko hutsean zeregin handirik ez zegoelako edo.

Jasotzekoa da, halaber, Irujo eta ETA sortuko duen Ekin taldearen funtsezko koinzidentzia. Nafarrak esandakoa, "*La lengua de la raza constituye la primera institución de la vida vasca*". Ekin-ek ere ia hitz berdinez aitortzen du: "*Erresumaren lehen instituzioa gaur hizkuntza da*".<sup>392</sup> Aitzitik, maila politikoan, hamarkada horretan (1958) sortzen da Euskadi Ta Askatasuna, erabateko etsipenarekin eten eta ilusio berriztatua ezarriz abertzaleen artean.

Urteotakoa da euskara modernotu eta funtzionala bihurtzeko ahalegina. Garai hartakoak euskararen normalizazio-premia. Batez ere 1956tik aurrera Arantzatzuko Biltzarra eta Pariseko Euskal Batzar Orokorren urtetik alegia.<sup>393</sup> Orduz geroztik eta 1975erarte, politika abertzalea debekaturik zela, euskarazko aldizkarietan isladatu da abertzaleen lana eta euskararen azterketa eta ahal izan denean erabilpena izan dira erreibindikaziorik behinenak.

Ez da harritzekoa, beraz, giro horretan sortu zen aldizkari andana sortzea. Neurri handi batez seminario eta komentuetxeetan mamitu da euskal kultura urte horietan eta ordukoak dira, publiko zabalak ezagutu dituenak soilik adieraztearren.<sup>394</sup> *Arantzazuko Amaren Egutegia* (1947), *Anaitasuna* (giputza, 1950; bizkaitarra, 1953), *Karmel* (1956), *Goiz Argi* (1959). Euren arrakasta frankismo garaian oraindik neurtu gabe doala uste dut.

---

<sup>392</sup> Irujo, Manuel, *Instituciones jurídicas vascas*, 1945, 15 or. Beltza, "El Nacionalismo Vasco en el exilio, 1937-60", 94 or.. Dena in Jakin, ibid.

<sup>393</sup> Ikus Torrealdai ob. aip. 300 or. eta hur.

<sup>394</sup> Hain ezagunak ez direnentzat, ikus Jakin, 1981, 21 zb. 46-71 or.

Zuten tirajea (Egutegiak adibidez 1960an 16.000) euskaldunon analfabetotasun historikoa zalantzan jartzen bait du. Eta batez ere *Jakin* Arantzazuko komentuetxe frantziskotarrean 1956an jaioa. Kaputxinoen *Zeruko Argia* ahantzi barik, noski. Eta Iparraldean 1944tik etengabe eta bakar-bakarrik dirauen *Herria*.

1976.ean *Euskal Kazetaritzaren Urtea* da eta urte horretan, gorago erakutsi bezala, euskal prentsaren *gertakizuna* ematen da, geroztik beronen inguruan jira-biraka izango duena euskal prentsa osoa. Baina urte horren arrakasta pentsaezina da aurreko urteetan euskarazko prentsaren inguruan (ahaleginean eta ezinean) ibili diren guztien jokabiderik gabe (beste gertakizun batekiko leial jokatu dutenik gabe, hain zuzen).



## **VII. ATALA: EUSKALDUNON EGUNKARIA, EZEZAGUNAREN MINTZOA**

Amatiñok *Eguna* zen astegunkarian idatzi artikulu famatu hark (ikus II Atala) eta *Argiak* kaleratu zituen CIESen emaitzak bereziki (ikus I Atala) gori-gorian jarri zuen berriro euskarazko egunkari baten premia. Amatiñok, gogoratu, egitekotan EITBren formula beretik egin behar zela zioen, beraz egunkari publikoa behar zuela izan. Eta hori ez zela batere amets, borondatea izan eta dirua arazo ez zelarik. Hau egia esan, Amatiñok betidanik mantendutako ideia da. Eta azkenean Jaurlaritzak berea egingo duena ere bai.

Jaurlaritzaren eledunen artean zalantza gehiago egon da. Iñaki Zarrakoak, adibidez, gogoratu, nahiago zuen hasieran egunkari pribatua: "*Nik uste dut halako tresna batek (egunkariak) erakunde publiko baten eskuetan ez duela funtzionatuko herri honetan, geroz eta jende gutxiagok erosiko lukeela. Bizia emateko eta aurrera egiteko, pribatua. Hor okerreña zera da, bat bakarrik ateratzen badugu, zabala etab, nola elkartzen dituzun ideologia desberdineko partaideak, baina nire ustez, izanez gero, pribatua*".<sup>395</sup>

---

<sup>395</sup> Argia, 1989-X-1.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Idea honen kontrako kritika, *Egineko* bi kazetarik egin zuten lehen-lehenik, I. Bilbaok (1988-V-5) eta Jon Basterrak (1988-VI-3) alegia, egunkari publikotik egunkari instituzionalera egon zitekeen aldea eskasa azpimarratuz.

*Egunak*, Amatiñok berak zuzentzen zuen astegunkariak, artikulu-sorta bat eskeini zion gaiari. Hiru egunetan hiruna artikulu hain zuzen. Josu Landa (Argia), Amatiño (Eguna) eta Luis Núñez (Egin) (1988-VI-16); J.A. Maturana (PSOE), Josu Muguruza (HB) eta Sabin Intxaurre (EA) (1988-VI-23); Aingeru Epalza (Navarra Hoy), Mario Onaindia (EE) eta Josu Legarreta (EAJ-Jaurlaritza) (1988-VI-30).

Ordurako, gaia nahikoa harroturik zegoen goian esan bezala, urtetako polemika bait zen honoko hau. Horrela erraz da idazle bakoitzaren edukia laburtzea. Kazetarien artean Josu Landak, instituzioen asmoekiko desconfidantza azpimarratzen zuen; Luis Núñezek Jaurlaritzak ezker abertzaleari dirua emateko gogoeza; Amatiñok, gai honetan partiduen arteko adostasuna ikusirik eta egungo bipolarizazioa gaitzeko asmoz, hirugarren bidearen egokitasuna, egunkari publikoa alegia. Aingeru Epalzak, egunkariaren premia normahik eginga ere.

Politikarien artean Maturanak, egunkaria Parlamentuak ordainduta alderdikoitzat (eta interes informatibo urrikotzat) hartua izan zitekeela zioen; Muguruzak, ikuspegi zabaleko egunkaria egiteko kapaz zen bakarra ezker abertzalea zela; Intxaurregak, Parlamentuaren azterketaren interesa; Mario Onaindiak, intolerantzia ekidin eta *consensusa* lortu beharra; Legarretak, dirua problema ez izaki, guztion hizkuntza nazionalaren alde elkartu beharra.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Ia inork ez zuen aipatzen garai hartan egunkaria ez egiteko arrazoiketari. Pello Salaburu euskaltzaina, eta egun UPV/EHUko Euskararako Errektorordea, izan zitekeen salbuespena, gero Mari Karmen Garmendiak emango duen ideia berbera, eta aurreko hamarkadan ia ahobatez esandakoa errepikatuz: "*Nire ustez goizegi dugu honelako zereginetan hasteko, zoritxarrez*" <sup>396</sup> diru eza, politizazio gehiegizkoa, astekariaren lehentasuna etab. aipatuz.

Artikuluez aparte, mahainguru sail bat ere antolatu zen. Garrantzizkoenak Mungiako Torrebillelan (1988-X0-27) Amatiño, Josu Legarreta, Jon Basterra eta Jose Mari Otermin partaide zirela; ETBko *Ezbaia* programan, Karmelo Somoza kazetariaren koordinazioz, (1988-XI-18) Amatiño, Iñaki Zarraoa, Jon Basterra, Joxemi Zumalabe eta Jexuxmari Zalakain; UPVko Kazetaritza Fakultatean *Akerlanda* taldeak antolaturik (1988-XII-6) Amatiño, Josu Landa eta Jexuxmari Zalakain.

Beste mahaingururik ere antolatu zen, hala nola Eibarren "*Euskal Birus*" elkarteak bildua (1989-VI-30) Argia, Elhuyar, Hemen eta Egunako partaideak bilduz; Donostian *Diario Vascok* eratua "El bilingüismo en la prensa local" gaiaren inguruan (1989-VII-13) Felix Ibargutxi (DV), Josep Maria Casasús (La Vanguardia) eta Jose Luis Villela (La Voz de Galicia) kazetariak elkartuz, baina euskal munduan sona handiegirik gabekoak izan ziren.

Aipatu mahainguru haietan, erakarpen berezirik gabe baina, esan zen zera aipagarriarik. Josu Landa eta Joxemi Zumalabek (Argia), -"*egunkari hori egin egingo dugula pentsatzen dugu*"- eta Jon Basterrak (Egin) -"*uste dut euskal egunkariaren proiektu*

---

<sup>396</sup> El Correo Español El Pueblo Vasco-El Correo Escolar, 1988-X-20, 24, eta Eguna, 1988-XI-3.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*horretan egongo garela Egin empresa bezala"- aldizkaria eta egunerokoa balizko euskarazko egunkari horretan (entrepresan) parte hartzeko gogo sendoa erakutsi zuten.*

*Zarraoak ("estudioaren lehen parte, nolako egunkaria, aurten izango da; bigarrena, nolako enpresa, datorren urterako. Ondoren Legebiltzarrerera eramango da, han eztabaidatu eta nik uste datorren urtearen bukaerarako erabakia hartua izango da. Ea 90. urtean kaleratu daitekeen") eta Legarretak ("estudio hori abenduaren 31ean amaitu beharko du ea hortik aurrera lege irtenbideak aurkitu beharko dira") epeak ematen jardun zuten. 1988.eko udazkenean zen; 1992an euskarazko egunkaririk (*Euskaldunon Egunkaria*) izan arren, ez dager gobernuak aipatu egunkari hori.*

Amatiñok, berean segitzen zuen: egunkari publikoaren irtenbidea azpimarratuz, halaberrez ordea ("*niri ere gustatuko litzaidake egunkaria pribatua izatea, baina gizarte honek ez ditu mekanismorik ematen horretarako*"). Bere eritzia hedatzeko, erdaraz argitaratu zuen artikulu bat *Deian*.<sup>397</sup>

### **7.1. "Egunkaria Sortzen", inizatibaren zama**

1989.eko Azaroaren 1a Euskal Prentsaren historian finko geldituko da, egun horretan bildu bait zen lehen aldikotz jende andana euskarazko egunkaria martxan jartzeko.

---

<sup>397</sup> Aranbarri, Amatiño, Luis Alberto, El diario en euskera, Deia, 1988-XII-11.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Bilera Donostiako Joxemiel Barandiaran Lizeoan izan zen eta hogeita hamar bat lagun bildu ziren. Prozesu osoaren lehen deialdi publiko zabala izan zen. CIESek emandako datuek, euskaltzalegoak aspaldidanik ezagutzen zituen datuak onetsi baino ez zituzten egin. Eusko Jaurlaritzak propio eskatutako azterketak herri mugimenduak, bereziki intuizioz baina urte luzetako lan-bizikizunez ere bai, zekiena aitortzeak ofizialtasunak eskaintzen duen sinisgarritasuna baino ez zuen ematen. Bi aldiz eman ere, zeren hamarkadaren hasieran Jaurlaritzak berak enkargatutako beste azterketa batek gauza bera esaten bait zuen. (ikus Olabuenaga beherago).

Horregatik, 70. hamarkadaren hondarretan Euskal Prentsaren aldeko apustua egina zutenak, beste apustu bat egiteko prest daude. Aldizkariz osatutako egoeran beste bihurtura bat emateko prest, norabidea torsionatuz beste berritasun bat ezartzeko: eguneroko prentsa.

Orain erabakitasun horren ondoan eta inguruan ahalik eta jende gehien biltzea falta da. Gertakizun zahar haren suak zenbat berotu dituen ikustea falta da. Leialtasunaren neurria hartu beharra dago, aurretiaz bestetzu egindako prozesu subjektibo berbera egiteko zenbat dagoen prest ikusteko premia. Egunkaria egitea ez bait da aldizkaria egitea. Dimentsioz eta eskalaz askoz ere lan konplexuagoa da egunkariarena.

Aurreko urteetako historiak argi utzi du kondizio objektiboek ez daramatela *besterik gabe* egunkariruntz. Mailaka eta progresioz ez dagoela euskarazko egunkaririk egiterik. Hor dago gerraurreko *Eguna*-ren esperientzia, ez bait zen izan "*Euzkadi*" elebidunaren garapena, zenbaiten (politikoren) erabakiaren fruitu baizik. Hor dago, alderantziz, Jose Mari Agirre "Lizardi'ren porrota, giroa ezin beroago eta aldeago egon arren, erabaki pertsonalik gabe hutsean eroria. Hor dago, ikusi nahi duenarentzat, astegunkariaren esperientzia, gertuago. Hutsalak bilakatu dira, urrats, zubi, bide, pausu eta antzeko irudiak, esplikaezina

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

esplikatzeko. Apustu pertsonala, jauzi itsu-neurtua behar bait da egituraren egoera eta errepikapen-katea (agian hobegarria) hausteko. Ezintasunaren mintzoa ahozkatu beharra dago egitea bera daitekeena bihurtzeko.

Azaroko bilera hark izan zuen segidarik, Durangoko Udaletxeko aretoan, hain zuzen (1989-XII-10), non besteak beste, berrogeita hamar bat lagun bildurik, egunkariaren ezaugarri nagusiak aurkezten diren eta proiektua zehatz-mehatz lantzeko akordioa hartzen den eta Donostiako Udalaren Euskal Txokoan (1990-I-21) non *Egunkaria Sortzen* promotora (hemendik aurrera ES) formalki antolatzen den eta batzorde bereziak izendatzen. *"Amaitu da eztabaida antzuen garaia"*, zioen Jon Basterrak.<sup>398</sup>

Joan Mari Torrealdai eta Joxemi Zumalabek zehatzago: *"zazpi urte pasa ditugu honetan. Hor ikusten da diskurtsoa ez dela ezer aldatu, ES proiektu hau bideratzen hasi bitartean (...) Beti egon gara esanez kulturak bere autonomia duela, planteatu behar direla gauzak indar sozialen aldetik eta, horrela, momentu batean, indar sozialak bildu dira eta egon den diskurtso antzu hori hautsi eta..Guk egin egingo dugu".*<sup>399</sup>

Baina ESen bi eledunon hitzek inizatibaren garrantzia azpimarratu zuten, geroak erakutsi duenez zama astuna bilakatu dena gainera: *"Komunikabide idatzietan instituzioekin beti aurkitu gara ez dugula izan politika garbirik. Aldez aurretik definitutako politika bat aldizkariari begira, egunkariari begira...Hori ez dugu ezagutzen. Orduan ezin gaitzke instituzioek zer egingo duten zain egon. Hori ez da sartzan gure filosofian. Gurean sartzan*

---

<sup>398</sup> Egin, 1990-II-2, une hartako egoera laburbilduz.

<sup>399</sup> Egin, 90-III-11.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

da gauzak egitea eta euskarazkoak eta euskararen aldekoak izanik behar dutela laguntza bat". <sup>400</sup>

Areago oraindik, lehen momentutik izandako susmoa errealitate huts bilakatua da azken urte t'erdian gertatutakoa gertutik ikusita. "Tamalgarria litzateke errealitate den ekimen bat neutralizatzeko bakarrik sortzea beste hau (Belokirena alegia). *Herri honetan horrelakoak ezagutu ditugu eta gehiago hauteskunde garaian. Behin baino gehiagotan ikusi ditugu euskararen arazo garrantzitsuak unean uneko behar politikoetara supeditatzen. Pena litzateke gure proiektua neutralizatzeko izatea, baina ez dakigu oraindik zein den haien asmoa, baina paradójikoa da sektore ezberdin mordera bildu denean saioa egiteko, orain arte ezezkotan zebiltzanak, saio horretatik kanpo beste paralelo bata proposatzea".*

401

### **7.1.1. ES, herri indarrak biltzen**

Barandiaran Lizeoko bileraz geroztik proiektua mamitu arte herri indarrak biltzeari ekin zion bertan zen jende-multzoak. Lehen bilkura hartan honoko erabakiok hartzen dira: *"lehenik eta behin euskarazko egunkariaren aldeko giroa sortu horrelako prozesu batetarako euskaldungoaren onarpena lortu asmoz; horretarako firma bilketa bat egin Azaroan zehar Durangoko Azoka bitartean; euskarazko eguneroko prentsaren ezaugarriak*

---

400 Ibid.

401 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*aztertu eta horri buruzko proposamen bat egin hurrengo bilera batetarako (horretarako lan-taldea sortuz)"; hitz egin eta erabakitakoaren berri bilerara bildu ez ziren euskalgintzako sektoreei eman ondoren, beste batzar zabal bat egin egunkaria sortzea erabakitzeko, baldin eta aurreko puntuak positiboak baloratu ondoren komenigarri ikusiko balitz".* <sup>402</sup>

Puntuok egunkaria sortzea ala ez sortzea erabaki amankomun baten esku uzteari hobesten badiote ere, apustua egin dagoela esango nuke nik. Apustua antolaketa aurretik bait da. "Jaurlaritzak argitaratzen ez zituelarik, dio ES-en proiektuak, ARGIA astekariak ikerketa horren emaitzak argitaratu zituenetik jakin zen eguneroko prentsa baten alde apustu egitea ez zela erokeria eta euskarak hain beharrezko duen egunkari hori posible egiteko baldintzak sortzen eta eskatzen hasteko garaia iritsia zela". <sup>403</sup>

Apustuaren arrakasta, ordea, burruka amankomunean dago. Horregatik, "zera azpimarratu nahi dugu puntu guzti horren artetik, dio aipatu proiektuak, euskaldun irakurleagoak egunkariaren premia sentitzen duela eta, azterketak dionez behinik-behin, euskal egunkariak kontutan hartzeko moduko irakurleago kopurua izango lukeela. Gauzak ez dira horren sinpleak, hala ere, egunkari bakar baten ordeztu bi edo hiru ere argitaratuko balira. Nabarmenezkoa da, ordea, azterketak dioenez, euskaltzale sektore ezberdinen arteko batasunaz eginiko egunkari ez instituzional batek izango lukeela etorkizuna errazen, edonola ere subentzio publikoak beharrezkoak liratekeelarik".

<sup>404</sup>

---

402 Euskarazko Egunkarirako Proiektua, 6 or. 1989an herriz herri eta eskuz esku banatua. Artxibo pertsonala.

403 Egunkaria Sortzen, Euskarazko Egunkarirako Proiektua, 5. or.

404 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Firma bilketa egin zen Azaroaren 19an Lizartzan Udalerri Elebakarren Eguna zela aprobetxatuz; Euskal Herria zehar, 26an Argia Eguna Euskal-Prentsaren Eguna zelarik 200 bat herritan; Abenduak 2an EHE taldeak Donostian egin manifestaldian; eta azkenik Durangoko Azokan Abenduaren 7tik 10era bitartean.

Hogei eta hamar mila (30.000) sinadura merezi izan zuen *"Euskerazko eguneroko prentsaren alde"* testuak hauxe zioen: *"Agiri hau izenpetzen dugunoi beste hizkuntzetan egunkariak betetzen duten funtzio soziala eta geurean dagoen hutsunea nabarmen agertzen zaigu. Alde horretatik eta Gobernuak enkargatutako CIESen ikerketak nahiko datu baikorrak agertzen dituela ikusirik, Euskal Herriko instituzio ezberdinei eskatu nahi diegu, dagokien bezala, arau ditzatela euskal prentsaren alorrean aldizkari zein eguneroko prentsarako beharrezko diren laguntzak. Euskal Herrian diren inizatibak ezin dira laguntzarik gabe bizi. Hemen izenpeturik, adierazi nahi dugu, beharrezko dugula eta zor zaigula, euskerazko eguneroko prentsa".*<sup>405</sup>

Testua, egia esan, eskekoa da. Aurreko hamarkada osoan eskatutakoa errepikatzen du. Euskaltzalegoaren premia adierazten du. Eskubidea ere bai. Baina horretan gelditu izan balitz euskaltzalegoa, beste hamar bat urte galtzeko atea izanen zatekeen. Oraingoan, baina, apustu sendoa egina zen. Testu hura honoko hauek bultzatu zuten hurrenez hurren sinadura publikoz: Joxe Migel Barandiaran antropologoa, Karlos Santamaria idazlea, Martin Ugalde idazlea, Julen Kaltzada itzultzailea, Paulo Agirrebaltzategi, EKBko lehendakaria, Antonio Campos EHko Ikastolen federakundeko lehendakaria, Joseba Jaka, Zabaltzen banaketetxeko arduraduna, Txema Auzmendi Herri Irratiako kazetaria, Sabin Gaztañaga (G.B.) AEKko arduraduna, Alfontso Mujika

---

405 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

UEUko idazkaria, Jon Basterra EGINeko kazetaria, Jesus Mari Zalakain, EHUKo irakasle eta kazetaria, Jon Orbezua EHEko arduraduna, Pello Esnal pedagogo, Pello Zabaleta idazlea, Joxe Azurmendi filosofoa, Joserra Garzia ETBko kazetaria, Jokin Aldazabal Herri Irratiako kazetaria, Aingeru Epalza Navarra Hoyko kazetaria, Luis Núñez soziologo eta kazetaria, Joseba Intxausti JAKINeko arduraduna, Elixabete Garmendia kazetaria, Iñaki Zabaleta, kazetari, idazle eta EHUKo irakaslea, Luzien Etxezaharreta Gure Irratiako kazetari eta idazlea, Xipri Arbelbide, Gure Irratiako kazetari eta idazlea, Josu Landa ARGIAko kazetari eta idazlea, Jose Ramón Etxebarria UEU eta EHUKo irakaslea, Eugenio Arraiza Eusko Ikaskuntzako, Jose Luis Larraza Nafarroako Ikastolen Elkarteko idazkaria, Fernando Unsain telebistako ekoizle eta kazetaria, Edorta Kortadi Eusko Ikaskuntzako, Dionisio Amundarain, Lazkaoko Maizpide Euskaltegikoa, Iñaki Larrañaga SIADECOKo soziologoa, Anton Mari Aldekoa-Otalora Gerediaga Elkartekoa, Imanol Lazkano bertsolaria, Sebastian Lizaso bertsolaria, Andoni Sagarna Elhuyarekoa, Adolfo Arejita Idatz § Mintz aldizkariko zuzendaria, Joxe Aranzabal Arrasate Press aldizkariko zuzendaria, Aretxagazeta aldizkariko Kontseilu Zuzendaria, Baleren Bakaikoa EHU eta UEUKo irakaslea, Jose Ramon Bilbao Bilboko Aurrezki Kutxa Muzipaleko euskara arduraduna, Eusebio Osa EHUKo irakaslea, J.L. Davant idazlea, Iñaki Irazabalbeitia UEUKo zuzendari eta Elhuyar Elkartekoa, Gotzon Garate idazlea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Mikel Aramendi Zer Egin? aldizkariko zuzendaria, Mirari Bereziartua EHko Ikastolen Federakundeko idazkaria, Urtsa Errasti Arabako Ikastolen Elkarteko lehendakari ordea, Juan Mari Lekuona Euskaltzaindikoa, Jose Antonio Arana Martija Euskaltzaindikoa, Julita Berrojalbiz andereñoa, Txillardegí EHUKo irakasle eta idazlea, Iñaki Uria ARGIA aldizkariko kazetari eta idazlea, Pello Zubiria Larrun aldizkariko zuzendaria, EKBren Nazio Batzordea bere osakide guztiekin batera.

Durangoko Udaletxeko Aretoan, Abenduak 10, egunkariaren ezaugarriak (euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala, independientea alderdiekiko eta erderazko

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

beste medioetatik, ez instituzionala, diru-laguntzaren beharrekoa, militantea, profesionala eta berria) onesteaz gain (ikus, beherago), *"egunkaria martxan jartzeko ezinbesteko jo zen Talde Eragilearen sorrera"* honoko betebeharrak hauekin: *"egunkarirako bidea zabaltzea, proiektua landu, finkatu eta gizarteari zein erakundeei aurkeztea, laguntzak bilatzea, proiektuak bere helburu nagusiekin ondo atxekitzea eta instituzioekiko harremanak bideratzea"*.<sup>406</sup>

Azkenean 1990-I-21ean Donostiako Udaletxeko Euskal Txokoan aukeratu ziren Talde Eragileko partaideak eta hiru batzordeen kideak. Kide guztiak pertsonalki (ez kolektiboren baten izenean) aurkeztuak izan ziren: *"proiektuaren independentzia eta zabaltasuna garantizatuagoak bait daude beti ere. Halarik ere euskal munduan eraginik duen giza sail ezberdin guztien ordezkari ez bada ere, islada behinik behin bildu nahi izan da. Talde Eragile honetan, besteak beste, lanbide eta kultura sail ezberdinetako lagunak barneratuz proiektuan"*.<sup>407</sup>

Hauexek osatu zuten **Talde Eragilea**: Karlos Santamaria idazlea, Eusko Kontseilu Orokorreko kontseilari ohia, Martin Ugalde idazlea, historigilea, "Deia" egunkariko zuzendariorde ohia, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Sustapenerako Zuzendari ohia, Juan Mari Torrealdaiz soziologoa, "Jakin" aldizkariko zuzendaria, Julen Kaltzada itzultzailea, AEKko lehendakari ohia, Joseba Jaka "Zabaltzen" banaketetxearen arduraduna, Joxe Azurmendi filosofoa EHUko irakasle eta idazlea, Joxerra Garzia idazlea, ETBko "Hitzetik Hortzera" saioko arduraduna, Iñaki Zabaleta idazlea, EHUko Kazetaritza Saileko zuzendaria, Luis Núñez soziologoa, Jean Louis Davant idazle eta Euskaltzaindiko partaidea, Jakes Bortayrou Iparraldeko AEKko arduraduna, Nerea Azurmendi kazetaria, Donostiako Udaleko

---

<sup>406</sup> ESen akta publikoa. Aipatu proiektuan jaso. Artxibo pertsonala.

<sup>407</sup> Egunkaria Sortzen, Euskarazko Egunkarirako Proiektua, 13 or.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

prentsaburua, "Gaur Express" egunkariko zuzendariorde ohia, Xalbador Garmendia itzultzailea, Hasier Etxebarria ETBko "Fahrenheit" saioko zuzendaria, Imanol Murua Uria, "Argia"ko kazetaria, Jon Basterra "Egin"eko erredaktoreburua, Aingeru Epalza idazlea, "Navarra Hoy" egunkariko "Nafarroa Gaur" euskarazko gehigarriko arduradun ohia, Nafarroako Gobernuko itzultzailea, J.A. Arana Martija musikagilea, Euskaltzaindikoa, Alfontso Irigoien Euskaltzaindikoa, Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Sagrario Aleman, "Ikastari"ko arduraduna, Joxe Agustin Arrieta idazlea, Gipuzkoako Kutzako euskara arduraduna, Julia Berrojalbiz andereñoa, ikastolen aintzindaria Bizkaian, Joxe Ramon Bilbao Bilbao-Bizkaia Kutzako euskara arduraduna, Urtsa Errasti, Arabako Ikastolen Federakundeko lehendakaria, Elene Lizarralde aktorea, ETBko "Denbora pasa" saioko zuzendaria, Josu Landa idazlea, "Argia"ko kazetaria, Xabier Arzelus "Hemen"eko kazetaria, Iñaki Irazabalbeitia "Elhuyar" aldizkariko zuzendaria, UEUko buruzagia, Jexuxmari Zalakain kazetaria, UPVn Informazio Zientzien Fakultateko irakaslea, Paulo Agirrebaltategi EKBko lehendakaria, Jesus Mari Eizmendi "Deia"ko kontseilari delegatu ohia, Baleren Bakaikoa ekonomilaria, UPVko Zuzenbide Fakultateko irakaslea, Eugenio Arraiza, "Eusko Ikaskuntza"ko idazkaria Nafarroan, Karmele Aierbe, EHEko arduradun nagusia, Joxe Mari Ostolaza "Eltzegor" taldeko kantaria, Fernando Unsain telebista ekoizlea, IZ disketxeko arduraduna, Iñaki Uria "Argia"ko kazetaria, Sabin Gaztañaga (G.B.) AEKko arduraduna Bizkaian, Xabier Mendiguren Bereziartua itzultzailea, Pello Zubiria "Argia"ko kazetaria eta "Larrun" aldizkariko zuzendaria, Josus Muniozguren "Elkarlan"eko arduraduna, Txema Auzmendi "Donostiako Herri Irrati"ko kazetaria, Bernardo Atxaga idazlea, "Premio Nacional de Literatura"z saritua, Joxemiel Zumalabe "Argia"ko partaidea, Andoni Sagarna UZEIko partaidea eta Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordekoa, Pako Aristi idazlea, Koldo Izagirre idazle eta zinegilea, Iñaki Larrañaga soziologoa SIADECOKo zuzendaria, Joseba Intxusti historigilea, UZEIko partaidea, Daniel Landart idazle eta antzerkigilea, Edorta Kortadi "Eusko Ikaskuntza"ko idazkaria, Fermin Lazkano AEKko arduraduna Gipuzkoan, Henrie Duhau kazetaria, Mikel Bujanda "Euskalerrria Irrati"ko zuzendaria, Benito Lertxundi

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

kantaria, Felipe Juaristi idazlea, "DV-Zabalik"eko kazetaria, Adolfo Arejita "Labayru Ikastegia"ko arduraduna, Jon Lopategi bertsolaria EHko txapelduna, Patri Urkizu EHko Idazleen Elkarteko lehendakaria, Gexan Lantziri, "Seaska"ko lehendakari ohia, Imanol Lazkano EHko Bertsolarien Elkarteko lehendakaria, Eusebio Osa EHuko Euskara kabineteko burua, Roger Idiart idazlea, Juanjo Arkarazo "Video-scop"eko gerentea, Juan Mari Lekuona idazlea, Euskaltzaindiko partaidea, Antton Mari Aldekoa-Otalora, "Gerediaga" Elkarteko arduraduna, Jokin Aldazabal "Euskadi Irratia"ko kazetaria, Gotzon Garate idazlea Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Pedro Ruiz de Ulzurrun, "Príncipe de Viana"ko arduradun ohia, euskaltzaina, Emile Larre "Herria" aldizkariko zuzendaria, Luzien Etxezaharreta "Gure Irratia"ko arduraduna, Ramuntxo Kanblong enpresaria, Luis Goia "Trenbideko Filmeak"eko ekoizlea, Sebastian Lizaso bertsolaria EHko txapeldunordea, Erramun Baxok hizkuntzalaria EHuko irakaslea eta "Pizkundera" elkarteko arduraduna.

Talde Eragile honen esku hiru batzorde eratu ziren: **Batzorde Bateragilea** (edo diplomatikoa) Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei, Txema Auzmendi, Sagrario Aleman, Luzien Etxezaharreta, Karmele Aierbe eta Joxemi Zumalabek osatua; **Ekonomik Batzordea** Urtsa Errasti, Joseba Jaka, Luis Goia, Fernando Unsain, Fermin Lazkano eta Joxemi Zumalabek osatua; **Kazetal Batzordea** Nerea Azurmendi, Iñaki Zabaleta, Jexuxmari Zalakain, Josu Landa, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei, Koldo Izagirre, Hasier Etxebarriak osatua.

Multzo honen zabaltasunez izan da komentariarik, jakina. Mikel Atxagak bereziki bere *Deiako "herriko plaza"* eksklusibotik "Consensurik handiena" ukatzen zuen (1990-VI-28), ESen inizatiba sistematikoki ukatzeko ohiturari jarraiki (ikus adibidez, 'Egunkaria ez dago subastan' 1990-IV-24, "Egunkaria berriro zulora" 1990-IV-27, "Egunkariaren jatorrizko bekatua" 1990-V-18, "Bi txar baino bat ona hobe" 1990-VI-19) Izan zitekeen

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

zabalago, baina nork aitortzeko publikoki gonbidatua ez dela izan edo bere partehartzea debekatua izan denik?

ES taldearen indar-bilketa ez zen amaitu, jakina, Talde Eragilerako partaideak biltzen edota sinadura-sorta jasotzearekin. Proiektuaren ezaugarri nagusia izan da. Enpresa bera jende askoren diru gutxika osaturik bait dago.

1990.eko maiatzaren 5etik Uztailaren 15era egin zuen ES-ek promozio-kanpaina, amaitzeko izugarritzko jaialdi gogoangarria antolatuz Donostiako belodromoa gainezka jarrita, non 0 zenbakia aurkeztu zen (28.000 ale salduz).

Epe horretan 185 batzorde eta 143 herritan 3.000 pertsona aritu ziren jo-ta-fuego; 140 bat jai egin ziren herriz herri, beste hainbeste aurkezpen, bertoko jendea ( azken zifren arabera 90.000 bat) inplikatuz, eta 50 bat milioi *herritar* jasotzeko. <sup>408</sup>

Bitartean euskal kulturarekin zerikusirik duen elkarterekin ere bildu ziren ESeko kideak, hala nola Ikastolen Konfederakundea (1990-VI-1), Bertsolarien Elkarte (1990-VI-12), Euskal Herriko Unibertsitatea (1990-VI-12), UZEI (1990-VI-13), Idazleen Elkarte (1990-VI-15), Euskaltzaindia (1990-VI-15), Udako Euskal Unibertsitatea (1990-VI-16), Eusko Ikaskuntza (1990-VI-18). Aurrezki Kutxa guztiekin, zenbait enpresa handirekin zein Udaletxe handietan ere aurkeztu zen proiektua.

### **7.1.2. Lehen erreakzioak**

---

408 Ikus 1990-VII-27ko prentsa.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Proiektua kalera orduko (edo kasik) erreakzioak ere agertu ziren. Geroak argi utzi du proiektu hark erroak zituela euskaltzalegoan, euskalgintzan diharduten gehiengo nabarmenean.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, beste proiektu baten azterketa jarri zuen martxan, oraindik (1992.eko udazkena) antza denez gauzatzerik ez dena.

Hori gerorako utziz hara zein nolako erreakzioak eragin zituen ES taldearen inizatibak. Kronologikoki hartuta hauek izan ziren eztabaida bistakoenak: Lekeitioko Mahaingurua (1989-XI-19) non ETBko Imanol Agirre kazetariaren inguruan Pello Urzelai (*Hemen*), Iñaki Uria (*Argia*), Elixabete Garmendia (*ETB*) bilduz; Euskadi Irratia-ko "Iturri Onetik" irratsaioan, Odile Kruzetaren eskutik (1989-XII-11) Jose Ramon Beloki (*Deia*) Pello Zubiria (*Argia*), Ramon Etxezaharreta eta Nerea Azurmendi bilduz; ETBn Amatiñoren "Astelehen Buruzuri" programan (1989-XII-6an Joseba Arregi Kultura Kontseilariari hitza emanez) eta (1990-I-15) Joxe Austin Arrieta (HB), Jean Haritxelar (Euskaltzaindia), Joxemi Zumalabe (ES), Iñaki Zarraoa eta Mari Karmen Garmendia (Jaurlaritzza) eta Ramon Etxezarreta bilduz. Eta azkenik Amatiñoren artikulua (*Deia*, 1990-I-15; *Argia*, 1990-I-21).

Dagoeneko bi arrazoiketa-multzo bereiz ditzakegu (zenbait bariantez jakina), Jaurlaritzaren inguruan dabiltzanak eta ES promotoraren aldean dabiltzanak eraginda. Zenbait pertsonaia-giltzarri agertzen dira gainera: Joseba Arregi Kultura Sailburua (Zarraoa eta Garmendiarekin) eta Jose Ramon Beloki kazetaria batetik; Pello Zubiria kazetaria,

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

artean *Argiako* partaide eta euskarazko egunkariaren lehen zuzendaria (ESen inguruan dabilzan guztiekin) bestetik.

Jaurlaritzaren inguruko jendeak prekauzioa eta astiro joan beharra azpimarratzen du, edozeren gaintik euskararen balizko porrota ekidin beharra. Arregik ETBko aipatu programan bi ideia plazaratu zituen: goizegi izatearena eta porrotaren beldurrarena.

Ez zen batere orijinala izan, Mari Karmen Garmendiak Jon Basterra EGINeko kazetariari egindako adierazpen berberak bait dira. Hauxe zioen Jaurlaritzako Euskara Sustapenerako Zuzendari andereak: *"Ni komentzituta nago goizegi dela.(...) eta nik benetan esaten dizut, ez dut uste mereziko lukeenik frakaso bat bultzatzeak (...) Hemen, Eguna, Zabalik oso esperientzia politak dira eta uste dut horrek baduela izateko arrazoia eta gainera alderdi on asko dituela. Hortik beste salto bat emateko garaia ez dut uste iritsi denik(...)* Euskararen normalkuntzarako beharrezko eta desiragarri da euskarazko eguneroko prentsa, baina euskarari kalterik egin gabe planteatu behar dugu eta posible den eta nola porrotik egin gabe. Porrot finantziero bezala ez dit beldurrik ematen, arazoa ez da dirua. Baina ateratzen badugu eta ez bada saltzen, ez bada irakurtzen eta itxi behar baldin badugu hori euskararentzat jipoi izugarria litzateke".<sup>409</sup>

Beloki kazetariak, "egunkaria ikustera iritsi behar gara" (...) "merkatua atera aurretik goitik behera diseinatu beharra" azpimarratzen du. Porrotaren beldurra ere badu kazetari honek "Nik badaezpada prekauzio guztiak hartuko nituzke. Hasi eta ehun edo mila ale saltzea gerta daiteke eta nik horren alde ez dut boturik emango".

---

409 Egin, 1989-X-9.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Zarraoak ere ideia berbera errepikatzen du: goizegi eta porrotaren beldurra. *"(egunkaria) gaur-gaurkoz egitea ezinezkoa da; egunkari hori kaleratu baino lehenago zenbait azterketa egin behar da, horrek porrot egiten baldin badu Euskal Herriak eta euskarak nahiko egurra jasoko du-eta".*

Mari Karmen Garmendiak beste erabateko beldurra ere plazaratu zuen, kazetarigaien eskasia alegia: *"Ba al da esate batera, horren kargu egingo litzateken gorengo mailako talde profesionalik?; eta garbi utzi nahi dut ez nukeela gazteen eskutan utziko, duintasun bat eta behar bezalako kondizioak behar direlako"* Eta oraindik beste bat: *"...zenbateraino gara gauza eguneroko informazioaren eskari horri erantzuteko?"*.<sup>410</sup>

Gutziz besterik erizten diote ES inguruan ari direnek. Lekeition (1989-XI-19) Pello Urzelaik *"inoiz egiten ez bada beti izango da goizegi"* arrapostu zion Mari Karmen Garmendiak esandakoari.

Mikel Bujanda kazetariak egunkari nafar baten orrialdetatik: *"Porrota etorri daitekeela esan izan da, baina etorriko balitz ere, ez litzateke daukaguna baino porrotago: egunkaririk ez izatea prentsa idatzian euskarari duintasunik gutxieneko tratamendua ematen dion mediorik ez izatea, hori bai, hor porrota konstatatu, ziur-agiriaz sinatu daiteke: etor litekeenaren porrota, okerrena emanik ere, probabilitatea besterik ez da"*.<sup>411</sup>

Edo Iñaki Uria kazetariak *"..baina egia da halaber saioa egin gabe ezingo dela sekula jakin porrot egin ala arrakasta izanen duen"*.<sup>412</sup>

---

410 Artikulu hau Mikel Atxagak berea egin zuen: Deia, 1990-II-3

411 Navarra Hoy, 1990-II-18

412 Navarra Hoy 90-III-4.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Erreakzio tipikoa da apustu egin ez duenarentzat beti da goizegi; apustua egin duenarentzat, ostera, ikusteko dago.

Pello Zubiriak, *"Iturri Onetik"* irratsaioan apustua eta militantzia aipatu zituen Argiaren esperientzia pertsonalean oinarrituta: *"Jaio aurretik ere apustua hor dago eta apustu horretan dago definitua, baita ere, zer produktu aterako den (...) Orduan bezala jende talde bat badago esfortzu bat egiteko, eta jakina, medio ekonomiko batzu tarteko, proiektu horrek beti izango du apustu eta militantzia zentzua"*.

Halere ordu-ordukotz Arregik ate bat uzten zuen zabalik. Aipatu telesaioan honoko hau bota bait zuen: *"...ateratzen badute (ESkoek) atera dezatela. Merezi badu, lagunduko zaio"*. Ez zirudien gerora hartutako jarrera zorrotza hartuko zuenik. Baina, zer esan nahi ote zuen, *"merezi badute"* misterioitsu harekin 'nire aurrikus politikoeekin ados badatoz' baino, edota CIESen azterketa ezagutu aurretik esandako *"positiboa bada"* igerle hura baizik ?

Jaurlaritzak ez zuela seriotzat hartzen ES elkarteko kideen apustua esango nuke nik. Musean egiten diren *farol* horietako baten aurrean zirelakoan zeuden. Zarraoak berak aipatu elkarrizketa famatu hartan hauxe zioen egunkaria ateratzeko formularik egokienaz galdeturik: *"Hori da aztertzen ari garena. Hori izan daiteke elkarte berezi bat sortzea edo orain inguru honetan zabilzatenon artean elkartu zerbait egiteko, eta ea ados etortzen zareten horrelako bat eramaten"* .

Gauza bera errepikatu zuen bere *"edo...edo bestela"* propioan Urtarrileko *Astelehen Buruzuri* sonatuan: *"...edo gaur egunean euskal egunkari pribatu baten alde dauden guztiak batu eta euskal egunkari pribatu bat aurrera ateratzen dute, edo bestela, administrazioak aterako duen euskal egunkari batean pentsatu behar dugu"* .

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Bi urtetako perspektibaz (*pribatuaren* aldekoak batu eta egunkaria kalean) galdera bat dago aidean: irtenik, nola justifikatu erabateko laguntza eza?

Joxemi Zumalabek, badaezpada ere (bereziki Ramon Etxezarreta eta Amatiño *euskarazko egunkari pribatua enpresa pribatuak bezala tratatu behar direla* eta egunkari publikoaren aldeko soinua ari bait ziren jotzen) egina zuen oharra: "*Euskararen inguruko inizatibei subentzioak kenduz gero, hau basamortuan bilakatzeko zorian ginateke euskararen edozein proiekturi subentzioa kentzea euskararen kontrako erabakia bait litzateke; instituzioei eskatu behar zaiena zera da, erdararekin konpetentzian euskarazko medioek jasaten duten presioak eragindako diferentzia hori ordaindu dezatela eta hori kuantifikatu daiteke. Jaurlaritzari eskatzen diogu arau ditzala eguneroko prentsarentzako laguntzak, zeren zein laguntzak etor daitezkeen jakinez gero jakingo genuke zeien proiektu egin dezakegun, bitartekoen arabera proiektuak ere diferenteak bait dira*".

Halere indizio guztien arabera garai honetan Jaurlaritzan ez zeuden egunkari publikoaren alde <sup>413</sup> egunkaria publikoaren alde garbien bera eta Ramon Etxezarreta egon dira betidanik. <sup>414</sup> Gai hau beherago ikusiko da VII atal honetan bertan.

### **7.1.3. Jaurlaritza oztopoka**

---

<sup>413</sup> Ikus Amatiño, Argia, 1990-II-1.

<sup>414</sup> Ikus gainera Deia 1990-II-1 eta aipatu Astelehen Buruzuri programa non Ramon Etxezarretak argi adierazi zuen "*egunkari publikoa da alternatiba*".

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

ES promotorak euskarazko egunkaria egiteko erabaki zindoaren berri eman zuenetik Jaurlaritza ez zen geldi geratu. Berehala jakin zen beste proiektu bat aztertzeke martxan zeuzkala behar beste baliabide (CIESen datuak publikoaren aurrean esplikatu gabe, Legebiltzarrean aurkeztu gabe, juxtu zertan ziren adierazi gabe).

*Egunak* martxoaren 8an, hilaren 1ean emandako gertakari bat ziurtatzen du, Iñaki Zarraoaren hitzak ekarriz. Alegia, Kultura Sailak euskarazko egunkariari buruzko azterketa bat egiteko lan-taldea sortzea erabaki zuela, talde-buru Jose Ramon Beloki, artean *Deiako* kazetaria, jarririk.

Hurrengo egunaren informazioaren arabera, Mari Karmen Garmendiak berak esana omen zion "*joan den urtean*"<sup>415</sup> Ardanzari "*euskarazko egunkaria sortzeko erabakia har dezala Jaurlaritzak*". Auskalo, baina ez da hori, berak esandakoa. gorago ikusiko denez. Porrotaren mamua, kazetarien eza, ezina eta antzeko ideiak behin eta berriro aldarrikatzen ibili ondoren egunkaria egiteko batzorde tekniko bat izendatzeak egunkaria egiteko une aproposa zela aitortzen du batetik, eta bestetik ES-ek hartutako inizatibarekin bategiterik nahi ez izatea adierazten. ES-en hamaika aginduak ezagututa (beherago) ez zegoen zertan talde berririk sortu beharrik. Egindakoa aztertzea, kritikatzeta eta hobetzea nahikoa eta sobera zen. ES-en proiektua zabala eta baterakoia izateko gauzatu zen. Edozein euskaltzalerentzat irekia. Inolaz ere ez instituzioen kontra, ez-instituzionala baizik.

J.R. Belokiren izendapena *ofizialki* 1990-III-14an eman zuen aditzera Joseba Arregi Kontseilariak ETB-1ko *Fahrenheit* teleaioan eta aurkezpen publikoa Donostian 1990-IV-4an.

---

<sup>415</sup> Deia, 1990-III-9

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Ordurako hiru hilabete zeramaten lanean ES promotorako batzordeek, proiektua Durangon erakutsitako hamaika agindutara atxeki nahirik. Bazterretan kezka bat agertzen da ageri-agerian: baterakoitasuna.

Ordurarte bateratze-prozesua egunkari *pribatua* egiteko prest zirenen arteko eskaria zen; (ezean, administrazioak egingo zuelakoan, gogoratu!). Orain, berriz, bi proiektu kalera daitezkeela nonbait eta gisako astakeriarik ez egiteko edo.

Honela zioen Jon Basterrak *Egin*-eko "*Puntaren puntan*" zutabetik gerora Euskal Herriko Ikastolen Konfederakundeak, zenbait partiduk eta norbanakok, aipatutako arrazoiketa zentratuz: "*Beraz, abertzale, euskalzale eta aurrerakoia izan nahi duen edozein estrategiatan garrantzi berezia eman behar zaio baterakoi jokatzeari, euskaldunon arteko kontsentsoa bilatzeari, hitz batetan esanda, herri euskaldunak exijitzen digun batasunari erantzuteari (...) Bai gobernuari eta bai proiektu herritarrari, ES promotorari alegia, eskatu eta exijitu behar zaie, behar den malgutasuna eta imajinazioa, bion onespena eta bultzada jasoko lukeen formula bat aurkitzeko egunkari bakar bat bideratzeko...bi ateratzen ahalegintzea suizidioa litzateke behintzat*".<sup>416</sup>

CIESen azterketak egunkari bakarraren ezinbestekotasuna aldarrikatu gabe ere, Jaurlaritza egunkari bakar baten alde jarri zen ezbairik gabe, egun horietan gerra garaiko *Eguna* berrargitaratzen zuela aprobeztatuz eta egunkari hartan lan egin zutenei Jaurlaritzak berak egindako omenaldian (1990-III-30). Hau ere *alagontra*, *Argiakoek* ere hilabete bat lehenago egin bait zion omenaldi hori *Eguna* zenari, Euskal Prentsa Eguna ospatu asmoz, "Argia Euskal Prentsa Sariak" banatu aurretik, Augustin Zubikarai, Eusebio Urkiaga, Iñaki

---

<sup>416</sup> Egin, 1990-III-16.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Eizmendi "Basarri" eta Jesus Intsausti "Uzturre" goraiapatuz Lasarteko Txartel ostatuko afarian. Jaurlaritzaren omenaldira ez bezala, lau kazetari horiek *Argiakora* azaldu ez zirenez, Xanti Onaindiak jaso zituen opariak beraien izenean.<sup>417</sup>

*"Beraz, zioen Zarraoak, Sail honen jokabidea bat argitaratzearen aldekoa izango da eta aukera honen alde jartzea eskatuko genieke euskaltzale guztiei"* .<sup>418</sup>

Jaurlaritzaren erabaki honetan dago zorioneko *bitasunaren* iturria eta ondorioz, jakina, batera beharrarena. Amatiñok, nonbait jakitun, egun bat lehenagotik esana zuen: *"Denetarik bi. Aspaldiko kontua da Euskal Herrian denetarik bi sortzen denekoa: bi ETA, bi ELA, bi akademia, bi ezker, bi eskuin eta, laster, antza denez, bi euskal egunkari"* .<sup>419</sup>

### **7.1.3.1. Bitasunaren aitzakitan**

Egunkari bat egiteko, egunkari bakar bat egiteko bereziki, proiektu bat baino gehiago sor daitezke. Denak diskutigarriak. Printzipioz hobegarriak. Euskarazko egunkariaren kasuan eztabaida hori ez da eman. Bakoitzak bestea kritikatu izan du, bai eta publikoki ere, baina inoiz ez da mahairik eratu azkenean kalera ziren bi proiektuak bat egiteko.

---

417 Ikus Deia, 1989-II-25

418 Eguna, 1990-III-16.

419 Eguna, 1990-III-15.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Halere, nire uste osoan, "Belokiren taldeak" mamitutako proiektua ez da inoiz izan benetan gauzatzeko proiektua, baizik eta ES-ek mamitutakoa oztopatzeko.

Jaurlaritzak bazekien (badaki) jakin, edozein proiektu periodistikok, euskara hutsean, diru publikoaren laguntza beharrezkoa zuela (duela). Nahikoa zen (da), lojikaz, diru-iturri hori ukatzea proiektua zalantzan jartzeko. Orain arte hori baino ez da egin: dirua ukatu beste proiekturik kalean jartzea ausartu gabe. Eta dauden datuen arabera -lan honetan demostratua uzteko esperantzarik badut- Jaurlaritzaren ustea, kalean dagoen proiektu herritarrak noiz huts egingo esperoan dago. Areago, beharrezkoa du hori arrazoia bere alde jartzeko (eta egunkariaren oraingozko ezintasuna frogatutzat emanaz euskaldungoa euskarazko egunkaririk gabe uzteko). Igerle izateko eskubiderik gabe, hauxe idatzi nuen neronek *Egunan*.<sup>420</sup>

Puntu honetan Euskal Herriko Ikastolen Konfederakundearen jarrera ofiziala adieraztea komeni da. Bi proiektuen berri izandakoan mintzo zen publikoki Konfederakundea (1990-V-3) nahiz eta banatutako dokumentua 1990-III-24an idatzia izan.

Bertan, bakarraren ezinbestekotasunetik abiatuz, egunkari plurala, autonomoa eta titularitate konpartituduna eskatzen zen. *"Egunkari bakarrak **pluralista** behar du izan. Euskal Herrian finkaturik dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinen elkarbizitzarekiko errespetu osoarekin(...) **autonomoa** behar du izan, Administrazioaren edo sektore sozial jakin baten proiektu ideologikoen luzapen huts bat bezalako ikuspegiak baztertuz. (...) Egunkari bakarrak Administrazioa eta Herritar elkarte desberdinen artean **konpartitutako titulartasun juridikoa** eduki behar du, denona bezala*

---

<sup>420</sup> Ikus Euskarazko egunkaria, Eguna, 1990-III-15.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*eta erabiltzaile guztientzako baliagarri ikusi beharko litzatekeen egunkari konzepzioan oinarrituta. Izan ere Administrazioarekin batera, gizartearen sektore desberdinen presentzia eta ahalmena ezinbestekotzat ulertzen ditugu".*

Hori esanda eta bi inizatibak "*oso positibotzat*" jo ondoren "Administrazioarekin eta bai herritar sektore desberdinekin batasunaren ildo jorrazeko prest" zirela adierazten zuten Ikastolen dokumentuak. Lortu, baina, inork ez du elkarlankidetzarik lortu. Ez eta mintzatzen hastea ere.

Beranduago, Arraste Euskaldun Dezagun (AED) Elkarteak bat egin zuen Ikastolen agiriarekin.<sup>421</sup>

### **7.1.3.1.1. Belokiren taldea**

Apirila oso hilabete zaratatsua izan zen batez ere Jaurlaritzak ofizialki Belokiren taldea aurkeztu zuenetik (1990-IV-4) eta ordutik plazaratu zen anbiguotasun kalkulatuari esker. HABEk Donostian duen egoitzean egin aurkezpenerako deia faxez egin zen.

Hauxe da komunikabideek Kultura Saitetik jaso zuten oharra, "Presentación de un diario en euskera"<sup>422</sup> titulupean: "*se presenta en rueda de prensa el proyecto para la elaboración de un Diario en Euskera*". Bertan, Jose Ramon Beloki "*coordinador general de*

---

<sup>421</sup> Egin, 1990-VI-23.

<sup>422</sup> Eusko Jaurlaritza, 1990-II-3eko faxa

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*la realización del Diario"* deitzen da. Prentsaurrekoan, Joseba Arregi Kultura Sailburua, Iñaki Zarraoa Sailburuordea eta Josu Legarreta Euskararen Hedapen eta Sustapenerako Zuzendariak emana (Beloki ere tartean zela), deialdia zehaztu egin zen baina anbiguotasunak luzaroan iraun du, taldekide izandako baten (Pello Zubiriaren) dimisioa aurkezteraino.<sup>423</sup>

*"La tarea fundamental de estos profesionales, esan zen prentsaurrekoan, va a consistir en que nos presenten un proyecto de definición conceptual de lo que debería ser un diario euskaldun. No se trata de que hagan un periódico sino de que nos ofrezcan unas conclusiones sobre su viabilidad económica y posibles alternativas de diseño (..) No va a hacer un periódico sino que su misión será la de decirle al Gobierno vasco cómo se puede trabajar para que sea posible un diario en euskera: medios técnicos y humanos, maquetación, diagramación, etc."*<sup>424</sup>

Abiapuntuan bi erabaki ditu Gobernuak: *"..sólo hay mercado para un periódico en euskera y que deberá ser abierto a todo tipo de lectores"*.<sup>425</sup>

Gauzak garbi esanak daudela ematen du, baina susmoa nagusitzen da. Agian aurreko urtetako esperientzia errepikatu zitekeelakoan (ARGIA aldizkari berriemaile bakarra zenean, indartu beharrean Jaurlaritzak bi berri sortaraz bait zituen *Hemen* eta *Eguna* alegia), agian auskalo, hilabetetako auzia izan zen hauxe.

---

423 Argia, 1990-VII-7/15

424 Deia, 90-IV-5; Eguna, 90-IV-5.

425 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*"Bi proiektu daudela pentsatzen dute, zioen Pello Zubiriak, Errealitatea askoz sinpleago da berez edo izan beharko luke, esan denaren arabera. Hau da batetik dago ESen proiektua eta bestetik dago Eusko Jaurlaritzak antolatu duen batzorde bat, egunkariaren afera aztertu eta horri buruz proposamen bat presentatzeko".* <sup>426</sup>

Unerako hau horrelaxe zen, zeren ES taldeak bere proiektua hilaren 7an eman zuen ezagutzera Donostiako Hotel Londresen eta eraberean bertan errepikatu instituzioekin (ez soilik Gasteizko Jaurlaritzarekin) egoteko eta gizartearen aurrean aurkezteko asmoa. Zenbait zita, aurkezpen-eguna baino lehen jarriak izan ziren gainera, hala nola Nafarroako Gobernuko Estebe Petrizanekin eta Gasteizko Jaurlaritzako homologoarekin, Mari Karmen Garmendiarekin eta Ardanza lehendakariarekin hain zuzen.

Gizartearen aurrean proiektua erakustea atsegina eta erraza izanarren, zenbait instituzioekin harremanak xamurrak izanda ere, Jaurlaritzarekikoak zailak izan dira (eta dira) erabat. Eta batez ere antzuak beherago ikus daitekeenez.

Anbiguitasuna ezabatzeko Gobernuak ez zuen batere lagundu. Irakurri bestela Maiatzaren 17an komunikabideetara bidalitako beste fax haren testua. *"El Gobierno Vasco, a través del Departamento de Cultura y Turismo quiere aclarar que tiene el deseo y la voluntad de publicar un periódico en euskera y que para ello ha puesto en marcha un grupo de trabajo, mediante convocatoria pública y difundida por los medios de información (hau ez da hola, izendapen hutsa izan bait zen) con el fin de diseñar dicho periódico y analizar sus posibilidades reales. El Gobierno Vasco (segitzen du) tiene la*

---

<sup>426</sup> Hemen, 1990-IV-13.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

intención de continuar por este camino sin prisas pero sin descanso hasta que se plantee, con la necesaria seriedad, la publicación de este periódico en euskera". <sup>427</sup>

Euskarazko bertsioak ba du beste xehetasun funtsezko bat itzulpen arazo-hutsa ez dena, ez bait da agertzen erdarazkoan, eta hauxe da: "...*Eusko Jaurlaritzak bai baitu bere bidea, bere asmoa, bere proiektua, eta biak* (ESena eta Jaurlaritzarena alegia) *gauza diferente dira*". <sup>428</sup>

Testu hau ESek bere proiektua gizarteratzeko kanpainaren ateetan zabaldu zen, badaezpada ere despistaturen batek bere dirua eskuzabalki luzatzen bazuen, esanaz: "...*que el Gobierno Vasco no tiene nada que ver con otro proyecto presentado por el grupo ES ni ningún compromiso con su iniciativa*". <sup>429</sup>

Anbiguitasun honen puntu gorria -eztabaida bestetan ere sortu arren hala nola V-26an Radio 5-Donostian, V-29an ETB 2 "Al hilo de la noticia"-n, VI 7an Donostiako Herri Irratian- Beloki eta Zubiriaren arteko konfrontazioa da.

Jose Ramon Beloki Jaurlaritzaren proiektua lantzeko ekipoan sartu zuen Pello Zubiria *Argiako* kazetaria eta ESen kidea (Elisabete Garmendia -*ETB*-, Antton Aranburu -*Euskadi Irratia*- Imanol Unzurrunzaga -*Eguna*-, Jon Basterra -*Egin*-, Felix Ibargutxi -*DV*- eta Ignacio Irizar -*El Correo Español*- ekin batera). Konfrontazioa publikoa izan zen ETB-1eko *Astelehen Buruzuri* teleaioan Ekainaren 13an. Ordurako baina, Pello Zubiriak (gero *Euskaldunon Egunkariaren* lehen zuzendaria izango zenak) bere egonezina aurkeztua zien

---

427 Eusko Jaurlaritza, Fax 1990-V-17.

428 Ibid.

429 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

taldekideei fax baten bidez (1990-VI-4). Hauxe: *"Zeren eta badirudi talde honek egunkari baten formatoa, banaketa eta beste zenbait ezaugarri jadanik erabakiak dituela, arras zehaztuak gainera, oinarrizko galderei oraindik argi erantzun gabe(...) lehenbiziko hizketaldietatik honuntza helburuen inguruan gauza ezberdinak ari garela esaten eta aldiz diseinu zehatzaren alorrean gauza bera defenditzen dela (..) gero eta gehiago gure solasaldietan informazio lokala marjintzen ari gara...eta hala ere hasierako eztabaidatik honuntza diseinuko erizpideak ukiezinak dirudite. Zeren eta kezkatzekoa da ES taldeak proiektu bat edukita gure taldea elkarte horrekin orain arte gauzak luze hitzegin gabe zenbait bilkura informalen ondoren hortik esan denez beste egunkari baten diseinua burutzen aritzea eta egunkariaren arazoa aztertzeko helburuetan argibide gehiagotara iritsi gabe diseinuan sekulako zehaztasun batzuetara iristea. Eta zehaztasun horietan ES taldeak diseinatu duen egunkaria ezin kabitu izana"*.

Bi eskakizun egiten ditu Zubiriak harako hartan: *"Zein egunkari behar du euskaldungoak? Egunkari horrek zertarako eta norentzako izan behar du? Irakurlearen perfil bat marraztu al dezakegu? Zer diote orain arteko azterketek eta zer dio gure taldeak horiez? Zein baldintza bete behar ditu EJK babestea merezi duen egunkariak? Orain al da egunkaria egiteko momentua? Egunkari bat ala zenbat? Nork egin beharko luke egunkaria? Galdera hauei behar diegu estraina erantzun eta serio. Eta ondoren datozen beste galdera eta argitu beharreko puntuen ondoan honako hau ere sartu beharrekoa dugu: zein iritzi du gure taldeak jadanik plazan dagoen ES taldearen proiektuaz, erantzuten al die euskal gizartearen eta euskal kulturaren beharrei, merezi al du Eusko Jaurlaritzaren oneritzirik?"*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Belokik Jaurlaritzak eskatutakoa honela zehaztu zuen: *"Eta horixe da, funtsean, Kultur Sailak eskatu didan, eta digun, lana. Zein moetatako egunkaria -eta hain moeta desberdinetako egunkariak egiten diren mundu honetan!- kaleratu beharko litzateke - merezi luke euskaraz kaleratzeak- hortara jarri ezker?"*.<sup>430</sup> Askotan mintzatu zen Beloki, eritzirik emango ez zuela agindu arren<sup>431</sup>

ETBko *Astelehen Buruzuri* saioan honoko zehazkizun hau bota zuen, hau ere, eritzi finkoa antza: *"Garbi daukaguna da euskaraz egunkari bat egiten den unean inork gutxik utziko duela ohizko erdarazko egunkaria erosten. Beraz, hau beste egunkari bat izango da, neurri batean bestearen diferentea izan behar du".*<sup>432</sup>

Bi puntu daude argi halere: taldean ez zen eztabaidatu ESen proiektua eta egindako txostenean erabilitako materialea aipatzen denean ez da berau aipatzen (Belokik adierazi zuen fotokopiak banatu zituela kideen artean eta ondorioz irakurri zituzketela suposatzen zela) ez eta eskutan jarri Gobernuak IDOMen eskutik lortutako azterketa ekonomikoa. Jaurlaritzak (edo Belokik) azterketa hauek ezkutuka zeuzka(te)n.<sup>433</sup>

Giro honek, ondorioz, zenbait *baja* ekarri zituen Felix Ibargutxi (ixilik)<sup>434</sup> eta Pello Zubiriarena.<sup>435</sup> Jon Basterrak, berriz, ES taldea utzi zuen (Joxemi Zumalaberi bidalitako

---

430 Eguna, 1990-III-29

431 Hauxe jaso zuen Eginek, 1990-IV-21an belokiren ahotik: *"Nahita ere ez genduke eritzi eginik edukiko baina gero...hau bukatutakoan eta Gobernuari emandakoan danak, orduan bakoitzak bere eritziak izango ditu eta hor konpon, orduan hitzegingo dugu guztiek"*. Zaila zen ixiltzea, jakina, bazter guztietako gaia zenean, baina, Donostiako Kultura Sailaren Ordezkaritzako antzokian esandakoa Belokiren eritzi oso-betea da. Ikus Deia, 1990-VI-2. *"Un periódico en euskara nunca va a ser el primer periódico"* zioen Arregik, 1991-IV-28.

432 Egin, 1990-VI-13

433 Ibid. eta Eguna, 1990-VI-14

434 Baja hau, beheago (VII. atal honetan)agertzen den Belokiren txostenean baiesten da. Prentsan ere agertu zen. Adibidez, Hemen, 1990-VIII-3

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

karta batez). Geroago Egin ere utziz Gipuzkoako Diputazioko prentsa bulegora joan zen (Belokirekin batera).

Baja hauek ematen direnerako, (uztailean gaude) Joseba Arregik bere jokaldia borobildua zuen: proiektuak elkartu beharra esan bai baina, horretarako biderik utzi ez. Belokiren taldea egunkari "osagarriaren" gunea bilakatzen da.

### **7.1.3.1.2. Joseba Arregiren aukera**

Lehenago inoiz pentsa ezin zitekeen bidetik eraman zuen Joseba Arregik egunkariaren arazo hau: partidu politikoan (eta zehatzago Ajuria Eneako Itunaren) bidetik, bide horretan eta bide horretan bakarrik ulertuz demokrazia, pluralismoa eta zabaltasuna.

Maiatzean, ES-k gizarteratze-kanpaina hasi aurretik, Jaurlaritzak erabateko desmarkea iragarri zuen bezalaxe, Ekainaren 29an Jaurlaritzaren proiektuak nondik norako bidea hartzen zuen deklaratu zuen Arregik, Xabier Gurrutxagaren (EE) galderei erantzunez Gasteizko Parlamentuan.

*"1. Euskal Herrian ez gaude, oraingoz, eta zoritxarrez denbora luze batean, bi euskal egunkari argitaratzeko moduan"*

VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

"2. Gaur egun ezin daiteke euskal egunkaririk sortu eta aurrera eman herri ardularitzaren eta botere publikoen partaidetza zuzenik gabe, ez finantza mailan, ezta euskal egunkariaren status juridikoaren mailan ere, nahiz eta azken arlo honetan oraindik gogoeta eta eztabaida asko burutu beharko dugun, eta 'dugu" diodanean Legebiltzar honetara etortzeko ohitura zuzen eta demokratikoa duten alderdi guziak ditut gogoan"

"3. Bat nator parlamentari jaunarekin ahaleginak proiektu bakar batua biltzeko bideratu beharko liratekeela. Egia osoa esan behar badut, ordea, ez naiz baikorregia ahalegin horiek izan dezaketen arrakastari dagokionean".

"4. Bi proiektuak batera elkarrizketarik ez dut izan ES delako proiektuaren sustatzaileekin...Lehen esan dut, nire zalantzak handiak direla bateratzeari dagokionez.

"5. Eusko Jaurlaritzak espero du oporrak aurretik Euskal Egunkariaren proiektua eskuartean izatea, batez ere gazetaritzari dagokionetan. Proiektu hori izango du aurrera jarraitzeko Eusko Jaurlaritzak gidari, Legebiltzar honetara biltzen diren alderdiekin elkarlanean, lehen esan bezala. Honetara biltzen joan beharko luteke Euskal Egunkaria nahi duen guziak. Eusko Jaurlaritza ez dago prest bi euskal egunkari laguntzeko.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*Bateratzerik ematen ez bada, beraz, ES proiektuak ez du Jaurlaritzaren babes eta laguntzarik izango".* <sup>436</sup>

Aukera honek gauzak zentratu egiten ditu guttienez. Une honetatik aurrera zabalatasunaz, demokraziaz eta pluralismoaz hitsegitako ezagunak dira mugak. Baina akabo euskararen (eta kulturaren) autonomia, hizkuntzaren politizazio alderdikoitik ihes egin beharra. Ajuria Eneako partidu politikoek markatzen dute egunkariaren (eta euskararen) politika.

Praktikan, gainera, bide guztiak dira itxita, bideak zabaltzea eskatzen dituenak konfidantzarik ez bait du merezi. Jaurlaritzak akordioa alderdi parlamentarioen artean bakarrik egin nahi du. ESek, berriz, Administrazio Kontseiluan aulki bat eskeintzen ari zaio.

Egun horretan bertan honela zioen Joxemi Zumalabek: *"Por la necesidad de dotar el proyecto de las mejores condiciones, vamos a seguir intentando todas las posibilidades de diálogo y confluencia que se puedan plantear... Creemos que el mes de julio tendremos ocasión de replantearnos el tema con el G.V. Creo que debemos seguir en el empeño de buscar un camino para esa confluencia".* <sup>437</sup>

Uztailean, hilak 15, ES-ek euskarazko egunkariaren 0 zenbakia kaleratzen duen egun berean errepikatu zuen Zumalabek: *"Guk gure aldetik zubi guztiak zabalik ditugu, baina gurekin batean Administrazioak ere bitartekoak jarri behar ditu eta elkar lanerako*

---

<sup>436</sup> Arregi, Joseba, 1990-VI-29an Gasteizko Legebiltzarrean esandako hitzak eta hurrengo egunean prentsa osoak ekarriak.

<sup>437</sup> Egin, 1990-VI-30

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*bideak eta euskaldungoak ere badu bere erantzukizuna, 60.000 irakurle potentzial horiek lortzea, euskaldungo osoaren zeregina baita".* <sup>438</sup>

Uztailaren 27an Belokiren taldeak 12an sinatua eta 18an entregaturiko txostena publikoki aurkezten da. Kazetari taldearen proposamena proiektu bihurtzen da. Une horretatik ez dago zalantzarik: bi proiektu daude.

Uztailaren 27an, hots ES-ek kanpaina osoaren balorazioa egiten duen egun berberean ("*siempre hemos querido que la Administración tome parte y hemos dicho que estamos abiertos y lo seguimos diciendo*"), Joseba Arregi, Josu Legarreta, Iñaki Zarraoa eta Jose Ramon Beloki Donostiako Maria Cristina Hotelean Gobernuaren proiektuaz mintzo ziren.

Belokik eta gainontzeko kazetariak esandakoaz haratago doa Kultura Sailburuak: "*El Gobierno, zioen Arregik, no ve sitio más que para un periódico, abierto al campo marcado por los partidos democráticos (hau ez dago txostenean). Consecuentemente no veo la posibilidad de llevar adelante un periódico que no esté financiado prácticamente al cien por cien (hau ere ez dio txostenak). El Gobierno tampoco está dispuesto a conceder ningún tipo de subvención. Nosotros seguiremos dando nuestros pasos; lo que ocurra luego llegado el caso, ya veremos. Responderemos entonces".* <sup>439</sup>

---

438 Egin, 1990-VI-15

439 Egin, 1990-VII-28 eta zinta grabatua.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Belokiren taldeak egindako txostena eta Arregik esandakoa ez dira gauza berbera, aurreraxeago zehaztuko denez. Halere taldekideek ez zuten xintik ere atera proiektua desitxuraturik aurkeztu zutenean. Arregik euskarazko egunkariaren proiektua partidu politikoen (batzuren) eremura eramanean, eremu horretakoak ez direnak erabat baztertuz (eta agian okerrago ESen proiektua HBrekin identifikatuz). Partidu politikoen eremu jakin hori (Ajuria Eneako Itunkideak) eta euskaltzaltasuna ez dira inolaz ere baliokideak, bistan denez, besteak beste zenbait partiduk euskararekiko zaletasunik ez dutelako.

### **7.1.3.1.3. Partiduen jarrera**

ES taldeak "independiente" nahi izan du egunkaria. Bi zentzutan: partiduekiko eta bestelako medioekiko. Partiduek, beraz, ez dute -printzipioz- kidego zuzenik egunkari horretan. Kideek, duketen euskalzaletasunaren izenean erakus dezakete noski atxikimendurik, maila pertsonalean alegia. Izan ere deialdi orotan, norbanakoak -ez taldeak- izan dira gonbidatuak. Jaurlaritzaren buruzagiek, berriz, "partidu demokratikoen" (Ajuria Eneako Itunkideen) eskutara eramanean dute proiektua.<sup>440</sup>

Euskadiko Ezkerra (**EE**) izan da, lehenik, alderdi gisa eritzia eman duena. Eta ba du esplikaziorik. Balizko *ajentziaren* garaian, bere emendakinari esker, diru kopuru bat

---

<sup>440</sup> Euskal Herriko partidu abertzaleek, hizkuntz politikaz duten eritzia, 1990.eko Urrian eman zuten aditzera Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalaren aretoan. Bertan esandakoa Jakin, 1991-II/III, 62 zb. aurkitzen da, aldizkari horrek berorrek antolatu zuelarik partiduen bilera hura. Euskal egunkariari buruz esandakoa, nire testu nagusian esandakoarekin bat dator erabat.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

bideratu zen. Ajentzia inoiz sortu ez zelarik, ordea, EEk ez zuen/du inolako konturik eskatu. EErena da CIESen azterketa egiteko proposamena ere.

Xabier Gurrutxaga (EE) Arregik ES ez babestea erabaki zuenean mintzo zen "bi proiektuak batzea" eskatuz. Honelaxe argudiatu zuen, artean EEko parlamentari-eleduna zelarik: "*...es preciso aunar todos los esfuerzos tras un único proyecto democrático y pluralista que en su régimen jurídico permita tanto la participación necesaria de los poderes públicos como de los ciudadanos que quieran participar en el mismo*".<sup>441</sup>

Kanpaina kaleratuta (1990-V-19) ES diru-bilketari ekin zionean, EEk berriro hitzegin zuen. Oraingoan, zehatzago eta bortitzago Gurrutxagak berak Vasco Press ajentziari egin adierazpenetan: "*...hay que hacer un llamamiento a ES, al Gobierno Vasco y al grupo que encabeza José Ramón Beloki para que aúnen esfuerzos*".<sup>442</sup>

Hiru aldetara doa errekomendazioa baina laguntza-ezaren mehatxua talde herritarrari bakarrik egiten zaio, ESi alegia: "*...en caso de que los promotores de ES no escucharan estas recomendaciones entenderemos que han respondido negativamente a nuestra petición y, por lo tanto, no participaremos en el proyecto*".<sup>443</sup>

Joseba Arregik Parlamentuan egin adierazpen urragarrien aurrean EEk ez zuen deus ihardetsi, Kultura Sailburuaren erredukzionismoa onetsi baizik. Tarte luzea utzi zuen EEk berriro mintzatzeko. Jaurlaritzak bere proiektua kalean jarri ondoren Irailaren 10eko prentsak ekarri zituen Gurrutxagaren arrazoiak aldagai berria (bakea) gehituz.

---

441 1990-V-18

442 Ikus 1990-V-20ko prentsa. Testu hau

443 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*"(EE)...seguirá impulsando la creación de un periódico democrático, pluralista y de calidad, comprometido con la lucha por la paz en Euskal Herria y respetuoso con las decisiones democráticas adoptadas por nuestro pueblo. Un proyecto que debe dirigirse a todos los euskaldunes y debe contar con el máximo apoyo de los vascos. (...) La creación del periódico que necesitamos se sitúa inequívocamente en el marco de decisión de las instituciones políticas(...) En este contexto EE sería favorable a que el proyecto de periódico tanto en su modelo de dirección y gestión como en su concreción jurídica fuese un proyecto que permitiese la participación económica social y cultural de los sectores y empresas interesadas en el proyecto(...) En este sentido, sería conveniente que los medios de comunicación social... respaldaran... un proyecto que tiene que ser de todos los vascos. Circunstancias éstas que contribuirán favorablemente a que el euskara patrimonio común de todos los vascos cada día lo sea más".* <sup>444</sup>

Jaurlaritzaren jarrera ofiziala baino ez da hau, 'de todos los vascos' esaten denean, eta aipatu testuinguruari esker batzu aldez aurretik deskartaturik bait daude. Geroxeago ikusiko denez, adierazpen hauetan EAK esandakoaren (kontra) eta PSOEk esandakoaren (alde) egin duten islada dago. Eta hautua.

Adierazpen horietan beste erreferentzi bat dago. Gogoratzen du Gurrutzagak 1988.eko aurrekontuak onartzerakoan "estudio para la creación y puesta en funcionamiento de un periódico en euskara" barne, hauxe onartu zela bere taldearen (EEren) ahaleginari esker: "...interesa resaltar que son las instituciones públicas -Gobierno y Parlamento- quienes crean el periódico, y se insta al Gobierno para que remita a la Cámara vasca el

---

<sup>444</sup> Ikus 1990-IX-10eko prentsa. Testu hau

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*proyecto de regulación a fin de que cuente con el máximo respaldo parlamentario".* <sup>445</sup>  
Bada, ez proiektua bidali da inoiz Parlamentura, ez Parlamentuak erabaki du ezer definitiborik.

Aurreko baldintzak jarri eta birfinkatuz, oreka bila agertzen da Gurrutxaga geroxeago. *"No hay ninguna razón para que los dos proyectos existentes -el del Gobierno y ES- no converjan en un único de garantía pública, democrático y pluralista (...) Los promotores de ES han de saber que no van a poder desarrollar su proyecto al margen y respaldo de las instituciones públicas. Lo que les obliga a realizar un esfuerzo de convergencia y de aproximación con el proyecto respaldado por el Gobierno y autorizado por el Parlamento Vasco".* Arregiri ere eskatu zion zerbait: *"una actitud abierta y receptiva a fin de que los promotores de ES puedan aportar rasgos específicos de su proyecto al periódico de todos los euskaldunes".* <sup>446</sup>

Partido Nacionalista Vascon (**EAJ**) Luis Mari Bandres izan da gai honetan eledun (X. Arzalluz, J.A. Ardanza eta J. Egibarrek egin adierazpen solte batzu salbu).

Ofizialtzat har daitezke 1990-VI-2ko prentsan *"los miembros de mi partido"* aurrean jarrita esandakoak: *"No prejuzguemos nada y, total, en agosto esto va a estar acabado.(...) Siempre hemos pensado que sólo había lugar para un periódico; por lo tanto, si fuera posible un solo diario que se elabore basándose en las consecuencias del citado estudio (Beloki) y uniéndolo con cualquier otra iniciativa ¿por qué no?".* "Si fuera posible" ez dela posible erabakita zeukan ordea oinarritan EAJ duen Jaurlaritzak.

---

445 Ibid.

446 Egin, 1990-X-4.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Eusko Alkartasuna (EA), gehiagotan mintzatu da, besteak beste, ES proiektuaren baitan bere militante ezagunak (Martin Ugalde eta Nerea Azurmendi bereziki) agertzen direlako ere bai.

1990-V-26an emandako prentsaurrekoan (Karlos Garaikoetxea, Iñazio Oliveri, Juan Jose Pujana) agertu zuen EAK ofizialki bere eritzia. Ordurako, ESEN kanpaina martxa dago. Gobernuaren ikertaldea ere bai. Mintzoarren, EA ez zen busti. *"Hasta que no se conozca el estudio encargado por el Gobierno Vasco, no nos parece positivo impulsar ese ambiente de carreras entre dos partes, porque es una dinámica perniciosa. Si se sigue por ahí, denunciaremos el proceso en su totalidad. (...) No queremos embarcarnos en una carrera de beligerancias que pueda desembocar en dos proyectos. Eso sería un desastre. Hay que trabajar en silencio y con eficacia, cerca de los dos proyectos, para que confluyan".*

Abuztuaren 2an beste prentsaurrekoz agertu zen EA, Uztailean ESEK bere 0 zenbakia atera ondoren, Belokiren proiektua aurkeztua eta Arregi Parlamentuan bortizki mintzo ostean. Eta busti egin zen printzipiotan. *"Las manifestaciones del consejero (Arregi) en el sentido de relacionar su proyecto diario en euskara con el Pacto de Ajuria Enea son una clara politización del euskara y Arregi no tiene ningún derecho a hacer eso. (...) El Pacto de Ajuria Enea y la problemática del euskara son dos cosas diferentes que no tienen relación alguna; aquí lo que hay que hacer, en relación al euskara, es unir todas nuestras fuerzas y entre todos, porque es problema de todos, sacar el tema adelante(...) El euskara no es de nadie, sino de todos".*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Eta proposamen mailan *"una sociedad mixta en la que se produzca un equilibrio entre la participación oficial y la de ese amplio movimiento de la sociedad civil que ha impulsado el proyecto ES"* eskatu zuen.<sup>447</sup>

Erantzukizun ofizialik hartu gabe ere bidea zabal uzten die EAK bere militanteei ESen egoteko. Gobernuaren proiektuari -Esek suposatzen duen indarra baztertuz- oso murrizta izatearen arriskua ikusten dio.

ESen proiektua onetsiz, desbideraketarik egon ez dadin hauxe proposatu zuen: *"La consecución de un proyecto unitario que bajo garantías estatutarias, legales, de constitución de la propia sociedad, se aseguren que no va a haber una deriva del proyecto ni hacia posiciones sectarias desde una instrumentalización, digamos desde el mundo de la iniciativa privada, ni hacia posiciones sectarias desde los poderes públicos. (...) EA nunca apoyará un proyecto oficial, ya que es preciso aunar la energía de una iniciativa que surge de la sociedad civil, que tiene detrás gran parte del mundo euskaldun, el lector natural de ese periódico, con el esfuerzo de las instituciones que deben dar y controlar la ayuda oficial"*

Uztailaren 9an, EAren batzorde nazionalak erabaki ofiziala hartzen du egunkariarekiko, zeina prentsaurrekoz (Juan Jose Pujana, Iñazio Oliveri, Eneko Oregi)11an ematen den aditzera. *"EA no va a apoyar ni política ni económicamente ninguna iniciativa sobre el periódico en euskara que no suponga la configuración de un único proyecto"* eta bidebatez dei egiten du bi parteak proiektu amankomun horretarantz pausuak eman ditzaten.

---

<sup>447</sup> Adierazpenotan ez da esaten horixe dela ESen saio editorialean agertzen den hautua, 'ekilibrio' hitza gora behera.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*"En principio no parece conveniente ni bueno un diario que pudiera considerarse gubernamental entre otras razones por el rechazo social que produciría (...) la sociedad euskaldun es plural y necesita un proyecto plural que no cree tensiones en esta sociedad".*

Egun horretan bertan Pujana eta Oregi, ESEko Zumalabe eta Goiarekin bildu ziren.

Partido Socialista de Euskadik (**PSOE-PSE**), Ramon Jauregiren hitzetan eman zuen aditzera bere eritzia. Abuztuaren 5ean honoko hau bota zuen Arregiren lerroa azpimarratuz.

*"La normalización del uso del euskara es un tema pendiente que francamente me preocupa. No lo tenemos bien resuelto nadie y se están produciendo fenómenos preocupantes, porque grandes sectores protagonistas del mundo del euskara, desde segmentos del profesorado en las ikastolas a la enseñanza de adultos o la creación de un periódico están siendo objeto de una campaña de control por parte de sectores radicales y del mundo de Herri Batasuna...Este hecho puede convertir el proceso de normalización lingüística en algo que nos divida profundamente. Soy partidario de que también en este tema el bloque democrático imponga sus condiciones y lidere el proceso".* <sup>448</sup>

Herri Batasuna (**HB**) oso berandu mintzo zen gai honen inguruan beti Joxe Austin Arrieta, Mahai Nazionalean euskara arduraduna, eledun izanik. Arrietak Amatiñoren saioetan (ETB 1 Astelehen Buruzuri) erakusten zuen aldika bere jarrera positiboa ESen alde

---

<sup>448</sup> Diario Vasco, 1990-VIII-5. Halere, esandako hitzak xemeikorik balio badu bederen, PSOEek ez du Joseba Arregik aurkeztutako proiektu zehatza inoiz ontzat eman. Izan ere, Joseba Arregik ia urtebete geroago prentsaurrekoz hauxe esan ondoren: "Gure kontu eta datuak gizartera zabaldu ditugu eta beldurtu egin gara harrera hain positiboa izan delako gizartearen aldetik eta alderdi politikoak barne" (Euskaldunon Egunkaria, 1991-VII-11), honelaxe erantzun zion Jose Ramon Rekaldek: "Sozialistak ez dira egundo ere zaldu Jaurlaritzak euskarazko egunkari bat plazaratzearen aukeraren alde.(...) PSOEek ez dio baiezkorik eman Jaurlaritzaren proiektuari". (Euskaldunon Egunkaria, 1991-VII-12).

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

eta bereziki 1990-VIII-6an. Lehentxeago, "Ezpalak" izeneko artikuluan, "guri, ESen parte hartzeko, inork ez digu ezein alderditako karnetik eskatu" <sup>449</sup> esan zuen.

Aipatutako abuztuaren 6ko telesaioan, Jauregi mintzatu ondoren, zehatzago izan zen HBren eleduna: *"La postura de HB al respecto es sobradamente conocida, para evitar precisamente dar pie a intoxicaciones interesadas por parte del PSOE y sus aliados del búnquer democrático español, nuestros posicionamientos públicos de apoyo a dicho proyecto han sido guiados en todo momento por un cuidado exquisito de que el protagonismo real de esta iniciativa, única y exclusivamente atribuible al magnífico dinamismo popular de cientos de euskaltzales, no se vea enturbiado en lo más mínimo por interferencias partidistas".*

Eta apoiatu egiten du: *"como movimiento político de honda convicción euskaltzale animamos a todo el pueblo en general a que apoye entusiastamente el proyecto de diario en euskara, Euskaldunon Egunkaria, de la promotora ES, y a nuestros militantes y simpatizantes en particular a que no escatimen esfuerzos para que lo antes posible dispongamos de ese medio de comunicación euskaldun, amplio, democrático, y pluralista que todos deseamos".*

J. A. Arrietak ESen formulari guztiz orekatua erizten dio *"fórmula no sólo viable, sino absolutamente necesaria de equilibrio y complementariedad entre la subvención institucional, la participación popular y la autofinanciación propia"*. Gainera biziki gaitzesten du edozein mugimenduk, Ajuria Eneatik derrigor pasa behar izatea. <sup>450</sup>

---

<sup>449</sup> Egin, 1990-VIII-2.

<sup>450</sup> Gauzak gerora nola joan diren neurtzeko, kontutan hartu 1991-I-29an EA eta EuE Egunkariarentzat dirulaguntzak emateko alde agertu zirela Eusko Legebiltzarrean. EAJ-PSOEren

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

### **7.2. Egunkaria Sortzen, Jaurlaritza: betiko gatazka**

ES promotorak 1990.eko Apirilean publikoki aurkeztutako proiektuak eta Belokik Uztailan aurkeztutakoaren artean bi mundu desberdin daude. Kazetaritzaren funtzioaz, euskararen balioaz, diseinuaz, banaketa-sistemaz, egunkari-ereduaz erabat desberdinak dira biak. Esaera bakarrean laburbiltzeko ESek egunkari *arrunt*, *oso* eta gure esparru kulturalean *homologatua* nahi zuen bitartean Belokiren taldeak egunkari nagusi baten egunkari *osagarria* nahi zuen. Belokik, zeukan aukerari heldu zion: ESek kaleratu zuen proiektuarekin zerikusirik ez zukeen proiektua gauzatzeari alegia.

Belokiren proiektua behartua da oso. Halere, Belokik aurkeztutako proiektua diskutitu daiteke. Zenbait ekarpen oso baliagarriak dira. Baina ba du arazorik, alegia inolako diru-mugarik gabe jokatu izana besteak beste. Okerrena baina ez da hori, baizik eta Belokiren proposamena proiektu bihurtu zuela Jaurlaritzak (beste aukerarik diskutitu gabe elkarlanean) eta partidu politikoen alorrera eraman zuela. Horrek kazetari taldearen printzipiozko *consensusa* erabat baldintzatuz. Arazoa ez dago kazetal-diseinuan; egitura politikoan baizik.

---

arteko adostasunaz (PP-UAren abstentzioz) ezinezkoa bilakatu zelarik diru hori eskuratzea, 1992-VII-3an, baina ez halabarrez haren ondorio zuzenez, HB-EA-EuE elkarturik 50 milioitako laguntza zuzena (eta beste zenbait akziotan eta teknologi garapenerako) lortu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Orduan ere ezados edo kontra azaldu ziren EAJ/PSOE. Une honetan, Xabier Gurrutxaga EE ohia, EuEean dago kokatua.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Bi egunkari ereduok alderatzea baino (arazo tekniko diskutigarri izanik) oinarri-oinarriko eskakizunetara mugatuko naiz orain, bi-bietan herri dinamika eta instituzio autonomiko nagusiaren arteko betiko gatazka agertzen bait da berriro: euskararen arazoa egungo erakunde politikoak gaindituz baino erabakitzerik ez dagoelarik, indarrean dagoen egitura autonomikoa zalantzan jartzea baino nahiago izan da euskararen aldeko inizatibak oro blokeatzea.

### **7.2.1. ES-en hamaika aginduak**

ES taldeak 1989-XII-10ean aurkeztu zituen Durangoko Azoka egunetan euskarazko egunkari bat egiteko baldintza eta oinarriak. Saio editorialaren ezaugarriak dira hamaika agindu horiek. Proiektuaren ardatzak dira, "euskaldun guztion egunkaria" antolatu ahal izateko. Gerora kazetal-batzordeak diseinatuko duen eredia baino garrantzizkoagoak dira agindu hauek, horiek osatzen bait dute proiektuaren nortasuna.

**1. EUSKALTZALEA.**<sup>451</sup> *"Euskaltzaletasunak emango dio egunkaria kalean jartzearen saio honi lehenengo eta funtsezko oinarria. Bera bait da saioaren arrazoa. Herri honek beste egunkari bat behar izatearen arrazoa euskara hutsez egunkaririk ez izatean bait dago. Euskaldunok badugu euskarazko eguneroko prentsa izateko eskubidea.*

---

<sup>451</sup> Aipatu aginduak Euskarazko egunkarirako proiektuan aurkitzen dira 30 or. eta hur.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*Eta herri honek badu bere hizkuntzaren normalizaziorako bidean euskarazko egunkariaren beharra. Euskaltzaletasun horrek bultzatzen gaitu proiektu hau euskal kulturarekin konprometitua ikustera. Herri honek behar duen proiektu nazionalean euskal kulturaren birreraikuntzak funtsezko papera bete behar bait du"*

Beraz, euskarazko egunkaria Euskal Herriaren proiektu nazionalean txertaturik ikusten da, batez ere xede horretan euskarak (hizkuntza normalduak) eta euskal kulturak joka dezakeen eginbidean. Ezin uka halako proiektu batek duen alde politikoa (ez alderdikoia), baina horretarako bidea ez da ikusten politikagintzan (alderdi politikoen estrategiatan) kulturgintzan baizik.

Komentzimendu sendoa dago guztionen atzean, alegia, herritarrak ideologikoki zatituta egonarren, errazago egiten dela bateratzea euskarari dagokion heinean. Beti ere alderdikeriak utziz, euskaltzalegoan oinarrituta. "Zabaltasunez jokatuz, euskarak eskaintzen duen marko autonomoa bilatu beharra dago, iharduera politiko ohizkoaren barruan hain ezinezkoa dirudien abertzaleen arteko hurbilketa eta batasuna euskararen inguruan erraztu egiten duela sinestuta bait gaude".

"Euskarak batzen gaitueneko leloa kortesia hutsa da" esanaz ezeztatu zuen Amatiñok komentzimendu hau. <sup>452</sup>

---

<sup>452</sup> Eguna, 1990-VI-7.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

**2. NAZIONALA.** *"Lurraldetasunaren aldetik nazionala izatea ere funtsezkoa deritzogu. Gure herriak gaur egun nozitzen duen zatiketa administratiboaren gainerik bai hizkuntz edo kultur beharren aldetik eta baita ere zerbitzu informatiboaren aldetik herri honek batzea izan behar bait du helburu"*

Ezein instituzio autonomikok ezin du horrelakorik baieztatu. Froga bat ematearren, ez dago erakundeen esku dagoen instituziorik Euskal Herri osora ailegatzeko denik. Beraz balizko euskarazko egunkariak Euskal Herri osoa hartzen du espreski lurraldeztat, hedaketa mailarako bai eta ikuspegiz, egungo zatiketa administratiboak gaindituz herriaren batasuna bilatzeko. Berrito ere batasun-premia ez da maila politikoan aldarrikatzen, hizkuntz, kultur eta formazio-beharrizanaren mailan baizik.

**3. BATERAKOIA.** *"Baterakoia izan behar du saio honek. Setakerien gainerik egunkariaren alde elkar daitezkeen indar guztiak behar bait ditugu batu. Nahikoa lan izango bait du berez euskarazko egunkari batek, euskarak egun nozitzen duen egoerarengatik, bere funtzio soziala betetzeko, gure areko tirabiretan etorkizuna oztopatzen ibili gabe ere"*

Printzipioz egunkariaren alde batu nahi duten guztiak ekarri nahi dira proiektuaren ingurura. Ez dago alde honetatik bide hertsirik, baina batze indiskriminaturik ere ez. Bateratzerako kondizioa bat bakarra izanik ere (proiektuan sinistea) kondizioa da; proiektuaren osotasunean sinistu gabe ez bait dago inolako bateratzerik.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

**4. ZABALA.** *"Zabala izan behar du saio honetatik irtengo den egunkariak. Astakeria litzateke, egun, euskal irakurle goaren osotasunera zuzentzen ez den egunkari bat argitaratzea. Ahalik eta irakurle go horretako esparru handienak aurkitu behar du egunkari horretan bere egunkaria. Alde horretatik funtsezkoa da ez begibistatik kentzea euskal irakurle goarengan aurki daitekeen etenik nagusiena gaurko instituzioen onarpena ala aldaketa defendatzen dutenen artekoa dela. Saio honek oinarrizko batasun joera bat mantenduz, muga horiek gainditzera jo beharko du denok Euskal Herriarentzat nahi dugun burujabetzaren mesedetan"*

Hartzailea, beraz, euskal irakurle den oro izanen da. Bestalde instituzioen onarpen/gaitzespen mailan ematen den eten erabateko hori gainditzeko ahalegina agintzen da. Bi zentzu horietan izan nahi du zabala saio editorial honek.

ESek egin kanpaina garaian hizlari guztiei eman zitzaaien gidan hauxe aitortzen zen han-hemenka Euskal Herri osoan zehar esateko: "Euskaldun guztion egunkaria egin beharra: ez Jaurlaritzarena, ez Nafarroako Gobernuarena, ez partidu batena, ez enpresa batena. Guztiona. Horretarako ezinbesteko da: guztiok parte hartzea egunkaria egiten. Ezinbestekoa da egunkaria herritar guztion parte-hartez egitea. Guztiona izateko hasieratik bukaeraraino horretan gure ahalegina jarri behar dugu. Ezagunak dira laguntza ofizialez beteriko eta porrot egindako esperientziak. Egunkariak arrakastarik izango badu euskaldungoan ondo txertatu delako izango da hau lortzeko modu bakarra euskaldun guztiona sentitzea izango da".

Txostenak, proiektuak alegia, honela zehazten du arazo hau. *"Nabaria da euskaldun eta euskaltzaleen artean, egunero eta euskaraz errealitatearen berri emango duen egunkari baten beharra. Ideologia politiko ezberdinetako lagun askok sentitzen duen beharra dugu,*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*ezbairik gabe. Horregatik, zabala, anitza eta ezein ideologia zehatzi lotu gabekoa izan behar duela jarri dugu proiektuaren oinarrian, hala bere agerpenean nola azken emaitzan. Helburu bakarra, beraz, bizimodua euskaraz burutu nahi duenak, eguneroko informazioa bere hizkuntzan jaso ahal izateko ahalbideak izan ditzan erdietsiko duen euskarazko egunkaria sortzea izango du" .<sup>453</sup>*

Hau guztiau lortzeko formula juridikoa aurkitzean datza. *"Gakoa, bada, ordenamendu juridikoaren baitan formula egoki bat aurkitzean datza. Finantziaketan ahalik eta partaidetzarik handiena lortuko duena batetik eta, bestetik, inori ez dakion iruzur egin, zainduko duena, denborak aurrera egin ahala esaterako, egunkaria talde edo erakunderen baten tresna bihurtu dela eta" .<sup>454</sup>*

Ez al da hau Garaikoetxeak zaindu nahi zuena? Ez ote berori Gurrutxagak bilatzen duen oreka? Ez ote hauxe Belokik gero eskatzen hasiko den "irekietan irekiena" izatea?

**5. INDEPENDIENTEA.** *"Independientea izan behar du saio editorial honek. Independientea erakunde politikoetatik. Bere lan arloa ez bait da hori. Eta hasi baino lehenagotik aitortzen dugu gure ustean lotura politikoak beste helburuak betetzeko oztopo gertatuko liratekela. Bere eginpide editorialak ezarritako erizpideetan libre aurkitu behar du saio hau"*

---

<sup>453</sup> Egunkaria Sortzen, Euskarazko egunkarirako proiektua, 47 or.

<sup>454</sup> Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

**6. INDEPENDIENTEA.** *"Independientea erdarazko beste medioetatik. Garrantzizkoa iruditzen bait zaigu errealitateak berak jarriko dizkion mugei gehiago eranstea. Jakina da erdal medioek beren helburu nagusira makuartzen dituztela beren bitartekoak. Elebakar definitzen den proiektu hau ezin daiteke, beste helbururen pean mugitzen diren interesetan korapilatu. Diglosia soberan sofritu araziko digu, proiektua bera egitura diglosiko batera lotzeko".*

Bi eratako independentzia, beraz, eskatzen dena eta agintzen dena: erakunde politikoetatikoa eta erdal medioekikoa. Lehen, interes politikoaren esku ez geratzeko; bigarrena, diglosiatik ihes. Independentzia jabegoa banatzeko orduan bermatzen da. Txostenaren arabera, enpresa argitalaria izango den Sozietate Anonimoa hiru zutabeetan eraiki nahi da: kapitala hiru herenetan banatuz: heren bat ES Kultur Elkarteko kideek aurretik osatutako Sozietate Mugatuaren esku; bigarren herena, banakako kuentaparazitzepe desberdinen esku, hots egunkarian parte hartu nahi duten partikularren esku, horietatik inork ez duelarik izango kapitalaren % 10a baino gehiago; hirugarren herena, euskara eta euskal kulturaren inguruko erakunde eta elkarten esku, hemen ere kapitalaren jabegoa % 10era mugatuz gehienik.

Giltzarria beraz, proiektuan sinistean eta parte hartzeko biltzean dago. Saio editorialak ez dizkio inori atak ixten. Gehiago, aski errez luke egunkaria menderatzea menderatu nahiko lukeenak kapitala kideen artean sakabanatuz eta % 10 hori gaindituz.

Halako batez, ESen Administrazio Kontseiluak aulki bat eskaini zion Jaurlaritzari (Joxemi Zumalabe Donostiko Herri Irratiko "Kale kantoian" 1990-VI-15ean) egiten den lana eta ematen den diruaren erabilpena kontrolatu ahal izateko. Geroztik ere luzatu dio gonbita berbera Akziodunen Batzarrak (1991-IV) . Alferrik!.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

**7. EZ INSTITUZIONALA.** *"Administrazioaren aldetik kontrolak beharrezkoak dira, instituzioen diru laguntzaren arauera. Diru horiek publikoak izaten bait dira, kontrol publikoa zilegi da. Halaz ere iruditzen zaigu beharrezko diren diru publiko horiek ez diotela instituzioetako arduradunei beste motatako kontrolik ezartzeko eskubiderik ematen. Arlo editorialari begira gorago definitu den askatasun beharrak puntu honetan ere instituzioetatik etor daitekeen kontroletik kanpo geratzea eskatzen du".*

Puntu honek ekarri ditu kontrobertsiarik gaiztoenak ESen txoxtenak igartzen zuenez. Instituzioetatik kanpo geratzea, erakunde politikoetatik kanpo geratzearekin (lehenagotik esana, kasu!) osatzen da. Ez dago, beraz, besterik esaterik, esana bait dago eta ez betetzea xede fundatzaileen kontra joatea bait litzateke. Honelaxe azpimarratzen zen gizarteratze-kanpainan *"hizlariantzat"* egin argudio-sortan: "Ez instituzionala (antiinstituzionala ere ez)".

Txosteneko azken hitzak hauexek dira: *"Zer esanik ez "Egunkaria Sortzen" ekimena instituzioekiko elkarlanerako erabat prest eta zabalik dagoela, bere oinarrietan bertan onartzen bait du bai instituzioen diru laguntzaren beharra eta baita horren aurrean instituzioek planteia dezaketen kontrolaren onarpena ere".*<sup>455</sup>

Kontutan hartu behar da gainera, puntu honetan, ES alden du egiten dela CIESek esandakoetatik. Han inolako kontrolik gabea eskatzen bait da egunkaria. Lojika guztien

---

<sup>455</sup> Egunkaria Sortzen, Euskarazko egunkarirako proiektua. 106 or.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

kontrakoa iruditzen da halere eskakizuna eta bidezkoak jotzen dira ematen den diruarekiko kontrolak hurrengo puntuan ikus daitekeenez.

**8. DIRUZ LAGUNDUA.** *"Hala ere proiektu hau definitzerakoan argi daukagu instituzioetatik bakarrik etor daitekeen diru laguntza beharrezkoa dela. Alde horretatik eskatzen diegu instituzioen arduradunei lagun dezatela euskarazko eguneroko prentsa. Arlo horretatik etor daitezkeen kontrol behar guztiei aurre egitea uka ezinezko behar bat dela erizten diegu".*

Argi dauka ES taldeak zenbaiterainokoa den asmatutako euskarazko egunkariak (eta beste edozeinek) diru publikoarekiko izanen duen menpekotasun ekonomikoa. Azterketa ekonomikoa deitu sailean nabarmenki ikusten da hau: *"Aurre kontsiderazioetan luzatu gabe, euskarazko edozein proiektu erdararekin konpetitu beharrean aurkitzen dela eta laguntza bereziak behar dituela garbi dakusagu guztiok laguntza horiek euskal proiektuak indartzeko eta gizartean izan dezaketen eragina areagotzeko beharko lukete izan. Alde horretatik hemen aurreratutakoak ez dute minimo ezaugarriak izan nahi. Baina indartu aurretik bizi egin beharrean aurkitzen direnez, biabilitatea garantizatzeko neurriak dira eskatu behar ditugunak".* <sup>456</sup>

Eta laguntza mota desberdinak proposatzen dira: *"inbertsio eta proiektuaren osaketa garaian hala nola kreditu merkean zein zenbat puntu subentzionatutakoak", "ustiaketari emandako diru laguntzak",* adibidez, iragarritako defizita (105 milioi) kitatzeko modukoa,

---

<sup>456</sup> Ibid. 105 or.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*"merkatu legeen araberako mekanismoen aurrean babesa" publizitateari dagokionez "euskal medioetan egindako publizitatea primatuz, egiten duenari -bezeroari- artekariei (ajentziei) edo medioari berari egiten denaren neurian lagunduz" etab.*

Ramon Etxezarreta eta Luis Alberto Aranbarri Amatiño beti ukatu dute antzeko laguntzarik. Urrestillarra *"irakurlego konkretu batentzat egindako egunkari bati beldur diot eta proiektu horiek finantziatzearen kontra nago garbi"* <sup>457</sup> esanaz eta eibartarra *"instituzioak zuloak tapatzeko ez daudelako"*. <sup>458</sup>

Edozein modutan laguntza hori ez da sekula eman. ESek bere prebisioetan publizitatearen kopuru osotik % 54,55 instituzionala izango zela suposatzen zuten. *"Oinarrizko erizpidetzat publizitate instituzionala ia osorik sartu beharko litzatekeela pentsatzen da. Euskaraz bizi duenak, euskaraz informatua egoteko eskubidea bait du eta eskubide hori ezingo bait du administrazioak behintzat hautsi. Publizitate instituzionaletik bi herenak sartu daitezkeela pentsatzen da"*. <sup>459</sup>

Bidezkoa zen pentsakizuna baina ustel bilakatu da, EAeko instituzioek erabateko (eta justifikazioarik gabeko) boikota ezarri bait dio *Euskaldunon Egunkariari*, diru-beharrez ito dadin. <sup>460</sup>

---

457 ETB1, 1990-I-15.

458 Argia, 90-I-21

459 Egunkaria Sortzen, Euskarazko egunkarirako proiektua, 64 or.

460 Ikus Euskaldunon Egunkaria, 1992-IV-12 eta bereziki 1992-VI-17 eta 22koak zeinetan "zentsura ekonomikoa" datu zehatzak erabilia salatzeaz gain ("Egunkaria ito nahi dute") Usurbilen antolatu zen berebiziko "Euskaldunon jaia"ren berri ematen bait da.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Oraintsu, Gipuzkoako Diputazioan, oposizioan diren hiru partidu abertzalek (EA, EuE, HB) bateginik, PNV-PSOEren eritziaren kontra Euskaldunon Egunkarirako 50 milioi luzatzea erabaki da, gorago esan bezala.

**9. MILITANTEA.** *"Diru laguntzak lortuta ere, proiektu honek, bertan parte hartzen dugun guztion militante joeran izango du bere etorkizunerako garantia. Euskararen egoerak ez dio baldintza normalizatu batzuen mesedea eskaintzen euskararen aldeko proiektuetan sartuta dabilenari"*

**10. PROFESIONALA.** *"Profesionala behar du bai egunkariak bai eta ere proiektu editorial -enpresarial- guztiak. kalitatea helburu baino oinarrizko beharra du horrelako proiektu batek eta kalitatearen aldeko grinak saio honen izaera mugatu beharko du. Etorkizuna horrek erabakiko bait du"*

Besterik uste izan bada ere, ez dago kontraesanik 9. eta 10. puntuen artean. Aitzitik, alden du ezinezko konzeptuak diak bi horiek. Zein baino zein beharrezkoago. Militantea, euskararen egoera ez normalduan egonik edozein kazetari profesionalen kondizio berberetan jokatzea ezinezkoa bilakatzen delako (maila hain desorekatuan konpetitza oso eskergaitza delako, betiere limosnatan ibiltzea nekoso delako etab); profesionala, egoera txarrean ere produktoa kalitatezkoa ez bada porroterako bidean jartzen delako. Euskaraz nahi da egunkaria baina kalitatezkoa ez bada ez da eresia izango.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

**11. BERRIA.** *"Euskal Prentsaren urrats berri hau, batetik, ez da posible izango ez bada gaur dagoen errealitatean oinarritzen. Alde horretatik laguntza guztiak onuragarriak dira. Baina bestetik ezin proiektu berriak beti dakarren arriskuan jarri iadanik hainbeste nekez lortu diren errealitateak. Horregatik proiektu hau berria izatea ere ezaugarri berezizat hartzen dugu. Indar berriz proiektu berrietan apustu egiteko garaiak bait ditugu hauek".*

Azkeneko ezaugarri honetan beldur berezia dago, hots, egunkaria lagunduz gainontzeko euskal prentsa (egunkaria baino gehiago bait da), edo hobeto esanda EPren produktuak galtzorian ez ote diren jarriko alegia. Aldizkariak sentsibilitate berezia erakutsi dute aurreko hamarkada osoan Euskal Prentsa bere osotasunean finkatzeko (gogoratu 1989.eko *Euskal Prentsa Lagundu* kanpainaren zentzua!. Egunkariaren ataritan oraindik, ESek Euskal Herrian zehar firma bilketarako zirkulatzen jarri zuen gutun hartan, *euskal prentsarako* laguntzak arautzea eskatzen zuen gorago aipatu denez).

### **7.2.1.1. Eta beste zenbait osagarri**

Hamaika aginduaz aparte ESek beste zenbait osagarri hartzen ditu aintzakotzat egunkaria diseinatu aurretik.

Egunkaria norentzat eta nolako produktua egin nahi den erabakitzeke, merkatu azterketan eta irakurleko potentzialaren soslaian oinarritzea ezinbestekotzat jotzen da.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*"Batetik, ondoko puntu askori buruzko iritziak hasieratik bideratzen digulako. Bestetik, egunkariaren ezaugarrietako batzu, geure eritzi edo gusto pertsonalek baino, merkatua eta irakurlegoaren ezaugarriek ezarriko dizkigutelako".* <sup>461</sup>

Diskutigarriak izanarren, ES Jaurlaritzak berak CIESi egindako datutan oinarritzen da. Zuzenkizunez halere, zenbait puntutan optimistegia jotzen delako. Zuzenketak, (ESen proiektuan bertan eskaintzen direnak) CIES bezala prestijiozko enpresa ezagun batek egin zituen, SIADECOK alegia. Zuzenketen arabera, CIESek emandako 80.000 irakurle potentzialak 40.000 bihurtzen dira; 21-26.000 erosle potentzialak 11.500-14.000, hots 13.000 batz bestea. Datu hoietan oinarriturik ESk 15.000 tirada proposatzen du 8.000tan estabilizatzeko, lehen inpaktoa pasata.

CIESen (lan honetan hainbestetan aipatutako) azterketaren arabera irakurlegoa gaztea da (% 67, 18-35 urte bitartekoa), bereziki Gipuzkoan kokatua (% 42,69); ezkerrekoa botuei begiratzen bazaie (% 34,1 HB), eta % 48,5 sakabanatuta (edo erantzuten ez dutena). Irakurlego horren erdiak ezkerreko egunkaria nahi du (% 32,4 ezker muturrekoa, % 18,4 ezkerrekoa) eta nazio mailako informazioan oinarrituta (% 40'9).

Irakurlego nahikoa murrizta izanarren saioak merezi duela uste da. Irakurlegoa, bestalde, kultura maila altukoa da, irakurle saiatua, kulturaz kezkatua eta horixe izango da *"gure proiektuak oinarri izango duen nukleo leial eta indartsu bezala, ez denominadore amankomun bezala ulertuta, gurditik gehien tiratzen duen idia bezala baizik, atzean gelditzen dena akuilatzeke oinarria horrek berorrek emango bait du"*. <sup>462</sup>

---

<sup>461</sup> Egunkaria Sortzen, Euskarazko egunkarirako proiektua, 26 or.

<sup>462</sup> Ibid. 29 or.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Horrek ez du esan nahi halere, soilik irakurlego horrengana jo behar denik, "*beste alor batzu*" ere jorratu behar bait dira, hots, "*lehen momentuan egunkariko irakurleak izango ez diren baina potentzialetatik gertuenik daudenak*", hain zuzen "*gaztetxoak eta alfabetatzen ari direnak*", argi bait dago "*eroslego potentzial berezitua dagoela, eta beraz esfortzu komertzial haundia eta espezialdua egin beharko dela haiei begira*".<sup>463</sup>

Laburbilduz, gai hau proiektuaren zutabe izanik: "*hasera batean egunkariak gaur egun de facto dagoen prentsa-irakurlego errealdarengana iristea izango du premiazko helburu. Horrek ez du esan nahi, noski, irakurlego esparru berriengana iristea helburu izan behar ez duenik, baina komeni da argi edukitzea berehalako eragin sozial minimorako ezinbestekoa zaiola irakurle saiatu moeta horri heltzea, gerora -eta zirkulu konzentrikoen taktikari jarraituz- irakurlego mota berrietara zabalduz joateko*".<sup>464</sup>

Gainera irakurlego abertzalea da ("*printzipioen alorrean baino lehenago, irakurlegoarekiko zor bezala ageri da. Beraz, Euskal Herriak politikoki jasaten duen administrazio eta estatu-banaketa presente eduki beharko da informazio mailan banaketa horren mugak gainditzen saiatu*")<sup>465</sup>, eta ideologia anitzekoa.

ES-ek planteiatu zuen lehen ala bigarren egunkaria izateko arazoa, ez bait da berdin, eredu osoa baldintzatzen du. Erdarazko merkatuan konpetitu beharrak, bigarren egunkaria izateko arriskua plazaratzen du ezbairik gabe. "*Irakurleen ikuspegitik, dio txostenak, beraz ez erosleenetik, egunkari guztiak dira bigarren mailakoak, jendeak erosten duenaz gain besteak irakurriz ere osatzen bait du erositako horren informazioa. Bilatu behar dena*

---

463 Ibid. 30 or.

464 Ibid. 29 or.

465 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*erosle aldetik lehen egunkaria izatea gurea, nahiz eta irakurle aldetik beste batzuren "bigarren" edo "hirugarren" izan".* <sup>466</sup>

CIESek pista bat ematen zuen. Alegia azterketa horren arabera, % 36,6k bi egunkari erosiko lituzke eta beste hainbestek gaur erosten duena utzi egingo luke euskarazkoak asetu ezker, kalitatez alegia. Gainera % 7,1ek utz egingo luke gaurkoa besterik gabe. Datu horiek nahikoa zehatzak zirela frogatu du errealitateak.<sup>467</sup>

Horregatik, hain zuzen, pentsatzen da egiten den egunkariak egunkari normalaren irudia eman behar duela euskaraz izateagatik eta irakurleagoaren beharizanetara makurtzeagatik "berezia" ere izango delarik. Zer esan nahi du normaldua?: *"inguruko eskema kulturalaren arabera jendeak egunkaritzat jotzen duenaren itxura eta izpiritua izatea".* <sup>468</sup>

Kontutan harturik *"inongo eredu ez dela besterik gabe aplikagarria izango"* Euskal Herrian, egunkari espainiar eta frantziarren arteko aukera egitea erabakitzen da, egunkari oso eta *homologarria* erdietsiz: modu bisualak, inbestigaziozko kazetaritza, gehigarriak, eritziari gero eta leku gehiago emanaz eta kolorea erabiliz. *"Produkto aldetik elemendu horiek ongarriak izan badaitezke ere, ez dugu aiantzi behar lehenbiziko egunkari honek eredu 'normalizatu' bati erantzun behar diola, nolabait esateagatik, eta hala moduko eredu klasiko bati egokitu beharko zaiola. Bi behar horien arteko oreka bilatzen egon liteke gakoa".* <sup>469</sup>

---

466 Ibid. 27

467 Ikus beherago atal honetan bertan.

468 Egunkaria Sortzen, Euskarazko egunkarirako proiektua, 228 or.

469 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Normaltasunaren araberakoak dira, beraz, 40 orrialdekoa izatea (kondizio txarretan hasten bada, diru-laguntzarik gabe alegia 32koa ere onartuz), 363 egunetan ateratzea (kondizio txarretan 311tan, astelehenak utziz), eta merkatuko egunkarien preziotan saltzea. Berdin banaketa sistema ohizkoak onartzea: salmenta eta harpidedunak (postaz eta egunerokoak). Gauza bera edozein egunkaririk dituen sailak antolatzea, berezitasuna kulturari jarritz (irakurlearen soslaiari segituz).

### **7.2.2. Beloki-kideen egunkari osagarria**

"Euskarazko Egunkaria" <sup>470</sup> du izena Jose Ramon Belokik eta berak aukeratutako kazetariak sinaturiko txostenak (1990-VII-12). Haserako taldetik Pello Zubiria falta da. Felix Ibargutxik, "*ekainaren amaiera aldetik*" dimititu arren (ikus txostena) izenpetu egin zuen ("*nahiz eta beti ados egon den txostenean esaten denarekin*").

Goian esan bezala Jaurlaritzak propietzat hartu zuen, aurkezpen-egunean (1990-VII-27) "*proiektu honekin aurrera egiteko borondate irmoa*" erakutsiz. Matizaziorik eta zuzenketarik egin zion Kultura Kontseilaritzak. Aitzitik, filosofia orokorrean ados daude kontseilaria eta kazetari(talde)a.

"Euskarazko egunkaria abentura bat denez, ezin gindezke abenturatan ibili" zioen Arregik Uztailaren 18an Andoainen. "*Bakoitzak bere bizitzarekin nahi dituen abenturak*"

---

<sup>470</sup> Nik eskuratzerik izan dudana aleak ez du paginaziorik, beraz ez dut hemen emango.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*egin ditzake, baina euskararekin ezin dugu abenturarik permititu"* zioen Belokik Durangoko Azokan "Egunero" izenez bere *prototipoa* erakusterakoan.<sup>471</sup>

Taldeak, txostenean, "*ikuspegi profesionaletik*" soilik begiratu dituela arazoak aitortzen du, berea "*kazetari talde baten lana*" izan dela adieraziz, nahiz eta jakitun izan bestelakorik eritziko dionik izango dela, besteak beste, kontutan izanik taldeak berak izan dituen gorabeherak eta lan-epean izan diren ika-mika eta bajak.

Txostenaren arabera hauexek izan dira Jaurlaritzak egindako galderak: "*zeintzuk dira, euskarazko egunkaria egiten jarri ezker, gaur eta hemen jarraitu beharrezko irizpide nagusiak? Zein eredu ikusten duzue egokien hemen honetan euskarazko egunkariarentzat?*"

Taldea, abiapuntu batetik abiatzen da: "*Kultur Sailburuak, taldearen eta bere lanaren aurkezpenekoan garbi utzi zuenez, EGUNKARI bakarraren hipotesia zen berea*". Eta taldeak bere-berea egiten du hipotesi hori: "*hipotesi hori izan da taldeak ere bere lanerako erabili duena. Ez bakarrik...Kultur Sailaren iritzia...hori zelako. Baita denborak eta azterketak aurrera egin ala, garbiago agertzen joan zaigunez, burubidezko ezinbesteko hipotesizat jo behar delako EGUNKARI bakarrarena*".

Ez, printzipiozko ezergatik, arazo praktiko batek eraginda baizik omen: "*Bistako da nornahiri, eta talde honi ere, gehiago gustatuko litzaiokeela egunkari bakar bat ez, egunkari andana baizik, kaleratzeko moduan izango bagina iadanik euskaldunok Euskal Herrian. Bakarraren ordua dela badiogu beste honegatik diogu: bihar, ahal den azkarrenik, bat baino gehiago izateko bide hoberik ikusten ez delako. Finantziario publikoa eginkizun*"

---

<sup>471</sup> Egin, 1990-XII-4

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*hontara biltzeko arrazoin nagusia hor ikusten dugu:bihar egunkari desberdinak posible egingo dituen eta oraingoz inork bere kabuz martxan jarri ezin duen EGUNKARI bakarra ahalbidetu dezala lehenbaitlehen".*

Horixe da, aldi berean, enpresa motaren arrazoia: *"talde honen eritzia da, berriz, EUSKARAZKO EGUNKARI horrek, sortu behar badu, ez duela bere irakurlego agian urriaren pareko merkezurrian sortu behar. Aldiz, abiapuntua abiapuntu, enpresa serio, irmo eta bitartekoz ongi hornitu baten gainean sortu behar duela, aurrera egingo badu"*

Egunkari bakarraren hipotesia, baina, ez da inon ezinbestekotzat eman. Aukera bat da. CIESen azterketan, adibidez, bat baino gehiago posible ikusten zen.<sup>472</sup>

Belokiren taldearen txostenean, gainera, ordurarteko azterketetan ematen dituzten irakurlego kopuruei guttiegitzat erizten zaie eta gehiago direlakoan daude. Izan ere, nahiz eta txostenak, balizko euskarazko egunkariak, zenbat irakurle-erosle izango dituen erabakitzeko gaitasunik ez duela adierazi (*"talde honek ez du ikusten 'auzi' guzti hoiiek nola erabaki daitezkeen zehaztasunez une honetan; garbi ikusten du, aldiz, berak gutienez ez duela erabakitzeko modurik, guztiz arbitrarioki jokatu nahi ez badu behintzat. Eta nekez erabaki daitekeela, gainera, iduritzen zaio, arik eta nolabait esateko, merkatuan bertan benetako probaren bat egiten ez den"*) egunkari hori zertarako izango den erabakitzerakoan, helburu gisa "ohizkoak" baino irakurle gehiagotara jotzen du, *"merkatu edo eroslego potentziala zabaltzen doala berriz ez dago dudarik"* esanaz. Horren froga kuantitatiborik ez da, halere, ematen.

---

<sup>472</sup> Ikus Uria, Iñaki, "Hobe bi egunkari bat zapuztea baino", Argia, 1990-6-17 eta Mikel Atxaga, "Bi txar baino bat ona hobe", Deia, 1990-VI-19.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*"Ohizkotzat jotzen den euskal irakurle kopuru murrizta gainditzeko ahalegin guztiak egiteko izan beharko luke EGUNKARIAK"* boluntarista ematen du txostenak. Horrek ez du baina inolaz ere adierazten zenbatentzat egin behar den egunkaria, guttienez tiradak ziurtatzeko.

Edozelan ere, nahiz eta "marka" zein nolakoa den esan ez, "marka" hori haustea da benetan talde honek asmatu behar duen egunkari-ereduaren xede funtsezkoena: *"Irakurle berrien suspertzaile izateko bitarteko egokia izan daitekeela egunkaria pentsa daiteke, ordea. Taldeak hala uste du. Eta horregatik, EUSKARAZKO EGUNKARIAren aldeko desafioa jokatu beharrezko desafioa dela uste izateaz gain, lehen aipatutako helburu zehatz eta garbi horren aldeko desafio izan behar duela EGUNKARI honek, uste du. Irakurle berrien bila abiatu behar du. Suspertzaile izan behar du, zerbait izatekotan"*.

Hots, ondo ulertzen bada, arazoa ez da euskarazko egunkariaren beharrezko sentitu eta aitortu dutenen erizietara egokitzea eta hortik abiatu ahalik eta erosle-irakurle gehiago biltzera joatea baizik eta oraindik irakurle ez diren baina izan daitezkeenaren bila abiatzea lehentasunez. *"Azken finean, EUSKARAZKO EGUNKARIA dela-ta, desafioren handiena merkatuaren aldetik, zenbat erosle-irakurleekin abiatzen den baino areago, irakurle kopuru hori handitzen eta zabaltzen joateko gauza izatean edo ez izatean egongo dela"*

Zenbakiak ez emateaz aparte, (eta benetan da larria egunkari bat egiterakoan zenbat irakurle diren hurbilketa egin gabe hastea), zer berritasun dakar txosten honek (puntu honetan) ES-ek kaleratutakoaren aldean? Arazoa nahikoa larri bihurtzen da irakurle "berriak" "ohizkoak" baino garrantzizkoagoak egiten direnean, "ohizkoak" eskutartean ez dituzunean. ES-ek, gogoratu, zirkulo konzentrikoen irudia ematen zuen nukleotik

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

bazterretara joateko premia adierazteko. Hemen zentrorik ez dago. Nora joan nahi den bai, baina nondik abiatu ez.

"Denona" izatea da printzipiotarik bat eta agian horrek argi dezake aurreko arazoa. *"Denona izatea beste definizio ideologikorik -hala dei bagenezaioko behintzat horri- ez du izan behar. Ez alderdi politiko batena edo batzuna izan behar du, ez ideologia baten morrontzan edo serbitzuan egon behar du. Zentzu honetan, egunkari guztiz "despolitizatu" izan behar du. Denek, pertsona edo elkarte-erakunde guztiek, izan behar dute bertan sarbide eta aurkitu behar dute beren etxea. Denontzat izan behar du. Eta hortarako, inorena ez du izan behar. Bere jokabideek demokraziaren oinarritzko printzipio eta arauetan sustraituak, printzipio eta arau horien arabekoak eta barnekoak izan behar dute. Ez gutiagorik. Ez besterik. Zer esanik ez, ondorioz, irekietan irekiena eta pluralistetan pluralistena izan behar du".*

Biotatik bat edota hau ES-ek "independiente" eta "zabal" aginduetan esaten duena da (beste erabat esanda, hori bai) edota, bestela, demokrazia eta pluralismoa zentzu errestriktiboan ulertzen da. "Demokraziaren oinarritzko printzipioak" aipatzeak horixe adierazten du.

Nahita nahi ez "bakarra izateak" eta "denona izateak" aldi berean, egunkariaren nondik norakoa markatzen du taldearen eritziz: egunkari segmentatua, etxekoa eta osagarria edo alternatiboa alegia.

*\*"Denona izan behar duenez, interes, kuriosidade, jakin min eta maila (kultur zein beste) aski diferenteetako jendeari zuzendua izan behar du... Gaur egun egunkariak segmentatuak eginak izatearen aldeko joerez josiak aurkitzen ditugu...Irakurleak bildu*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*beharrak eramaten ditu hortara. Hortik jo beharko du baita euskarazko egunkariak ere....Ez da ikusten, izan ere, 10 urtetik gorako neska-mutikoetatik hasi, eta adin guztietako jendea (beste konsiderazioak aparte) hartu edo bildu nahi duen EGUNKARI batek zer beste erremedio dezakeen hortik jo ezean, irakurleak bereganatu nahi baditu"*

*\* "Aiton-amonentzat, gurasoentzat edo seme-alabentzat, hitz batean, etxean euskaraz guti edo gehiago irakurtzen dakien guztientzat egindako eta guztiek irakurtzeko moduko EGUNKARIA beharko luke izan. Orduan, erosi ere EGUNKARIA "etxerako" erosi "beharko" litzateke. Etxeko guztientzat. Familiako edo etxeko egunkari izatetik datorkiola sarbiderik egokienetakoa merkatuan. pentsa daiteke, izan ere. Datorkiokeela, behintzat. Eta proba egitearen aldeko da taldea "*

*\* "Erosle-irakurleari orain arteko egunkariak eskeintzen ez dioten "zerbait" eskaintzen saiatu beharko du, batez ere. Bestela, nekez aurkituko du harek "beste" egunkari bat erosi-irakurtzeko adina motibu eta interes. Euskaraz izate hutsa guti batzurentzat eta agian hoientzat ere ez luzaroan, izango da egunero erosterainoko eragile. Ondorioz, eta nolabait adierazteko, "desberdin", "berezi" eta, neurri batean, "osagarri" ere izango den egunkaria izan beharko du EUSKARAZKO EGUNKARIAK sarbiderik aurkitu, tokirik harrapatu eta itsatsi nahi badu gizartean"*

Baliteke, baina Belokiren taldeak ez du esaten zein datutan oinarriturik erabakitzen duen hori, uste hutsean ez bada.

CIESek besterik esaten zuen: "Egunkari honek gaurko prentsaren (Argia...) irakurle guztien artean sustraitu behar du epe laburrean eta irakurlearen egunkari bakarra izango

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*ez bada ere, horixe da apustua, identifikazioz lehenengo izatea eta horretara jotzea, egunkari osoa, duintasunezkoa, normala eta konpetitiboa izatera".* <sup>473</sup>

Horretantxe baina Beloki eta lagunak ez dute sinisten. Edota sinisten badute (auskalo!) ES-ek egindako apustua izanik, ezin errepikatu gauza berbera. Justifikaziorik behar zuen Jaurlaritzak ES herri ekimenari ogia eta gatza ukatzeko. Sakonean, gainera, euskarazkoa erdarazkoaren osagarri izan beharreko ustea dagoela esan behar da.

### **7.2.2.1. Euskararen multimedia**

Euskarazko egunkaria sortzeak, edozein egunkarik dituenak baino oraindik zailtasun handiagoak izango dituela-eta, txostenak - zorioneko porrota ekiditeko gainera- enpresa "*irmo eta serioa*" proposatzen du, "*irmo eta sendoa*" beste erabatera esateko, behar ainako aldaketa posibleei aurre egiteko modukoa, alegia: "*birmoldatzen joateko gai den -hots, hori egiten joateko flexibilitadea duen- enpresa irmo eta sendoa sortzera joan beharko litzateke*".

Hori euskararen multimedia bermatuko duen enpresa izango da talde honen eritziz, ez egunkariarena soilik telebista eta irratia euskarazko etorkizuna ere sustatuko duena baizik: "*EUSKARAREN MULTIMEDIA planteatzearen funtsezko arrazoia hor dago.*

---

<sup>473</sup> CIES, ob, aip. Euskarazko egunkaria, 184 or.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*Telebistako zein irratiko uhinetan nahiz paperaren gainean egiten den euskarak planteamendu amankomun batzu behar ditu neurri batean".*

Multimedia hori EITBri euskarazko prentsa idatzia eranstea litzateke. *"Hori horrela, goian aipaturiko baldintzak bere horretan dirauten bitartean, EITBren barruan sor daitekeela eta hor sortzea baino irtenbide hobetik ez dela, iduritzen zaigu. Gutierrez, arik eta gaur, euskaraz edozein EGUNKARIk bete behar dituen baldintzak aldatzen ez diren artean"*

Partizipazio sozialaren arazoak halako multimedian irtenbide aurkitzen du: *"Bidebatez, EITB barruan oro har, EUSKARAREN MULTIMEDIAN konkretuki, politiko zehazki ez diren beste indar sozialen presentzia eta parte hartzea guztiz interesgarri ikusten dugu. Euskara eta euskal kulturarekin, Komunikabideekin eta, baita, enpresa munduarekin zerikusia duten indar sozialak EUSKARAZKO EGUNKARIAn parte hartu eta konprometitzea egunkari honen onerako eta garapenerako litzateke guztiz. Eta hori ahalgarri egin beharko litzateke, gaur posible ez balitz".*

Multimediari buruz (euskarari buruz eritzi eta baliabide amankomunez betidanik eskatu arren ez da inoiz horrelakorik lortu!) *"gaur munduan nabarmen antzeman den tendentzia"* dela dio txostenak. Nekez ikus daiteke, halere, hamarkada osoan tendentzia hori enpresa publikoen artean. Hori hain zuzen enpresa pribatuak asmatutako irtenbidea da komunikazio-enpresak bata bestearekin salbatzeko. Edozelan ere 1980. hamarkado

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

tendentzia izan denik ukatu gabe <sup>474</sup> azken urteotan gainbehera datorrela ere esan behar da.

475

Hain enpresa irmo eta serioa aukeratu ondoren, txostena ez da gauza urte osoko egunkari bat proposatzeko, igande eta astelehenetan ezezik abuztu osoan ere huts egitekoa baizik, "*justuan*" dabilen plantilaren arazoa aipatuz.

Koskotan ez da sartzen Belokik aukeratutako kazetari taldea. Hori "Irigoyen § Perez de Calleja Consultores" enpresak egin zuen beti ere Belokiren egunkari etxeko eta osagarrian oinarrituta. 1991.eko Apirilean sinatutako lana "Estudio económico-financiero para la publicación de un diario en euskera" deitzen da. <sup>476</sup> *Egin*-eko kontseilari ordezkari izana lehena eta ekonomilari ezaguna bigarrena, dohaineko egunkariaren aldekoak dira, kioskotako salmenta eta harpidetza porrotbidetzat jo ondoren (5 or).

Ondoriotan hauxe esaten da "*el periódico viene a costar alrededor de 900 millones de pesetas al año*" (26 or.) "*vender 4.000 ejemplares o regalar 35.000*" ondorio ekonomiko berdintsutara ematen duela azpimarratuz. (27 or). Miloikada hori honela banatzen da *grosso modo*: 500 langileak pagatzen eta 300 gasto arruntetan. Dohainik banatzearen aukera berriz, ohizko banaketaren erdia baino pittin bat gehiago delako (32 or) egiten da.

---

<sup>474</sup> Ikus Díaz Nosty, Bernardo, La prensa hoy: reconversión y tendencias, in Díaz Nosty, B., Lallana, F., Alvarez, T., La nueva identidad de la prensa. Transformación tecnológica y futuro, Los libros de Fundesco, Madrid, 1987, bereziki 83-97 or. Ikus bai eta ere, Guillou, Bernard, Les strategies multimedias des groupes de communication, La documentation française, Paris, 1984.

<sup>475</sup> Alfonso Sánchez Taberneroren (UPVko Kazetaritza Saileko irakasle titularren) arabera, egungo medioen estrategia berriro dator media batetan konzentratzera. Ikerketa Britainia Handian egin lanaren emaitza da eta berehala argitaratzekoa du egileak. Lan hori, behin eta berriro eskatu arren ez dut eskuraterik izan, baina berarekin egin solasaldian argi utzi dit emaitzaren ziurtasuna. Milesker halere.

<sup>476</sup> Datozen lerrootan agertzen diren zenbakiak (parentesiartean) txosten horri dagozkio.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Zergatik bide hau (*"insistimos en que estos datos, sorprendentes en un principio, resultan absolutamente justificados si tenemos en cuenta cómo actúan los costes fijos y variables en un periódico, ambos en contra de tiradas cortas y en beneficio de largas difusiones"*) ez duten egunkari handiek urratu, erantzuten ez den galdera da. Izan ere Hego Euskal Herrian egiten diren egunkaririk gehienak (salmenta errealetan) Irigoyen § Perez de Callejak suposatzen duten biziraupenerako minimoz behetik dabilta, 35.000tik behetik alegia.

### **7.2.2.2. Txoko guztiera heldu beharra**

Denona izan beharrak (ez soilik jabego mailan, baizik eta herritar denengana heldu beharrak), egunkaria informazio lokalean oinarritzera darama. Proposaturiko egunkariaren zutabetarik bat da lokaltasuna. Halere egiten den proposamena guztiz motx geratzen da, zeren egituraz izango dituen hiru kuaderniloetatik bat eskeiniko zaio lokal-albisteriari; baina ez egunero. *"Koaderniloak ez du zertaz egunerokoa izan behar. Astean behin eginaz hasi daiteke. Eta, goian aipatutako dinamikaren arabera, ugaltzen joan. Hirugarren kuadernilo hau hots, bailara-herri bakoitzeko koaderniloa, "bere" bailaran bakarrik banatuko litzateke, hau da, hirugarren kuadernilorik egiten ez duten bailaratan EGUNKARIA aurreko bi kuaderniloz legoke soilik"*

Ezin uka lokaltasunari heltzeko modu bat ez denik, baina sakonean nazio osora hedatu nahi den egunkari batek arazo honi erantzuteko erabateko ezintasuna azaltzen du konpondu baino areago.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Arraro xamarra egiten da ezinezkoa den helburu bat egunkariaren printzipiotzat jotzea. Askoz ere errazagoa da, hain enpresa irmo, serio eta era guztietako problemak konpontzekoa sortu ezkerro (gogoratu "edozein birmoldaketa egiteko kapaz den enpresa" eskatzen duela txostenak oinarri gisa) edizioak egiten jartzea; eta txostenean bertan esaten denez, "absurdoa" bada Euskal Herri osora ailegatzea era hortan, guttienez egunero dozena bat egitea proposa zitekeen. Holakorik egiten du gaur egun zenbait egunkarik.

Gisako formula martxan jartzeko arazo ekonomikoak aipa daitezke, baina txostenaren kuriositate bat da muga ekonomikoak ez kontsideratzea. Txostenean muga ekonomikoak bakar-bakarrik aipatzen dira inprimatze lanak aztertzerakoan; ez enpresa moeta erabakitzerakoan.

Ahalik eta irakurle gehienengana iritxi beharrak banaketa sistema bitxi bat proposatzera darama (kioskoa erabat baztertu gabe). *"EUSKARAZKO EGUNKARIAREN urteko harpidetza ordaintzeko prest dauden gurasoei, EGUNKARI hori beren haur-neskato-mutikoen bidez etxeratzeko posibilitatea eskaintzen zaie urte horrek dituen eskola-egunetarako. Eskola-egunetan, beraz, guraso harpidedun hoiien haur-neskato-mutikoei eskura ematen die EGUNKARIAK eskola-ikastoletan, eguneroko alea, eta hoiek dira bere etxea harpidedunetara eramaten dutenak (...) Eskola-egunetako harpidedun hoiien kioskorako joera bultzatzen ere, ordea, saiatu beharra du EGUNKARIAK. Hortarako, bereziki urtean zehar eskola-egun ez diren egun hoietaz balia daiteke. Harpidedun hoiei zuzendutako ekintza bereziak asmatu eta egin beharko ditu horretarako EGUNKARIAK."*

Eskertzekoa da banaketa-sistema berrien asmatetarako ahalegina. Baina zailtasunak abantailak baino gehiago dira: eskola giroko "inpartzialitate" berezi hori nahastea, horrelako eginkizunetarako haurrak erabiltzea, sekulako banatzaile sari bitxia izan beharra etab. Baina

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

batez ere beste honegatik nire ustez: familia euskaldunei militantzi euskaltzalea eskatzen zaie (konzeptu hau guztiz zaputza izanik egileentzat) eta militantzi hori balego sobran legoke horrelako erraztasunik... Susmagarria bilakatzen da guttienez, adibidez, Jaurlaritzak euskara irakurtzeko sortuak dituen hedabideak (HABE, HABEKOMIK, Unescoko Albistaria...) horrela banatzen ez dituenean.

Konpetentziaren joku-arauak baztertuz, txostenaren egileak prezioa jaisteko prest agertzen dira: *"Gaur bertan ez da ikusten ez dohanezko EUSKARAZKO EGUNKARIAren ordua denik ez, alderantziz, nahi eta nahi ez beste egunkarien prezio berdinean kaleratu beharko litzatekeenik".*

### **7.2.2.3. Matizazioen ordua**

Belokiren txostena egunkari-muestra bihurturik (*Egunero*) Abenduaren 3an Durangon erakutsi orduko Amatiñok bai hau eta bat ESenan ikusirik hauxe esan zuen: *"Euskaldunon Egunkaria merkatuan dagoen ahulena da eta ez da "normala" izatera iristen(...) Egunero delakoak ez dirudi egunkaria izan daitekeenik ere. Ez normala, ez konbentzionala, modernoa, alternatiboa, erakargarria eta abar izan beharko du, bai, baina, beti ere, ezin bestean bait egunkari lez identifikagarria ere".* <sup>477</sup>

---

477 Deia, 1990-XII-10

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Aitzitik, ez dela egunkaria egin izan nahi esango nuke nik. A propos gainera. 1991eko Apirilean (*Euskaldunon Egunkariak* bost hilabete daramala kalean) Joseba Arregik *Vasco Pressen* bidez egindako adierazpenetan honoko hauek aitortu zituen:

Lehenik egunkariaren izugarritzko kostua: "*...en esta apuesta no vamos a escatimar recursos ni la infraestructura necesaria para que sea posible. El déficit previsto es muy alto, alrededor de 900 millones de pesetas al año, pero la empresa que se cree será una empresa seria, con todos los requisitos de un periódico, porque si se plantea este reto es para ganarlo*"

Bigarrenik banaketa sistemari buruz, dohainezkoa aukeratzen dela dio: "*parece que lo más factible sería el reparto gratuito para que llegase a más gente, lo cual obligaría a plantear el sistema de distribución alternativo que no sería el kiosko, sino la entrega a domicilio a las ocho de la mañana*". Hain zuzen Belokiren taldeak ikusten ez zuena.

Hirugarrenik, egunkari alternatiboa. Hitz hau ez da Belokiren txostenean agertzen. Han osagarri agertzen da. Baina funtsean gauza bera da. Alternatibo izan beharra euskarazko egunkaria bigarren egunkaria izateko jaio delako da: "*...hemos llegado a una conclusión muy sencilla pero muy evidente, como es la de ser consciente de que un periódico en euskara nunca va a ser el primer periódico, es decir, la gente no va a dejar de comprar su diario habitual y, si eso es así, no tiene sentido ofrecer un periódico convencional pero en euskera*". <sup>478</sup>

---

<sup>478</sup> Egin, 1991-IV-28

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Arregiren "sekula" hori "oraingoz" da Belokirentzat, Mariano Ferreri bere "El kiosko de la Rosi" irratsaioan esandakoa zuzenduz adierazia: "*proiektu honetan ez da inoiz pentsatu, absurdoa izango baitlitzateke, euskaldungoaren lehen egunkaria izateko asmoarekin ezin daitekeen egunkaririk egin. Horretan saiatu daiteke. Baina neure komenzimendua eta proiektu honena, hauxe da: edozer eginda, edozein bitarteko jarrita, edozeinekin elkartuta, guzti horrekin ere gutxiengo batentzat izango litzateke lehenengo egunkaria, euskaraz egindako bat. Xifra bat ematekotan, asko jota lau mila pertsona ere ez lirateke izango(...) Etorkizunean espero dut euskarazko egunkari bat lehena izatea, Euskadiko dinamismotik beste gauza asko espero ditudan bezala".<sup>479</sup>*

Ordurako *Euskaldunon Egunkariak* berak egindako inkesta baten arabera egunkariak zituen 40.000 irakurletatik % 29k euskarazko egunkaria baino ez zuen irakurtzen et % 33k ez zuen hura besterik erosten. Datuok, 1991-VI-21ean eman zituen ezagutzera Joxemi Zumalabek. Maiatzean publikatzen dira CIES etxeko datuak, bere urteko ohizko lehen uhinaldian. Udazkenerako, prest daude SIADECO etxearenak. Eta *Euskaldunon Egunkariarenak* udaberrikoak dira. Hiru azterketa horien arabera ondoko kuadroan ikusten da Euskaldunon Egunkariaren eragina edo irakurle kopurutan

---

<sup>479</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1991-V-3

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

<b>AZTERKETA</b>	<b>Hego EH</b>	<b>Ipar EH</b>	<b>Sal.-egun handiengan</b>
<b>CIES</b>	27.000	-	28.000
<b>SIADeco</b>	37.628	-	-
<b>EGUNKARIA</b>	36.340	-	40.371

**Oharra:** CIESez ez ditu Ipar Euskal Herriko datuak ematen; SIADecoK, Euskal Herri osoa kontutan harturik, eta hiru hipotesi diseinatuz, baten bidez 37.628tik 44.785ra bitarteko irakurle-kopurua ematen dio *Euskaldunon Egunkariari*. Inkestarik fidagarriena lehena dela aitortzen duenez horregatik eman dugu berorri dagokiona: 37.628. EGUNKARIAren beraren arabera batz besteko irakurle kopurua 36.340koa da, eta egunik irakurriengan 40.371. Datuok aipatu soziologi-etxeetako emaitzetan aurki daitezke. CIESe 1991eko Maiatzekoak dira; SIADecoKoak, 1991eko Urriaren 19koak; EUSKALADUNON EGUNKARIArenak, 1991eko Martxoaren azken asteetakoak. Datuok, bestalde, EGUNKARIA, S.Ak 1991eko Azaroaren 10ean Eusko Jaurlaritzaren eskuetan jarri zituen txosten konfidentzial bat luzatuz.

Jaurlaritzaren xedea ez da inoiz izan jendea egunero euskarazko egunkari bat erostera bultzatzea, baizik eta irakurketa bermatzea (agian helburu horrekin lehendik argitaratutako aldizkariaren porrotaren seinale). Irakur Belokik esandako hau: *"Kioskoan erosten den egunkari batek badakizu interes bat sortu duela eta desafio hori gainditzeko duen guztiak merkatu bati erantzuten ari dela argi dago. Baina hori da apustu bakarra? Euskal Herrian arrisku bat dugu; irakurmena eta ondorioz idazmena behar lukeen adina bilakatuko ez den arriskua dago. Jendeak irratia eta telebista ditu euskaraz. Onartzen dut pentsaera honetan arbitrariotasun maila bat dagoela. Baina uste dut erronka nagusia irakurleko euskalduna sortzea dela, eta gainerakoak honetara moldatu behar*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*dirrela...Egunkaria asmatuta dago, Arazoa bitartekoak izatea da. Egunkari bat ateratzea, hori erronka bat da? Hori tontakeria bat da".* <sup>480</sup>

Xede guztiz txalogarria "egunkari-moduko" batekin irakurketa bultzatzea, baina eztabaida egunkari bat egitea ala ez izan da. *"Egunkaria behar bait dugu, zioen Joxerra Garziak,(...) denborapasarako egunkari "alternatiborik" aski izan dugu lehendik ere. Egunkaria, izatekoan, egunkari".* <sup>481</sup> Horregatik esaten da Jaurlaritzaren helburua ez dela izan egunkari bat egitea (egina bait zegoen jada), egunkari itxurako beste zerbait egitea baizik dagoen eta ez dagoen diru guztia bertan sartuz (hobe, aginduz) benetako egunkaria diru-faltaz itotzeko.

### **7.3. Bi proiektuen arteko harreman ezinezkoak**

Hasieran horrela uste ala ez uste, azkenean euskarazko egunkariaren kasuan, bi proiektu agertu ziren euskal gizartean. Eta bi proiektu hauek, Belokiren taldeak bere txostena aurkeztu baino lehenagokoak ziren. Hitz guttitan esateko, kazetarien proiektu profesionala, proiektu politiko (autonomiko elebidunaren) zerbitzutan jartzeko aitzakia izan da. 1991.eko Uztailean Beloki Gipuzkoako Diputazioko prentسابuru izendatzen da, proiektua (!) Joxe Joan Gonzalez de Txabarri politikari jeltzalearen esku utziz. *"Behin*

---

480 Ibid.

481 Egin, 1990-VI-26. Hitzok, Torrealdaik hamabost urte lehenago (Anaitasuna 1975-X-15) esandakoak dira. Geroxeago, Mikel Bujanda, Euskal Herria Irratiko kazetari nafarrak, errepikatu zituen: *"egunkaria, ahal bada"* (Egin, 1990-VII-13)

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*behinekoz*" omen halere <sup>482</sup>baina indizio guztien arabera dagoen euskarazko egunkari bakarra noiz itoko zain dago Jaurlaritza. Izan ere 1992rako aurrekontuak aurkezterakoan, euskal kulturarako murrizketa erabateko kontestuan euskarazko egunkarientzako diruxentimorik ezean hauxe adierazi zuen Arregi Kontseilariak: *"hay tiempo, hay que ver bastantes cosas, hay que ver cuál es el recorrido que va haciendo el periódico existente que está en la calle..."*.<sup>483</sup>

Zenbait partiduk (EEK eta EAK bereziki), zenbait kazetarik (Basterrak adibidez), Ikastolen Konfederakundeak, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) Elkarteak, Joseba Arregik berak nahiz eta konfidantza handirik eduki ez, bateratze-deiak egin zituzten.

Bi izanik ere, bat egin ahal izateko batasun harremanak aldarrikatu dira bi proiektu desberdinetatik. Era desorekatuan halere. Gogoratu ES-en proiektuaren azken paragrafoa: *"Zer esanik ez ES ekimena instituzioekiko elkarlanerako erabat prest eta zabalik dagoela, bere oinarritan bertan onartzen bait du bai instituzioen diru laguntzaren beharra eta baita horren aurrean instituzioek planteia dezaketen kontrolaren onarpena ere"*.

Belokiren txostenak ez du deus esaten, artean amaitu gabea zelako. Amaitzen denean ere ez du horrelakorik adierazten bere testu idatzian, nahiz eta egin bitartean, lana burutu ondoren biltzeko prest agertu.

### **7.3.1. Egunkaria Sortzen-en ahalegina**

---

<sup>482</sup> Ikus Euskaldunon Egunkaria 1991-VII-11.

<sup>483</sup> Egin, 1992-XII-17.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

ESek bere proiektua kalera ahala iragarritako bilerak honoko data hautan egin ziren: Apirilaren 10ean Estebe Petrizanekin (Nafarroako Gobernua), Eugenio Arraiza eta Joxemi Zumalabe egon ziren; Apirilaren 25ean Mari Karmen Garmendiarekin (Eusko Jurlarritza) Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi eta Joxemi Zumalabe; Maiatzaren 11an Joseba Arregirekin (Eusko Jurlarritza) Karlos Santamaria, Joan Mari Torrealdai eta Joxemi Zumalabe). 1990.ean gaude.

ES taldea publikoki azaldu den bakoitzen harremanetarako gogoaz azaldu du eta administrazioarekiko elkarlanerako jarrera. Adibidez, Bilboko Erzilla Hotelean Apirilaren 21ean Torrealdai, Zumalabe eta M. Ugaldek proiektua azaltzerakoan; Ekainaren 2an, Jurlaritzari Administrazio Kontseiluan aulki bat eskeiniz eta Belokiri gonbita luzatuz: *"ES reitera su total disposición a trabajar junto con la Administración en la búsqueda de fórmulas de implicación de la Administración en dicho proyecto"*.<sup>484</sup>

Ekainaren 29an Arregik bere zalantzak agertu ondoren zai daudela halere gogoratuz; Uztailaren 6an 0 zenbakia atera bezperan *"zubi guztiak zabalik"* daudela bergogoratuz, egun horretan bertan EAK konfluentzirik ezean proiektua ez zuela babestuko esan ondoren: *"...desde nuestro proyecto siempre hemos mantenido, mantenemos y mantendremos la mayor voluntad y la mejor disposición para confluir con los proyectos periodísticos en euskara que puedan surgir"*; Uztailaren 26an 0 zenbakiaren emaitzak

---

<sup>484</sup> Deia, 1990-VI-3; Egin, 1990-VI-4.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

erakutsiz: *"siempre hemos querido que la Administración tome parte y hemos dicho que estamos abiertos y lo seguimos estando"*.<sup>485</sup>

1991.eko Ekainean Administrazio Kontseiluak sinatutako karta batean (21ean publiko egina) *"kalean errealitate bihurtu dugun produktoa hobeagotzea helburu, elkar hizketan has gaitezen"*.<sup>486</sup>

Denak ordea alferrikako ahaleginak izan dira. *"Pozgarria eta positiboa deritzogu Joseba Arregik gurekin hitzegiteko publikoki agertu duen asmoari. Elkarrizketarako prest izango gaitu nahi duen guztietan"* zion Zumalabek Administrazio Kontseiluaren izenean argitara emandako zazpi puntutako karta batez. Bertan aitorzen zen Arregik erantzun ere ez zituela egin bidalitako hiru kartak. Arregik egun bat lehenago egindako prentsurrekoan: *"...ez dut esan beraiekin bilduko ez naizenik"* esan zuen. Geroztik, *Euskaldunon Egunkaria* eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketa porrot hutsa izan da, erakutsiko denez.

ES taldea bi aldiz bildu zen Belokirekin, nahiz eta honek ezer erabakitzeke gaitasunik zuenik ukatu.<sup>487</sup> Bere ordezkaritza berriro ere EAJko politikoen eskuetara itzuli zenetik, Jaurlaritzako Kultura Sailean dago harremanetarako giltza.

### **7.3.2. EAeko Administrazioaren joera**

---

485 Aipatu egun horietako prentsa, bereziki, Euskaldunon Egunkaria kontsultatzea aski da. Denek isladatu bait zituzten Kontseilariaren hitzok.

486 Euskaldunon Egunkaria, 1991-VI-22

487 Ikus 1990-VI-29ko prentsa.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

ESen proiektuan instituzioekin elkartzea adierazten denean, Euskal Herri osoko erakunde politiko-administratiboak aipatu arren, benetako problema Hego Euskal Herriko EAeko politikoekin izan da gatazka, hots, Espainiako politika autonomikoan "*Euzkadi*" izendatu duten lurraldeko politikariek, bereziki EAJ-PNVko Kultura Kontseilariarekin, Joseba Arregirekin alegia.

Sail horretatik etorri den elkarrizketarako agindu bakarra era negatiboan eginikoa izan da, hots, Belokiren ordezkoa aurkeztu zen hartan egindako adierazpena alegia: "...*ez dut esan nahi bilduko ez naizenik*" iheskor hura.

Elkarrizketak alde horretan nola ulertzen diren konprenitzeko bada pare bat aipu interesgarririk. Kronologikoki lehena Arregik (1990-VI-29) Gasteizko Parlamentuan egindako adierazpen gogorra dago: "*No estamos cerrados al diálogo, pero el diálogo es el diálogo , sin poner por delante hechos que condicionen. Queremos dialogar en todo en el marco en el que estamos dispuestos*".

Aipatzen diren baldintzak, seguraski, ES bere bidea egiten ari dela eta egunkaria kalean duela esan nahiko du. Ahaztu egiten du, baina, ordurako bazuela harreman-eskari bat bere bulegoan. Goiko esaera horretan, ordea, *kondiziorik ez* esaten da, baina *kondizio bat* jartzen da elkarrizketarako bidean ezinbesteko, elkarrizketa posible bakarra "*en el marco en el que estamos dispuestos*" baita. Eta agerpen publiko hartan markoa Ajuria Eneako Ituna ontzan ematen duten partidu-politikoek joera da, beste edozeinentzat subentzioak ukatuz (nahiz eta partidurik ez izan, herri mugimendua baizik).

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Abuztuan zehar "Deia" egunkariaren "Cartas al Director-Foro" sailean Iñaki Zarrakoak aipu luze bat egiten du elkarrizketaren zentzua eta mugak zehaztuz. *"El Gobierno vasco está abierto al diálogo, aspira a un periódico abierto, participativo, democrático, integrador de todos los posibles lectores en euskera. El proyecto del Gobierno no es el proyecto de un periódico gubernamental, pero esto tampoco debe confundirse con un periódico antigubernamental, o, lo que es mas grave, antiinstitucional. Si la objetividad existe, preferimos a pesar de todos los fallos que se puedan encontrar, la objetividad de Euskal Telebista o Euskadi Irratia, a la objetividad de Egin. Y creemos que en un periódico financiado con los fondos públicos y único, debe haber una participación de los partidos políticos en la toma de decisiones, seguimiento y control del periódico, de acuerdo a su implantación. Lo cual no descarta la participación también de otros sectores sociales y culturales, fundamentalmente, de aquellos que militan en pro del euskara, porque el proyecto de este diario hay que situarlo también en el proceso de normalización y potenciación del euskara y no solamente desde la óptica de un medio de comunicación sin más. En la medida en que se acepten estos principios básicos, en la medida en que nuestros interlocutores estén dispuestos a retirar todos los condicionantes y elementos de presión que artificialmente han ido estableciendo en los últimos meses, en la medida en que todos renunciemos a la posibilidad de más de un periódico, el Gobierno vasco está absolutamente abierto al diálogo con Egunkaria Sortzen y con otros grupos sociales. No, lógicamente, para que el Gobierno se integre en el proyecto de ES. Sino para discutir las aportaciones y estudiar las formas en que las personas de ES y otras que no están implicadas en el mismo puedan participar en el proyecto impulsado por el Gobierno".<sup>488</sup>*

---

488 Deia, 1990-VIII-14.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Gobernuaren proiektua ez da anti-instituzionala, jakina, baina ESena ere ez behin eta berriro agertu denez. Talde politikoen partizipazioaz ados egon daiteke, baina ordurako Zarraoaren gainera dagoenak ukatua zien batzuri partaidetza (partiduen estrategia egotziz gainera). Elkarrizketaren posibilitatea berriz, ez da posibilitate irekia, (hau da eztabaidatu ondoren biderik egokiena hartzekoa), baizik eta posibilitate bakarra ematen duena (ES Gobernuaren proiektuan integratzearena). Horretarako baina ez zen dialogorik behar, ESek aldeaz aurretik bere proiektua ukatzea eskatzen bait du.

Abuztuko karta-sail hartan Martin Ugaldek zabalago proposatzen zuen elkarrizketa: *"creo que haya posibilidades de conciliar los dos proyectos para un diario en euskera: que entren en juego todos, quienes creen y quienes no creen en las instituciones. Un Consejo Editorial previamente consensuado evitaría desviaciones"*.<sup>489</sup>

Non aurkitu, aurkitzerik baldin badago, jarrera hertsu haren iturria? Non justifikazioa *consensus* erreal honen ukapena? Non, bestalde, Kultura Sailaren protagonismo-nahia, bere filosofia izan omen dena zilipurdikatzeko? Izan ere Arregik berak *"Euskadi Kulturala"* aldizkariaren aurkezpenean esanak dira hitzok: *"A esto te respondería que la ilusión del Departamento sería no tener ningún proyecto cultural y que fuera la propia sociedad la que se encargue de esto. La Administración está para ayudar y poner los medios y para superar el déficit de infraestructura que pueda existir"*.<sup>490</sup>

Aurkitzekotan Jaurlaritzak kasu honetan ere Ajuria Eneako Itunaren bidea hartzean, HB-ri dirua ukatzen hastean aurki daiteke. Eta, sakonago, aktibitate guztia, kulturala barne,

---

489 Deia, 1990-VIII-19.

490 Ikus Argia, 1990-IV-15.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

partidu politikoaren parametrotara mugatzean, alderdien ekimenetik at beste errealitatearik ez bait legoen. Hor, baina, ekibokazio bat dago.

Ezker abertzalea ez dago instituzio nagusiekin identifikatuta, baina esistitu esistitzen da. Areago, burruka eta dinamismo euskaltzalearen nukleo eta bihotz den ezker abertzalea ukatu nahia dago. Zeren euskaltzaletasuna partidu politikoaren mugez haruntzagoko errealitatea izanik, (praktikan euskaltzaletasuna ez dago ulertzerik abertzaletasunik gabe), ez dago ukatzerik mugida horren akuilu eta eragina ezker abertzalean (zentzurik zabalenean ulertuta) dagoela.

Orain arteko azterketek horixe erakusten dute. Dugun erreferentzi oinarrituriko bakarra hor dago. *"Irakurtzen den egunkaria da, euskal populazioak euskararen aurrean hartzen duen jarrera hobekien expikatzen duten aldagaietako bat"* esaten da *"Euskararen Borrokan"*.<sup>491</sup>

Lan horren arabera *Egin* irakurtzen zuten euskaldun alfabetatu (%36,7), euskaldun berri (% 41'2), euskara ikasten saiatzen diren erdaldun (% 24' 6)-en giza-kopururik handienek (eta saiatu ez diren erdaldunen artean (% 10'3) giza-kopururik txikienek<sup>492</sup> *Egin* ezker abertzalearen eta zehatzago HBren egunkaria denik ez dut uste frogatzea merezi duenik.

CIESek (Jaurlaritzaren enkaruz hau ere) 1988-89.ean egindako lan aipatuaren zuzendariak, Fernando Lakabek hauxe zioen: *"Argi ikusten da irakurle medioa ez dela*

---

<sup>491</sup> Jakin, 1983-26-27 zb. Jaurlaritzak Ruiz de Olabuenaga zuzendari Gizarte Azterketarako lantaldeari eskatutako lana.

<sup>492</sup> Ibid. 75 or.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*Gobernuaren botoemalea. Orduan, alde batetik 'ez dut subentzionatuko botoa ematen ez duen jendearen ezer' mamua ager daiteke. Irakurle medioa, argi eta garbi, ezkerrekoa da, erradikala gutxiago edo gehiago baina ezkerrekoa. Gobernuaren arazoa izan daiteke orain Gobernuak duen irakurle ohizkoa adinekora dela eta euskaraz irakurtzeko gaitasun handirik ez duela".* <sup>493</sup> Halere, gogoratu, ES-en proiektuaren arabera instituzioak direla herkieengan dagoen zatiketarik nabarmenena eta juxtu hori gainditzea jarri duela helburutzat.

Halaber, ezker abertzalea eta honen zati antolatua den HBri mesederik ez egitearren, nahiago izan du (eta du) Jaurlaritzak euskal-eremuak lortutako adostasun zabala (zabalena seguraski) haustea, proiektu *xelebrea* babestuz.

Moldeotan ulertu behar da, bai eta ere, Kultura Kontseilaritzak eta zenbait kazeta-kazetarik Euskal Naziorako Askapen Mugimendua (ENAM) delakoaren bizkar proiektuaren desbideraketa eta maltzurkeria guztiak egozteko intentzioa.

### **7.3.2.1. ENAMekiko (ezinbesteko) identifikazio (okerra)**

Ez da azken momentukoa identifikazio-saio hau. Hiru fase bereiztuko ditut azpiatal honetan.

---

<sup>493</sup> Hemen, 1990-IV-6.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Lehenengoa 1983eko Maiatzean hasten da. *Eginek* eta *Deiak* beren euskarazko egunkarirako proiektu bana Jaurlaritzan aurkeztu zirenetik, 1986ra biartean, hots Jaurlaritzak *Hemen-Eguna* astegunkariak plazaratzen dituen bitartean. Orduan Jaurlaritzak ez zuen ez bata ez bestea bultzatu nahi izan, jakin bazekielako irakurlegoa ezker abertzalekoa izanik *Egin*-ek bakarrik zuela irtenbide itxurazkorik. Bide hori laguntzea bide a-instituzionala laguntzea izanik, ezinezkoa bilakatzen zitzaion. "*Borondate politiko eza*" esaten zen garai hartan. Xabier Amurizak esandako hari, hots, "*egunkari horren arazo nagusia ez da dirua ez irakurlegoa, arazo politikoa baizik (...) horiek (ezker abertzaleko irakurleak) ez lukete egunkari erreakzionariorik erosiko, euskaraz izanda ere*",<sup>494</sup> honela erantzun zion Mikel Atxagak: "*euskal irakurlegorik gehien Eginen inguruan dabil egia balitz ere ideologia berdineko egunkaririk euskaraz moldatzeko dirurik ez du indar horiek (PNV, PSOE, EE, AP) emanda izango*".<sup>495</sup>

Garai haietan baina (ikus III Atala) euskararen herri mugimenduan bildutakoek (ARGIaren inguruan batez ere euskarazko prentsa idatziaren kasuan) partidu politiko zehatzen gainetik ibili beharra azpimarratzen zuten bitartean, edozeren gainetik instituzioen ohorea gorde beharra erakusten zuten beste batzu.<sup>496</sup>

Bigarren saioa *Hemen-Eguna* sortzen denetik CIES enpresak bere azterketa aurkeztu arte (1990-II-1) doa. Fase honetan Atxagaren testigua Amatiñok hartu zuen, hura nazka-nazka eginda bait zegoen egunkariaren erretolikarekin.

---

494 *Egin*, 84-I-15

495 *Egin*, 1984-I-15 eta *Deia*, 1984-I-18.

496 Mikel Atxagaren lumatik batik bat, ikus adibidez *Deia*, 1983-X-10.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

ARGIA astekariak erakutsia du 1987ko maiatzean aldizkaria egiteko muga ideologikorik ez jartzea duela helburu sektore euskaltzale guztiengana ailegatuko den aldizkaria mamitzea hain zuzen ere. Amatiñok euskarazko egunkaririk egitekotan irtenbide bakarra enpresa publikoa zela esanaz hauxe azpimarratzen zuen: *"nik neuk ez dut uste honen politizatua, grinatsua eta sakabanatua den euskal gizarte honetan Administrazioak 250 miloitaiko subentzioa eman diezaiekeenik edozein ekintza pribaturi, euskal gizarte osoarentzako egunkaria berekaxa egin dezan"*.<sup>497</sup> Hau da, motibo politikoak tarteko laguntzak ukatzea normalizat hartzen ditu.

Hirugarrenik, deskalifikazio-bide nabarmena, 1990.ean hartzen da espreski ESek bidea urratzen hasten denean. Ordurako argi dago euskal prentsaren hautu pertsonal eta kolektiboa egin dutenentzat arazoak duen alde nazionala: *"nire ustez prentsa eta beste euskal komunikabideek proiektu nazional baten inguruan kokatu ditzakegun asmoak dira"*.

498

Proiektu abertzalea, proiektu nazionala baino ez da<sup>499</sup> baina aspaldion ezker abertzalearena baino ez da erreibindikazio hori. "Diario en euskera: es hora de decidir" artikuluan hauxe dio Amatiñok identifikazioak eginik: *"Contra lo que pudiera imaginarse, la discusión entre público-privado...(siendo el mundo de HB quien no quiere ni oír hablar de un diario público).."*.<sup>500</sup>

---

497 Eguna, 1988-IV-28.

498 Zumalabe, J., Argia-Urtekaria, 1987, 67 or.

499 Ikus Amatiño in Jakin, 1982, 22 zb..

500 Deia, 1990-I-21.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

El mundo de HB alegia. Zuhurrago eta zeharkakoago oraindik "Begiak zorrotz belarriak tente" sailean: *"Lehengo lepotik burua. ES delakoa taldeak sortaraziko omen duen egunkariari lehendanik gaztelaniazko beste hainbati gertatutakoa jazoko omen zaio. Hau da Carlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealday eta era honetako izenez baliatu promozioa egiteko eta gero 'geratu behar duen eskuetan geratzeko'"*.<sup>501</sup>

Omen-ez jositako albistea, intentzio txarrak egozteko ESen bizkarretara. Egin-i buruz ari dela aitortzeko zuhurregia izan behar ez denez, argi dago era batean zein bestean Amatiño ES ezker abertzalearen siglekin identifikatzen ari dela, ESen asmoa hori ez dela aski frogatua egonarren.<sup>502</sup>

Bide honetan haruntzago joan dena, ordea, dudarik gabe, Joseba Arregi Kontseilaria da bai Gasteizko Parlamentuan (1990-VI-29), bai eta prentsaurrekoz (1990-VII-27).

*"Zenbaitentzat zerbaitek zabala, irekia, plurala (ESen hamaika aginduak komentatuz jakina) izan behar duela esateak nahaste borrarstea esan nahi du, manipulaziorako aukera, lotsagabearena, joku arauak errespetatu beharrik ez dagoela pentsatzen duenaren aukera. Guk berriz alderantziz dela uste dugu: ez dago zabala, irekia, plurala izaterik joku arauak argi ta garbi ez badaude, eta zehatz-mehatz betetzen ez badira. Eta guzi hau batez ere diot gure gizarteari begira, guziori inuxenteak izateko garaia igaro zaigulako, edo gutxienez igaro beharko litzaigukeelako, gure gizartearen zabaleroaren,*

---

<sup>501</sup> Eguna, 1990-VI-114.

<sup>502</sup> Alde hau arakatzeko ikus, Iñaki Zabaletaren zuzendaritzapean, 1991-92an, doktorego tesiaurreko ikastarotan, UPVn, Sabino Madariaga, Joxean Goñi, Itsaso Fernández, Nerea Bello eta Maite Arresek egindako ikerketa-lana non *Euskaldunon Egunkariaren* partiduekiko lan orekatua isladatzen den. Horren erreferentzia *Euskaldunon Egunkarian* agertu da 1992-XII-15ean. Milesker Zabaleta lankideari azterketa hori eskutartean erabiltzea uzteagatik.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*irekitasunaren, pluraltasunaren aurpegia edo zurikeria beharrezko zaien bat baino gehiago daudelako atzetik beraien azpijokoa, aspaldidanik ezagutzen dugun azpijokoa egiteko. "Herriarena, guziona, denok elkarturik" eta honelakoak askotan entzun ditugu azken urte luzeetan eta badakigu zertarako erabiliak izan diren. Eta badakit, batez ere, euskarari loturik honelako deiak halako indar berezi bat hartzen dutela. Horregatikantxe, ordea, honetan beste ezerretan baino gutxiago utzi behar ditugu gure buruak engainatzen. Eta aipaturiko elemento guzi hauek era batera edo bestera azaltzen ari dira Euskal Egunkariaren gai honetan". Gasteizko Parlamentuan esandako hitzak dira hauek. Ezin deskalifikazio nabarmenagorik, eta frogarik gabekogorik izenik eman gabe aipatzen bait du ES taldea, "zurikeria" leporatuaz, "azpijokoak" egotziz.*

Donostiako prentsaurrekoan gauzak bere izenez esan ziren, gaia parametro politiko hutsetara eramanez: "*...si algún promotor de ES me pregunta si a juicio del Gobierno Vasco, el periódico en euskara tiene que situarse en el marco de Ajuria Enea, le tengo que responder que por supuesto que sí, que sin duda tiene que ser así*".

Eta Pello Zubiriak Belokiren taldea uzteko emaniko arrazoiak gaitzetsiz: "*creo que esa razón es aclaratoria. Si no se quiere eso, todo el mundo sabe en qué órbita están los demás*". Pello Zubiriak Ekainaren 4an bidalitako faxean oinarriturik Argian eta Eginen publikatutako artikuluetan hauxe zioen: "*Euskal kulturaren erabakitzaille Komunitate Autonomoko alderdi politikoei, tartean Ajuria-Eneako hitzarmena delarik. Euskal kultur proiektuak parametro horietara eramanez, zulo beltzera goaz*".<sup>503</sup>

---

503 Argia, 9-VII-15.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Eta gazteleeraz: *"Son, por tanto, los partidos políticos de la Comunidad Autónoma quienes deciden sobre la cultura vasca, estando por medio el Pacto de Ajuria-Enea. Si reducimos a estos parámetros los proyectos culturales vascos, caminamos hacia la tumba".*

504

Non dago hemen (ez eta Ekaineko faxean, ez Maiatzaren 26an Donostiako Radio 5ko "Quédese con nosotros" irratsaioan, ez Ekainaren 13ko *Astelehen Buruzurín*, ez beste inon) Zubiriaren Ajuria-Eneako ez direnekiko inplikazio politiko nahia?.

Gorago aipatu ditudan *Deiako* abuztuko kartetan eta *J. Iratzarek Eginen* egin zituen komentarioak ekarriz, ESen matriz politikoa nabarmendu nahi da. *"El señor Martin Ugalde sabrá qué hace él en ES, en la órbita del MLNV"* <sup>505</sup>; *"Los sectores del MLNV, al ver que el Gobierno iba en serio..."* <sup>506</sup>; *"...fueron los contertulios posicionados en sectores del MLNV, entre ellos el propio Zumalabe..."* <sup>507</sup>; *"...todo ello queda confirmado por el posicionamiento reciente de Iratzar en Egin, al optar por dos periódicos, uno en la órbita del MLNV y otro en la del bloque democrático"*; <sup>508</sup> *"Para hacer más favorable su periódico, los sectores del MLNV llamaron a otras personas interesadas en el proyecto..."*.

509

---

504 Egin, 90-VII-31.

505 Zarraoa, I., Deia, 1990-VIII-4.

506 Zarraoa, I. Deia, 1990-VIII-14

507 Ibid.

508 Ibid.

509 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

J. Iratzar-en bi artikulua topatu ditut *Eginen* goiko baieztapen-identifikatzaileak aztertzeko. Bata, Uztailaren 16an idatzia ("Fiesta euskaltzale") ESen 0 zenbaki ondoko jai-giroa aipatuz, eta hurrengoa Uztailaren 30ean ("Fondo y forma").

Lehenengoan, euskaltzaleen arteko adostasuna aipatzen da, hori izanik funtsa: "*...si el Egunkari como proyecto profesional ya tiene su intrínsculo, dio Iratzar-ek, a estas alturas del proceso no parece que fuera el principal factor de preocupación para aquellos a los que representa Beloki, si lo comparamos con el quebradero de cabeza que les ha creado el sin duda inesperado consenso euskaltzale, por encima de las siglas, magistralmente alcanzado por ES. Un consenso que ¿dónde piensa lograrlo Beloki, en el Parlamento de Gasteiz?*".<sup>510</sup>

Eta ondoren: "*Seguramente el consenso del que se habla... dispondría de menos problemas si, como en todo en este país, no se interpusiera la existencia de dos proyectos estratégicos, políticos, en abierta competencia*".<sup>511</sup>

Eta aurrerago: "*Sin la existencia de esa dicotomía, quienes hacen descansar el peso de su poder en la Administración autonómica actual, tendrían menos prejuicios en reconocer el liderazgo del denominado MLNV, en cualquier instancia y actividad relacionada con el euskara, sin que ello signifique la no existencia de un consenso euskaltzale muy por encima de las siglas*".<sup>512</sup>

---

510 Egin, 1990-VII-16

511 Ibid.

512 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Hemen ez dago Zarraoak esandakoa ("*...el posicionamiento reciente de Iratzar en Egin, al optar por dos periódicos, uno en la órbita del MLNV y otro en la del bloque democrático*"<sup>513</sup>, ez eta Belokik aipatutakoa ("*Para Iratzar la afirmación sobre el consenso conlleva también, explícita o implícitamente, otra serie de afirmaciones tales como la ya citada de la existencia de dos proyectos políticos estratégicos en este país: el liderazgo del MLNV en cualquier instancia y actividad relacionada con el euskara; y otra*")

Iratzarek dioena ez da egunkaria ENAMen proiektu politikoaren barnean kokatu behar denik, baizik eta ES sustatzen dutenek siglaren gaindiko adostasuna lortu dutela batetik eta bestetik, euskarari dagozkion arazoetan, ENAMeko jendea dela nagusi, eta, bi proiektu estrategiko izateak, arazoaren ulertze-prozesua zaildu egiten duela ere bai, jakina.

Bigarren artikuluan, gogoetarako puntua jartzen da, ez besterik: "*Cuestión de mucho fondo es la versión del periódico en euskara que presenta el Gobierno de Gasteiz, según Joseba Arregi versión Pacto de Ajuria Enea. Para ese viaje podían haberse ahorrado muchas alforjas (...) A los componentes del propio equipo del que se ha rodeado Beloki, les interesaría saber que en realidad hacían un modelo de egunkari a la altura del pacto de Ajuria Enea*".<sup>514</sup>

ESen proiektua ENAMen sigla-sorta baino zabalagoa da. Ez dago ukatzerik. Proiektuaren txostena irakurtzea baino ez dago. Identifikazio hori espreski ukatu dute zenbait partaidek: "*El caso es que la iniciativa surge, aunque tardíamente, de la sociedad, no de las instituciones.* Eso, y no otra cosa, es ES. Por eso yo, y como yo otros tantos,

---

<sup>513</sup> Deia, 1990-VIII-21

<sup>514</sup> Egin, 1990-VII-30

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*apoyamos esa iniciativa desde el comienzo. Por eso, y nada más que por eso, mal que le pese al señor Amatiño, y lo propague desde sus múltiples mentideros públicos. Todos los que apoyan ES son de HB, dice el señor Amatiño por ETB, y miente, y sabe que miente, pues me consta que en privado me asigna otra filiación política".*<sup>515</sup>

Gerardo Markuletak, berriz: *"EGUNKARIAk eta HBko edota inguruko ez garen kolaboratzaile guztiok zabaltasunaren alde eta era guztietako eritziak ager zitezten egindako ahalegina, horrelako identifikazio huts batez, pikutara bialdu nahi izatea inorantzia da, edota bestela azpijokoa".*<sup>516</sup>

Honek pluralismo eta zabaltasunaren diskurtsora garamatza zuzenean baina beheraxeago aztertuko da.

KASek, ETAk, ENAMen eledunek ez ote dute, baina, ezertxo ere esan gai honetan? Gorago aipatu da HBren joera. LABek publikoki adierazi zuen ESeneko partaidetza, akzioak erosiz,<sup>517</sup> (beste hainbat taldek, agian esan gabe, akzioak erosi zituen bezalaxe bestalde).

Baina KASek, ETAk? 1990.eko Iraileko 29an *Deian* eta 30ean *El Correo Español*-en "Zuzen" aldizkariaren 29. alearen editorialea aipatzen da. *"No debemos, pues, en adelante infravalorar el tamaño y la profundidad del desafío, aipatzen da Deian, así como las posibilidades y capacidades del enemigo. Debemos considerar nuestra fuerza y capacidad sin triunfalismos. Ahora, el pulso, que se mantiene entre el MLNV y los poderes*

---

<sup>515</sup> Joxerra Garzia, Egin, 1990-VII-15

<sup>516</sup> Gerardo Markuleta, Euskaldunon Egunkaria, 1990-III-6.

<sup>517</sup> LABeko Idazkaritza Nagusiak, 1990-XII-9an emandako agiria.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*del Estado es fuerte y violento. De la misma manera que estamos reunificando nuestras fuerzas y reinsertando nuevos aires en el seno de la izquierda abertzale, propagando y trabajando en torno al MLNV, con el proyecto alternativo de la autovía Irurtzun-Andoain, encauzando el proyecto del diario en euskara, en la lucha contra la droga y la drogodependencia".* Eta *El Correo Español*-ek honela kalifikatzen zuen aurkikuntza: *"KAS se felicita por la próxima puesta en la calle del periódico en euskara ES"*.

1991-eko Uztailean ematen da idendifikazio-gogo horretan urrats berri bat, zuzenean ETArekin nahasiz. Uztailaren 10ean Jose Ramon Belokik gobernuaren proiektua uzten zuela eta emandako prentsaurrekoan hauxe esan zuen: *"tentazio baten berri emango dizuet, ez dakit zer egingo dudan, baina igual, batzuei bidaliko diet dokumentu fotokopiatu bat..."*. Suspense (grabe)a beraz.

Egun berean ETB-1eko *Gaur Egun* eta ETB-2ko *Teleberri* informatiboetan hauxe adierazten zen ilunabarrez: *"Euskaldunon Egunkariaren zuzendariaren izendapena ETAko buruzagien oneritziz egin omen zela ulertu daiteke Frantzian atxilotutako etakideei harrapatutako dokumentazioan"*.

Uztailaren 24an Barzelonako *"El Periódico"*n hauxe publikatu zen letra handiz eta sei zutabetara: *"ETA controló la salida de un diario"* eta barruan ... *"ETA estaba al tanto de cómo nacía la nueva publicación"* baino ez. Hurrengo egunean *Navarra Hoy*-k, OTR aientzia aipatuz *"ETA controló la salida del periódico Egunkaria"*.

Informazio guzti horiek J.D. Aizpurua Aizpuru eta Karmen Gisasola errefuxiatuei poliziak harrapatutako (antza) KASen paperetan oinarraitzen dira, hauxe ondorioztatuz: *"Datos que constatan el control ejercido por ETA y el MLNV sobre Egunkaria, en base a*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*documentos incautados a varios dirigentes en Iparralde, de los que se extrae lo referente a Euskaldunon Egunkaria". Urriaren 26an datatutako paperak dira uztailean albiste bihurtzen direnak. Bertan zuzendaria aukeratzeko izan ziren zailtasunak, alderdi politikoen kontraesanak gai honetan, diru-arazoak etab. aipatzen dira. Berorietatik baina ondoriozta daitekeen bakarra hauxe da, alegia, KASek, indar politiko guztiak bezalaxe atal honetan bertan agerten denez, Egunkaria Sortzen taldearen euskarazko egunkariaren sorrera gertutik segitu zuela. Halakorik!*

Ordurako ESK zuen Administrazio Kontseiluak hauxe arrapostu zuen: *"Ez hasierako Administrazio Kontseiluak, ez eta ere Akziodunen Batzarraren ondoren osatutakoak, ez du inoiz ezein indar politikoren eraginik jasan, ez zuzendariaren hautaketan, ez kapital bilketa prozesuan, ez eta ere bere gestioarekin zerikusirik izan dezakeen inolako alorrean"* egunkaria nahastea baino bilatzen ez zuten albisteak direla azpimarratuz.

1992.eko Otsailaren lehen egunetako gertakari batek, aitzaki paregabea ematen du ikusten ari garen identifikazio horiek egiteko. Hil horren hastapenetan, ustez ETarentzat zerga iraultzailea jasotzen ari ziren bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak: *EGIN*entzat lan egiten zuen Manu Idarraga eta aste pare bat eskas *Euskaldunon Egunkari*arentzat lanean ziharduen Jose Carlos Apeztegia. Biak publizistak.

Atxiloketa hura dela eta honoko adierazpenok egin zituen Juan Mari Atutxa Barne Sailburu jeltzaleak: *(Ertzantzaren ekintza honek agerian utzi du) "ETAren sarearen eta HBko mundurako hain garrantzitsuak diren Mahai Nazionala, Egin eta Egunkaria eta LABen artean dauden batetortze esanguratsuak"*.<sup>518</sup>

---

<sup>518</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1992-II-4.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Manipulazioa manipulazio, zer da ENAM eta ze nolako lotura du ESen proiektuarekin?

Aipatu dut beste pasarte batean, euskara eta euskal kulturak ETArekiko izan duen erreferentzi-puntua. HBk, ez duela asko, (1992ko Udaberria) "*beharrezko erreferentzia*" deitzen du ETA.

Dudarik ez dago, ENAM delakoak *Euskadi Ta Askatasuna* deitzen den gertakizun fundatzailean duela bere sorburua. (Aldi berean ulertezina daitekeela hori *Euskadi euzkotarron aberria da* harekin). ENAM delako anitzgunea, bi eratara ikus daiteke: egitura gisa eta mugimendu gisa. Egitura gisa Ezker Abertzaleak duen babesleku eta kokagune da. Kokagune mugatua. Horrela ikusirik ENAM gizartearen azpimultzo bat da. Horren osagarri KAS eta HB bereziki eta berarekin loturiko erakunde sozio-plitikoak.

Mugimendu orokor gisa ikusirik -mugarik gabekoa- Euskal Herriaren askapen-prozesuaren adierazlerik adierazgarriena da. Horrela ikusirik ENAM sorketa-gaitasun muga gabea da. Indar subjektibo mugabako hau da ENAMen benetako berma eta biziraupen-ahalmena. Maila honetan Euskal Herriaren burujabetasun-erreibindikazio orokorrarekin (nola edo hala kokagune eta siglak non dituen ala ez dituen alde batera) bat egiten duen oro da kide eta osagarri.

Era honetara kontsideraturik, jakina, ENAM ez da gizartearen azpiatala. ENAM hau orokortasuna bait da, helburuz eta xedez Euskal Herriaren subiranotasun-eremua egitea duelako. Etorkizuneko euskal gizartearen diseinua da ENAM. Asko eta askok beren buruak ENAMkideztat eduki ez arren, benetako kide dira bere jokabidez erreibindikazio nazional eta sozialen babes eta kabi bait dira. Estatu espainiarrarekin aurrez aurre dira, inolako

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

siglarik gabe ere. Horregatik, seguruenik, erakunde espainiar eta autonomikoen herri mugimenduekiko herra. Antagoniko sentitzen bait dituzte. Nolabait esateko erreibindikazio sektorialetik haratago doazen banako edo kolektibotzat jotzen bait ditu.

Herri mugimenduek ENAMekin halako lotura ezkutu eta kokaezina dute. Horregatik dira, adibidez, susmagarri euskaldun guztiak (edozein izanik bere sigla politikoa, eta adierazpenak).

ENAMen mamia ez dago, beraz, KAS edo HBn, hots erakunde antolatuetan. Hauek ENAMen alde egiturazkoa dira. Egiturazko loturarik guttien duten horiek dira, aldiz, elementurik eraginkorrenak.

Ezker Abertzalea, egitura gisa abertzalegoaren zati bat da. ENAMen zatirik konszienteena. Batasun dialektikoa dago Ezker Abertzalean. Abertzale(k), beraz, Askapen Nazionala erakusten du, kontraesanaren zatirik garrantzizkoena; Ezkerra(k), askapen soziala erakusten du. Biotatik lehena abertzaletasuna da, horrek ematen bait dio antagonismoaren zantzua.

Horrela ulertzen bada, erraz konpreni daiteke zergatik izan den beti susmagarria euskararekin lotutako herri mugimendua. Zergatik ez den inoiz (gogo onez) instituzio autonomikoetan onartua izan Euskal Prentsa. Zergatik hainbeste presiobide Egunkaria Sortzen herri ekimenaren inguruan.

Ulertzekoa da, bai eta ere, ES-ek Jaurlaritzak eginiko identifikazioa erabat baztertea. Izan ere ES taldeak ez du zerikusirik ENAMen siglekin, are guttiago ETArekin.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Baina ulergarria da, baita ere, Jaurlaritzak identifikazio hori egitea, taldearen (Euskal Prentsaren) benetako indarra nondik datorren susmoak (erreibindikazio nazionaletik, Euskal Herri Euskalduna praktikan ezartzetik) ez bait dio hutsik egiten. Euskal Prentsa, eta ondorioz ES ere bai, Euskal Herriaren burujabetasun nazionala nahi duen mugimenduaren elementu bat besterik ez bait da. Hortik datorkio, eta ez sigletatik (siglak enbarazo baino ez dio egiten) bere inguruan adostasunik handiena egiteko ahalmena. Hortik dator Jaurlaritzaren ukazio borobila: antagonista ezin da lagundu.

Partidu bat, bereziki bere burua nazionalistatzat duenak, antagonismo horretan dagoen ala ez aztertzea ez da nire egitekoa, baina Euskal Prentsaren mami-mamitik antagonismo hori ixurtzen delako ematen dela Jaurlaritzaren (eta bereziki Kultura Sailekoen) eraso nabaria da enetzat.

Zilegi bekit hemen artikuloz zahar bat ekartzea, diskurtso luzeak baino indar gehiago duelako ene aburuz, Josu Landarena da: *"Gaur egun silogismoz arrazonatu behar duzu bai eta zergatik zaren abertzale. Edota zergatik berreuskaldundu nahi den Euskadi. Halere, esan behar da Euskal Prentsa garai batean zegoen zulotik irten eta bilakatu bada, irrazionaltasunari esker izan dela. Badakizu, lainotan zaudenean batzutan begiak itxi behar dira lehenago leku horretan bertan mendia zegoela zure buruari sinestarazteko. Bada, Euskal Prentsari zenbaitetan begiak ixteko eskubidea ere ukatu nahi izan diete lojika sozialaren kalkuladoreek. Duela urte mordo bat Euskal Prentsa maite eta lantzen gaudenok zoratu idealista eta anakroniko batzu ginenean, begiak ixten jakin genuen eta horregatik zabaldu ditzakegu gaur egun bertan (lehen bezala) mendirik badagoela ziurtatzeko. Orduan prentsa elebidunaren garaia bait zen Euskal Prentsarenak egin zuen. Egokorrak berez ez du ezer lortzen, baina egoskorkeriak atzean Herri bat daukanean, herri horren arrazoiak*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*irtenarazten ditu gauzak aurrera. Eta noski, razionalkeriaren maitaleek ezin hori konprenitu. Euskal Prentsa dogma bat da, bibentziak sortutako dogma maitagarri bat da. Euskadi bezala, amodio bezala. Euskadi, maite zaitut. Euskal Prentsa, oso begi politikak dituzu".* <sup>519</sup>

### **7.3.3. Bi kontzeptu nagusi: publikoa eta zabala**

Azken urteotan eta bereziki euskarazko egunkaria dela-ta bi kontzeptu nagusi (ezinbesteko edo printzipiozko) jarri dira jokuan: bata, egunkaria izatekotan publikoa izango da; bestea, derrigorrez zabala (edo irekia) behar du izan. Beraz, eta *a contrario*, egunkaria ez da ez pribatua, ez eta itxia izanen.

Asko diskutitu arren, diskutietzinak eman dute beti bi printzipiook. Publikotasunaren alorra eztabaidatu egin da baina inor ez da (gogoz) bere antonimoarekin identifikatu hots pribatuarekin. Zabaltasunez, norgehiagoka aritu dira euskarazko egunkariak edozelango kezka ukituak. "*Irekienetatik irekiena*", "*erabat zabala*", izan da egunkariak behar zuen osagarraitasunik preziatuena. Ondoko orriotan banan bana ikusten dira bi kontzeptuok.

#### **7.3.3.1. Publikoa eta pribatua**

---

<sup>519</sup> Egin, 1984-III-24.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Publikoa eta pribatua bi kontzeptu kontrajarriztat hartu dira. Publikoa ez dena, derrigorrez, pribatua da. Baina, hori, berrikusi beharra dago mamira jota.

Kontzeptu hori jabegoari egokitzen zaio. Enpresa baten titulartasuna zeinen eskuetan dagoen erabakitzeko erabiltzen den kontzeptua izaten da ohiz. Baina zer da enpresa bat esku publikoetan egotea, edota partikularren eskuetan izatea? Azkenean ikusi da partikularrak izan daitezkeela publikoenak, eta publikoak partikularrenak. Horixe azaltzen da ondoko orriotan.

Euskarazko egunkariaren kasuan, adibidez, inork ez du defenditu bidea enpresa publikoa denik. Printzipiozko bidea, alegia. Publikotasuna defenditu dutenek, beti gaitzerdiz planteiatu dute beren aukera hori.

\* Luis Alberto Aranbarri, Amatiñok, adibidez. "*Hemen inor baldin badago pribatasunaren aldekoa, ideologiaz, sozologiaz eta hezkuntzaz ni naiz*". <sup>520</sup>

*"Personalmente, zioen beste behin, yo sería en principio partidario del modelo privado, pero no parece que existan mecanismos legales para asegurar a la larga la impronta característica de toda iniciativa privada, así como para evitar la funcionarización del personal en una empresa en la que desde el principio se va a saber que nace y subsiste a cuenta del presupuesto... Consecuentemente... si al final va a parar siendo empresa pública lo mejor es concebirla como tal desde el principio".* <sup>521</sup>

---

520 ETB-1, Ezbaian, 1988-IX-18

521 El diario en euskera, Deia, 1988-XII-110.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Eta oraindik beste inoiz: *"...por propia ideología y extracción social yo me considero bastante más indicado que el propio Arraiza para defender una empresa de corte privado"*.<sup>522</sup>

\* Mikel Atxaga, garai batean *Zeruko Argiakoa* eta egunkari elebidunen boladatik *Deiako* kazetaria, da bigarren ezinbesteko-zalea. *"Ezinbestez naiz ni egunkari bakarraren eta publikoaren aldekoa... Nahiago nuke nik euskarazko telebista, irratia eta egunkari pribatu asko izateko moduan bageunde... Eta telebista eta irrati publikoak onartzen ditudan bezalaxe, lotsarik gabe onartzen dut nik egunkari publikoa ere... Euskarazko egunkari pribatu bat egiteko gai den talderik eta indarririk baldin bada, nik ez dut deus kontra, alde baizik... Hala ere, nik neuk Administrazioak finantziatutako beste bat bultzatuko dut... euskararentzat ez bait dago, zoritxarrez, enpresa pribatu indartsurik. Diruz eta baliabidez ongi hornitutako egunkari batentzat ez behintzat..."*.<sup>523</sup>

\* Ramon Etxezarreta behin eta berriro agertu da egunkari publikoaren alde: *"Egunkari publikoa da alternatiba; euskarazko egunkari pribatua beste enpresa pribatuak bezala tratatu behar dira; euskarari gainbalio bat ematearekin ados nago baina galera guztiak ordaintzearekin, ez"*.<sup>524</sup>

---

522 Por alusiones: diario en euskara, Deia, 1990-VIII-21.

523 Bi txar baino bat ona hobe, Deia, 1990-VI-19.

524 ETB-1, Astelehen Buruzuri, 1990-I-15.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

\* Gasteizko Gobernuan, hiru izan dira gai honetan nabarmendu direnak: Joseba Arregi, Iñaki Zarraoa eta Josu Legarreta.

Honela mintzo zen Legarreta Mungiako Torrebillelan: *"Niri ere gustatuko litzaidake egunkaria pribatua izatea, baina gizarte honek ez ditu mekanismorik horretarako"*.<sup>525</sup>

Zarraoak erakutsi du aldaketarik handiena. 1989.ean *Argiak* egindako elkarrizketa famatu hartan erakunde publiko baten eskutik egunkariak ez duela funtzionatu herri honetan esatetik, *"el proyecto impulsado por el Gobierno"*tzaz hitzegitera pasa da bere-berea eginez.

526

\* Jose Ramon Belokiren taldeak ere nahiago du pribatua publikoa baino. Ezinbestean hobesten du bigarrena. *"Enpresa pribatua balitz hemen guti-gehiago adierazten joan garen EGUNKARI moduko bat kaleratuko lukeena, hobe, gure ustetan. Ez dugu ikusten, bainan, gaur oraindik behintzat, hemen jarritako baldintzak behar bezala betez EGUNKARI hori aurrera aterako duenik enpresa pribaturen batek"*.<sup>527</sup>

Beraz, ez dago inor egunkari publiko baten alde baina azkenean instituzioen alde edo inguruan dauden guztiak bat egiten dira (ezinbestean omen) egunkari publikoaren inguruan.

Zer esan nahi du, baina, publikoak eta pribatuak? Publikoa izateko ez da nahikoa guztiongandik biltzen den diruz egina izatea; ez eta jabego edo titulartasuna esku

---

525 Berton, 1988-X-27an, grabaturiko zinta.

526 Deia, 1990-VIII-4 eta 14an.

527 Beloki Taldearen txostena, gorago aipatua.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

partikularretan ez egotea. Pribatuak ez du esan nahi, derrigorrez, norberak bere kasa eta bere probetxurako egiten duena denik.

Ematen den zerbitzua, da jabegoa baina erabakitzailegoa, jakinik, ordea, enpresa publiko batek zerbitzu partikularra eskeini ahal duela eta alderantziz. Adibideak ez dira falta.

Hamarkada honetako eztabaidan, gainera, publikoa eta instituzionala berdinkidetzat eman dira. Gainontzeko guztiak, pribatuak lirateke, instituzioetatik kanpo daudenak, interes partikularrak baino ez omen dira -ta. Zentzu horixe du, Joseba Arregik proiektu ofiziala nolakoa izan behar duen esan ondoren Zarraoak azpimarratutako "*...aspira a un periódico abierto, participativo, democrático, integrador de todos los posibles lectores en euskara*"<sup>528</sup> hari alegia, beste hau ere erantsi behar izana: "*el proyecto del Gobierno no es el proyecto de un periódico gubernamental, pero esto tampoco debe confundirse con un periódico antigubernamental, o lo que es más grave, antiinstitucional*".<sup>529</sup>

Zuzena izan arren, eskasa da "*Argia ez da pribatua ez bait da gure negozioa*" esatea Iñaki Uriak esan gisara,<sup>530</sup> zeren ulergarria izanik ere ez bait da hori soilik.

Arazoaren giltza, berriro ere, *herri mugimenduan* dago Herri mugimenduak esplika lezake zerbaiten publikotasun/pribatasun nortasuna.

Euskal Prentsa herri mugimendua da, eta egiten dena herri ekimenez egiten da; ematen den zerbitzua herriaren nahia asetzeko ematen da, eta interes hori estilo berezian

---

528 Deia, 1990-VIII-14

529 Ibid.

530 Argia, 1989-XI-19

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

(*herritarrean*) gestionatzen da. Alor honi dagokionez, denominazio hau aspaldian dago kalean, 1984-XI-20tik guttienez Barakaldoko Etxepare taldeak antolaturiko mahainguru hartatik, non neronek eta Josu Landak *Korrika* eta beste hainbat ekitaldi herri mugimenduaren bidez egin diren bezalaxe egunkaria ere bide horretatik etorriko zela aipatu bait genuen. Karmelo Landak formulatu zuen geroxeago herri mugimenduarena, berori faktore nahitaezko eta erabakitzailetzat joaz.<sup>531</sup>

ARGIAk bere eritzi kolektiboa egin zuen herri mugimenduarena: "*Baina giltzarria oraindik ere herri mugimenduan dago eta berak lortuko du -inoiz egingo bada- euskal egunkaria kaleratzea, presio eta esfortzu etengabeen bitartez*".<sup>532</sup> Ez lehen aldiz, baina agian bai espreski izena eta guzti.

ESek eraman duen prozesu guztian herri mugimenduaren osagarriak bizi-bizian erakusten dira, bereziki saio editorialetzat eman dituen *hamaika aginduetan*. Euskal Prentsak eskakizun sektorial eta puntualak ezezik, eskakizun orokorrak (nazionalak) egiten ditu, hots estatua-nazioaren arteko kontraesan funtsezkoa aurrez aurre hartu du.

Berari dagokion maila espezifikoa ere politika mailan indarrean dagoen egoera (instituzionalki mugatua, estatu-legez onetsia) zalantzan jarriz abiatu da, egoera elebiduna ukatuz, euskal prentsa bakarra euskaraz eginikoa dela aitortuz.

Herriarengandik sortutako talde zenbaitek aparteko sormen-ahalmena erakutsiz, auto-antolatuz eta auto-elikatuz sekulako indar-metaketa egin du. Horregatik eta ez beste edozerengatik esplikatu behar da instituzio (autonomiko)-ekiko enfrentamendua. Ulertezina

---

<sup>531</sup> Egin, 1985-V-10

<sup>532</sup> Argia, 1987-VIII-2.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

zatekeen, ESen kasuan, instituzioetik jasotako bazterketa erabatekoa, are guttiago Joseba Arregiren hitz bortitz eta erasokorrak, talde hauek bere ekimenean prentsa baino gehiago ez balute zalantzan jarri.

Publiko-pribatu binomiora itzuliz instituzioetatik eta beroriekin lotutako kazetariengandik gai honi heldu zaionean, publikoz -beti- euskarazko egunkari bat kalera zezakeen administrazioaren jabegoa, titulartasuna, adierazi da, zuzenean edota propio sortutako enpresa baten bidez sortutako zerbait alegia. Pribatuz, aldiz, berezko indar eta baliabidez osaturiko enpresa baten antolaketa. Bere probetxurako, jakina.

Publiko, instituzional eta gobernukoaren arteko desberdintasunak lojikoki ondo bereziak izanarren, izan da eztabaidarik ezen praktikan ez bait da hain sinplea. "*Los detractores de esta postura* (dio Amatiñok) *apuntan que el periódico público tiene mala imagen (recuerda la prensa del Movimiento), apenas tiene precedente en las democracias occidentales y tendría sesgo político. Por mi parte, entiendo que lo de "prensa del movimiento" es algo que sólo entendemos los viejos y no me valen los modelos europeos que no tienen nuestro problema lingüístico, ni aquellos que, teniéndolo, carecen de poder político, para intentar solucionarlo. Tampoco parece coherente que apelen a la tradición europea quienes no acuden a las instituciones (sic). Sorprende, además, la sensibilidad de aquellos que soportan una radiotelevisión pública con una audiencia de más de 20 millones en el caso español o 750.000 personas en el caso de EITB y, sin embargo, parecen preocuparse de un diario cuya tirada más optimista está cifrada en 10.000 ejemplares. Más bien parece la reacción normal de quienes se dejan llevar por el interés de solucionar su propio problema, al margen del bien común. Además, ¿en virtud de qué razón los periodistas de Euskadi Irratia, por ejemplo, habrían de hacer un trabajo menos profesional*

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*y más sesgado en el caso de encomendarles la presentación de su información en soporte papel? Se argumenta también que el periódico privado sería más barato. Concepto éste que, siendo cierto, requiere grandes matizaciones, no en vano la televisión, educación o sanidad privadas son, también más "baratas". El problema radica en saber qué pretenden los poderes públicos y qué espera de ellos la sociedad".* <sup>533</sup>

Ez da kazetarien lana kezkarria, baizik eta benetako jabeen aginduak eta gestionatzeko joerak. Ez da nahikoa Arregik profesionaltasunean jarritako ardua agintzea: *"Administrazioak bultzatuko duen euskarazko egunkariak enpresa egitura eta administrazio kontseilua erabat profesionala izango ditu(...)* Formulazio juridiko egokienaz ari gara pentsatzen, egunkaria, ahal den neurririk handiengan, administratiboa izan ez dadin eta antolaketa eta administrazio kontseilua ahalik eta profesionalenak izan ditzan(...) Bide bakarra dago egunkariak funtziona dezan eta horretarako planteamendu profesional batetan onarritu behar da proiektua". <sup>534</sup>

Ez da nahikoa, ez bait dago inongo komunikazio-enpresan administrazio kontseilu erabat profesionalik (ez eta neurririk handiengan). Arregik zenbait lekuetan esandakoak (eta lan honetan jasotakoak) ezaguturik, despistatzeko mintzoa baino ez da.

Jaurlaritzaren kutsuko egunkaria prestijiozko jendeak erabat ukatu du (aldekorik ez dugu ezagutzen!). Hala nola Karmelo Garitaonaindia, UPV/EHUko Kazetaritza Departamentuak duen katedradun bakarrak: *"No a un periódico público en euskara. Es anacrónico que el gobierno vasco decida publicar un periódico público en euskara. Sería*

---

<sup>533</sup> Deia, 1988-XII-11.

<sup>534</sup> Egin, 1990-VIII-19

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*el primero en Europa o mejor dicho el último porque tanto el Gobierno de Portugal como los gobiernos de los pueblos del Este quieren privatizar sus periódicos públicos".* <sup>535</sup>

Eritzi berekoak dira Hizkuntza Minorizatuetao Egunkarien I. Topaketetan aritutako bi kazetari kataluniarrok: "...sería un hecho gravísimo y censurable tanto profesional como políticamente". <sup>536</sup>

*"...en Catalunya sería mal visto, se entendería como una competencia desleal y, sobre todo, como una maniobra política".* <sup>537</sup>

EITB-ren barruan egunkaria ateratzekoaren kontra ere agertu dira bertoko bi profesionari. "Egoera ideala litzateke egunkari bat inoiz ez izatea inongo gobernuaren mende, definizioz horrelako proiektu batek libre behar luke. EITB barruan?. Baina hemen, enpresa publikoaren akatsak oso agerian gelditu dira aspaldion". <sup>538</sup>

Eta beste batek: *"...EITBn badago nahiko saltsa eta lan, hura txukuntzen eta ondo jartzen badago zeregina beste lio batetan sartu gabe"*. <sup>539</sup>

Euskal Prentsaren -eta herri mugimendu horrekin nola edo hala bat egin duten guztien- ikuspegitik begiratuta herri indarrak bilduz egiten den enpresa da publikoa, zabaltasunik handiena hortxe dagoelako, indar-metaketa bertan adierazten delako, erizpide desberdin baina herri kutsuz osatutakoa bertan azaltzen delako, nazioaren planteaketa

---

535 El Mundo del País Vasco, 1991-V-15.

536 AVUIko Salvador Cardús, Egin 91-IV-28.

537 El Punt-eko Carles Puigdemont, ibíd.

538 Lizartza, Josetxo, Argia, 1991-V-12.

539 Etxebarria, Hasier, Hemen, 1990-VI-22.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

erabatekoa horren baitan jokatzen delako, aniztasuna, indar biderkatzailea erakusten duelako, eta ez elementu heterogeneoen adizio edo batuketa sinplean. Zerbitzu publikoaren gestioa askoren artean egin (indar sozial askoren artean -administrazioa tarte-, partidu politikoen parametroak gaindituz eta printzipioz inor bazter utzi gabe ari dena), eta erabaki ahalmena gordeko duen elkarte da behar bezalako publikotasuna adierazten duen forma.

Partidu politikoen joku instituzionalean indarrak batzeak, indar guztiak biltzera baino, indar estatalak elkarturik, herri ekimena eta herriaren gogoia baztertzera darama Gasteizko Parlamentuan frogaturik gelditu den lez.

Euskal Prentsaren herri mugimendua, aldiz, instituzioekin elkarlanerako prest azaltzen da. Prestutasun hau bi erataratu uler daiteke. Beraiekin batuketa egiteko helburutan ados jarriz (ezinezko bertsioa); ala instituzio horiek herriarenak (Euskal Herri osoarenak) diren ondasunak administratzen dituzten heinean euskarazko egunkaria egiteko diru-laguntza eta diru horren kontrola bermatzekotan. Zeren egin, herri mugimenduak euskara hutsezko egunkari bat baino ez du egin nahi (eta behar).

Instituzioek, noski, bigarren bertsio hau nekez onetsiko dute, euskarazko egunkariaren oinarritan dagoen herri mugimenduak instituzioen aldeko aitortza egiten ez duen bitartean edota bere printzipioak ukatzen ez dituen arte. Ez da nonbait nahikoa, nazionala, independentea, baterakoia, zabala izatea. Euskal Herria hiru zatitan hausten duten instituzioen aldekoa izan behar du egunkariak eta EAEko partidu politikoen erabaki duten pake-moldean aintzindari, Luis Mari Bandresek "*EAJ eta egunkaria euskaraz*" erabilitako hitzez esateko.<sup>540</sup>

---

<sup>540</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1992-III-6

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Berdin dio egunkari hori kalean dagoen bakarra izatea. Berdin dio egunkari horretan espazio gehien hartzen duten partiduak PSE-PSOE eta EAJ-PNV izatea.<sup>541</sup> Berdin, euskararen aldeko indarrik gehienak (azpiegitura sortzaileak barne) bere inguruan edukitzea, EGUNKARIA, SAko akziodunen zerrendak erakusten duenez.<sup>542</sup> Berdin, instituzio horren eledunek egunkaria "poliki eta txukun" ari dela publikoki onartzea.<sup>543</sup>

Berdin: ez dago dirurik aurrekontuetan (egunkari publiko famatua ere diru-partidarik gabe geratu da 1992.era aurrekontuetan, Expoa, Guggenheim etab. medio,<sup>544</sup> eta Jose Ramon Beloki Gipuzkoako Diputazioan aurkitu du lanpostu berria<sup>545</sup>) eta gainera legez zor zaion publizitate instituzionala ia erabat ukatu egiten zaio.<sup>546</sup>

Juridikoki herri mugimenduaren enpresek pribatasun itxura hartu behar dute, publikoa den oro egon badagoen estatuaren (eta beronen pean dauden administrazio zenbaiten) formulazio baino ez bait da. Benetako publikotasuna, herri publikotasuna, publikotasun berria, ezin daiteke egun forma publikotan adierazi. Hor dago kontraesana. Ezinezkoa den baina ba den egoera errealaren islada da, ezinezkoaren mintzoa.

### **7.3.3.2. Zabaltasun-irekitasuna**

---

<sup>541</sup> Iñaki Zabaletaren gidaritzapean UPVn egindako lanaren emaitzetarik bat da hori.

<sup>542</sup> Izen kolektiboz (lehen akzio-bilketan) eman ziren kultur-azpiegitura sortzaileen taldeak bakarrik aipatzearren: EHko Bertsolarien Elkartea, UEU, EKB, AEK, EHE, Sendoa, Sendoki, Zabala, Oihuka, Elkar, Tarttalo, Apika, Argia, Jakin, Elhuyar, Siadeco, UZEI, Euskal Kulturgintza.

<sup>543</sup> Gonzalez Txabarri, J. J., Argia, 1992-II-2

<sup>544</sup> Egin, 1991-XII-17

<sup>545</sup> Euskaldunon Egunkaria, 1991-VII-11

<sup>546</sup> Arregiren azken adierazpenak, 1991-XII-17 eta 1992-III-22ko prentsan etorri ziren.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Denek erabilitako bi kontzeptu baliokideak dira zabaltasuna eta irekitasuna. Euskarazko egunkariak nahi eta nahi ez zabala eta irekia behar zuen (du) izan. Adostasun osoko ideia izan da hau, nahiz eta zabaltasun horren jabe nor den gero zalantzan jarri.

ES taldearen proiektuak argi eta garbi azaltzen du zabaltasunaren ideia. Gauza bera Belokiren txostenak, aurreko zenbait orrialdetan azaldua geratu denez.

ESen promozio-kanpaina ideia horretan oinarritzen zen: "*Euskaltzalegoa kontzientziatu inizatiba sozial honetako partaide senti dadin bere osotasunean (...) sektore euskaltzale guztien arteko batasuna bultzatu, euskarazko egunkariaren arrakastaren garantetzat", etab.* <sup>547</sup>

Partaide direnak komentziturik daude, benetako adostasun zabala lortzen ari dela: "*...ezin pentsa daiteke gaur egungo ideologia aldetik zabalago joka dezakeen proiekturik".* <sup>548</sup>; "*proiektuak berriz duela urte asko euskal muduan lortu nahi den kontsentsurik handiena erdietsi du".* <sup>549</sup>

"*ES, diote eledunek, intenta unir a todos aquellos esfuerzos euskaltzales que deseen concurrir en la empresa editora y que ésta se desarrolle en las mejores condiciones".* <sup>550</sup>

Talde (ES) honen testuetan, halere, argi ikusten da zabaltasun horrek baduela mugarik: euskaldungoa osatzen dituzten sektoreak. Ez da euskaldunentzat ez direnentzat

---

<sup>547</sup> Egunkari proiektuaren promozio-kanpainaren zirriborroa, 2-2 or.

<sup>548</sup> Uria, Iñaki, Navarra Hoy, 1990-III-4.

<sup>549</sup> Uria, Iñaki, Egin, 1990-IV-15.

<sup>550</sup> ESen eledunak, Egin 1990-VI-4.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

zuzenki egina adibidez. Baina ez ditu mespretxatzen euskaldun edota euskaltzale ez direnak. Ideia hau aipatu zirriborran ere argi dago. "*Oso kontutan hartzekoa da giza esparru oso zabalak daudela egunkaria erosteko moduan egongo ez direnak, batzuk euskaldun izan aren alfabetaturik ez daudelako, beste batzuk nahiz eta euskaltzale izan euskararik ez dakitelako. Azken multzo hauek ere bereziki landu beharra dago (...)* Kontzientziarik gutxieneko sektore erdaldunak bereziki lantzea komeniko litzateke. *Kontutan hartu instituzioei oso erosle gutxi izango duen komunikabide bat subentzionatzea eskatuko zaiela, produktu hori erdaldunek ezin erabiliko dutela eta euskararen kontrako sektoreak pisu handikoak direla Euskal Herriko instituzio ezberdinetan...*" .<sup>551</sup>

Azken hamarkadako ideia da hau (gerra aurrekoa ere badela ahantzi barik). 1984an *Argian* esaten da "*zabala bai baina zabaltasun hori euskaldunen artekoa ez politikoen araberakoa*".<sup>552</sup>

Joseba Arregiren testu famatuak beste muga estuago bat jartzen dio zabaltasunari. Gogoratu: "*...abierto al campo marcado por los partidos democráticos*".

Zabala izatearena, berriz, (gogoratu) 1983ko Maiatzean Luis M. Mujikak eginiko artikulu-sorta hartan honela zioen balizko egunkariak: "*..ideologia eta jarreraren aldetik, noski, honelako egunkariak guztiz zabala izan behar luke. Pentsaeraz guztiz irekia, inolako alderdikeriatan erori behar ez lukeena. Alde horretatik, bada, alderdi politikoen atxikimendutik desitsastuta behar luke, Euskaldunena eta Euskal Herri zabal bati bideratuta.... Horretarako euskaldun kaskailu, ikonoklasta, borrokari etab. guztiok batu*

---

<sup>551</sup> Aipatu zirriborroaren 9.5 puntuan.

<sup>552</sup> Argia, 1984-XI-21.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*behar dugu euskararen mesedetan, gure exigentzia guztiak bat batean eta betiko eskatu gabe"*

Joxe Azurmendik *Jakin* aldizkariaren esperientzian oinarrituz, 'muga' horren tradizioa erakusten du: *"Irekitasuna, diferente pentsatzen duen jendearen lankidetzeta, irekitasunezko produktu bat ateratzea, ez da batere problemarik, euskarari zinegindako euskaltzale artean(...) Irekitasuna, printzipio moralen bat baino gehiago errealismo kontua da... Ez dago beste posibilitateren baten zer beldur izan. Ala irekia izango da ala bulegoak beharko ditu laister itxi".* <sup>553</sup>

Eta Zumalabek: *"ARGIAk beti pentsatu du euskal egunkariaren edozein proiektuk jarrera zabala eta baterakoia eskatzen duela, euskaltzalegoa osatzen dugun giza sail honek izan behar duelako euskararen aldeko edozein proiekturen oinarri. Eta hori pentsatetik datorkio hainbeste urtetan euskal prentsa idatziaren indar haundien, irakurlego gehien eta asmo tinkoen izan eta duen ARGIA proiektu horretatik baztertzea astakeria hutsala dela pentsatzea. Nere ustez ARGIAk euskal egunkaria proiektu erreal bezala defendatu eta bultzatu nahi duen euskaltzale ororekin batu beharko lituzke bere indarrak, denon laguntzaz, hainbeste itxaropen mugitzen dituen proiektu hau aurrera atera dadin".* <sup>554</sup>

Artikulu hau Mikel Atxagak egindako kritika bati erantzuna da, zeren aipatu aldizkari horretakoak *ideologia jakin* batetik zabaltasunera jauzi egin izana leporatzen bait zien.

---

<sup>553</sup> Egin, 1990-V-17.

<sup>554</sup> Argia 1989-X-1.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Izan ere 1983eko Udazkenean idatzi eta gorago ere ekarritako artikulu-sortan ARGIAk hauxe esaten zuen: "*inork ez dezala pentsa egunkari batek besterik ezin duela egon; ez dago pentsatzerik sektore politiko guztiekin ados joango den bakarra egin daitekeenik. Alkimia ez bait da aski kasu hauetan (...) baina linea ideologiko bateratsu eta 'zabal' batek merkatu zabalagorik ekarriko lukeela esatea gehiegitxo esatea da(...)* Zaila da demostratzea egunkari bakar batek indar handiagoa emango liokeela euskarari bat baino gehiago egoteko posibilitatea zabalduz baino (...) Guk uste dugu euskararen bilakaera eta normalizazioa behar duela izan ure iparraldea".

Bi ideia daude hemen nahastuta. Batetik zabaltasuna alkimia gisa ulertuta. Alderdi guztien adostasun politikoa asetuko lukeena. Baina maila politikoan ezinezkoa bilaka zitekeena posible ikusten da, urte batzu geroago, sektore euskaltzaleren artean. Alde horretatik ezin esango da kontraesan seriorik dagoenik aipatu editoriale-sorta horren eta Zumalabe eritzien artean. Maila politikoa ez bait da inoiz izan maila euskaltzalea.

Bestetik, egunkari bakarrarena dago. ARGIAk (ez eta ES-ek) ez du sutsuegi inoiz defenditu egunkari bakarraren ezinbestekotasuna, izatekotan sektore euskaltzaleak bilduz egin beharko duela baizik. Baina hori besterik da oso. 1983.ean ARGIAk demostratzeko zail ikusten zuen hori ez du CIESeko azterketak ere garbitu, ez bait du inon esaten adibidez egunkari bakar batek bik (irauteko modurik aurkitu ondoren, jakina) baino irakurle gehiago izango lukeenik?

*ARGIA*ren orduko kezka da euskal prentsaren auzia bere orokortasunean konpondu gabe egunkaria egiten hasi nahi dutela *Deia* eta *Egin* egunkariei (eta ez *ARGIA*ri) laguntzak emanaz Jaurlaritzatik. Berdin hurrengo fasean *Hemen-Eguna* kalean jarri eta aldizkari nagusia (*ARGIA*) bazterrean uzten dutela ikustean: "...egunkari bat justifikatzeko mailara

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*iritsi ote garen da sortzen zaion galdera(..) kapaz izango al ginateke egunkari bakar batez euskal irakurlegoa ugaritzen"?*

ARGIAk ESen partaidetza zuzena eta erabakiorra hartzen duenean eta proiektu zabala eta baterakoiaren alde jartzen denean ez du hartzen egunkari bakarra egingo delako (hamaika aginduetan ez da bakartasuna agertzen), baizik eta proiektu horretan ematen direlako eman zitezkeen osagarririk beharrezkoenak. Horregatik, eta ez egin daitekeen bakarra delako, esijitzen du Administrazioaren dirulaguntza, kontrola eta partaidetza (ukatu gabe gerora ere egin zitezkeenak laguntzarako duketen eskubidea).

Zentzu hau, eta ez besterik, du Joxemi Zumalabek berak "abuztuko kartetan" Zarraoa Kontseilariordari emandako erantzuna: "...*todos deberíamos ser conscientes de la dificultad que entraña el realizar un periódico asentado en el consenso más amplio posible. Sólo siendo conscientes de la dificultad que entraña es posible definir el marco en el que dicho reto sea superable. Eso es lo que ha conseguido hacer ES que aspira aún hoy a que un único diario en euskara vea la luz en las mejores condiciones, asentado en el más amplio consenso euskaltzale y ayudado como debe de ser por la Administración. Es sólo (eta hau azpimarratzekoa da) cuando las actitudes sectarias, como la reflejada por el viceconsejero, aparecen pretendiendo superar las dificultades por vía de la marginación de una parte importante de los euskaltzales del país, cuando uno constata y lamenta que es muy posible que sean dos los periódicos que vayan a editarse próximamente"* .<sup>555</sup>

---

<sup>555</sup> Deia, 1990-VIII-11

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

ESek bere printzipiotan azaldutako zabaltasunak jaso du kritikarik. *"Ze garantia emaiten duzue?"* galdatzen zuen Xipri Alberbidek. <sup>556</sup>

Joxe Azurmendik berrikitan aipatutako testuan, *"irekitasunaren lehen proba (..) ez orain daukanari proiektua eskuetatik kendu eta denon artean partituz baizik eta proiektua daramanari behar den laguntza emanez"* erakusten dela zioen bitartean, Mikel Atxagak honela zion arrapostu: *"...niretzat, berriz, irekitasunaren lehen proba, diseinua ahal den jenderik gehienen artean eztabaidatzetik eta onartzetik hasten da, (...) ESen proiektua jatorrizko bekatu horrekin jaio da, inork gutxik eztabaidatu duen proiektua kaleratuko da"* azpimarratz. <sup>557</sup>

Beste bi artikulu idatzi zituen Mikel Atxagak ESen proiektua ankaz gora jartzeko edo: *"Zabala izateak zer eskatzen du?, galderari erantzuten dio lehenean. *Egunkari-ereduari buruz izan ditzakegun iritzi desberdinak eztabaidatu eta elkarrekin eredu bat erabakitzea... Zabala izateko ez da aski sokakoak ez diren bizpahiru lagun tartean izatea... Jende desberdin gehiagoren artean azertu behar da... Eta zoritxarrez talde bat aurrera doa bere proiektu gehiegi landu gabearekin eztabaidatu gabe, euskarazko egunkariaren alde dauden eta alde ipini daitezkeen batzuk atzean utziz, zenbait jenderen borondate onaz eta itzalaz baliatuz"*. <sup>558</sup>*

Eta beste behin, *"ESTE (Egunkaria Sortzen Talde Eragilea), Eusko Legebiltzarra baino zabalago dela esatea laidogarria da herri honetako ehunetik 85entzat... ESTE baino pintarreagoak dira, noski, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Ikastolak etab. Ateak nahi*

---

<sup>556</sup> Herriz Herri, 1990-II-15; Eguna, 1990-V-17.

<sup>557</sup> Deia, 1990-V-18

<sup>558</sup> Deia, 1990-IV-27.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

*duen guztiarentzat zabal izateak ez du barrua zabala denik adierazten. Elizetako ateak ere zabalak dira. Mitinetara ere ez zaio inori sarrerarik ukatzen. Iragarki eta guzti deia egiteak ez du inoren esparrurik zabaltzen. Euskarazko egunkariak zabala behar omen du izan aldarrikatzen digute gaur, atzo arte ideologia jakin bati loturikoak zuela etorkizuna baitesten zutenek berberak... ESTEren zutabe direnek egiten duten astekariaren fruituek, neurri, kolore, eta zapore bakarra dute".<sup>559</sup>*

Aurreko testuok Atxagak berak 1983an idatzitakoarekin alderatzeak eman dezake argi printzarik: "...iritzi guztiei ateak zabalduko lizkieken egunkari bat nola moldatu, ordea? galdatzen zuen *Deiako* kazetariak zabala izan behar zuela esan ondoren.

Ateak zabalik edukitzea da egin daitekeen bakarra, nor sartzen den ala ez, norberak erantzun beharko du.

Zabaltasuna baino pluraltasuna erabili ohi izan da askotan. Ikastoletako Konfederakundeak adibidez: "...*baina desberdintasunak, zatiketa eta haustura-iturri izan ez daitezten, Egunkari Bakarrak pluralista behar du izan, Euskal Herrian finkaturik dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdin elkarbizitzarekiko errespetu osoarekin*".<sup>560</sup>

Berdin AED-ren agiriak: "...respeto a todas las opiniones dentro de las reglas del juego democrático, pluralismo, y profesionalidad".<sup>561</sup>

---

559 Deia, 1990-VI-28

560 1990-III-24an idatzi eta 1990-V-3an banatutako dokumentua (goian adierazia)

561 Egin, 1990-V-23

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

Politikoen artean Xabier Gurrutxagak: "*(EE) seguirá impulsando un periódico democrático pluralista y de calidad, comprometido con la lucha por la paz de Euskal Herria y respetuoso con las decisiones democráticas adoptadas por nuestro pueblo*".<sup>562</sup>

Joxe Austin Arrieta, artean euskarazko gaietarako HBren eledunak, honela deskribatzen zuen euskarazko egunkaria: "...euskaldun, amplio, democrático y pluralista".

563

Joseba Arregik "...zabala, irekia eta plurala" nahi du egunkaria, nahiz eta esplikatua dugun pluraltasunari ematen dion zentzu murriztailea.

ESen proiektuak ez du plurala hitza agertzen bere aginduen artean: zabala eta baterakoia izatean da bere apustua. Irakurleen ezaugarriak aditzera ematerakoan, baina, saio editorialaren gidaritzat hartuak izango direla aitortzeko, irakurle hori, euskaltzalea, eta abertzalea izateaz aparte "*ideologia anitzekoa*" ere badela dio proiektuak bere 30. orrialdean.

Aukera politiko desberdinetako irakurlegoa izango denez, "*zabaltasunez jokatzuz*" aritzea proposatzen du, "*abertzaleen arteko hurbilketa eta batasuna*" errazago lortu omen daiteke-ta euskararen marko autonomoan, indar politikoen jokuz baino.

Dena dela pluraltasuna ez dela aniztasuna esan da gorago, pluraltasunak adizioa, gehiketa aritmetikoa adierazten duen heinean, aniztasunak biderkatzeko kapazitatea erakusten bait du. Eta ESen proiektuan aniztasun terminoarekin gaztelerazko *plural* esan

---

562 Egin, 1990-VIII-6

563 Ibid.

## VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

nahi ote duen argi ez egon arren, eta puntu hau etorkizunean agian problemarik latzenak ekar ditzakeena izanik, hamaika aginduak bere osotasunean ikusita nabarmen da, bertan ez dela denak (inolako mugarik gabe) kabitzen: abertzalea behar du izan, konzeptu nazionala beharko du onartu, egungo eremu instituzionala beharko du gainditu nahi etab. Puntuok onartzen dituenak, eta horrek bakarrik bil ditzake, diferentziak diferentzia, bere ingurura gainontzekoak (ez derigorrez denak) eta besteei hitza eman, (ez ukatu) desberdina bait da .

VII. Atala: euskaldunon egunkaria, ezezagunaren mintzoa

## **VIII. ATALA: KONKLUSIO ETA ONDORIOAK**

1.- Eusko Jaurlaritza ez da inongo kasutan prest egon, ohizko azpiegituran oinarrituz, euskarazko aldizkarietan alegia, prentsa idatzi mailan politika programatu bat egiteko. Azkenaldion egunkarirako proiektu propioztat erakutsi duena, berriz, (*Egunero* izenez aurkeztua), Euskal Prentsa oztopatzeko baino ez da izan. Hori, baina, ez da estrategia periodistikoa zein komunikaziozkoa izan, estrategia politiko zehatz baten adierazlea baizik.

Euskal Autonomi Elkarteko agintariek, prentsa idatziaren sektorea ez badute planifikatu nahi izan (sistematikoki ukatu bait du hori), egungo egitura politikoaren kontra ez agertzearren izan da. Euskal Prentsak behin eta berriro garapen-eremutzat aipatu duen nazio-proiektua eta estatu espainiarrak diseinaturiko politika autonomikoa (elebitasun-iturri, besteak beste), zeinaren errespetua agintari autonomikoek aldarrikatu duten, proiektu antagonikoak dira.

Eusko Jaurlaritza herri mugimenduak gauzatutako kazetal-proiektua desegiten saiatu da: oztopoak jarritz, laguntza ekonomikoa ez planifikatuz, ordezekoak sortuz, irteerarik gabeko bideak etengabe luzatuz.

2.- Euskarazko prentsaren kasuan, nabarmen geratu da erabaki militantetik sortutako ekinak bakarrik ematen duela etekin positiborik. Ez da nahikoa euskaldunok euskaraz bizitzeko edota prentsa propioa izateko dugun eskubidea aldarrikatzea, hori apustu eta konfidantzan oinarrituriko konpromezu pertsonal-kolektiboa ez bada bihurtzen. Horixe da duen berme bakarra. Hasi gabe, beti da goizegi. Martxan jarri gabe, ezinezkoa da saioa porrotean ala arrakastan amaituko den jakitea.

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

Euskal Prentsa egotea militantzia eta ahalegin pertsonalaren ondorioa da. Planifikazioa apustuaren ondorengoa da; ez alderantziz. Analisi, txosten, ikerketa etab. ez dira proiektuaren determinatzaileak. Determinantea den bakarra, konpromezu pertsonala da. Gaur egun ezagutzen dugun *Argia* eta *Euskaldunon Egunkaria*, adibidez, ez dira izan sailaren ikerketa oso baten ondorio, kemenez eta leialtasunez beteriko erabaki batena baizik.

3.- Ordezkatzea ez da posible proiektuak kontrakoak direnean. Konmutazioaren froga ez bait da ordezkapena. Izan ere Eusko Jaurlaritzak proposaturiko aldizkariak ez dute, inolaz ere, herri mugimendutik sorturiko aldizkarien ordezkapena burutzerik izan.

"Azter dezagun" izan da luzapen-politikaren hitz-giltza. Zailtasun eta gabeziak ez dira inoiz gaindiezinak. Mugak dira; ez besterik. Mailakatzearen tesia, proiekturik ezean, irteerarik gabeko bidea bihurtzen da. *Hemen* eta *Egunaren* kasuak, beraz, paradigmaticoak dira: hurrengo urratsak ez dira inoiz diseinatuak izan; merkatuan jarriak ziren adinako arbitrariotasunez erretiratuak izan dira; ez osatu zituzten kazetariak, ez argitara ekarri zituzten enpresak izan dira hurrengo faserako erabiliak, (egunkarirako alegia). Alderantziz juxtu: Eusko Jaurlaritzak, egunkaria egitekotan, kazetal-enpresa pribatuak ez erabiltzea aukeratu du.

4.- Elebitasuna prentsa idatzi mailan, euskarazko prentsaren kaltetan izan da. Elebitasuna eta euskararen auzia prentsan aldi berean soluzionatzea, ezinezkoa bilakatu da. Elebitasunak, zerbait izatekotan, hizkuntz minorizatua babestu eta minorizatzailearen pare jartzea izan beharko zukeen; baina hori, praktikan, ez da elebitasunaren alorretik egin. Ez borondate ezaz (hori ez bait da juzkatzen), egiturazko ezintasunagatik baizik. Elebitasuna, praktikan, erdaran sinisten dutenen zeregina da. Euskararen etorkizuna bermatu nahi dutenen zeregina, gune euskaldunak sortzea da.

Prentsa idatzi mailan mailaka aritzea, bai eta enpresarik abertzaleenetan ere, porrota izan da. Izan ere, ez dago kasu bakoitzean ezarri behar den euskara-kopurua erabakiko duen erizpide zehatzik. Edozein aukeratzeko dela, euskaldun ez direnei informazioa ukatzen zaie eta euskaldunei beti emango zaie informazio guttiegi bere hizkuntzan.

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

Euskal Prentsaren helburua nominazio horren edukia berori garatzea da; ez besterik. Ez da hutsa euskara medio erdaldunetan ezartzea. Nola edo hala euskararen presentzia segurtatzen da; baina horrek, medio propioak sortzeko indarrak kentzen ditu.

Gune euskaldunak sortzea diogunean, ez dugu esan nahi, gehikuntzaz, erdarari gero eta lur gehiago janez, egunen batean gizarte euskaldunera (edota euskara hutsezko prentsara) ailegatuko garenik, ez; euskararen aldeko apustua eginik, jadanik, gizarte osoa edota prentsa euskalduna diseinatzen dela baizik. Zentzu honetan ulertu behar da Euskal Herriko prentsa bakarra euskaraz eginikoa dela esatea.

Konstituzio espainiarra, Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroako Elkarte Foralaren legeek ez dute onesten gizarte (edota prentsa) euskaldunaren aldeko apustu egitea; baina, legearentzat ezinezkoa dena posible da legea beren erabakien zentrua ez dutenentzat. Euskal Herriaren egoera egituratua gizarte (eta prentsa) elebiduna da, betirako iraun dadin politikoki pentsatua. Baina subjektu politiko kolektiboak, kontzientziadun eta leialak, bertatik kanpo jo ezker, desegin egin dezake holako egitura. Kanpora-jotze hori, berriz, bideraezina da egituratik erabat kanpo; posible izateko hutsunearen ertzean jarri behar da, bertatik erauziz gero egituran (periodistikoan kasu honetan) mamitu beharko diren edukiak.

Hemen ondorioztatzen dena ez da gune euskaldunak sortzeko posibilitatea bera, - kodigo linguistiko desberdinak sortzerik dagoen ala ez (hori ebidentea bait da bere zailtasunean)-; hizkuntz ez egituratzailearen bidez (euskararen bidez) gizarte osoa egituratze-nahia baizik. Hori (eta ez besterik) egin zuen EPk Euskal Herriaren prentsa bakartzat euskaraz idatzia hartzerakoan. Horretan datza bere izaera eskandalagarria eta indarrean dagoen egitura (politikotik) ulertzeko ezintasuna.

Esklusibitate hau, prentsa mailan, ez da inoiz aldarrikatua izan 1976-78.erarte, - Euskal Kazetaritzaren Urterarte alegia-, abertzale izateko euskaldun izan beharra askotan adierazia izan arren.

5.- Euskal Prentsa, *prensa vasca* euskarazkoa bakarrik izan dadin ahalegin oso-betea da (mugimendu bat). Euskal Prentsak legeteria politikoan eta hizkuntzaren garapenean ditu bere mugak. Maila honetan, profesio-statusetik eta aukeratutako

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

komunikazio-hizkuntzetik datozkion oztopoak gainditu behar ditu. Euskarazko prentsa nahi duten euskaltzaleen guraria ase behar du. Hori da erronka EPren alde egiturazkoenetik (gizarte mugimendutik) begiratuta.

Baina, bestalde, nazio-proiektu bati dagokion (Euskal Herri euskaldun eta burujabeari) prentsa propioa izatea du helburu. Prentsa honek helburu hori eskuratzeko gaitasunean du bere balioa. Bere alde guttien egituratua (herri-mugimendua) da, zeina kazetal-produktua baino dexente gehiago den. Alde biak batera datoz, zeren, edozelan ere, helburua prentsan bete behar bait da. Halere, bigarrenak du lehentasuna: euskarazko prentsan bere nortasun-agiri (nazionala) mantentzeak, alegia. Hortxe du bere biziraupenbermea. Horregatik diot EP herri-proiektua dela eta hortik datorkiola erakunde politikoetatik (eta ez prentsa alorretik, prentsa zitekeenez!) jasandako eraso.

6.- Euskal Prentsaren euskaltasunean aurkitzen dira erreferentzi politikoak, ez nahitaez alderdikoiak; baina bai nazio-proiektuari dagozkionak. Maila honetan ez da posible Euskal Herrian prentsa izatea euskarazkoa izan gabe. Aitzitik, aldi berean, daitekeena da erdal prentsa izatea (aipatu erreferentzi politikorik ezean) euskaraz idatzia izan arren. Indarrean dagoen kazetal-egitura (elebiduna) urratzeko eta beste baten burura abiatzeko (euskalduna) ahalbidea, ez dago kazetal-egituran bertan, indarrean dagoen legeteriak onartu ezin duen helburua formulatzean baizik. Helburu hori gertakizun bati lotua da eta berarekiko leial direnei esker lortuko da egunen batean.

7.- Euskal Prentsa 1976.ean dataturiko gertakizun batean du abiapuntua, *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak*, Euskal Kazetaritzaren Urtea zela eta, euskarazko prentsaren aldeko apustu publikoa egin zutenean alegia. Aldarrikapen honek zenbait atal eta sekuentzia ditu 1978.erarte. Urteotan EP euskaraz idazten den bakarra dela azpimarratzen da. Bere helburua prentsa hori garatzea dela soilik, -hori bait da nazio-proiektu bati dagokion bakarra-, eta bere oinarriak jartzeko hitz ematen da. Ondorioz, konfidantza azpimarratzen da aurrera jotzeko lanabes bakartzat, *Zeruko Argiak* idatzitako esaera hartan nabarmendua: "*Euskadi euskalduna garaile atera delako garaile euskarazko komunikabideek ere garaile gertatuko dira*". (Zeruko Argia, 1979-I-14)

Gertakizun fundatzaile honek, -*Euskal Prentsa* nominazio berrizatuaren hedapenez eta egitura elebidunaren lokarriak hautsiz-, leialtasun-giro joria sortzen du,

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

zeinetik bizitza propioa izango duten menpeko beste gertakizunak ixurtzen diren: 1980.ean, *Zeruko Argia Argia* bihurtzean zeina 1983.erarte luzatzen den *Argiari Anaitasuna Taldea* gehitzen zaionean; 1989-90.ean, *Euskaldunon Egunkariaren* erditze gatazkatsua.

**8.-** Gertakizunok ezinezkoak ziratekeen aurreko beste gertazueniko subjektu leialik gabe. Subjektu leialak (izan) direlako dakigu Euskal Herria gertakizun-gunea dela, hots, Euskal Herria nazio bat izan dadin, euskara beronen hizkuntz nazionala izan dadin, prentsa propioa izan dezan, burukatzen direnak ezagutzen ditugulako. Subjektu leial hauek (indarrean dagoen egitura bihurrituz) alor desberdinetan agertzen dira, eta bereziki gure kasurako, euskarazko prentsan.

**9.-** Euskararekin zerikusirik (izan) duen prentsaren historia arretaz begiraturaz hauxe ikusten da: Sabino Aranarengandik bederen, abertzaletasunez ukituek (hasieratik ala gerora) bakarrik garatu dutela euskarazko prentsa eta, edozelan ere, beti izan direla hoben horregatik susmagarriak.

Dena dela joera desberdinok antzeman daitezke: euskararen gainetik abertzaletasuna jarri dutenak (Sabino Arana); euskara alor kultural hutsean kokatu nahi izan dutenak (Azkue...); euskara abertzaleak egiteko erabili dutenak (Euzko, Euzko Deya.); edota euskaraz irakurtzen irakasteko, kristauak egiteko, etab. (*Zeruko Argia/gerraurreko Argia...*). 1976.erarte, ordea ez da inoiz berdintzat jo prentsa vasca eta euskarazkoa

Hiru aldi bereziak erakutsiz (30. hamarkadakoak) hauxe azpimarratu nahi nuke:

**Eguna**, altxamenduan argitaratuak, erakusten duenez, unerik gorrienean ere (kazetari ohiturik gabe, irakurlego urriarekin, eguneroko tradizio barik, diru-eskasian eta egunkari bat argitaratzea baino lehentasun handiagoen tartean) apusturik dagoenean, egunkari txukun bat egin daitekeela.

**Lizardik** eta lagunak asmatuak egunkaria ez gauzatzeak, berriz, erakusten duenez, apusturik gabe, egoerarik onenean ere, belaunaldi oso baten ilusioak ere alferrik

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

gal daitezkeela. Orduan eta geroztik, elebitasunetik abiatu eta mailaz-maila ibiltzearen antzutasuna darakus, *oraindik ez da garaia* gisako leloen ezintasuna nabarmenduz.

**El Día**, egunkari bikaina izan zenak eta arren, mugimendu euskaltzalearen etsipena ekarri zuela, euskarari zegokionez, *Argiaren* aldean atzerapausu nabarmena izan bait zen: dirurik bazegoen, irakurlekoa ere bai, gogoia gainezka, baina gizarte eta prentsa euskaldunaren aldeko apusturik ez.

**10.- Euskaldunon Egunkariaren** erditze-prozesuak berean biltzen du hamarkada luzean izandako konfrontazio-giroa eta argi uzten du apustua eta beronen gabeziaren arteko diferentzia. Gainera, puntuz puntu errepikatzen du, herri dinamika eta Eusko Jaurlaritzaren arteko gatazka.

Itxaro zitekeenez, apustua txosten eta ikerketa sektorialak baino lehenagokoa izan zen. Egindako bileretan, EPrekiko (eta mugimendu euskaltzale osoarekiko) subjektu leialak bilatzen ziren. CIESek egin txostenak, sinesgogorrak erakartzeko bakarrik balio izan zuen, besteren aurrean bermerik izateko; finean, apustu hori egitea erokeria ez zela erakusteko. Baina *a posteriori*, apustua egin ondoren. Prozesuaren bidean agertu diren oztopo guztiek, errealak izan arren, ez dute zalantzan jarri proiektuaren bideragarritasuna; gainditu beharreko puntuak non diren zehaztu baizik.

Euskarazko egunkarirako planteoa bi bidetik dator: euskal prentsaren arazoa elebitasunetik soluzionatu nahaiaren porrota pertsonalki pairatu zutenetik; eta euskal prentsa euskaraz idatzirikoa dela pertsonalki erabaki zutenetik. Horrela, *porrotetik* euskarazko egunkaria planteiatzen zen bitartean; *erabakitik*, Euskal Prentsa bere osotasunean planifikatzea eskatzen zen. Azkenean, hauek bakarrik lortu dute euskarazko egunkari bat egitea; haiek berriz, erakunde autonomikoen proiektuarekin lerratuz (egin den bezala egin izan den neurrian) benetakoaren oztopo bihurtu dira objektiboki.

**11.-** Bi egunkari-proiektu egon dira baina egunkari bakarra: *Euskaldunon Egunkaria*. Beloki taldeak idatzitakoa (eta, aldaketa batzuren buruan, Eusko Jaurlaritzak berea egindakoa) ez da inoiz izan gauzatzekoa, herri mugimenduak aurkeztutakoa tratatzekoa baizik. *Egunero* izenez ezagutua, ez da egunkari bihurtu; 1992.eraiko aurrekontuetan, ez dager partidarik eta bere eragile nagusiak beste lanpostutan dabilta.

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

Beloki taldeak zeukan aukerari heldu zion: *Egunkaria Sortzen* promotorak idatzitako ez bezelako bat idazteari. Taldeak proposaturiko egunkari "osagarriak", beronen autonomia ukatzen du, gizarte elebidunaren eta bertatik datozen ohitura zein egunkari elebidunen menpekotasuna adieraziz.

Belokik aurkeztu eta Joseba Arregik onarturikoaren artean ba da alde funtsezkorik: kazetariak ez zuten inoiz esan egunkariak Ajuria Eneako Ituna sinatu zuten partiduen esanetara makaurtu behar zuenik. Hori, Joseba Arregiren eta (suposatu behar da) bere partiduen (EAJ/PNV) inposaketa da. Halere, kazetariak irentsi egin zuten tamainako desitxuratzea.

**12.-** *Euskaldunon Egunkaria* Euskal Herria nazio-proiektuaren barne, eta bertan euskarak (hizkuntza nazionalak) eta euskal kulturak duen eginbidean, kokatzen da. Proiektu hau politikoa da, ez ordea alderdikoia; horregatik ukatzen da partiduen strategiara makurtzea. Alderantziz, estrategia kulturala aldarrikatzen da, zeina herri-estrategiaren izendatzea baino ez den, halabeharrez partiduen gainditzailea dena.

Bere egunean *Egunkaria Sortzen* promotorak idatzitako proiektua, egungo muga administratibo-politikoak gainditzeko saio bat da. Oraingoan bederen muga horiek ontzat ematen dituztenek, saio hau ulertzeko ezintasun berezia erakutsi dute, besterik gabe HB eta ENAMen estrategietan nahastu bait dute.

**13.-** *Euskaldunon Egunkariak* berea egin duen proiektua, zabala, irekia eta plurala izanarren, ez da indiskriminatua. Euskaldunontzat bakarrik egin izateaz aparte, egungo muga administratibo-politikoak gainditzeko du helburutzat, -bidean, joera bateragilea mantenduz-, eta proiektu-politiko baten (ez alderdikoia) parte izatearena: Euskal Herri batu, aske eta euskalduna. Hori da bere diskriminazioa.

**14.-** Militantzia etorkizunaren bermetzat jotzen denean, ez da diruz eskas dabilenak egin beharko duen ahalegina soilik aipatzen ari; euskarak eta euskal kultura ez normalduak, -oraindik eta luzarorako-, langile eskuzabalak eskatzen dituelako baizik. Euskal Prentsa nominazioa gauzatzen jarduten duen kazetariak, profesionari ona izateaz gain, euskara eta kultura nazionalaren militante behar du izan. *Gainezkadura* horrek ez

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

ditu erroak kazetaritzan, kontzientzia nazionalean baizik; egungo egoera politiko-diglosikoa gainditzeko premian eta lortzeko konfidantza betean, alegia.

**15.-Euskaldunon Egunkaria** ENAMen barruan ulertu behar da, baina birformulatu ondoren. ENAM anitzgunea, bi erataria uler daiteke: egitura gisa eta mugimendu gisa. Egitura gisa, Ezker Abertzalearen topaleku eta kokagunea da. Bere alde mugatu-mugatzaila da. Zentzu honetan ENAM gizartearen azpimultzoa da. Bere osagarriak KAS, HB eta berari lotutako elkarte sozio-politikoak dira. Mugimendu gisa begiratuta, -beraz, mugarik gabe-, Euskal Herriaren askapen-erakuslerik adierazgarriena da. Horrela begiratuta, sormen-gaitasun mugabakoa da ENAM. Indar subjektibo hori da bere benetako garantia eta biziraupen-gaitasuna. Maila honetan, Euskal Herriaren jaberazpen-prozesu orokorra erreibindikatzeko ados dena, (egiturak eta siglak alde batera), ENAMen kide da. Horrela begiratura, ENAM ez da gizartearen azpisail bat; Euskal Herriaren burujabetza-eremua eraikitzea bait du helburu ENAMek. Osotasun bat da. Geroko gizarte euskaldunaren diseinua da ENAM. Ez da beharrezkoa bere siglatan aritzea kide izateko. Nahikoa da erreibindikazio nazional horren kide izatea, eta, -praktikan, estatu espainiarrarekiko antagoniko izatea. Hori da herri mugimendua, zeinak, bere antagonismoa gizarte sektore desberdinetan arituz erakusten bait du. Zentzu honetan **-eta horretan bakarrik-** da ENAMekoa *Euskaldunon Egunkaria*.

*Argia* hamarkada luzean eta *egunkaria* azkenaldion, Euskal Prentsa gauzatzen duen subjektu kolektiboaren izenak diren neurrian, bortizki erasotuak izan dira sigla jakin batzurekin identifikatu ondoren. Baina benetako gatazka-iturria ENAM horren alde inkonsistenteak (egituratua den ezertan asigraezina) duen gaitasun mugagabea izan da. *Egunkaria Sorten* promotoraren ahalegina bere proiektua mugimenduari dagokiola azpimarratzean egon da, eta horregatik aldarrikatu du alderdikeriak gainditu beharra. Eusko Jaurlaritzarena, berriz, alderdien estrategiatan kokatzea, sakoneko arrazoia ezkutatuz (antagonismoa, edozein egitura abertzalean bizirik dirauena bestalde) eta partiduen arteko harira eramatea izan da. *Euskaldunon Egunkariaren* indarra, Euskal Prentsaren gorputz egituratuaren produktua den heinean, mugimendutik dator eta ez egituratik; hura sorkari mugagabea den bitartean, hau bere muga bait da.

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**eta 16.-** EP izendaturiko gertakizunaren azken helburua, prentsa idatziaren alorrean, egoera desberdin bat sortzea da, zeinean prentsaren kokagunea desberdina izango den: euskaran zentratua. Aitzitik, gertakizunaren umea den euskarazko prentsa, egungo egunkaria barne, kazetal-produktu huts bilaka daiteke, egitura elebidun-diglosikoaren parte huts, berak homologatu eta kontabanatua. Hori gerta ez dadin, zalapartan hasitako prozesua azken bururaino eraman behar da. Prozesuan, -azken helburua, prentsa-alorrean, gero eta hurbilago egitean datzan prozesuan-, *egunkariak*, indarrean dagoen kazetal-egiturarekin egiten du topo. Subjektuak bi posizioen artean baskulatzen du: *angustia*, zeinaren arabera, produktu berriak sortu, garatu, egokitu, defendatu eta merkatuan era konpetigarrian kokatzera bideratzen den; eta kemena, zeinaren arabera, iparra mantentzen saiatuko den, hots, euskal prentsa nazionala lortzen. Baina hori, bi posiziotan dialektikoki eramandako prozesuaren ondorioz etorriko da: emaitz zehatzak lortzeko premia eta, hori eskuratzeko, prentsa hutsaren alorra utzi eta Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialerako mugimenduekin lotu beharraren artean. Hau, egoeratik zirkulatzen duen *egia* orokorra da; eta eskuratutako lorpen zehatzak, *jakinak*, haren lekuko direnak gainera. Ez egunkari zein aldizkarien ugaritasun eta prestijioak, berez; ez eta elebitasunaren legea urratu ondoren lege berririk ez onartzeak, ekarriko du euskal prentsaren aldera egonen den aldaketarik *egoeran*. Egoeraren konponketa, gertakizunean nominatutako egiarekin leial jokatzuz dator.

## **BIBLIOGRAFIA**

### **Tesian aipatutakoa soilik**

**Agirre'tar Joseba Mirena-"Lizardi'at Xabier"**, Itz-Lauz, Antonio Maria Labayenek moldatua, EDILI, Donostia, 1972

**Aguilera, Octavio**, Las ideologías del periodismo, Paraninfo, Madrid, 1990

**Aitzol**, El poeta José Maria Agirre, Yakintza, 1933, 163-177 or.

**Aitzol, Idazlan guztiak-Obras completas**, Erein, Donostia, 1987

**Albert, Jacques etab.** Penser Classer in Le genre humain, 2. zb. Ed. du Seuil, 1988

**Amigo, M. L.**, guía para leer a Platón, Universidad de Deusto, Bilbo, 1989,

**Apalategi, Jokin**, Los vascos, de la autonomía a la indepenencia. Formación y desarrollo del concepto de nación vasca, Txertoa, Donostia, 1985

**Apery R.** etab. pensar la matemática, Tusquets, Barzelona, 1984

**Arana, Sabino**, Obras completas de Sabino Arana Goiri,

**Aristóteles**, Poétique, Ed. Les Belles Artes, Paris, 1969

**Askoren Artean**, Aitzol en su tiempo, Fundacion Sabino Arana, Bilbo, 1990

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Askoren Artean**, Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo, Jaki-Lankide aurreki Kuxa, Donostia, 1985

**Askoren Artean**, La prensa en los siglos XIX y XX. Metodología. Aspectos económicos y tecnológicos. UPV/EHUko Argitarapen Zerbitzuak. M. Tuñón de Lara - K. Garitaonandia, editatzaileak.

**Askorren Artean**, Hizkuntza minorizatuen soziologia, Tartalo SA., Bilbo, 1984

**Azkargorta, Antton - Xamardo, Nikolas**, Egia eta egiantzekotasuna: Prentsa Euskadin, Uztaro-UEU, 0 zb.1990

**Azkargorta, Antton, - Xamardo, Nikolas**, Herri mugimenduak eta komuikazio-prozesua, Uztaro-UEU, 1991, 3. zb.

**Azkargorta, Antton**, Editorialea gertakizunaren aurrean: El País eta Euskadi, doktorego tesia, UPV 1988

**Badiou, A., Bellassen, J., Mossot, L.**, le noyau rationnel de la dialectique hégélienne. Commentaires autour d'un texte de Zhang Shiyong, Maspero, Paris, 1978

**Badiou, A.**, Six propriétés de la vérité, Ornicar, 32-33 zb. 1985

**Badiou, Alain.**, Est-il exact que toute pensée émette un coup de dés?, Les conférences du Parroquet, Le perroquet, Paris, 1986, Urtarrila, 5.zb.

**Badiou, Alain.**, L'Être et l'événement, Ed. du Seuil, Paris, 1988

**Badiou, Alain.**, Manifiesto por la filosofía, Ed. Cátedra, Madrid, 1990

**Badiou, Alain.**, Théorie du Sujet, Ed. du Seuil, Paris, 1982

**Bardin, Laurence**, Análisis de contenido, Akal, Madarid, 1986

**"Beltza", Emilio López Adan**, El Nacionalismo Vasco 1876=1936, Txertoa, Donostia, 1976

**"Beltza", Emilio López Adan**, Nacionalismo vasco y luha de clases, Txertoa, Donostia, 1976

**Benito, Angel**, Lecciones de teoría general de la información, García Blanco, Madrid, 1989

**Boole, George**, El análisis matemático de la lógica, Cátedra, Madrid, 1984

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Borrat, Héctor**, El periódico, actor político, Gustavo Gili, Barcelona, 1989

**Camino, Iñigo, Guezala de, Luis**, Juventud y nacionalismo vasco, Fundación Sabino Arana, Bilbo, 1941

**Corcuera, Javier**, Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1936, Siglo XXI, Madrid, 1979

**Charriton, Piarres**, R. de Azkue eta P. Broussainen arteko Elkarridazketa, Iker-4, Euskaltzaindia, 1986

**Dahrendorf, Ralf**, Sociedad y Libertad. Hacia un análisis sociológico de la actualidad. Tecnos, Madrid, 1971

**Desantes, José María**, La función de informar, EUNSA, Iruñea, 1976

**Díaz Noci, Javier**, EUskarazko prentsa XX. mendean. (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena. Doktorego tesia, UPV, 1992

**Díaz Nosty, Bernardo, etab.**, La nueva identidad de la prensa. Transformación tecnológica y futuro, Los libros de Fundesco, Madrid, 1987

**Dibois, etab.**, Dictionaire de Linguistique, Larousse, Paris

**Diccionario de Lingüística**, Labor, SA., Barcelona, 1979

**Documentos**, Hordago, Lur, Donsotia, 1979

**Dovifat, Emile**, Periodismo, UTHEA, 1964

**EGIN-Anuario**, 15 años de historia vasca, ORAIN S.A. Hernani, 1991

**Ekman, Paul**, Cómo detectar mentiras, Paidós, Barcelona, 1991

**Elorza, Antonio**, Las ideologías del nacionalismo vasco, Haranburu, Donostia, 1978

**Ellul, Jacques**, Propagande, New York, Knopf, 1965

**Estornés Zubizarrea, Idoia**, la construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931), Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección Historia Geografía, 14 zb. Donostia, 1991

**Estornés Zubizarreta, Idoia**, La Sociedad de Estudios Vascos 1918-1936, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Fenichel Pitkin, H.** Whittgenstein: El lenguaje, la política y la justicia. Centro de estudios Constitucionales, Madrid, 1984

**Fernández Sebastian, Javier,** Prensa y publicística vasconavarra en la crisis del Antiguo Régimen. Doktorego tesia, UPV, 1989

**Ferrater Mora, J.,** Diccionario de Filosofía, Alianza Editorial, Madrid, 1979

**Fishman, M.,** La fabricación de la noticia, Tres Tiempos, Buenos Aires, 1983

**Fraguas De Pablo, María,** Teoría de la desinformación, Alhambra, Madrid.

**Freud, Sigmund,** Obras completas, Orbis, Barcelona

**Freud, Sigmund,** Psicología de la vida cotidiana, Alianza Editorial, Madrid, 1967

**Fusi, Juan Pablo,** El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad, Alianza, Madrid, 1984

**Fusi, Juan Pablo,** Pluralismo y nacionalidad, Alianza, Madrid, 1984

**Genot, G.,** L'écriture libératrice in Le Vraisemblable, 11 zb., Ed. du Seuil, Paris, 1968

**Gómez Pin, Víctor,** Hegel Barzelona, 1983

**Gritti, J.,** La presse et la communication vraisemblable in Systemes partiels de communication, Paris-La Haye, Mouton, 1972

**Guillou, Bernard,** Les strategies multimedias des groupes de communication, La documentation française, Paris, 1984

**Guitar, René,** La courbure de la raison. Les conférences du perroquet, 31 zb. Le perroquet, Paris, 1991

**Hegel, G. W. F.,** Ciencia de la lógica, Solar-Hachette, Argentina, 1968

**Hegel, G.W.F.,** La relation du scepticisme avec la philosophie, Urin, Paris, 1986

**Heidegger, Martin,** Chemins qui ne menent nulle part, Gallimard, Paris, 1980

**Imbert, Gérard,** El País, la referencia dominante, Mitre, Madrid, 1986

**Innenarity, Daniel,** Praxis e intersubjetividad. la teoría crítica de Jürgen Habermans, EUNSA, Iruñeaa, 1977

**Intxausti, Joseba,** Euskara, euskaldunon hizkuntza, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Isasi, Xabier**, Hizkuntzaren arteko ukipena gizarte elebidunetan, Doktorego tesia, UPV, 1991

**Jemein, Ceferino**, Biografía de Arana Goiri'tar e Historia del nacionalismo, Edit. General, Bilbo, 1935

**Kant, Im.**, Crítica de la razón pura, Losada, Buenos Aires, 1973

**Kierkegaard, Sören**, Temor y temblor, Editora Nacional, Madrid, 1975

"**Kizkitza**", **Engracio Aranzadi**, Ereintza, Edit. Vasca, Zarautz, 1935

**Kizkitza, Engracio Aranzadi**, La Nación Vasca, Verdes, Bilbo, 1931

"**Kondaño**", **Angel Zabala Ozamiz**, Primeros años del ancionalismo, Edit. general, Bilbo, 1935

**Koyré, Alexandre**, Estudios de historia del pensamiento científico, Siglo XXI, Madrid, 1983

**Lacan, Jacques**, Escritos, I, S.XXI, 1972

**Lacan, Jacques**, Escritos, II, Mexico, S.XXI, 1987

**Larronde, Jean Claude**, El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana, Txertoa, Donostia, 1978

**Lefebvre, Henri**, La presencia y la ausencia. Contribución a la teoría de las representaciones. Fondo de Cultura Económica, México, 1983

**Lekuona, Manuel**, Idazlan Guztiak

**Listing, Johann.**, Introduction à la topologie, Novarin, Paris, 1989

**Lizardi, Xabier**, Kazetari-lanak, Lurdes Otaegik moldatua, Erein, Dnostia, 1987

**Lizardi, Xabier**, kazetari Lanak, Lurdes Otaegik apailatua, Erein, Donostia, 1987

**Lorenzo Espinosa, José María**, Gudari, una pasión útil: Eli Gallasategi 1892-1974, Txalparta, Tafalla, 1992

**Mainer, J.C.**, Regionalismo, burguesía y cultura, Revista de Aragón (1900-1905) y Hermes (1917-1922), Guara, Zaragoza. 1982

VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Martínez Albertos, José Luis**, La información en una sociedad industrial, Tecnos, Madrid, 1981

**Martínez Albertos, José Luis**, Curso general de la redación, Paraninfo, Madrid, 1989

**Mendizabal, Luis Maria**, La Voz de Nabvara, un caso de periodismo vasco. Lizentzi-tesina, Faculta de Ciencias de la Información, Universidad de Navarra, Iruñea, 1974

**Merril, C., Lee J., Friedlander, E. J.**, Medios de comunicación social. Teoría y práctica en Estados Unidos y en el mundo, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1992

**Metz, Christian**, Le dire et le dit au cinéma in Le Vraisemblable, 11 zb., Ed. du Seuil, Paris, 1968

**Ninyoles, R. LL.**, Cuatro idiomas para un estado, Ed. Cambio 16, Madrid, 1977

**Onaindia, Santiago**, Euskal Literatura, Etor, Bilbo, 1976

**"Ortzi", Francisco Letamendía**, Historia de Euskadi: El nacionalismo vasco y ETA, Ruedo Ibérico, Paris, 1975

**Pascal, Blaise**, Pensées, in Oeuvres Complètes, Gallimard, Paris, 1954

**Perea Txabarri, Xabier**, Kirikiñoren Idazlanak "Euzkadi" izparringian (1913-1927). Kopia idazmakintuak. Labayru Biblioekan gordeak.

**Perelman, Ch.**, L'empire rhétorique, J.Urin, Paris, 1988

**Platón**, Diálogos, Gredos, Madrid, 1988

**Ramírez, Pedro J.**, Prensa y libertad, Unión Editorial, Madrid, 1980

**Real Academia Española**, Diccionario de la Lengua Española, XX. ed., Espasa Calpe, Madrid, 1984.

**Reizabal, Gorka**, Eguna, único diario en euskara. Lizentzi-tesna, Universidad de Navarra, Iruñea, 1973

**Ricoeur, Paul**, La métaphore vive, Ed. du Seuil, Paris, 1975

**Rodrigo Alsina, Miquel**, La construcción de la noticia, Paidós, Barcelona, 1989

**Rosental, M. M., Iudin, P. F.**, Diccionario de Filosofía, Akal, Madrid, 1974

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Ruiz de Gauna, Adolfo**, Catálogo de publicaciones periódicas de los siglos XIX-XX, Eusko Ikaskuntza-Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saila, Donostia, 1991

**Saez de Valdivielso, Alfonso Carlos**, Triunfo y tragedia del periodismo vasco (1900-1939), Editora Nacional, Madrid, 1977

**San Sebastian, Koldo**, Jesús de Sarria: Nacionalismo y heterodoxia, Alderdi, 1985

**Sánchez Carrión, Jose María**, "Txepetx", Un futuro para nuestro pasado, Elkar, Donostia, 189

**Sánchez-Bravo Cenjor, Antonio**, Objetividad en el discurso informativo, Pirámide, Madrid, 1978

**Sarrailh de Ihartza**, Vasconia, Norbait, Buenos Aires,

**Saussure, Ferdinand.**, Curso de lingüística general, Losada, Buenos Aires, 1971

**Seiler, Daniel L.** La politique comparée, Armand Colin, Paris, 1982

**SIADeco-Euskaltzaindia**, El libro blanco del euskara Bilbo, Euskaltzaindia, Elkar, 1977

**Solozabal, Juan José**, El primer nacionalismo vasco, Industrialismo y conciencia nacional, Tucur, Madrid, 1975

**Staline, J.**, Les questions du leninisme, Editions de langues étrangères, Pekin, 1977

**Tchang En-tsé**, Verdad y conocimiento, Akal, Madrid, 1976,

**Torrealdai, Joan Mari**, Euskal Idazleak, gaur, Jakin, Arantzazu, 1977

**Torrealdai, Joan Mari**, Euskal Telebista eta Euskara, Elkar, Donostia, 1985

**Tuchmann, Gaye**, La producción de la noticia, Gustavo Gili, Barcelona, 1983

**Van Oberveke**, Introduction au problème du bilinguisme, Labor, Bruxelles, 1972

**Vélez de Mendizabal, Josemari**, Iokin Zaitegi, Arrasate, 1981

**Veron, Eliseo**, Construire l'événement. Les médias et l'accident de three mile Islands, Minuit, Paris, 1981

**Yarce Jorge** (editatzailea), Filosofía de la comunicación, EUNSA, Iruñea, 1986

VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

**Zelaieta, Xabier**, Lizardiren pentsamendu nagusiak, in Xabier Lizardi, Jakin 1974

## **Iturriak (Maiz aipatzen direnak soilik)**

### **Aldizkariak**

Agur, Aberri, Aizu!, Alderdi, Anaitasuna, Arabarra, Argia (gerraurrekoa), Argia, Argia Urtekariak (1984199), Baserritarra, Bat, Berriak, Bizkaitarra, Bizkaitarra, BSEV, Eguna, Elhuyar, Ekin, ERE, Eskualduna, Euskal Erria, Euskal Erriaren Alde, Euskal Esnalea, Euskal Herriko A.ren A.-B.O. del País Vasco, Euskalduna, Euskalzale, Euskera, Euskeraren Berripapera, Eusko Ikaskuntzaren Deia, Eusko Jakintza, Euzkadi, Euzkerea, Euzko Deya, Euzko Gogoia, Euzko, Garaia, Gipuzkoarra, Goiz Argi, Gure Heria, HABE, Hemen, Hermes, Herria, Herriz Herri, Ibaizabal, Jagi Jagi, Jakin, Jaungoiko Zale, LARRUN, Mendigoxale, Muga, Napartarra, Punto y Hora de Euskal Herria, Karmel, Revista Euskara, RSBAP, Uztaro, Yakintza, Zabal, Zehatz, ZER, Zeruko Argia,

### **Egunkariak**

Aberri, Deia, Diario de Navarra, Diario Vasco, Egin, Egin-Anuarios, Eguna, El Correo Español-El Pueblo Vasco, El Correo Vasco, El Día, Euskaldunon Egunkaria, Euzkadi, La Voz de Euskadi (Orria), La Voz de Navarra, Navarra Hoy, Patria, La Patria, Tierra Vasca.

### **Agiriak**

\*ARGIAtik Euskal Herriko Aginte Publikoei, 1983

\*CIES, Euskarazko Aldizkako Argitalpenak edo aldizkariak. Euskarazko Egunkaria. Iruñea, 1989

\*CIESen azterketari egindako oharrak. Iñaki Larrañagak sinatua.

\*Egunkariari projektuaren promozio kanpainaren zirriborroa. Egunkaria Sortzen.

## VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

\*EKBren Agiriak (EKBren Dokumentazio Zerbitzua)

\*Estructura y política de Comunicación en Euskadi. (K. Garitaonandia, R. Zallo, A. Gurra, S. Zunzunegi, J. A. Mingolarra, J. V. Idoyaga,) UPV. Ale fotokopiatua. (IAMCR-AIERI Barzelona, 1988an argitaratua).

\*Estudio economico-financiero para la publicación de un diario en euskera. Consultores Irigoyen & Pérez Calleja. Abril 1991

\*Estudio sociolingüístico del euskara, SIADECO, 1977

\*Euskal Herrian Euskaraz, Agiria, 1979-XI-4

\*"Euskaldunon Egunkaria", Iñaki Zabaletaren zuzendaritzapean, UPVn egindako azterketa. Doktorego aurreko ikerketak. 1990. Egileak: Itxaso Fernández, Joxan Goñi, Maite Arrese, Sabiño Madariaga, Nerea Bello.

\*Euskarazko egunkaria, Beloki taldearen proiektua, 1990

\*Euskarazko egunkarirako proiektua, Egunkaria Sortzen, 1990

\*Euskarazko egunkari eta aldizkari buruzko ikerketa baten aurreproiektua. SIADECO, 1988-II.

\*Hizkuntz politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo batzordearen aurrean", Eusko Jaurlaritzaren argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1991-XI-14

\*Jaurlaritzari Txostena, Argia, 1987

\*Prensa Lokalari buruzko 1. Ihardunaldiak. txostenen bilduma, Arrasate, 1991-XI-22/23.

## **Lege-arauak**

\* Constitución Española, (1978),

\* Euskal Herrirako Autonomia Estatutoa (1979),

\* Foru Legea 18/1986, Abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa (1986-12-17ko NAO)

\* HABE Legea, 29/1983, Gasteizko Legebiltzarrean 1983-XI-25an onartua

VIII. Atala: konklusio eta ondorioak

\* HABE Lege-Arauk, Eusko Jaurlaritzak Argitaratuak, Donostia, 1986-X-1

Nafarroako Foru Eraentzaren Birezari eta Hobeagotzeari buruzko Ituna (1979)

\* Oinarrizko legea, 10/1982, Azaroaren 24ekoa, euskararen erabilpena arauzkotzekoa (EHko A.ren A., 1982 Abenduaren 16an)